

JOAKIN LIZARRAGA, ELKANOKOA

URTEKO IGANDE  
GUZIETARAKO  
PREDIKU LABURRAK

Edizio kritikoa  
**Frantzisko Ondarrak paratua**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
BILBAO 1990

## *Urteko igande guzietarako...*

JOAKIN LIZARRAGA

La figura de Joaquín Lizarraga era casi completamente desconocida hasta el estudio publicado por Juan Apecechea el año 1978. Se sabía algo, pero aún eso con errores, sobre su vida. Se sabía un poco más en lo referente a sus escritos. Pero muy poco había visto la luz pública: un evangelio, un poema y poco más.

La colección «Lekukoak» le ha otorgado un puesto privilegiado, pues se inició con un texto suyo, al que le siguieron dos volúmenes más, que son los números 9 y 10, y ahora le toca el turno al cuarto, el 16. Es un acto de justicia a este cura de aldea, cuyo ideal fue alimentar la mente de la gente de los pueblos de habla vasca de Navarra. Porque todos sus catecismos y sermonarios están redactados en euskera en un lapso de tiempo que va del año 1771 al año 1821.

El que ahora aparece tuvo, a decir verdad, una primera edición el año 1846 con el nombre de *Urteko igande guzietarako platicac edo itzaldiac*. Pero no fue publicado como lo escribió su autor, o sea, en el dialecto alto navarro meridional, sino cambiado grandemente al dialecto guipuzcoano. El preparador de esa edición fue el fabulista Iturriaga.

Como lo indica el título, se trata de una colección o serie de sermones para todos los domingos del año, en su mayoría sermones breves. Pretende proporcionar alimento espiritual a los habitantes de las aldeas, siguiendo un mandato del concilio de Trento. Se ordena en él a los que tienen cura de almas que al menos los domingos y fiestas solemnes adoctrinen al pueblo a su cuidado con palabras breves y sencillas en todo lo necesario para su salud, para conseguir así el cielo. Le preocupa el pueblo humilde y sencillo. Termina su introducción, calificándose de cura de aldea: «Scriptp â quodam Parocho rusticano».

La presente edición ha sido preparada a base del original manuscrito y cuidadosamente encuadrado en pergamino por el autor, que se conserva en el archivo del convento capuchino de Hondarribia/Fuenterrabía (Guipúzcoa) al lado de la adaptación al dialecto vizcaíno del *Gero* de Axular, realizada por Añibarro. Procura ser una copia fiel del original, de modo que pueda utilizarse para el estudio del acento, que Lizarraga emplea profusamente, etc.

A poco que se lea la obra, se observa el influjo de Larramendi sobre nuestro vicario de Elcano en la parte léxica. Y es que no hay que olvidar la edu-

6095



URTEKO IGANDE  
GUZIETARAKO  
PREDIKU LABURRAK

COLECCION EUSKARAREN LEKUOAK - 16



JOAKIN LIZARRAGA, ELKANOKOA

URTEKO IGANDE  
GUZIETARAKO  
PREDIKU LABURRAK

Edizio kritikoa  
**Frantzisko Ondarrak paratua**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
BILBAO 1990

© Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia  
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISBN: 84-85479-51-3

Legezko Gordailua: BI-1157-90

Maketazioa: R.B.U.

Fotokonposaketa: IPAR, E.K.

Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimategia: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

Avda. Ribera de Erandio, 4. Erandio-Bizkaia



## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
Ad Majorem.....	9
Meáchuac .....	10
Abenduko 1. igandea.....	12
Abenduko 2. igandea.....	19
Abenduko 3. igandea.....	26
Abenduko 4. igandea.....	31
Eguberri zortziurreneko igandea.....	38
Agerkunde zortziurreneko igandea.....	44
Agerkunde ondoko 2. igandea.....	53
Agerkunde ondoko 3. igandea.....	58
Agerkunde ondoko 4. igandea.....	63
Agerkunde ondoko 5. igandea.....	69
Agerkunde ondoko 6. igandea.....	75
Zazpi-asteko igandea.....	80
Sei-asteko igandea.....	86
Bost-asteko igandea.....	91
Gurutzadako bulda sandua.....	95
Garizumako 1. igandea.....	102
Garizumako 2. igandea.....	109
Garizumako 3. igandea.....	116
Garizumako 4. igandea.....	125
Pasio igandea.....	134
Erramu igandea.....	142
Pizkunde igandea.....	147
Pazko zortziurreneko igandea.....	155
Pazko ondoko 2. igandea.....	166
Pazko ondoko 3. igandea.....	170
Pazko ondoko 4. igandea.....	177
Pazko ondoko 5. igandea.....	184

Pentekostes ondoko 3. igandea .....	190
Pentekostes ondoko 3. igandea: 2. hitzaldia .....	195
Pentekostes ondoko 4. igandea .....	200
Pentekostes ondoko 4. igandea: 2. hitzaldia .....	205
Pentekostes ondoko 5. igandea .....	210
Pentekostes ondoko 5. igandea: 2. hitzaldia .....	215
Pentekostes ondoko 6. igandea .....	221
Pentekostes ondoko 6. igandea: 2. hitzaldia .....	226
Pentekostes ondoko 7. igandea .....	231
Pentekostes ondoko 8. igandea .....	236
Pentekostes ondoko 9. igandea .....	241
Pentekostes ondoko 10. igandea .....	244
Pentekostes ondoko 11. igandea .....	249
Pentekostes ondoko 12. igandea .....	254
Pentekostes ondoko 13. igandea .....	261
Pentekostes ondoko 14. igandea .....	266
Pentekostes ondoko 15. igandea .....	273
Pentekostes ondoko 15. igandea: 2. hitzaldia .....	277
Pentekostes ondoko 16. igandea .....	281
Pentekostes ondoko 16. igandea: 2. hitzaldia .....	286
Pentekostes ondoko 17. igandea .....	290
Pentekostes ondoko 17. igandea: 2. hitzaldia .....	295
Pentekostes ondoko 18. igandea .....	299
Pentekostes ondoko 18. igandea: 2. hitzaldia .....	302
Pentekostes ondoko 19. igandea .....	306
Pentekostes ondoko 19. igandea: 2. hitzaldia .....	311
Pentekostes ondoko 20. igandea .....	314
Pentekostes ondoko 20. igandea: 2. hitzaldia .....	318
Pentekostes ondoko 21. igandea .....	321
Pentekostes ondoko 21. igandea: 2. hitzaldia .....	327
Pentekostes ondoko 22. igandea .....	331
Pentekostes ondoko 22. igandea: 2. hitzaldia .....	335
Pentekostes ondoko 23. igandea .....	340
Pentekostes ondoko 23. igandea: 2. hitzaldia .....	345
Pentekostes ondoko 24. igandea .....	348
Pentekostes ondoko 24. igandea: 2. hitzaldia .....	352
Besta Berri zortziurreneko igandea.....	356
Bertsoak .....	365
Purgatorioko arimei buruzko hitzaldia .....	372
Index edo Lizarragaren aurkibidea.....	385
Eraskina (Indice alfabético) .....	388
 Bibliografia .....	 395

# Sarrera

## Joakin Lizarraga

Ezaguna denez, Joakin Lizarraga (1748-1835) Iruñerriko Elcano herrixkan jaio eta hila da. Ikasketak jesuitetan eta Iruñeko apaizgaitegian egin ondoren, bere herrira joan zen berriro, heriotzea heldu arte bertako bikario izan zerlarik.

## Lizarragaren lanak

Bere bizitza luzean erruz idatzi zuen, ia den-dena euskaraz. Ezagutzen dugun beraren lehenbiziko sermoia 1771.urtekoa da, eta azkeneko kristau-ikasbidea 1821. urtekoa<sup>1</sup>. Elkanoko euskara, Bonaparte Printzeak dioen bezala, goi nafar hegoaldeko euskalkian sartzen da, eta Lizarragaren lan guztiak horren proga dira.

Bera bizi zelarik, ez zen beraren lanik argitaratu. Hil ondoren, guk orain argitaratu dugun liburu hau izan zen inprimatua Donostian, 1846. urtean<sup>2</sup>. Ez zen ordea agertu Lizarragak idatzi zuen bezala, baizik gipuzkeraren kutsu haundia ematen ziotela.

---

<sup>1</sup> Ikus P. ONDARRA, «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», FLV 4 (1972) 265-281.

<sup>2</sup> Izen hau eman zioten: *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac* Nafarroan, Elcano deritzan errian, bertaco vicario jaun Don Joaquin Lizarragac compondu eta predicatuac. DONOSTIAN Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguien, 1846. Liburuari eman diogun izenburu edo titulua guk asmatua da, Lizarragak latinez jartzen duen izenburua, hots, «Sermones breves pro Dominicis totius anni...» berak erabiltzen duen euskarara itzultzen dugularik.

Azkueren hiztegi haundian askotan, 321 bat aldiz, edaten da iturri honetatik. Baina esan behar dugu, gehienetan, 187 bat aldiz<sup>3</sup>, ez duela Lizarragak hori, edo horrela, edo esanahi horrekin idatzi.

## Eskuidatzia

Larruz josia dago<sup>4</sup> eta neurri hauek ditu: 205 × 150 mm. Orrialdeak 2 zenbatu gabe eta 314 aurrekaldetik bakarrik zenbatuak dira. Bestalde, 138 eta 138at. orrialdeak bi aldiz daude, gaia diferentea dutela.

Eskuizkribua 1802. urtean izan zen idatzia, eta bizkarrean hau dauka: «+ /Pro/Dominicis/totius anni/Sermones breves/Cantabrico»<sup>5</sup>. Lehenbiziko orrialdean, zebaturagabekoetan, honela ageri da liburuaren gaia eta izena: «Sermones breves pro Dominicis totius Anni de diversis materiis juxta diversitatem Evangelioru(m) occurrentium».

## Eskuidatziaren edukia

Zenbatu gabe dagoen 1. orrialdean liburuaren gaia, noiz izan zen egina eta nork idatzi zuen ageri dira. Zenbatu gabe dagoen 2. orrialdean, Jainkoaren mandamentuei buruzko bertsoak<sup>6</sup>. 1-149at. orrialdeetan, hirurogei eta hiru sermoi: horietako bat Buldarekikoa da eta beste guztiak urteko igandetarakoak, zenbait igandetarako bi sermoi direla. Gero, 150-151at., *carmina* edo Eukaristiarekiko koplak<sup>7</sup>. 152-155at., purgatorioko arimei buruzko hitzaldia, Iruñerriko Uhartan 1790. urtean predikatua. 156-156at., liburuaren *Index* edo aurkibidea<sup>8</sup>.

---

<sup>3</sup> Ikus Francisco ONDARRA, «Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue», FLV 12 (1980) 107-141. Lan honetan esaten dugu, 108. orrialdean, Azkuek 214 aldiz ez duela ongi hartu Lizarragatik; baina uste dugunez, egiatik hurbilago dago esatea 187 bat aldiz huts egin zuela.

<sup>4</sup> Ikus 1. oharpeneko lana, batez ere bertako 273-274 orrialdeak; baita ere Juan APECECHEA, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*. Pamplona, 1983 (batez ere 246-247 orrialdeak).

<sup>5</sup> Ikus 4. oharpenean aipatutako lanak.

<sup>6</sup> Hemen argitaratuak: *Euskal Erria* 8 (1883) 251; Juan APECECHEA, *Lizarraga Elkanokoa. Koplak*. Bilbao 1983, 208. orrialdean.

<sup>7</sup> Aurreko oharpenean aipatu dugun J. APECECHEAren liburuan, orrialde hauetan: 181. eta hurr., 187 eta 190. eta hurr. orr.

<sup>8</sup> Eskuidatziarekin batean gordetzen dira lau orri izenburu eta gai honekin: «Índice alfabético de algunas palabras de esta obra para su mejor inteligencia». Izenburu hau bera

## Aldaketak

Lehenbiziko orrialdeetan, 5at. orrialderaino, aldaketa asko dau-  
de lerro tartean ipiniak; 12at. orrialdean ere badago aldaketa bat.  
Donostiako argitalpena paratu zuenak eginak dira eta edizione ho-  
rretan agertu ziren. Agustín Pascual de Iturriaga<sup>9</sup> izan omen zen lan  
hori prestatu zuena. Aldaketak morfologia ukitzen dute batez ere,  
noizean behin hiztegiaren eremuan ere sartzen direla.

*Morfologian* gerta daiteke a) bukaerako -s aldatu eta -z egitea;  
b) bukaeran -n eranstea aditzeko lehenaldian eta deklinabideko so-  
ziatiboan; d) hitzaren barruan letra edo silabaren bat sartzea; etab.

*Hiztegian* ikusten dugu 4. orrialdean «ladron» *lapurrac* bihurtu  
dela; hor bertan Lizarragaren «Christio» *Christio edo cristauac* bila-  
katu dela; etab.

*Sintaxian* ere badago aldaketatxoren bat edo beste. 1. orrialdean  
Lizarragak idatzi du «baitaré seguituciren resúltac *andic*» eta honela  
patu dute: «baitaré *andic* seguituciren resúltac».

## Idazkera

Lizarragaren beste liburuetan erabiltzen den idazkera bera  
aurkitzen dugu hemen ere<sup>10</sup>. Laburkiro ematen dugu ezagutzera,  
irakurlearen lagungarri. Gaur egungo alfabetoa hartzen dugula oi-  
narrizat, Lizarragak nola adierazten dituen euskal soinuak jakin  
erazten dugu.

*Bokalak* gaur egun erabiltzen diren bezala idazten dira. Hala  
ere, *i* ezarri beharrean ezartzen du *y* ere noizean behin: *yago* 3,2;  
*ayén* 3,2; *ay ta oy* 6,1.

---

ipini zuten Donostian argitaratu zutenean. Lau orri horietako lehenbiziko zazpi orrialde-  
tan ageri diren hitzak agertu ziren 1846. urteko liburuan. Paper horietako letra Iturriagare-  
na da, hola jakin erazi zigun Justo Maria Mokoroa Aitak, guk horretaz galdetu ondoan.

<sup>9</sup> Ikus Francisque-Michel, *Le Pays Basque*, Paris 1867, 524 h. orrialdeetan. Honela  
dio: «Je n'ai plus à citer qu'un recueil de sermons paru en 1847, bien que le titre porte 1846.  
Il est ainsy conçu: Urteco igande guztietaraco platicac, edo itzaldiac nafarroan, elcano deriz-  
tzan errian... On a commencé l'impression du livre par ces deux feuillets: ce qui explique  
pourquoi il porte la date de 1846, tandis que la publications n'en a eu lieu qu'en 1847, *par  
les soins de D. Agustín Pasqual Iturriaga*» (guk azpimarratu dugu); eta Resurrección María  
de AZKUE, *Morfología Vasca*, Bilbao 1925, 585. orrialdea: «El autor que más flexiones de  
esta naturaleza muestra es Lizarraga el de Elkano, no ciertamente en su *Urteco igande guztie-  
taraco platicac edo itzaldiac*, obra que antes de salir a luz fue retocada por Iturriaga y despro-  
vista de muchos nabarrismos». Oharpen hauetako 8.ean ere hitz egin dugu gai honetaz.

<sup>10</sup> Juan APECECHEA, *Joakin Lizarraga, Elkanokoa. Doctrina Christioarén catechi-  
ma* Pamplona 1979, 25hh. orrialdeetan; Francisco ONDARRA, *Ongüi iltzen laguntzeco  
itzgaiac*, Bilbao 1984, 17. eta hurr. orrialdeetan.

*Kontsonanteak* honela aurkitzen ditugu idatziak:  
*b* eta *v* erabiltzen ditu gaur egungo *b* adierazteko.  
*c* eta *z* erabiltzen ditu gaurko *z* adierazteko; eta noizean behin  
*tz* ipini beharrean ere bai.  
*d* gaur bezala ageri da beti.  
*f* erabiltzen du eta ez *ph*.  
 Gaurko *g* adierazteko, *g* eta *gu* erabiltzen ditu.  
 Gutxitan erabiltzen du *h*.  
 Gaur egungo *j* adierazteko, *g* eta *j* erabiltzen ditu; eta, uste dugu-  
 neuz *x* ere bai: *floxóquí* 3,1; *exémplu* 3,1. Ik. ere *trabájua* 5at., 2; *meré-  
 ji* 5at., 2; *Jesus* 5. Baina *játeco* 56,2; *chsaten* 34,3.  
 Gaurko *k*-ren ordez *c*, *ch* eta *qu* erabiltzen dira.  
*l* gaur bezala ageri da; *ll* ere bai.  
*m* eta *n* ere gaur bezala. Bai ta *ñ* ere.  
*p* ere gaur bezala.  
*qu* erabiltzen du *k*-ren ordez. Ik. goian *k*.  
 Noizean behin *rr* idazten du silaba bukaeran: *marrmárr* 6,1.  
*s* gaur bezala.  
*t* gaur bezala; baina noizean behin —*tt*— bikoitza ageri da, gainean  
 laburgailu marratxo bat duela, *t* bustia adierazteko: *gutiñtobat* 2,2.  
*ts* gaur bezala adierazten da.  
*tx* adierazteko, *ch* erabiltzen du.  
*tz* idazten du gaurko *tz* adierazteko; baina noizean behin *c* eta  
*z* ere. Aurkitu dugu *tc* ere: *lográtceagátic* 51at.,2.  
*v* askotan ageri da, gaurko *b* adierazteko.  
 Gaur egungo *x* adierazteko, *chs* erabiltzen da. Hala ere aurkitu  
 dugu —*sš*— ere: *gaisštoac* 28,2. Ageri da —*x*— ere, baina gure iri-  
 tiziz *j* irakurri behar da. Ik. goian *j*.  
*y* gutxitan ageri da. Ik. goian, *Bokalak* izeneko paragrafoan.  
*z* adierazteko, *z* eta *c* ageri dira.

## Donostiako argitalpena

Esanik daukagun bezala, 1846. urtean Donostian argitaratu zu-  
 tenean liburu hau, aldaketa haundiak egin zituzten bertan bai mor-  
 fologiari dagozkionak, bai, askoz gutxiago bada ere, hiztegi eta sin-  
 taxiarekikoak.

Bestalde, eskuidatziko orrialde oso bat hiru lerro gutxi, 121at.  
 orrialdea, argitaratu gabe gelditu da Donostian, 341. orrialdean  
 egon behar lukeelarik. Bi esaldi hasten dira «Goácen orái» hitzekin,  
 bat orrialde horren 3. lerroan, eta bestea hurrengo orrialdearen ha-  
 sieran. Hortik etorri da okerra.

Aldaketak nolakoak diren ikus erazteko, zenbait adibide ipintzen ditugu, eskuidatziko pasarteak eta Donostiakoak elkarren ondoan jartzen ditugula.

### Eskuidatzian

«Dió evang(elio)an; S. Juan préso carcélean cegoláic, aituric Christorén óngui eguinac, bialicitio bi Discipulo galdeguiterá, beróri dá etorribeardéna, edo berce-ric esperatzendúgu? (4. orrialdea).

«Zoeiéla, dió Evang(elio)ac, aurr div(ino)a ázis ta indárr ártus, gorpútzean enténda, beteric chsaquintasúnes, eta Jang(oicoar)en gra(ci)a berabaitan, arima(n) ente(n)da. Exémplu dú Christioac, joatecó ázis ta indárrtus egunetic egunerá gra(ci)an, virtutean, chsaquintas(une)an.» (12at. o.).

### Donostian

«Dio Evangelioac, S. Juanec, preso cegoalaric carcelan, eta adituric Jesucristoren ongui eguiñac, bialduciozcala bi dicipulu galde eguiterá *berori da etorri bearduena, edo berce-ric esperatu beardegu?*» (9.o.).

«Zociela, edo cijoala, dio Evangelioac, aur divinoa indarra artuz, gorputcean entenda, au da bere gorputcean; betetcen jaquintasunez, eta Jaungoicoaren graziaz berabaitan, ariman entenda, au da bere ariman. Emen dauca cristabac egemploa joateco acitcen, eta indarra artcen egunetic egunera gracion, virtutean, jaquintasunean.» (32. o.).

## Gure argitalpena

Lizarragak idatzi zuen bezalaxe argitaratzen saiatu gara: hizkiak, puntuazioa, azentua, etab. Hala ere, eskuidatzian hain ugari ageri diren abrebiaketak deseginik ematen ditugu, guk ipinitako hizkiak parentesi barruan jartzen ditugula. Salbuespen bakarra *-que* silaba da: desegin ondoan abrebiaketa, ez dugu parentesirik erabiltzen. Parentesian ipintzen ditugu baita ere, 3. orrialderaino, jostura dela-ta, ezin irakurri diren zenbait letra; eta 152at. orrialdetik 155at. orrialderaino, papera usteldu egin delako, falta diren zenbait hizki.

Latin eta gaztelaniazko abrebiaketak ere deseginik ematen ditugu normalki<sup>11</sup>; baina ez dugu parentesirik erabiltzen guk erantsi ditugun letrendako.

---

<sup>11</sup> Badira desegin gabe ematen ditugunak ere. Hona hemen zenbait. 60. orrialdean, 2. paragrafo eta 8. lerroan hau dago: «(83 Quaest. § 71)». Uste dugu-nez, hau esan nahi du: «83 Quaestio(?), paragraphus 71».

*Eraskin bezala, goian aipatu dugun «Indice alfabetico de algunas voces...» (Ik. Sarrera deitu atalean 8. oharpena) ematen dugu ezagutzera, Iturriagak idatzi zuen bezalaxe.*

Bukatzeko. Badira bost urte eta gehiago lan hau prestatu eta argitaratua izan zedin eman genuela. Eta, jakina, gaur ez genuke hemen ageri den bezala egingo. Hala ere, esan daiteke ez dugula testu zaharra ukitu eta paratu genuen bezala uzten dugula. *Bibliografia* atalean aldatu edo berritu dugu gauzatxoren bat, besterik ia ez.

---

67at., 1, 3: «(ap. S. Theres. medit. sup. Pater n. p. 4)». Hau adierazteko: «apud Sanctam Theresiam meditationes super Pater noster pagina 4».

100at., 1 bukaeran «(Parr. p. 3 p. 22)». Nahi du esan: «Parra partrs (?) 3, pagina (?) 22».

116, 2, 1: «(diet. sal. tit. I. c. 3)». Nahi du esan: «dieta salutis titulus I caput 3».

123at., 2, 9: «(post. vit.<sup>m</sup> in monit. n. 11)». Nahi du esan: «post vitam in monitis (?) numerus 11».

Lizarragak «quadragessima» etab. idazten du. Guk ere horrela egin dugu deslaburtu dugun aldi bakarrean. Baina «vicesima» «undevicesima» eta «duodevicesima» gureak dira, berak zenbakiak erabili dituelarik eta ez hizkiak.



## Ad Majorem + Dei Gloriam

Sermones breves pro Dominicis totius anni de diversis materiis juxta<sup>1</sup> diversitatem Evagelioru(m) occurrentium:

Ad populum rusticanum sermone cantabrico, ut aliqualitèr satisfiat praecepto Tridentini<sup>2</sup> sessio quinta reformationes caput secundum.

(Archi) presbyteri<sup>3</sup> quoque, Plebani, et quicumque Parochiales, (vel a)liàs<sup>3</sup> curam animarum habentes ecclesias quocumque modo obtinent, per se, vel alios idoneos, si legitimè impediti fuerint, diebus saltèm Dominicis, et festis solemnibus plebes sibi commissas pro suâ et earum capacitate pascant salutaribus verbis, docendo ea, quae omnibus scire necessarium est ad salutem, annuntiandoque eis cum brevitate et facilitate sermonis vitia quae eos declinare, et virtutes, quae sectari oporteat, ut poenam eaternam evadere, eta caelestem gloriam consequi valeant & Ne illud impleatur, Parvuli petierunt panem, et non erat qui frangeret eis.

Scripti à quodam Parocho rusticano, Ad majorem Dei gloriam. Amen.

Anno Domini 1802  
D.J.L.E.V.<sup>4</sup>

<sup>1</sup> *Juxta* esan beharrean, *juxta* dio eskuidatziak.

<sup>2</sup> Eskuidatzian honela: «Trident. ses. 5. reform. c. 2.»

<sup>3</sup> Ezin irakurri da dena, orria hautsirik dagoelako.

<sup>4</sup> Lizarragak honela; baina hau esan nahi du: «Dominus Joachimus Lizarraga Elcani Vicarius» 'Joakin Lizarraga Jauna, Elkanoko Bikarioa'.

Iat.

## Meáchuac eztuztenéi<sup>1</sup> guardátzen amárr<sup>2</sup> mandam(en)tuac<sup>3</sup>

1. Jangoicoa sinétsi, onétsi, ta adorátu:  
Ezperén, obé, ezpacína mundurátu.
2. Non ere dén maldicio eta juraméntu,  
Eztá faltáco án miséria eta escarm(en)tu<sup>4</sup>.
3. Jangoicoari bere egúnac eztiónc<sup>5</sup> eman nái,  
Calte bere buruái, irabáci aiceái<sup>6</sup>, goraintzi Deabruái.
4. Hume onarí Jangoicoarén bedeicioa<sup>7</sup> eta fortuna<sup>8</sup>  
Hume gaichstoarí maldicioa eta desfortúna.
5. Gaizqui naidiónc bere proximo<sup>9</sup> lagunarí,  
Gaitz yágo<sup>10</sup> ematendio bere buruari.
6. Offenditzenduénac Jangoicoa gorputzagatic,  
Trucatzendú ón gucía ongarriagatic.
7. Apegatzenduéna<sup>11</sup> biótza lurreco ondasunái,  
Laquioan présó ematendá Deabruái.

---

<sup>1</sup> *ezdituztenei* idatzi zuen, Donostian 1846. urtean argitaratua izan zen *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac Nafarroan, Elcano deritzan errian, bertaco vicario jaun don Joaquin Lizarragac compondu eta predicatuac* prestatu zuenac. Jakina denez, Lizarragaren euskalkia eta Gipuzkoan erabiltzen dena nahasirik ageri dira edizione horretan. Agustin Pascual de Iturriagak (*It.*) prestatu bide zuen argitalpen hori.

<sup>2</sup> Bigarren *r*-ea ezabaturik: *It.*

<sup>3</sup> *mandamtuac* dago idatzirik, eta —*mt*— letren gainean laburgailu bat, azentu zirkunflexuaren antzekoa.

<sup>4</sup> *escarmtu* zegoen, laburgailu eta guzti; baina gero *escarmentu* egin dute: *It.*

<sup>5</sup> Gero *ez diozcanac*: *It.*

<sup>6</sup> Gero *aiceari*: *It.*

<sup>7</sup> Gero *bendeicioa*: *It.*

<sup>8</sup> *fortuna* hitzaren atzetik komarik bazegoen, ezin dugu esan.

<sup>9</sup> Gero «Gaizqui naidiónc bere lagun proximoarib»: *It.*

<sup>10</sup> Gero *guyágo*: *It.*

<sup>11</sup> Gero *Apegatzendan*: *It.*

8. Bere anáia condenátu, ta mias<sup>12</sup> ozca eguín  
Itendu murmurazaleac, baitu infernu-urrín.
9. Deseátzea bercerén viciquidéa  
Dá infernuráco lasterr-vidéa.
10. Deseátzeas haciénda berceréna,  
Prochuric ez, bai culpa ta pena.

---

<sup>12</sup> Gero *miaz: It.*

## Sermo in Dominica Prima<sup>1</sup> Adventûs

*De Judicio vitae nostrae.*

Videbunt filium hominis venientem. Luc. 21.

Egúngo Evang(elio)an aipatzentú<sup>2</sup> Jesus ónac cembáit señále azque(n) jui(c)ioco<sup>3</sup> egunarén<sup>4</sup>, ceñetas<sup>5</sup> erránda cerbáit azquen igándea(n): (24 p. pent.) (e)gún<sup>3</sup> aipatunaidut solam(ent)e juicio imbeardeña gure vicitzas. Cerdá (j)uicioa?<sup>3</sup> Da cóntuac ártzea Jáng(oico)ac guizonái, nola vicitudén múndua(n), (ta)<sup>3</sup> onén confórme sent(en-ci)a emátea beticós. Bi áldis imbeárda juiciogói, edo bi juicio dire; bát juicio particulára, edo beréchs arima bacóchas, despeitzendélaic gorputzetíc: bécea juicio universála gu(c)iétas<sup>3</sup> gucién preséncian, munduarén acabánzan. Lembic(ico)as dió S. Pa(bloc: (He)br. 9.)<sup>6</sup> *Statutum est hominibus & Dágo sententia<sup>7</sup> emaníc guizonéi ilceco (bein)<sup>3</sup> eta onen atzétic juicioa. Bigarr(en)as dió Crédoac, inde venturus est (judic)are<sup>3</sup> & Nondic etorricobaita azquén juicioco egúnean ilen ta vici (en juz)gátzera<sup>3</sup>. Egungúra izanendá azquén egúna, egún gucién egú(na c)eintará<sup>3</sup> biltzendiren guizón gucién dembórac, lén-goac, oraicoac, gue(roco)ac<sup>3</sup>; Jang(oicoar)en egúna propioqui; irarén egúna; calamid(ad)e, miséria, tem(pesta)de<sup>3</sup>, iluntásun, trompéta, sóñu, ta arroituarén egúna; egún an(dia t)a<sup>3</sup> amárgoa lázqui.*

<sup>1</sup> «Dominica Prima» eta «nostrae» laburturik: *Dom.<sup>a</sup> I.<sup>a</sup>* eta *nrae.*, azkenengo honen gainean ohizko laburgailua, azentu zirkunflexu antzekoa, ipintzen duela.

<sup>2</sup> Gero *aipatzenditú: It.*

<sup>3</sup> Parentesian dagoena ezin da ikusi eskuidatzian, oso estu dagoelako hau josirik. Hori bera gertatzen da hirugarren orrialderaino.

<sup>4</sup> Gero *egunarenac*; baina sintaxia dela eta, hitzak tokiz aldatu egin dira eta Donostian honela ezarri dute: «azquen juicioco egunaren señaleac». Aldaketa hau ez da ageri eskuidatzian.

<sup>5</sup> Gero *ceñen gainean: It.* Eskuidatzian *ceñetas*-en azken -s hori -z egin dute, eta besterik ez dute ukitu.

<sup>6</sup> Ezin da irakurri -*bloc: (He-* eskuidatzian.

<sup>7</sup> *sent.<sup>a</sup> dio.*

(Sophon. 1) Juiciogártan aldatucootedá sent(**enci**)a lem(bicico)<sup>3</sup> juicioan emána? Ez niolatére, baicic confirmatucodá gucie(**n**) alcinean.

(Cértaco<sup>8</sup> dá báda juicio univers(**al**)a, edo cer motivos? Cembáit dacárte (Do)ctoreéc<sup>3</sup>: 1.<sup>a</sup> Declaratzecó án guciéi, bacóchai lén emancéquion sentenciarén (ch)uchsen<sup>3</sup> justoa. 2.<sup>a</sup> Suplitzecó ártan faltatucéna lembic(**ico**)an, arima sollic izanbaice (juz)gátua<sup>3</sup>, ez gorpútza, cein aguián eramanzúte honratuqui obiará, zeramá(te)-láic<sup>3</sup> arima infernúra; orduán bada erresucitaturic acompaña-tubeárdi (a)rima<sup>3</sup> desónrean ta pénan, nola justoarénac cóntra hónran ta gózoan. (3.<sup>a</sup>)<sup>3</sup> Juzgatzecó ez solam(**ent**)e ón eta gaisto inzuéna bacóchac, baitaré seguituci(ren)<sup>3</sup> erresúltac andic, bera ilasgueros. 4.<sup>a</sup> Paratzecó án zucén, paratuzuéna (mac)úrr<sup>3</sup> mún-duac: ezi ascotán emén honratzendire gaichstoac, deshonorá(**n**) (onac),<sup>3</sup> passátzen gaichstoac ontáco, ónac gaichstotáco; bada án atracodire (eguiac)<sup>3</sup>, desengañatúco guciác, ta nori bérea emanazáio, ta desquitatucodá. (5.<sup>a</sup> Desp)legatzecó<sup>3</sup> guciéi, ta icusiarastecó an cláro Jang(**oicoar**)én provid(**en**)ciare(**n**) jui(cio sec)rétóen<sup>3</sup> téla miragárria eztaiquéna orái óngui enténda: nola usten(tuen)<sup>3</sup> gaichstoa oroát luzaró ta fortunóso emén, eta ona oroát goizic ne-

*lat.*

que penatán, il ere bai; eme(**n**) goraturic gaichstoa, oinpétan ona & ta guc ezin enténda orái: an entendatucodúgu. 6.<sup>a</sup> Itzulceco Jesu Christori hónra ta estimácoa dagoquióna, emen Judioec, Herege, ta gaichsto guciéc faltatucioténa. Ceucateláic prèso indignoqui bere Magest(**ade**)a ilaracináies, ta ezin aurqui nióndic causa-iduriric ere, galdeguincio Caifasec yá bera cén Chr(**ist**)o, errespondatuzue baiétz, eta ciérto sinés diót icusicoduciéla daucazengáu alá emén nola eldúden cerúco lañuetán Magest(**ad**)e ta podóre guciaréqui. (Math. 26) Etzúte in casoric, baicic euchi cóntra: Bere ariorá bérece becatáric: bada án icuscodúte berén Juéz, berén cóntra gurútzea & Au dá Jesu Chr(**ist**)o, ceñen oñetácoac, ción S. Juan Baut(**ista**)c, etzéla bera digno laztzecó, ta ceñen éscuan sárdea daucan, aicerá-tzeco bere eulcia: eulcia dá guizaguéndeá, sárdea bere potest(**ade**)a, aicéra dá juicioa, berechstecó gránoa, audá, ónac cerúra, lasto ilauna, audá, gaichstoac infernuco súra. (Math. 3) Egungúra noiz elle-gatuco dén, eztió nióri errannái, señalaturic daucaláic, eztádien niór descuida béñere, baicic vici cuidadoréqui beti, segurátzeco sent(**en-**

---

<sup>8</sup> Parentesi hau ia paragrafo honen bukaeraraino ailegatzen da.

ci)a óna.) Eta bada nola atratzendén eméndic arima, nola atracendén juicio lembic(icotíc)<sup>3</sup>, izanendá eternid(ade)an, pensazágun egún juiciogóntan. Estíma M(ari)a Ave M(ari)a.

Jang(oic)o andíac fabricatucituénac berce gauzen er-tean Cérúa ta Inférnuá, señalaturic dauzqui alabér eternidadetic nor ta nor naituen eramán cerúra, nor ta nor utzi inférnúra: Ortáco eméngo plázoa, señalaturic daucána bacóchai, bucatzendén istántean deitzendú arren arima bere presenciará contuéen arcerá, ta notificázera sent(enci)a dagoquióna bere óbren confórme. Langáu brevequiró itendá Jang(oicoar)en arguia(s),<sup>3</sup> baña guc gueuren imaginacioan pintazágun espacioréqui: eta ojalá pa(s)sabaguindez<sup>3</sup> máiz eta contíno; litzáque gure salvácio. *Egón érne*, díó Jesu Chr(ist)oc, (Luc. 12) *eta prést, ezi úste eztúcién órduan etorricodá*.

Ellegaturic bada plázoa, ezin daiquéna excúsa, ta ez lúza, despeitucodá arima, ta guelditucodá gorpútza ilic. Soñatucodire ilezquillac: galdeguineunte, nor ildá? Errespondatucodúte, úrlia ilda. Ó dichósoa, díóte: alcinátzea indigu guciéc imbeardúgun videá; eztá berce erremedioríc. Bátec encomendatu(n)du<sup>9</sup>, bérceac ajoláic ez, eta guciéc ségui nor berevideas alcína. Ura egoinda lotsagárrí guéldi bere lécuán. Mortachsatzente gorpútz miseráblea: tra-

## 2

tatzendá orcitzeas, ezperén urrinlezáque guciá; eta yá eztá baicic estorvutáco múnduan. Prestaturic ilária, eramateunte lauren értean, acompañátus gurútze, árgui, ta cantuéqui. Orciric lurrbárnean, doáz játera, ta edátera, ta nor bere itecoetára: utzicoute orr compón nola secula izanezpálitz alaco persónaric múnduan. Zoaz icusterá guéro; icuscouzu lenic ustél corrompíturic, eztaiquela sopórta, bazcatzendirela ártan arr liquitsac montónca; guerochságo guciá immundicia ta autsa. Ó gorpútz corrompitu útsa, ire amóres déla possible indáien Jang(oico)ai aimbérce offénsa, ta galdu aimbérce arima? Zoáz andic urtebát; icuscouzu guciá deseguinic, emén calavéra, an matelezúrrac, aratágo canillac, guciá nastéca. Non dágo léngo presunciogúra? ta conpontzegúra idurinaies edérr? Audá zebilangúra búrua gora, céna antúste ta arroitu, ta fantasia, nor naiz ní? Yá oroát dá nola zamári ilbát. Jezabel erreguinac perseguitzenue Profeta Elías; baña lastérr ellegatu(cequi)o<sup>3</sup> Jang(oicoar)en permissios castigoa. Errégue berribát eguinic, baice Jehu, sacracocan au ciudadéan, cego ura bere

<sup>9</sup> Hola uste dugu daitekeela izan. Ala *encomendatucodu* ote?

balcónean beira popiñabát eguinic ad(ornio)s<sup>3</sup> eta gálas. Galdegui-  
nic Jehuc, eta aituric nor cén, berealá botaracizue balconetic béra;  
eta an ichsticatuizúte záldec passacerácoan; póstrean janzúte tzacú-  
rrec, solam(**ent**)e utziric calabéra ta cembáit ezúrr pusca. Guéro alá  
icúsis gendeéc galdeguitenzúte arrituric, *haeccine est illa J(e)zabél*<sup>3</sup>?  
Audá Jezabelgúra? Óntan baratudá subérvia ta presunciogúra?

Miseráblea dá estádoa, ceintan baratzendén gorpúta: bai,  
baña bitárteo cer dá arímas? Non ote dabíla? Eramandúte bér-  
ce erregionebatéra, ez itzultzecotán. Norc eramandúte? Cerúco  
Ainguiruec, edo inférnucoec? *Icusidúzu*, dío S. Juan Chrysost(**omo**)c,  
*icusidúzu, nola eramandúten emén abratsaren*<sup>10</sup> *gor(putza)*<sup>3</sup> *acom-*  
*pañamentu*<sup>11</sup> *andiaréqui templorá: baita icusidúzu, nola eramandú-*  
*dú(t)en*<sup>3</sup> *inférnuco Ministroec arren arima?* Déla inférnuco, déla  
cerúco Ministroec, presentatzendúte Jang(**oicoar**)en tribunálean.  
Baragaitzen emén gutiñobát. Lancegártan nolaco vicitza nailúque  
bátec vicitu? Diólaic berebaitan, Eméndic guti chsaquinendút,  
egonbeauten, edo céruan erreinatzen, edo inférnuan errétzen beti-  
cos. Acabatudá Jang(**oicoar**)én zervitzuarén trab(**aju**)a, baitaré vani-  
dadeén gústo-idúria. Ó izanbanitza Sanduetáic bát? Ó zervitzatubá-  
nu solam(**en**)te Jang(**oico**)ai, naiz cósta? Orái, cer izanénda nitas?.  
Presentatucodá arima án, nola doáien eméndic, on badá, gaichsto  
badá, mediano badá, ya eztaique erremédia, naiz urriqui; ezi passa-  
tucé erremediáceco dembóra.

2at.

Gaichstoac nailúzque útzi emén bere gaizquiac, baña darraiz-  
quío atzetic bacochoi bere óbrac, dío Esp(**iri**)tu S(**andua**)c, *opera*  
*enim illorum sequuntur illos:* eta S. Pabloc dío, bacóchac ermacoduéla  
bere cárga, *unusquisque onus suum portabit.* Eta eméngo azaroarén  
confórme izanendá ángo eraicioa. Emén guelditucodire múndua ta  
múnduco gauzac berceendáco; baña bera gucietaic biluchsiric pre-  
sentatucodá án bere óngui ta gaizquí eguinen zamaréqui. Ó nola  
nailúquen bátec an útzi edo alchátu becátuen co(n)travándoa<sup>3</sup>!  
Baña ezin útzi, ezin álcha! Cein gaitz záion án aguérc(ea)<sup>3</sup> secretogú-  
ra, ta bercegúra, emén alchaturuzéna conféssioan ere! (Ba)ña<sup>3</sup> etzáio  
permititzen, baicic ére ala nola gaizquieguillea justiciac atrarasten-  
duén carrícas carríca bere ladronquérien instr(u)m(**en**)tuéqui<sup>12</sup>

<sup>10</sup> *abratsare* dío eta marratxo bat *-e* gainean, laburgailu bezala.

<sup>11</sup> *acompañantu* eta laburgailua.

<sup>12</sup> Erdiko *-u-* hori ezin da irakurri, josturarengatik.

dilindacá lepotíc, icusdezátén guciéc ta ezaundezátén; (ala)<sup>3</sup> án quenduric eméngo dissimúlo, estálqui, ta hypocresiac, agu(erro)tuco-da<sup>3</sup> déna dén becála barrén barréna ére.

Diferéncia ándia doáie eméngo justiciatic angorá. Emé(n du)zu<sup>3</sup> Juéza guizón engañacórr; án Jang(**oico**)a ezin daiquéna enga(ña:)<sup>3</sup> Emén túzu Avogátu, Procuradóre, testigo, ta empénuac favo(re;)<sup>3</sup> án guciá dá Juéza níoren ta deusen bearric eztuéna eguitedó (jus)ticia:<sup>3</sup> Emén aguián justiciaco Vára daique macúrriu edo berách(stu,)<sup>3</sup> on idúri, ta empéñu, ta erregálo, ta negarréqui; an eztá ala(co)<sup>3</sup> esperanzaric ére. Eguiáz gauza lotsagárriada, guizón aragui(sco)<sup>3</sup> miserablebát ni becalácoa presentátzea Jang(**oic**)o andiarén alcine(an,)<sup>3</sup> nón izárrac ere eztiren gárbi aguéri, ta cerúco colúmnac ic(ara)ztenbaitire<sup>3</sup> Magest(**ad**)egárren preséncian, dagólaic acompañatur(ic)<sup>3</sup> Ainguiruen milláre ta millareéqui. Nola aguertuconáiz án ni? (Oh)<sup>3</sup> lánce icaragárria sínés! Plázoa erchiric, ya ez erremedioric; goiti Juéz soberánao, beiti prestaturic inférnuo, ingúruan Ainguru ónac eta gaichstoac echidéten erresúlta; érdian arrapaturic arima juzgatu-beardéna, níora ezin escápa, níon ezin alcha!

### 3

Presentaturic bada juiciogártan, dioteláic, oná personagáu, ta onen vicimódua; cein humil ta lotsarrituric egonendén! *Scrutabor Jerusalem in lucernis*, dió Jang(**oicoa**)c. Inendút escudriña Jerusalem arguiequi. Cer izanendá Babilonian itendélaic aláco escudriña Jerusalemén? Atracodá librua contuéna, non dagón escrituric guciá azquén punturáño. Libru ta arguiarén nómbrean adiarastendá Jang(**oicoar**)en chsaquintásun infin(**ito**)a, ceñec ala nola quartobá-tean sarturic irúzquiac batbateán icusiaracodú cláro gucigucia, obra ta accióne guciac béren circumst(**anci**)aéqui: baitaré omisióne ta descuidoac obligacioetan: baitaré itzac, alférrac ére: baitaré biótz barnéco deséo, inténcio, affécto, ta pensam(**en**)tu guciac: baitaré be(c)átu<sup>3</sup> atzénduac, ta usteezquinduzánac, eta yago déna, bercerénac gure (gai)n<sup>3</sup> gure fáltas indirénac. Baitaré obra ónac ére nola inciren, fin ónes (edo)<sup>3</sup> g(aic)hstos<sup>3</sup>, finquí edo floxoquí, edo falsuquí. Guciá pizatucodá balánza(**n**) (ur)rea<sup>3</sup> báño téntu yagoréqui. Alabér inentigu cárguac emantigun onda(sun)es<sup>3</sup>, criátuas, conservátuas, erredimituas, Christiátuas, inspirácio, (pre)dícu<sup>3</sup>, doctrína, sacram(**en**)tu, exémpu ón, ta gañaráco intigun favoreés ba(co)chai<sup>3</sup>. Norc dezóque errespónnda millendáco bát? Arracioréqui elizac doac(i)laic<sup>3</sup> ilarén ésque, nola balégo Jang(**oicoar**)en juicioan, cantazendú atárian, *si (i)niquitates<sup>3</sup> observaveris, Domine, Domine, quis*



*sustinebit?* Baldin gaizquiac ob(se)rvatzenbaditu<sup>3</sup>, Jauna, Jauna, norc sopórta? nor libra? Eztá berce espera(nza)ric<sup>3</sup> baicic dióna bér-la, *quia apud Dominum misericordia* & cerén Jang(**oico**)an baita (mi)-seric(**ordi**)a<sup>13</sup> eta erredenciónea abásto Jesu Chr(**ist**)orén cóstus.

Aita Alónso Andrádec contatzendú (Itin. gr. 3. § 5.) Inglaterracó (g)aste<sup>3</sup> onbátes sartucéla S(**an**)to Domingorén erreligiónean; eta lén barimbá(ce)<sup>3</sup> virtúsoa, yago ta yago ce guéro; especiálqui ce Ama Virg(**inar**)en devóto (gu)cis<sup>3</sup>, amatenzue hume onac Ama óna becála. Emancióte proféssioa go(g)ótic<sup>3</sup> bere dembóran icusiric céla sanduarén imágina vicibát ain óna. (**B**)aña<sup>3</sup> guti iraunduzué ayén conténtuac, ezi tiratzentú goizic beregána Cérucac aláco lóreac eta pér-lac. Viáges bialiric eritucé erribátea(**n**), non baice S. Francisorén conventubát: Erreligiósoec cuidatuzúte al gucia: baña Jang(**oico**)ac naiduéna eramán, niórc ezin guéldi. Sacram(**en**)tuac errecibi-

3at.

turic devócio andiaréqui ya cégo azquén orduarén beira; eta zegoz-quiólaic erreligiósoac asistitzen, alacobates idiquizitue béguiac alégre, itencióla noribaiti errever(**enci**)a. Galdeturic nori itención; fr Reginaldori, erra(**n**)zue, etorribaizaida laguntzerá ánitiz Ainguiruéqui. Andic guti eguinzue errever(**enci**)a andiágo alegría yagoréqui cióla, oh! etorrida gure Erreguina, salutazágun. Betéze gucia fragráncias, eta Erreligiósoec ca(**n**)tatuzúte salvea: ériac erránzue, ô cémbat quadratzenzáion ama Santissimai<sup>14</sup> zuén orációa! Etze guti consolácio sentizuténa Erreligiósoec aditzeas ta progátzeas aláco señáleac éri dichosogarréqui. Baña lastérr quenducequióte; cerén ezi andic gúti eria mudatuce, guciá turbaturic, béguiac armaturic lotsam(**en**)túras beira beira cególa lecubatéra, ta izérdia zerióla congójarén útses: Bein cio, guezúrta dióze, nic eztút in alacoric: bérce bein, ori égúia dá, baña confessátu ta innue penit(**enci**)a. Bérce bein, cio negárta ceriólá, ô Maria Santissima<sup>15</sup>, amparabenáza: Azquénean, Jesus Jesus, miseric(**ordi**)a nitas. Ay ene tristea, zóri gaichstoan jáioa!. Erreligiósoac zeude arrituric aitzen ta icústen láncea; batzúc icár icár beldúrres, berce batzúc negárres compassiónes, guciéc orá-cio egúiten, animátzen, erráten confiazázu Jang(**oicoar**)en miseri-c(**ordia**)n, oráño dá dembóra & Bitárteo asice sosegátze(**n**), ta galde-

<sup>13</sup> Hasierako *mi-* ezin da irakurri, josturarengatik.

<sup>14</sup> *SSmai* dio, gainean ohizko laburgailua ipintzen duela.

<sup>15</sup> Orain *SS-* dio, laburgailurik gabe.

guinic cer icusizuén, erránzue; lemb(**icic**)o áldian icusinue fr Reginaldo acompañaturic Ainguérus: guéro María Santissima<sup>16</sup>; ta ezin dezáquet explica gózo nuéna icústeas: baña irug(**arrene**)an etorridá Jesu Chr(**ist**)o Juéz becála ártzera co(**n**)tu neure vicitzas ain erchiquí, ezi yá condenatutáco ematenitza. Cégo acompañaturic Ainguérus. Deábruec acusatzennindúte ineznituen becátues ére, baitaré eguines ta confessátues, orgátic errántut lemb(**icic**)o itzgáiec: baña nic levatáco neuzquiénac ponderatzenzúste aimbérce, ezi ez nue cer errespo(**n**)dátu. Baña mintzátus ene favóre Ama Virg(**in**)a, ta Ainguiru guard(**iac**)a, Juéz div(**ino**)ac emádu ene favóre sent(**enci**)a. Zuéi nic ematentiziet graciac<sup>17</sup> induziénas enéqui: encomendatucozaistet Jang(**oico**)ai, ceñen gozátzera noáien. Au errán, ta iltze, guciác utzirik consólus beteric aguituas. Emén orái díona S. Pedroc (1. c. 4) *Si justus vix salvabitur, impius et peccator ubi parebunt?* Justoa doi dóia salvatzenbáda, cer izanendá becatárias? *Praeoccupemus faciem eius in confessione.* Alcinagaitzen emén Juezagána penitenciaco tribun(**a-le**)an confessátus cúlpac ta pagátus penit(**enci**)as, ezcaitzan condenátu an & & &

---

<sup>16</sup> Hemen *M.<sup>a</sup> SSma.*, bigarren hitzaren gainean laburgailua kokatzen duela.

<sup>17</sup> *graac* idazten du, ohizko laburgailuarekin.

## Sermo in Dominica Secunda<sup>1</sup> Adventûs

*De patiendo adversa pro Deo.*

Joannes in vinculis. Math. 11.

Dió evang(**elio**)an; S. Juan préso carcélean cegoláic, aituric Christorén óngui eguinac, bialicitio bi Discipulo galdeguitará, beróri dá etorribeardéna, edo berceric esperatzendúgu? Errespondatuzué Jesus ónac, Zoázte ta contazózie Juani aitu ta icusiduziéna, itsué icústén, estropeátuac ibiltzen, leprósoac garbitzen, sorréc aditzen, pobreéc Evang(**elio**)a predicatzendutéla. Joanasguéros ayéc, asice erráten Judioéi S. Juanes, Cer icusterá joancináte deserturá? Canarenbát aiceac dabilána? Guizón delicaturenbat? Alácoac erreguéen palacioetán dire. Profetarenbat? baita yago ere Profeta baño, diót nic: ezi audá, ceintas cegón escrituríc, orrá nic bialicodút neure Ainguirua prevenidezána zure videá zure lénean. Cierito erratendiziet, emastequietaic jáioen értean eztá átra S. Juan Baut(**ist**)a baño andiagoric. Baña chipiago déna ceruétaco erreinuan, ura baño andiágo dá. Orrá Evang(**elio**)a. Doctrina atracecó nola beárrden, Salutatágu(**n**) Maria<sup>2</sup> Ave Maria...

Nor eztá admiraturic arritzen lemb(íic)o itzes? *Joannes in vinculis*. Joan Baut(**ist**)a préso carcélean. Guizonbát ain sándua, ain quadráblea Jang(**oicoar**)en beguetán, ain alabátua Jesus onarén agos, alácoa preso carcelean? Eta cergátic oté? Éguia erranagátic; cergátic Herodes ta Herodias erreprehenditzenzituen berén adultério itsúsi escandolósoas. Ah! cer múndua au?. gaichstoac libre suélto nolanái játen, edáten, divertitzen; eta sándua loturic prisionéés! Eta nola permititzendú Jang(**oicoa**)c, dagólaic beira? Jesus onarén ta S. Juanen pedecitzean aimbérce trabáju ta persecúcio mundugónta(**n**) dúgu desengáñu, eztiréla ain gaichsto eméngo trabájuac, nola mún-duac usteduén, barimbadágo arima Jang(**oicoar**)en grácian<sup>3</sup>. Prego-

<sup>1</sup> Dom.<sup>a</sup> 2.<sup>a</sup> dio.

<sup>2</sup> M.<sup>a</sup> Ave M.<sup>a</sup> dago.

<sup>3</sup> *graan*, eta laburgailua.

natzendú Elizaco Principe escogituac, S. Pedro; (1. c. 4) *Padecituduêlaic Christoc*<sup>4</sup> guizontasúnean, zuéc ere armazaiste pensamentu<sup>5</sup> edo consideracio<sup>6</sup> béras. Niórc zuétaic ezdezála padéci ladrón becála, gaizquieguille, maldiciéne becála: *Bai órdea Christio becála, eztaíela alquétu, laudátu bai Jangoicoa*<sup>7</sup> izengórtan. Zori onécoa sufritzenduêna tentáció, cerén ezi probatuóndoan errecibitucodu vicitzarén coróna, *Jangoicoac*<sup>8</sup> ofrecituduêna bere maitazalei, dió S. Tiagoc (c. 1.) Eta gozo gucia pensadezagúla, delaric *sufritzecó anitz*. *Ustedúzu*, erratencio Jesus onac S. Theressari, (n. 1 desp.<sup>s</sup> de su vida) *ustedúzu merejitzea dagóla gozátzean? Eztágo, baicic obrátzean, padecitzean, ta amátzean. Ta icus-*

4at.

*tendúzu nere vici gucia beteric trabájus... Sinésta, ene húmea, ezi ene Aitac nori dión yago amóre, ematendió yago trabáju, ta onen confórme*<sup>9</sup> *dá amórea. Cértan yago dezaquezút móstra, nola emátea zuri escogitunuêna neuretáco? Beira llagaguébec & Permititzendú bada Jang(oicoa)c*, beira dagólaic, padecidezáten Sanduec, izatecó iragazvide<sup>10</sup> yago, probatzecó, errefinacecó, iragaztecó, ta labratzecó alá corona gloriácoa. Ellegatuárteo padecitzerá culpaicgábe, eztá Sandu andietáic.

Andia ce S. Juan Baut(ist)ta, *coram Domino*, Jang(oicoar)ren be-guietán; probatubeárce paciéncia ta sufrim(en)tu ándian. Trabáju ándiac virtúte andiarén lagún dire. S. Juan Baut(ista)c mostratzue virtútea vicimódu peniténtean, obrátzean, trabajátzean, predicátzean; coronatubearzue sufritus persecúcioac, ta prisiónea; ta eriótzea Jang(oicoar)en amóres. Búrua ebaquiric, obéqui assentatzenzáio coróna. Guizón Sándu ta ándia cerc itenduén, dá sufrim(en)tu ándiac. Onaráño eztá Jaundi Jang(oicoar)en córtéan. Arrái chipiac badire erréca chipiétan ére, baña arrái ándiac eztúzu aurquitúco baicic itsásoan, baita gázi amárgo; significacecó trabájuen amargotasúna. Vici aisítan óna eztá ón ándi; ta eztélaic ánitc cósta, eztá gauza andia; irautea constánte trabáju ta torm(en)tu andietán, ori bai gau-

<sup>4</sup> *Chroc*, eta laburgailua.

<sup>5</sup> *pensamtu* eta laburgailua.

<sup>6</sup> *consider.*<sup>o</sup> dío.

<sup>7</sup> *Jang.*<sup>o</sup> dago.

<sup>8</sup> *Jang.*<sup>c</sup> dago.

<sup>9</sup> *coforme* eta laburgailua.

<sup>10</sup> Donostian *irabazbide* egin dute. *Ik. iragaztecó*, hemendik laugarren hitza.

za ándia dá. Erregueéc honratzentúte berén Jaundi estimatuénac berén arma ta insignia edérréqui: gure errégue Jesús onarén arma ta insignia ederra dá bere gurúzte gogórr górria odóles, au ematendióte eramatecó bere maiteení. Erregueéc alabér soldadoric obenéi fiaztentióte lanic andiénac: gure errégue div(**ino**)ac bere sanduéli trabajuric andiénac. Arri principálac paratzecó palacioarén fachádan labrátzen ta moldatzendire golpéca picotinas ta cicélas. Sándu principálac eztire pintátuac eta paperéz<sup>11</sup>, erauntsia delaic bateréz, báicic trabájuen gólpes labrátuac. Cein guezúrr ándia dén berás errátea, déla gaichsto norbáit, cerén duén ánitz trabáju, eta beti diréla trabájuac becátuen cásos: Becátuen cásos ere permitizén eta bialcentú Jang(**oicoa**)c, éguia dá, ánitz áldis, ondunáies gaichstoac, ónes ezpáda, gaitzes; éztis ezpáda, samiñes; amóres ezpáda, dolóres: baña ez beti becátuen cásos dire trabájuac, direlaic justoen fruta propia culpaicgábe, ta Jesusec edánzuen trágo edo calizarén urrúpac brindatzentioténac bere atzétic doacin adisquideí.

## 5

Goácen ya icúsis, cér, ta cergátic, ta nola beárden sufritu. Irur éscus beardire labrátu ónac; Jang(**oicoar**)en éscus; berén éscus; ta proximoen éscus. Baña irúrac baterá eldudire, cerén ezi nondicnáit datórren trabájua, Jang(**oicoar**)en escutic eldudá, Jang(**oico**)a baita manatzenduéna sufritzea berarén amóres déna dela. Exémpu ematendigu Jesus ónac, erranbaicio S. Pedrori naicionái debecátu padeцитzea, *Eztút passatubeárr ene Aitac ematendidán trágoa?* Bere Aitac emána dió Judioec ematendióten pássioa, cerén ezi ayéc invidias prestatucióte trago amargogúra, baña Jang(**oicoa**)c brindatzenció bere éscus, tóri, pássa tragogau ene amóres. Baña Jang(**oicoar**)en éscus zucénean datocila erratendúgu desfortúnac, plágac, eritásun, ta alácoac: Bearrtúgu sufritu óngui azoteñogóiec, apáldus búrua, ta apatus Jang(**oicoar**)en éscua; Eli sacerdotéac cióna erránes, *Dominus est & Jauna dá; eguinbez óngui idurizaióna berái:* Eta Jesus ónac cióna obéqui, *Aita, possible barimbáda, passabédi enegánic tragogau; baña eztadiéla eguin nola nauten nic, baicic nola berorréc duén placér.* Berén éscus ere beaute sufritu trabáju Chr(**ist**)io ónec, castigátus gorpútza, mortificátus passióneac, errepugnátus vicio ta tentácio gaichstoéi béti, ez eguines nailuquéna, eta eguines naiezluquéna. Trabajugau ordenatudigu Medicu div(**ino**)ac diólaic, *qui vult venire*

<sup>11</sup> Hola dago: «paperez».

*post me*, naiduéna etórri nere atzétic; *abneget semetipsum*, ucabédi bere naicundeéi; *tollat crucem suam*, arbez bere gurútzea: *et sequatur me*, eta seguibenáza. Eznáies trabáju-guisagáu datóz guizónen becátu guciac, eta perdicioa. Irug(**arren**)a proximoen éscus ére beardire labrátu ónac, sufritus ayen persecúcioac, charrqueríac, desarrácioac, gaizqui erránac eta eguínac. Chr(**ist**)io ericórra gucia dá quexátzea bercerén gaizqui eguines ta erránes, bérac errán ta eguines ajóla guti, gutiágo Jang(**oicoar**)en offénsas. Chr(**ist**)io séndoac solam(**en**)te dú péna Jang(**oico**)ai itenzáion offénsas; orgátic bérac gaizqui erránas ta eguinas péna dú, ez bercerénas arren cóntra, baicic paciéncia, serenid(**ad**)e, ta aguián alegría, izandáien satisfacciotáco, barimbadú cerbait cúlpa, ta ezpádu, merejim(**en**)tu, gloria, ta coronatáco: *Ezi óntan dágo gracia*<sup>12</sup>, dio S. Pedroc, (1. c. 2) *sufritzean bâtec merejietzuéna: Cer gracia*<sup>13</sup> dá, culpa ducielaic, sufrítzea? *Baña óngui eguin óndoan sufrítzeac, orréc dú válio Jangoicoaren*<sup>14</sup> *alcinéco. Ontará zaráte deituac, cerén Christoc*<sup>15</sup> *passatuzué guregátic, utziric exémpu seguitzéco. Becaturic etzue eguin, ta ez itz bearrestenic. Gaizqui mintzacencioteláic, berac ez; padecitzenzueláic, etzue meachuric eguiten, bai ustence tratatze-*

5at.

*rá gaizqui, ta gure becátuac eramancitue gurucearén gáñean.* Gucióc dire S. Pedrorén itzac. Berás culparic ez admiti; pénac bai, ta nóndic nái.

Orrá cer beárden sufritu; orái cergátic, edo certáco: lenic, ez padecitzecó debálde, aum(**en**)tátus trabájua paciéncia-fáltas, ezi naiezpadúgu sufritu óngui, eztá orgátic quéntzen, edo aliviátzen trab(**aju**)a, baicic aum(**en**)tátzen: Berás sufri óngui, ez padecitzeco debálde ta yágo: Bigarr(**en**)ic gueure(**n**) becátu passátuen satisfacciotáco, dioguláic gueuren buruái coplagúra, *Bada péna damazúna zure cúlpec mereji, Arrácio dá eramatéa arimo onaréqui*; eta Jang(**oico**)ai, Jauna, au ta yágo dúte meréji ene becátuec, biz ebén satisfacciotán: Irug(**arren**)ic libratzecó erorcetic becátu berrietán, ezi bégui erchicirénac cúlpen itsutasúnes idiquiarastentú pénac goarceco, eta dagónac trabaju andietán gána guti dú cebatzecó vanid(**ade**)an. Laurg(**arren**)ic paciéncia onaréqui arintzecó trabájuac, ezpaitire ain pizu-idúri due-

<sup>12</sup> *graa* eta laburgailua.

<sup>13</sup> *graa* berriz ere, lehen bezala.

<sup>14</sup> *Jang*.<sup>en</sup> dago.

<sup>15</sup> *Chroc* eta laburgailua.

nái pac(**ien**ci)a, nola iracorrái; ala nola soimbúru ta indárr onécoac pizu bera daráma(**n**) aiságo ezi erbalác. Borzg(**arren**)ic merejitzecó, ta irabaztecó yago ta yago gra(**ci**)a ta glória, ezi sánduen feriac dire trabájuac. Seigarr(**en**)ic imitatzecó ta seguitzecó Jesus gurucific(**a-tu**)a, ceñen vici gucia cer izánce, baicic padecitzea? Au dá ceruráco vide erreála, gurutzearén videa. Beira eméndic doáien procéssio edérra, Jesus leneán, Ama Virg(**in**)a aldacán, atzétic sánduac ta sándac, guciác berén gurutzeéqui, gabe niór ez. Naieztuéna sufritu eztoáie Jesúsén atzétic cerúco videas. Eztá orgátic libre trabajuetaic; izaindu gurútze, ladron gaichstoarén gurútzea bere caltetán, zuquélaic eramán Jesus onaréna Cireneoarén guisa, edo ladrón onaréna bentzáit bere prochután. Eta alquedaquíola gueldítzas beiti aisanáies, doaielaic aldapagóra Errégue bere génde escogituaréqui. Zazpig(**arren**)ic logracecó gure Jaunare(**n**) amórea, ta amorearén demostrációac, ezi beragátic passatzeuntenéi trabáju ematendióte bérac consolácio; artzentú bere biótzean: bere éscus chucatzentióte izérdiac eta nigárrac. Eta nor dá ain tónto, naieztuéna passátu cerbait trab(**aj**)u, lograceagátic ere Jaunarén beiratzebát amorósoa? Zorzig(**arren**)ic eguitecó placér bere Magest(**ade**)ai, ta mostracecó amóre diogúna, mostratzenbaita principálqui sufritzean. Errézu ta alácoac contú déla ofrátzea cóbre gure Jaunai: óbra ónac cillárr: sufrim(**en**)tua úrre ta diamánte.

## 6

Orrá cergatic beárden sufritu. Orái nola. Chr(**ist**)io éri póbreat eztuénac Jang(**oicoar**)en amorearén úrre andiric, milla achéquia atratzendú, yá eztéla possible, yá eztéla arrácio; yá gauzagau ez, bercebát bai, arregánic ez, berceengánic bai & Amoregárren úrre fiña bazué S. Juan Baut(**ist**)ac: sufrituzué, Herodeséc ta Herodiaséc sarzezátén présó carcélean; Cergátic órdea? Cergátic naizituen óngui, ta naizituen sendátu ta salvátu. Óna pagatucióte ayéc gaizquiaréqui, amórea odioaréqui. Alaére sánduac zióte carid(**ad**)e, compassióne, ta zélo salvacioarén. Présó egótea sufritzenzué óngui; eta yago péna zué ayen gálceas, ezi bere ilceas. Auchse baita sufrítzea óngui. Óntan ere badire grádoac, nola urrearén calidádean. Lemb(**icic**)o grádo precisso, ta ásqui déna doi dóia dá sufrítzea pacienciaréqui, naiz nequetancará, cerén ezi eztá debecátzen sentítzea trabájua, ay ta oy eguitea, baicic gogaitzea, asarrátzea, desesperátzea: Comparacios: zurraturic chacúrta Nausiac, eguitea arc cincúria etzáio gaitz, baña bai marmárr ózca itzúltzea; alá emén eramán pacienciatán, naiz sentim(**en**)túra naturála izán. Bigárren grádoa sufrítzea arimo onaréqui, ta constanciaréqui, utzigábe orgátic eguitecó bearrdéna,

seguitus zuzenvideas, onétsis contrárhoa & Irugar(ren)a sufritzea alegréqui, ta pagatunáies onaréqui gaizquia, innáies favóre indiónai agrávio. Dichósoa duéna urregau, trabajubát izanordúco baitoáie contént Jang(oico)agána, Jauna, biz orren amoretán.

Icuságun S. Juan Baut(ist)an. Présó gorpútza, gógoa libre; pacie(n)cia ónea(n) ez solam(en)te, baitaré ain seréno animóso, ta alégre, atzenduric becála bere trabájuas oroitzendá solam(en)te bercerén ónas, biális Jesusengána mandatáriac, ez librazézan, bai galdeguiterá ya cén Chr(ist)o béra; ez chsaquitéco bérac, bai chsaquín, ezáun, ta estimazézáten berceéc gucién salvazálea. Baña exempluric obéna dá Jesus bera. Gurucificatuzúte Judio infameéc; cer culpagátic? Cer gátic cén óna ta onguieguillea. Eta ez contént gurucificátuas, orrén gañetic itencióte irri ta escárnio macúrntus búruac, jautsibédi orái gurutzetic, ta sinestatuodiógu & Cer dió ontára gucirá Jesús ónac? Atzenduric becála bere pénes, yágo péna duéla ayén gálceas, ezi bere iltzeas, dió lemb(icic)o itza, *Aita, barcabezóte, ezi eztaquite cer aidi-ren*. Ó Jesús, norc eztú confiatúco orrén miseric(ordi)an, naiciotelaic barcátu aiéi ére? Eta nórc eztú ica-

6at.

sicó noblezagóntaic pichscabát, sufritezco cerbaitto cerbaitto diót, ezi deus guti dá guri indezaquegúten gucia, Jaunari eguinarén áldean. Orgátic sánduac chsaquinic cémbat quadratzenzáion, alegrece(n)cire izáteas cer sufritu, izatecó cer ofrecitu, placér iteagátic bere Magest(ade)ai, eta etzúte gáldu deus aldegórtaic, baicic irabáci.

Egún emanbeardigu exéplu emastequibátec. (Parra p. 2. p. 39) Alargúna cé au, ta zué séme bacarrbát, cein ilcióte puñaladacá. Pénsa Ama tristearén péna! Salan paraturic ila odolestaturic, Ama cégo úrtzen negárres eta laméntus: Bitárteo ilzálea, doaiélaic igués justiciagánic lastérrca, itsuturic, nola eztaquiéla sarcendá éche bérean, eta ilaréqui Ama cégon sálan. Cer láncea au? Eztuélélaic erremedioric, paraturic belaurico escatzendió Jesúsén odol preciosoagátic, naibádió barcátu ta amparátu. Cer inenotedú Amarén dolóreac emén?. Ó Andre nóble generósa! Goráturic béguiac cerúra, Jauna, erratendú, Jauna, ofratzendiót sacrificiogau. Eta bérta jaiquiric alchatuzué guizonói lécu secretobátean. Ellegaturic justiciaco Ministroac dabil-tza billa zóco guciétan; nión ezin aurqui. Amac ez solam(en)te salátzen eztú, baita ere defendátzen. Joatendire ayéc; orduán Andre no-blegúra bolsabátdiru prevenitu, ta joatenzáio; tóri, arzazu dirugáu, ta beitian dágon zaldigúra, eta zoáz libre, goardazaite; Jang(oico)ac lagundezazúla, ta emán fortuna. Eztá miric dezaquenic lauda digno-



qui aláco acciónea. Au in, ta seguitzendú desahogátzen bere péna, ta encomendátzen Jang(**oico**)ai semearén arima, eztélaic berce erremedioríc. Alacobátes icustendú alcinean beteric erresplandóres, ta alegrias, ô Ama, erratendió, ô ene Ama óna, baléqui ón eguindidána acciónegorréqui! nolaco penetaic atranáuen, nolaco gloria emandidan! Baña proगतुcodú dembóra gutiren bárnean, ezi naidio Jang(**oicoa**)c sária emán induenagátic. Errán ta desaparecituré. Andic guti joánce mundugóntaic Ama ére gozátzea semearén compañian dichósa. Doctrinagónen fruitua biz au, Eguitea algucia óngui guciéi; eta sufritzea algucia gaizqui bercerénac, ezaungaitzan bere humetáco Jang(**oicoa**)c, eta emandezágun barcácio, gra(**ci**)a, ta glória. amen

## Sermo in Dominica Tertia<sup>1</sup> Adventus

*De humilitatis bono, et modo.*

Confessus est, quia non sum ego Christus. Joann. 1.

S. Juan Evangeláriac contatzendú egún S. Juan Baut(ist)as, bielizostéla oní Jerusaléndic Sacerdóteac eta Levitac galdeguiterá, nor cén. Eta confessatuzué, ta etzué ucátu, eta confessatuzué, eznaizela ni Chr(ist)o. Ayéc, nor dá bada? Dá Elias, edo Profetarenbát? S. Juanec, ezétz. Ayéc porfia, erranzézala nor cén, eramáteco errespuésta. Orduán Sánduac, Ni naiz vóza clamatzenduenaréna desértuan, ibili zuzén Jang(oicoar)ren videas. Ayéc ontará, nola bataiatzendú báda, ezparimbáda Chr(ist)o, ez Elias, ta ez Profeta? Errespondatuzué, Nic bataiatzendút úres; baña zuén érdian egondá ezauntzeneztuziéna zuéc: Uradá ene atzétic etorricodéna, ni baño lén déna, ceñen oñetácoac lazátzeco ére ezpainaiz digno ni. Orrá Evang(elioar)en mámia: óntan lembic(ic)o eldudéna beguiétara da ge(n)deéc zúten opinióne ándia S. Juan Baut(ist)as, eta Sanduarén humild(ad)e séndoa, ez gozátzeco famarén aice vanoaréqui. Lembic(ic)o virtútea, ta gucién ciméndua dá humild(ade)a. Bearrguindúque icási guc bentzáit póbrec garénece ondásun eguiáscoes, izatecó, póbrec subérvo ez, baicic humil; ez izatecó ain póbrec nola baicára, cerén ezi humiléi beiratzendióte urricarióso Jang(oicoa)c, eta limósnas ematen dióte gra(ci)a. Badaquize nor dén gra(ci)as bétea? Bai Jauna, Ave Marian dio, Agúrr M(ari)a gra(ci)as bétea. Norc betezué? cláro dá, gra(ci)aren itúrriac, Jang(oico)ac. Eta cergátic? Cer daquigu báda gúc? Bérac erratendigu, *Quia respexit humilitatem ancillae suae, ecce...* Cergátic beiratudión bere esclavagónen humiltasunái, orrá orgátic... Humiltas(un)a berás dá beiratzenduéna Jang(oicoa)c, emáteco gra(ci)a. Au bearrdúgu: logratzeco, empeñazágun gra(ci)as bétea. Ave M(ari)a.

<sup>1</sup> Dom.<sup>a</sup> 3.<sup>a</sup> dio.

Cer dá humild(**ade**)a? Dá virtutebát, ceñequi guizóna ezaunduric eguiáz bére búrua guelditzenbaita apál apála bere opiniónean, dén becála errealidádean. Orrá cein claroqui eguiarén húme dén humild(**ade**)a, ez guezurrarén. Cembáit simpletfoeí idurizaióte, izatecó humil, beautéla pensátu berén cóntra guezúrres gaitz eztuténac, ta gaichstoágo diren baño, ta dúten óna ez ezaundu. Cer tontería! Ezaundu ezaundu déna dén becála; ezaundu dúzun óna, ta dúzun gaiz-

7at.

quia, ta nóndic ura, ta nóndic au, ez yago ta ez gutiágo, baicic ala nola dén eguiáz; eta izanenzára humil. Cóntra berriz guezúrres dá presúnciao, antúste, ta andináia, ez ezaundus bere búrua, ustés bere gaizquia gutiágo, ónguia gueiágo dén baño; en fin atzéndus edo ez pensátus eguietafedea, beregánic eztuéla on pichscaric ére, ta utzibález Jang(**oicoa**)c bere escutic, inleiquéla Demoniobát gaichstaquérien, eta duén ónguia duéla emána limosnas Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as. Berás éguia ezau(**n**)balédi óngui, ezlúque lecuric presu(**n**)cioac, guciá litzáque humild(**ad**)e.

S. Juan Baut(**ist**)a nola bearbaize izán Sandu andía, prevenituzé humild(**ad**)e ándi séndo bárnas, ezi obrarén ariorá ciméndua, ta santidadearén ariorá bearda humild(**ade**)a. Etzé moguitu, etzé gozátu gendearén opinioneagátic: Etzé cána úts arína aiceac dabilána góra béra, nolácoac baitire váno presumituac, aicearén átzean ta eician dabilzánac, aices vicidirénac camaleónen guisa, ezi mundúcoen opiniónea ta laudáριοac contú aice diréla, eztizúte parátzen deus onic, aunditzen ezpáda vanid(**ad**)es. Icústeco gauza dá, nola calavéra juicio gutiágo duténac diren comunquiró vanoagócoac, nola emastequiác; ta juicio yago duténac humil séndo ta pizuágo: nolas ala? Cerén calavéra duénac muiñ guti, usgúne ántiz dú, ta betetzendá flátoac, aices: mñes béteac eztú lecuric, sárceco aicea. Orgátic ére vánoac guciác díre ichurapén ta arroitu, izánes búrua uts, sustancia-faltas: yaqueta granoric ta fruituric eztén, ilaun bai, ósto ta lásto. Eta delaric enfadagárrri presumitzea duén ónas, bérea bálitz becála, cer izanendá presumitzea izangábe cerén? antústes ta andináies. *Gauza aborreciblea dá Jangoicoaren<sup>2</sup> ta guizónen alcinéco subérvia, dió Esp(**irit**)u S(**andu**)ac.*

Humila berriz guciéc naute, Jangoicoac eta guizónec: Jang(**oicoa**)c ematendió gra(**ci**)aren sustáncia, guizónec estimacioarén in-

---

<sup>2</sup> Jang.<sup>en</sup> dio.

cénsua, convenibáda. Humilac naidu sollic Jangoic(oar)en gra(ci)a, baña aguián, naiz doáien igués, darráio atzétic munduarén estimá-cioa nola itzála, naieztuéna beretáco; eta alá eztá gozátzen órta: aguián darraizquio irriac, desprécioac, ta persecúcioac naiagotué-nac, ezaunduric eztuéla berceric me-

## 8

réji beréz; eta aisa consolatzendá itzulcearéqui gure Jaunagána, ta gure Jaunarén beiratze amorosobatéqui: baña ezpálio beiratunái amóres, ceréqui consolatuodá? munduarén opinióne onaréqui? Baña ori contú déla itzalbát sustanciaicgábe, deus eztióna parátzen errealida(de)an. Bérce álde opinionegói da veléta edo aicearén guisa, dabila inguráca ta aldaquetan egún ipárr, égoa biárr, egún canoni-zátzen, biárr co(n)denatzenzaitúte. Vánoan dabila bada dabilána aicegórren átzean. Etzebila orren billa S. Juan; eznáiz ní zuéc us-teduciéna, eznáiz Chr(ist)o, eznáiz Elias, ez Profeta, baicic vóza cla-matzendudána desértuan & Alá obéqui logratuzué Jaunarén gra-(ci)a naizuéna sollic. Baña erreparátzeco dá emén Chr(ist)oc erránzuen eguiagúra, humillatzendéna izane(n)déla gorátua; nola dabilzan porfias becála, S. Juan apaldunáies bere búrua; Jauna arrengoratunáies: S. Juanec dió, eztéla Proféta; Jaunac dió, yágo ezi Proféta: S. Juanec dió, eztéla gauza lazatzecó Chr(ist)oren oñetá-coac: Jaunac dió jaiodirenetán eztéla jáio andiagoric ura báño, eta guéro arren escuarén péan paratuzué bere búrua, izáteco bataiátua arre(n) éscus. Cembatenás ura yago apalcendén, Jaunac yago gorá-tzendú. *Quis sicut Dominus & ps. 112. Nor gure Jangoico<sup>3</sup> Jauna be-cála, dagoláic góra, beiratzembaitu humilèi céruan ta lurrean? gorátus lurrétic póbrea, ta loietic miseráblea, colocátzeco an goiti bere Córte-co Principegaiéqui.* Geniogói, ta gustogói dú gucién Jaun ta jábeac, gorátzea humilac, betétzea gra(ci)as, ta ondasunes lurrean, eta gló-riás an goiti izárren gáñean.

Nainúque pensátu, cergátic oteduén gustogói: eta ene ustés acer-tatzendút dela onengátic. Nola bere Magest(ade)a baita gauza gu-cién Jábe, nióren bearric eztuéna, nióri deus zorretióna, gra(ci)as emate(n)duéna ematenduén ongúra, guciéc berái zorr, ta ezin pága, ezpáda bérac emánes; naidu ezaun ta confessadezágun zorrdiogúla; gloriagói naidu; ta arrácio dá: orái bada humilas dió, onéc ezaundu ta cofessatuodú nere gra(ci)as duéla duén óna, emógun oni: Subér-

---

<sup>3</sup> *Jang.*º dago.

voas cóntra, oni eztaquioque fia, vanatuodá, eztida niri emánen glória, utzágun bere misérian, ezaundézan. Asis ondásun lurecoe-táic: Humilac confessatzendú Jang(**oicoa**)c emánac tuéla tuénac, agradecituric empleatzentú óngui Jang(**oicoar**)en zervitzután: Eta ezpádu, dió, señaile, ez-

8at.

téla convéni: Subérvoac ezpádu, naidu; ta barimbádu, dágo váno, ta ascotán vanid(**ade**)ac bérac ustutzendú, naiduelaic sóbra pómpa ta burrúmba: eta ascotán alácoac ústea póbre dá Jang(**oicoar**)en provid(**en**)cias: Pobre izánic dire subérvo ta váno; cer litzáque, abráts balire? Orrá humilac guciétaic atratzendú óngui, nola érleac ézti; subérvoac guciétaic gaitz, nola armirmáuac pócio. Humila honratzenbaute, eztá gorátzen; eztuéla meréji dió: Despreciatzenbaute, eztá turbátzen; ori dela dió merejíduena: Subérvoa cóntra honratzenbaute, igatendá airean góra bere imaginácioan aundi aundía: ezpaute honrátzen, púntus beteric mutúrr eta futósca. Humilac badáqui eztagoquéla óñen gáñean, erorigábe culpatán, ezpadú goardátzen Jang(**oicoa**)c; eta alá goardatzendú: Subérvoac bére búrua goápo azcárr ustedú, eta alá ustendu Jang(**oico**)ac bere escutic, icuságun, cein goápo aicén; alá erórcen ta funditze(**n**)da becatuetán, especiálqui immundiciascoetán. Humila ezpáda eróri anitz becatután, dáqui déla cerén Jang(**oicoa**)c indión gra(**ci**)a goardátzeas, ezperén eroricozéla: eroribáda, humillatzendá autseráño infernuráño; confessatzendú bere gaizquia humil; eta alá gaizquitic atracendú ón: Cóntra subérvoac onetic atratzendú gaitz subérrtus; eta alquetzendá becatári aguértzeas, ta confessátzeas. Azquénean, *Paraisoco atária dá apál*, dió S. Agust(**ine**)c comparácios, (ap. Claus p. 3. cath. c. 98) *án sarcecos, preciso dá apáltzea búrua, ezperén burua góra tiesso doaiéna golpátu ta erorico dá atzéco aldéra, ta sártu ez: erráteco, eztuéla lecuric an subérvoac, bai humilac. Eta berriz: meárr dú atária; ezin pássa vanidas<sup>4</sup> aunditua, hydropicoen guisa, ezpáda chipitzen: humila bai.*

Icusiric páрте humildad(**ear**)en óna, icuságun nola edo cértan bearrgáren izán humil: Lemb(**icico**)a biotz-bárnean, ez estimátus gueuróc, bai proximoac, ezi becaturenbát imbadúgu, eztá milágro parátzea gucién óñen péan, merejiguinduélaic egótea inférnuan: Inezpadúgu, ta nor dá ineztuenic? pénsa izandéla Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as, ezperén, inenguinduéla; ta vanatzenbagára, Jang(**oicoa**)c útzi, ta eroricogaréla. Bigarr(**en**)a humil aguérri-

<sup>4</sup> *vanid.* dio.

an, tratátus guciác óngui, ta amolsuqui; ez alquétus on dén gauzas; ez tristátus estimáció gúti, ta agrávio idúrien cásos: ez vanoqui alegrátus opinione ta laudarioengátic: ez iduriarácis gure óna dén baño yago: ez eguines edo erránes deus, óngui iduritzeagátic munduái; billátus beti secrétoa eguiterá gauza ónac Jang(**oicoar**)en beguiétan, eznáies icusigaitzan niórc, eta preciso delaric aguérrian exémpulu on ematecó, atténdi gústo emáteas sollic Jang(**oico**)ai ez munduái; azquénean ez jaintsitzean, ez joanquéran, ez deustan admiti vanid(**ad**)e-urrinic ére. Valioduéna dá iduritzea óngui Jang(**oicoar**)en beguieta(**n**), gañaracoac eztú deus válio. Irugarr(**en**)a acostubrátzea humillatzerá gueuren buruóc algucian, alcinátus eguiterá lan ta gauza menosénac gogótic nióren beldurric eta alquericgábe, eztirélaic becátu: eta secrétoan anitz aldís cúrtu belaurico, ta copéta lurrean paraturíc adorátu Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)a presénte beirátus, dióla, Jauna, lurréco arritogóneac adoratzendút orren Magest(**ade**)a; dignabédi beirátzeas &

Azqueníc humillatubearrgára confessatzerá gueuren cúlpac, acusátus gueuren buruóc tiessoqui, ez excusátus, alchátus, ez disimulátus, ez botátus nióri cúlpac, baicic gure cónta gure cónta bėti. Confessioarén gra(**ci**)a ta gála dágo itsústean norc bere búrua: Alá edércen, garbitzen, ta arguitzendá arima. Ó humildad(**ear**)en óna: eta nola becatári itsúsibát itenduén sandu ederra confessioarén medios! Eta ô suberviarén gaichsto gaichstoficatua, Luciferen alába p(**ro**)prioa, itzultzenduéna venéno bálsamo bacárr precíósoa Jesu Chr(**ist**)orén odolarén virtútes sendatzentuéna arima ilac ére. S. Martin Obispo famatugúra erreprehenditzenué Demonioac, cerén becatári ándiac admititzencituen penitenciaco sacram(**en**)tuan. Errespond(**atuci**)o sanduac, naibáduc ic ére confessátu óngui penaturic eure gaichstaquériac, iri ere barcatucodic Jang(**oico**)ac. (flos ss. in ej. v.) Baña etzégo arren subérvia erreductizéco ortára. Eta Demónioac parátua dá álque subervogúra eztioténa utzinái confessátzera bere gaitza, ta aguértzera Jang(**oicoar**)en Ministroarén oñétan arima, dágon becála Jang(**oicoar**)en beguiétan. *Confessatuzué*, dió S. Juan Evang(**elista**)c S. Juan Baut(**ist**)as, *confessatuzué*, ta *etzué ucatu*, ta *confessatuzué*. Eta berac berriz: (1 Jo. 1) *Confessatzen baitúgu gueuren becátuac, fiéla dá Jangoicoa*<sup>5</sup> ta *jústoa; barcatucotigu, ta garbitucogaitu gaichstaqueria*<sup>6</sup> *gucietaic*. Oridá emátea humiléi gra(**ci**)a & Exémpul. Publicani.

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

<sup>6</sup> *gaichstaq.*<sup>a</sup> dio.

9at.

## Sermo in Dominica Quarta<sup>1</sup> Adventûs

*De verâ paenitentia<sup>2</sup>, et eius signis.*

Praedicans baptismum paenitentiae<sup>2</sup>. Luc. 3.

Egúngo Evang(elio)an contatzendá noiz ta nola asitzen S. Juan Baut(ist)a Chr(ist)orén alcindária predicátzen penitenciarén batáioa, barcatzecó becátuac. Voz clamatzenduenaréna desértuan, prestátu Jaunarén videá, eguin zuzén berarén séndac & Etorrice guerochságo Jesus, eta asize alabér predicátzen penit(enci)a. *Paenitentiam agite, appropinquat* & Math 4. Iganóndoan guéro Jesus cerúra, S. Pedro guelditucéna berarén Vic(ari)o lurreán, assize alabér predicátzen penit(enci)a. (Act. 2) Gauza notagárria sínés, irur Predicári andiэн lembicico izánac múnduan, iruréc ain chústо lembic(ic)o predicua eguitea clamátus penit(enci)a! Cergátic oté? Cergátic ezte-láic ceruráco bérice videric, baicic edo Innocencia, edo Penitencia: Deitzendá Innocencia becaturicgabe vicitzea, goardátus mandam(en)tuac, mantenitus bataioco gra(ci)a: Au galduasguéros, eztá guelditzen berce erremedioric, baicic penit(enci)a, edo penitenciaco batáioa, batáio bigarr(en)a penáscoa, negarréscoa, trabajósoa deitzendéna. Alácoes dió Chr(ist)oc, (Luc. 13) *Ezpadúcie eguiten penitencia<sup>3</sup>, gucióc galducozaráte*. Orái bada cein gutiño bidediren aures lándara doacinac cerura innocenciarén videas, audá, conser-vátus gra(ci)a lembic(ico)a, galtzendeláic edocein becátu mortáles? Eta alaére ció S. Ambr(osi)oc, (1. 2 de paenit) *aiságo aurquituzuéla goardatuzuenic innocencia<sup>4</sup>, ezi eguinduenic beárr becála penitencia<sup>5</sup>*. Bada ene becatári lagúnac, aizágun S(an)to Thomas Villan(ueva)c oiuitenduéna, *aut paenitendum, aut ardentum*: Edo bearrcó eguin

<sup>1</sup> Dom.<sup>a</sup> 4.<sup>a</sup> dio.

<sup>2</sup> paenit.<sup>a</sup> dio, eta paenit.<sup>ae</sup>

<sup>3</sup> penit.<sup>a</sup> dio.

<sup>4</sup> innoc.<sup>a</sup> dio.

<sup>5</sup> penit.<sup>a</sup> berriz ere.

penit(**enci**)a, ta bearrbecála; edo egonbearró errétzen eternid(**a-de**)an. Icastecó cer dén ta nolácoa beardén penit(**enci**)a, escazágun gra(**ci**)a, empeñátus güre Ama Santissima<sup>6</sup> Ave M(**ari**)a.

(Balitz, dio Concilio Trident(**ino**)c, Balitz bataiatuetán bearrbecaláco esquerra ta ajóla, ez galcecó gracia<sup>7</sup> Jangoicoac<sup>8</sup> emána bataíoan, ezlitzáque bérce erremedio-bearric, salvzéco: Baña Jangoico<sup>9</sup> ónac ta misericordiaren<sup>10</sup> Aitac chsaquinic anitzec galducozutéla gracia<sup>11</sup> lembicicogúra<sup>12</sup>, utzizué erremedio gueróco ere, ez yá urésco bataíoa, cein ezpaitaique bein baicic vici gucian errecibitu, bai penitencia<sup>13</sup> deitzendena<sup>14</sup> bataioguisabát trabajosoa, ta bigárren óla, ez ondatzecós) Penit(**enci**)a daique izán sacram(**en**)tu, edo origábe solam(**en**)te virtúte: Juntatzendeláic becátuen conféssio ta sacerdot(**ear**)en

## 10

absolucioaréqui, dá sacram(**en**)tu, penitenciaco edo confessioco sacram(**en**)tua deitzendéna: Baña confessoric ta absolucioicgábe delaic biótzean ta bacantasúnean, dá penit(**enci**)a virtúte. Itzac diónes, penit(**enci**)a dá penátzea, penaizátea becátu eguinas, edo urriquim(**en**)tu, dolóre, sapíte, dámu fiñbát offendituas Jang(**oi-co**)a. Ez engañatzecó, beárda explicátu nola dén bearbecalácoa.

Beñic bein penit(**enci**)a edo biotzeco penagói beárda izán, eguiáz sinés sendoquí aborrecitus gaizqui eguina, propositorequí ez berriz itecó, baitaré barcacioarén esperanzaréqui. Órtas lándara beárda izán sobrenaturála, audá, Jang(**oi**coar)en doáies, ta motivo sobrenaturáles déna, ez gure indárr sólles, eztaré motivo naturáles. Ezauncecó cer dolóre dén, errepára cer motivos dén. Exemplitáco: Eroridá bat becátuan, ta orgátic galdudú estimácoia, conveniència, edo berce ondásun lurréco cerbáit; motivogórren cáso dú péna becátu eguinas; eztú deus válio lográceco gra(**ci**)a, cerén baita péna naturála, ta motivoa ere naturála. Sobrenaturál izatecós, beardire motivoac ere izán sobrenaturálac gure naturále baño goragócoac. Alácoac dire motivogáiec fêdes solam(**en**)te daquizquigúnac, nola Ja(**n**)g(**oi**coar)en

<sup>6</sup> SSma. eta laburgailua.

<sup>7</sup> graa eta laburgailua.

<sup>8</sup> Jang.<sup>s</sup> dio.

<sup>9</sup> Jang.<sup>s</sup> dio.

<sup>10</sup> miseric.<sup>o</sup> dago.

<sup>11</sup> graa eta laburgailua.

<sup>12</sup> lemb.<sup>o</sup>gúra dio.

<sup>13</sup> penit.<sup>s</sup> dio.

<sup>14</sup> deitzend.<sup>s</sup> dago.



ón ta amabletasúna, gra(**ci**)arén óna, cerúco glória, infernúco pénac, ta alácoac. Aláco motivorenbátes arcenbáda péna becátu eguinas, dá péna ta dolóre sobrenaturála. Au daique izán bi guisatára; bāt perféctoa, bércea imperféctoa: Au deitzendá Atricioa, ura Contricioa. Contricioa dá Amorésco péna, urriquim(**en**)tu, ta dolóre andibát offendituas Jang(oico)a, bera denagátic cerén offendituduén Jaunbat ain óna ta amáblea, intenciorequi confessátzeco ta emendátzeco. Atricioa dá beldurrésco dolóre ta urriquim(**en**)tu andibát offendituas Jang(oico)a, cerén bere becátu gaichstoen medios galdubaitu gra(**ci**)a, ta ceruráco dréchoa, ta botabaizuque infernúco penetára; intenciorequi confessátzeco ta emendátzeco.

Contricioa eldúda Jang(oicoar)en amoretic, alá dá dolóre amosobát, ta amóre dolorosobát. Ezpáda amoreic Jang(oico)ai, eztaique izán contricioric; eta barimbáda Jang(oico)ai amóre, eztaique fálta contricio, oroituric offendituduéla amatubearzuéna. Contricioarén motivoa dá sollic Jang(oicoar)en ontásun amáblea offenditua. Atricioa bérriz datórr beldurretic, beirátus becatuarén cálteac: onen motivoac daizque izán irur edo laur: bat, gáldua gra(**ci**)a; bercebát, baizunque Jang(oicoa)c privátu gloriatic; bercebát, baizúque bóta infernúra; baitare beca-

### *10at.*

tuarén gaichstoa béra dá motivo atricioarén. Diferéncia ándia doáie atriciotic contriciorá. Contricioa dá nobleágo ta obeágo, cerén amoretic eldudén, ta barcatzentuén becátuac confessatu baño lén ere confessátzeco intencioaréqui. Atricioa eztéla ain noble ta ain ón, dá claro, eztaére ásqui bacarric, barcatzeco becátuac, baña bai confessoraréqui báteo. Clarazágun au berau. Becataribátec dú péna offendituas Jang(oico)a, cerén galduduén berarén gra(**ci**)a ta glória, ta exponitudén condenaciorá, edo becatuarén gaichstoagátic: Onéc dú atricio; onéqui confessaturic absolvtizenbadúte, salvo dá: baña sacram(**en**)turicgábe iltzenbáda atricioaréqui, naiz duén co(**n**)fessátzeco ta emendáceco intencio, eztá asqui: galdua dá. Becatári bérac edo bercebátec dú péna offendituas Jang(oico)a, solam(ent)e cerén amatz(**n**)duén, bera denagátic ain óna ta amáblea, ezpaizue meréji offenditzea; onéc dú contricio, orréqui sollic, confessaturic obéqui, baña confessatubañolén ére confessátzeco intencioaréqui barcace(**n**)dió Jang(oico)ac, ta ilbalédi sacram(**en**)turicgábe contricio ta intencioorréqui, ezin erdéchis sacram(**en**)turic, sálvo litzáque. Eta orrá bidanábar eracutsiric cer imbeárden, ilceco láncean aurquituric sacerdotericgábe; itzúli Jang(oico)agána contricios, Jau-

na, solem(**ent**)e berói denagátic, ta cerén onestenbaitut gauza guciac baño yago, dâmu dût offendituas, dût damu milla aldis, ta confessa-nindeique, albanindeique & Eta cembáit Autoreéc diôte, naiz sacer-d(**ot**)e ta absolúcio izánic ilceco peligróan beardéla procurátu contr(**ici**)o, seguráceco arima. Convéni déla bėti ere procurátzea contr(icio)a, dá cláro.

Penit(**enci**)a eguiáscoa, déla contricio, déla atricio, dá Jang(**oi-coar**)én espirituarén donobát, uquitus guizonarén biótza, mogui-tus, arguitus, ta sú emánes, viztecó arima ila; ezperén ila il legóque, cerén ezi gú bagaizque eróri, bagaizque il ariman, baña ez jaiqui, ez viztu, ez penátu ére, gaizqui eguinas, ezpádu inspirátzen vicitza-rén esp(**iri**)tua Jang(**oicoa**)c, *inspiravit in faciem* & Argátic ere da sobrenatural penit(**enci**)a eguiáscoa. Irur lagún bearrtu, errán be-cála; barcacioaren esper(**anz**)a; becátu eguinen aborrecim(**en**)tu biotzéscoa; ta propos(**it**)o firmea, ez berriz itéco. Esperánza-

## 11

fáltas solam(**en**)te, gutitan falsotzenbideda penit(enci)a, ala nola Ju-das, Antioco, ta Cainen arimaetán. Yagotán falsozendá becátuen aborrecim(**en**)tu-faltas, ta propos(**it**)o-fáltas. Atranaitut cembait señále, ezauncecó penit(**enciar**)ren balsamogau fiña dén edo fálhua; lenic advertituric, biótzean dagóla sustáncia guciá; eta naiz deitzen-diren penitenciac gorputzarén mortificácio, báru, disciplina, pena-lidáde, ta alácoac, obéqui deileizque penite(**n**)ciaco óbrac, edo pen-itenc(**iar**)en efféctoac comunquiró; ala nola bearrtsuai itendiren limósnac ta favóreac deitzendire carid(**ad**)e ta miseric(**ordi**)a, baña eztire baicic virtutegóien óbrac ta efféctoac gorénas, ezi carid(**ade**)a sustáncian, baita amátzea Jang(**oico**)agátic, biótzean dágo, ez escue-tán, bolsan & Éguiadá mostratzendéla biotz barnecoá cámpoco gauzagoietán, nola súa mostratzendén chindi, queé, ta béroan. Baña badaizque izán móstra fálhuac, nola itendirelaic vanidádes, passió-nes & Ariorá diót penit(**enci**)a biotzécoas.

Lembic(**ic**)o señálea, confiátzeco déla fiñ penit(enci)a, dá bere bárnean sentitzea novedáde-guisabát, arimarén moguim(**en**)tu, amargúra, affliccio, ta pesadumbre-guisabát becátuen cásos, nic cer eguindút? dióla: acorduratzendén becála cegóna lostordituric: edo dén Jang(**oicoar**)en errespéto-útses, edo bere co(**n**)denacioarén bel-dúrres, móstra dá, uquitudióla Jang(**oicoa**)c biótza. Cóntra berriz señále chárta egótea novedadeicgábe ain seréno ajóla gúti, confessá-tu náiz bai, baña nola ceremónias, costúmbres, edo cergatic doácin bérceac, goácen gú ere; oroát passátus bidanabarr conciéncia achsál

achsála, oroát erránes agorá elduzaióna, oroát útzis, eta ala nolanái epel epéla. Señale mortálac, engañáceco bere búrua penit(**enci**)a fál-suas. Alacobáti gastigatució Jang(**oicoa**)c S. Juanen medios mandatugáú. (Apocal) *Ojalá bacina ótz edo héro, baña ceréngátic záren epél, egotzicozaitut ene agotic.* Otz deitzenda gaichsto déna claroqui, eztuéna niór engañátzen on-idúris: Béro penitente fervorósoa: Epél ichurapén ajolacábea, penitente muchsichsárcoa, enfadagárri, egozgále ematenduéna. Eztúte lotsátzen confessóre óna becátu ándiec, ez, baicic dolóre dudáscoac ezbaíean dabilánac; cerén ezi dolóre andiaréqui segúro barcatzendire becátu andiénac ére; eta icústea noizea(**n**) noiz conversióne milagróscó andigoietáic dá consolatzendue-na confessórea pacienciarén alquigártan. Contra berriz, naiz becátu léveac diren solam(**ent**)e, ezpáda dolore sobrenatural eguiascoric, absolúcioa doáie

*11at.*

vánoan; eztá sacram(**en**)tu, baicic sacrilegio. Dolorearén dúdac affligicendú confessórea gueieníc, eta orgátic convéni dá, eztuéna presénteana becátu andiric, ceintas duén dolóre, parátzea lengoetáic bat edo bérece, naiz confessátua, ceintas duén dolore, seguratzecó sacram(**en**)tua.

Bigárren señále ón penit(**enci**)a fiñarén dá biotzéco afféctoen aldatzea; lén amatzenzuéna orái aborrecitzea; eta naietzuéna lén, orái bai. Baña biotzarén estádoa nola ezpaita erráz ezauntzea segúrqui, ezpáda fruituetáic, beira vicimóduai; emendátzea, goardátzea ez solam(**en**)te becatuetáic, baitaré ayen cebo ta peligroetáic, señale óna. S. Magdal(**en**)a derepénte aldaturic biótza urtiquizé Jesusen oñetán, cegolaic bazcáris Fariseobáten échean. Berceác bazcáltzen máiean, sanda negárr ta negárr apegaturic oin sandugáie; Jesus óna gueldi beira penit(**enci**)a ain fiña; Fariséoa marmárr berebaitan, nola us-tenduen bere oñetán déna becatári; baña engañatzenzé juiciogártan, cergatic yá etzé becatári, lén izána, aldatuzé, ince sánda: Alá icusicé guéro, léngo vanidadeetáic yá ez arrastoric ere; guciá bai devócio, santid(**ad**)e & Cóntra berriz ez emendácea, seguitzea oroát nola lén condicio gaichstoac, céboac, galvideac & señale chárria; eta delaric dembóra gutiren barnean, charrágo. Penitente fál-sua, S. Pedroc deitzendú, tzacúrria itzulcendéna játera egotzizuéna, *Canis reversus ad vomitum.* (2. c. 2) Ingúr ingúr, eznái apártatu & In circuitu &.

Irug(**arre**)n señále óna dá, gogorátzean bere gaizquí eguina maiz emátea péna ta negarrgále. Oh! señale, biótzean sarturic daucála penarén arántzea sentiarastendioláic moguim(**en**)tura guciétan. S. Pe-

drori erra(n)cio Jesus onac passio-alcinean, gaurr ucatuconauzu irur aldís, ollárrac cantatubaño lén. Etzégo sinestatzecotán: baña guéro turdituric beldúrrac ucatuzué irur áldís, ta bérla cantatuzué ollárrac. Acorrituric assize negárres amarrgoqui: Eta vici gucían oroát cé ollárrain cántua aditzea, nola ástea negárrain música, bi béguien péan inbaicequizquio bi erréca becála negárren útses. Arc zué penit(**enci**)a fina. Baña sentidoicgábe errátea cúlpa gráveac ere; ain seréno alégre ausárt egótea bárnean, ezauneztéla novedaderic yago ezi aurpéguián; contátzea guero, ta celebrátzea chánchas becála ta sendagállas bere gaizqui eguina & señále chárrea.

## 12

Laurg(arre)n señale óna penit(enci)a fiñarén dá óngui ártzea confessoréan erreprehensio edocein déla; cumplitzea penit(**enci**)a medicinálac; gucíá guti idurizaiola merejiduenarén áldean; Jauna, errátea, manabezáda yago ta yago, nola barcadaquidan; goápo, móstra edérra. Cóntra berriz púntu ártzea erreprehensioes; que-xátzea manátuas; ez cumplitzea óngui; murmurátzea, erchi déla, impertin(**ent**)e, escrupulóso; ibiltzea aldaquétan bein baterá bein bercherà & señale chárrec. Borzg(**arre**)n señale óna eguitea bere borond(**at**)es cembáit penalid(**ad**)e, orácio, limósna, pagatzecó, ta emendatzecó; especiálqui berritzea propositoac; pensátzea ingéniac egunetic egunerá ontzecó; emátea bere buruái cembait castigo descuidarrteetán, ala nola tropezatzendén abreari ezpóreas, edo zurriágoas: gucíen gañetic escogitzea arimarén Medicu onbát, seguitzea co(**n**)tino, acuditzea maiz, escátzea, ta cumplitzea medio ematención guciac. Cóntra ez ajolaic eguitea medioes erratearéqui eztéla oblig(**aci**)o; nequés ta argál ezin bércas joátea confessatzerá; lazoé-nac billátzea, nolanái passala pássa & Ah cer sendátzeco modua! Cein penitenciarén fina!

Bérce señale onbát dá conféssio generála eguitea borondátes, náiac erremediátu léngoen fáltac, borraráu ordurañoco gucia, ta assi berri berritan vicitzen vicimodu óbea, parátus ala nola mugabát dióla, hé, onaraño ásqui dá ta sóbra gaizqui eguina, eméndic eztá pasatubeárr, *et dixi, nunc coepi*. Contú jaiotzendéla berriro, edo bataiátzen. Alácoa dá penit(**enci**)a fiñ fiña. Perseguitzenzue Deábruac bat bere vicimodu gaichsto passatuarén cásos. Libratzeagátic sartúze ura conv(**en**)tubátean: baña án ere itenció guérra madaricátuac. Valiatzencé gurúzteas ta ur bedecátuas: gaichstoa joatencé, baña itzultzencé. Consejaturic erranzezála ious ave Maria, errate(**n**)zue arc ala; bércac igués itenzué, baña ez beticos. Azqueníc sacerdote-

bátec consejatució eguitea confessiobát generála sin sinés: Prevenitucé, ta bazoéie eguiterá: Videan erratenció Satanasec, Nora zoáz? Arc, noáiec confunditzera ni, ta confunditzera i. Eguinzuen istantetic gueldituzé ala nola descargaturic pizu andibatetic, ta libre láquio guciétaic, concienciarén consolácio andiaréqui, ta señále claroéqui admitituzuéla Jang(**oicoa**)c bere gra(**ci**)an. (Parra p. 3. pl. 22) Valia-gaitzen penit(**enciar**)en batáioas; dúgun penit(**enci**)a sáno sinés, ta eguiáscoa, indezágun Jang(**oicoa**)c guri ere gra(**ci**)a admititzeas orái bere gra(**ci**)an, ta guéro bere glorian. Amen.

12at.

## Sermo in Dominica<sup>1</sup> infra Octavam Nativitatis Domini

*De temporis jacturâ redimendâ.*

Puer autem crescebat et confortabatur & Luc. 2.

Zoeiela, dió Evang(elio)ac, aurr div(ino)a ázis ta indárr ártus, gorpútzean enténda, beteric chsaquintasúnes, eta Jang(oicoar)en gra(ci)a berabaitan, arima(n) ente(n)da. Exémpu dú Christioac, joatecó ázis ta indárrtus egunetic egunerá gra(ci)an, virtutean, chsaquintas(une)an. Christioarén adina ezta contátzen egún ta urtecál, baicic chsaquintasun, virtúte, ta gra(ci)aren aum(en)tuaren ariorá. Doctrina guti dáquien Chr(ist)ioa, aurr dá oráño chsaquintas(une)an; alácoei ció S. Pabloc, *tanquam parvulis in Christo lac vobis potum dedi*: Aurr titicoei becála Chr(ist)iotasunea(n) emandiziet edátera ésnea. Cer ésne? doctrina lláno clároa. Alabér naiz bai doctrinan, ezpáda alcinátu gra(ci)an ta virtútean: anitz úrte ta guti virtúte: aurr dá ori ére. Eta baldin ondubeárrean, gaichstatubáda, zárrtus ta chárrtus, aurr baño aurrágo dá. *Puer centum annorum morietur*, dió Isaiasec (65) Egún urtetáco aurr ilendá. Nola datéque? Egún urte barimbaditu, nola dá aurr? edo aurr barimbáda, nola tú egun úrte? Badiót nola. Egún úrtetáco ez orái, baña iruoguéi, berroguéi, oguéi urtetáco aurr ásko dá múnduan. Nor dire? Eztirénac áci virtuteetán urteéqui. (Beira: Cémbat úrte túzu? Aimbérce. Eta cémbat virtúte? cémbat humild(ad)e, castid(ad)e, carid(ad)e, paciéncia &? Ay ené! cein guti! cein escás! Bai ta ebén pártes acibazára vicio ta becatuetá(n), etzára Jangoicoarén azi, baicic Deabruarén. Oroát ónean ere aguidaique, gasteric zarr, chiquiric ándi. *Guizonarén zénzu óna dá illeurdin mota obéna; eta vicitza ona dá adin aicinátua*, dió Esp(iri)tu S(anduac) (Sap. 4) *Eta dembóra labúrrean bucaturic betetuéla ánitz dembora*. Berás Jang(oicoar)en estimácian contatzendire virtúteac;

---

<sup>1</sup> Dom.<sup>a</sup> infra Oct. Nativ.<sup>s</sup> Dni, eta azkenengo honen gainean laburgailua.

urteés caso gúti. Jacob Patriarcari galdeguincio Faraonec adinas: Erresp(ondatuci)ó, Ene pregrinacioco egúnac eúnta oguei<sup>2</sup> úrte dire chipiac eta gaichstoac. (Genes. 47) Peregrináció deitzendú eméngo vicitza, baigoáz passátus vides gueuren patriará, gloriará, ongui iza-tecós. Chipiac eta gaichstoac deitzentú bere egúnac; gúti óbra ón, gaichsto bai sóbra induéla mostrátus. Arc cióna humild(ad)es, guc dezaquégú errán eguiáz.) Goácen átras cóntua egún, yá urtearen mugan gareláic, eguiteco propos(it)o emendátzeco ta desquitátzeco urréngoan. Ortáco goácen bere diosálea emátera Ama Santissimái<sup>3</sup>. Ave Maria.

### 13

Errepassatucotiót, Jauna, neure úrte guciac ene arimarén amar-guran<sup>4</sup>, cio Isaias Prof(et)a sánduac: (c. 38) Cergátic arimarén amar-gúran bearrtúgu errepassátu? Cergátic gueiénecc indúgun sobra be-cátu, eta cási guciéc guindúzquen obéqui empleátu. Albaleique bát in Errégue, ta bere fáltas galbález escaida óna, ezlúque sentim(en)túra amárgoa? Bada Errégue baño yago ere inceique bát, eguines sán-du: ori bazeique eguin, ta bere fáltas eztá eguin: ya eztuén motivo errepassaceo<sup>5</sup> bere úrteac amargúran, dióla, ah! Emplegátubánu edérrqui nere vicia! Ah! nola negóquen, ta nola nágon! Nindeique izán Jang(oicoar)en onétsi sanduetáic bát, eta malogratudút escai-da!...

Bai ta ondubeárrean, joanbáda gaichstátus, ori baita doble des-gra(ci)a. Ó úrte malográtuac, urte gaichstoac p(ro)prioquí, ta úrte béltzac! Antiguásco Gentilec pintatzenzúte guizonarén vicia elléscó ardatzaribátean: Ortáco fingitzenzúte irur Aizpa deituec, Clio, La-chesis, ta Atropos errocatzenzutéla gure viciarén ária: batac idúqui erróca, bérceac eguin ária, ta bérceac ebáqui puréchsas. Deitzenzús-te cóntraco izénes Párcac, ceren barcatzeneztióten nióri. Elléscó árian cláro edérr adiarastendá gure viciarén delicátu auchscórra. Baña batzuén ária itenzúte élle chúris, bercebatzuéna béltzes. Noren vicia izambeárzen fortonóso, arren ária chúri; nóren vicia desgra-(ci)atu, ária beltz. Orái eguiata(n) itzúlis contugáu, nor ere vicidén óngui Jang(oicoar)en gra(ci)an desgra(ci)atugábe cúlpa mortáles,

<sup>2</sup> *oguet* eta *úrte* hitzen artean, horien gaintetik lerro tartean *tamar* erantsi dute. Donostian argitaratu zutenean, *eun ta amar urte* idatzi zuten.

<sup>3</sup> *SSmái* eta laburgailua ipini du.

<sup>4</sup> *amargura* eta laburgailu bezala, marratxo bat azkeneko *a*-ren gainean.

<sup>5</sup> *errepassaceo*, espero don *errepassaceo*-ren ordeztu.

chúri edérr dá arren viciarén ária: baña nor gaizqui vicidén Jang(**oi-coar**)en desgra(**ci**)an, zóri gaichstoan jáioadá, beltz dá arren viciarén ária, beltz úrteac &

Exémpu dúgu Babiloniaco bi Juéz adinetacogaiétan conta-tze(**n**)baita Escrit(**ur**)an (Daniel. 13) Berén passióne beltz itsusiarén cásos tentatuzúte, baña ezin errendituzúte Susánna, ederra bezáin sánda. Falsuquí acusátu, ta injustoquí sentenziatuzúte iltzera arricaturic. Bazemáte sánda loturic; niórc ez librácen, deusec ez vália; solam(**en**)te céruan paraturic biótza, goratzencitue bére bi bégui edérrac Jang(**oico**)agána, baice testigo ta Juéz bere innocenciarén, ta Juézen gaichstaqueriarén. Yá yá prestaturic árriac daudélaic, ará non atratze(**n**)dén aurrbát, deitzencéna Daniel, óius dióla gucién alcinean, Ni libre nágo injusticiagóntaic. Ô Israeldárrac, ain simplequi dezaquezéla sinésta zarr gaichstogóien guezúrta? Naibauzie, nic atracodút égúia; betóz, lenic bata, guéro bércea, nic examinatucoút emén gucién preséncian. Alá guince: berechsiric ecarricióte bat; eta oni erráncio muticoac sevéro, *inveterate dierum ma-*

13at.

*lorum*, ô zárrtua egún gaichstos, orren gain eroricodire orái bere becátuac: Erranbezágu, icusibadú gaizqui eguiten Andregói, non eguindú? Arc errespondatuzué, aláco lécuán. Daniélec orduán, edérrqui errandú guezúrta bere cónta: sárrri pagatuodú Jang(**oicoar**)en senténcias. Ura apartaturic, ecarricióte bércea: Oni erra(**n**)cio, Canaánen cásta, ez Judácoa, passióneac garaitudú, baña etzáio valiátu, ta orgátic naizue ilaráci culpagábea. Erra(**n**)bezágu, cer lecután icusidú becátuan? Arc, aláco lécuán, erra(**n**)zue diferente berceagánic. Daniélec bérla, goapoqui guezúrr indú bere cónta orrec ére. Icusiric guciéc ain cláro aién testim(**oni**)o fálsua, arricatuástete berántan ayéc, eta Susánna itzulizúte glória andiaréqui. Gure assuntoráco: emén dúgu aurrbát ándia, úrte gútis baña ónes, chúris, edérrres: zárrrac cónta. Notagárrri da le(**m**)bicoái erra(**n**)cionana, *zárrtua egún gaichstos, egún béltzes*. Goácen orái errepassátus norc bereác ceric diren, emendátzeco, ta desquitátzeco.

Urtearén múgan atrátzea cóntuac óngui eldudá. Ots, cer adín dú? Jauna, oráño aurra amábi amaláur urtetán. Zúc diózu gorpuztare(**n**) adinas, baña galdeguitendút arimarénas. Dá mutico, dá nescáco juicióscoa, sosegátua, humil obediénte, óngui inclinátua? Óngui: berás aurra delaic, ándia dá. S. Justo ta S. Pastor anáiac, báta zázpi, bércea bedrátzi urtetácoac cireláic, escolatic escapaturic joancire emátera bere odóla ta vicia Jesúsén amóres. S. Pancrácio



amirur, S. Venáncio amabórz, S. Ynes, bi s(an)ta Eulaliac, ta bérece ánitx amábi amirur amalaur urtetán coronatucire martyrios: Báda sándu ta sándac bérece guisac adingórtan yá norc cónta? Baña dá errebel desobediénte arin gaichstoa icasiduéna yá malicia? Malo, goicic doáie zártus ta chártus aríman, goicic corrompitz(e)n, ta gálcen. Orái otsóco, guero ótso. S. Greg(orio)c contatzendú aurrbát borz urtetáco erama(n)zutéla Deábruec bere Aitarén besoeaic blasfemiagátic. (Dial. 1. 4) Leitzendire zázpi ta bedrátzi urtetácoac condenátuac. Eztirénac leitze(n) norc cónta?

Cer adin du? Jauna, gáste oráño, adinarén flórean. Arimas diót nic: Errespónda óntas. Jauna, dá mutilbát juicios bétea, modéstoa, erretirátua, ichsila, vanidadeicgábe, gucién exémpu, Aitetamen consólu, Ainguirubát becalácoa. Óngui, zori ónean déla: gasteric zarr veneráblea dá.

## 14

Cóntra, barimbáda gáste ta gaichsto, váno, subérr, alquegábe, araguiarén cofraquide, malician Maestru & Malo: galdudá lórean, *vérdeta ustél*. Oroát: Dá doncélla modésta erretirátua presunciogabécoa, ichsila & Óngui: goicic óndudá; lóreac fruitu. Baña guciá presunciobarimbáda, munducói, álque gúti, óñac arin, arinágo búrua, bégujac libre, irria góra & Málo: naiz idúri ón gañetic, arima itsúsi, ustél-urrín. Ó adinarén flórea! Ó urteric obénac! Cémbat malogratzendén, emánas munduarí, Demonioarí, ta araguiarí malam(en)te, quéndus Jangoicoarí! Zori onécoa goartzendéna mugonéz<sup>6</sup>! Imbez sendagálla mantenitzeas virginidáde preciósoa, ta Jang(oicoar)en gra(ci)a, naiz doáza(n) guciác vanidad(ear)en<sup>7</sup> átzean. (narrasis exempl. de trib. pueris Daniel 3.)

Cer adin dú? Adinic obénean, diózu, dágo. Arima nola? Préstua dá, cuidace(n)duéna Christiotasúnas, familias, gauza guciés? Vanidadericgábe, invidia, ta vicioricgábe, nióri perjuicioic eztuéna itén, bai nori bérea emáten, ta limósna, ta dezáquen óngui gucia itenduéna? Itzbátes, doaiéna zuzenvidéas constánte Jang(oicoar)en alcinean macurrugábe, nola irúzquia bere carréra(n)? *Quis est hic, et lavabimus eum?* Nor dá alácoa, ta laudadezágun? Aláco gúti. Cóntra bai ásko sarturic arima lurréco itecoetán solam(ent)e nola satórrac, ásko pompeátus vanid(ad)es, ásko invidióso chárri biotz zimúrr proxi-

<sup>6</sup> *mugonéz*, azkenean -z eta ez -s.

<sup>7</sup> Beharbada *vanidadeen*, eta ez *vanidadearen*.

moéqui, ásko lázo ajolacábe & Cer adin dú? Alcinátua yá. Eta aríma cer estadotán? Oh! aguitz ondudá, diózu: desengañaturic eztú tratá-zen yá baicic óngui iltzeas; eztú ya léngo condicio gaichstoric. Eta nic diót eztela ori maiz aguitzendéna, bai dióna Esp(iri)tu S(ándua)c (Prov. 22) ta errán comúnac; *condicio tuénac gastezútuán eztú utzico zarrzútuán. Adolescens juxta viam suam &* Nola azí, alá seguí, aguitzendá comunquí. Zarr ona izatecós, ta óngui bucatzecós, beartu laur edo borz *p.*: paciéncia, penitência, pássio sándua, pagam(en)ta, persever(anci)a. *Paciéncia*, padecitus berengánic, Jang(oicoar)agánic, proximoengánic trabájuac óngui Jang(oicoar)én amoreagátic: *Penitencia*<sup>8</sup>, soñátus maiz Daviden citaran; citara dá contricioa, negárta sónua, ta conféssioa cántua: *Pássio sandua*, euchis Chr(ist)o gurucificatuarén paloari, validézon ta súpli falta duéna: *Pagamenta*<sup>9</sup>, pagátus becátuen satisfáccio zorrduéna. Nola? eguines dezáque(n) limósna ta óngui gucía, especiálqui arimarén álde, eracútsis, consejátus, corregitus, ta irabácis dezazquénac Jangoicoaindáco. *Perseverancia*, iraunes ónean constánte, viciac diráuen bitártean.

#### 14at.

Eta bada urtegáu bucátu urrán dá, ez itzulcecotán, inaracizógun testamentu<sup>10</sup>. Dichósoa, nori ustendión anitz ondásun. Gueienéi ustedút ánitz zorr ustendigúla pagátzeco Jang(oico) ai. Lengo zórrac ez pagátu, ta bérriac aum(en)tatu; presentecó obligáccioac beti beárr cumplitu, ta lenagócoen fáltac beárr suplitu: beldúrr naiz erdechicodigun anitz cóntuan. Emágun prissa desquitatzerá nolapáit urréngoan. Badaique? badaique Jang(oicoar)en gra(ci)as. Nola? Egúngoan occurrituzaida ingeniobát. Cein dá? Ordenátzea óngui dembóra: viciarén erlójua óngui ordenaturic eramátea. *Ordinatione*<sup>11</sup> *tuâ perseverat dies*. Suponituric *ciméndua*, Obligácios baita, *gaizquiric ez eguitea*, ta *eguitea óngui*, gañetic erlójua, egunóro cér, asteóro cér, ilóro ta urteóro cér convenidén eguitea. Egunóro goiceán ofrátu Jang(oico)ai bére persóna, óbrac & Arratseán concienciarén errepa-sobát, contric(io)a & Egunás Jang(oicoar)en preséncia, ta itendena in berarén amoretán & Asteóro aditu Jang(oicoar)en itza, daique-laic, santificátu jáiac, fêde, esper(anz)a, ta carid(adear)en act(oa)c,

<sup>8</sup> *Penit.*<sup>a</sup> dio.

<sup>9</sup> *Pagamta* eta laburgailua ipintzen du. *Pagamentua* irakurri behar ote?

<sup>10</sup> *testamta* eta laburgailua gainean. *testamentua* ote?

<sup>11</sup> *Ordinaone* eta azentu zirkunflexu antzeko laburgailua -ao-ren gainean.

erros(**ario**)a & Ilóro confessa come cáztea, ta cerbait obra ón beréchs. Urteóro errepáso generalebát concienciari, propos(**it**)o & Eztiót nic obligácios ebetáic bacócha, baicic devócios. Déna oblig(**aci**)o dá pagátzea Jang(**oico**)ai zorrtiogúnac, amórea ta obediéncia, ta satisfáccioa; ezperén, auchi viciaren ária, pizátu, ta arín aurquitzen bagaitu, cer izainda gútas? Contatze(**n**)dá Escr(**itur**)an (Dan. 5) Baltasár Erréguea cególaic arratsbátes máiean beteric alegre(**n**)cias brindátzen témploco váso consagratuétán bere ayaldecoéqui goápo triumfánte, derepénte aurcaseco pareteán aguertucéla escrititzen letrabátzuc. Beira yá Errégue turbaturíc gucía, ta colóre gaizturíc lótsam(**en**)turas: Cer otedá au? Betóz chsaquintsuac, leibezadáte cer dión án. Etorricire, baña ezin enténda; ta Errégue ezin soséga. Jauna, erratendióte, presidarioetán badá mutil gastebát duéna Jang(**oico-ar**)en dóno, deitzend(**en**)a Daniel; aichsteán aipatudug(**un**)a. Erréguec bérla, betórr Daniel. Etorrize muticóftoa: ta Erréguec errate(**n**)dió amóltsu, Daniel, aitudút duzúla gra(**ci**)a entendáceco gauza secrétoac: leitubeardidázu dióna letragoiétan: emanendizút colláre urrescobát, ta bércé ánitz gauza, ta izanenzára zú irugar(**re**)n persóna nere erreinuan. Daniélec erratendió seréno, Errégue Jauna, bercebáti emanbézquio bere preséntac; nic alacoricgábe leitucotiót letragóiec: Irur itz dire, Mane, Thecel, Fares. Mane naidu errán, Jang(**oicoa**)c daucála neurrituric orren errequetasúna, ta betedéla: Thecel, pizatu-

## 15

dutéla balánzan, ta aurquitudéla arin escás: Fares, berceéi emána dagóla orren coróna. Gaugártan bérean iltze seculácos. Balanzagárrrec lotsatubeargaitu. Passátus egúnac, ilabéteac, úrteac: eta beti óbra ón gúti, becátu sóbra: nola atracogára balánzan? Valiabezágu Jesúsén odól preciósosac, indezagu(**n**) ez merejidúgun just(**ici**)a, bai merejiezúgun miseric(**ordi**)a, indulg(**enci**)a, gra(**ci**)a, ta glória, amen.

## Sermo in Dominica infra Octavam Epiphaniae

*Summa vitae Christi.*

Cum factus esset Jesus annorum duodecim, & Luc. 2.

Contatzendú Evang(**elio**)ac egún, nola Jesus celaric yá amábi urtetácoa, joánic Jerusaléna bere Ama Virg(**in**)aréqui, ta S. Josefequi jaiegunbátes, ayéc itzúli, ta guelditucequióten aurr div(**ino**)a témploan; ta nola irur egúnen búruan aurquituzúten án disputáten Doctoreén érdian, zeuzquiéla guciac arrituric bere prud(**enci**)a, ta errespuestaéqui. Doctrina galánta ematendigu, nola beardiren ázi gastéttaoac afficionátus templorá ta doctrinará. Oh! alá galduric gure gastéttaoac aurquibaleites témploan, nola Jesús! Escaidagonéqui naidut emán noticia laburrbát lláno llánoa, Jesús onaren vicitzas, ta iltzeas, chsaquiteco principalénac berére, ta ezauntzecó, ta amatzecó Jaungáu, nóndic datórren ón gucía. Dá Jesus gure salvazále bacárta, Jang(**oicoar**)en sème Jang(**oic**)o, guizón eguincéna, gú salvatzeagátic, eta vicitzarén exémpu emateagátic. Da guizón div(**in**)o edérr amáble bacarrgúra, Jang(**oic**)o déna báteo, ceintan aguertucén Jang(**oicoar**)en óna. Dá gure amánte amazále apassionatugúra, bere pareric eztuéna gú amatzean, gure amóres eguin ta deseguincéna ilartáño gurútzean, ez usteagátic gú condenátzera inférnuan. Dá Espósa sándac díona déla chúria ta górria, *candidus et rubicundus*, chúria Jang(**oic**)otasunagátic, górria guizontasunagatic: chúria bere ederrtásun infinitoagátic, górria guri digun amore immensoagatic. Audá Jesús, cein, barimbáda norbáit amatzeneztuenic, biz excomecátua, dío S. Pabloc. (1 Cor. ult.) Ezaunbaguindez, amaguindezáque, nolapáit ezauntzecó, goácen aipátus bere viciarén pausu principalénac seguídan. Lenic salutazágun bere Ama Santissima<sup>1</sup> gra(**ci**)as bétea Maria. Ave Maria.

Nic sinestatzendút Jang(**oic**)o Aita gucis poderóso ceruarén ta lurrarén Criadoreabaitan, dío Credoac, eta Jesu Chr(**ist**)o bere sème

---

<sup>1</sup> *SSma* eta laburgailua gainetik.

bacárr gure Jaunabaita(**n**), cein concebitubaize, edo guizon inbaize Ama Virgin(**ar**)en entráña sanduetán Esp(**iri**)tu S(**anduar**)en virtútes, edo milágnos. Aguitucé au Marchoarén 25an<sup>2</sup>, (orái duéla 1802 urte.) (Ortáco bializué Jang(**oicoa**)c cerútíc S. Gabriel Ainguirua Nazaréta M(**ari**)a Santissimagána<sup>3</sup>: emáncio mézu, nola izanbearzuén semegúra Jang(**oicoar**)en milágnos gueldituric Virgin: sinestaras-tecó au, erra(**n**)cio nola bere aidea S. Ysabel adinetácoa ta esteril céna zoéien ya seigárren ilabétean aurrún, ezpaita impossibleric bátere Jan-goicoaindáco. Emánzue bere baiméndeá M(**ari**)a Santissimac<sup>4</sup>, cióla,

15at.

Oná Jang(**oicoar**)en escláva, eguinbédi neréqui zuc errán becála. Orduán M(**ari**)a Santissimarén<sup>5</sup> odol garbiaréqui Jang(**oicoa**)c formatuzué gorputzbát; criatuzué ezdeusetáic arimabát: gorputzgáu ta arimagáu elcarréqui unituric unitucitue beréqui Trintateco bigáron persónac séméa deitzendénac, eta alá gueldituzé Jang(**oicoa**)a guizón eguinic M(**ari**)a Santissimaren<sup>6</sup> sabél virginálean, eta M(**ari**)a Santissima<sup>7</sup> Jang(**oicoar**)en Ama ta Virgin báteo. Ainguiruac erranaréqui joánce visitátzera S(**an**)ta Ysabel, eta mintzatuzenéco Ama div(**ino**)a, saltatucé S. Juan conténtus bere Amarén sabélean. Au celebratzen-dá Ama Virgin(**ar**)en Visitacio-egúnean.

Guéro ilabéteac passátus, amatasúna nabarméndus, erreparatuzé S. Josef bére Espósoac etzequiénac deus ere milágro aguituas: paratucé suspénso, etzequiéla cer pénsa, ta ez cer eguin: chsaquinqui etzéla beragánic, echaquinqui nondíc edo nóla; ezin sinésta gaizquiric bere Espósa Santissimas<sup>8</sup>, baña ezin úca icustenzuéna béguis, aurrún cególa; ez náies belztu aláco persóna, naiizánzue útzi ichsilic eta joán; baña bearrorduán Jang(**oicoar**)en Ainguiruac desengañatuzué, erratencióla, Josef, etzázula dúda iduquitzeas M(**ari**)a zure Espósa, ezi berabaitan jaiodéna Esp(**iri**)tu Sanduagánic dá. Emanendú arguirá semebát, ta deitubeardúzu Jesús, cere(**n**) ezi béra dá salvatucoduéna becatuetáic bere géndea. Guelditucé Sándua berteric consolácios ta admirácios bere compañía ónean.)

<sup>2</sup> Honela dago: *Marchoarén 25.<sup>m</sup>*.

<sup>3</sup> *SSmagána* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

<sup>4</sup> *SSac* dío, eta laburgailua *-ac* silabaren gainetik.

<sup>5</sup> *SSmarén* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

<sup>6</sup> *SSmaren* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

<sup>7</sup> *M.<sup>a</sup> SS.<sup>a</sup>* dío.

<sup>8</sup> *SSmas* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

Passaturic bedrátzi ilabéteac, jaióce Jesus M(ari)a Virginagánic ain milagrosoqui nola concebitucén; utziric Ama ain ósso mellaric-gábe Virgin edérr ta ederrágo ezi lén; ala nola irúzquiac passaturic eztuén auchsten, ez bélzten christálea, baicic arguitzen. Jaióce Belé-nen echóla utsbátean, eta maiolaturic erreclinatuzué Ama Santissimac<sup>9</sup> gambelabátean, ez izánes berce lecuric án. Zelebratuzúte fêsta gloriaco Ainguiruec, ta ayén mézus Artzái humilec ingurugártan cirenec adorátus aurr div(ino)a gambélan. Zorzig(arr)en eguneán cumplituric circuncissioarén léguea, paratucióte izéna Jesus, cerútíc manatu becála. Amirug(arrene)an ellegaturic Errégue Magoec, izárr berribátes quidaturic, adoratzúte echolagártan aurr div(ino)a, ofrátus úrre, incénsu, ta mirra, mostrátus urrearéqui céla Errégue, incensuaréqui Jang(oic)o, ta mirraréqui guizón mortále, edo ilcóa. Cémbat miragárr! pénsa.

## 16

Berrogueig(arrene)an presentatuzúte témploan léngo leguearén cumlim(en)tu itecó; Simeon zár venerab(lea)c izanzuénac lén erre-vel(aci)o, etzêla ilen icusiárteo salvadórea, orduán cerúco avisus joanic templorá icúsi, ezaundu, ta artuzuén beteric gózos escuetán, eta despeituzé contént mundugóntaic. Ama Santissimari<sup>10</sup> erráncio, oná aurrĩtogáu dágo paraturic anitzen erorcecó ta goratzeccó Israélen, eta zure arima heritucodú ezpáta doloréscoac. Ain goicic asize sentizen Ama div(ino)a<sup>11</sup> gozoarén ariorá péna amorósoac! Andic guti ecarrizio Ainguiruac S. Josefĩ mézu, eramáteco Ama Sémeac Egiptorá, ta egotecó an, avisatuárteo berriró, cerén Herodésec naicozuén ilaráci aurr div(ino)a. Joancire vide luceán pobre-guisa norc-taqui cémbat trabajuéqui! Bitárteo Belenen ta ingurugaietán, galdunáies aurr div(ino)a Herodes infámeac, ilaracitue ciren aurr guciac bi urtetáic béra; ebéc dire Martir innocénte celebratzentuénac Elizac Eguerrietán.

Egipton passatuzué aurrzútua, diotenés, zázpi urtetaráño. Gue-ro Ainguiruarén mézus, chsaquinic ilciréla Heródes ta bere guisá-coac, itzulize familia sandugúra Nazarétha, non Ama Virg(inar)en éche póbrean, berarén ta S. Josefén compañian vicituzé Jesus póbre-guisa, emangábe eza-untzerá munduái nor cén, oqueitamárr urteta-

<sup>9</sup> *SSmac* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

<sup>10</sup> *SSmari* eta laburgailua *-ma-* silabaren gainetik.

<sup>11</sup> *Ama div.<sup>o</sup>* dío. Izan daiteke *divinoa* edo *divina*. Holaxe ere 15at.,1.

raño guti gora bera. Bitárteo cer eguinzuén, eztió Evang(**elio**)ac, baicic aichstean errána, nola amábi urtetan gueldituric témploan ta aurquitúric itzulicén bere errirá Amaréqui ta S. Josefequi, ta cegoquióten obediénte. Dudaeztaique áasco penit(**enci**)a, oráció, ta gauza imbidezuela bitártean gure salvacioráco.

Ogueitamárr urtetán celaic yá urbil, asize manifestátzen. Bere alcindári-guisa lenic aguertucé S. Juan Baut(**ist**)a prevenitzerá Jang(**oicoar**)en videa predicátus penit(**enci**)a. Jesus ónac ón guciarén exémpu ematecó, becatárien értean bérac ere naiizánzue bataiatua izán Sanduarén éscus: Etzé tréve Sándua, ni bearnáiz bataiatu orren éscus, erratencio; ta beróri eldúda neregána? Utzázu, errespond(**atu-ci**)ó, ala cumplitubeardúgu ón dén gucia. Bataiatzerácoan, edo berla, idiquicire céruac; jautsice Esp(**iri**)tu S(**andu**)a usobáten idúrian: aditucé Aita etern(**oar**)en voza erráten, Audá ene seme onétsia, ceintan duten nere complacéncia. S. Juan bérac ematenzue testim(**oni**)o gendeéi, nola cén Jesus yago ezi bera; bera etzéla digno lazatzecó arren oñetácoac; zeucála bere Mag(**estadea**)c bere éscuan sárdea, aizeratzecó bere eulcia, audá, déla múndu guciarén

*16at.*

Juez soberáno, juzgátu ta emanbeardigúna guciéi sent(**enci**)a. Principálqui eracustencióte éscuas nor cén cióla, *Ecce agnus Dei* & Oná Jang(**oicoar**)en achsúria quentzentuéna múnduco becátuac. Orgátic pintatzeunte S. Juan mostrátzen eriaréqui achsuriñobát daucána aldácan. Alabér naiizánzue Jesus ónac erretirátu lenic eremubatéra, an barútu berroguéi egúnes ta gáues, gosétu guizón becála, ta permititu ondórean tentazézan Satanasec, cein botazué garaituric edérrqui, guri eracustecó garaitzen.

Ondórean guizón div(**in**)ogúra manifestatucé munduari eracústent ceruráco videa itzes, obras, exémpus, milágros, ta ón género gucies Jang(**oic**)o ta guizón becála. Norc pinta personagúra, ain mánsu amáble onéguia? fórna ain gucis perfécto miragarriró? Aurrpégua ain ederra, beiratzegúra ain humil amoróso? mintzatzegúra ain suave ta affáble? Guciendáco cé óna, ta ecin óbea, justoén ta gaichstoén, abratsén ta pobreén, andién ta chipién, guizo(**n**)quién ta emastequién. Irur azquén úrteac passatucitue óngui eguiten, erremediátzen gaitz género guciac, garbitus leprósoac, arguitus itsuac, sendátus mutu, sorr, eri, estropéatu, malhúrr guciac, vizcörtus ilétsiac ta ilóztuac istánte(n), librátus endemoniátuac, consolátus tristeac, de man(**er**)a ezi cé errán comúna Judatarretán, goácen icusterá Mariaren sémea consolagaitzen: Niór etzue ústen desconsolaturic billa-

tzenzutenetáic biótz ónes. Favóre eguitea nola dén, aláco amóre, modu, ta gra(**ci**)aréqui eguitea dá miragárri, eztuéna bere pareric. Solam(**en**)te norc daquién nola dén Jang(**oico**)a, dezáque enténda nola cén guizóngúra, baice Jang(**oic**)o, ta eguitenzuéna Jang(**oic**)o becála. Preténsio principal(**en**)a zue billátzea ta salvátzea becatáric ta gálduac. Cein piadóso deitzen, eracústen, errecibitzenzitie? de man(**er**)a ezi orgátic murmuratzencióte Fariseoec ta Escribec, hipócrita subérvoec, cein erreprehenditzencitue bere Magest(**ade**)ac orgátic gráve ta seréno, Eguia erratenbadiziet, cergátic eztidázie sinestátzen? Norc zuetáic acusatueonáu becaturenbátes? Niri ezpadidázie nai sinestátu, sinésta obra eguinéi.

Plantatuzué bere Eliza, usteco depositaturic óntan bere Evan-g(**eli**)o, doctrina, légue, sacram(**en**)tu, médio, ta erreméδιο guciac, salvacecó nautenác dembóra guciétan... Escogitucitue Amábi Apóstolu, iruetanogueti ta amabi

## 17

Discipulo, barrátzeco anitz éscus bere ondasúnen tesóroac, eta guéro bera cerúra iganóndoan, bialceco beteric Esp(**iri**)tu Sándus mundu gucia bárna. Jaunbat alácoa norc etzue amátu ta estimatubeárr, maite izanic bere burúa, ta guizaguéndeá? Norc etzue deseatubeárr vicicéien úrte ta gendaménde milla ta milla? Eta alaére etzire bará-tu ilaraciárteo malam(**en**)te, eta goiz edérr, adinaren ogueitamirur urtetán. Norc? Sándu hypocritec. Eta cergátic? Cergátic cén ona, ta gucién ondunáia, orgátic artucióte oposicio. Nola izánce bere pade-citzea, ta iltzea? Ortará noáie orái: Atténdi ta icási pausu principalé-nac berére, egotecó pensátze(**n**) ta errétzen amóres eta dolóres.

Eguinic batzárre Judio Jaunec acabátzeco Jesus óna, bere Apóstolu traidóre Judas Iscarióte garaituric codicias joancequióte, ta ogueit(**am**)árr dirután ajustatuzué achsúri div(**ino**)a entregátzea aién escuétan; señaletáco etzezáte(**n**) uts eguin nori euchí, errancióte, nóri nic ematendióten besárca, ura izanénda. Gueróstic beti zebilla escaida onarén billa; Ortzégun Sandua becaláco arrátsa ellegaturic, celebratuzué Jesus ónac Jerusaléne afári azquená bere Apostoluequi, zequielaic aguitucocén gucia gaugártan ta biramónean: Mintzatucequióte amoltsuágo nioiz baño, erra(**n**)cióte claro, zuetáic bátec neréqui máiean ta plater bátean óguia bustizenduénac traicionatuconáu ni gaurr. Baña ay alácoas, obe lúque, ezpálitz jaió. Eguinziue pós-trean amoréscó demostracioric andiéncac, garbitucizquióte bere éscus óñac guciéi, Judasi ere bai: ondórean utzizue fundaturic aldaré-co sacram(**en**)tu admiráblea, bére óngui eguin gucién, pássio ta erio-



tzearen memoria, bere milagroen andiena, non gueldizeien bere Magest(**ade**)a presente beticos modu miragarrian; bere Apostoluac or-táco ordenaturic Sacerd(**ot**)e, ta emanic potest(**ad**)e, ordenatzecó, ta eguiteco ori berói.

Ondórean atráce Getsemanico baratzebatéra, baicégo oián bas-terr-bátean; videan Judas saiestucé, avisu emátera Judioéi, nón cén Jesus garaigártan, nora lén ere ascotán joáncen pasátzera gáua orá-cioan. Paraturic belaurico ta auspésca lurreán inzue orácioa lúce conformid(**ad**)e andiaréqui passatubearzuénas, baña naturaleain beldúrr, tristúra, ta congojarén útses odol-izerdia zerio lurreraño. Bitárteo Judas ta Judioac prevenituric ármás, sócas, zúzis, ta cáteas elducire, Traidórea lénean. Onéc alcinduric emáncio besárca-idúri, agúrr maestru Jauna. Etzué apartátu aurpéguia Jesus onac, errán bai, adisqueida, certará etor-

*17at.*

rizára? Besarcabatéqui entregatzendúzu Virgin(**ar**)en sémea? Eta berceéi, Nor billatzendúzie? Ayéc, Jesus Nazarénoa. Erránzue, Ni naiz: eta erranzuenéco, eroricire guciác agosgóra, nola ilac; mostrá-tus, ezpáze nái utzi, etzioquetéla deus eguin: Baña lic(**enci**)a emanic jaiquitzecó errancióte, Ladronbatengána becála etorritzaráte présso eguitera ni, eznaucielaic eguin, nindególaic témploan egunóro zué-qui: baña au dá zuén órdua, ta tenebren potestádea. Baña laburtze-có, solo tiót pausu princip(**alen**)ac.

1. Inzúte présso, ta loturic eramanzúte Jerusaléna tratam(**en**)tu indignoéqui, nola balitz gaizquieguilleric andiéna.

2. Presentatuzúte Anas Pontific(**ear**)en suiarén échean; emén Ministrobátec emáncio aurpéguian zapladabát lotsagarria.

3. Guero presentatuzúte Caifás Pontifícearen echeán, non bai-zeude echidéten bere etsái rabiósoac: emén lichstus betezúte, ta gól-pes alde guciétaic, tirátus biloac, vendátus béguiaic, milla escárnio, maltratu<sup>12</sup> &

4. Gauarén gañarácoan iduquizúte calabózoan loturic postúra choil necósoan, berritus goárdiec goitico fêsta, escárnio, trata-m(**en**)tu &

5. Biramónean Orciláre Sánduan becalácoan presentatuzúte egún árguis inguraturic ármás Poncio Pilatos Presid(**en**)tearen palá-

---

<sup>12</sup> Honela ipintzen du: *maltrat.*; hurrengo puntuan, 4.ean, *tratamentu* ageri da, honela idatzirik: *tratamtu* eta laburgailua.

cioan. Onéc examinaturic, ta ezaunduric ecarriciotéla invidia-útses, declaratuzué causeric etzuéla aurquitzen; ta libratunáies ta ezin erre-cabátus Judioéqui, naize excusátu causagartaic; Erregue Herodesen-gána bializué.

6. Herodéséc jaintsiric mánto churibátes fátuo ta eroguisa joca-tuzué irris, chistus, escárnios bere soldádoen medios, ta itzulizué.

7. Pilatoséc naietzuéla bórcha itzulicioteláic présoa, berriró de-claratuzué, ez bérac ta ez Herodeséc etzutéla aurquitzen causa erioz-coric; eta proponitucióte bázcoa-vezperacára libratubearceláic pre-sobát ayéc naizuténa, yá cein naizúten libre, Jesus edo Barrabás? Au ce ladrón guizon ilzalebát. Alaére oiuitenzúte, ez au, baicic Barra-bas.

8. Pilatosec pensatuzué contentaráci emánes berce castigobát, ilgábe. Alá manatuzué azotátzea. Azotatuzúte pilarebáten cónta borz milla ta yágo azotucáldis aguertuarteo bizcarreco costillezú-rrac, zaticaturic aráguaiac, ichsúris ainbérece odól, inhumanid(ad)e &

## 18

9. Torm(en)tugónen atzétic pensatuzúte bercebát: onéc naizia izán Errégue, coronazágun: jarraraciric alquibátean, eguinic coróna edo ustai guisabát lárres ta aranceés frincatucióte búruan indárrea; bér-la canabát éscuan cetro-ichuratáco, ta mánto purpuráscó zatarr-bát soñetáic; ta zoézi ellegátus adorátzera becála escárnios batbanáca erránes, Agúrr Judioen Errégue Jauna; ta bátac quéndu cána escu-tic, ta ematencio ártas búruan arancee(n) gáñean, bérceac gargaju-bát aurpéguian, bérceac zaflonbát, eta guciéc bitárteo irria góra. Cer idurizaize festagóntas? Nola bidezede(n) Aing(uir)uac &

10. Pilatosec icusiric ichuragártan yá guizónain ichuraicgábe, ustezúé lastimaticociréla Judioac icustearéqui, ta alá atracióte bal-conerá cióla, Ecce homo, Oná guizongúra. Clamatuzúte óius, quén quenbéz, crucif(icab)ez

11. Berriz Juézac declaratuzué, etzuéla aurquitzen causeric bá-tere; baña lochaturic aitzearéqui libratzenbázue au, etzéla Empera-d(orear)en adisquide, eguin ichurapéna garbitzeas úres éscuac, arc etzuéla parteric justogónen eriótzean, emánzue sent(enci)a ilceco gu-rucificaturic.

12. Prestaturic guciá lastérr, atrazúte Isaác div(ino)a sacrificáco Calvarioco oiánean, daramála sóñean zur pizugúra inguraturic armátues, acompañatus gendétze ándiac, ta alcinean Pregonária pregonátzen naizuténa guezúrres. Ó procéssio icusidén lamentableé-na!

13. Ibiliric cerbáit vide, yá ezin ibilis, nola baicégo ain odolur-  
turic, ta angabeturic, zoéie bambaleátus yá aldeberá ya bercerà;  
erorize auspésca lurrain cóntra irur áldis bentzáit gurutzearéqui, ta  
lagúndu ez, baicic errónecas, oius, gólpes jaiquiarastenzúte.

14. Videgóntan aguertucé solam(en)te emastéquien pied(ade)a:  
lombic(ico)a Veronica deitzencenbát, ceñéc icusiric injusticia ta  
inhumanid(ade)gura, ta Jesus onarén aurpégua guciá odól ta izér-  
dia zerióla, moguituric lástimas, diotenés, joán goárdien erditic, ta  
oialbátes garbitució, ta chucátu; premiotán gueldituomenzé Jesus  
onarén idúria imprimituric oialgártan, ta arren izéna escogitue(n)  
listan dudaricgábe. Bigarr(en)ac berce emastéqui onbátzuc baizoézi  
acompañátzen laméntus eta negárres; dignatubaice Jaun div(ino)a  
mintzátzeas, Jerusalengo alábac, ez nigárr eguin enegátic aimbérce,  
nola zeurengátic ta zeuren humeengátic, ezi au itenbadá zur vér-  
dean, éarrean cer inendá? Irug(arren)a bere Ama Santissima<sup>13</sup>  
acompañaturic Magdalenas, ta berce Maries: Passatucéna bi biotz-  
gaietan, ezta errateco mias.

*18at.*

15. Baña yá Jesús óna ezin joánes, atsandituric, erdi ilíc, il coló-  
re, lotsatucire ilencequióten videan ellegatugábe: alocatuzúte gui-  
zo(n)bat Cirene deitzendén erribatécoa, andic deitzeunte Cirenea  
edo Cirenétarra, eramáteco gurútzea Jesusen atzétic: Alá nolapáit  
ellegatucé.

16. Ellegaturic gurucificatubañolén costúmbre zuteláic emátea  
ardo tragobát presoai confortacecó, ema(n)cióte nasiric mirras ta  
beazúnes.

17. Berla josizúte gurutzeái éscu oñetaic itze andiéqui; josiric go-  
ratuzúte, ta frincatuzúte gurútzea lurréco zulobátean, gueldituric di-  
lindacá gorpútza airean; nolaco nequepéna ta oñaceéqui?.

18. Yá ezin suportátus criatúrec itencéna gucién Criadóreai,  
mostratuzúte sentim(en)tura; Irúzquia ilunduzé eguérdís, áriac zati-  
catze(n)cire elcárren cóntra, Temploco veloá urratuzé beítiráño &

19. Judioec oráño ere itencióte escárnio: Jesus ónac gurutzetic  
lomb(íic)o itza erránzue, Aita, barcabezóte, ezi eztaquite cer aidiren.

20. Irur órdus iraunduzué goátze gogorrgártan acabátzen do-  
lóres. Arratsaldecó iruretácoan becála iltze Jesus guregátic, óna  
gaichstoeng(ati)c &

---

<sup>13</sup> *SSma* eta laburgailua, *-ma-* silabaren gainetik.

21. Ilasgueros ere idiquicióte bulárra lanzabatéqui, atracé odól ta ur.

22. Arratsálde apálean jautsiric gorpútza ila Ama Virg(**inar**)en besoetará, beti án egonbaize presente, ándic quéndu ta orcizúte obia berribátean: Arima bitárteo jautsice limboetará atratzerá sánduen arimac: Irug(**arr**)en egunea(**n**) juntaturíc bere arima ta gorpútza gloriosoric viztucé bere virt(**ut**)e p(**ro**)prios.

23. Berroguéi egúnes oráño detenituric yago múnduán aparecitus bere Ama Virg(**in**)ai, S. Magdal(**en**)ai, S. Pedrori, ta bérce Discip(**ulo**)ei anitz áldis; utziric S. Pedro encargaturic bere Christioen sáldoas, berroqueigarr(**ene**)an igánce ceruetara, eta ándágo jarriric Aita Etern(**oar**)en escuíeco áldean icusgárrri glorióso gloriastátzen bereác, eta báteo emén Sacram(**en**)tuan alchat(**ur**)ic amoróso erreálqui ta milagrosoquí gure onnáies juicioco eguneráño.

24. Azquén egúnean etorricodá gucién Juéz beteric Magest(**ad**)es juzgacerá ón eta gaichstoac. Eztuéna maite Jesús, gáldua dá: maite duéna, salvo. Josizágun beraréqui gure biótza irur itze amoréscoes, irur C, caridádes, compassiónes, ta contriciónes: Idúqui memórian beti: adóra imágina(**n**) maiz: errecibi sacram(**en**)tuan ásqui, ellegacecó apátzera éscua gloria(**n**), Amen.

## Sermo in Dominica Secunda<sup>1</sup> post Epiphaniam

*De Miraculis Christi<sup>2</sup> pro omnibus.*

Nuptiae factae sunt in Cana & Joan. 2.

Contatzendú S. Juánec egúngo Eveng(**elio**)an, nola celebratucén Matrim(**oni**)obát, ta ciren convit Jesus ta Maria; nola faltaturic árho, Jesús ónac itzulizuén ura ardotán Ama Virg(**inar**)én adieráztez<sup>3</sup>: eta au izáncela bere milágro(**en**) princ(**ipi**)o. Adiarastenzaigu Matrim(**onio**)a Jang(**oicoa**)c paratuzuéna lén, guéro Jesus ónac c(**o**)nsagrátu ta goratuzuéna sacram(**en**)tutára, déla gauza óna, honratuzutélaic Ama Séme div(**ino**)ec berén presenciaréqui, ta milagrogarréqui: Bigarr(**en**)a, nola beárden ártu estadogói, ta órtan vicitu, convidátus Jesús ta M(**ari**)a, naut errán, encome(**n**)dátus biéi lén ta guéro, logratunáies azquén fina, baita Salvácioa. Irug(**arren**)a ardoárc significatzenúéna, elcárren amóre caridadéscoa Jang(**oic**)oa-gátic. Milagrogárren ocásios, naut contátu cembáit incituenetaic Jesus ónac, ezaundezagu(**n**) obéqui, nor ta nolácoa dén gure Jaunau. Estíma bere Ama Santissima<sup>4</sup> Ave M(**ari**)a =

Lecu ta gauza género guciétan dá icusgárrí Jesúsén óngui eguitea guizónei, milágnos ére. Asigaitzen itsasotic. S. Pedro, ta Apostoluen gueiénaic artucitue arranzári pobreetáic. Arri manatució bein botá-ceco sáreaic. (Luc. 5.) Jauna, ció arc, gau gucian necátu, ta eztúgu deus arrapátu. Baña orren manurá edatucodút sárea. Edatuzué, ta yá etzezáque átra betearén útses; ta bi bárco betezúste arráies, arri-turic S. Pedro urtiqubaicéquo oñetan cióla, Ô Jauna, apartabédi enegánic, bainaiz guizón becatária ni. Bérece bein aguitucé bérece aimbérece: (Joan. 21) eta norctaquei cémbat áldis yágo? Aldibátes itsasónicia(**n**) bereéqui cegoláic, aguitucé aiceén ta uren nastecácio

<sup>1</sup> Dom.º 2.º post Epiphan. dio.

<sup>2</sup> Honela dago: Xpti eta laburgailua -pt- grafemen gainetik.

<sup>3</sup> Honela adieráztez, bukaeran -z duela, -s ipini beharrean.

<sup>4</sup> Ama SS.º dio.

andibát, (Math. 8.) de man(er)a ezi ya cebila óncia ez ondátu bai ondátu: eta bere Mag(estade)a cégo ló. Ayéc icituric idatzarrizúte, Jauna, libragaitza, gálduac gára. Jesus ónac amóltsu erra(n)cióte, cergátic zauste beldúrri, fede gutitácoac? Bérla jaiqui, ta manátu aiceéi, ta itsasoái, eta guciá guelditucé pausa ándian. Bérece bein zebiltza Jaunagábe Discip(ulo)ac itsásos, aiceac botatzenzuéla óncia góra béra, nola pilóta. (ibid. 14) Gauerdiasguéros aguertucequióte Jesus óna elducéla uren gáñean óñes. Lotsaturic ayéc asicire clamátzen: Jaun div(inoa)c mintzatucióte amóltsu, Confía, ni naiz, ez lótsa. Orduán S. Pedroc, Jauna, ori barimbáda, manabéz noáien óñes ur gáñean orrengána. Zato, erra(n)cio Jaun div(inoa)c; Bazoéie, baña moguitu aicebát, ta asicelaic ondátzen, oiueguincio beldúrrac, Jauna, librabenáza. Istánte arturic escutic Jaunac erráncio, fede gutitácoac, cergátic dudatudúzu?

19at.

Passagaitzen itsasotic eremuetará, noráño seguitzencióten devócios gendeéc atzenduric susténtuas: Orgátic bein bortz milla, emastéqui ta aurrac contatugábe, asecitue borz óguis, ta bi arráies, sobratuic amábi espórta. (ib. 14.) Berce bein laur milla zázpi óguis. (ib. 15.) Baña gra(ci)are(n) gra(ci)a dá cariño ta pied(ad)e berachsgúra, *Misereor* & Lastimadút gendeas & Discipuloec cióte, bialceco errietára erostecó; baña gucién Aita amorósoac beretic mantenitzen-tú. Ó Aita óna, norc eztió naico obeditu, seguitu, ta fiátu?

Goácen errietará, non baita génde-adiña necessid(ad)e. Leprosoetáic ássis, Bein paratucéquio bat alcinean belaurico cióla, Jauna, naibádu, garbinazáque. (Math. 8) Escátu bezain lastérr, bére éscuas uquitu ta erra(n)cio, Naidut bada, gueldizaité gárbi. Alá guelditucé. Bérece bein amárr leprosoec urrutitic clamátus, Jauna, urricári gútas: Zoáste, erránzue, presénta sacerdoteéi: Joaterácoan aurquitucire gárbi libre guciac. Norc icusidú Medicu ain poderóso, amoróso, ta merqueric? Itsuetán icuságun<sup>5</sup>. Bat jaiótzes céná itsu arguituzué untátus béguiac bere lichstu ta autses inzuen loiaréqui, bialiric solam(ent)e Siloe deicencén iturribatéra, ez beárres, baicic mystérios. Bérece bidec (Joan. 9.) escatucióte gra(ci)a bera. Jaun div(inoa)c galdeguincióte, Sinestendúcie, badezaquetela eguin? Baiétz ayéc. Orduán uquitucizquióte béguiac cióla, imbequizie zeuren fedearén

<sup>5</sup> Izartxo bat bukaerako -n grafemaren ondotik eta bera baino goraxeago, ia lerro tartean.

confórme. Istánte arguitucire biac. Math. 9.). Bercebát (Marc. 10) cegóna videan limósna ésque, aituric passacenzéla Jesus Nazarénoa, asice clamátzen, ô Jesus, urricári nitas. Ascoc erráten, cególa ichsilic, ta arc yágo óiu, Jesus, miseric(**ordi**)a nitas. Gueldituric Jaun div(**ino**a)c ecarraracizué pobregúra beregána; ecarriric Ea, erráncio, cer nauzu indezazúten? Arc, Jauna, icusdezáten. Jaunac, icusázu bada: Zeure fédeac indizu ón. Istánte icúsi ta seguituzué alégre.

Bada espiritu gaichstoagánic libratucituénac norc cóna? Aita-bátec ecarrizio sêmea aguitz torm(**en**)tátua, ezin libratuzioténa Apostóluec. Jauna, ció Aitac, albadezáque cerbáit, imbezágu merchéde. Jaunac, albadezaquézu sinésta, guciá dá possible sinestenduenái. Sinestendút bada, ció arc negárres; vizcorrbez ene féde éria. (Marc. 9.) Onéqui libratució bérla. Bercebát itsu ta mútu céna libratuzué oroát. (Math. 12) Baicióte Fariseoec, botatzencituéla Dem(**onio**)ac Dem(**onio**)ar)én virtútes. Ô invidiarén itsua! Murmuratzéte alabér sendatzencituéla eriac jaiegunetán. Ô hypocritac! Joance bein sinagoga-

## 20

rá, ta cego án guizonbát ceucána earturic ésqua. Ayec barrónde, yá sendatucozuén jaiegúnean. Záto erdirá, erraténdio guizonái; eta ayéi, zilléguidá jaiegúnean óngui eguitea, edo gaizqui eguitea? Vicia emátea, edo ez? Ayéc ichsil. Orduán beirátu indignaciorequi guciéi beren itsutasunagátic, eta erratendió guizónai, edazázu escugói. Edatuzué, ta guelditucéquoio sáno ta séndo. (Marc. 3) Bércé jaibátes paraturic alcinean hydropicobát, galdeincióte Fariseoéi, licito otedá sendátzea jaiegúnean? Ayéc ichsil. Baña bere Mag(**estade**)ac sendatuzué istántean; eta ayéi errán, Zuétaic bati eroribaléquoio bere ástoa edo idia bútzuan, ezlezáque átra naiz jaiegúnean? Luc. 14.)

Eztú egunic, ta ez personáic beréchsten Jaun div(**ino**a)c, eguitecío óngui. S. Pedrore(**n**) Amaiarréba sucárr ta eritásun andiaréqui cego-láic, istántean sendaturic zervitzatuzué máiean. (Math. 8.) Bercebát emezórzi úrtes egóna ezinduric curcúrta ezin zuquéla gorátu búrua, icusiordúco Jesus ónac erra(**n**)cio, emastéquia, libre zara gaizgórtaic. Errán ta eguin. (Luc. 13) Bercebát amábi úrtes cúran guciá gastaturic debálde, zoéie Jesúsén cápa uquitunáies, ta ezin elléga gendetzearén guciéguis: ció berebaitan, ellegabanindédi, sendanindeique. Pensatu becála aguitucé. Marc. 5) Bercebát Cananéa érris campo-coac seguituzué oius urrutitic, Jauna, otói, urricári nitas. Jauna ichsil: Arc yago oiú: Discipuloec erratencióte, Despeibéz, ezi oius dago atzétic. Jaunac, Israélgo árdi gálduen billa etorrináiz, ez cam-

pócoen. Bitárteo ellegaturic emast(**equi**)ac humil erratenció, (Math. 15) Jauna, urricaribédi; alababát dút aguitz torm(**en**)tatzen duéna Demónioac. Jesus ónac sério-idúri erraténdio, eztá arrácio humeén óguia emátea chacúrrei. Arc orduán humilágo, Bai Jauna, chacúrretoec<sup>6</sup> ere jatendúte berén Nausién maieco apurretáic. Emén Jesus ónac, ô emast(**equi**)a, ándia dá zure fedea: imbédi nola nauzun. Istánte bérean guelditucé libre alába échean; emén errán ta án eguín. Gogorreára dirúdi mintzatuzequióla oni principioan, baña cé pro-gatzeagátic ta premiazcó arren virtútea.

Icuságun curátzen ilétsiac. Capitanbátec erra(**n**)cio, Jauna, dau-cat muticobát perlesiaturic estádo chárrean. (Math. 8) Jesus ónac, neuráu joán ta sendatucodút. Bérceac, Jauna, ni eznáiz digno datórrren beróri nere echéra, baicic solam(**ent**)e errambéz itzes, ta sendatucodá. Jaun div(**ino**)c, imbequizu nola sinestendúzun. Órdu bérean aurquitucé muticoa sáno ta séndo. Bérce Principe-guisabátec escatenció naibázue joán arren echéra, ceucála sémea iltzen yá. (Joan. 4) Jesus ónac erráncio, ezpaituzie icústén señáleac & vide ibi.) Ber-

*20at.*

ce perlesiaturic bere goátzean ecárrri, ta lecuric ez izánes, tellátua urrátu, ta sarturic andic, paratucióte alcinean. Icusiric aláco fédea Jaun div(**ino**)ac erráncio perlesiatuái, Seme, barcatzenzaizquizu be-catuac & Marc. 2.) Famátua izánce bercebáten sendátzea, baizue 38 urte cególa éri Jerusaléngo piscinan. Oni erráncio, nauzu sendátu? Arc, bai Jauna, baña eztút guizonic jausteco piscinará, moguitzen-deláic ura & Vide Joan. 5.)

Icuságun yá vizten ta vizcörtzen ilac. Anitz yágo bidedire viztu-cituénac, baña irur contatzentú Evang(**elio**)c. Bat Jaunbáten alába (Math. 09 videsis.) Bercebát Naimgo alargungárren sémea zerama-teláic orcitzerá & Luc. 7.) Bércea S. Martaren ta S. Magdal(**enar**)en anáia Lázaro orciasguéros. Au éri cegoláic, bi Aizpec bialicióte mézu Jaun div(**ino**)ai, orréc onestenduéna dágo éri. Detenituzé Jaun div(**ino**)a joangábe cembait egúnes; bitárteo iltze éria, ta orcizúte. Ellegatucé guero Jesus ona, eta bi aizpec, bein batác guero bérceac erra(**n**)cióte itzgau, Jauna, ori egonbáze emén, ene anáia etzé ilén. Errespond(**atuci**)ó S. Martari, viztucodá zure anáia. Arc, badáquit viztucodéla azquén erresurre(**ecce**)o egúnean. Jesus ónac erraténdio,

<sup>6</sup> Ez dago marratxorik -//- bikoitzaren gainetik.



Ni naiz erresurr(**ecce**)o ta vicitza. Sinestenduéna enebaitan, naiz il-dáien, vitzucodá, eta vicedéna ta sinestend(**uen**)a enebaitan, eztá ilén seculacós. *Credis hoc?* Sinestendúzu au? Bai Jauna, Martac, nic sinestendút, cerén ori baita Jang(**oicoar**)en sémea Chr(**ist**)o etorridéna mundugóntara. Galdeguinic non orcizúten; joanic ta manaturic quencecó gañeco arrlauza, Martac erra(**n**)cio, yá urrintzen assiric dágo, ezi laur egún dú ilic. Jesus ónac órduan errate(**n**)dió, eztizut errán, sinestebauzu, icusicoduzúla Jang(**oicoar**)en glória? Guero oiubát eguincio ilai, Lazaro, atóz campóra. Berealá atráce Lazaro bere mortáchsa ta guciéqui. Lazatucizquióte locúrac & Joann. 11)

Norc eztú icústen ez solam(**ent**)e Jesus onarén podórea, baitaére amórea, piedádea, ta onguieguinnáia guizónei? Norc eztú ezauncen audela gure salvazále bacárta, ta bearrbecalácoa? Ceintas lándara berce niorenbaitan Ceruarén péan eztá salvacioric, dión becála S. Pedroc. (Act. 4) Baña norc sinestenduén berabaitan, esperátzen ta amátzen, eztú galducó salvacioarén gra(**ci**)a. Ezaunzágun dúgun ondasúna Jesus onabaitan, amazágun ta estimazágun Jesus óna gucien gañetic Aita ta Esp(**iri**)tu Sa(**n**)duaréqui, ta logratucodúgu lurrecoetaic convenienténa, eta gra(**ci**)á, eta gloria. amen.

## Sermo in Dominica Tertia post Epiphaniam

*De miraculis Christi pro peccatoribus.*

Domine, si vis, potes. Math. 8.

Egungo Evang(elio)an contatzendá nola Jesus onari paratucé-  
quion belaurico leprosobát, ta erratención, Jauna, naibádu, banaza-  
qué garbitu: Nola Jaun div(ino)ac edaturic éscua uquituzuén erra-  
tencióla, naidut, garbizaita: eta nola que(n)ducéquion arrás lépra  
istántean. Oná oráció ederrbát eguitecó norrnáiec edocein bearre-  
tán, especiálqui becatáric, Jauna, naibádu, banazáque garbitu, ba-  
nazáque óndu, sendátu, salvatu & Oná Jesus onarén errespuésta ala-  
bér consolutáco, Naidut, imbédi. Potest(ad)e adiñadú borond(at)e.  
Podóre bezámbat amóre: nola éscua, biótza ala. Guizónen favóre  
cembait milágro eguinac icusiguindúza; icusquigun bércé cembait  
becatárien favóre. Sobranías murmurace(n)cióte Fariséo ta Escriva  
hypocritec, ciotéla, onéc admititzentú becatáriac, eta jatendú ayé-  
qui. (Luc. 15) Guc ez murmurátu, bai alegrátu, estimátu, ta valiatu-  
beardúgu berarén onéguias. Etxué ayen murmuracioagátic aldátu  
bere génio ta costúmbre óna; *Virginarén sémea etorridá billatzerá ta  
salvatzerá galducéna*, dió: *eztúte Medicu-bearric óngui daudéne*c, *bai  
gaizquí daudéne*c: Eznaiz etórri deitzera jústoac, baicic becatáriac.  
Ortáco contatucióte hume galduarén, drácmá, ta árdi galduarén pa-  
rábolac, añaditus azquénean sent(enci)a andigáu, *alá izanendá cé-  
ruan alegráncia becataribáten conversióneas, nola lauretánogueita  
emerétzi justoen casos*. Itzes errána progatuzué onguines. Icuságun  
cembáit. Ave Maria.

Jesus naidu errán Salvazále; izenain confórme dú izána, génioa,  
ta officioa, baita salvátzea. Nor? Jústoac mantenitus gra(ci)an, ta  
becatáriac parátus gra(ci)an. Jaiobañolén, Jang(oicoar)en mézús  
Ainguiruac errancióte M(ari)a Santissimai<sup>1</sup>, ta S. Josefí, deitucodú-

<sup>1</sup> *SSmai* eta laburgailua *-ma-* grafemen gainetik.

zie beraren izéna Jesús. Cergátic? Cergátic salvatucoduén bere géndea berén becatuetaic. Cein dá bere géndea? Guizaguéndea, guizón inbaize. Eta cerdire becátuac? Jang(**oico**)ai inicáco agráviac ta ofénsac berén calte ta perdiciotán. Alaére desagradecituac salvátu? Alaére, beréc naibarimbaute. Ô ene Jesúsén óna, bere pareric eztuéna! Eguitea ásko erregálo, favóre, ta ondásun arima on agradecituéi eztá ain miragárrri; baña desagradecitu gaichsto izánequi, ain óna izátea dá pasmatzenduéna. Munducoéc aguián arcendizúte oposicio, naiz eztiozúten zuc eguin gaizquiric; aguián naiz indiozúten óngui, gaizqui naizaitúte cebaitec: baña cembatéc, inbadiozúte agráviac, naicozaitúte óngui? Bai Jesus onac, convertitzenbazára. Ordu beretic, dió, yá eznáiz oroítuco intidan agráviac, (Ezech.) ta salvatucodút.

21at.

*Naibadú, badezáque*, cio arc. Nic diót, *naidu, albadezáque*. Eta Jesus ónac dio, *naidut, dezáquet, ta eguinbédi*. Beira prógu errealac abásto.

Biz lemb(**icico**)a S. M(**ari**)a Magdal(**en**)a. Vicize zoráturic vanid(**ade**)as, atzenduric bere Magest(**ade**)as salvácoas, vicitza secularcoas árdi galduaren guisa. Noizbáit ere Artzái onaren chistuéquui, cein baitire inspirácoac biotzerá emánac, acordaturuzé, arguituric entendam(**en**)tua, ta moguituric biótza contriciósco péna ain andiaréqui, ezi aituric, cególa Jesús óna bazcaris Fariseobáten échean, ezin sosegátus erreparatugábe garáian, convitan, deusetán, doáie arára voládan; sarce(**n**)da quártuan, ta paraturic belaurico Jaun div(**inoar**)en oñetán, astendá erregátzen negárres oin sandugáiec: Jesus óna guéldi beira: Fariseoa pensátzen berebaitan, au balitz Proféta, chsaquinlezáque nor ta nolácoa dén emastequigói, baita becatárrri, ta ezlezáque permiti bere oñetán. Jesus ónac, arren gógoa icusiric, mintzatució amoltsuqui defendátus ta laudátus itenzuéna penitenteac contricioaren útses; eta barcatzencequizquióla ánitiz becátu, cerén baizue anitz amóre caridadésco. Eta penitenteai erra(**n**)cio, barcátuac dire zure becátuac: Zeure fedea valiatudizu: Zoáz báquean. Luc. 7.) Yá guerostic etzió estorvuric eguin becatari izánac izatecó Apostola ta sanda gucis honrátua, ta erregalátua gure Jaunagánic, nola izáncen.

Bigarr(**en**)a biz S. Matheo; au ez joán Medico div(**inoar**)en billa, baicic dagólaic órtas atzenduric, guciá sarturic münduco trátu ta irabacietán, publicano becála jarriric bere álquian, joatenzáio Jesus óna, beiratzendió, ta erratendió, Seguinazázu ni. Cer indarra duén Jesusen beirátzeac, ta itzac! Bérla guciá utziric jaiqui ta seguitzendió

arc beticos: eta orrá becatári céna eguinic sándu, Apóstolu, ta Evangelári. Urrutiágo cego bercebát, eta yago sarturic vanid(**ade**)an. Etzé oroitzen béra bére salvácioas, bai Jesus óna arren salvátzeas. Joánic vide lúcean, ellegatuzé necaturic eguérdian, ta jarrice butzubáten pocálean Jesus. Etorrice ur ésque emastequibát, ceñi escaturic tragobát Jaun div(**ino**)ac: batetic bercherà declaratució berarén vicimodu gaichstoa de man(**er**)a, ezi arrituric pobregúra, ta berebaitan itzuliric, utzi án butzatórea, ta joánce Ciud(**ade**)a bárna óius deitzen géndec icusterá Jesus. Norc erranbeárzue, atracelaic echetíc, bearcéla itzúli convertituric, ta eguinic Predicári? Fortúna izánzue opátzeas Medicu ain óna piadósoa poderósoa: ez billátzen ta ez escátzen ere eztutenéi ematenbaitióte osas(**un**)a (Math. 9. Joan. 4.)

## 22

Icuságun bercebát. Záqueo cé tratantebát estudiatzenzuena Mamonaren filosofian, audá, diru ta ondásun eguítan; estud(**ian**)te óna bidecé, ezi abrasucé. Naizue onéc icúsi passátzean Jesus, baña gendetzearén cásoz etzúque, chipiégui izánes. Igánce arbolabátéra, icústeco ándic. Lenágo icusizue béra Jesús ónac, eta bére biótza. Oiu eguincio, ea Zaqueó, jautsi fite, ezi zure echéco aldi naiz egún. Jautsice istante, ta eramánzue bere echéra contént, ta celebratuzue onguetórria. Baña erregálo gustosoéna Jaunari izánce berarén convertitzea gucis, ta errategúra, Jauna, nere ondasúnen érdia biz pobreén: eta noribaiti inbadiót perjuicioric, errestitúcioa laurdóble. Jesus ónac emén, ciérto egún obratudá salvácioa echegóntan, au ere baita Abrahamen húme. Ó Jesus óna, cein óna! Orrá arc solam(**ent**)e naitzue icúsi passátzean, ta beróri sarcenzáio bere échean! Eztú utzico eguítela óngui becatáriei, naiz murmuradezóten Fariseoec & Luc. 19.

Icuságun lancegáu. Ecarricióte ayéc emastequibát aurquitua delitoan, erratenciótela, Jauna, au arrapatudúgu adultérioan, eta gure légueac dió, arricátzeco alácoac. Orréc cer dió? Ah! cer inténcioa zemáten! Cer itendú Jaun div(**ino**)ac? Atragábe itzic, curtzendá, ta astendá escrititzen lúrrean érias. Ayéc porfia, erranzála. Chutituric erratendióte, zuetáic nor dágon becatuicgábe, arc tirabézo lemb(**icic**)o arrucáldia. Errán au, ta berriz curturic cégo escrititzen. Ayéc joancire joánes bata bercearén atzétic: ta guelditucire sollic Jesus ta emast(**equi**)a. Oni galdeguincio, eztú niórc condenátu? Arc, ez Jauna. Orduán Jesus ónac, bada nic ere eztút condenátuco: Bidoéie, ta ez yago becatuic eguin. Joan. 9) Cer ingénioac, Jauna, ez utzináies gáltzera becatária! Cirénac becatári becatáriain cónta; ta ezténa becatári, becatáriain favóre! Norc icusidú ain etsái andiric becatuen,

ta ain adisquideric becatárien? nola Amac amacenduén húme éria aborrecitus eritasúna.

Zególaic Jaun div(**ino**)a iltzen gurútzean inguraturic pénas, yágo péna zué alaére arimen gáltzeas, ezi bere iltzeas, eta bere vicitza baño yago nalúque<sup>2</sup> arimen salvátzea. Bi ladrón bere bi aldetáic zeude gurucificaturic, erratencióte, Jang(**oicoar**)en seme barimbáze, librazezála bere búrua ta ayéc: baña bat itzuliric acórduan, escatzen-dió, Jauna, oroibédi nitas, doaieláic bere erreinurá. Eztú berceric náí. Istánte(n) agotic agorá erresp(**ondatuci**)o, ciérto erratendizut, egún izanenzára neréqui paraisoan. Ô ladrón fortunósoa, cein lastérr idiquizáion paraisoa! Etzé berceric fálda, baicic salvazézquien bere etsái madaricatugáiec. Naiizambazúte berec ain nola bérac naitzen, inic cégo gra(**ci**)a. Etzé guelditu berarén fáltas. Goratuasguéros gurútzean ayéc, urriquitu ta urricaritu beárrean, blasfematzen-zúte macúrrtus búruac escárnios: Cer ausnárrí, cer inférnu dá ásqui alaco arimendáco? Alaére lemb(**icic**)o itz erranzuena gurútzean Jesus ónac izánce au, *Aita, bar-*

22at.

*cabezóte, ezi eztaquite cer aidiren.* Cer yágo errandaique? Edo eguidaique? Ayéc galdunáiac Jesus ódio gaichstos; Jesús ayén salvatunáiac amóre ones! Icusgárrí izanénce, salvatubáze norbáit gaichstogaietáic: baña norbáit ez, ezi guciác salvatucocire, convertitubacire.

Exémpu ón ásqui dá Longino, ceñéc Jesus onarén gorpútz ilai tiratució lánza, ta idiquicio bulárra. Eta cer castigo izánzue? Llága idiquizuen gártaic atrácen odól ta úres uquituric béguíac, arguituomencéquio vista zuéna labúrr, ta guéro arimaréna, ezauncécó, ta ematecó bere vicia Martir Jesusen fedeagátic. Eta orrá orái dauca glórian maite edérr. Exémpu óna dá ere S. Pablo, deitzencéna lén Saulo. Perseguitzenzue onéc princip(**ioa**)n Christioguéndea, de man(**er**)a ezi ilzuteláic arrícas S. Estevan Martir lemb(**icico**)a, ez solam(**en**)te cégo presénte Saulo, baicic guardátzen arricatzenzuténen trésenac, arricátzeco becála gucién éscus bérac: eta guéro seguitus bére téma lograturic manam(**en**)duac, présó eguitecó Christio guciác, zoéie Damasco aldéra beteric iras eta fúrias Christioen cóntra. Videan Jesus ónac inguratuzué árgui andibatéqui cerútic jautsiric ta oiueguincio, Saulo Saulo, cergátic perseguitzennauzu? & vide act. 9.)

---

<sup>2</sup> Hola dago *nalúque*, eta ez *nailuque*.

Baña cer exémpu obeágo S. Pedro béra baño, cein ustenzuen Eliza guciarén Artzái? Galdeguincio bein, Jauna, cémbat áldis barcatucodiót neure proximoái? zázpi áldis? Ustezué bai ásqui largatzencéla. Baña Jesús ónac erráncio, ez solam(en)te zázpi áldis, baita ere amárr zázpi zázpis: Erratecó ezi beti ta noiz. Progatuzué berebaitan Jesus onarén pied(ad)e ándia. Pássio-arrátsean bere Mag(esta-de)ac errancióte guciéi, gaurr guciéc utziconauzie ni. S. Pedroc, Jauna, naiz guciéc faltaturic, nic eztiót faltatúco béñere. Jaun div(inoa)c, irur áldis ucatuconauzu, ollárrac cantatubaño lén. Sánduac goápo, precisso bálitz ere présó ústea ta iltzea berorréqui, eztút ucatúco. Baña guéro igués eguinzue berceéc becála arc ere: guero itzuliric Jesúsén amóres, présó zeucáten lecurá, án génde gaichstogáien értean ezaunduric, ta galdeg(uin)ic ucatuzué irur aldís etzuéla ezauncen ere Jesús. Beiratució bere Mag(estadea)c urricarióso, ta atráce ándic negárr ta negárr. Ucatució aguián orgátic Jesus ónac bere pied(ade)a? & Aparecítucéquio erresucit(atur)ic ánitiz áldis, tratatuzué amorosoqui & Orai dúten beldúrra dá, cembáit arima gaichstoc itzuldezáten venéno doctr(in)agau, offend(itze)co Jang(oico)a & Badáqui condenace(n) bec(at)u bateng(at)ic: Eta báti eztú barc(atz)en convert(it)u-gábe:

## Sermo in Dominica Quarta post Epiphaniam

*De Naviculâ ecclesiae Catholicae*<sup>1</sup>.

Ita ut navicula operiretur fluctibus. Math. 8.

Egúngo Evang(elio)an contatzendú, nola Jesus embarcatúric itsasónçi, edo barcobátean, seguituzúten discipuloéc, ta aguitucén nasticácio andibát itsásoan de manéra, ezi bárcoa estalcencé urain bagádes, eta bere Magest(ade)a cêgo ló. Joánic discip(ulo)ec idatzarritúte, Jauna, ciótela, salvagaitza, ezi gálduac gára. Errespondatu-ciôte Jesús ónac, cergátic zaráte beldúrr, fede gutitácoac? Orduán jaiqui ta manatuciôte aiceéi ta itsasoái; eta guciá guelditucé soségu ándian. Arritucire géndeac ciótela, Nor dá au, obeditzenbaitiôte aiceéc eta itsasoac? Orrá evang(elio)a. Orái significáçioa, ássis azquenetic. Nor da au? ciôte. Audá Jesus Jangoico-guizóna, gucis poderóso ta amorósoa, naidezágun berarén compañian navegátu itsasogóntan, baita mundugáu. Navegátzea dá eméngo viáge ta peregrináçioa passátzea eternidaderát. Aice ta itsasoaren nasticácioac dire tentáçio ta persecúçio tugúnac Deabruagánic, munduagánic, ta araguiagánic. Itsasónçia edo bárcoa daique enténda Christiand(ade)a, edo Eliza Catol(ico)a, ceñén quidári, ta guardazá-le baita Jesu Chr(ist)io, Piloto S. Pedro. Goáçen icúsis nola dén eta doáien barcogáu itsasogóntan. Lenic estimazágun M(ari)a Santissima<sup>2</sup>, escátus gra(ci)a Ave M(ari)a.

Cer dá Eliza, deitudugúna Chr(ist)orén ta S. Pedrorén bárcoa? Dá Chr(ist)io fiel gucién congregáçioa, sáldoa, edo familia, ceñén búru baita Jesu Chr(ist)io, ta berarén órdes S. Pedro, ta S. Pedrorén ondorengoac Aita Sandu Erromácoac, nor bere dembóran: de man(er)a ezi Jesu Chr(ist)oc berechsizué múnduco guciétaic bere familia edo saldobát, quidatzecó cerúra bere videas; Echocándrea<sup>3</sup> bere

<sup>1</sup> *Cathol.*<sup>us</sup> dio.

<sup>2</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>3</sup> *Echocándrea* dago.

Ama Santissima<sup>4</sup>; Ministro principálac amábi Apostoluac, gucién lèna S. Pedro; guéro iruogueitamábi Discip(ul)jo, ta gañaráco Chr(ist)io fiélac. Comparácios: Errégue Jesu Chr(ist)jo; Visorrái S. Pedro, ta Generál buru Erreguerén órdes, eta nola bere palácio erreálean Maiord(om)o mayora; Ónen lécuán doáz sártus potest(ad)e beraréqui Aita Sándu, Papa, ta Pontif(ic)e sumo deitzendirénac: Apostoluen lécuán Obispoac; Discipuloen lécuán Sacerd(ot)e Apezaitac, atzétic berce Ministro, ta Chr(ist)jo dirénac dembóra ta lecu guciétan: formatze(n)dugúla guciéc gorputzbát, deitzend(en)a *Chrorén*<sup>5</sup> gorpútz *mystico* edo Eliza: *beti Christo*<sup>6</sup> búru, berarén *miembro gú, ta elcárren miémbro-lagún, Vos estis corpus Christi et membra de membro*. (1. Cor. 12) Deitzeneredá Jang(oicoar)en éche ta familia, diónes S. Pabloc, (Efes. 2) *Ene anáiac, yá etzaráte arrótz ta campocó, baicic Sánduen iritárr, ta Jangoicoaren*<sup>7</sup> *echécoac, fundátuac Apostoluen ta Profeten cimenduarén gáñean, delaric arri principála Christo*<sup>8</sup> *Jesus*. (Orái nola familiagóntaic baitaude

23at.

batzúc yá glórian, bercebatzúc Purgatórioan, bercebatzúc oráño mu(n)duan, orgátic estádoen ariorá deitzendá irur izén goitis Eliza triumfánteac, purgánteac, ta militánteac. Eliza triumfánteac dire Chr(ist)jo daudénac glórian gozázten; Eliza purgánteac Chr(ist)jo daudénac purgátzen purgat(orio)an. Eliza militánteac Chr(ist)jo gaudénac múnduan, non peleátzea dén precisso irabaztecó triúmfoa ta corónac. Elizatic cámpoan dire Infiélac federá ellegátu ez, ta bataiátu ezi-rénac, ezi bataíoa dá atária, sárceco elizago(n)tan: Alabér Judioac, ezi-tuténac sinésten etorridéla Chr(ist)jo, baicic etorricodéla: Alabér Apóstatac utziduténac arrás fede Chr(ist)joa desertoreguisa: Alabér Herégeac, ucatzenduténac fedéscó articulorenbát: Alabér Cismatícoac, desunitudirénac eznáies egón Aita Sand(uar)en obedienciarén péan. Irur azquén generoguébec dire bataiátuac Jang(oicoar)en echéco, baña atradirénac; berce biac sartueztirénac.) Chr(ist)jo Católico deituac dire solam(en)te unituric mantenitzendirénac Chrorén fédean ta léguean Aita Sanduarén escupéan: Audá Eliza Sanda Catol(ico)a, ceintáic solam(ent)e baita vide cerurá, berce nióndic

<sup>4</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>5</sup> *Chrorén* eta laburgailua.

<sup>6</sup> *Chro* eta laburgailua.

<sup>7</sup> *Jang.*<sup>ca</sup> dio.

<sup>8</sup> *Chro* dago, eta laburgailua.



ez: naut errán, Chr(ist)io fiel catol(ic)o déna solam(en)te daiquela sálva mundu gucitíc: Galéra badaique bere cúlpa, baña salvacioco vide(a)n) dágo Jang(oicoar)en gra(ci)as. Baña Chr(ist)io catol(ic)o ezténa ezin daique sálva, ta erremedioricgábe izanendá condenátua, *qui veró non crediderit, condemnabitur*.

Eliza catholicogáu dá nola Noen arcagúra dilúvio univers(ale)an. Zórzi persóna libratucire arcabárnean, gañaracácoac ondátu: alá orái dire gálduac goardatzeneztirénac Eliza Catol(icoar)en árcan; onen bárnean solam(en)te daique izán sálvo, izatecós, dió S. Pedroc. (1. c. 3) Audá S. Pedrorén barcogúra, ceintan doáien guréquí Jesu Chr(ist)io, ceñéqui unituríc fedes ta carid(ad)es mantenitze(n) déna izanéndá sálvo, ezperén niór ez, ta nión ez. Jauna, Judioéc ta gañarácoc ere bidedióte badaiquela sálva ayén séctan edo erreligiónéan. Baña Jang(oico)ac dió cónta. Eta itsutunaieztuénac passiónes, cláro dezáque icúsi ta ezaundu erreligióné Chr(ist)io catholic(oar)en<sup>9</sup> ón bacárr precissoa, Jang(oicoa)c parátua salvatzéco, naibaitu erreparátu señále ta prógu cláro dirénac. Cembáit naitut aipátu emén.

1.º señále dá erreligióné Chr(ist)ioarén principioa, plantácoia, ta edátzea; Chr(ist)orén podóres, chsaquina dá, baña noren medios? Amábi guizón póbre letragábeen medios, nola baicire Apostoluc, usátuac arrántzan, ez estudioan, baña aguitz ónac ta sánduac; arma-ric eta múnduco medioricgábe, infernúco ta lurréco potest(ad)e ta vicioen cónta: Norc eztacúsa emén Jang(oicoar)en escua? Aur-

## 24

quilezaquénac S. Pedro Romará joátean oñes pobre humil; galdein-bálio, noratá, adisquidea, noratá? Errespóna arc, noáie plantatzera Roman légue berribát orái denarén contrácoia, ta nere cathedra, obedinázan mundu guciác & ez leique ura admira? ezlezóque errán, guizóna, bada cer podóre dúzu zuc aimbérce contráricoen garaitze-có? Eztút berce podoreic, baicic Jang(oico)aréna, ta sufri gañará-coan innaidaténa. Eta orrá nola dacuságun cumplituríc. Norc in-zúque langáu, ezpáda Jang(oico)ac?

2.º señále, noticia ónac emátea fedegónec Jang(oico)as, arimas, bérce múnduco gauzes, batzúc gorágo gure entendam(en)tugáu baño, baña bateréz arracioare(n) cónta, bai ánitx confórme. Cón-tra berriz alque dá beirátzea heregien principioac ta aum(en)tuac, Mahoma, Luthero, Calvino, ta aláco guizón galdu vicios béteac en-

---

<sup>9</sup> *catholic.*<sup>en</sup> dago, -th- idazten duela.

gañátus múndua passionéen ceboéqui eracútsis desatino, libert(**ina-  
g**)e<sup>10</sup> &.

3.<sup>n</sup> señále óna Erreligióne Christioarén ón gárbi sándua alde gu-  
ciétaic ala nola dagoquiún Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)ai. Doctrina  
sándua, légue ta mandam(**en**)tuac sa(**n**)duac, sacram(**en**)tu ta berce  
gauzac sánduac, baitaré anitz persóna sándu: eta barimbáda ere  
ásco ta sóbra Chr(**ist**)io gaichsto, eztú cúlpa erreligióneac, ezpaitu  
permititzen gaizqui denic báttere: Amac naieztuéla bórcha, dire alá  
húme gaichstoac. Cóntra bérriz Mahóma ta alácoec cémbat lic(**en-  
ci**)a eztúte emáten gaichstaqueriatáco? assetzecó passióneac? Eta ori  
nondic eldudá? Jang(**oico**)agánic ez, baicic Deabruagánic. Alá génde  
ánitz carraiatzea eztá milagro. Baña noráco?...

4.<sup>n</sup> señále óna Christiandadearen uniónea, ta beti bat izátea sus-  
sáncian dembóra ta lecu guciétan; fedebát, bataiobát, leguebát, sa-  
cram(**en**)tu bérac, nola baicára saldobát Artzaibáten péan, naiz izán  
diferénte cembáit ceremónia ta gauza costúmbres án eménca. Cón-  
tra heregetán bátac au, bérceac ura; egún alá, biárr orla; nola joca-  
tzenbaitire berén buruetáic, búru adiña opinióne, ta aldaquéta. Ez-  
tagóquio Jang(**oico**)ai alacoríc.

5.<sup>n</sup> señále óna, erreligióne Chr(**ist**)ioa aurquitzea mostraturic lén-  
go ásko profecia ta señaleéqui Jang(**oico**)agánic escrit(**ur**)a sagr(**atu**)an,  
guciác icustenbaitire cumplituric emén. Leitzenbaitúte escrit(**ur**)ac  
icuscoute puntuálqui cumplituric Chr(**ist**)obaitan, ta bere elizan,  
lendánic ceucána Jang(**oico**)ac errevelaturic ta escribiaraciric, era-  
custecó munduái. Itsudá eztuéna icústen.

6.<sup>n</sup> señalé óna, professátu izána erreligióne Chr(**ist**)ioa, eracútsi  
ta co(**n**)fírmátua aimbérce guizón sánduec, prèstu, desapassionátu,  
ta chsaquintsu eguiáscoec, aimbérce Concilio generaleéc ta particu-  
lareéc, aimbérce arima ónec Jang(**oicoar**)en biotzéco maite ciréne.  
Heregetán presúncio chsaquintasúnas bai, baña passióne yago,  
moguitus bata subérvias, bércea iras ta invidias, bércea luxurias &  
Óbrac testigo, beira ebéi.

24at.

7.<sup>n</sup> señále óna dire Chr(**ist**)io sánduen milágroac, cein baitire  
nola Jang(**oicoar**)en mintzoa, aimbérce, ain cláro ta ándiac lén eta  
guéro. Cer cé icústea S. Francisco Xavierbát bère sotána iguetzearé-  
qui manátzen iruzquiái gueldidaiéla, eta guelditzen? Sú jauntsidaiéla

---

<sup>10</sup> *libert.* dago idatzirik; beraz, *libertinage* ote?

cerutic, eta jautsizen? Ilei jaiquidaitzela viciric, eta jaiquitzen? Eta bérce ánitx aláco miragárrri, eta anitz sánduec. Señále, ongui naituéla gucis poderósoac. Bérce sectagoietán eztá icúsi milagrobát oraño séculan, ezpáda embusterias, petárdos, gaitzes, árte gaichstos. Eztéla oraí anitz milágro Christioetán ére, dióte. Lén adiña ezpidedá, cerén ezten beárr, baña inzustengáien gendáquia gára erreligiónes.

8.<sup>n</sup> señále óna aimbérce Martyr izána fedearén defensatán! Aimbérceéc passátzea adin ta estádo guciétaic, nólaco martyrioac órdea? nólaco arimo, paciéncia, constáncia, ta alegriaréqui? Norc, Jang(**oicoa**)c ezi, zúzque alá animátu aurrjáiec, doncellagáiec, irri eguítécó torm(**en**)tues? Aimbérce indárr guizontasúnean Jang(**oico**)agánic dá. Testigo dá Martyr. testigo onac &

9.<sup>n</sup> señále óna comunicátzea Jang(**oico**)a Chr(**ist**)io onéqui ain amoróso miragárrri; ezaundá emátean aim bérce arguitásun, erregálo, alegría, arimo, ta indárr, eguítécó ain gauza ándiac ta ónac, nola intústén Erreligioneén fundazaleéc, Predicáric, peniténte, caritativo, ta ásko guisas servitzatzenduténec Jang(**oicoar**)en glória ta gucién prochután, atzenduric berén descánsuas ta gústoes: baña chastarastendióte Jang(**oicoa**)c bere suavid(**ad**)e ta gloriaco gústoen cembáit urrúpa desterrugóntan; ándic datóz biotzéco alegránciac, amoréscó sú ta azorácio deseagárrriac, negárr gozóac & Infíel ta heregeetán eztá alacoríc, baicic engáñu ta false-d(**ad**)e; ta guéro esp(**iri**)tuaren inquietúra, beldúrr, desconsólu, desesperácio &.

10.<sup>n</sup> señále óna dá irautea múnduan Chr(**ist**)orén saldogáu, naiz acabaracinaíes ibilidíren ta dabilítzan Deábruac, Gentilac, Judíoac, herégeac, ta secta gaichsto guciác béren maña ta indárr guciéqui; naiz eguinic aimbérce erréca odól Chr(**ist**)ios: Debálde dabilítza: Errán comúna cé, Martiren odóla Chr(**ist**)ioen azároa, cerén cembátenas yago ilcenzúten, yago itencire berri berritan. Eta elizac beti yago peligro izádu galcecó vicioen berachstasúnes, ezi martyrioen érrues; baña ez árla ta ez órta eztá acabatúco gáldus, cerén éscu andibátec dauca. *Nor naizela ni, dióte gendeéc? galdeguitenzué Jesu Chr(**ist**)oc. Jauna, batzúec dióte dela Juan Bautista<sup>11</sup>, bercebatzúec Elias & Eta zuéc nor dióze naicéla ni? S. Pedroc, beróri dá Christo<sup>12</sup> Jangoico<sup>13</sup> viciarén semea. Orduán Christoc<sup>14</sup>, Eta nic erratendizut zuri, zú zaréla Pedro, ta arri-*

<sup>11</sup> *Baut.* dio.

<sup>12</sup> *Chro* dio, eta laburgailua.

<sup>13</sup> *Jang.* dio.

<sup>14</sup> *Chroc* eta laburgailua.

*gónen gáñean fundatucodút nere Eliza, ta infernúco atáriez eztúte urratúco au. Eta Cerúra igaterácoan seguratucitue berriró; orrá ni zuéqui nágo munduarén acabanzaráño. Ecce ego vobiscum sum &*

Au adiaracidigu navegátzean S. Pedrorén bárcoan. Eguia dá ascota(n) barcogáu dabilátela góra béra itsásoan aiceéc, auda, mún-duan persecúcioec. Nor déla causa? Deábrua. Nor tú lagún? Aráguia ta múndua, ez náies sujecioric. Cer aice dire goratzendirénac cónta? guizónen passióneac, ta vicioac, subérvia, luxúria, invidia & Tempestáde andibát goratucé Mahoma-dembóran luxuriarén aices Elizarén cónta: Christio erbál montiobát ondatucé: baña bárcoa beti ur gáñean. Berce tempest(ad)ebát goratucé Lutero, Calvino, Henrico, ta alácoen suberviarén ta luxuriarén aicees: ondatucé Inglaterra gueiéna, Alemaniaco ta Franciaco zati ándiac: baña bárcoa beti sálvo. Tempest(ad)e andia goratudá gure dembóran on colóres Francian, témploac errotaturic, sacerdot(ote)ac desterraturic & Bitárteo ló dirúdi dagóla gure Jauna. Idatzartzendúte arima onen clamoreéc, *Jauna, libragaitza, gálduac gára. Ó fede gutitácoac!* dió, *Cergátic zaráte beldúrr?* Eztá ez ondatucó bárcoa: Noiz dén garái, manatuco-dú aiceéi ta itsásoai, eta gueldiaracicotú. Bitárteo doáz átras batzúc, sártus bercebatzúc bárcoan; ta bárcoa sálvo. Emateunte elizarén cónta, génde chseé, póbre, ta beártsue(n) amorearén achéquias, dauzquitéla sopeaturic & Eta cer cúlpa dú órtas Erreligióne Chr(ist)ioac? Au óngui goardabalédi, litzáque humild(ad)e, carid(ad)e, & erremedialeizque gaitzac, trataleizque óngui guciac, póbreac especialqui & Sacerdoteóc omengára gaichstoénac. Eta cer cúlpa dú órtas Erreligióneac? Ónen órdes lirázque sándu. Éguia dá Sacerdoteén becátuac deshonoratzendutéla gueienic erreligiónea: baña gúre gaichsto izáteas péna dú Elizac, culpa gueuréc. Orgátic errelig(ione)a beti da óna, ta Evang(elio)a, ta fédea. Aguidaique pregonária izátea guizacharrbát, baña eztá orgátic utzibeárr légue óna arc pregonátua. Erregálo ederrbát eztúzu ústen, naiz ez izánic edérr cocinariac ta zervitúcoac. Chr(ist)orén pregonári ta Ministro gára: ónac dire fédea, léguea, doctr(in)a, sacram(en)tu ematentugúnac: Gueuróc gaichsto izanagátic, utzibeardúzu óna, ta óngui dagoquizúna salvacioráco? Baña motivo eguiáscoa, cergátic erorcendiren S. Pedrorén barcotíc, dá passioneén aiceén cásos. Nai vicitu libre lázo nolanái & Léguea auchstetic passacendire usterá fedea. *Vultis et vos abire? Domine, ad quem ibimus?* Eztúgu utzinái. Orréqui ongui gaude. Imbez gauden consta(n)te gra(ci)an orái, guéro eternid(ade)co glorian. amen.

25at.

## Sermo in Dominica Quinta post Epiphaniam

*De justis et injustis, principio, medio, et fine.*

Unde ergò habet zizania? Math. 13.

Aguitzendá ceruetaco erreinuan, dió Jesus ónac Evang(**elio**)an, ala nola guizonbáti, eraiquizuénai azi óna bere alórrean. Baña ló zeudeláic géndeac, bere etsáiac etórri ta eraiquizué zizaña gariarén értean, eta joánce. Azizeláic belárria, ta emán fruitua, orduán aguer-tucire zizañac ere. Nirabeéc erra(**n**)cióte Nausiai, Jauna, etzué eraiqui azi óna bere alórrean? Bada nondic tú zizañac? Errespond(**atuzu**)é, Guizón enemigoac indu langói. Ayéc, naidú goácen, ta biltzquigun? Arc, ez; agueztádien, zizañac biltzerácoan, atrátzea báteo zañetáic gária ére. Uzquizie biac acidaitzen iguitademboraráño. Orduán ma-natucodiótet iguitarleí, bildu lenic zizañac ta lótu pachsucá erretze-có; baña gária bil ene *granerorá*. Onaráño dá Evang(**elio**)a. Dirúdi aisa entendátzea azaletic; baña ónen mámia, audá significácioa, eztá ain aisa. Baña ontzát artuzué Jesus onac berac explicátzea. Dio, eraiquizuéna azi óna déla Virgin(**ar**)en sémea, audá Jesus béra: mún-dua alórria: azi óna erreinuco húmeac: zizañac gaichstoarén húmeac: eraiquituéna ebéc Deábrua. Iguitadembóra munduarén acabántza: Iguitárleac Ainguiruac. Bada ala nola bilcendiren zizañac, ta erre-tzen súan; alá bilducodire galvide ta gaizquieguille guciac, ta bota súscó lezerá. Án izanendá negárria, ta órtzen carrascótsa. Orduán justoéc istarrguitucodúte, nola irúzquiac, berén Aitarén erreinuan. Duénac beárrri aditzecó, *adibéz*. Gucióc dire Jesus onarén itzac. Va-liatzecó, Ave Maria.

Mundugau bere alórria, ta emén eraiquiduéna déla bere Mag(**es-tade**)a, Jesus ónac errátea dá cláro ásqui; Orái azi óna deitzea erre-inuco húmeac, cergátic? Cergátic diren predestinátuac erreinátzeco errégue becála Jang(**oicoar**)en erreinuan. Zizañac cóntra gaichstoarén húmeac, cergátic? Cergátic Aita becála baitúte Deábrua vicidiré-nec arren gustorá. (Joan. 8) Zizañac dire záñen sitsa, edo zain gal-cenduéna azi óna. Alácoac dire arima gaichstoac, ónen galzáleac. Ceric ote dá bat?. Azi óna, edo zizaña?...

Emén túgu erreparatzecó laur edo bortz gauza: 1.<sup>a</sup> Jang(**oicoar**)en alcinéco eztéla distincioríc, dén nóble edo común, dén arr edo éme, dén sano edo éri, edérr edo itsúsi, ándi edo chipi, abráts edo pobre & baicic nolácoa dén arima, ón edo gaichsto. Guizónec beiratzente agueri déna, Jang(**oicoa**)c biótza. Ori dá importadéna, ortas imbeárda caso. (Aldegóntaic arra-

## 26

ciatzendú S. Agust(**ine**)c edérrqui, beti becála: (s. 12 de V. D.) Gauza ónac naitúzu iza(**n**); ta zeuroi óna eztúzu nai izán. Eztacusázu bearzaréla alquétu zure gauza ónes, gaichstoa barimbazára zeuroi? Cer gauza dá naicinduquéna gaichsto? Ez bát ere. Naicindúque óna osasúna, óna idúria, ona bólsa, óna échea, óna consórtea, óna familia, ónac zervitzúcoac: Naicindúque óna fáma, alim(**en**)tua, trésena, ta galzacórda ere azquénean óna: Alaére zeure arima eztúzu nai óna! Estimazázu, otói, zeure arima yago ezi galzacórda. Zure gauzac albaleizque mintza, errainlizuquéte, ala nola zuc gú naigaitúzun ónac, guc ere naidúgu Jábea óna. &) 2.<sup>a</sup> arimac ain diferente diréla, nola aurpéguiac: néques aurqui bi aurpégui gucis bardinac. oroát bi arima: baña solam(**en**)te malicia gráveac itzultzendú zizáña Jang(**oicoar**)en beguiétan, ala nola gária naiz ez ain auta nola bercebát, gári dá. 3.<sup>a</sup> dá, cein diferente diren arimabatzúc bercebatzuengánic Jang(**oicoar**)en alorrgóntan, batzúc ain subérr, bercebatzúc ain humíl, batzuc &. 4.<sup>a</sup> Deitzegúra azi óna gári: Cergátic oté? Cergátic sánduec, baitire ázi óna Ceruráco, bearrbaitúte passátu emén gariain guisará: Gária lenic bóta lúrrean, il ta órci án, ta passatubeártu negúco ecaitzac, guero udáco béroac: guero iguitáias ebáqui, estrácien péan mendérchi, io ta irindu errótan, orátu oramáian, ta azquénean ére beárda lábean, presentacecós erreguerén alcinean: ala jústoa progatubeárda asco manéras gloriaracecó. Azquenic dá erreparatzecó aguitzendéna Jang(**oicoar**)en alórrean, ázi óna daiquéla itzúli zizaña, naibádu; ala nola zizaña ere bai gári, naidueláic; baña naiezpádu bérac, niórc ezdezáque onaráci, ta ain guti galaráci.

Seguitus Evangelioa; *áci óna dió eraiquizuéla*, cerén guizóna atráce óna Jang(**oicoar**)en escutíc, eta ónac emántio doctr(**in**)a, léguea, sacram(**en**)tuac. *Baña ló zeudeláic géndecac*, audá, descuidatzearequi arimac, *enemigoa* ezpaicégo ló, *etórri ta eraiquiomenzitue zizáñac*, audá, inspirátu vicioa ta malicia: guisagóntan doáie nas-tecátus ona gaichstoarequi; lembician azi árteo, eztá óngui ezauncen dáñua, guéro gutibána doáz aguértus gaizquiac. *Nondic tú zizañac personagónec ain óngui azizénac?* Díote Chr(**ist**)orén Ministroec.

*Guizón enemigoac eguindú langói*, dió bere Mag(estate)ac. Ya berás eztá cer botátu culpa Jang(oicoar)en gauzéi, bai personarén ta Deabruarén maliciái. Ó árdó madaricátua, dió emastéqui buruchsólac iraturíc, sobra edanarén cálteac icusiríc. Baña gaizqui errána dá, ezi árdóac eztú culpa, baicic gaizqui usatzenduénac: Ezperén oroát leique errán, madaric(atu)a súa, cerén onéqui erretzendiren echeac, ta arboledíac; madaric(atu)a burriña & Baña disparateac dire,

26at.

cerén ezi eztúte culpa Jang(oicoa)c inicáco gauzec, baicic persónac gaizqui usatzentuénac bere vicios, eta Deabruarén inspirácios.

Errepára dióla Evang(elio)an, *guizón enemigoac indu langói*, eta explicac(io)an *Enemigoa déla Deábrua*. Nola dá au? Deábrua dá enemigo, baña ez guizón: nola dió bada guizón enemigoa? Adiarastecó zizáñen langói Deábruaac itenduéla guizonabaitan onéqui báteo, arc inspirátus, onéc admititus, naidueláic bere borond(at)es, ezi naiezpález guizónac, ezin lezáque gaichstáaráci Deábruaac. Bere culpas gaichstatzendá guizóna, guizón enemigoa bere contra, guizón Deábrua. Eztú culpa gucía sollic infernúcoac: *Dá au*, dió S. Agust(ine)c, *ala nola tzacurrbát loturíc cáteas: badezáque in aunca, badezáque órtzac irríca, baña ezdezáque niolatére in ózca, baicic ustenzaionái borondate<sup>1</sup> propios<sup>2</sup>*. Orrá nondic dén zizaña, guizón becatária: *bi gauza becála dire guizón ta becatári*, dió sándu bérac; *guizón diodaná indu Jangoicoac<sup>3</sup>; becatári diodaná indu guizón bérac Deabruaréqui*.

Goácen icúsis zizáña bacóchean. Subérvia dá lén. Au eztagóquio guizonái, delaric lurréco animaléftobát miseráblea, mortála, becátuen mindégua, deus onic ezdezaquéna beregánic. Eta alaére duquéla izán presúncio ta subérvia? *Unde ergo habet zizania?* Nondic dú zizañagói? Cutsátuas Deábruaac bere aundinariarén venénos. *Eritis sicut Dii*. Icuságun codician. Egún gára emén, biárr edo étzi joátea dúgu eméndic beticos: bitárteo ásqui dúgu procurátzea ceréqui vici ta estáli emén; eta in prevencio al gucía eternidaderáco obra ónes ta limósnes: ori naidu Jang(oicoa)c, ta ortáco paratugaitu bere alorrgóntan. Baña bil ta bil eméngo, nolanái déla, yago ta yago ná; codicia, guti gucía; góseac beti ondásu(n) lurrécoes, nola emén bearrbalúte egón beti, ez innái limosnaric & *Unde habet zizania?*

<sup>1</sup> *borond.* dio.

<sup>2</sup> *pprios* eta laburgailua *-rio-* grafemen gainetik.

<sup>3</sup> *Jang.* dio.

Nondic zizañagáu? Deábruac itsútus, ta guizónac, erchitus arimarén béguiac. Icuságun gúlan ta luxúrian. Gorpútza dá nola arimarén as-toa: onéc beárdú obeditu, arc manátu: gorputzarén cóstus, néques, eta penes beárdú arima garbitu, segurátu, salvátu: Baña arima errenditzea gorpútzaí, onen gústó miserableén casos gálcea arima, gra(ci)a, ta glória, galménde ándia dá: *unde habet zizania?* Nondic zizañagói? Deábruac tentátus, persónac ez errepugnátus, baicic cebátus múnduco engaño, ocásio, ta ceboéqui.

## 27

Icuságun iran ta invidian. Gucióc gareláic anái arrébac Chr(ist)io-tasúnes, dioguláic guciéc Jang(oico)ai Aita guréa, bearguinducque el-cárr onétsi Jang(oicoar)en órdes; ez gaizquiric, bai ongui eguin elcarrí; berárias criatugaitu armaricgábe, vicitzecó báque ta amóre ónean: ez-tigu emán nola cecenéi adárrac, nola artzéi atzapárr fuérteac, nola otsoéi ortz séndoac, nola arranoei pico tzorrotzac & *Unde zizania?* Nondic aimbérece ira, odio, ta invidiarén zizañac? Deábruac digun odiotic ta invidiatic; ezcaitu nai icúsi óngui; orgátic itendú emágun elcárren cóntra: ta conformatzenzaizquío áscó biótz chárr. Icuságun perézan edo gogaitzan. Viciarén atratzecó trabajatzeta manatzendú Jang(oicoa)c; dá oblig(aci)o, dá arráccio; da provéchu: Arimarén salvatzecó, Jang(oicoar)en zervitzuan trabajátzea dá oblig(aci)o, arráccio, ta provéchu ezin yágos. *Unde zizania?* Nondic dá floxerárén zizaña? Deábruac iténdu, vicidaitzen alférr, betetzecó becátus ta misérias, eta atratceco mu(n)dugóntaic uts merejim(en)tus deus onic ingábe. Ebéc gucióc ta berce aláco fráncó dire zizañac: Baña p(ro)prioquiágo zizaña Chr(ist)oc tiónac diréla gaichstoarén húmeac, dire arima gaichsto galgárriac galarastenduténac gendáqui óna berén galvide, itz, irri, escárnio, ta modu gaichstoéqui. Oh! cer inférnu! gáldu bérac, ta galaráci béreceac!. Jang(oico)ac guárda.

*Naidu, joán ta bildezquigun zizaña gaichstoac?* dióte beteric zelos Jang(oicoar)en zervitzúcoec. *Beude*, dió Jaun andiac, *iguitademboraráño*. Bearrtúgu adorátu, ez escudriñatu Jang(oicoar)en juicio, secréto bezáin jústoac, cergátic ustentuén viciric gaichstoac aldártes, daramazquieláic ónac goizic!. Iguítadembóra dá guciendáco munduarén azquén acabánza, bacochaindáco bere azquén egúna, ezi orduán contú mundua acabatzendéla beraindáco, Orduán bada manatucodiotela, dió iguitarleéi, audá, Ainguiruéi, biltzeco zizañac, loturic pachsucá erretzeco súan, audá, inférnu(n); eta gária biltzeco bere granéroan, audá, bere glorian. Entendazágun: Ainguiruac, batzúc dire ónac dau-



dénac Céruan; bercebatzúc Ainguiru gaichstoac Cerutic desterrátuac, daudénac inférnuan, deicendirenac Demonio ta Deábru. Ónen biltzea Cerurá dá Ainguiru onen itécoa; Ainguiru gaichstoéna dá biltzea gaichstoac inférnúra: Cer naidu errán, *loturic pachsúca?* Subérvoac subervoéqui, codiciosoac codiciosoéqui, deshonestoac deshonestoéqui, ordiac ordiéqui, asárreac asarreéqui & ezi inférnuan dire pena diferénteac cúlpen ariorá. Goácen orái erreparátus ta considerátus ongui aguitzendéna, ta icustenezténa oraico béguis.

27at.

Iltzendá bát; ellegatuzáio iguitadembóra; prest daude iguitárleac Nausi andiarén manam(en)dus: Emén ustendúte gorpútza lurréco: eta nola guc ezpaitaigu cein izánden gári, cein zizáña, oroát orcizendúgu gaichstoarén gorpútza, nola onaréna comunquiró: baña án arima óna daramáte Ainguiru Cerúcoec, gaichstoa inférnúcoec. Emén itendá processióbát gorputzaréqui; án berce processióbát arimaréqui: emén óna báce, gaichsto báce, guciác cántus: án ónac cántu alegreéqui, gaichstoac laméntu triste desesperatuéqui. (Icusidúzu dio S. Christ(omo)c, nola eramatendúten gorpútza & eta icusiduzu nola arima &) Ónac presentatzentúte án glórian Ainguiruec triumfánte, milla zori ón ta viva vivaen értean. Ô cer egúna ura, noiz emandezázun óngui etórria M(ari)a Santissimac<sup>4</sup>, noiz & Gaichstoac berriz arrapatu-ric leonbatzucé becála Deábruec beltz itsúsi gaichstogáiec daramazquite loturic milla escárnio, errónca, ta tratam(en)tu gaichstoéqui berén inférnúco léce lotsagarrigartára, án erre ta errabiarastecó eternid(ad)e gucian: Eta gorpútza ere eramacodúte azquen iguitadembóran, erresucitat(ur)ic juicioco egúnan. *An izanenda negárta, ta órtzen carratscótta*, dio Jesu Chr(ist)oc.

Contactzendú bere Magest(ade)ac, céla guizonbát vesticencéna púrpuras ta olándas, ta erregalátzen egunóro goapoquí: céla ere pobrebát deitzencéna Lazaro, (Luc. 16) llágas beteric egotencéna abratsgárren atarietán, nóndic emaincióten ógui cozcorrbát sobratuetáic; eta níorc etzió emáten. Solam(en)te chacúrrec lamicátzen bai bere llágac. Aguitucé iltzea póbreá; eta eramanzúte Ainguiruec Paraisorá. Iltze abrátsa ére, ta orcizúte inférnuan. Andic cégo clamátzen náies alivio cerbáit, Aita Abraham, bialbezáda Lazaro otói otói, ur tantabátes frescadezádan mia, bainágo errétzen viciric sugónta(n). Errespondatució, Oroizaita zeure vician passatucinduzála gústoac, eta

---

<sup>4</sup> *SSmac* dio, eta laburgailua.

Lázaroc gaitzac; orái dago au gozáten, ta zu penátzen: eztá erremedioric. &. Alá utzizué, alá dágo, ta egonendá, **Jang(oico)a Jang(oic)o** dén bitárteo. Eta bada eztá ontan guezurric, goartugaitzen izatetic zizáña gaichstoac; izangaitzen gráno escogituac; naiz emén néque ta péna dezágun sanduéqui, Ama Virgin, ta Jesus onaréqui, ellegátzeco gozatzerá aien compañian eternidadeco glórian. Amen Amen.

## Sermo in Dominica Sexta post Epiphaniam

*De viâ regiâ ad caelum.*

Simile est regnum caelorum grano synapis. Math 13.

Comparaciotáco dácarra Chr(ist)oc egún mostáza, edo zeápe picórra, cein delaric azi chipit̃obát acitzenbaita anitz: baitaré oránza artzitzen, sasozten, ta goratzenbaitu órea gucia, ta óguia. Sanduen ústes adiarastendá Chr(ist)orén Evengelioco doctrina, ta ónen confórme vicitza Chr(ist)io onaréna, ceintas dión S. Pabloc, *momentaneum hoc* & 2 Cor. 4.) *Oraico gure momentubatéco*<sup>1</sup> *trabáju pichscagónec dacárr gloria-móntio eternobát*. Emén in azároa, án gozátu eraicioa: emén mostáza picorrbát, án árbola andibát: eméngo orántz pichscaréqui logratzendá ángo ógui erregal(atu)a. Mostáza dá mincaitz, eta chsegaturic atrarastendú negárta. Oránza ere beréz eztá gustósco gauza: baña próchu emateunte. Órtan dugu dióna Jesu Chr(ist)oc, *latz érchia dela videa daramána vicitzará*. Trabaju-ricgábe eztá lográten, eztá ere arrácio, lográtzea gloriagúra. *Eztá izánen coronátua ezténa peleátzen bearrbecála*. Múnduan ére contrá-rioa darráio contrarioai comunquiró: gau ilunái egún árguia: neguái úda: tempestadeen<sup>2</sup> atzétic datorr serenid(ade)a; tristúren atzétic gochsoágo dá alegría; nequeain atzétic descánsua. Nauzu bildu erai- cio óna? Barrátu azároan ta trabajátu. Nauzu eguin ló aisa? Goichs- tárrtu, ta idatzaric egón ánitz. Nauzu jan gustoréqui? barútu edérr- qui, ezi S. Bernard(or)en sálsa, baita góse óna, dá góchso itzulcecó gucia. Edátea noiz dá gochsoágo? noiz dén egárri yágo. Beardá gora gorátu fábrica? Barnátu beítirát ciméndua. Eta alá berce áasco gauze- tán. Baña emén lurrécos déna déla;

Arimarén itécoan bentzáit alá aguitzendá. *Humillatzedéna*<sup>3</sup>, *edo apaltzedéna, izanendá gorátua*. Mortificatzentuéna orái bere in-

<sup>1</sup> *momtubatéco* dio, eta laburgailua.

<sup>2</sup> *tempestad.*<sup>em</sup> dio.

<sup>3</sup> *Humillatzedéna* dago, eta marratxo bat lehengo -e-ren gainetik.

clin(aci)o gaisstoac<sup>4</sup>, vicicodá Jang(oicoar)en erreinuan. Aborreci-tzenduénac onés bere búrua, aurquitucucodú vicitza seculácoan. Trabajatzendénac Jang(oicoar)en zervitzuan, izanendú descánsu etérnoa premiotán: Peleatzendénac óngui, coróna: Eraiquitzenduénac negárres, bilducodú alegráncian. Oraico aranceéc dacarzquite ángo lóreac: eméngo penec ángo gústoac. Cóntra berriz emén aisa, ta án aisa: emén gústo, ta án gústo: emén glória, ta án glória: emén nolanái, ta án ere bai, eztá cer esperátu. Icustecó egún Jang(oicoar)en videá, Ceruráco videá; goácen árgui escatzerá Ama Santissimai<sup>5</sup>. Ave M(ari)ja.

Mostáza-gráno preciosoéna dá Jesus óna; bérac emán doctrina, ta béra paratuze ónen exémpu ta prógu erreála. Jautsice Cerútic lurré-

28at.

ra, lurrecoéi eracustecó igáten Cerúra; eta ez contéit eracútsis solam(ent)e itzes, bera paratucé alcinean, seguidezágungátic. Andi góra cególaic, eguince chipi apál: glorióso bere trónoan cególaic gústo guciéqui, jautsice passátzerá trabáju guregátic, dión becála S. Pabloc, *humiliavit semetipsum & Humillatucé béra eguinc obediénte eriotzeráño, ta gurucecó eriotzeráño; orgátic Jangoicoac<sup>6</sup> goratuzué, ta emáncio izenbát izén gucién gañetic, Jesúsén izenerá belauricadáien dén gucia Céruan, lúrrean, ta infernuetán, ta mi guciéc confessadezátén gure Jaun Jesu Christo<sup>7</sup> dagóla bere Aita Jangoicoarén<sup>8</sup> glórian. Orrá mostáza-gráno chséa eguinic árbola andía, ceñen arrámen péan vicidaizquen Cerúco egásteac, Ainguiruac eta Sánduac. Bada S. Pablo bérac dió, *ezi Jangoicoac<sup>9</sup> predestinatutuénac bere gloriaráco, naiduéla eguindaitzen bere semearén imaginarén confórme*, beira hispillugóntan.*

Tratazágun imitatzeas, ta izáteas berarén confórme. Nola dá possible? Confórme gucis bardinean impossible dá; baña joátea vide béras atzétic, naiz déla urrutichsagotic, possible dá bere gra(aci)aréqui: ezperén, eracúcútsi<sup>10</sup> ta ártu berac guc bearrguinduén erremé-

<sup>4</sup> *gaisstoac* dio, marra bihurri bat ageri dela -tt- bikoitzaren gainetik.

<sup>5</sup> *SSmai* dio eta laburgailua.

<sup>6</sup> *Jang.<sup>c</sup>* dio.

<sup>7</sup> *Jesu Chro* dio.

<sup>8</sup> *Jang.<sup>en</sup>* dio.

<sup>9</sup> *Jang.<sup>c</sup>* dago.

<sup>10</sup> *eracú-* lerro batean, eta *cútsi* hurrengoan.

dioa, ta .guc arcenezpadúgu, ezgaizque izán sálvo. *Cerén gure Jaun Jesu Christo*<sup>11</sup>, dió S. Gregorioc (h. 32 evang) *etorrizen guizón bérria mundurá, erreceíta bérriac emancitio munduari; ezi gure vici zarr vicioetán aziái paratució cóntra bere viciarén bérria, curátus, Cerúco Medicugónec vicio bacócha, dagóquion erremedio*<sup>12</sup> *proprioaréqui*<sup>13</sup>, *desonestidadea*<sup>14</sup> *honestidadearéqui, codicia liberaltasunaréqui, ira malsotasunaréqui, subérvia humildadearéqui.* Óngui beiraturíc irur zain principálac túste gure gaitzec, baitire *aundináia, gustonáia, ta aisanáia*: edo gára gaichsto, eznáies *humillátu, eznáies mortificátu*, ez náies *necátu*. Beira nola dén gucis cóntra Jesús onarén vicimódua Beléngo gambelatic gurutzeráño, guciá humild(ad)e, guciá péna ta néque: nola erranbález obraéqui, audá videa, eméndic joatendá gloriará. Baña pregonaráci ere dú itzes.

Aizágun pregóna, *Qui vult venire post me, abneget semetipsum, tollat crucem suam, et sequatur me.* Naidu errán; *Etorrinaiduénac ene atzétic, ucabédi bere naicundeéi, arbez bere gurútzea, ta seguibenáza.* Errepára itz bacóchean: *Qui vult venire post me, dió lenic, Naiduénac etórri ene atzétic*: nóra nóra? Cerúco gloriará, vicitza secularorá, dá claro. Ea norc eztú naico? Bada naiduénac ori, imbeárdu au: *Cer? abneget semetipsum,*

## 29

cóntra emán, errepugnátu, ucátu bere génio, vicio, ta inclin(aci)o gaichstoéi. Nola itendá au? alá. Suberviac dió, he! goápo, cámpa, búrua góra tiéssu, ez útzi niór lendáien, ez in casoric nióres & Jesu Chr(ist)oc dió, Ucabédi, ez consénti. Codiciac dió, inzágun ondásun nolanaidéla, guárda, álcha, érchi éscua, naiz beárrean dágon proximoa & Jesu Chr(ist)oc dió, *Ucabédi*, emán cóntra, in miseric(ordi)a & Luxúriac dió, in gústoac, divérti, joán vide zabálas, nolánai suélto & Jesu Ch(risto)c dió, Ucabédi, erresisti, ez admiti. Gúlac dió, ján ta edanzágun, amenf̄ogau, tragoñogau & Jesu Chr(ist)oc dió, Ucabédi triposqueriari ta laminuriari. Dió irac, ez súfri alacoric, oroitu-beárdu, pagatubeárdu & Jesu Chr(ist)oc dió, Ucabédi; garaitu ira, onétsi etsáiac ere, in óngui gaizqui indizunái & ala gañaráco passióne ta vicioetán, ezi óri dá peléa beardéna in óngui, lograc(ec)os coróná... Dió yágo pregonac, *tollat crucem suam; arbéz bére gurútzea.*

<sup>11</sup> *Jesu Chro* dio.

<sup>12</sup> *errem.* dago.

<sup>13</sup> *pprioaréqui* dago, eta laburgailua -rio- grafemen gainetik.

<sup>14</sup> *desonest.* dio.

Cer gurútze? beárden trabájua, cumplitzecó Jang(**oicoar**)en léguea. Trabáju, gueuren miséria, eta génioen cásos: Trabáju proximoen cásos: Trabáju Jang(**oicoar**)en escutic ére: eta guciá eramanbeár paciencian. Eztá ori gurútze?. Trabáju alde guciétaic, libratzecós offenditetic Jang(**oico**)a, ez solam(**ent**)e orái, baitaré edocein ocasio ta tentaciotán, vici gucian. Eztá ori gurútze? Eta aguidaique láncea, noiz edo in becátu, edo sufritu escárnioac, tratam(**en**)tu gaichstoac, gólpeac, ta eriótzea ére bearrcó: Eztá ori gurútze? *Baña bere gurútzea arbéz bacóchac*, dió Jesus ónac, ez nérea, cerén ezi gure trabáju diren andiénac eztaizque elléga passatuzituenetará bere Mag(**esta-de**)ac.

*Eta seguibenáza ni*, dió Jesús ónac: *et sequatur me*. Seguitzegáu dá amóres, ta imitácios. Irur pausu edo prógu túgu óntan. Lembi(**ico**)a Jesus onarén ariorá izátea onac biótz bárnean, humilac, mánsoac, gógo onetácoac, berarén amánte apassionáuac & Bigarr(**en**)a mostrátzea obraetán, eguines lenic manatzentigúnac; guéro consejatzentigúnac; eta lén ta guéro ta bėti eguitendugungúra, déna déla, eguines berarén izénean berarén amóres: auchse dá mostazapicórr, orántz, eta gátz sasoitzen, gorátzen, ta guisatzenduéna guciá Jang(**oicoar**)en gustorá. Irugarr(**en**)a padecitzea ta sufrítzea berarén amoreagátic trabájua, desarráccioac, agrávioac, ta eriótzea bera, bearrbáda. Exemplitáco: naibadióte báti ucaráci fédea, galaráci castid(**ade**)a, edo inaráci berce edocéin déna Jang(**oicoar**)en cónta, cer imbeárdu? Escapátu ez iteagátic, albadaique, eztuélaic sénti arimo ta indarric ásko sufricecó; edo ezpadaique escápa, emán vicia ere, lenágo ezi admiti Jang(**oicoar**)en cónta. Eta au eztá devócio solam(**ent**)e, baicic oblig(**aci**)o.

29at.

Orgátic Chr(**ist**)io eriec aldebát beardúgu goárt eguin ez aurquitzecó aláco erchiduratán: berce alde Jang(**oico**)ai escátu ezdezála permiti aláco tentacioric; edo ezcaitzala útzi erórcera tentáccioan. *Baña oh!* cémbat becátu itendire(n) aláco premiaricgábe ére passiónes ta malicias! eta cémbat berriz, aurquituezpalire aláco tentáccioan, salvaleizque, condenatzendirénac flaqueátus bearrórduan! *Arbez norc bere gurútzea*, dió Jesu Chr(**ist**)oc, *eta seguibenáza*.

Yá berás cláro da viciódiréla engañuan ásko Chr(**ist**)io contentatzendirénac eguitearéqui cembait errézu ta devócio, garaitugábe passióneac ta contráριο diren guciac; itzbátes, cumplitugábe obligáccioac. *Ay zuétas*, ció Jesu Chr(**ist**)oc hypocritéi, *ofrázten ménda*, *ta cómioa*, *ta aláco chséac*, *utziric principalénac*. *Ebéc imbearcire*, *ta ez*

*útz* ayéc. Obligáçioac cúmpli, ta devóçioac ez útz. *Óngui ciò Isaias Profetarén ágos; gendegónec honratzennáu ezpañes, baña biótza urrúti enegánic.* Mota beréçioac dire ásko Chr(ist)io achsál. Engáñuan viciðire terciariáen guisa, aldártes bai, aldártes ez: orái goártu gutibát, bérla suélto nolanái: alá béñere eztire ón eguiáz: aguérian idúri, bárnean constanciaic ez. Eztá ori seguitzea Chr(ist)io gurútzearéqui. Azquénean mostáza ta oránza becála dá biótza; onen ón edo gaichsto izatetic datórr ón edo gaichsto izátea vicimódua, accióneac, itzac, afféçtoac, ta gucia. Biótzean acitzendá Jang(oicoar)en amorearén mostáza érru amargoa, chsegaturic óngui formatzenduéna contriciósco dolórea, atrarásten negárrac, inarásten penit(enci)a, sufriarásten trabájuac ta eriótzea ére. Eta orrá nola dén erremédio guciatáco. S. Pedroç lotsarrituric, Jesus óna préso ceucateláic, ucatuzué etzuéla ezauncen ere, lén confessatuzuéna Jang(oicoar)en sème. Beiratzearéqui bere Mag(estade)ac, acordaturacé guizagaizoa; asice chsegátzen mostáza picórra, asize negárr eguiten amarragoquí, ta seguituzué vici gucian; aituordúco ollárrain cántua, ematençió negárrain musicaic, de man(er)a, ezi dióte negárrain útses béguien péan incequizquíola bi erréca: Eta guéro digeritucitue mostazagárren virtútes pénac, prisiónec, ta eriótzea gurútzean Jaunagátic. Baña óntan ére aguitucé gra(ci)abát. Inzúte préso Jerusalénean, ta libratuzué Jang(oico)ac. Inzúte guéro préso Roman; libratuzúte Chr(ist)ioec ichsilquias; baña etzué nai gure Jaunac libracéien órduan. Aparecituricéquo gurucearéqui sóñean; galdeturic nora zoéien, erresp(ondatuzu)e, noáie Romara iltzera berriz zuregátic. Itzúli bai itzúli sándua bere carcelerá ilceco gogotic & Ilgaitzen emén vicitzeco glória(n). amen.

## Sermo in Dominica Septuagesimae

*De laborando tempestivè in servitute Dei.*

Exiit primo mane conducere operarios. Math. 20.

Lucecára dá egúngo Evang(elio)a, baña solam(ent) atracodúgu mámia edo sust(anci)a. Pintatzendú Nausibát atracéna peón billa bere ardanceráco goizean, tércian, sextan, Nonan, ta arratsálde apálean. Arrátsean guéro emanaracizuéla alocairu óssoa guciéi: murmuracenzutéla lembi(cicoc)ec: Nausiac defendatzenzuéla bere acciónea, emanasguéros aiéi bere alocairu ajust(atu)a, etzutéla calteric, emáteas Nausiac beretíc berceéi naizuéna: *alá izaindire*, dió, *azqué-nac lembiz*<sup>1</sup>, *ta lembicicoac*<sup>2</sup> *azquén: Ezi anitz dire deituac, baña guti escogituac*<sup>3</sup>. Evangelioco Nausigau cláro dá déla bere Magest(ade)a: Ardántzea Eliza: Peón ta languinac Predicári ta Ministroac, baitaré Christio guciac: Garái differénteac bacocharén adínac, ceñetan dágon déi ta déi Jang(oico)a. Alocairua gra(ci)a orái, guéro glória. Lan eguitea Jang(oicoar)en gustorá eztágo solam(en)te dembóra luceán, baicic borondat(ear)en finézan. Ordubát gána oneán naiágodú, ezi bizpiru ta yágo órdu gána gaichstoan epél fadoriegábe. Goácen icúsis aguitzendéna: atzendugábe gure echocándre div(ino)as<sup>4</sup>, Ama Santissimas<sup>5</sup>. Estimazágun. Ave M(ari)a.

Gauza gucién Jaun ta Nausi andiac jautsiric Cerutic plantatuzué münduan ardantzebát, cein baita Eliza edo Christiand(ade)a: ónen ayén eguiáscoa dá JesuChr(ist)o guizón div(ino)a; zarmenduac Chr(ist)io bacócha. Peón billa dabilála, dió egún. Badú aguián nióren bearríc eguintuénac cérúa ta lúrra ta gucia ez deusetáic? Claro dá ezétz: baña óngui iteagátic guizonéi, naitu lagún, lánceco ta

<sup>1</sup> Hola dago *lembiz*.

<sup>2</sup> *lembic.ac* dio hemen.

<sup>3</sup> *escog.ac* dio.

<sup>4</sup> *div.as* dio, guk *divinoas* irakurtzen duguna.

<sup>5</sup> *SSmas* eta laburgailua.



cuidatzecó nor bere zarrme(n)dua, audá arima edo esp(iri)tua, atra-  
dáien Jang(oicoar)en confórme ta gustorá: Eta oridá bacóchac im-  
beárduen lána, ta ez yago, baldin ezpáda eguin bercerén cargudún.  
Orái bada cer officio dúzu, adisquidea? Batác dió ezi Necazári, bér-  
ceac arguín, edo zurguín, edo chastre & Ori dióte bigárren officio  
artuduténas: baña nic galdeitendút lembic(ic)o officioas jaiótzes da-  
carrgúnas, baita necazálgo esp(iri)tuála: guci-gucióc, guizónqui  
emastéqui, andi chipi gucióc baicára Necazári esp(iri)tuale Jang(oi-  
coar)en ardántzean: Eta alá galdeguitea cer officio dugún, dá galde-  
guitea certáco jaiogarén. Certáco bada jaiogára? Ezauncecó, ama-  
tzecó, ta zervitzacecó Jang(oico)a emén, ta gozatzecó glórian.  
Ezauntzea eguitendá sinestátus ta entendátus eguietafedeac errevel-  
latutuénac Jang(oicoa)c bérac: Amátzea eguitenda onétsis ta estimá-  
tus bere Magest(ade)a biotz, arima, ta entráña guciéqui: Zervitzátzea  
itendá cumplitus berarén borond(ate)a adiaraciduéna mandam(en)-  
tuétan, por consig(uien)te moldátus arima, gorpútza, ta vicimódua  
berarén gustorá. Orrá eracutsiric languinen itécoa Jang(oicoar)en  
ardáncean: Orái alocairua.

*30at.*

Cer alocairu ematendú? Beñic bein zure lanarén fruitu ta prové-  
chu guciac zeuretáco. Eta bere Mag(estade)ac eztú provechuric? Ez  
eta béarr ere, guciá daucalaic bere izátean: eta cer provéchu emande-  
zóque guizónac Jang(oico)ai? Eztunái, baicic duén gloria ta gústo,  
salvátzean bere guizóna. Alocairu ematendú glória eterno immenso-  
bát Céruan. Bere Magest(ade)a déna emate(n)da gozátzera, alocairu  
valioduéna infin(it)o. Eta emén vicigóntan? eztú deus emáten bitár-  
tean? ô Jauna, lurréco arrfñoóc eztire contént angoaréqui sollic, naiz  
berén zervitzu pichscac eztuén meréji gloriagúra. Eztióte deus emá-  
ten bidanabárr emén? Bai ta ánitz ére. Cer? Bere amórea ta gra(ci)a,  
eta oni darraizquion ondasúnac, norc taqui cémbat ta nolácoac? Eta  
eztú emáten lurréco ondásun, gústo, hónra, convenie(n)cia, descán-  
su, osásun, ta alacoetáic? Jauna, lurrécoac nola baitire, lurréra beti  
beira daude. Oietáic eztú emáten?. Oyén cásos galcendire ascotán;  
emátea orduán litzáque beren caltetán: gañarácoan ón badíre ta  
convéni, norendáco tú gauzac, ezpáda bere zervitzúco maiteendáco?  
Baña Jang(oico)a duenari deus etzáio fálda: bera sollic ásqui dá.  
Berá da tristuretán consoláco, trabajuetán errepausa, bearetán  
erremédio, ta gústo, ta hónra, ta ondásun, ta nautzan gucia. Nola  
eztú betéco Jang(oic)o andíac guizonarén biotzarén gógóa nai  
adiña? Cóntra bérce niórc eta deuséc eztú betéco, berac ezpáda; de-

balde dabilta asenáies inguráca. Erratenzióna S. Agust(in)ec, *Fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in te*. Jauna, orréc ingaitu beretáco, eta eztaique ásse gure biótza, baicic berorréqui. Alaére áscoc eztúte alocatunái berórren zervitzuan. Eztióte aguián emáten susténtu óna? Ainguiruen óguias gusto guciac tuénas berebaitan, bere gorpútz odol preciúsoen erregálo erregalátuas erregalatzentú. Ô amóre! Ô liberaltasun gueiéguia! gañaráco favoreén gañétic ori. Alaére áscoc naiagodúte zervitzátu demonioái, munduái, ta araguiái aperreaturíc vicigucian, susténtua farrasqueriac emén, ta alocairua sú etérnoa inférnuan.

Oh! dió norbaitec yá, nor litzáquen gauza Jang(oicoar)en peón edo languintáco! Bércé gra(ci)abát dá ori, nornái ta naiduen gucia baita gauza Jang(oicoar)en zervitzúco. Erreguerén zervitzúco, déla báquean, déla guérran, eztire gu-

### 31

ciác gauza; oroát bércé áscó officio lurrécoen zervitzúco: Cembatáco dire gauza emastéquiác, ta ericórrac, ta ériác? Cértan dágo? Izátean Nausiac beártzu: ezi naiz déla Errégue, beártu consejúco chsaquintsuac, guerráco azcárr entréguac, guciétacó éri eztaudénac, ezperén, cer inlezáque? Baña gure Errégue ándia nola ezpaita nióren ta deusen beárr, oroát zervitzatzendá emastéquias, nola guizónquias, ericórras ta érias, nola sánoas, barimbádu biótz óna, edo borond(at)e óna, eztuélaic náí berceríc, baicic áma ta estimadezágun bere Mag(estade)a, ta cumplitu bere bodond(ate)as. Itzbátes, eztá beárr yágo, baicic indáien arima onécoa persóna Jang(oicoar)en gustorá: ori dá itéco gucia.

Ortáco dágo bere Mag(estade)a convidátzen déi ta déi: gueuróc alcinatubeárrea(n) escatzerá naibagaitu admititu bere zervitzuan, gusto eguiteagátic aláco Nausiái, gueuren onagátic ere, gú ez, baicic bera eldudá gure billa garái guciétan. Bórz garái tió Evang(elio)an adiarácis guizonarén adin guciác. Lemb(icico)a goiz goiceán, arguisteán, edo Priman: audá, aurzútuan, ezaum(en)turá ellegátzean, ta alcína amaláur amaséi úrteac árteo. Deitzendú beregána prevenitus eracustúnac, ta quidáriác oneráco, emánes biotzerá bere inspirációac, goarzaite becatuetaic; manténi libre ta gárbi bataiocó gra(ci)a; ez ségui múnduco vanid(ade)ac ta gaichstaquériac; izán óna: Cérúa dágo onendáco, inférnuá gaichstoendáco & Tércian, baita goizarén erditsutic alcina, adiarastendá gastezútua, amaláur amaséi urtetáic ogueitamábi amirurtará. Eztire descuidátzen Demónioa, múndua, ta aráguia tirátzeco berén gána: eztaere Jang(oico)a be-

reganatzecó descuidátzen. Ayéc erratendióte, orái dá dembóra gozatzecó mundua, goápo beárda, gústoac eguin, alégre, diverti & Jang(**oicoa**)c erratendió, orai dá de(**m**)bóra ematecó Jang(**oico**)ai; goapezatic obéna dá libre gárbi edérr mantenitza gra(**ci**)an; alegría ta gustoric andiéna concienciarén óna; etzaitela útzi engañatzerá mún-  
duco tipules ta farrasquerías; nola acitzenzáren, ala izanenzára; eta bearrorduán virtuósoac naitúste ta billatzentúste. Deitzentú obéqui dagoquióten estadorá. Baña ô ezaum(**en**)tufálta, engáñua, ta itsuta-  
súna! Ô viciarén primiciac! Ô adinarén flórea! Cémbat malográtzen-  
dén zoritugábe? Bitárteo cémbat escarm(**en**)tu, cémbat avisu, bel-  
durrtásun, erremordim(**en**)tu, gólpe, oroipén ematendióte biotzerá!  
Ô Jauna, norc dezóque berórri botátu bere perdicioarén cúlpa! Iru-  
g(**arre**)n órdua Sexta deitzend(**en**)a eguerditic bera, ogoeitamábi ur-  
tetáic berroqueita sei zorzitára. Déi ta déi dagoquio Jaun óna: Ez  
descuida, ordudá oroitzecó Jang(**oico**)as, arimas, vicitza seculácoas,  
zaiarén bilzále, ta irinarén barrazále: naidu errán, ez egón affanatu-  
ric lurrecoetán, cuida yago arimarén itécoas. Gasteagocoéc eta  
aurréc arrapatzeunte Cérúa; eta zú

31at.

lúrrean sarturic beti nóla satórra, edo lurréra beti beira nola ma(**n**)-  
doa? Laurg(**arre**)n garáia Nona cer ordudá? Arratsaldearen erditsut-  
tán, adinarén berroqueita sei zorzi urtetáic bera. Clamatzendú  
oráño ere Nausi div(**ino**)ac, Ots, noiz izam beardá? Cértan zaude  
descuidaturic? Zure lurréscó paretegói asidá zarbailtzen, erocerá  
inclinatzendá: erioac bialtzentizu bere mandatáric: Útzi útzi mún-  
dua naietzaituéna &. Borzg(**arre**)n orduan dió amecagarr(**en**)a arratsálde  
apálean, adinarén iruoguetáic bera, viciarén póstrea, demborarén  
ondárrac, eriotzarén vézperac. Ô gure Jaunarén ona! eztú oráño ere  
despeitzen beregánic; oiú itendú, *Quid hic statis totâ die otiosi?* Cer  
aizaráte egún gucián alférr? vici gucián vánoan? Ea, erchitus doáie  
plázoa; utzinaizaiste múnduac beregánic, utzázie lenic zuéc, ta  
emanzaiste Jang(**oico**)ai gucis. Lenágo lenágo beárce, baña ondárrac  
berére, negárr ánitz eguinés malográtuas principála. Badoáie soñá-  
tzera erretréta, érchstea atária &

Orái naitut erabáqui bi púntu: lemb(**icico**)a peongáien quéxa,  
emáteas azquenéi Nausiac alocairu béra. Ontará diót, aguidaiquéla  
suptlitza dembóra gútis léngo fálta, Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as, eta di-  
ligencia p(**ro**)prioas contricio fiñaren útses. Alácoéc beñic bein nola-  
co pena érrua zúte malográtus dembóra? Cer amóre doloréscó, cer  
dolóre amorescó! Cer negárrac oroitzeas solam(**ent**)e offenditudu-

téla berén Jang(**oic**)o óna? Eztiót vicibát, cémbat vici nailuquéte gál-du logratzeagátic, albaleique, ez offenditua bere Mag(**estade**)a? Baña gaizqui eguina yá eztaiqueláic izán ez eguina, deseguitenzúte negarréscó bataíoan. Ordubatéco negárr alácoec eztúte valio yago ezi áscoen áscó eguntáco zervitzu púchsquec? Bérece aldé noribaiti naibádio eguin gure Jaunac gra(**ci**)agói, nori iténdio perjuicio? Erranzuéna, zúre bégúia dá gaichsto, cerén ni naizen óna?... Bigá-rren púntua, esperanzagorréqui ústea guerorát convertitzea déla temeridáde. Vicigaitzen nolanái, ezi ándia dá Jang(**oicoar**)en misericordia; cerdá ori baicic errátea, izangaitzen gaichsto, offendizágu(**n**) Jang(**oico**)a cergátic baita óna. Eztúte alácoec meréji esperadézquien Jaunac: eta ciérto barcácioa ofrecituduénac convertitzendenái óngui, eztú ofrecitu biárrco egúna. Bérece álde náiz izánic dembóra, eztaique convérte becatária béra beréz, yágo ezi daiquen viztu ila: precisso dá ortáco indézon Jaun offendituac gra(**ci**)a emáteas convers(**ione**)a. Bérece álde beárda aldátu biótza aborrecitus lén amatenzueña, eta cónta. Ain aisa da itzúl-

## 32

tzea béltza chúri? Ótsoa árdi? Otsorráia úso? Bérece álde egoinda Deábrua descuidaturic, ustecó bere escutic ceucána arrapaturic? Vician gaichsto, ta iltzean ón, ori eztá milagroguisabát?

Desengañugáu emateagátic joanoménce bein Mongebát feriaba-téra, non baice anitz animále salcéco; zebila zebila arát onát cerbáit erosináies becála. Galdeguincióte cembaitec, Aita, cer billatzendú? Arc, billatzendút animaleguisabát, ezpaitezáquet icúsi. Cer billatzenotedú? cióte ayéc, badic bada orr fránco autatzecó. Azquénean errancióte berái, erranbezágu cer billatzenduén, ta guc aguián aurquitucodiógu. Orduán erránzue, nic billatzendút zaldibát duéna achsuriarén atzéquia, edo buztana. Irriái emancióte ayéc; debalde dabila, eztú aurquitúco aláco animaleguisaric. Orduán Móngéac, nola bada zuéc nauzie vici gaizqui ta il óngui? zaldien vicia, ta achsuriarén fina? Comúnqui aguitzendéna dá dióna Esp(**iri**)tu Sand(**ua**)c (Prov. 22) Nola acicendén gáste, ala izanendéla zárr. Eta S. Agust(**ine**)c errána, *qualis vita, finis ita*, vicia nola, fina ala. *Biárr biárr, itzgáu*, dió sandu berac dá galtzentuéna áscó ta sobra. Biárr biárr, latines cras cras, otsorraiarén vóza. Guelditzendíre campotic berén otsorrái vozaréqui, cerén etzúten usoarén currúca: *remansit foris cum voce corvinâ, quia non habuit gemitum columbinum*. Adiaracinaidu aguitucéna Noen árcan dilúvio universálean. Ondatuasgué-ros animále guciac, árcan cirénes gañarácoac, atertucireláic eraun-

tsiac, ezauncecó aguertuciren lúrrac, Noec idiquiric arcarén leiatilla, bializitue yá otsorráia, yá usoá: ussoá errevolátus inguráca, ez aurquitzearequi non frincátu bere oña, itzulize bere arcará: baña otsorráia joán ta ez itzúli, guelditucé no(**n**)báit arágui zarr játen: Erchiric leiatilla, ya gueróstic etzé sártu árcan: On daquióla. Biz arima, ez otsorraiarén guisa cebatzendéna múnduco gauza urrintzuétan, guero ez memoriaic itzúltzeas, ezpáda cras cras, biárr biárr, guero guero; eta errefranain guisa, diónac guéro dió bégo; baicic biz usoa-rén guisa, ezin aurqui errepausaric nión, ta itzulce(**n**)baita arcará lastérr voládan; Cer árca dá au? Dá Jang(**oicoar**)en ampároa amóre ta conciéncia onaréqui. Ez descuida niór maiteduenic bére búrua, eztáien águi erchitza atária, eta guéro negárr eternid(**ade**)an erremedioricgábe. Alá contatzendú S. Greg(**orio**)c (dial. 1.4. c. 38) Chrisorio deitzencebátes co(**n**)gójas beteric eriótzeco órduan escatzenzuéla inducias vel usque mane, biarrárteco epéa berére, biarr & eta etzuéla lográtu & & &

## Sermo in Dominica Sexagesimae

*De audiendo verbum Dei, et modo.*

Exiit qui seminat, seminare. Luc. 8.

Joandén igándeán ardancelanarén, egún alórr eraiquitzearen comparácioa paratzendigu Jesus onac, honrátus ala necazálgoa: badezóquete estima necazáricc. Dió egúngoan atracéla eraiquizáleá eraiquitzerá; eta granobát erorice videóndoan, ta oinpetátu, ta jan-zúte chóricc. Bercebát lurr cascállu arrizuan; eta jaioric eartuzé humed(**ad**)efáltas. Bercebát lárren értean; eta lárrec azióndoan itozúte. Bercebát lurr ónean; eta emánzue batendáco egún. Au errán, ta oiuitenzué, *Duénac beárri aditzéco, adibéz*. Guéro bere Discipuloen peticios explicatuzué parabolagau ala. Azia dá Jang(**oicoar**)en itza. Videóndoan erórcea dá adizále ajolacabeetán; bérla Deábruac quentzenbaitiôte biotzetíc, eztaitzen sálva sinestátus. Cascálluan dá, noiz adituric gustoréqui ezpaita barnátzen, au dá, zañac ez eguin bárna, baicic achsál achsála, berlagártan sinestátu, ta bearrórduan faltátu. Lárren értean dá, noiz aditu ta múnduco itéco, ondásun, ta gústoen cásos itoric ezpaitu fruituric emáten. Lurr ónean dá, noiz adituric biótz ón onaréqui goardácen ta ematenduén fruitu paciéncian. Onaraño Evang(**elio**)a. Orái fáltadá icastea aditzen Jang(**oicoar**)en itza. Ortáco escazágun gra(**ci**)a, salutátus M(**ari**)a Ave M(**ari**)a.

Gure Jang(**oic**)o Jaunac beti digun amorearen cásos naigaitueláic bereganátu ta salvátu, baña ez borchátu, ta ez privátu libertadearén erregalías, naidezagungátic guc ere gueuren borondátes, dagoquigu déi ta déi contíno convidátzen beregána milla módus ta manéras. Principalenetáic bat dá eraiquitzea bere itzarén áci óna gure biótzean. Comparatzendá orgátic eraiquizalearéqui: Bi módus eraiquitzendú: Edo gure sentidoes valiatugábe, biótz barnerá zuzénean, espíritu dén becála, inspirátus óna, arguitus entendam(**en**)tua, moguitus borond(**ate**)a, imprimitus gógoan naiduengúra: Au deitzendá inspirácio, ta dá eraiquitzeguisabát obéna: Edo valiátus gure sentidoes, icusiarácis ta sentiarácis bearrdengúra, déla exémpu

ónes, déla escarm(en)tus, déla gústos, déla trabájus, ónes eta gaitzes: baña sentido gueienic usatze(n)duéna dá adim(en)tua, adiarácis eméndic bere itza. Orgátic dá Evang(elio)co oiugúra,

### 33

*Qui habet aures audiendi, audiat*, Duénac beárri aditzecó, adibéz. Fedea, baita sinéstea, eta ón gucién ta salvacioarén záin, cim(en)-du, ta princ(ipi)o, eldudá aditzetic, *fides ex auditu*, dió S. Pabloc, (Rom. 10) eta aditzea, gure Jaunarén itzarén medios, *auditus autem per verbum Christi*. Aditzea doáie lénean, atzétic gañaráoac. Lenic aditu beárries, guéro entendátu entendam(en)tuas, guéro besarrcátu bióztas, guero gozátu afféctoes, guéro confessátu mias, obras, vicitzas.

Alá delaric Jang(oicoar)en ázia bere itza, predicátzea eraiquitzea; eta biótzean ártu ta acitzecós, beardelaic passátu adim(en)tutic aditus óngui, berás avantálla óna dá óngui aditzea: Berás gaitz gaichstoa dá adim(en)tu gaichstoa, sorreria esp(iri)tuala: Jang(oico)ac guárda. Orgátic Christiatzerá eldudenái templorá, Sacerd(ote)ac bi eries bere lichstus uquitzentió bi beárriac, imitátus Chr(ist)o, erratendióla *Ephetha*, naibaitu errán, idiquizaita adim(en)tua; mostrátus alá cein precisso dén salvacecós, adim(en)tu óna izátea. Diógun adim(en)tu ongau eztagóla solam(en)te beárriac chincho izátean claro dá, ezi desobedientecára dén humeái edo nirabeái erratenzáio, oh adim(en)tu gaichstotácoa, naiz beárriac eztuén sórr: Eta Judioéi aditzentzenéi, beárris, ez biótzes, Jesus ónac erratencióte, *Orgátic zuéc eztúzie aditzen, ezpaizaráte Jangoicoarén*. (Joan. 8.) Berás obeditzea dá p(ro)prioqui óngui aditzea. Óngui aditzecó emágun cembáit erréglá; ala nola maneatzendén lúrra eraiquibañolén, eraiquitzeán, ta eraiquiasguéros; goácen icásis cer imbeardén, Jang(oicoar)en itza *aditubañolén, aditzerácoan, eta adituas gueros*.

Lendanic dá izátea afficióne ta estimáció Jang(oicoar)en itzarí, delaric deice(n)dén becála Jang(oicoar)en itza, mintzatzendíguna bere Ministroen ágos, eta arimarén susténtu, cíones Jesus ónac, *Eztá oguis solamente<sup>1</sup> vici guizóna, bai Jangoicoaren<sup>2</sup> agotic datózin itz gucies*. (Math. 4) Orái bada goseric ez, ta ganaric ere ez eztuénas jatecó, cer juicio itendá? edo ésnea naieztuén aurras? Eztágo ambát óngui, dióze, ta dióze óngui: baña obéqui errandaique ori, duténes

<sup>1</sup> *solamte* eta laburgailua.

<sup>2</sup> *Jang.<sup>ca</sup>* dio.

desaffécto ta oposicio Jang(**oicoar**)en itzari: Apezaitéi manatzendigu Elizac Igánde ta jái andietán berére emátea doctrinaren susténtua, *eztáien águi*, dió, *chipiñoe escátu ógui*, *ta ez izátea norc emán*; (Trin. ses. 5. c. 2 de ref) Eta bacóchai manatzendió aditzea bere beárrac eta provéchuac. Múnduco escoletará acuditzeunte cási egunóro icastúnec icastecó eméngo árteac: edocein offici-

33at.

otán trevatzecó, maiz dabila icasquétan: beras icastecó Chr(**ist**)ioarén officioa ta salvacioarén ártea, Cerúco escolará templora acuditzea aditzerá Jang(**oicoar**)en itza igánde ta jái andietán berére, arrácio dá. Egunóro arcendú aurrac ésnea, ándiac susténtua gorputzarén: Cer milagro dá árcea arimarén zorzitic zorzirá? Especiálqui ignoranteéc, ceñen librua baita Apez Aitarén mia?. Joanbeárda intencio ta deseoréqui errecibi-bitzecó ontzát erratenzáion gucia ondunáies: Prestátu biótza, errandezáquen guisan, *paratum cor meum & Prést dágo ene biótza*, *Jauna, prest dágo*. Manabéz cer naiduén indezádan. Bere Ministroai emanbézo gra(**ci**)a mintzátzeco óngui, eta niri aditzecó óngui.

Aditzerácoan beárda egón guéldi, ichsil, atténto, ala nola eldu-balíre Cerútic bérri ónac, ezi ori naidu errán *Evangelio, bérri ónac*. Ez gáldu itzic albás, baicic provécha guciac, nola balire Cerúco azi picórrac. Berai eztagoquióna útzi passatzerá. Ez ánitz errepára Predicariarén gra(**ci**)an, móduan, eta mintzaéran; granorá beira; ártu ematenzáion borond(**at**)e ónes. Eraiquitzean daique errepára dén gari ta gráno óna; gañarácós itendén zácuas edo capáchas, guti dá impórt. Gose óna duénac, janárias itendú caso, ez platerain calidá-deas. Oroát edáten: biz árdo óna, ezi emandáien pichéras edo botéllas, guti importadá. Icustendá iturrirenbát dacarrána ur on gárbia, duelic cáñua serpentebáten figúran: nordá ain simple, usdézan orgátic edatecó, egárri dueláic? Aláco iturri guisa gára ánitz; mintzaéra ez ederra, baña doctrina sánoa. Alabér ez egón, descuido arrapatunáies itzetán: ain guti ártu punturic ta erresuminic erreprehénsioas. Pénsa erratendéla ásko gauza, ez cergátic aguitudén emén, bai cergátic múnduan aguitzendén, ta nonnáí aguidaiquen, ta eztáien águi. Errána dá, Cofraquide ezténac ezdezála ártu béla. Puntu arcenduénac aguertzendú bérac bere búrua culpánte, ta emendatunaiduêla ez. Uquitubádio bére llágan, iduquibéz paciéncia: pénsa paratudióla Jang(**oico**)ac ágoan berarén onnáies: Errán, goácen emendátus, arrácio dauca: ez itzúli erreméδιοa gaitz, emánes Medicuain cónta, naiz usadézan aldisca erreprehensioarén lancéta, ezi badire llágac beauténac



lancéta sendatzecós, ezpaita ásqui untátzea unguéndu legúnas.

Adituondórean erresérva biotzarén guélan principalénac berére beárr orducó, eta egón ala nola ausnártzen pensátus amenflobát edo bérece aitutuenetaic: ezi emén aitu ta emén utzi, bearribatetic sártu, bercetic átra dá nola eraiquitzea areán, ta escrititzea ureán; señale chárta, diónes S. Greg(**orio**)c egúngo evang(**elioar**)en gáñean, *Oroát nola estómago gaichstos egóztea janária dá arrás atzéntzea errána: Bada guelditzen ezpadá alimenturic<sup>3</sup>, ezta vicitzeo esperanzaric: Dió sánduac. Eztió guelditubardéla gucia, bai precisso duéngúra. Laudátzea Predicária dá vanid(**ad**)e sóbra, tachátzea da cari(**ad**)e falta. Obé Jang(**oico**)ai encomendátu ta gra(**ci**)ac emán, eta guero átra conversácioan ala nola platérño espiritualebát, contátus batec exémplua, béreceac arrácioa, béreceac comparácio, conséju, erreprehénsio, edo gauza adituetaic, prochatzeco elcárr. Alá itendélaic, contú án déla temploguisabát, ta bacócha Predicári, eta érdian Jesus, ezi berac errána dá, (Math. 18) *Non ere dauden vizpiru bilduric ene izénean, an nago ni ayen érdian*. Baña obén obéna dá cuidátzea eguiteas erránac noiz ta nola doácin aguitus escaidac. Orichsedá p(**ro**)prioqui erórcea aci óna lurr ónean, ta emátea fruitu. Orichsedá p(**ro**)prioqui aditzea, eta señale onbát, deláco Jangoicoarén, ciónes Jesus ónac, (Jo. 8) *Jangoicoarén dénac aditzentú Jangoicoaren<sup>4</sup> itzac*.*

Irur adizale-mota gaichsto aipatzentú Evang(**elio**)an, nola alo-rrain irur zátí gaichsto, nón galcendén Jang(**oicoar**)en ázi óna; bát vide bastérta, baitire adizále bidanábarr ajolacábe desaténto daudénac dembóra pássa, orrcompón, cámpoan nolanái arrausias, erdi ló, arát onát beira, ta ála, emén gorpútza, cámpoan gógoa. Aisa infernú-co chóric chsatendióte ta gálcen azi ain achsál guelditudéna. Bercebát dá lur cascállua arrizua, audá gende cascarin, buruchsóla, casquill-uts, inconstánte, pericón iteunténac palo guciétara, ya Jang(**oicoar**)en ya Deabr(**uar**)en & Eztá barnatzen Jang(**oicoar**)en ázia; belárrean earcendá, ez granátzen. Ambát dá ori nola ez aditzea. Iru-g(**arren**)a lurr bétea larres, biótz ocupátua lurréco affanácioes, on-dásun, ta gustoos. Itotzendúte ebéc Jang(**oicoar**)en azi óna, gáltzen azáro esp(**iri**)tuala. Orrá cergátic adituric ere ánitiz predicu, aguitzendén nola ezpalitz aditu. Señaledá ori, eztiréla Jangoicoarén. Cóntra aditzen, obeditzen, ta guardatzenduténac Jang(**oicoar**)en itza, dichóso dire, baitire Jangoicoarén. Norc dió? Jesus onac berac.

<sup>3</sup> *alimturic* eta laburgailua.

<sup>4</sup> *Jang*.<sup>en</sup> dio.

Predicatzenegolaric bein, emastequibátec gendearén ertetic goraturic voza, erránzue, Zori onéco dichosoac beróri iduquizúten entrañac, ta azizúten bulárrac: baice nola errátea, dichósa, berórren Ama. Erresp(**ondatuzu**)e Quinimmo & Luc. 11.) Contra Jacobo Vitri(**iac**)oc<sup>5</sup> predicuric aitunaietzuenbátes ilarian Chr(**ist**)oc tapatucituela bearriac & (Parra p. 3. pl. 8 de baptismo.)

---

<sup>5</sup> *Jacobo Vitri*,<sup>oc</sup> dio: 'Jacobo Vitriacoc' daiteke izan. *Ik.* 102at., 2, 22: *Jacobo de Vitriacoc*. Jakobo de Vitry XIII. mendean bizi zen.

## Sermo in Dominica quinquagesimae

*De memoria Passionis Christi.*

Ecce ascendimus Jerosolymam. Luc. 18.

Egún Jesus onac erratendióte Apostoluéi, orrá bagoáz Jerusaléna, ta cumplitucodire nitas escrituric zeuden gauza guciac, ezi entregátua izanennáiz Gentilen escuétan, burlátua, azotátua, lichstucátua, ta ondórean ilén naute, ta irugarren eguneán viztuconáiz berriró. Ayéc etzúte entendátu deus ebetáic. Eta aguitucé Jericorá urbil joaterácoan, cêgo án videarén saiétsea(n) itsubát ésquean. Aituric onéc gendearen asótza, galdeguiníc cer cén, ta aituric passatzençéla Jesus Nazareno, asicéquio clamátzen, ô Jesus Daviden semea, urricári nitas. Acárr itencióte gendeéc, cególa ichsilic. Arc yágo óiu, Daviden sémea, miseric(ordi)a nitas. Baratucé Jesus, ta ecarra-raciric beregána, galdeincio, cer nauzu indezazúten? Itsuac, Jauna, icusdezátan. Jesus ónac, beirazázu bada: zeure fedeaç valiatudízu. Istántean icusizué arc, ta seguitze(n)zue bedeicátus Jang(oico)ai... Orrá Evang(elio)a cláro ásqui azaletíc: baña goácen icúsis mámia errepassátus itzac batbanáca, salutátus Ama Santissima<sup>1</sup>. Ave M(a-ri)a.

Ea bagoáz Jerusaléna, dió Jesus ónac. Cértara, Jauna? Passatzerá prisioneac, laidoac, azóteac, eriótzea. Badáqui berás passatucoduéna. Eztá detenitzen alaére? Alaére doáie? Alaére doáie. Cergátic? Pagatzeagátic Jang(oicoar)en justiciái gure pârtes: erosteagátic gure salváçioa bere viciarén cóstus. Joanenoteguina gú alá beragátic, eta gueurenagátic ere? Ez násqui. Cergátic ez? Cergátic ezpaitiôgu berai guc, ta ez gueuren buruei ere aimbérce amóre, nola digun bérac. Baña cer fines ematenotedióte berrigói Apostoluéi, ta ayen persónan guri? Errespondadezogungátic, goácen gú ere: ségui ta acompañazágun, ezpáda gorpútzean passátus aimbérce, gógoan berére

<sup>1</sup> SSma eta laburgailua.

errepassátus passatuzuéna gure amóres. Cer milágro dá naidézan Aita ónac, hume gaichstoengátic aimbérce passatuzuénac, naidézan, diót, oroigatzen berére, ta penagaitzen berarén pénes? Beti ere bai, baña beréchsqui garizúma urbil dagoláic, errágun, Goácen Jerusaléna gógoas; Goácen oroítus, errepassátus, ta acompañátus biotzésco affectoéquui gure Jesus onarén amorésco excéssco miragárriac. Langáu dá oblig(**aci**)o, dá arráccio, dá decénte óngui eguina, dá aguitz provéchu gueurendáco. *Eztá gauza-*

### 35

*ric ála sandutzenduenic arima, nola pensátzeac Jesusen pássioan, dió S. Buenav(entura)c Oroitzeac solamente<sup>2</sup> validuéla yago, ezi barítzeac urtebát ógui ta ures, dio Alberto M(agno)c. Emplástro-guisabát becála paratzendéla Jesusen llagetán meditátus devocioréqui, ta guardátus becatuetáic, errevelatucéquio S. Brigidari. (ap. Claus p. 1. Cath. 15) Amóre guti diógu Jesus onari, ezpadúgu iten memória berére passatucituen pénes: eta amóre guti gueuren buruei ére, ezi Jesus dá, nóndic elduzaigun on gucia, berce nióndic ez.*

Eramágun bada biótzean ala nola dolorésco ta amorésco arramilletabát Jesús óna pénas bétea, *fasciculus mirrhæ dilectus meus & Péchoa témplo, biótza aldáre; bil arará Jesus onarén cáteac, sócac, azóteac, aránceac, itzeac, ta berce instrum(en)tu doloréscoac; érdian Jesus ona gurucificaturic; onetán gueuróc frincaturic irur itzees, baitire irur c, compassioneas, contricioneas, caridadeas; egón an errézen incénsua becála gáu ta egún. Bercebatzuetán joán beirátus Jesus ona oñetáic bururáño; oin escuác itzees josiric, belaunac larranciric eroráldies, bulárra idiquiric lánzas, gorpútz gucia urraturic azóteas, búrua lastimaturic aranceés, béguia ilunduric eriótzeco pénes, aurpéqui ederrgúra desfiguraturic gólpes, lichstus, odóles, eta guciá dolorésco erretratobát. Bercebatzuetán gálde, nor dá pobretogau ain maltratátua? Dá gaizquieguille andirenbat? Ez, baicic Jesus óna ta onéguia. Cergátic estadogórtan? Cergátic maite guindúzan becatárioc, eta atrácen pagatzerá gure pártes. Berás gaichstoéc cúlpa, ta onác pága? Alá izánda; eta alá borratudú gure cónta cégon sent(**enci**)a condenacióscoa, ta frincatudú gurútzearin cónta. Cer létra dire llagagáiec? Amorésco létra cláro clároac. Cer dióte? Amatengaituéla gloriaco Principe Jaunac. Cémbat? Eztá neurriric: usmazágun cerbaito señalegoietáic. Errepassátus alá maiz, artu Da-*

<sup>2</sup> *solam.* dio.

viden cithara, ta egón soñatzen ta cantátzen biótz bárnean: Cithara dá dolorea, negárra sónuá, ta conféssioa cántua. Confitebor tibi in cithara &.

*Et ipsi nihil horum intellexerunt*, etzutéla, dió, entendátu errána pássioas ta eriótzeas. Nolas bada? Etzire oráño béte esp(iri)tu Sanduas; orgátic trabájuen léccioa ezin enténda lurrécoec. Alá berce bein aipaturic Jesus onac, nola bearrzuén padecitu ta il, S. Pedroc cariños erra(n)cio, (Math. 16) ez, Jauna, ez alacoric orren Magest(a-de)an. Eta cer ustedúzie erra(n)cióla S. Pedrori Jesus

35at.

onac? Zoaz ene atzétic Satanás; guizónen gústoa dúzu, ez Jang(oico)réna. Orduán guciéi erránzue, *Qui vult venire post me, abneget & Quid prodest homini &* animátus ez solam(en)te pensátzera berarén pássioa, baitaré imitaterá, ta passatzerá norc bere áldian precisso déna. Orgátic Tabórco oiánean icústas Jaunarén glória-mostrabát chsoraturic S. Pedroc erráncio, Jauna, óngui gaude emén & baña dió evang(elio)an Marc. 9. *etzequiéla cer cerdúcan*. Orgátic S. Tiagoren ta S. Juanen Amac escatuciólaic jarrarástea bere bi aldétaic erreinuan bi semegáiec, Jaun div(ino)a c errancióte, *etzaquizie cer escatzendúzien. Potestis bibere &* Math. 20) Orgátic Sándu ta Sánda guciác, izatecó Chr(ist)orén confórme, guciác izancire penitencien, trabájuen, ta gurutzéen amazále. Orgátic S. Thesarén errán comuna cé, *Jauna, edo padecitu, edo il*. Eztú múnduac eracústen doctrinagáu; orgátic dá doctrina Cerúcoa munduarén contrácoa.

Baña certará atratzendá viderá itsugúra emén? Adiarastecó guizaguendearén itsutasúna ta erremédioa: clamabéz arren guisa, dió S. Greg(orio)c ô Jesus, urricári nitas, icusdezáten. Vista labúrr guciéc dúgu; ezin óngui icúsi arimarén ón eta gaitzac; bércé múnduco gauzac ta Jang(oico)arénac gutiágo. Baña solam(en)te itsutásun cembáit eguiásco aipazágun. Bat dá aimbérceco atzendúra nola baita Jesus onarén amoréscó excéssoes, pénes, eta eriótzeas guregátic. Nola nola eztúten icústen & Bercebát ez ezauntzea ta ez naiizátea passátu trabáju ta péna mortificátus passióneac & Nola eztúten icústen & Bercebát, ez ezauntzea, ain aisa iréstea becátu mortalearén venénoa & Bercebát, ez ezauncea nola castigatucoduén Jang(oico)a c becatárian, castigatzenzueláic aimbérce bere seme innoc(ente)an. Piza gurutzearén balánzan & Bercebát, defendátzea berén gaizquiac, emátea curatunaituenarén contra &. Azquénean vicigarenóc gucióc, vidanabarr gaude emén, viáges goáz, eta sárrri aitubeardúgu sent(enci)a edo Cerúco gloriará, edo sú eternorá beticos; nola eztá

yago beldúrr? nola ain alégre ajolacábe? Itsu daude. Ô Jesus, urricá-  
ri gútas. Cer naidúzie indezáten? Jauna, icusdezágun óngui gucía,  
déna dén becála; arguidezágun fede viciaréqui aríma; ezcaitzen lo-  
cártu eriótzean, ta idatzárrí condenácioan: ez ez permiti alacoríc, bai  
salvagaigaiza<sup>3</sup> bere passioagátic, bere llága, odól & & &

---

<sup>3</sup> *salvagaigaiza*: bi aldiz -gai-.

## Explicatio bullae cruciatae pro vivis ad Rusticanos ante Quadragesimam

*Tibi dabo claves regni caelorum. Math. 16.*

(*Jesu Chr(ist)oc galdeguinic Apostoluéi, nor ustezúten céla be-  
ra? S. Pedroc gucién pârtes gucién buru becála errespondatució, Be-  
rôri dá Christo<sup>1</sup> Jangoico<sup>2</sup> viciarén sêmea. Chr(ist)oc orduán S. Pe-  
drori, bada nic erratendizut zuri, zu zaréla Pedro, eta arrigónen  
gãñean fundatucodút nere eliza, eta infernuco atáriez eztúte indarric  
onen deseguiteco diña. Et tibi dabo claves regni caelorum, eta zuri  
emanentizut Ceruétaco erreinuarén guiltzac. Guiltzaguebec claro dá  
eztiréla guiltza materiálac, baicic potestáde esp(iri)tuále ándiac  
emancitiónac uste(n)zuénái bere Vicário, ta Christioen Artzái búru.  
Guiltza edo potest(ad)e bérac passatzendire officioaréqui S. Pedro-  
rén ondoréngo, Erromaco Pontif(ic)e sumo, Papa, ta Aita Sandu  
deitzendirenetára. Andic dátorr Bula guruzadácoa.)*

Cer dá Bula gurutzadácoa? Dá aita Sanduarén concéssio, edo  
emaquidabát, gra(ci)as, indulg(en)cias, ta privilégios bétea, España  
Erreguerén, ta bere erreinuetán vicidirénen favoretán, mantenitzeco  
guerra Infiélen, fedearén contráριοen cóntra. Deitzendá gurutzadá-  
coa, cerén guerragontacó soldadésca deitzencén gurutzáda, baize-  
máte soldadoéc gurutzebát insigniatáco. Utziric orái ematenduénas  
doacinéi soldádo guerragartára, jarducágu(n) solam(en)te ematen-  
duénas laguntzenduténei diruaréqui ártus bula, ta imbearrdénas lo-  
gratzéco. Beñic bein gra(ci)a guébec solam(en)te dire vicidirenendáco  
gure Erreguerén Erreinuetán, nongonái diréla: baña alácoei joanic  
ere Erreinus camporá validióte búlac indulg(en)cien ta absolu-  
cioendáco, ez órdea játeco janári debecátuac. Bigarr(en)a dá preciso  
ártzea bula erreálqui, ta eztá ásqi artzecó inténcoia: (eta nori

<sup>1</sup> *Chro* eta laburgailua.

<sup>2</sup> *Jang.*º dio.

artzendióten berceéc, beardióte adiaráci artudiotéla, ezperén arc ez-dezáque góza conc(**ien**ci)a ónean chsaquingábe.) Irug(**arren**)a guardátzea búla, bere izéna assentaturíc; baña au eztá precisso gucis; eta galbalédi búla, ez leizque gal orgátic bularén gra(**ci**)ac. Precissoéna dá laurg(**arren**)a, baita pagátzea limósna señalátua, ezi ustecábes edo trámpas guelditzembadú bula pagatugábe, deus etzáio válío; baña válío dió, pagatzenbádu bere pártes bercebátec, itendióla limósna edo merchéde. Orái nailuquénac ártu bi búla urteás, lezázque lógra dóble gra(**ci**)ac. Goácen orái icúsis gra(**ci**)a bularénac: leníc ercadán: memoriain

36at.

amóres principalénac: 1.<sup>a</sup> Indulg(**en**)ciabát plenária urtecó, ta bercebát eriótzeco orducó. 2.<sup>a</sup> Erromaco estácioen indulg(**en**)ciac, nonnáí eguines estácioac. 3.<sup>a</sup> Amaborz úrte, ta amaborz berroguieíco indulg(**enci**)a barubát borondátes itendén egun gucietán oracioaréqui Elizare(**n**) onagátic. 4.<sup>a</sup> Licéncia, játeco jánarí etzeizquénac bularicgábe. 5.<sup>a</sup> Facultáde, absolvitzecó becátu erreservatuetáic. 6.<sup>a</sup> Facult(**ad**)e aldatzecó béllac eta proméssac. 7.<sup>a</sup> Facult(**ad**)e, irabaztecó berce indulg(**enci**)a edocein bularéqui, ta origábe bateréz. Badire bércce cem-báit; baña ebéc, chsaquitéco guciéc.

Explicátus orái: 1.<sup>a</sup> Indulg(**en**)cia plenária edo óssoa irabaztecó bein urteás, berce bein ilceco peligroan bulabatengátic. Eta beardió applicátu confessóreac urteás, noiz naiduén búla artuduénac; eta alá naiduelaic, dezóque errán, applicabezáda bularén indulg(**enci**)a: ori bein urteás; Órtas lándara iltzeco peligroan berriz. Orái eztá orgátic descuidatu beárr errecibitzeco sacram(**en**)tuac bearrórduan: baña aguibalédi confessoreic ta confessoricgábe iltzea, nola duén contricióscó dolóre, logratucodú indulg(**en**)cia béra, ezpádu floxézas útzi conféssioa bularén confíanzan. Naidut orái emén explicátu cer dén indulg(**en**)cia. Eztá indulg(**en**)cia barcatzecó becátuac eta culpac, ez, baicic barcatzecó pena zorrdirénac ayen cásos. Ortáco beárda chsaquín, becatuetán diréla bi gaitz; bát deitzend(**en**)a cúlpa, baita Jang(**oico**)ai itenzáion aggrávioa edo offénsa: Au barcatzendá solam(**en**)te confessioco sacram(**en**)tuaréqui, edo contricióscó dólores confessátzeco intencioaréqui. Becatuarén bércce gaitza dá péna, edo satisfáccio pagatubeardeña Jang(**oicoar**)en justiciái, naiz barcaturíc cúlpa. Orái bada confessorén edo contricioarén medios barcaturíc ere becátuen culpac, guelditzendá gueién común yágo edo gutiágo péna pagatzecó emén edo purgatórioan: baldín ezpálitz bein edo bein, delaric contricióscó dolórea ain fiña, érrua, ta ándia, ezi arren



atencios barcadézon Jang(**oicoa**)c culpa ta péna gucía, nola aguitu-  
baize S. M(**ari**)a Magdalénan, ta aguibaileique arren guisaco doló-  
rea luquenabaitan; ezi orduán biótzeco péna andígúra cóntu ónean  
arcendió Jang(**oicoa**)c satisfacciotáco; ta ezlúque yá zórr penaric pa-  
gatzéco; baña ezleique descuida, ta ezlúque nióren erranbearric  
eguitéco penit(**enci**)a alácoac.

### 37

Gañarácoei guelditzenzaizquióte zorr pénac pagatzecó. Pagatzendire  
penitências, orácios, limósnes, óbra ónes, baitaré trabáju sufritzear-  
rén paciências Jesus onarén merejim(**en**)tuéqui báteo, principalquiró  
confessóreac manaturicáco penitências, baitúte yago válío sacra-  
m(**en**)tuarén cásos. Baña becátu graveés ánitiz péna zórr, léveac egui-  
ten nolanái, ustecábean ére, eta guciétas zórr péna; gueuréc ez eguiten  
ásco penit(**enci**)a, confessoreéc ere ez manátzen penit(**enci**)a ándiac  
oraico dembóran, beldurrdaique zorr andichscoetán garéla Jang(**oi-**  
**coar**)en cóntuan. Ortáco bada dire indulg(**en**)ciac, pagatzecó gutiá-  
gos yágo, dispensátzen, ta suplitzenduéla Aita Sánduac Elizaco  
tesorotíc: Tesorogáu componcendá Chr(**ist**)orén, M(**ari**)a Santíssi-  
marén<sup>3</sup>, ta Sánduen satisf(**acci**)o emanzustenetaic abásto. Berroguéi  
eguntáco, urtebát, zázpi, amaborz urtetáco Indulg(**enci**)a dá dispen-  
sátzea bérce aimbérce dembóras imbeárcen penit(**enci**)a Elizarén  
léngo usoarén cófórme. Plenária edo óssoa da gucía dispensátzea  
bérce obragónen cumplitzearéqui. Aita Sánduac tuén becala S. Pe-  
droren guiltzac, dezáque dispénsa gucían; Obispoec solam(**ent**)e be-  
re(**n**) neurria(**n**). Cláro dá irabaztecós indulg(**en**)cia, beardéla egón  
gra(**ci**)an arima; eta becátu mortálean dagónac ezdezáquela irabáci  
beretáco bentzáit indulg(**en**)ciaric, cerén ezi indulg(**en**)cia delaic pe-  
narén barcam(**en**)dua, barcatugábe culpa, eztaique bárca péna.  
Baña purgatorioico ariméi valiozaiotéla indulg(**enci**)a applicatzen-  
dioténa becatáriac búla duénac, ta án manátua itenduénac, dióte  
cembait Autoreéc, (ap. Concinae Comprend. in fin. Sanchez Lapa-  
rra, unde &) naiz beretáco ezin dezáquen irabáci dagónac estádo  
gaichstoan, ala dágon bitárteo: eta arrácio emateunte, cerén arima-  
gáiec dauden disposicio ónean, eta indulg(**en**)cia, nornáiec applica-  
turic, baitoáie Elizarén no(**m**)brean. Ónen cófórme beti ere dá  
seguroágo applicátzea arimagaiendáco indulg(**en**)cia, baitaquígu  
ciérto ayéc daudéla gra(**ci**)an; eta gú gauden, eztaquígu ciérto: Bérce

<sup>3</sup> *SSmarén* eta laburgailua.

álde applicaturic ayendáco, naiz indulg(en)ciagártas gabetzen gáren, baña orrén pártas irabaztendúgu caridadegárren óna ta merejim(en)-tua. Norc beretáco indulgencia irabaztecós, beárdú egón gra(ci)an, eta ezpadágo, procuráto parátzea edo confessátus lenic, edo contriciósco dolóres confessácco intencioréqui. Eta beti ere indulg(en)ciac irabázteco dilig(en)cien alcinean convenidá eguitea contriciósco actoa, Jesu Chr(ist)o ene Jauna & Goácen orái seguitus explicac(io)an.

37at.

2.<sup>a</sup> Bigárren gra(ci)a bularéna Erromaco estacio-egunetan emá-tea ángo estácioen indulg(en)ciac bérac nonnái borz aldáre visitaztentutenéi orácio eguines Jang(oico)ai Elizaren onagátic, fedearén aum(en)tu, ta Chr(isti)oen unióne ta victoriagátic Infiélen cóntra: itzbátes, Aita Sanduarén intenciorá. Estácio, diónes itzac, dá barátzea edo detenitzea: Deitzendá alá, cerén doaciláic visitátzera Elizac Roman, barátzen edo detenitzendiren orácio eguiten Elizagártan, non baita Indulg(en)cia: Oroát diót aldareés, detenitzea orácio eguiten aldáre bacóchean, ori deitzendá estácio, edo aldareén visita, oroát baita. Ortáco batetic bercerá aldátzean beárda eguin mostraiduribat, visitatze(n)duela aldaregúra, déla itzúlis arát gorpútza, edo búrua, edo déla santiguátus asteráccoan beréchs. Cértaco imbearden orácio, badió: baña cer orácio-guisa ta cémbat, eztió. Alá cumplidaique detenus bacóchean orácio mentálas ere, edo gógos solam(ent)e, naiz ez erréza; baitaré errezátus bacóchean. Cémbat ezpádio ere, baña irabaztendéna delaric ánitz, eztá arrácio izátea deus gúti orácioa. Gure aicinecoetáic guelditudá usánzas errezázea bacóchean borz aitagurea ta ave Maria, eta convenidá alá eguitea itentuélaic bacárric estácioac bátec: berceéqui báteo, edo ori berói, edo bentzáit irur Aita gurea ave Maria ta glória. Vidanábarr advéti emén, valiosoágo déla orácioa guciéc bátean, ezi bacárric bacóchac, enténda, barimbáda bardín devócioa, ezi devócioa dá nola oracioarén arima, eta orácioa devocioricgábe co(n)tú déla gorpútza esp(iri)-tuicgábe, ardooricgábe pichéra, mamiricgábe casquilla, ta chincharén soñu útsa. (Cértaco imbearden orácio erra(n)dut. Beárr bearré ásqi dá eramátea gógoan intencioái, baña naiduénac itzes ofrecim(en)tua, oná nola indezáquen principioan. *Aitaren † ta & Naitut eguin estacioguébec, escátus gure Jaunái, emandezóten<sup>4</sup> Principe fiel gucierí unióne ta victória Infiélen cóntra, Eliza Ama Sandarén exaltá-*

<sup>4</sup> emandezóte eta marratxo bat bukaerako -e gainetik.

*cioa, fedearén aumentua*<sup>5</sup>, *heregien acabánza, ta necessidade*<sup>6</sup> *gucièn erremédioa. Applicatzendút indulgencia*<sup>7</sup> *neure becátuen satisfacció-táco, edo urliarén arimaíndáco, beárrean barimbadágo, edo & Bulac dión egúnean atratzendéla arima, estácio-aldibatéqui daiquéla dióte irabáci indulg(enci)a berétaco ta arimaíndáco: gañaracoetán solam(ent)e arimaíndáco, edo solam(ent)te beretáco; baña bi estácio-aldis dezaquéla ayén ta beretáco. (id. ubi supra))*

### 38

3.<sup>a</sup> Irug(arre)n gra(ci)a dá 15 urte, ta 15 berroguéi eguntáco indulg(enci)a egúngaietán guciétán, ceñetán bere borondátes barútu indézan orácio Jang(oico)ai Elizare(n) onagátic; edo ezipadaique barútu, eguines óbra onbát Apezaitarén, edo confessorearén conséjus barruarén pártes. Eztá entendátzen baru-egun direnetán obligácios, baicic gañaráco naituenetán devócios. Ó cémbat leiquen irabáci urteain burucó, bálitz devócio? Escaidagói baleucáte Purgatoriocóec &

4.<sup>a</sup> Laurg(arre)n gra(ci)a dá facult(ad)e ematenduéna, játeco arrautze, ta esnegue(n)de bárú egunetán ta garizúma gucian bere borond(at)es, eta araguiguénde Medicuarén ta Confessor(ear)en conséjus. Eztá entendátzen, cláro deláic necesidáde, baicic duda deláic, orduán consúlta bigóiec: baña eztú orgátic dispensátzen ez barucecó daiquená, naiz déla araguiguénde.

5.<sup>a</sup> Borzg(arren)a facult(ad)e autatzecó naiduen confessóre aprobátua, ceñec bularén virtútes dezáquen absolvitu beingoas becátu ta censúra erreservatuetáic Aita Sanduarenganáco, eta naiduen aldióro erreservatuetáic Obispoarenganáco. Solam(en)te dá beréchs heregia claroarén becátua. Ortáco beárda chsaquín, sacerd(ot)e goragócoec, nola Aita Sánduac, Arzobispoec, Obispoec erreservatzen-tutéla berenganáco cembait becátu, ceñetáic absolvitzecó facultaderic eztióten utzinái berén menéco sacerdoteéi. Obispadogóntan dire 31 becátu erreservátu, eta ásqui maiz aguidaizquénac: eta yágo déna, náiz echáquin bátec dágon erreservaturic dagóna, itenbáda daquieláic arren graved(ade)a edo gaichstoa, beti guelditzendá erreserv(atur)ic. Orái bada bularic ezipáitz, cémbat áldis aurquileizque loturic becála éscuac confessóre comúnac, ezin deus eguín, baicic bíáli Obispoagána, libratzecós becátuen laquioetáic? Cer descánsua

<sup>5</sup> *aumtua* eta *laburgailua*.

<sup>6</sup> *necessida*.<sup>s</sup> *dio*.

<sup>7</sup> *indulgencia* eta *laburgailua*.

penitenteí ta confessoreí ematendióten bulac aldegotaic?. Ezaun-  
cecó, pénsa nola levilzque(n), ezpálitz.

6.<sup>a</sup> Seig(arren)a, facult(ade)a aldatzeco edocéin confessóre ap-  
probátuc, oroát confessiotic cámpoan, edocéin voto edo promésa  
penitenteac duéna, irures lándara, baitire Castid(ad)e, Erreligióne,  
ta Jerusaléngo peregrin(acioar)en vótoac; ebéc ez, bai gañaráco edo-  
cein dezóque confessóreac aldátu berce gauzarenbátean, ta gurutzá-  
dáco limosnatán.

7.<sup>a</sup> Zazp(igarren)a, facult(ad)e irabaztecó bula duénac edocéin  
motivos nonnáí diren indulg(en)ciac; eta bularicgábe niórc ezdezá-  
que irabáci indulg(en)ciaric bátere. Gañaráco dióna búlan icusbéz  
naiduénac edo consúlta. Bei-

38at.

ra cémbat ón ta ondásun paratzendigun escunará búlac, ta guti cos-  
taríe! Ez solam(en)te arimarén, baita gorputzarén ére! bularic ezpá-  
litz, beárco passátu arrautzeic ta esneguendeicgábe, garizúman  
bentzáit. Beárco emán ásko pausu, necátu, alquétu, ta ibili afanatur-  
ric billátzeco absoluciónea, dispensa & Eta non dire penit(enci)a  
yago imbearcocirénac? Eta purgatório lúcea?

Orái errespuésta emogúten paratzeuntenéi errepáro, dirus lográ-  
tzean gra(ci)aguébec. On-colóres doáie vestituric erreparotioágau,  
baña párté dá Chr(ist)io ignoránte, edo biotz chsimúrr bolsa erchié-  
na, lurréco miserabát naiagobaitúte ezi arimarén óna, zaiaren bilzá-  
le ta irinarén barrazále: Parte dá heregeéna, dirutrúc ematendiréla  
gra(ci)a esp(iri)tuálac. Oná errespuésta: eztuéla Aita Sánduac ma-  
ravidibáten prochuríc, ezi gure Jaunac gra(ci)as emandióna berái,  
gra(ci)as emate(n)dú bérac. Ain guti dúte prochuric Obispoec,  
Sacerd(ote)ec & baicic Erréguec; Erréguec ere ez beretáco, baicic  
mantenitzeco guérta fedearén co(n)trarioe(n) cónta, ta Chr(ist)io-  
guendearén favoretán; ezi guciéi dagoquígu aien sujetátzea, ezperén  
urralezáquete Christiand(ade)a. Chr(ist)io guciéc berás dá arráco  
lagúntzea norc bere guisa guerragartáco. Eta nola guérta ezpaitai-  
que eguin genderic eta diruricgábe, ya quetá ez goácen gucióc que-  
rrará, eta doacinen cóstus duguláic conveniéncia, egotecó gueuren  
echeétan gueldi gueldía, dá arráco ta oblig(aci)io lagundezogúten  
emánes cerbáit diru berére. Emategáu cé gueuren prochután, naiz  
ez orgátic izán indulg(en)cia ta aláco ondasunic: Orái guerragórtaic  
datorquígun próchuas lándara, dúgu gañétic aimbérce gra(ci)a es-  
p(iri)tuále: cer milagro dá cerbáit escotátzea? Fina dá infielen sujetá-  
tzea, fede Chr(ist)ioarén mantenitzea ta aum(en)tátzea: Gaichstoen

murmuráioas eztaique admira, delaric ayén cóntro. Baña garénoc Chr(ist)io Cathol(ic)o Jang(oicoar)en gra(ci)as Chr(ist)orén saldo ta familia, unigaitzen Chr(ist)oréqui ta elcarréqui, lagu(n)dus elcárr fedearén favóre contrário gucién cóntro; estimazágun ta valiagaitzen Aita Sanduarén liberaltasúnas mantenicecó ta aumentatzecó fedea ta gra(ci)a, ceñéqui Jesu Chr(ist)o gure Jaunaren aténcios izangaitzen admitituac bere glorian. amen.

## Sermo in Dominica Prima Quadragesimae

*De Tentationibus.*

Ductus est Jesus in desertum â spiritu, ut tentaretur & Math. 4.

Egün garizúma sanduarén lembic(**ic**)o igándeán eracustendígu Jesus ónac itzes ta exémpus, nola beargáren armátu, nola peleátu etsáien cóntro, passátzeco viciarén bidegáu óngui, ellegatuárteo gloriará. Aizágun Evang(**elio**)a: *Ductus est Jesus & Quidatuzué Jesus spirituac* deserturá, izáteco tentátua Deabruagánic. Eta baruturic berroguéi egúnes eta gáues, guéro izánzue góse. Eta ellegaturic tentazáleac erráncio, Jang(**oicoar**)en seme barimbazára, manazázu arri-guébec itzulidaitzela ógui. Errespond(**atuci**)ó Jesus ónac, Escrituric dago, eztéla óguis solam(**en**)te vici guizóna, baicic Jang(**oicoar**)en itzas. Orduán eramánzue Deábruac, ta paratuzé temploarén caldúrr edo cáscóan, ta erra(**n**)cio, Jang(**oicoar**)en Seme bazará, botazaitte eméndic berá, ezi Ainguiruec artucozaitutéla escuetán, dágo escrituric. Errespon(**atuci**)ó baitaére dago escrit(**ur**)an, Etzázula ténta zeure Jang(**oic**)o Jauna. Azquénean eramanic oyán gorabatéra, ta andic mostraturic münduco grandéza, erráncio, au guciáu emanendizút, baldín adoratzenbanauzu auspésca. Orduán Jaun div(**ino**)ac, Goáie ordic Satanás, ezi escrit(**ur**)an dágo, Jang(**oic**)o Jauna sollic adorazázu ta zerbitzátu. Orduán útzi Deábruac, eta Ainguiruec *Zervitzatzencióte*. Orrá Evang(**elio**)a Óntan dacuságu, Jesus bérac nóla sufritu ta garaitucituen Deabruarén tentácioac: Dúgu desengáñu, ezcaréla passatucó gú gloriará sufritugábe tentacioric: Dúgu doctrina ta exémpu, nola beartúgun garaitu. Icastecó óngui billazágun gra(**ci**)a, estimátus gure Ama Santissima<sup>1</sup> M(**ari**)a. Ave M(**ari**)a.

*Milicia déla guizonarén vicitza mundugóntan, dió Job sánduac, (c.7.) Milicia, dió, nola soldadésca, guérta, edo peleabát contíno.*

<sup>1</sup> *SSma* eta laburgailua.

Bercebatzuéc leitzeunte dióla, tentaciobát déla vicigáu, edo viagegáu betéa pelíros, láquios, galvides. Viagegáu itendú arima póbreac gorputzarén astócoan. Noratá? Cerurát. Baña eztúte utzinái báquean contráioec: Viderá atraric dabilta inguráca, nóndic tropéza ta eroriaráci inférnuan. Yá berás precisso dá beti segúitza porfian eta peléan errenditugábe, ongui atratzecós. Atrátzeas óngui edo gaizqui cémbat doáie? Doáie beticós óngui edo gaizqui izátea bát: edo beti Errégue, edo beti érre: edo án goiti

39at.

izárren gáñean glórias beteric Ainguiruéqui gozátzen egótea, edo beiti lurrain bárnean Deabruéqui errabiátzen egótea inguráturic pénas. Eta aiságo deláic jaustea berá, ortáco ásqui delaic ústea nolanái; norc eztaçúsa beárden ajóla, trabájua, ta dilig(en)cia, izatecós sálvo?.

Contráioa nor dúgu? Satanás deitzendéna, au dá Espiritu gaichstogúra Cerútic eroricéna, lén Ainguiru edérr, orái Deábru itsúsi déna, officios duéna tentátzea guizónac Jang(oicoar)en offensa-tára, gáldu albadezázque, nola galdudén béra. Cer próchu dú ortáic? Prochuríc eztú, baña cumplitunái bere errábia guizonarén cónta, cerén Jangoicoac maiteduén, ta eramanaiduén cerúco tronogaietára, nóndic botacituen bera, ta bere lagúnac. Gueróstic onát beti dágo gutáic bacóchai erráten becála Chr(ist)ori erra(n)cióna, *bota-zaitte eméndic bera*. Baña consolubát dúgu, baitezoquégu errespónða, eztiát náí: goáie i, baitáquic videá. Bércé consolubát dúgu, ezpai-gaizque eroriaráci séculan naieztugúla bórcha, ezi eztá becaturic naigábe. Bércé consolubát, ezpaitezáque gaichstoac eguin naiduen gucíá, baitauca Jang(oicoa)c loturic tzacúrta becála: Indezáque aunca, ta órtzac ere irríca, baña ez ózca ematenetzaionái. Nola itendú bada aimbérce dáñu? Cerén guizónec beréc naidúten berén vicios eta cúlpa. Bércé consolubát ere dúgu S. Pabloc dióna, (1 cor. 10) *eztuéla Jangoicoac<sup>2</sup> permititúco izangaitzen tentátuac soportadeza-quégun baño yágo, baicic permititzenbádu tentácioa, emanendígúla prést bere assisténcia, favórea, ta gracia<sup>3</sup>, ezcaitzen gáldu*.

Eta cer dá tentácioa? edo tentátzea? Dá bi guisatará. *Jangoicoac<sup>4</sup> eztú niór tentátzen*; dio S. Tiagoc: (c. 1) *baicic bacócha dá tentátua bere passiónes*. Baña bérriz dió Escr(itur)a Sagr(atu)an, (Deuter. 13)

<sup>2</sup> *Jang*.<sup>c</sup> dio.

<sup>3</sup> *graa* eta laburgailua.

<sup>4</sup> *Jang*.<sup>ac</sup> dio.

*Tentatzenzaiste zeuren Jangoico*<sup>5</sup> *Jaunac, aguerceó yá onestenduzién bera sinés. Baitaré tentatuzuéla Abrahám. (Genes. 22) Nola datéque ez, eta baigói? guisagóntan: Eztú tentátze(n) eroriarastecó becátuan, ori ez: baña tentatzendú probatzeó ta errefinatzeó arima: ori bai. Norc tentatzenduén eroriarastecó, dá Deábrua, naiz déla Jang(oicoar)en permissios; Deábruac gure gaitzeráco, Jang(oicoa)c gure oneráco; Deábruac gure galdunáies, Jang(oicoa)c gure ondunáies: ala nola ziráñac chupatzendú odóla bere assenáies, baña Medicuac ustendú, atranáies odól gaichstoa, ta senda-*

#### 40

tunáies. Alá Jang(oic)o ónac Deabruarén gaizquitic naidu lográtu gure óna. Berás tentácioa p(ro)prioqui dá incitácio, ta bulcatzebát becála gaizquirá.

Nainúque nic emén orái icusiaráci arimarén béguis peleaguisa duténa bi espirituec, Jang(oicoar)en esp(iri)tuac, ta Deabruarén esp(iri)tuac, tirátus norc bere álde gure arima, baita alabér espiritu. Ayéc bi aldetáic: au erdián. Beretáco naidu Jang(oicoa)c, arrácio dén becála: Deábruac ere naidu beretáco, arrácio guciarén cónta. Bietáic céñi emanenzáren, zure éscuan dágo, arima. Jang(oicoa)c tira beregána; Deábruac bere gána tira: Onéc ezdezáque bórcha, ori nailúque madaricátuac: Jang(oicoa)c indezóque bórcha, naibádu, baña eztunái, baicic emandáquion arima bera bere borond(at)es, oblig(aci)o duén becála. Jang(oico)ac ofrecicendió glória immenso-bát án, trabáju pichscabát emén, eta bitárteo bere éscua, bere amórea, gra(ci)a, consolácio, ta ásko ondásun. Deábruac ichsil guerócoa atzenarasterá; bitárteo emén anitz gústo, vici goápoa, ondásun, ta gauza: guciá guezúrres. Nori emanenotedá persóna? Ala nola Pilatoséc pássio egúnean proponitucióten Judioéi, Bietáic cein nauzie? Jesus edo Barrabás? Ah! nola orduán becála orái ére iténden auta gaichstoa!

Jang(oico)ac bereganatzeó ematentú inspirácioac arimái, ezau-m(en)tua arguitus, moguitus borond(ate)a. Deábruac ére paratzentú gogorácio gaichstoac, engañatzeó, ilündus entendam(en)tua, macúrrtus borond(ate)a. Errepára cembáit bacóchetán: Jang(oico)ac paratzendió gógoan bere gra(ci)arén estimácio andibát, ta eméngo vanidadéen vanid(ade)a, misérien miséria, eta ebetáic desaficionátzen, beregána afficionatzendú & Deábruac paratzendió Jang(oico-

<sup>5</sup> *Jang.*º dio.



**ar**)en ta bere gauzen atze(**n**)durá, ta desafficióne; ta pintatzentió eméngoac gauza andíac & Jang(**oico**)ac becurá ez ustecó, ematendió beldurrítasun ta álque inbáño lén, ta inasgueros inquietúra ta amarrgúra ustuárteo conféssioas: Deábruac arróztzen ta lazatzendú quéndus álque ta beldúrta itéco gaizqui; guero itzulcendú ez confesatzecó & Jang(**oicoa**)c inclinatzendú eguitera limósna, ta óngui al gucia proximoei, baita contráriei ere, gústo eguinnáies bere Magest(**ade**)ai: Deábruac gogorcendió biótza, erchitzen éscua, ta chártrzen persóna, ez onquiric<sup>6</sup> eguítécó, baicic mendécu & Jang(**oicoa**)c castigarastendú gorpútza, utziarásten gústoac & Deábruac sú ematendió luxúrian, ta gúlan: Jang(**oicoa**)c incitatzendú beti joátera bere génio, ta passioneén cóntra: Deábruac eguitera beti passioneén cónforme: eta alá gañaracoetán. Ceñi obeditúco-otedió?...

40at.

Jang(**oico**)ac bereganacecó arima, baitu bere Ministroac, Ainguiru goardiac(**oa**)c, Predicáriac, confessóreac, on guciac. Deábruac ere baitu bere lagúnac, *aráguia*, ta *múndua*; *au dá munducocói*<sup>7</sup> váno galgárriac, *ura dire* gueure(**n**) vicioac ta condicio gaichstoac. Jang(**oicoa**)c paratutú bere oneráco céboac, Esrit(**ur**)a sagrátuac, sacram(**en**)tuac, doctrinac, Elizáco funcióneac & Deábruac ere paratutú gaitzeráco bere céboac, divérsioac, janedanáldiac, ocásio peligróscoac, doctrina fálsuac, módac, dántzac, ta aláco milla. Jang(**oicoa**)c tiratzengaitu informátus eguietafedees: Deábruac engañátus gaitz eguiáscoes ta on idúries. Azquénean dió, eztéla possible contátzea medio tuén guciac Jang(**oicoa**)c, bere criatúren salvacéco: baña impossible ere dá erdechstea Deábruac tuén módu, máña, ta maráñac, gure galtzecó nóndic edo ándic. Bát dú aguitz usatzenduéna, baita valiátzea gueuren inclinációes, nola ármes, galcecó gú: eiciariarén guisará, arrapátzeco chóriac paratzenbaitu cebogúra, ceintará dáquien diréla afficionátuac: Alá Deábruac bacócha tentazendú, cértara sentiduén inclinátua déla: eta costúmbres barimbáda lissiatua, oh cein néque dén erresistitzea! En fin nola vician anitz aldárre, ta gorabéra baita, aguidaique ain érru fuertéscó erchidúran aurquitzzea bát, ezi eztaiquen libra, ezpáda sufritus torm(**en**)tuac, ta eriótzea. Aláco tentációan aurquituric probátu ta atracire triumfa(**n**)te Martir gloriósoac, passátus úras ta súas, eta tribuláció lotsagárrias.

<sup>6</sup> Hola dio *onquiric*, ez *onquiric*.

<sup>7</sup> *munducocói* dio, bi aldiz *-co-*.

Eta naiz déla alacoetan, beti dá éguia consentitzenduena errenditzendéla bére cúlpa ta bere borond(at)es, cerén ezi láncean beáruze naiizán sufritu torm(en)tuac ta eriótzea lenágo ezi consentitu gaizquian. Naiz gauza érrua dén, possible dá, ta beárda arimarén perdicioarén ázpian. Aláco lanceetaic escatubeardiógu Jang(oico)ai libragaitzan, edo eguines eztaquigun elléga, edo emánes indárr garaitzecó, ellegaturic ére.

Gañarácoes emágun doctrina ta erremédio. Bégo icasiric beticos, ezi ala nola eztén becuric, naiezpadúgu consentitu, naiz múnduac ta inférnuac milla tentácio ta sú emaníc barnetic eta campotic; alá izatecó becátu, asquidá consentitza biótz bárnean, edo naiizátea, naiz ez passaturic yagotará; eta naiz urriquituric bérla, eguince becátua. Eztá dañuric sentitzaes, bai consenticeas.

## 41

Consentitzegáu edo consentim(en)tugáu noiz aguitzendén adiarásten dá lána, ezi batzuec lazoéguis, bercebatzuec erchiéguis utsiteunte bi aldetára: batzuec ustedúte eztéla consentim(en)turic, ezpaute determinátzen eguitea gaizquia; eta engañatzendire, ezi eztá beárr aimbérce, izatecó conse(n)tim(en)tu. Bercebatzuec bérriz ustedúte, sentituordúco gogorácio edo desordenácio gaichstoa, indéla becátu, nai ezpaute ére; ta engañacendire, ezi yago beárda, audá naiizátea borondátes. Borondátean dago guciá, nái edo ez nái izátean. Ezpadá nái niolatére, eztá becuric edo consentim(en)turic: baña naibáda nolapáit, ori asquidá izatecó consentim(en)tu, ta becátu. Irur módus aguidaique consentim(en)tua biótzes: *lambicicoa*<sup>8</sup>, deseatzendélaic gaizqui gogorátua. Ori claro dá: *Bigarrena*<sup>9</sup>, deseatzugábe egotendélaic gozátzen, edo gústo ártzen berebaitan: Ori ere cláro ásqui dá. *Irugarrena*<sup>10</sup> naiz ez desseátu ta ez gozátu, baldín sentituric berebaitan sú ta desordenácio gaichstoa, ustenbádu ingábe erresistenciaic bátere, Dá consentim(en)tu-adiña. Baña especialqui luxúria ta irarén tentaciotán, ásko áldis eztaquite bérec ére, lécu emandiotén edo eztiotén, indutén ásqui erresistencia edo estutén: ta alá guelditzendá dúdan.

Goácen orái emánes erremédio, ta módua garaitzecó tentácioac eldudirélaic. Cer imbeardá, eldudeláic gogorácio gaichstoa? Chr(is-

<sup>8</sup> *lamb.* dio.

<sup>9</sup> *Bigarr.* dio.

<sup>10</sup> *Irug.* dio, eta ez du azpimarratzen.

t) o gure Jaunac eracútsi becála egún. *Despeitu istánte*, *aborrecitu*, *ez nái izán*, *ez admititu*. Edo ción guisan fr Junipero Venerableac, gogorácio gaichstoa delaric ala nola deitzea enemigoac arimarén atárietán, *érchi istánte* *atári guciac*, *afuéra afuéra*, *eztá emén lecuric*, *bádu bere jábea* & Naidu errán, atzéndu istánteac gogorátua, frincátus gógoa bércé gauzabátean, déla Inférnuan, déla Céruan, déla Jesus gurucificátuan: Edo ción guisan Maestru Juan de Avila Venerab(lea)c, naibauzu, *señalátu copéta edo biótza gurutzearén señalears*, *ô Jesus*, *errán*, *Eztút nic ain mérque saldunái ene Jangoicoa*<sup>11</sup>. *Jauna*, *yago validóu orréc*, *ta naiagodút ori guciac baño*. *Goardabenáza otoi* & (c. 10 Audi filia) *Tentácioa zuregána*, *ta zú Jangoicoagána*<sup>12</sup>. Alabér itzúli bere guardiaco Ainguiruagána beira dagon becála, *Ó Jangoicoaren*<sup>13</sup> *Ainguiru óna*, *nere guárdian dagóna*, *Bada beraren piedades orrén cargurá nago ní*, *árgui ta quidabenáza*, *guárda ta gobernabenáza*, *orái ta betí*, *amen*. Eta oraciogau eguiteagátic concedituzé anitz Indulg(enci)a Pio VI. Eta M(ari)a Santissima<sup>14</sup> nondá? maite bauzu béra, ta zeure búrua, acudizázu nola humea Amagána. Edocein guisas aborrecitu gaizqui gogorátua sinqui ta serenoqui, turbatugá-

41at.

be: orréc dú válio, ez muéca, eztúl, lichstu botátze, ta alaco simple-queriec: chsaquiníc ezi naiezpadúgu sinés, eztéla becuric: co(n)tra itendéla becátu solam(en)te admititus borond(at)es, naiz in simple-queriagóiec.

Baña láncean atráztzeco victorióso, beárda vicitu prevencioréqui lén ta guéro. Sei prevencio-guisa eracustentígu Jesus ónac egún: 1.<sup>a</sup> deserturá erretiratzegártan, *erretirátzea* ta quéntzea ocásio, cébo, eta galvideetaic, ezi ebetán eraiquitzendire tentácioen áciac, ecárceco fruitu venen(atu)ac. 2.<sup>a</sup> *Orácia* Jang(oico)ai, nóndic datóren ón gucía. 3.<sup>a</sup> Barutzegártan, *mortificácia* edo *penit(enci)a*, enfrenátus génioa, mia, béguiac, bear &. 4.<sup>a</sup> Escriturain alegatzegártan, *fedea* sinestátus viciró eguia fedéscoac eriótzea, juicioa, infernua, gloria, ta gañarácoac. Fede vicia baguindu, ezquindeizque tentácioái errenditu. 5.<sup>a</sup> Errategártan, *Jangoicoa*<sup>15</sup> *sollic adóra*, *ta zervitzatubearde-*

<sup>11</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

<sup>12</sup> *Jang.*<sup>a</sup> *gána* dio.

<sup>13</sup> *Jang.*<sup>o</sup> dio.

<sup>14</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>15</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

la, bere *Magestadearen*<sup>16</sup> amórea ta estimácioa. Bálitz au biótzean, nola admiti cóntro deníc? 6.<sup>a</sup> Ainguiruéc bérai zervitzatzegártan, *Ainguiruen assistencia*<sup>17</sup>; ezi Deábruac dire Ainguiru errebelatucirénac; eta Ainguiru cerúcoac dire fiel firme mantenitucirénac; eta alá beti dire elcárren cóntro Ainguiruac eta Deábruac; eta ebetáic goardatzecó, emancigu Jang(**oicoa**)c Ainguirubána, dúgun Ainguirua favóre, barimbadúgu Deábrua cóntro. Gucién gañetic arma fuerteéna etsái gucién co(n)tra dá Jesu Chr(ist)o, bere vára ta paloaréqui gurú-tzean, ta bere preséncia errealaréqui sacram(en)tuan. (*Virga tua et baculus tuus* & psalm. 22) *Sinésta*, ció S. Anton Ab(**adea**)c, (in breviar.) *Sinésta, lotsatzénda Satanás Christio*<sup>18</sup> *onen vigilies, orácioes, bárues, penitencies, baña gucién gañetic icaratzendú Jesu Christorén*<sup>19</sup> *ganáco amóre ardiénte fiñac, ceñén gurucearén señalea solamente*<sup>20</sup> *icustearéqui doáie indarrusturic igués. Jesus onarén pálo ta otamengói úsa maiz viciarén viagegóntan etsái gucién cóntro, beréhsqui eriótzeco azquén pausu ilún tristegártan, noiz baitióte dabilzala choil érne madaricatugáiec, etzaitela descuida valiátzeas pálo ta otamengártas, cein orgátic deicenda Viatico, vidéco prevén-cio. Onéqui vici, ta onéqui il animóso erratendiogula *etsi ambulavero in medio* & *ibid. Naiz eriotzearén ilumbearén érdian, eztút gaitzen belderric*<sup>21</sup>, *cerén beróri dagon enéqui: Ô Jesus, orréc naiduélaic, sálvo dá Joaquin orrén amóres, orái gra(ci)an, guéro glórian. amen.**

<sup>16</sup> *Magest.*<sup>ca</sup> dio.

<sup>17</sup> *assist.*<sup>ca</sup> dio.

<sup>18</sup> *Chrio* dago, eta laburgailua.

<sup>19</sup> *Chrorén* dago, eta laburgailua.

<sup>20</sup> *solam.*<sup>ca</sup> dio.

<sup>21</sup> *belderric* dio, eta ez *beldurric*.

## Sermo in Dominica Secunda Quadragesimae

*De Sacramento Paenitentiae. Quid, quale &  
Et tansfiguratus est ante eos. Math. 17.*

Egúngo evang(**elio**)an contatzendá, nola Jesus óna bere Discip(**ul**)o escogituen alcinean tansfiguratucén, edo aldatucén idúris, aurpeguia ain edérr árgui nola irúzquia, trésenac ain chúri nola elúrra. Ala eracutsicióte bere Magest(**ad**)e ta gloriarén mostra-iduribát alchaturic ceucána guizontasunarén humildádeas; entendazezáten, guizón baño yago déla, audá, Jang(**oic**)o ta guizón. Eméndic arcendút escaida, explicátzeco gra(**ci**)a alchatzendéna Sacram(**en**)tuetán, beréchsqui penitenciacoán, joatecó prevenitus logratzeco óngui sacram(**en**)tugau, ceintan arima trasformatzenbaita, itzúlís Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)atic gra(**ci**)ará, edértzen itsúsi céna, ciquindua céna garbitze(**n**), éri céna sendátzen, ila vízten: Deabruarén esclava presondéguián cegóna libraturic eguiten Jang(**oicoar**)en alába; infernúco márca borrátzen, Cerúcoa señalátzenbaita: icasdezágun óngui confessátzen, baita chsaquintas(**n**)bát valioduéna infinito. (Lenic<sup>1</sup> aipazágun sacram(**en**)tu gucién izáteas.

Sacram(**en**)tuac dire señale aguéri sagrátu secrétoac, Jesus ónac parátuac, emáteco guri ayen medios bere gra(**ci**)a ta virtúteac. Zázpi dire: gutiágo etzé ásqui, ta gueiágo etzé beárr: Zazpiéqui dúgu beárden guciá, estádo adín ta dembóra gucietáco: Bataiátzea, Confirmátzea, Confessátzea, Comecátzea, Oliátzea, Ordenátzea, Ezcóntzea, edo Matrim(**onio**)a. Bataíoan jaioberritzendá arima ceruráco aldátus becatutic gra(**ci**)ará, marcátus Chr(**ist**)orén árdi becála. Confirmácionan confirmatzen, ta indarrtzendá fédean: Conféssioan edo penitencian, baita oroát, sendatzendá eritásun ta eriózte esp(**iri**)tualetáic: Comunionean alim(**en**)tatzendá surnatural soberandiró arima: Oliátzean seguratzendá viciarén azquéna, quéndus becátuen errétoac,

<sup>1</sup> Hemen hasten den parentesia 42at. orrialdean, 2. paragrafoan, bukatzen da.

emánes indárr, consolácio, ta confiánza, ongui atratzecó eternidade-rát: Ordenan consagratzendire Elizaco Ministroac ta Sacerdoteac: Matrim(**onio**)an gra(**ci**)a ematendá vicitzecó óngui elcarréqui viciquideac, ta acitzecó humeac ceruráco. Nori cer faltazáio yá, bera nor bada? Zazpietán depositatuzué Jaun div(**ino**)ac bere odól preciosoarén virtútea, ceñen casos obratzendúte significatzendúten grá(**ci**)a segurqui, bacóchac bere-guisa, ta gure disposicioarén ariorá: Dire gra(**ci**)aren zázpi canále, edo instrum(**en**)tu becála; nolaco óncia da-

42at.

mázun, alá atracodúzu. Edo quadratzenbazaizu yago arguiarén co(**m**)parácios, dire gra(**ci**)aren zázpi antórcha ichequiric; cer candé-la-guisa damázun, ambát árgui artucodúzu graciaren.

Eta cer dá gra(**ci**)a? Agrádoa Jang(**oicoar**)en beguiétan, edo Jang(**oicoar**)en donobát itenduéna arima quadráble berarí, berarén hume onétsia becála, ta cerúco primu heredéro. Dá Jangoicotasunarén participacio edo suertaquidabát; arimarén vicitza, ta ederrtasúna; merejime(**n**)tuen principio; ta ondasuníc andiéna. Etzigúque Jang(**oicoa**)c emán gra(**ci**)a sacram(**en**)tuen señalegoiecgábe? Emanzúque, dá claro, ta emáten ere dú contricioarén virtútes. Cergatic bada naiizantu parátu señalagóiec? Irur motivo usmatzentút: lembic(**ico**)a ta ciertoéna dá, cergatic alá duén placér gure Jaunac, eta bérac eguina óngui eguinadá: bigarr(**en**)a díonas Chrysostomoc (h. 60 ad pop.) nola baicára guizonóc compónduac gorpútuz eta arimas, ematendigu señále aguerietán aguerieztén gra(**ci**)a: irug(**arren**)a consolátzeco gú, ta confiarásteco, admititugaituéla bere gra(**ci**)an. Berce guisas admitituric naiz bai, cer guindéque señaleicgábe? Orái señalegoiéqui yago confiánza dúgu; seguranzaric ez, cerén eztaquigun gueuren disposicioas segurqui; ezi seguro banitz disposicioas, seguro nitzaque gra(**ci**)as cerén sacram(**en**)tuaréna ain seguro dá nola Jang(**oicoar**)en itza. Goácen yá icúsís penitenciaco sacram(**en**)tua) salútatús lenic M(**ari**)a Santissima<sup>2</sup>. Ave M(**ari**)a.

Zázpi sacram(**en**)tuac elcarrequi comparátus, gora goréna ta andiéna dá aldaréco sacram(**en**)tua, ceintan dágon ez solam(**en**)te Jesu Chr(**ist**)orén virtútea ta grácia, baitaére bere Magest(**adear**)en preséncia erréala; ta orgatic nola irúzquiac daráman avantálla izárrei, daráma arc sacram(**en**)tu guiciéi: Baña precisoénac dire bataioarén

---

<sup>2</sup> *SSma* eta laburgailua.

ta penitenciarén sacram(en)tuac. Batáioa dá lembicicoa, ta gucién atária becála, bein baicic errecibitueztaiquéna: penitenciaco sacram(en)tua dá yagotán bearrdéna vici gucian, *eta batayatuasguéros eroridirenendáco mortálean ain precisso, nola batáioa bera eztaudenendáco bataiaturic.* (Trid. s. 14. c. 2.) Orgátic deitzendá bigárren óla, atrátzeco salvo, galduasguéros lembic(ic)o gra(ci)agúra. Deitze- nere dá bigarren bataioguisabát negarréscoa penáscoa trabajóscoa. Icuságun nola dén, ta cein precisso ta precíoso dén.

### 43

Asigaitzen bere izenetáic. Deitzeunte penitenciaco sacram(en)- tua, cerén penit(enci)a, penátzea, edo pena izatea becátues dén lembic(ic)o bearrdéna ártan. Deitzeunte ere confessioco sacram(en)tua, ceren confessátzea becátuac baita urbilén bearrdéna. Deitzen ere zúte len erreconciliacioarén sacram(en)tua, cerén ontan erreconci- liátzen, edo baquetzenbaita Jang(oico)a arimaréqui, arima Jang(oico)aréqui. Dá bere izátes sacram(en)tubát parátua, barcátzeco becátu eguinac bataioasguéros, penitentearen confessioaren, ta co- fessoraren absolucioaren medios. Paratuzué Jesu Chr(ist)oc erresu- citatuasguéros aparecituric Apostoluéi fú, edo atsematencioteláic errate(n)ciótela, *errecibizázie Espiritu<sup>3</sup> Sandua: Noren becátuac bar- catzentuzién, barcátuac izanendire, ta norénac ez, ez.* Alá emancióte barcátzeco potest(ade)a, cein doáien comunicátus órdena sagratua- ren medios sacerdotéi. Eta emén dá notatzecó gra(ci)agónen gra- (ci)a, señalátzean ortáco ez Ainguiru Cerúcoac, zúquen guisan, baicic guizón lurrécoac: Nola Jang(oico)a ere ezpaize eguin Ainguiru, bai- cic guizón, guizonéi naiizanzue emán bere guiltzac: eta guizón beca- tariéi, eztaitzen detenitu berce becatáriac ellegátzeco Ministroaren errespétos. Cerúeco Ainguiruetáic bána paratubázue confessonário bacóchean, nola guindeizque tréve manifestátzera gueure(n) misériac? Baña oráí bai, cerén sacram(en)tugónen Ministroa baita guizón gú becála, ta becatári, induéna, edo indezaquéna berce guizonbátec adiña becátu. Eta yago déna, naiz dén múnduco becatariric andiéna, potest(ade)a guelditzenzáio, ta aldegórtaic eztú calteric penitenteac, baicic berac, cerén ezi án eztú níorc eguiten bere habilid(ad)e edo virtúte p(ro)prios, baicic JesuChr(ist)oren virtútes ta potestádes. Ongui ta dignoqui eguitecó officiogúra, beártu anitz prénda ta cir- cunst(anci)a, ezpaitagoquida explicácea emén baña sacram(en)tuarén

<sup>3</sup> *Eptu* eta laburgailua.

válio, ta fruituaindáco asqui tú intencio sina ta potest(**ad**)e beartue-nác, ceren ezi eztá beréa, baicic berceréna administrazenduén gra-(**ci**)a. Bi potest(**ad**)e beárrtu, bat ordenarén potest(**ade**)a, bercea jurisdicioarén, edo escupearén potest(**ade**)a, baitire nola bi guiltza espirituale.

Orái bada ongui beiraturic, laur lagún beardire, paratzecó bat gracian barcátus becátuac: bida icustendirénac, berce bida icusten-eztirénac araguisco béguis. Icustendirénac Peniténtea ta Confessó-rea: Icusteneztirenac Jesu Chr(**ist**)o, ta Jang(**oico**)a. Eta laurec im-beaute berén aldétic: Penitente-

43at.

ac eramánes beárden disposicioa; Confessóreac emánes absolucioa; Jesu Chr(**ist**)oc applicátus bere merejim(**en**)tua; eta Jang(**oico**)ac aprobátus sent(**enci**)a. Jang(**oicoar**)én ta JesuChr(**ist**)orén aldétic eztá faltáco, ezpáda falta berce bietáic báten aldétic. Baña faltabalédi Confessorearén aldétic potest(**ade**)a edo intencioa, eztá sacram(**en**)-turic: ain guti, faltabáda penitent(**ear**)en disposicioa, naiz errán Confessóreac, Nic absolvitzenzaitut, Jang(**oicoa**)c dió, nic condena-tze(**n**)zaitut. (Bada Jesu Chr(**ist**)orén merejim(**en**)tus ematendéla ematendén gra(**ci**)a, norc eztáqui? Achsúri div(**ino**)a, ció S. Juan Baut(**ista**)c, au dá achsúri Jang(**oico**)aréna quencentuéna munduco becátuac. Audá Jesus, ció S. Pedro, ezpaita, beraganic ezi, berce niorengánic salvacioric. (act.) Berarén odolarén virtútes án vizten, sendátzen, garbitzen, edertzendire arimac. Orgátic S. Franc(**isc**)o Salesec consejatzendú pensadezágula confesatzerácoan gaudéla be-cala Jesus gurucificatuarén oñetan, eta darióla becála bere llaguetáic gure gañerá bere odól precíosoa tantacá gure garbitzecó. (ap. Parr. pl. 14 paenit)

Orái cein precisso dén icustecó penit(**enciar**)én sacram(**en**)tugáu, lenic desengáña, eztéla ain necóso, nola pintatzendióten subvervoéi gógoac. Beñic bein guechságo costacéquio Jesus onari prestátzea erremedioa nere ta zuendáco, ezi bérac etzué bearric. Cer milágro dá berás, cerbáit costadaquigun becatariéi? Eztá aisa aisa penátzea biótzean contriciósco lancétas, confessátzea norc bere ágos bere mi-sériac, soportátzea edocein erreprehénsio ta penit(**enci**)a emandá-quin: Baña dacárran prochuaindáco aisa ásqui dá. *Neque ta latzca-rá idurileique*, dío Trident(**ino**)c confesioas, (ib. c. 5) *ezpaledi alivia provéchu aimberce, ta ain andièqui, ta consolacioèqui, cein dudaricgá-be ematenbaizaizquiote dignoqui ellegatzendirenéi*. Lográtzea Jan-g(**oicoar**)en gra(**ci**)a, amistánza, ta báquea merejizuénac inférnuá,



2. Penitencia bere principio, zain, ta sustáncian dago biótzean pena izátean edo penátzean offendituas Jang(**oico**)a. Ordic seguitzen ta deitzená penitenc(**iar**)en sacram(**en**)tua Confessiocóá: guéro deicen ere dire penitencia obrásco satisfácoia. Onen explicatzea tocatzenzaigu. Cumplitubañolén penit(**enci**)a, eguinic dago penitenc(**iar**)én sacram(**en**)tua edo Confessiocoa, izánic confessátzean cum-

<sup>1</sup> *gueure* eta marratxo bat bukaereko *-e* grafemaren gainetik.

<sup>2</sup> *Jang.<sup>en</sup>* dio.

<sup>3</sup> *Jang.<sup>en</sup>* dago.

<sup>4</sup> *Jang.<sup>en</sup>* dio.

plitzeco inte(n)cio sin eguiáscoa. Guéro ez cumplitzea litzáque becá-tu bérria; ezlezáque órdea galaráci confessio eguinarén óna, naiz fal-taléquion perfecciogúra. Cértaco bada paratzendire penit(enci)ac? Bérce fines ere bai, baña principálqui ematecó Jang(oicoar)en jus-ticiarí satisfáccio becátu barcatuengátic zórrtuen pénes: becátu venialeengátic berce álde. Dá oblig(aci)o grávea cumplitzeco penit(en-ci)a grave señalátua noiz ta nola manatzenzáion. Baña maiteduénac bere arima ez contént cumplitzeas solam(en)te manátuac, izatenbai-tire guti comunquiró, inentu bere aldétic beartuénac. Ónen gáñean tratacecó, beardúgu gra(ci)a. Goáce(n) onen billa salutátus Angui-ruaréqui M(ari)a Santissima<sup>5</sup>. Ave Maria.

53at.

1. Becátu itéco goápo, penit(enci)a itéco fláco, badá gure Jan-g(oicoar)én échean aláco fráncu. Cer penit(enci)a naidu yago? Penit(enci)a obéna déla biótzean péna izátea, penagorréqui confessátzea, confessaturic cumplitzea manátua: Ori guciói indúgu: Cer yago nai-du? Errespondátus banacá: ain éguiadá biotzéco pena déla peniten-ciaric obéna, ezi origábe deus eztúte válio gañaráco guciéc, ez eta conféssioac ére: Baña ala nola becátu eguitean biótza baita lén, ezi biótzac naieztueláic, eztá becuric; baña arc náiduéláic, laguntzen-dióten gañaráco facultadeéc cúlpan; alá dá arrácio biótz penátua acompañadezáten pénan ta penit(enci)an. Confessátzea da urbiléna; baña orréqui guciaréqui naiz barcaturic cúlpac, eztire barcátzen péna zorrdirén guciac comunquiró; baldin ezpádu contriciobát ain fiñ fuértea, ezi biotzéco amargúrac suplidézan gucia. Alá penaturic biótzean daudénac gutifío bidedire; ta eztúte predicu-bearric, itéco penit(enci)a. Gañarácoec badúgu erranbeárta, ta penit(enci)a im-beárta. *Eguizie penitenciarén<sup>6</sup> fruitu dignoac*, oiuitenzué S. Juan Baut(ist)ac (Math. 3) Biz penit(enci)a biótzean: ori dá zaña: baña zaingórtaic átra fruitu ónac; ez edocéin, baicic dignoac, dagozquió-nac cúlpen ariorá. Cumplitutúgu manátuac conféssioan, dióte. Baña oraico dembóran manatzendiren penit(enci)ac gueién común eztire ásqui emáteco satisf(acci)o óssoa Jang(oicoar)en justiciái. Cón-tu atradaique Christiandad(ear)en aldiric obénean manatzenciren penitencietáic. (Penitenteéc beñic bein egonbearzúte elizaatárian sarrtugá-be funcioneetán; baña nola? Jaintsiríc zacu iduribátes, edo cilicios,

<sup>5</sup> SSma eta laburgailua.

<sup>6</sup> penitenc.<sup>on</sup> dio.

autsa paraturic búruan. Penitenciaco dembóra gucián etzeizque aurqui divérsio, fêsta, convit, ta alacoetán: Etzeizque ibili baicic oñes beti: etzuquéte progátu erregaloric, ez araguiric, ez ardoric ere: eta cembait egúnes barutubearzúte ogui ta ur sólles: eta yago dena, etzióte úzten comecátzera, baicic bázcoan, ta eriotzeco órduan. Eta cêmbat dembóra orí? Batzúc irur úrtes, bercebatzuéc bórzes, eta zázpis. Eta cer becátuen cásos? Joram(en)tu fâlsu, blasfémia, adultério, ta alácoen cásos, ezi aguitz erormeén casos vici gucian egonbearzúte penit(enci)an. (Parra paenit. pl. 24) Beira aien aurcásean oraico penit(enci)ac...)

2. Nola bada confessoreéc eztúzte emáten andiagócoac? Beldurrác penit(enci)a andiágoen ocásios doázin infernurá Chr(ist)ioac, ustentúte chipiéqui doázan purgatoriorá, edo pagadezátén berén borond(at)es. Nolas bada? Cerén manabaleitez andiagocoác, edo ezlezázquete cúmpli, edo ezleizque confêssa; ta ori cé infernurá joátea.

## 54

Jauna, purgatórioan pagadezágula. Pagazále gaichsto, nágui, ajolacabeén cóntua, dezaqueteláic pága aisa ásqui presénteian, útzi útzi guerorát, zórra gaindu, ta dóble pagátu, edo guciá gáltzera botátu. Cer desatinoa? emén daiquéna pága elléscio azoteéqui, erráteco alá, naiizátea pagátu súscio azoteéqui, án! ala nola utzileiquéna eramátera presidio ta calabózo penascobatéra, ez usteagátic cembait erreál tuélaic bólsan. Berás emengo pichscabátec valiobidedú yago ezi ángo puscabátec? Dá ciérto, cerén án eztá deus merejitzen, pagatzendá solam(en)te penatuarén utses; emén dá dembóra merejitzecó, ta gútis ánitz irabaztecó: bérce álde satisfáccio ematendéna bere borond(at)es yago dá estimatzecó, ezi despáchus sarturic carcélean penátus ezin bérceas. Mutil noblebátec artuzué vicimódu érchi penitentebát: adisqueéc erratencióte, beirazézala bere buruái, delicátua cêla & Arc ció, orgátic naiagodút emén pagátu, aiságo delaic, ezi ain erruqui purgatórioan, edo aguián inférnuan. (Parra ib.) Chsaquina dá Mongegarréna, ilasguéros aparecitubaize Abadeái escátzera penit(enci)a Jang(oicoar)en órdes. Zégo yá prestatuic gorpúta orcitzecó. Abadeac bada ustés ematención ceiquen penit(enci)a leveéna erráncio, biz zure penit(enci)a egótea purgat(orio)an orcidezágu(n) árteo zúre gorpúta. Arc lam(en)tu andibatéqui, aitubaize conv(en)tu gucian, erra(n)zue ô penit(enci)a gogórta, penit(enci)a misericordiagabécoa! de man(er)a ezi lastimaturic prisá emanzúte, orcicecó lén báño lén. (ibid) Nondá arimarén vista órdea?



3. Sinestendúgu, Jauna, ándiac bidediréla culpengátic zorrdiren pénac, baña daquiúgu Jesu Christoc pagatuzuéla guciengátic abásto. Ain abásto, ezi milla mündu naiz balíre, guciendáco cé sóbra ta sóbra. Bai, ta cergátic Jaun onéguiac aimbérce passatuduéen guregátic, dá arráccio culpadugúnoc egótea nequepenaicgábe, ta acompañaugábe gure Erredentórea? Bera albaguindezáque libra, cé arráccio clamátzea guc, gúrea dá culpa, eztú Jaunorréc culparic, biz libre penatic: guc guc dugu mereji pena. Baña orái seguizágun atzétic berére penitenc(iar)en videas. Cóntu obea litzáque errátea gueuren buruúi, bada Jang(oicoa)c bere seme onetsiái pagaracicio aimbérce péna bercerengátic, erchicodú becatária bere culpa p(ro)prioengátic, ezpáda valiátzen Jesusen merejim(en)tues. Nola valiaticogára? Eguines gueuren aldétic, ezperén eztá prochuric guretáco. Jesu Chr(ist)orén satisfáccio abásto gueiéguia contú déla bútzu andibát duéna ur naiadiña: ezpauzu órdea atrátzen, contú eztéla zuretáco. Emandigu Jang(oicoa)c escurá butzatórea ta sóca, audá, bere gra(ci)aren auxilioac;

54at.

ebéqui trabája, ta néca gozatzecós. (Aizágun S. Pablo: (Rom. 8) *Espirituac*<sup>7</sup> *berac ematendío testimonio*<sup>8</sup> *gure Espirituái*<sup>9</sup>, *garádelá Jangoicoaren*<sup>10</sup> *húme; húme bagára, heredero ere bai; Jangoicoaren*<sup>11</sup> *heredero, ta Chororén*<sup>12</sup> *herederolagún*: baña, *si tamen compatimur, baña padecitzenbarimbadúgu beraréqui dió. Berriz (Colos. 1.) dió, gozatzenáiz trabajuétan zuengátic, eta nago cumplitzen faltadengúra Chororén*<sup>13</sup> *trabajuetáic neure gorpútzean; adimpleo ea quae desunt & Cer faltadá Chr(ist)orén trabajuetáic? Apóstolu Sándua? Berabaitan deus ez, bai ene gorpútzean: eguitea neurónec nere aldétic. Ala dió berriz, castigo corpus meum & 1 Cor. 9) Castigatzendút nere gorpútza, ta sujetatzendút zervitzurá, eztáien águi berceéi predicátu, ta neuráu gáldu. Cláro dá berás, eguinbearduéla penit(enci)a Chr(ist)io guciac; aldebát, seguitzecó Jesu Chr(ist)io gurucearéqui; bérce álde, santificátzeco yágo arima; bérce álde, libratzecó erorcetic becatuetán; bérce álde, irabaztecó Jang(oicoar)en gra(ci)a ta gloria, baita*

<sup>7</sup> *Espirituac* eta laburgailua.

<sup>8</sup> *testim.* dió.

<sup>9</sup> *Espirituái* dago.

<sup>10</sup> *Jang.* dió.

<sup>11</sup> *Jang.* berriz ere.

<sup>12</sup> *Chrorén* dió.

<sup>13</sup> *Chrorén* berriz ere.

arráccio costadaquigun cerbáit; eta en fin, emáteco Jang(**oico**)ai satisfáccio zorrdiagúna.)

4. Goácen orái, eta cein dire penitenciásco óbra indezazquegúnac satisfacciotán? Ori dá bérce lanbát, ezpaitaquite áscoc cer penit(**enci**)a eguin, eta nola; ez eguitecó, atratzenbaitúte milla achéquia; naiz gucióc gáren gauza, itéco becátuac; delaric ciérto, ezi ala nola passióneac ingeniarastendióten eguitea gaichstaquériac, ala contricio ándiac, bálitz, ingeniaracilezoquetéla cer guisas mortificátu ta eguin penit(**enci**)a. Autadézan bacóchac, señalatucotút sei obra-género penitenciásco, tiótenac bi versoguebétan: *Ora*<sup>14</sup>, *Operare*, *Dato*, *Puni te*, *Ferque ferenda*: *Sacra indulta tibi cura quot possis habenda*. 1.<sup>a</sup> *Oracioac*. 2.<sup>a</sup> *Obra onac*. 3.<sup>a</sup> *Limosnac*. 4.<sup>a</sup> *Penalidadeac*. 5.<sup>a</sup> *Trabájuen sufriméntua*. 6.<sup>a</sup> *Indulgenciac*. Explicátus.

1.<sup>a</sup> *Oráccioac*, enténda ez solam(**en**)te errosáριο, errézu, ta alá-coac, baitaré biotzéco affécto ón guciac, especiálqui amoréscoac ta contricioscoac. Oráccio gucién obéna déla Aita guréa, dió Doctrinac; baña bacochai yago provechu emanendió oraciogárrec, ceintan duén yago devócio, ezi devócioa da oráccio gucién mámia ta susta(**n**)cia. Oráccio ere dire fede, esper(**anz**)a, ta carid(**adear**)en actac. Oráccio preciósua méza sándua. Credoa errátea goiz arráts nailúque Viz(**en**-t)e Ferre(**errec**)c. Baña egunorósco óguia becála biz contriciósco ácta. Eta orrá penit(**enci**)a guisabát óna ta aisa, indezaquéna nor-náiec: ta parátzea auspésca.

## 55

2.<sup>a</sup> *Obra ónac*; enténda ez obligacióscoac solam(**en**)te, baita ere devocióscoac, diréla Jang(**oicoar**)en zervitzután, diréla proximoen provechután. Naidiónac Jang(**oico**)ai emán satisf(**acci**)o bere gaizqui eguines, eramanbéz au alcinea(**n**), *ez nióri gaizquiric eguin; eta algucia óngui eguin guciéi*. Izaindu ocásio Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as, naibádu: eta naibeárdu, ezi nola itenduén alá aurquitucodú, eraicioa azaroarén ariorá. Bère óbra eguinec seguitzendióte guizonái berce munduráño beretáco: Gañarácoac emén guelditzendire berceendáco. Alabér idúqui presente beti, itendúgun pichsca edo púsca indezágun óngui Jang(**oicoar**)en amóres; ez vanidádes, ezi ori litzaque ilindia ta ilaun, aiceac daráma: ez nágui floxóqui, ezi ori litzáque bórra ta lásto: ez bérce fin macúrres, ezi litzáque árdoa hozpintzea. &

---

<sup>14</sup> Lerro tartean *Ora* hitzaren gainean 1 zenbakia dago; *Operare* gainean, 2; *Dato* gainean, 3; *Puni te* gainean, 4; *ferque* gainean, 5; eta *indulta* gainean, 6 zenbakia.

3.<sup>a</sup> *Limósna*; enténda ez solam(en)te diru edo dirusári emátea bearrsuári, baitaré eguitea obra misericordiascoetáic bat edo bérece, ta dezáquen gucia; esp(iri)tualeac dire, eztaquienái eracústeta, consejátzea, corregítzea, tristen consolátzea & Gorputzarénac dire, erien visitátzea, goseac dagonái játera, egárriac dagonái edátera emátea, ostatus emátea, eta itzbátes, certan bearduén favorátzea. Oh! eta au dá ingénio andibát pagatzecó Jang(oico)ai zorrtiogúnac, ezi ebén traspáso eguindú beártsuen favoretán, firmaturic escritúran, *bear-tsuai indiogúna berái indiogúla, quod uni ex his fecistis, mihi fecistis*, ta contatucodigúla batendáco eún. Codicias ustendúte ematecó biótz chsimúrrec: codiciaric obéna dá emátea aimbérece ganancia-réqui, ezi emánac valiatucodióte obéqui ezi eraiqui obénac: emate-neztuténa berceéc arrapátu, ta irri ineunte; eta berac uts joaindire, solam(ent)je béteric zórres: ah bóboac! zezaketelaic berén éscus valiaráci berén ondasúnac, guciá gáldu beréqui. Eta agúdo habitáco dauzquite daquitengáiec abrásten eméngo eméngo: nic ere neuzquique habitáco, emén beti vicibearbalúte, eméndic joán ez bearrbalúte: baña joanbeárr! Eta joatecó, habilágo litzáque alcina biáltzea. Orgátic Tobias Sánduac erratenció semeari: (c. 4) *Zeuretic inzázu limósna: ez apárta aurpégua bearsuagánic, alá Jangoicoac<sup>15</sup> ere eztitu apartátuco bere béguiac zuregánic. Nola dezaquézun, inzázu misericordia<sup>16</sup>, anitz bada, anitz, guti bada, guti borondate<sup>17</sup> onaréqui. Prémio óna biltzendúzu bearrorducó, ezi*

55at.

*limósna* libratzendú becátu gucietáic, ta eriotzetic, eta eztu utzico doáien arima ilumberá, eta confianza<sup>18</sup> ándia ematendú<sup>19</sup> Jangoicoaren<sup>20</sup> alcinéco. Baña ásquidá Jesus ónac dióna, *beati misericordes & Bienaventurátuac<sup>21</sup> misericordiósoac, céren logratucobaitúte misericórdia.*

4.<sup>a</sup> *Penitenciac*, edo *penalidádeac*, edo mortificacioac alá gorputzarén nola arimarénac, eguines justiciac, ta pagarácis pénac bere buruái, offendituduenagátic Jang(oicoar)en Magest(ade)a. Orgátic ció Jesus onác, *Qui amat animam suam, perdet eam & Joan. 12. Mai-*

<sup>15</sup> *Jang.* dio.

<sup>16</sup> *miseric.* dago.

<sup>17</sup> *borond.* dio.

<sup>18</sup> *confianza* eta marratxo bat -a- gainetik.

<sup>19</sup> *ematedu* eta marratxo bat -e- gainetik.

<sup>20</sup> *Jang.* dio.

<sup>21</sup> *Bienaventurátuac* eta laburgailua.

*teégui duénac bere búrua, galducodú, eta aborrecitzenduénac mundugóntan, guardatzendú seculáco vicitzaráco. Aborrecim(en)tu guisagáu ez enténda ilastecó, bai mortifica ta castigatzecó merejiduéen becála. Eztaique pássa culpa penaricgábe, dio S. Agust(ine)c, edo ematenzára pena, edo emanendizu, emén ezpáda, án. Cer penit(enci)a edo péna naidu emandaitzen gēnde nequetán vicidirenac? Silicio ta disciplinaric ásqui dire túgun néqueac: asco barudá ezin vicia átra & Ori éguia dá, eta valiatucodióte penit(enci)a ontáco, irur condicioéqui; *lembicicoa*<sup>22</sup> ofrátus Jang(oico)ai berén néqueac: *bigarrena*<sup>23</sup> sufritus paciēncia ta conformid(ad)e ónean: ta *irugarrena*<sup>24</sup> goártus nastecatztetic becatuéqui. Ezperén, cer gra(ci)a itendióte Jang(oico)ai berén nequeés? Norendáco aidire? Beldurrdaique ascorén néqueac eramandézquien Deábruac, ta azquenéco bérac ére bai, pagátzeco alocairua inférnuan, néquea nequearén gain, péna penarén gain: emén gaizqui, ta an gaizquiágo. Cergátic bada? Cergátic aimbérece néque duténeac eztúten artunái néque puchscabát Jang(oicoar)en amóres. Cer néquez? neque beardená garaitzeco berén pasióneac, ta cumplitzeco Jang(oicoar)en borond(ate)a. Au itenbaute aién gañetic, guciác artucotióte cóntu ónean, ta purgatorio trúc admititzeco bere glórian. Báña óngui aborrecitzeunténeac becatúa, ta berén burua, ingeniaturoute bai nola eguin penit(enci)a bérece guisac ére, yá egónes aldisca bésoac zabalduric gurútzearen fóрман; yá belaurico ta auspésca Jang(oicoar)en preséncian secrétoan; ya baruarácis beguiéi ez icustecó, bearriéi ez aditzecó, miái ez mintzatzecó, agoái ez jatecó ta edatecó bearreztirénac, ta passióne guciéi ez utzis cumplitzera berén céboac & Ala goarcendá becatuetáic, ta ematendá satisf(acci)o Jang(oicoar)en justiciái.*

5.<sup>a</sup> *Trabájuen óngui sufrítzeca* contú déla cumplitzeca penit(enci)a Jang(oicoa)c parátua. Penit(enci)a-guisagáu ásko guisatán noiznái ta nonnái dago escunará negarréscó vallegóntan; eta nondicnai datórrren trabájua, déla Jang(oico)agánic zuzenea(n), déla Deabruagánic, dela proximoagánic, beti eldudá Jang(oicoar)en escutic, cerén Jang(oico)a dá

## 56

manatzendigúna sufrítzeca: eta oh cémbat valioduéen! Non dá aláco silicioric, nola sufrítzeca génio subérr asárre gaichstoa? Non aláco disciplinaric, nola eramátea pacienziatán arima gaichstoen ta desa-

<sup>22</sup> *lemb.* dio.

<sup>23</sup> *bigarr.* dio.

<sup>24</sup> *irug.* dio. Hitz hau azpimarratu beharrean, *goártus* azpimarratu du.

gradecituen charqueriac, eta mi gaichstoen cistáco injústoac! Añádi desgra(**ci**)ac, beárrac, eritásun ta milla naigábe dirénac. Oh! balitz bearrbecaláco paciéncia ta conformidádea, cémbat guindezáquen desquitátu zorrugunetáic? Eta aguileique excusatzea purgatório ánitx edo gucia, joáteco gloriará zuzén.

6.<sup>a</sup> *Indulgeciac*<sup>25</sup>, baitire ala nola dispensaciobát Elizac emána bere tesorotic, iragazdezágun néque gutiágos costatubearzéna anitz yágo: ala nola Credo, Aita gurea, edo Savebatéqui irabáztea berrogei eguntáco indulg(**enci**)a dá gutigorréqui irabáztea irabacicozuéna eguines léngo penit(**enci**)a berroguéi egúnes, eta ariogortára: Dá ala nola Jesu Chr(**ist**)orén, M(**ari**)a Santissimarén<sup>26</sup>, ta sanduen satisfáccioen tesorotic eguitea donacioguisabát naiduenái eguin dilig(**en**)ciagáu edo ura: Dá ala nola bercerén cóstus suplitzea batec faltaduéna. Eta norc eztú falta? Maiteduénac bada bere arima, ez descuida irabáztean dezáquen indulg(**en**)cia, especialqui becátu sobra indugúnecc ta guti penit(**enci**)a. Eta orái bildus erranduténa diót lenlena beardugúla eguin penit(**enci**)a biotz bárnean penátus amargoqui, offendituas Jang(**oico**)a: guero in ánitx oráicio; guero anitz obra ón: guero anitz limósna ta miseric(**ordi**)a: guero penalid(**ad**)e edo mortificáicio anitz: guero sufritu anitz trabáju: azquenic irabáci anitz indulg(**enci**)a. Constatzendú S. Juan Climacoc, (ap. Parra pl. 23 de paenit) arturic habitua mongebátec icusicituela lemb(**icic**)o gáuean bi personage, aitucituéna erráten, Antioco, icusázu emén zure cóntua. Icusizué nola librubatzuétan assentaturic cóntu gucia errancióten, egún libra urre zorrduzú: Joán pagátus. Desaparecituric visiónea, guelditucé Monge Novicioa pensátzen, ta erráten bere buruai, Antioco Antioco, zorr andietán gara, anitz dugu cer pagátu. Onéqui assize eguiten anitz penit(**enci**)a, oráicio, ta gauza ón, celaric gucién admiráicio ta exe(**m**)plu. Irur urteén búruan bigaiec aparecituric errancióte, Antioco, ustedúzu áasco desquitatuduzúla contutic? Solam(**ent**)e amarr libra: faltatúzu bedrátzi amárr, Mo(**n**)gea onéqui yágo incitacucé eguitera ta padecituzerá desquitatunáies. Fingitucé éro, ta éroa becála guciéc tratatzenzúte milla irri ta módu gaichstoéqui. Arc bitárteo ichsil ichsila bere buruái erratencio, Antioco, oroizaite zorrduzúnas. Vicimodugóntan iraunduzé paciéncia andiaréqui amirur úrtes; ondoreán aparecituric eracutsicióte cóntua borraruric. Berri alégrea! Baña costatucéquo amaséi urte penitenciasco. Bada oroizaite zorrduzúnas, erra(**n**)bezo bacóchac bere buruái, ezcaitzan sobra erdéchi Jang(**oicoa**)c cóntuan, logradezágun bai bere pied(**ade**)a, ta sen(**enci**)a salvacióscoa, izáteco admitituac bere glórian. Amen.

---

<sup>25</sup> *Indulgeciac* eta marratxo bat -e- gainetik.

## Sermo in Dominica Palmarum

*Praxis meditandi passionem Christi.*

Astegáu deitzendá áste sándua, cerén celebratzendiren Chr(ist)orén vicitzarén acabanzarén mystério sanduénac, eta baita arráció sanduqui empleácea, beti baño yago. Chr(ist)orén Espósa Eliza gure Ama Sanda astendá mostrátus egún lenic nola errecibituzúten bere Magest(ade)a triúmfoan becála pálma, errámu, procéssio, ta acclamáció gloriosoéqui Jerusalenen, admirátzeco yago nola andic borz egún azotaturic, ta sentenciaturic atrazúten ilarastecó gurúcean. Nic nainúque eracútsi brevequiró, nola pensátu ta medítatu pássio sánduan: ezi ori dá obligáció, dá arráció, dá provéchu, dá amóre zorr-diogúna. Goácen yá icásis bada. Beti asibeárda gogorátus, ta pensátus *nor dén* passatuzuéna aimbérce; baita Jesus óna, Jang(oi)c o ta guizón déna, culpagábea gucis, sándu, perfectó, edérr, amáblea ezin yágos, eta ain gure amánte amazálea, ta onguieguillea, ezi ez us-teagátic galtzerá gú, bera utzizé, ofrecitu ta entregatucé, pagátzeco gure pártes, gure amóres, gure onnáies. Ô Jesús, non aurquitucodú-gu ori becalacoric? Óna berebaitan, eta óna guretáco! Audá Jesus, ceñen cóstus vicigáren becatáric esperánza onaréqui; Jesus, ceñen aténcios ezpálitz, ezlitzáque sálvo guizonic. *Fina, ceintaráco* beárden, edo cer fines beárden medítatu ta pensátu pássio sánduan, dá pensatzecó, unitzecó, ta gurucificatzeco becála gure arima Jesús onari irur itze esp(iri)tualeéqui, baitire irur affécto amoréscó, irur C, caridádea, compassiónea, contriciónea. Lembic(ic)o itze, edo C esp(iri)tuála Carid(ade)a, amatús finqui Jesus onamorósoa: Bigarren itze, edo C esp(iri)tuála Compassiónea, compassionátus ta lastimátus Jesus ónas ta ain penátuas: Irug(arre)n itze, edo C esp(iri)tuála Contriciónea, urriqui ta damútus offendituas aláco Jauna, Carid(a-de)a Jesús onarén onagátic: Compass(ione)a Jesus onarén penengatic: Contriciónea gureun culpengátic. Alá carid(ad)es, compassiónes, contriciónes pensátus biótza, atracodiren negárrac nasiric Jesusen odolaréqui báteo dire capáz garbitzecó edérrqui arima, palacatzecó

Jang(oico)a, eta itzaltzecó infernúco súa: baitaré equidatzecó laurg(arr)en C, edo itze consolagárria, baita Confianzabát sáno segúroa salvatucoduéla Jesus salvazáleac.

Goácen orái nola bearrgáren egón pensátzen pássioan. Ortáco valiagaizque fédeas, memórias, ta imaginácoas, oroitus ta imaginátus sinestendugéna passatuzuéla Jesus ónac. Ori dá modubát non-gonaico. Bérece mo-

## 57

dua dá valiátzea béguies beirátus Jesus onarén imaginarenbát. Lem-b(icic)o móduan oroituric passioarén pausubát edo bérece, egón ártan pensátzen nola, ta cémbat passatuzuén; ordic guero errétzen biótz bárnean caridades, edo amóres, compassiónes, edo contricónes. Ori deitzendá oráco mentála, gogos solam(ent)e itendéna. (Cóntraco aldétic adiarastecó, ala nola irátu mendecatía egotendén cavilátzen, ta sützen bárnean etsaiarén cóntra; edo luxuriósoa cebátzen gógoan daucan gauzagártan, baita ori Deabruarén oráco mentála: obéqui Jesus onarén amazálea bégo pensátzen, sützen, ta erretzen berarén pássio doloréscoan.) Ortáco ón izainda parátzea nic emén ercandan edo lichstan becála pausu principalénac memoriain amóres:

1. Passio-alcinftioan eguinzuen orácoia Gethsemanico barátzean gáuas, eta odóles izerditzegúra congojain utses.

2. Judas traidóreac emán besárca falsua señaletáco, ta nola préso arrapátu, ta eramanzúten Jesus óna.

3. Nola Anasen échean emáncion bátec bofetadabát, eta Caifaseneán guciéc tratatuzúten indignoqui lichstus, gólpes, bendátus béguiac, & eta gauarén gañarácoan iduquizuten loturic calabózoan.

4. Nola biramón goizean presentatuzúten Poncio Pilatosén alcinean: nola arc declaraturic etzióla culparic aurquitzen bializuén Herodesengána: nola onéc tratátu ta jocatuzuén fátuo ta éro-guisa bere soldadoéqui.

5. Nola itzuliric Pilatosengána, onéc ez galdunáies culpagábea, proponitucióten Judioéi bazcoacára cein naizúten biétaic libre, Jesus edo Barrabas, baice ladronbát; eta aiéc escogituzuten Barrabas, óius Jesusen cóntra.

6. Nola cruélqui azotatuzúten gorputz guctic borz milla ta yago azotucáldis zaticátus arágui sandugáiec, ichsúris odól errecac &

7. Nola coronatuzúten arancésco ustaibatéqui, parátu soñetaic purpurásco mánto zarrbát, ta escuan canabát cetroguisa, incióten burlásco Erreguebati becála adoracio-ichúra escárnios, ta modu indignos.

8. Nola ichuragórtan presentaturic Pilatoséc gendeari cióla, Oná guizóna, clamatzenzúten, quen quenbéz, gurucificabéz &

9. Nola sentenciaturic iltzera, pregonaturic, ta arturic soñean gurucea zoéien ezin joánes Calvarioco oianerát erórca erórca; nola aurquituz(**ue**)n Ama &

57at.

10. Nola gurucificátu ta goratzúten gurucearéqui airean, ta guelditucén irur itzeetáic dilindacá beteric pénas eta dolóres.

11. Nola oraño ere itencióten escárnio Judioec, eta bere Mag(**estadea**)c alaére lemb(**icic**)o itza erránzuen ayén favóre, Aita barcabezóte & Nola ilunducén eguerdis &

12. Nola egóncen irur órdus agonizátzen, eta iltzen arratsaldeco iruretácoan becála: Nola jautsi gurutzetic ta paratuzuten Amarán besoetán lenic, ta guero obian: Nolaco pénac, dolóreac, eta agoniac passatucituen Ama Santissimac<sup>1</sup> &

Aisa ásqui dá egótea pensátzen pausuguebetaic bátean edo bércean, ta errétzen carid(**ade**)an, compassionean, edo contricioan Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)aréqui, naibauzu: eztá beárr anitz grammática; beárda solam(**ent**)e borond(**at**)e óna; artu dembóra puscabát, sujetátu gógoa detenidádien órtan, nola egotendén bearreztirenetán. Baña ain inutila barimbazára oneráco, ezi eztaquizun valiátzen fédeas, memórias, ta gógoas, inzázu bigárren móduan berére, valiátus béguies. Zoáz Jesus onarén imaginabáten alcinerá: Beirazózu gora bera atencioréqui: eta erranzózu zeure buruái, ez mias, baicic gógos solam(**ent**)e, batzután: Imaginagáu noréna dá? Nor dá pobretogáu alá paratuzuténa? Otedá ladrón, traidóre, edo guizonilzále gaichstorenbát? Errespondazait: Ez eztá alacoetáic, baicic ene Jesus ón óna ta onéguia, Jang(**oicoar**)en ta ama Virg(**inar**)en seme ederra, gloriaco Principe, ta ene arimarén Espóso amántea. Cer becátu eguinzue, paracecó guisaórtan<sup>2</sup>, ene Jesus maitea? Etxué ta etzúque eguin becaturic, baña maite guindúza gú becatárioc: gu gálcera ez usteagátic, utzice berói parátzera guisaórta(**n**), ona gaichstoengátic & Nola etzaizu frincatucó biótzean caridad(**ear**)en, edo compass(**io**)near)en, edo contr(**icione**near)en itzea?

Bercebatzútan: Beira Jesús nola Jang(**oicoar**)én escriturabát; tinta górria bere odól precíosa: llágac létrac. Cer létra dire? A, amo-

<sup>1</sup> *SSmac* eta laburgailua.

<sup>2</sup> *guisaórtan* dío, eta ez *guisagórtan*; holaxe ipintzen du berriz ere, 20 bat hitz geroago.



résco létrac. Cer naute errán? Amatzennauéla ni Jesus onac: ezpanindu amátzen, etzé utzico alá paratzerá enegátic. Norc nión ére dida aimberce amóre ta favóre? Nola eznáiz amorostucó? nola ez confiatuco? Bercebatzután contriciósco péna sentizecó, beira sacrificaturic achsuri div(ino)a becatariengátic: beira búrua lastimaturic aranceés: bégui ederrgáiec ilunduric eriótzeas, aurréguia itsusturic golpes, lichstus, odóles: bulárta idiquiric lánzas: éscu onac josiric itzeés; gorpútuc gucia urraturic azoteés; arima beteric amarrgúras; eta guciá trataturic aimberce modu indignos: eta cergatic? ez bere becatuengátic, bai nereengátic. Ah! cein gauza gaichstoa bidediren becatuac? Nola nola, baldín óngui pensatzenbauzu, etzaizu frincatucó biótzean contricioarén itze amorósoa?

## 58

Baña Jesus onaren passio ta eriotzetic atrabeardúgun principaléna dá gure pasioneén, ta eritásun esp(iri)tualeén erremedioa, ezi Jesus gurútzean contú déla iturribát borz lláguen cañuetáic darióna salvaciósco bálsamo precióscoa. Israeldárrac desértuan serpienteén ozcaen cásoz zoézi iles iles erremedioricgábe: Moysésec Jang(oico-ar)en avisus paratuzué agabátean góra serpiente-iduribát, ceñi beiratzearéqui solam(ent)e sendatzencire herituac. Bada *ala nola*, ció Jesus ónac, *ala nola Moysésec goratuzué serpiénte desértuan, ala bearnaiz ni izán gorátua gurútzean.* (Joan. 3) *orréqui nibaitan sinestatzuntentáic niór eztáien gáldu, baicic logradezátén vicitza seculácoa.* Biz bada Jesus gurútzean nola hispillubat, ceñi beirátus gure arimac sendadaitzen. Bere llágac gure osasúna, bere dolóreac gure consoláicio, bere odóla gure erremedio, bere eriótzea gure vicitza ta salváicio. Triste zaude? Zoáz, consolazaitte beirátus Jesús ona, ô Jesus, erranzózu, yago dá orréc passatuzuéna; orren compañian ta orren amoretán biz ene pichscatógáu. Pacienziarén bearr zara? Beira Jesus gurútzean, ô cémbat yago trabajuréqui! ô Jesus, alquedaquidála ezin suffritzeas 'deus gutibát: pacienziarén bálsamo ta unguédu precióscoa, ez saltzen, bai gra(ci)as ematendú berórrec: bida niri ere. Tentatzenzaitu Deábruac subervias, codicias, luxurias &? Beira Jesus gurútzean. Alquetucozára errenditzeas: Emanendizu indárr ta arimo óna. Desconfianza elduzaizu salváicioas, edo emendátzeas? Euchu Jesus onarén onetán, ô Jesus, biz enetáco Jesus. Azquénean pénsa nauzun gucia, guciétáco dá Jesus gurucificátua. Dichósoa nor afficionatzenzáion biótzes. Au dá sánduen sutéguia, non betetzenciren caridádes, compassiões, contriciões, humildádes, paciências, ta gañaráco virtutes: Au dá sálsa, ceñequi münduco trabáju guciac

gozo itzulcequizquióten: Audá botíca universála erremedio guciéna salvatzecó ta sandutzecó arimac. Emén erregalatzencire sanduric andiénac, nastecátus berén negárrac Jesúsén odol preciosoaréqui. Eta bérece álde medítátzean passioa itenzáio Jesus onari zervitzubát bere gustócoa choil. Lastimaturic cegon báti passiogártas aparecitu-céquio Jesús gurucearéqui soñean, erratencióla, ezdezaquézu eguin niri gauza gustosoagoric, nola lagúncea eramáten gurucegau. Eta arc galdeguinic nola zezóquen eguin laguntzagói, erráncio ezi eramánes biótzean memória, meditáció, ta compassióne continoaréqui & (Baron Luz de la fee l. 3. c. 21.) Errevelatuereció S. Gertrudisi, noiz batec beiracendión devotoqui gurúcean, beiracendióla arri bé-rac amorésco ta misericord(ias)co affectoéqui & (ib. c. 23)

## Sermo in Pascha, quando reconciliatur pax inter oppidanos, vulgò charitates

*Pacem relinquo vobis, pacem meam de vobis. Joann. 14.*

Egún, noiz Jesus óna erresucitatucéla ilen ertetic sinestendúgun, eta noiz gure arimac ustedúgun viztudiréla gra(**ci**)as, bazcoaréqui cumplitus, óngui paraturic dágo caritateén usánza antiguáscoa, el-carréqui báqueac eguitedó Jang(**oic**)oaréqui báteo. Jesus onarén ilária celebratudúgu azquén egunetán: egún léitzágun bere testam(**en**)tua eguinzuéna iltzen vézperan ortzégun sándu gáuean azquén despeidan. Secretário izánce S. Juan Evang(**elari**)a<sup>1</sup>. Aizágun atténto: *Pacem relinquo vobis, pacem meam do vobis. Báquea ustendiziét; ene báquea ematendiziét; múnduac ez becála nic zuéi*. Orrá testam(**en**)tua. Etzáio idúri gauza ándia ignoranteái; baña óngui daquienái gucis ándi valiósoa iduricéquo beti, ezi au manatuzué jaiótzea(**n**), au bere vician, au iltzerácoan. Jaoiceláic Belénean, proclamatzúte Ainguiruec, *Gloria ceruetán Jangoicoai*<sup>2</sup>, *eta lúrrean báquea borondate*<sup>3</sup> *oné-co guizonéi*. Vician ta erresucitatuasguéros bere diosálea cé, *báquea Zuéi*. Bialtzcó múndua bárna Apostoluac, encargatucióte, *edocéin echeetán sarzaisten, zuén lembicico*<sup>4</sup> *itza biz, báquea echegóntan*. Guardatzendú Elizac oráño ére, comecadúra eramátean, baitio sacer(**ote**)ac lén léna, *pax huic domui & Báquea echegóntan, ta echéco gucietán*. Mézan comecatubáño lenchágo baquearén señaletán besarcatzendire Sacerd(**ote**)a ta Diáconac, eta lén besarcatzencire Chr(**ist**)io guciac Elizan cirénac; orrén mostrátaco guelditudá pacearén<sup>5</sup> emátea: eta Chr(**ist**)io zárrec comecátzera joátean dúte usánza óna itzúltzea aurréguis guciéi, ta escátzea barcácio, eta dá confórme

<sup>1</sup> *Evang.* dio. *Evangelaria* irakurtzen dugu, horrela bait dago 7. orrialdean.

<sup>2</sup> *Jang.* dio.

<sup>3</sup> *borond.* dio.

<sup>4</sup> *lembic.* dio.

<sup>5</sup> Hola dio, eta ez paquearen.

erranzuenari Jesús ónac: (Math. 5) *Si offers munus tuum ad altare & Ofratzenbauzu zeure presénta aldárean, eta án oroitzenbazára zure anáiac duéla cerbáit zure cóntra, útzi án zure offrénda aldáre-alcinean, itzúli ta baquezaite zeure anaiaréqui, eta guero offrazázu.* Cein baquenáia dén gúre Jesús óna! Eta cein gauza óna bidedén báquea! Azquénean glória Cerúcoa deitzendá Jerusalém, naibaitu errán, *visio pacis*, baquearén icústea. Eta bálitz emén báque bearrbecalácoa, gloriaguisabát litzáque aldegórtaic. Icuságun ta icaságun baquegónen óna, egúines lenic gure Ama Santissima<sup>6</sup> Mariai bere diosálea. Ave Maria.

*Zori onécoac gende baquéscoac*, dio Jesus ónac, (Math 5) *cerén deitucodire Jangoicoaren<sup>7</sup> humeac.* Berás Jesus berarén anáiac, ach-súri mansogárri idurituac,

## 59

Ceruráco márca duténac. Christiand(**adear**)en principioan, diónes escrit(**ur**)an (act. 4) *gucién biótza cé bat, eta bát arima.* Ó cer dicha! Beti ain confórme, nola guciác balire bát. Etzé orduán, *au neréa, au zuréa, itz otzgúra*, baitio S. Chrysost(**omo**)c, baicic guciéna gucién; zuc nauzúna, nic; nic nauténa, zuc: nérea zúre, zúrea nére; ô cer vicia urá! Alá bearlitzáque orái ere, baguindu carid(**ad**)e, baguina Chr(**is-t**)io eguiáscoac, gareláic gucióc gorputzbát, ta elcárren miembro-lagún. Pénsa, ezpálitz oposicio ta discordiaric bátere, baicic báque ta concórdia sánoa familia guciétán, ta érri gucián, cer Jang(**oicoar**)en bedecioa! Emén legóque guréqui gure Jauna contént, ezi alá ofrecituzué (Math. 18) *Non ere dauden bizpiru unituric ene izenean<sup>8</sup>, an nágo ní ayen érdian.* Cer faltaleique guerostic? Icuságun gorputzarén comparácioan baitacarr S. Pabloc, (1. Cor. 12) ta explicátzen ederrqui S. Agust(**ine**)c (h. 15 de Verb. D.) *Padecitzenbadú miembrobátec, compadecitzendire miembro lagúnac. Frincacendá arancebát òñean; miac dió bérta, och! nola min artudút. Oñetic mira diferencia<sup>9</sup> doáie: bere ágo bárnean dágo mia; nola dió, artudút min? Ez ori solamente<sup>10</sup>, baicic ere bérta curtzenda gorpútz gucia; béguiaac applicatzendire icusterá aráncea non dagón, éscuac atratzerá. Nola dá au? oh! nola baitire gorputzbát, ta elcárren lagún, elcárr assistitzendire.* Alá bearlitzaque

<sup>6</sup> SSma eta laburgailua.

<sup>7</sup> Jang.<sup>m</sup> dio.

<sup>8</sup> izenea eta marratxo bat -a gainetik.

<sup>9</sup> differecia eta marratxo bat bigarren -e- gainetik.

<sup>10</sup> solam.<sup>e</sup> dio.

Chr(ist)joguéndean, gucióc garélaic gorputzbát, búru Aita Sándua, bégui bercebátzuc, oin, éscu & Bercearén ona gueurén ón, bercearén gaitza gueurén gaitz contatubearguindue, amabaguindez gueuren búrua becála, dión guisan carid(adear)en manam(en)tu andiac: baña orái béreas dú ajóla bacóchac, ez bercearénas, nola, ezpalitz prox(im)o, ezpaita caridad(er)ic.

Jauna, baquearén gain ássi, ta passatudá caridadera. Alá dá, cerén edo bióc dire bát; edo nola Ama ta alába; edo bentzait bata berceagábe eztaique aurqui. Orgátic baquétzea deitzendúte Caritateac. Berás baquetzecó, eracutságun carid(ade)a *cer dèn; nola izan bear-dèn; eta nori; eta norengátic.*

1. Cer dá carid(ade)a? Carid(ade)a dá onéstea Jang(oico)a gucién gañetic, eta proximoa gueuren búrua becála Jang(oico)agátic. Orrá iturribát bi cañuéqui; edo subát bi aldetára edatzentuéna bere sugárrac. Amore biguébec eldudire baterá, au dá Jang(oico)a. Ama Jang(oico)a beragátic, eta proximoa Jang(oico)agátic, ori dá carid(a-d)e. Ezpadúzu amátzen proximoa Jang(oico)agátic, eztúzu amátzen Jang(oico)a ere: Eta amatzenbauzu Jang(oico)a, amatucozu proximoa ere faltarcigábe. Ontaic dá claro eztiréla carid(ad)e amóre guciac, ta por consiguient)e ez ónac báque guciac. Amátzea elcárr, eta unitzea gaizqui eguítécó, ez carid(ad)e, ezi guérta dá Jang(oicoar)en cóntra. Amátzea

59at.

zeure irabaciagátic, ez carid(ad)e, codicia dá. Amátzea cerén dèn aide, adisquide, edo gra(ci)an erorizaizun, carid(ad)e ez, gaichsto ere ez, amóre naturála dá. Amátzea bere prénda ta virtuteengátic, amóre virtúoosa dá: Carid(ad)e izatecós, Jang(oico)a beárda izán motivoa amorearén, Jangoicoagátic beárda, Jangoic(oar)en aténcios, Jang(oicoar)en amóres amátu proximoa déna déla.

2. Modua ere beárda amátzean, Nola? gueuren buruóc becála. Beira cer naicindúquen zeuretáco; bada alá proximoaindáco. Nauzu in edo errandezazúte(n) gaizquiric zuri? ez: Bada ez errán edo eguin zuc ere proximoai. Etzindúque nái bearrorduán indezazúten favóre edo ón edocéin zuri? Bai: bada alá in zuc ere proximoai. Oh cein gutic onestenbidedúten proximoa berén búrua becála! (Eta seguroágo sospechatíc dá proximoen amórea. *Caridade*<sup>11</sup> *óngui ordenátua beregánic astendéla*, dá Theologoen errána: baña sospechóso dá ote-

<sup>11</sup> *Carid.*: dio.

dén carid(**ad**)e, edo otedén amóre p(**ro**)prio, déna gueuren perdi-  
 cioarén causa, ceintas ción Jesus onac, (Joan. 12) *Maitatzen duénac*  
*bere búrua, galducodú, eta aborrecit zen duénac mundugóntan, guarda-*  
*tzendú betico vicitzaráco.* Eta onen gáñean S. Agust(**ine**)c, (tr. 15 in  
 Joan) *senténcia ándia ta miragárria, nolaco manéran dén guizonarén*  
*amórea bere buruagána, galcecó: aborrecimentua*<sup>12</sup>, *ez galtzecó:*  
*Gaizqui maitatzenbauzu, aborrecit zendúzu: ongui aborrecit zen badú-*  
*zu, maitatzen dúzu.* Yá berás caridadeain parécoa dá aborrecim(**en**)tu  
 sandubát bere buruain cónta. Nola? Errepugnátus genioarí ta gus-  
 toarí, acusátus, mortificátus, bere cónta emánes, ta gogórr izánes  
 Jang(**oicoar**)en amoreagátic. Ya berás eztá beti carid(**ad**)e maitátzea  
 bere búrua. Yágo dió S. Greg(**orio**)c (h. 17 in Evang) *eztaiquéla izán*  
*caridade*<sup>13</sup>, *ezpáda biden értean, ezi níorc eztá erraten propioqui*<sup>14</sup>  
*duéla caridade*<sup>15</sup> *bere alde, baicic amórea bercearén álde beárda, iza-*  
*tecós caridade*<sup>16</sup>. Beñic bein sándu gucién carid(**ade**)a beti izánda,  
 berén arimen ta Jang(**oicoar**)en amóres, izátea gogórr berén cónta,  
 eta berách proximoen favóre. Ontan eztá sospecharic.)

S. Pabloc erranentígu carid(**adear**)en próguac; (1 Cor. 13) *Chari-*  
*tas patiens est, Carid(ade)a dá sufrítua pacienciaréqui: benigna est,*  
*benigna dá, berách generósa: charitas non aemulatur, Carid(ade)ac*  
*eztú invidiaric, au dá, eztú gaitzát bercearén ona, bai alegrátzen or-*  
*tas béreas becála. Non agit perperam,*

## 60

eztáqui niori gaizquiric eguiten ez acciónes, ez itzes, ez biótzes, ez  
 engáñus, trámpas, murmurácios, edo álgos. *Non inflatur,* eztáqui su-  
 bértzen, presumitzen, púntu ártzen, bai apáltzen. *Non est ambitiosa,*  
 eztá andináí, eztú níor despreciátzen, bai estimátzen guciac. *Non*  
*quaerit quae sua sunt.* Eztá berecória, beretáco beretáco beti, ez, bai-  
 cic emannáia beretic, ta óngui eguinnáia guciéi. *Alter alterius onera*  
*portate,* (Gal. 6) *Lagúndu elcárr, bátac bercearén cárga eramán. Om-*  
*nia suffert.* Oréñes dió S. Agust(**ine**)c (83 quaest. §71) *passacecó*  
 ugaldebát, paratzendírela ercadán; eta nola baitústé búruac pizu  
 adarrquetagáien cásos, paratzenomentúte bátac bercearén ánquen  
 gáñean, eztaitzen ondátu; alá passatzendúte guciéc aisa; lembic(i-

<sup>12</sup> *aborrecimetua* eta marratxo bat bigarren -e- gainetik.

<sup>13</sup> *carid.* dio.

<sup>14</sup> *pprioqui* dago.

<sup>15</sup> *carid.* dago.

<sup>16</sup> *carid.* berriz ere.

**co)**a solam(**ent**)e doáie nequetán; baña descansatzecó au ére aldazendá azquenerá. Contatze(**n**)dú alabér bida bein aurquituciréla zubi meárr erchibátean, bata aldegártaic, bércea aldegóntaic, ezin saiéstu, ta ezin itzúli guibéla. Cer inenotedúte? Icusázie ta icasázie. Báta curturic políqui etzinze zurain cóntra: alá bércea gañetic pasatucé aisa; eta guero chsaiquiric bércea ere bai. Cer izane(**n**)ze, asibacire buldúrrca? biác aguián eróri ta ondátu. Alá aguitzendá discordian: batac porfia, bérceac porfia; niórc ez caridadeic; alá biéc gáldu, ta Deábruac irabáci. Contatzendá fabuletán, leóna ta ártza zeudéla peléan, eiciabáten gáñean ózca ta atzapárrca bein; eta achsária urrundanic beira. Biac necaporraturic lúrrean etzánic ceudelaic yá ezin moguitus, achsáriac joán ta arrapatucióte eicia biéi, ta guelditucire muturrúts. Ori berói aguitzendá génde irátuen értean elcárr deshonorátus ta gáldus carid(**ad**)e-fáltas.

3. Ellegatugára irugárren punturá, Nor beardúgun onétsi. Ez solam(**en**)te aidea, adisquidea, ta onguieguillea, ezi ori cumplitzeunte Infiélec ere, baita ere proximo diren guciac. Proximo nor dire? guizón dirénac, arr edo eme, fiél eta infiel, ón edo gaichsto. Ebéc gucióc onetsibeartúgu, infiel eta gaichstoac ere. Nola? Amátus persónac, estimátus ebetán Jang(oicoar) en imágina; ta aborrecitus gaichstaquería, lastimátus aien itsutasúnas, deseátus, escátus, procurátus ayén ona: ala nola Amac amatenbaitu hume éria aborrecitus arren eritasúna, procurátus osasúna. Onetsibeartúgu etsáiac ere, malam(**en**)te gaizqui naigaituténac, errátén ta eguitenduténac gure cóntra? Errespónda: Dire edo eztire proximo? Proximo dire, baña eztire proximo becála portátzen. Ezpadire ayec portátzen proximo guisa: zu portazai-

60at.

te. Ayéc ezpautenái goardátu Jang(oicoar)en léguea; zuc guárda: Ayéc nabadire<sup>17</sup> condenátu, etzaitela zú orgátic condéna. Óntas dúgu Jesu Chr(ist)orén manam(**en**)du especiála, *ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros & Math. 5) Nic manatzendiziet, onetsizquicie zeuren etsáiac; inzózie óngui gaizqui naizaistenéi, escazázie perseguitzenzaiztenén favoretán, izatecó hume zuén Aita cerucoarén, atrarastenbaitu bere irúzquia ónen ta gaichstoendáco; cerén ezi onestenbaitúcie sollic onestenzaizténac, cer prémio izanenducie?*<sup>18</sup> Eztúte ori eguiten

<sup>17</sup> Hola dago nabadire, eta ez naibadire.

<sup>18</sup> izaneducie eta marratxo bat -e- gainetik.

*Infielc ere?* Jauna, arc ni ez icusinái, eta nic beárdut ura onétsi? Arc aimbérce gaizqui errán ta eguín niri, eta nic óngui imbearrdiót arri? Bai, izatecós Chr(ist)io óna zú, naiz ura gaichsto dén. Nola datéque?

4. Audá laurg(arre)n púntua, *Norengátic?* Jang(oico)agátic, Jang(oicoar)en amóres, aténcios, ta errespétos. Bércea déna déla, desa-gradecitu, traidóre, guezúrri, infáme, ta pensaála pénsa: Baña Jang(oico)a óna dá. Arc eztuéla meréji: baña merejidú Jang(oico)ac. Beragátic imbeárda. Guerostic nauténa inendúte gaichstoéc desarráccioan, ta ayéna yago alaére; eta gú ezin mendéca. Goácen gutibána. Eztá debecácen escátzea norc bere dréchoa, naiz déla justicias: Debecatzendéna dá aborrecitza, gaizqui náí, ta eguitea. Manatzen-déna dá onéstea biótzes alaére. (Jauna, elcárren contra justician, eta alaére onéstea elcárr, eztá errátz. Eztá erráz, baña bearrcó Chr(is-t)orén léguean. Orgátic alacoetán possible balitz, beti litzáque obé composicio medianorenbat. Baña naiz nolanái escaturic satisf(ac-cio), injúria beárda barcátu, ta persóna amátu.) Jauna, cumplitzendá emánes bere agúrr ta onguietórriac? Ez; beardá onétsi amóre sin biotzéscos Jang(oico)agátic. Eta cumplitzendá onétsis biótzes, icúsi ta tratatugábe elcárr? Ez; bearrdire bióc; onétsi biótzes, eta eguin demostráccio comúnac ocasioeta(n) itendirénac elcárr. Emén órdea errepára, ta ez nastéca doctrinagau: Dugúlaic oblig(aci)o; nióri ez gaizqui náí ta ez eguitecó; guciéi onétsi ta eguitecó demostracio ordináριοac, eta limósnac, ta obra misericordiáscoac necessidádean oroát etsaiái, nola berce aláco beárrean direnéi; baña eztúgu obligacioric izatecó niór adisquide beréchs fiatzecó, naiz lén izanic, escarmenta-

## 61

tubagára. *Guciác bai biótzes onétsi, baña adisquide guti beréchsi.* Ez-perén aguitucodá icustendéna, atzó adisquide, egún etsái; atzó besárca, egún aztapárca: atzó musucá, egún mutúrrea: etsái dire Deabruarén gustorá, adisquide cire ez Jang(oicoar)en gustorá. Cémbat obeágo dá bardín eguitea guciéqui, nior ez gaitzétsis, guciác onétsis biótzes eta óbras, etsáiac ere?

Parazágun exémpu cembáit, entendátzeco doctrina ain preciósu ta precisogau. Cónthu inzágun goratudidála bátec niri áscu testim(o-ni)o fálsu infáme, saldutudála sacram(en)tuac, errevelatududála Confessiorenbat, indudála anitz sorguinderia ta gauza enórme: Añádi, emánca indidála, utzinauéla estropeaturic beticos, mezaric erran ezdezaquetén guisan. Cer idurizaize nezáquela eguin lancegór-tan, conciéncia sálvo? Gorénas escátzea satisfáccio zorzuéna: baña



arc emán edo ez emán, ni negóque obligaturic, ez odioric izaterá, baicic amatzerá biótzes, deseaterá óngui, ta barcatzerá agráviao, naiz ez satisf(**accio**)a. Bérece exemplubát: Emágun herituduéla bátec traicios puñaladacá bercebát, au dagóla iltzen, conféssio escátzen & Len lenic beardió barcátu acciónea traidoreari, naiz ez satisfáccioa; beardú onétsi alaére Jang(**oico**)agátic; ezperén, niórc ezdezáque ab-sólvi, eta condenátua dá erremedioricgábe. Eta eztá au doctrina disputatzendéna bi aldetáic, baicic Elizama Sándac daucána. Atra orái cóntua ce(**m**)bat yágo, agrávio chipiagoetán! Ô biótz chárr mendecósoac, imbadizie arramachscabát, itzbát, ez deusbát, bérla itzuliniáic ordáña!

Gauza érrua baita, Jauna, gaizquieguilleari onétsi, ta ez gaizqui itzulceá. Errucára dirúdi, baña cumplidaiquéna bátere perjuicioic-gábe, ezi sufrizeac eta barcátzeac injúria eztú iltzen, ta ez calteric emáten; ezi errandúgu orréqui báteo badaiquela éscá bere dréchoa justicias ére: Orái diót yágo, atrázteco óngui justician, déla avantálla ez izátea ódio, mendécu, ta iraric: alacoric izátea berriz dá perjuicio-tán, cerén sugorréqui átra itz gaichstoac, ta bearreztirénac, eta desquitatzendire, ta culpánte itendire, eta eztióte orgátic justiciac emáten aimbérce satisf(**acci**)o, cerén artudúten berén éscus.

Errucára dirúdi onestegau contráριοac, baña indaiquéna sola-m(**ent**)e naiizatearéqui: eztá beárr emán vicia, ez passátu anitz trabá-ju, ez diruric

*61at.*

emán, ez oin escuric moguitu, baicic goártu gutibát, garaitu ira, itzuli Jang(**oico**)ai, ta ofrátu amenñtogoí, Jauna, orren izénean dela.

Errucára dirúdi, báña erruágo dá vicitzea odioarén arrancúran, Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)an, conciéncia gaichstoan, eta guéro péna etérnoan, ez naiizánes in pichscabat indárr garaitzecó biotzaren erresumína Jang(**oicoar**)en amóres.

Errucára dirudi, baña Jang(**oico**)ai zordiógu anitz, eta yaqueta eztiógun zervitzu ándiac eguiten, ez ánitz arima irabázten, ez ánitz penit(**enci**)a ta martirio Jang(**oicoar**)en amóres, ofrazógun caridad(**ear**)en urrefitogau berére.

Errucára dirúdi, baña guechsagócoac intiogúlaic guc Jang(**oicoa**)i, naidúgu barcadezquigun, ta barcatzenbadúgu, barcatucodigúla, dió, ezperén, ez: (Math. 6) nola bein alacobáten ilárian erránzuen Chr(**ist**)oc guruzetic, *non pepercit, non parcam*. Nola ucatudezoquégu gustogói? Gueuren onagátic ére?

Errucára dirúdi, baña da choil quadratzenzióna bere Mag(**esta-**  
**de**)ai, eta manatudigúna itz andiéqui, ta mostrátu exempluaréqui  
beti ere, baña especiálqui gurútzean goraturic erranzueláic. *Aita,*  
*barcabezóte, ezi eztaquíte cer aidíren.* Exemplugau seguituzúte sán-  
duec. S. Estevan & S. Tiágoc présó inzuengúra besarcátus & S. Juan  
Gualb(**erto**)c admitituric anaiatáco bere anaiarén ilzálea, bérla ado-  
rácean Chr(**ist**)o inclinatubaicio búrua & S. Teréssa alegratzenzéna  
izáteas cer sufritu, ta árcen amóre specialebát bere contráioen  
álde; bein especiálqui goratucioteláic testim(oni)o fálsu andibát,  
contentuain útses naibaizue eguin eguinzuéna Davidec arcarén pre-  
séncian. (fund.<sup>s</sup> c. 27. n. 11) David perseguitzenzúé Saúlec invidias;  
arren átzean dabilálaic au sartucé nola etzequiéla, ura cégon cuévan:  
lagunéc incitátzen; arc, goardatuconaiz & Bérce bein David sarturic  
Saulen quártóan artució ichsil ichsila vasobát eta lánza señaletáco  
ilzuquéla & Saulec aituric erráncio, orái nágo ciérto izanenzaréla  
Errégue Israélen & Señalea carid(**ad**)e noblegúra. Oroát erreináceco  
Céruan. Alargún Amabati ecarrióte ilic puñaládas bere sème bacá-  
rra. Dagolaic negárr ta negárr ilarén aldácan, sarcendá ilzálea odo-  
lestaturic igués justiciagánic, etzequiéla nora zoéien. Alchatzendu &  
guéro ematendió diru cantidadebát, ta zaldibát & Guero aparecit(**u-**  
**cequi**)o sèmea glorióso gra(**ci**)ac ematen & Vide hic in pagina 6. â  
tergo ad finem Sermonis Dominicae Secundae Adventus

## Sermo in Dominica in albis

*Praescripta medicamentorum. Vel Recetae ad perseverantiam.*

Quorum remiseritis peccata, remittuntur eis. Joan. 20.

Contatzendá egúngo Evang(elio)an, nola Jesús aparecitucequió-  
ten vizturic ilasguéros bere Discipuloéi, eta eguinic diosalea amoróso,  
ta erranic, *ala nola bialininduen ni nere Aitac, alá nic bialtzen zaistet  
zuéc, átsa emancióte, arzázie Espiritu Sándua: Norén becátuac barca-  
tzentucién, barcátuac dire, ta norénac detenitzen, detenituac.* Itz eta  
accionegebéqui emancióte potest(ad)e barcátzeco becátuac, potest  
(ad)e Jangoicoaréna p(ro)prioqui, baña comunicátua bere sacer-  
doteeri. Suponituric ya Jang(oicoar)en gra(ci)as barcátuac diréla be-  
catuetáic óngui confessatudirénac, eta admitituac bere gra(ci)an;  
conservatzecó ondásun andigau, goácen tratátus perseveranciarén  
gain: Errancióna Jesus div(ino)ac ogueitaemezórzi úrtes perlesiatu-  
ric egónai, ta istántean sendatuzuenái. *Orrá sendátua zara; etzázula  
ya eguin becatuáic urréngoan, eztaquízun<sup>1</sup> aguitu gaizquíago.* Beguí-  
ra: goártu errecaidatic. Manténi óna, sáno, ta sendo constantequí.  
Ortáco egún naut emán cembáit errecéta. Lenic goácen salutátzera  
gure Salvazalearén Ama M(ari)a Santissima<sup>2</sup>. Ave Maria.

(Assi óngui, ta bucátu gaizqui dá Judas Apostolu traidoregárren  
desdicha. Alá naiz Chr(ist)ioa paratudén Jang(oicoar)en gra(ci)an,  
cer valiocodió, ezpádu iraute(n)? *In circuitu impii ambulat.* Ingúr  
ingúr dabilta gaichstoac, becatutic confessorá, confessiotic becatu-  
rá. Tercianári aldaquetáric, egún miñéqui, bíarr libre; naiz sáno  
idúri, eztire sáno erreálqui. *Orrá sendatuzára, dio Jesus ónac, goárda  
erorcetic berriró, eztaquízun águi gaizquíago.* Placérdút zure mejo-  
rias, baña beldúrr dút errecaidas. Goarcecó, oná cembáit avantálla  
ta errecéta, (batzúc<sup>3</sup> barneco aldetíc, bercebatzúc cámpoco aldetíc.  
Goácen attenditus lenic barnécoac.

<sup>1</sup> *eztaquizu* eta marratxo bat -u gainetik.

<sup>2</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>3</sup> Hemen hasten den parentesia 63at., bukaeraraino ailegaten da.

1. Lembic(**ico**)a dá ezaum(**en**)tu óna fedearqui, baita au nola árguia, icustecó<sup>4</sup> onarén óna, ta gaizquiarén gaitza. Dichósoa óngui ezauncenduéna. Baña nola bacóchac baitu bere entendam(**en**)tua, yágo edo gutiágo, eta denaréquí bearrcó pássa; ala nola vista labúrrduéna valiatzenbaita beguiórdes edo anteójoes, billátus árgui, ta beirátus óngui; alá ariman ezauncécó óngui dá *escátzea árgui Jangoicoai*<sup>5</sup>, *eta pensátzea óngui gauzac*: Gure dicha gucia dagóla quadrátzea(**n**) Jang(**oico**)ai, cónta desdicha gucia egótea(**n**) berarén desgra(**ci**)an:

62at.

Jang(**oicoar**)en izátea; Jesu Chr(**ist**)orén salvácioa; Deabruarén malicia, ta bércé gañaráco eguiafedéscoac; vicigáu déla labúrr, eriótzea segúr, cóntuac guero, ta sent(**enci**)a beticos infernurá edo cerurá; eta nola itendén azároa emén, izanendéla eraicioa án. Ezaum(**en**)tu óna duénac eta pensátu óngui gauzaguébec, cer imbeárdu, baicic cuidátu zervitzátzeas Jang(**oico**)ai?

Dá ere avantálla ezaunca cértan dágon Jang(**oico**)ai zervitzátzea, engañatzenbaitire áasco, ustés dágon errézu ta devocioetán; ón dá óri ere, baña eztágo órtan sustáncia, baicic cumplitzean Jaun andiarén borond(**ate**)a. Guc cer daquigu, Jauna, cer naiduén, ezpáda mintzátzen? Mintzatudá; utzidú manifestaturic bere Fédean eta léguean. Ebéc bióc guárda constantequí, biótzas, óbras, mias. Devócioac sollic contú diréla miarén zervitzuac: Añádi biotzéscó amórea; añádi óbra ónac: añádi trabáju bearrdirénac: ezi trabajuricgábe eztaiquela zervitza, cláro dá. Cer trabáju? Precisso déngúra garaitzecó inclináció gaichstoac, vicioac, costúmbreac, passióneac, subérvia, codicia, luxúria, ta gañarácoac, baitaré múndua, Dem(**onio**)a, ta aráguia. Trabajugói dá gurutzegúra cióna Jesu Chr(**ist**)oc, *Naiduénac etórri ene atzétic, ucabedi bere buruái, arbez bere gurútzea, ta seguibenáza*. Gurutzegorréquí seguitudióte Sándu guciéc cerúra joandirénac. Claroquí ta labúrrquí: *Trabája, ez eguítécó gaizquiric, eta eguítécó óngui*. Au beráu bércé guisas: Trabája, izatecó óna persóna Jang(**oicoar**)en gustora, ez subérr vano, ez berecói, ez luxurióso, ez gulóso, ez asárre, invidióso, flóxo ajolacábe; baicic guciá cónta, humil, liberál, cásto & Ajustátus arimarén ta gorputzarén facultádeac, eta efféctoac Jang(**oicoar**)en leguearéquí. Lan andichs-

<sup>4</sup> *intellectus* ipintzen du, lerro tartean, *icustecó onarén* hitzen gainean.

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>ai</sup> dío.

coa dirúdi, baña Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)aréqui, ta usatzearéqui aisatzendá.

2. Bigárren avantálla barnetic dá borond(**at**)e óna, audá onerá<sup>6</sup> emána, ezi ala nola gorpútza izátea, ez ericórr, baicic sáno ta séndo, baita avantálla, ez eritzecó ain aisa: alá nori fortunatuzáion arima óna, mantenitucodá gra(**ci**)an aiságo, ezpáda descuidátzen; baña descuidatzenbáda, eroriaracicoute Demónioac, múnduac, ta ará-guiac: eta costumbratzenbáda gaizquirá, inendá ain gaichsto, nola edocéin: Cóntra berriz gaizqui inclinátua beregánic, daique cuidádo ta diling(**en**)ciaréqui eguin óna. Experi-

### 63

énciac batarén ta bercearén dire abásto, nola achsúri-idúriac itzulidíren ótso, úsoac otsorrái, árdi ónac haciéndabeltz, Ainguiruac Deabru: cóntra ere bai, ótsoac achsúri, otsorráiac uso & Jang(**oicoar**)en beguietáco, diot. Ortáco borondat(**ear**)en aldétic dá assentátzea erresolúcio, ta gógo firme valientebát, izáteco óna, ontará doáien becála gure itéco ta irabáci gucía betiróco. S(**an**)to Thomas Doctore Ainguiruái galdeguincio bere Arrebatátec, *Cer imbeardút*, salvatzé-co? *Nai izán*; errespond(**atuci**)ó anáia sándu chsaquintsuac, adiará-cis gucía inenduéla naiduénac gogótic: gogótic, diot, ezi alá erdicál nai bai ta ez nái, dión becala Esp(**iri**)tu sanduac flóxoas ta náguias, *vult et non vult piger*, orréc ez tú deus valio. Gucíec díote nautéla salvátu; baña ez gucíec artunái ortaráco videá. Nai beárda sínés gogó-tic. Nai falsugói dá ala nola perezosoen chsaiquináia goizetán, otz dagoláic; ea ots chsaiqui: banoáie, dió, ta gueldí. Soldado cobárdeac ére nailúque victória: baña peleatic escápa. *Anima animósoac naitu Jangoicoac*<sup>7</sup>, ció S. Theressac, eta alácoa cé bera: eta dacárr S. Pedron lancegúra, noiz aguerturic Jesus itsásoan, erranción S. Pedroc, *Jauna, ori harimbáda, manabéz noáien ni orrengána uren gáñean. Záto*, errancio Jaun div(**ino**a)c. Bazoéie sándua oñes tiesso uren gáñean, aliquetá goraturic aicebát, asitzen ondátzen urean: *Jauna*, clamatuzué órduan, *guardabenáza*. Jesus ónac arturic escutic goratuzué, erratencióla amóltsu, *fedegutitácoa, cergátic dudatudúzu?* Ontará dió Sandac, etzueála deus gáldu S. Pedroc, exponitzean urerá animóso, naiz guéro beldurtucén: ezi erresuelto proponitzenduéna flaqueatzenbáda, cer inendú eztuénac erresolucioric? *Lembicico*<sup>8</sup>

<sup>6</sup> *voluntas* ipintzen du, lerro tartean, *emána* hitzaren ganean.

<sup>7</sup> *Jang*: dío.

<sup>8</sup> *Lemb*: dío.

erresolúcio artubeardéna dá, ez séculan admititzecó becatu mortále denic, naiz gáldu gucía: *Bigarrena*<sup>9</sup>, eguítécó al gucía óngui: eta claroqui ón déna ez uztecó nióren aténcios, álques edo beldúrres. Asco mono ta mona dá lecuguebétan. Nor dire móno ta móna? Daudénac beira cer iteunten berceéc imitatzecó & Zuc beira Jang(**oico**)ai: gendeéi solam(**ent**)e, exe(**m**)plu ona ematecó.

3. Irug(**arre**)n préndá edo avantálla, irautecó ónean, izátea naturalé<sup>10</sup>, ta genio humila, ezi humild(**ade**)a dá ón guciarén ciméndu. Humilac eztú presumi, ta confiatucó bere búruas, orgátic emaindio gra(**ci**)a Jang(**oicoa**)c. Eztió nióri eguinen bearreztenic: Eztú casoric eguinen, laudadezáten, edo despreciadezáten: artucotú ontzát consējuac ta erreprehénsioac: mánsó izanendá ta modésto:

63at.

Eztú juicio gaichstoric eguinen, ez murmurátu, & Alá libratucodá anitz becatuetáic: eta béreac confessatucotú fiélqui ta humilqui: Gu-ciá contra subérr presumitu vánoac &.

4. Laurg(**arre**)n préndá ta avantálla oneráco Jang(**oicoar**)en beldurrtasúna ta amórea<sup>11</sup>: bióc parazentút báteo, ezi solam(**ent**)e pénas izátea beldúrr eztá fiatzecó amoreicgábe: baña diónac amóre Jang(**oico**)ai, eta ordic offenditzeco beldúrr, beldurrbát amorósoa, filiála, edo humearéna, ori guardatucodá bera, ta guardutúco ere dú Jang(**oicoa**)c. Eztiót dirénes beldúrri mu(**n**)duaindáco, ez, baicic Jang(**oicoar**)én solam(**en**)te; alácoac dire animóso valiénte: Jang(**oi-co**)ai dióten beldúrr andiaréqui etzaióte deus múndu gucias; eta orréqui eztire tréve admititzerá Jang(**oicoar**)en contra denic ez aguérrian, ez secrétoan; Guciá cónta, munduarí solam(**ent**)e beira daudénec; icustenbaitúte, goárcen; ezpaitúte icústen, nolanái. Jesusen compañiarén principioteán admiratzenzé múndua icústeas guizon-gáiec ain gáste, ta ain cásto. Erréguec bein erranoméncio aietáic bái, errandidáte, aitzén, damaziéla Compañiacoec belarrbát duéna virtúte conservatzecó castid(**ade**)a. Errespond(**atuci**)ó arc, Óngui erra(**n**)dióte orren Magest(**ade**)ai, alá dá. Erréguec orduán, Cer belárr dá ori? Erranzadázu. (Rodríguez p. 2 tr. 4. c. 9) Arc, Jauna, eztá berceeric, baicic Jang(**oicoar**)en beldurtas(**un**)a.

5. Borzg(**arre**)n préndá, utziric bercebátuzuc, dá adim(**en**)tu óna, ta obediéncia Jang(**oicoar**)en inspiracioéi, especialquiró vocacioái estádo ártzean, ezi avantálla ona dá acertátzea vide ta vicimo-

<sup>9</sup> *Bigarr.*º dio.

<sup>10</sup> *indoles* ipintzen du, lerro tarteán, ta *genio* gaineán.

<sup>11</sup> *timor filialis* dio, lerro tarteán, *beldurrtasúna ta amórea* gaineán.

dugúra, ceintaráco destinatuduén bacócha bere Magest(**ade**)ac, alá nola utseguitea baita embarázu vici gucíco; ezcondubearcéna ordenatzenbáda, edo contraco aldéra; sartubearcéna Erreligióso guelditzenbáda Babiloniagóntan, edo cóntro oroát. Jauna, nola chsaquín certáco duén bacócha Jang(**oicoa**)c? Ortáco dire orácioac, penitén-ciác, limósnaç; Ortáco paratzendió inclinácoia biótzean, eta bearr-tuen taléntoac; Ortáco dá aditzea inspiráco ematentiónaç; Ortáco dire Elizan Jang(**oicoar**)en guizónac consejatzecó. Baña icusiric yá cembáit prénda convénidirenac Jang(**oicoar**)en zervitzucó arimain barneco aldetíc, icusquigun yá imbeartugúnac gueuren aldetíc. At-téndi óngui, ezi óngui cumplitzean dagóque salvácea. Oná cembáit errecéta especiále, mantenitzeco perserveráncia.)

## 64

1. Lembic(**ic**)o errecéta da Orácoia, audá escátzea Jang(**oico**)ai, ingaituénac guizón, ingaitzála ón. Yago dá izátea ón, ezi guizón: eta bada ezin eguingára gueuroc guizón, ain guti eguinengára ón, ezpa-gaitu eguiten gucién eguinzáleac. *Sine me nihil potestis*, ció Jesu Chr(**ist**)oc, *nigábe deus ezdezaquéze; ala nola zarménduac ayenagábe ezpaitezáque emán fruituric beregánic, alá zuéc ere ez nigábe*. Aguián dezáque béguiac icúsi arguircgábe? edo gorpútza vici, atsic artugá-be? Ain guti arima Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)agábe. Principálqui castidádeas dió chsaquintsuac: (Sap. 8) *Scivi quod non possum esse continens, nisi Deus det*, Desengañaturic nágo, eznaiquela izán cásto, ezpáda emánes Jang(**oico**)ac. *Guizón desdichátua ni!* ció S. Pabloc, *Nor*<sup>12</sup> *libratuconáu gorputz eriotzocogóntaic?* Errespondatzendú, *Jangoicoaren*<sup>13</sup> *graciac*<sup>14</sup> *Jesu Christo*<sup>15</sup> *déla medio*. Orgátic dá precisso dióna errefránac, *Déi Jaincoari*<sup>16</sup>, *ta euchi cabicoari*: Naidu errán, esca Jang(**oico**)ai, ta eguin bere aldetíc. Cláma biotz bárnean, be-réchsqui tentacio-dembóran, ô ene Jauna, Jesúsen izénean pobregóni limósma. Ô Jesus, naibádu, banazáque guardátu, banazáque sendátu, sendótu, sandútu, salvátu. Ô Jesus, biz enetáco Jesus. Eta orrá báteo eracutsiric devócio gucién obéna, au dá, Jesus onari, déla bere gurú-tzean, déla bere sacram(**en**)tuan: Otamengonéqui, ta palogarréqui daique pássa viagegáu segurqui. Eta nón dá M(**ari**)a Santissima?<sup>17</sup>

<sup>12</sup> Hola dago *nor*, eta ez *norc*.

<sup>13</sup> *Jang*.<sup>ca</sup> dago.

<sup>14</sup> *graac* dago eta laburgailua.

<sup>15</sup> *Chro* dio.

<sup>16</sup> *Jaincoari* dio, lehenbizi -g- idatzi duelarik -c- egin beharrean.

<sup>17</sup> *SSma* dio.

Amazázu Ama becála; Errán, ô Ama, ô Jang(**oicoar**)en Ama, ta nere Ama mostrabéz déla Ama. Eta zeure Ainguiru goardiácoas atzen-ducozára eztelari atzentzén béra zútas? Nolanái obedá oráció eguitea nola biótzac ematendión bacóchai; baña naibauzu, oná oracio-bát, cein errateagátic concedituzuén Pio VI Aita S(**andua**)c ánitz indulg(**enci**)a: *Jangoicoarén Ainguiru óna, nere guárdian dagóna; Bada berarén piedádes orren cargurá nágo ní, Argui ta quidabenáza, guárda ta governabenáza orai ta betí. Amen. Alabér diót, bérece Sanduéis escátzeas. Orái oracioarén aizpa dá mortificácoia, ta penit(**enci**)a. Onéqui dú indárr dóble arc: eta mortificátus indire sandu indirénac. Biguebéqui juntatzenbadá misericórdia edo limósna, dú indárr erredóble: eta limósna bera dago escátzen emanzalearén favoretán, *et haec pro te exorabit ab omni malo.**

2. Bigárren errecéta conservátzeco arima gra(**ci**)an sáno ta séndó, dá érchstea arimarén echéco atári ta leioac, eztáien sárr péstea, cutsátu ta il arima. Echegói dá gorpútza: atári ta léioac ágoa, béguiac, beárrí-

64at.

ac, ta bérece sentidoac. Péstea, ceintas dágon corrompíturic mún-dua, dire gaichstaquériac, ta becátuac. *Intravit mors per fenestras nostras*, gure sentidoen leioquebetáic sarcendá eriótzea, heritzecó ta iltzecó arima: beárríes aditus, ta béguies icúsis bearretirénac. (Perdicióraco burusbéra oná non duzún grádas gráda: Lemb(**ico**)a dá icústea edo aditzea gaizqui: Oni darráio gogorátzea: Oni darráio gústo emátea: oni consentitzea biótzean: oni eguitea gaizqui: oni costumbrátzea: oni gogórcea edo ajolacabétzea: oni sendagállá eguitea gaichstaquérias: oni yá ezin bérece: oni desesperátzea, ta oni condenácea. Ortará ellegatzendá passatugábe aimbérece gráda, bulcatzenduéla Jang(**oicoa**)c becatária infernú-ra, noiz naiduén: baña perdicioarén assiéra dá comunquiró aditzea edo icustea gaizqui. Origábe ere badú beregánic bacóchac ásko gaitz, cer izanendá añaditus campotic? Nola doáz gáldus gastéftoac? errepára. Naiduénac goardátu arima gra(**ci**)an, guárda béguiac, beárríac, ágoa & ezperén, apestatucodá bein edo bein.

3. Irug(**arre**)n errecéta quéntzea suari sucáiac, naut errán, apárta cêbo, vide, ta ocásio gaichstoetáic. Ez fía erránes, au eztá mortále; berceéc ere iteunte; guciéc naute arima; eztá beárr escrupuloic; ta alaco achéquiac. Nor fiatzendén yágo, erorcendá lasterrágo. Nor dén beldúrr, goarcendá. Diversioac biz decénte honrátuac neurri-



tuac bere módu, garái, lécu, ta circust(**anci**)a<sup>18</sup> guciétan. Ah cein aisa dén irristátzea, ta passátzea mugatic? Conventuetára erretirá-tzendirénac, ta orcitzen becála viciríc, alaére daude beldúrrac offenditu Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)a: Eta divérsio ta ocasioen érdian múndu zabalgórtan aitucotúcie erráten eztutéla iten becatúric. Milágro, itsutasunarén milágro! Ebetáic dá abásto oraico dembóran. *Fugite de medio Babylonis, et salvet unusquisque animam suam*, Igués igués eguin Babiloniatic, eta salvabéz norc bere arima. Principálqui apárta lagún gaichstoetáic, ezi apegatzendá malicia aiságo ezi sárna; eta aiságo bátec cutsatucotó amárr ón, ezi amárr ónec óndu gaichstobát. Eztaiquélaic vici adisquideric edo lagunicgábe, autátu obénfioac, naibauzu izán ona, ezi psalm. 17 dió, *cum sancto sanctus eris*, sanduaréqui sándu izanenzára, *et cum perverso pervertéris*, ta gaichstoaréqui gaichstatucozára; eta erdarásco Errefránac ere dió, dime con quien andas, y diréte quien eres, erranzadázu noréqui zabilzan,

## 65

ta erranendizut nor zarén. Principalquiágo castid(**ade**)a guardatze-có, apárta al gucián guizónquiác emastequietáic, emastéquiác guizonquietáic, naiz errán naiduénac naiduéna; experiénciac dezáque desengaña: passiónea dá sobra, eta Deábrua eztágo ló. Evang(**eli**)o laburrbat dá errefrán antiguáscoa, baitio alá: Guizónquia dá súa, emastéquia istúpa: Eldudá Deabrúa, ta asténda fúca, fúca.

4. Laurg(**arre**)n errecéta dá peléan becála egótea contino bacócha bere passioneén cóntra, ezperén contentatzenbagára solam(**en**)te goardátus campoco ocásio ta ceboetáic, *litzáque ori*, dio S. Thersac, (cam. perf. c. 10) *ala nola joátea ló eguiterá, erchiric óngui atáriac ladrónen beldúrrac, ustentuelaric echebárnean*. Ladronic gaichstoénac dire gueuren passióne p(**ro**)prioac, ta condicio gaichstoac. Dá precisso cóntra errepugnátzen beti vicitzea, ta centinélan. Errepára cértan yágo dén tentátua bát; eta prevenitu propósito ónen ármes egunóro; goártu escaida direnetáco lendanic; eta láncean eguin téma, ez ustecó garaidézan passióneac. Bat tentatzendú yago irac: ots, errán bere buruái, egún eztút asarratubeárr; eta ocásioan detenitu cólera, lótu mia & Bercebát tentatzendú yago luxúriac: ots, errán, eztút bada admititubeárr deus castidad(**ear**)en cóntra: eta bearrórduan erresisti fuérte, éasca favóre Jang(**oico**)ai & Arc dú inclináció iduritzerá óngui munduái vanidádes, errán, ez bada eztút im-

<sup>18</sup> *circust.*º dio, beraz *circustancia*, eta ez *circunstancia*.

beárr casoric, baicic quadrátzeas Jang(**oico**)ai. Bercebátec dú bolsa érchi, biótza chsimúrr ta gogórr codicias: errán, goardatubearnáiz apegadaquidan bercerén ondasunic, imbeaut limósna & Eta alá gañarácoes. Eta alá gúti gúti doáque emendátus, ta óndus persóna: eta principioan nequetancará zaióna guero costumbrátus ine(**n**)záio aisa. Ô erremédio andia dá au, eta onéqui sollic onduleique persóna: Baña ajolacabeendáco ezta ondasunic, ez arimaren, ez gorputzarén, eztaré erremedioric.

5. Borzg(**arre**)n errecéta oroitzea ta pensátzea óngui Novissimoac, eta gañaráco Eguiafedéscoac, ezi *pensatufáltas dágo galduric mündu gucia*, dio Jeremias Prof(**eta**)c (c. 12) eta Novissimo edo guizonarén azquénen gain dio Ecclesiasticoac (7) *Oroizaitze zeure Novissimoes, eta séculan ezúzu becuric eguínén*. Eta ciérto presénte iduquibaguindez eriótzea passatubear dug(**ul**)a dembóra gutirén bårnean: juicioa, nón cóntuac ártu, ta emanendigun Jang(**oicoa**)c sent(**enci**)a óbren confórme beticos:

65at.

guéro inférnu edo glória etérnoa ain diferénte; báta gózos bétea, bécea péna érrues, eta biétaic bátera beárr, nola vicigáren orái; nola litzáque possible gaizqui vicítzea? Oroát diót pensátzeas Jang(**oic**)o andiarén podóre, justicia, ta gañaráco grandézac. Oroát Jesu Chr(**is-t**)orén óngui eguínac, especiálqui bere pássioa ta eriótzea considerátzeas. Eguiguébec gucióc uztendire atzencerá; ordic datorr guizónen perdicioa. Cóntra berriz oién óngui considerátzea beti izánda ta izanénda fréno ta erremédio ándia.

6. Seigárren errezéta óngui aditzea ta maiz Jang(**oicoar**)en itza. Óngui aditzea, diót, icasináies, provechatunáies aténcio ta devocióréqui, ez curiosidádes floxoqui desaténto ta nolanái. Maiz alabér, ezi egún ezpáda, bérece egunbátes dezóque uquítu biótza, eta mantenitu fervóre artuzuéna. Badezáque Jang(**oicoa**)c óndu, ta ónean mantenitu naiduéna predicuricgábe oroát, éguia dá, moguitus bere éscus biótza onéra, ta ori dá predicuric obéna; baña comunquiró valiatzendá bere Ministroen mies eta vózes, convertitzéco géndeac: Orgátic aién itza deitzendá Jang(**oicoar**)en itza, eta alá aditubeárda. Ontará urbiltzendá leitzea libru ónac, ezi ebén leitzerácoan contú mintzatzendígula guri Jang(**oicoa**)c, nola oráció iterácoan guc mintzatzendiógun Jang(**oico**)ai. Baña eztaquigúnec leitzen nola inendúgu? Albadaique, errán becála, aditu bercebát leidezána, edo Predicária, baita obeágo, ezi orgátic Predicariain vóza deitzendá vóza vicía, leituaréna cóntra voza ila. Zuén librua bada biz sacerdotearén mia.

Bérce librubát ere badáquit, ceintan dezáquen leitu ta entendátu nornáiec istántean. Librugáu dá Jesus gurucificatuare(n) imágina: létra cláro edérrac bére llágac: Cer létra dire? A, amorésco létrac dioténac, guizonéi Jang(oic)o guizónac digun amórea. Ori berói da-goquigu predicátzen figúra guciac, bulárta idiquiric, búrua inclinaric, bésoac zabalduiric, oñac josiric &

7. Zazpig(arre)n errecéta óngui ta maiz confessa comecátzea; ezi sacram(en)tuguébec dire, nola Jesúsen odól preciosoarén virtútes arimen bálsamo, gra(ci)arén ta salvacioarén instrum(en)tu ta canále. Precissoágo dá confessiocoa, ceñec doaienái gra(ci)an aum(en)ta-zendíó gra(ci)a, ta desgra(ci)an dagóna paratzendú gra(ci)an,

## 66

confessatzenbáda óngui: Guciá Jesus onarén cóstus eta merejim(en)-tus. Ongui órdea imbédi langói, ez ceremónia-útses, ez costúmbres, ez achsal achsála, edo epél epéla, baicic aldióro ánsia berriaréqui penaturic gaizquias ta ondunáies. Confessátzen eztirénac, baicic beránt ta ezin béreacas, izátea ónac litzáque milagroguisabát; aién gaichsto izátea eztá milagro: baña maiz medianoqui confessátzea, ta ain guti óntzea cértan dagóque? Dá ere convéni seguitzea Confesso-rebatéqui gueién común, balitz bearrbecalácoa, declarátus ez solam(en)te cúlpa mortálac, ori baita precisso, baitaré causac, zañac, condicioac, ocásioac, ala nola heri naiduénac sinés onguitu, Doctorea informatzenduén guciéas. Dá ere medio óna erreparátzea egunóro bere conc(ienci)a, Jang(oico)ai confessátzea, barcácio escátzea, contriciósco áctoac eguitea, eta bere buruai penit(enci)ac parátzea, ala nola, itenbádu gaizquigáu edo ura, utzibearduéla chocolátea edo árdoa, egonbearduéla belaurico, edo auspésca, edo bésoac zabalduiric gurutzearén fórman aimbérce dembóras, edo emanbearduéla limósngáu, edo ucátu diversioadura &

8. Zorzig(arre)n ta azquén errecéta, ez yago luzatze có, dá vici-tzarén erlójua óngui arreglaturic. Cer erlójú diót? Egúnac, ásteac, ilabéteac, úrteac ordenátzea óngui assentátus berebaitan, cer im-bearduén egunóro, asteóro & Bacóchac bere estado ta vicimoduaren ariorá dezáque dispóni, nola záion obéqui, devócios, diót, ezi obligacióscoac erratentió Jang(oicoar)en légueac. Naibauzu arreglátu erlójua nic dioténas, oná egunorócoa. Goicean idatzárrí ordúca, emán graciac Jang(oico)ai, cerén ellegatuduén viciric egungartára: escátu barcacio offéndituas: offrátu bere persóna, arima, ta gorpú-tza, obra, itz, affécto, ta gauza guciac berarén zervituzán: In propo-sitioac goarceco, eta escátu gra(ci)a. Naibauzu, erréza irur Aita gure

Trintate Jaunari, irur ave **M(ari)**a Ama Virginai: Aita gure ta ave **M(ari)**a bat Ainguiru guardiacoi. S. Viz(**ent**)e Ferr(**ere**)c encargatzendú errátea Credoa goizóro espaciorequi. Bentzáit ez atzén árceas ur bedeicátu, ta armátzeas gurutzearén señalearequi: Eta belau-nac frincaturic lurreán, búrua curturic auspésca eguin agúrr andibát Jang(**oico**)ai, Jauna, bida bere bedeicioa.

66at.

Orrá lemb(**icic**)o oróna goizeróco. Egunásco, echétic atrátzean santiguátu Aitaren ta Semearén ta Esp(**iri**)tu Sand(**uar**)en izénean. amen. Oroát edocéin lánen ástean, eta ofrátu; Jauna, biz orren gloriatán. Otrónce orduetán bere bedeicioa ta gra(**ci**)ac. Egún gucián Jang(**oicoar**)en preséncia; eta noizean noiz án bere biótzean goraintzirenbátzuc, au da, affécto onbátzuc: yá dióla, Jauna, nic amatzendút & yá, Jauna, oroibédi nitas: yá, Jauna, nor litzáquen orréna! yá, Jauna, Damudút offend(**itu**)as, barcabez(ad)a &

Arratsoróco cein edérr litzáquen erregalátzea Ama Virg(**in**)ai lore ta arrósas coronabát? Orichsedá Errosárioa. Guéro etzitecó, bidanábarr bada ére, beiraldibát concienc(**i**)ai yá nola passatúden egúna: Eguin contriciosco actobát: errán Credoa & Adorátu auspésca Jang(**oicoar**)en Mag(**estade**)a copéta curturic lurreráño, ur bedeicátus ceñátu bera, ta botátu goacearén ingúruan, encomend(**at**)u Jang(**oico**)ai, Ama Virg(in)ai, Aing(**uiru**)ai. Orrá arratseco oróna.

Asteóro Jang(**oicoa**)c beretáco berechsidú egunbát, deitzend(**en**)a Jaunaren egúna igándeá egún andia; Dá oblig(**aci**)o ta arráccio, ta provéchu empleátzea Jang(**oicoar**)en gauzetán: Meza señalatudú oblig(**aci**)os Elizac, baña gañaráco santificáccioa dióna Jang(**oicoa**)c, señalatubeardió bacóchai Jang(**oicoar**)en amóreac, ta bere arimarénac. Aditzea Jang(**oicoar**)en itza, balitz escaida, litzáque choil ón; guéro devócio p(**ro**)prioac, eta limósnac: Baña bentzait goardátzea becatuetáic nioiz baño yago. Baña aláco manéran corrompitudá jáien celebráccioa, ezi nioiz baño yágo offenditzendá Jang(**oico**)a jaie-tán, obebailitzáque, asteregún balire. Eta orgátic datózi plágac, calamid(**ade**)ac, úrte gaichstoac, cerén Jang(**oicoar**)én jáiac itzulidiren Deabruare(**n**) fésta, baitio Jang(**oico**)c asarraturic, *proficiam in faciem vobis stercus sollemnitate vestrarum* (Mahach. 2) Botacodiziet aurpeguirá zeuren jáien ongárrri corrompitu urrintzua. Eztá ponderracioric gaizgónen.

Ilóro litzáque ón concienciarén lichsua aldibát confessátus ta comecátus devociorequi, ala nola bataiabalédi bat Jesúsén odólas, as-

tecó berri berritán. Urteóro cein ón litzáquen urtegucico garbialdi-  
bát? Orái bildus errecétac memoriatáco: 1.<sup>a</sup> Oracioa. 2.<sup>a</sup> Sentidoen  
goardátzea. 3.<sup>a</sup> Erretiroa ceboetaic. 4.<sup>a</sup> Peléa passioneén cóntro. 5.<sup>a</sup>  
Pensátzea Novissim(**oet**)an. 6.<sup>a</sup> Aditzea Jang(**oicoar**)en itza. 7.<sup>a</sup> Con-  
fessa Comecátzea. 8.<sup>a</sup> Dembórain erlójua azquén orduráño, gloria-  
ráño.

## Sermo in Dominica Secunda post Pascha

*De Jesu Pastore bono.*

Ego sum Pastor bonus. Joan. 10.

Cein mánso amóltsu Jesus ónac, achsúri div(**ino**)ac dión egúngo Evang(**elio**)an, *Ni naiz Artzái ona!* Alá dá eguietafedea. Cer yágo? *Artzái ónac ematendú bere vicia bere ardiengátic.* Ori eguindú Artzái div(**ino**)ac, ez bérece anitzéc. Dió yago: *Baña alocairuagátic dabilánac, ezpaita Artzái, eztituénac árdiac béreac, icusiric ótsoa eldudéla, útzi ardiác, ta igués itendú: eta ótsoac galtzentú árdiac. Alocairucoác itendú igués, cerén alocairua naiduén, ta ez árdiac. Ni naiz Artzái óna, dió berriz ére: ta ezauncentút nere árdiac, ta ezauncennaute ni nereéc... Baitút berce arribátzuc ére, ezpaitaude saldogóntan: ayéc ere bearrrut ecárri, ta aditucoute nere voza, ta inendá saldobát, ta Artzaibát.* Orrá Evang(**elio**)a. Claro ásqui dá Jesus déla Artzái óna; bere árdiac Chr(**ist**)ioac; ardi-saldoa Eliza, baita Chr(**ist**)ioen Congregácioa. Bai, ta cergátic dió, baituéla berce arribátzuc ecarribeartuénac saldogontára? Cerén Chr(**ist**)io eztirenetán oráño baitire escogituac Ceruráco, inendirénac Chr(**ist**)io. Bai, ta cergátic dió, inendéla saldobát eta Artzaibát? Cerén anitz Artzái izánic ere an eménca, nola baitire Obispoac ta Apezaitac, baña bát paratudú gucién búru, audá Aita Sándu Romacoa, ceñen obedienciarén péan egonbeárden Chr(**ist**)ioguénde gucía: ezperén, ezlitzáque saldobát; eta Aita Sand(**uar**)en obediencian eztagóna dá Cismatico apárt saldotic. Baña naiz Aita Sándua S. Pedrorén lécuán Chr(**ist**)orén Vicario, ta berarén ordes gucién buru izanic, beti Chr(**ist**)io béra dá búru lembic(**ico**)a eztaiquéna fálda séculan. Izatecó ta irau-tecó Artzaigónen árdi gogótic ére, goácen beirátus berarén prénda cembáit, ta Avantállla. Lenic escazógun bere Ama Santissimari<sup>1</sup> gra(**ci**)a. Ave Maria.

<sup>1</sup> *SSmari* dio.

Gloriaco Principe Jauna Artzái, gauza edérr icusgárria dá. Eta bálitz solam(en)te an goiti Céruan Ainguiruen Artzái, etzé ain miragárrri: baña utziric ángo saldo ederrgúra, jautsidá gure desertugontára guizón pobréitoen Artzái. Nola dezoquégu pagátu aláco amoreá? Bai, ta non dú zamárria? Ori dá gure guizontasunarén zamárria póbreá artuzuéna bere Jangoicotasunarí unituríc: Eta óngui erorcenzáio. Beira Jang(oico)a guizón gutartéco, humano. Artzái-maquila non dú? Ori dá gurútzéa, ceñéqui garaitzen, ta botatzentuén infernuco ótsoac: baitaré zucéncen árdi erre-

67at.

bélac. Alá mostracéquio bati Artzaiarén trágean aguitz arrésti amóltsu erreclinaturíc gurutzearén páloan, ardibatzuéi eguiten óiu, fichstu bercebatzuéi. (ap. S. Theres. medit. sup. Pater n. p. 4) Cer chistu dire itentuénac? Oriéc dire inspiráció ematentuénac biotz barnerá, argúitus entendam(en)tua, incitátus borond(ate)a, amoróstus arima suavequiró. Itentú óiuac ere? Cer óiu? Sent(enci)a erratentuénac bere evang(elio)an. Aizázu oiubát: *Quid prodest homini, si mundum & Cer valiodió guizonái, irabaztenbádu ere mündu gucía, baldín galcenbádu bere arima?* Bérece oiubát: *Arcta est via & Meárr érchia dá videá daramána vicitzará, ta gutic astatzeunte. Zabála dá videá daramána perdiciorá, ta anitz doáz ordic. Aniz dire deituac, baña guti escogituac.* Berce oiubát: *Nisi paenitentiam egeritis & Ezpadúcie eguiten penitencia<sup>2</sup>, gucióc galducozaráte.* Berce oiubát: *Venite ad me omnes & Atóste enegána nequetán zaráten<sup>3</sup> gucióc, eta nic favoratucodiziet.* Bercebát: *Qui vult venire post me & Berbát<sup>4</sup>: Qui ex Deo est, verba Dei audit & Sine me nihil potestis & Eta alá, yá convidátus, yá meachátus, yá consolátus, yá erreprehenditus &*

Goácen orái: eta nola cuidátzen ta acitzentú bere árdiac? Marcarituríc bataíoan béreac becála quidatzentú bere exemplu onéqui doaieláic alcinean, ta goardátzen berac bere Artzái-mutiléqui, baitire Ainguiruac ta Sacerdóteac, eta bere tzacurréqui, baitire Predicári ta Elizaguizónac; Belárr sánoac dire bére fêde, ta leguearén doctrina sandua. Óntan dugu claro, audéla ceruráco vide zuzéna, eracustenbaitu santid(ad)e gucía, eta ez permititzen gaizquiric dén chipiéna: Eta doctrina Chr(ist)ioarén confórme baguína Chr(ist)io gucióc, gu-

<sup>2</sup> penit.º dio.

<sup>3</sup> zaráte eta marratxo bat -e gainean.

<sup>4</sup> Berbát ipini du, Bercebát esan beharrean.

cióc guinázque sándu. Gure gaichsto izátea dago ez seguitzean Chr(is-t)orén doctrina. Cóntra berriz Herege ta Infiélec berén passioneés atratúste doctrina fálsuac, cein segúitus dire gaichsto. Doctrinac passioneén confórme, belárr gaichstoac venenátuac; ta oien eracustúnac ótso galgárriac. Oietáic apartarastengaitu Artzái div(ino)ac óius, eta chistus. Aitzenduéna ezta galducó secular. Baña galcendá beti bát edo berce berén cúlpas. Cer itendú? Doáie billa; yá deitus amorosoquí, ya meachátus gogorquí, yá ere maquila tirátus: Cer naut errán? Maquila de-

## 68

la gurútzea, ta gurútzea trabájuac: yá berás Artzái ónac árdi galduái tirátzea maquilas dá biáltzea trabájuac, eritasúnac, desgra(ce)ac, acorduratzecó. Cémbat áldis datózin trabajugóieac becátuen cásos? Dire nola Artzái onarén maquilucaldiac<sup>5</sup>, ta prochalágo ezi áscó predicu, itzularastecó zuzenviderá, ezdezáten gáldu ótso infernúcoec.

Cer yago itendú artzái ónac? Ártu soñetán bere ardi gáldua: audá árcea beregáin gure becátuac nola artucituen gurútzean, pagátzeco berac, ta libratzeco gú. Vicia costatucéquo gure erredimitzea; berarén costus vicigára becatárioc esperánza onaréqui salvatucogará. Cein cário costatugaizquion! Valioguindue aimbérce guc? ó Artzái óna ta onégua! Cein Artzáieac eguin eta passatudú aimbérce bere ardiengátic? Baña orduán in aimbérce, ta orái ezpádu eguiten, cer aigára? Utzizué betíco depositaturíc elizan erremédioa gure gaitz guciendáco, erremedioa bere odolarén bálsamos ta arren virtútes obratzenúéna sacram(en)tuetán. Naiduenic izán sendátua, niór ezta guelditzen sendatugábe. Barimbalégo bat ilozturíc ariman, ta urrinduric guizónen ta Deábruen becátu guciéqui béra bacarric, eta ellegalabédi penitenciacó sacram(en)turá disposicio beardenaréqui, vici ta vizcorrelique erremediogónen virtútes.

Gatz ére emateunte Arzáieac ardiéi. Ezotedú gatzic gure Artzai-gónec? Gatzbát dú Cerúcoa, gústo guciac dituéna arima ónendáco, au dá bere gorpútz ta odól precíósoa ematendigúna aldaréco máiean. *Quis loquetur potentias Domini?* exclamatzendú arrituric S. Juan Chrysost(omo)c. Cein artzáieac sustentatzentú bere gorpútz ta odolaréqui bere árdiac? Ó Artzái amánteá, cein maite tuén bere árdiac? Baña cergátic alá alchaturic? Ori ere gure onnáies, ezcaitzan lotsátu bere Magest(ade)ac eta gloriac. Baña ez icustearéqui gucié-

---

<sup>5</sup> Lehenbizi *maquilugaldiac* idatzi du, eta gero *-c-* ipini du, lerro tartean, *-g-* grafemaren gainean, grafema ezabatu gabe.



nec caso guti itenbaitúte? Alá dá berén fáltas; sinestabezáte ain cierto nola icusbalezáte, ezi vista baño ere seguroágo dá Jang(oicoar)en itza. Baña obéqui sinestalezáquete, icusbaledi? Ó nola eztaquigun cer zaigu(n) convéni! Icusbalédi, nola ni becalacobát leique atrévi ellegatzerá? dío S. Teresac. Baña icusgábe sinésta, ezi ain erreálqui nola Céruan, dágo sacram(en)tuan. Cer naidu? Seguitu bere Artzaingoan, vizcórrtu bere árdiac, eri daudeláic; consolátu, triste daudeláic: beártsu diréláic, erremediátu; ta itzbátes er-

68at.

ratecó, salvátu. Orgátic dágo án contino; orgátic sacrificacendá egunóro; orgátic ustendá játera naidúgun aldióro comunicátus, besar-cátus, erregalátus gure arima miragarriró. Amóre dú ta podóre; indezáque ta naidu eguín guciá gure onagátic. Ó ezaunbaguidez dúgun ondasúna sacram(en)tuan! Ezauncenduténece amatzendúte, ta amatzenduténece progatzendúte gloria-guisabát mundugóntan, ta gueróco gloriaráco prénda. Amátzen, ta clamatzendúte, ô Jesus, ô Artzái óna, ez útzi galcerá bere ardigáu. Errespond(atucod)u, *confia, ni naiz, etzaistela lótsa. Maite tút maite nauténac; eztitut utzico.*

Ardiac imbearduéna ere badió Evang(elio)an: *et cognoscunt me meae*, ezau(n)tzea bere Artzái óna. Nola? Sinestátus, esperátus, ta amátus. Cer yago? *Vocem meam audiunt*, Aditzea berarén voza. Nola? obeditus ta cu(m)plitus berarén erránac. Alá eztigu ozcaric eguinén ótso infernúcoac; Eztió utzico gure Artzái ónac. *Zoáste*, ció Jaun div(inoa)c Apostoluéi, *nic bialcenzaiztet ala nola árdiac otsoen érdian*: ótso Deábruac, ótso herégeac ta infielac: ótso génde gálduac eta galzáleac: ótsos inguraturic Apostolu póbrea, ta oroát Chr(ist)io fielac! Cer dá guero? *Ecce ego vobiscum sum*, dío Artzái poderóso ta amorósoac, *oná ni nago zuéqui*. Norc ere indezóque duénai aláco favórea? Pausubát omendá lázqui peligrósoa, non juntatzendiren anitz ótso arribátén cónta. Cer pausu dá ori? Eriótzeco tráncea. Ó artzái óna, cer izanendá ene arimas trancegártan aimbérce ótsoen értean? Etzé atzéndu ordenáceas erremedioac, seguráceco despeida mundutic eternidaderát, confessioa comuniónea deitzenbaita orgatic Viatico, ta olio sandua, baitaré bere gurutzearén máquila, desterrátzeco ótso guciac, de man(er)a ezi errandezáquen Davidequi arimac, *etsi ambulavero in medio* & Naiz nágon eriotzearén ilumbearén érdian, eztút gaitzen beldurríc, cerén beróri baitágo neréqui. *Virga tua et baculus tuus* & Orren barac, ta orren paloac consolatzennaute. *Parasti in conspectu meo mensam* & Paratudú enetáco maibát contráριο gucién cónta. Ó Jesus, biz enetáco Jesus. amen. ps. 22.

## Sermo in Dominica Tertia post Pascha

*De modico labore pro aeternâ vitâ.*

Modicum, et jam non videbitis me, & Joan. 16.

Egúngo Evang(elio)an contatzentú S. Juánec, bereíi Jesús ónac errancitióten itzac azquen afariarén póstrean, despeidan becála, *modicum et jam & Orái gutibát, eta yá eznauzie icusico; eta berriz gutibát, ta icusiconauzie, cerén bainoáie ene Aitagána*. Etzutéla entendátu, dió, cer adiaracinaizuen itzgoiéqui, ta explicatuzuéla Jaun div(ino)ac alá: *sin sinés diót, péna ta nigárr izainduziéla zuéc, baña múnduac placér; zuéc órdea tristatucoszaráte: baña zuén tristúrâ itzulicodá gozótán*. (Penadú emastéquiác erdibeardueláic, cerén ellegatudén bere órdua, baña libratuasguerós & videsis in Evangelio) Gutibatgúra déla, dió S. Agustinec, dembóra guciáu, noiz doáien nola voládan eméngo vicitza, ceñen trabájuen ondoréco offrecitzendióte Apostoluéi ta ón guciéi gloriaco gózo andiac, ción becála S. Pabloc, (2 Cor. 4) *gure trabaju pichsca momentubatecogóni<sup>1</sup> darráio gloria-montio eternobát Céruan*: animagaitzengátic trabajaterá gutibát orái emén Jang(oicoar)en ta gueuren arimen amóres. Adiarásteco óngui, billazágun gra(ci)a, salutátus Maria Santissima<sup>2</sup>. Ave M(ari)a.

Merejidú explicátzea óngui Evang(eli)ogóne, ezi entendátus óngui dacárr vicitza seculácoa; ta cóntra macúrr entendátus, atradezáque bere perdicioa duénac ajóla gúti guerócoas, oraicoanáies sollic; ustés násqui ezi oraico vicigóntan Jang(oico)arénac triste nequetán izaindíren gucís, ta mundúcoac gucís aisa gozóso alégre, náiz guéro cóntra. Goácen bada zuzén entendátus (baña<sup>3</sup> léna lén; audá, gutibát, ez lúce, bai labúrr déla eméngo viciarén plázoa, déla onen, dela gaichstoendáco. Báña edáturic ére naiadíña, cer dá eternidad(ear)en

<sup>1</sup> *momtu* dio.

<sup>2</sup> *SSma* dio.

<sup>3</sup> Parentesi hau 69at., 2. paragraforaino ailegutzen da.

áldean? nola ur tantabát itsasoarén áldean. Joandirenéi yá eméngoa idurizaióte passatudéla nola istupa pichscabáten gárria, nola oñas-turbát, nola béguien erchi idiquibát, nola ez deusbát.

69at.

Bai ta cein guti segúro dén vicitzendengói ére? Eztá cer galdeguín nóndic datórrquen eriótzea, baicic nóndic ezatórrquen: goititíc be-ititíc, alde guciétaic, barnetic eta campotíc, béros, ótzes, ján edánes, eta gábes, milla módus daique eróri gure autséscó echegáu, baita eriotzearén cáfia, ta auchi gure viciarén arigáu ain auchscórria. Orgátic érdiac cási doáz aurr, bercebátzuc gáste ta adin ónean: eta baco-chbátzuen irautea nola dirauten, da Jang(**oicoar**)en milágro-iduribát, eta yágo, barimbadire becatári, *delaric becátua erioarén acúlloa*, diónes S. Pabloc: *stimulus mortis peccatum est* (1 Cor. 15.) Eta becatári-motabátzues dió Davídec, (ps. 54) *eztiréla ellegatuco beren egúnen erdiétara*. Errán comúna ére dá, *goaponáiac, ta árdo ónac irauteuntéla guti*. Fedeac ére ta arrácioac berac ematéndu, ezi gaudeláic Jang(**oicoar**)en ménean, ta berarén escutíc dilindacá becála ári meebatéqui, alaére ez ústen erórcera bere offendizálea, beira dén milagro-guisabát! Orgátic daudeláic áscó zóro zóroa, ustés dágon urrúti eriótzea, dagoquióte atárian barrónde, ta ematendióte petárdo betícos. Alá Evangelioaco abratsgárri, cególaic & *Stulte, hac nocte & Luc. 12.*

Icusiríc viciarén deus gutía, icuságun icústeco yágo duéna, baita bigárren) dióna Jesús ónac, *mundus autem gaudebit & mundúcoac gozóso, baña zuéc triste nequepenatán emén*. Jauna, ain vici triste, néque penáscoa beaute eramán orrén zervitzucóec, ta ain gózos gústoscoa munducoéc? Ezcaitzela engáña gaizqui entendátus. Eguia déna dá, alá ónec, nola gaichstoec baitustéla berén pénac, ta berén gústoac, norc bere guisa, cóntra. Gaichstoec gústo gaichstoac, fál-suac, galgárriac: Ónec gústo ónac eguiáscoac prochugárriac. Gaichstoec néque-pénac Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)an ta iran; ónec Jang(**oicoar**)en amórean ta gra(**ci**)an: Gaichstoec consólu egui-

70

ascoricgábe; cerén ezi noréqui edo ceréqui daique consóla daucána Jang(**oico**)a asárre bere cóntra? Ónec consólu onaréqui, dutéla Jesus lagún, ta favóre Jang(**oico**)a. Gaichstoen néque pénac nola asiéra inférnuan izaintuténen, ezipadire óncen: Ónen trabájuac nola purgató-

rio, passátzeco Cerúra. Entenda bada orái errána, *munducoac gozóso*, au dá, guezúrres berén caltetán; *baña zuéc triste neque penas* zeuren onetán, au dá, mundúcoen gústo falsuricgábe. Baña guciendáco izainda trabaju ónes edo gaitzes. (Aizágun<sup>4</sup> David, (ps. 74) *Calix in manu Domini, Jaunarén éscuan cáliza*. Cálizan adiarastendá trabáju, edo pena passarastenduéna. Ala ció Jesus ónac pássio-alcinean, *ene Aitac brindatzendidan cáliza edo trágoa eztút passatubeárr?* Bada *Jaunarén éscuan cáliza; Vini meri, árdo púros*, au dá, justicia-útses; *plenus misto, alaére béteric násis*, cerén ánitx género péna dén. *Et inclinavit ex hoc in hoc, eta saiestendú onát arát*, aldebaterá bercherà, audá báti urrupabát passarastendió, bercebáti bercebát; oni necessari-**(ade)**a, arri eritasúna & *Verumtamen faex eius non est exinanita, baña eztá ústu ondárr gucía; bibent omnes peccatores terrae, passatubeaute lurréco becatáric* ondarreráño, au dá, emén ássi penátzen, ta ségui eternid**(ade)**an. Hic compara poenas poenis, gaudia gaudiis, quanto excellant &)

Baña nóndic ta nóla dén mundúcoen gózoa emén, ta jústoen neque-pénac, icuságun oráño: Borz motivos edo modus dire jústoen trabájuac eta pénac: 1.<sup>a</sup> Peregrino ausénte Jang**(oico)**agánic egóteas desterrugóntan, ezin icústeas berarén aurpégua; icusterá ellegatuco-diren ezotediren arrichscoas; ta echaquiteas segurqui, dauden edo eztauden, iraunendúten edo eztúten Jang**(oicoar)**en gra**(ci)**an. Eztá motivo jústoá orí, izáteco péna duénac fede ta ezaum**(en)**tu óna? *Ay nitas*, cio Davidec, (ps. 119) *luzatubaita ene destérrua!* (ps. 41) *Ene susténtua gau ta egún negárria, aipatzearéqui, non dá zure Jangoicoa?* Berarén náies egárriac dágo ene arima, noiz ellegatuconáiz icustérra? Edo ellegatucootenáiz? Gaizgóntas éri cégo S. Teressa, cantace**(n)**zué-

70at.

laic péna amorosobatéqui; *Vicinaiz ta ez enebaitan; Ta aláco viciaín beira nago, Ezi ez iltzeas iltzen nago*. 2.<sup>n</sup> péna dúte Jesúsén pénes ta pássio passatuzuénas. Oh cer negárrac ichsurcentúten órtas arima nobleéc! Aláco negárren cásos itsutuzé S. Fran**(cis)**co Assis. 3.<sup>n</sup> péna dúte berén cúlpe, ta bercherànes, beirátus ain gaizqui offendituric Jang**(oicoar)**en Magest**(ade)**a berén caltetán. Jang**(oic)**o óna offendituric, ta offendizalea galduric. 4.<sup>n</sup> péna ta néquea béti egótea peléan tentácoen cónta, errepugnátzen béti passioneí, ez admititzéco béñere gustoric ta gauzaric leguearén cónta: beti equines bere

<sup>4</sup> Parentesi hau paragrafoaren bukaeraraino da ailegatzen.

buruái bórcha, beti penit(**enci**)a. Orichse dá gurútze eramanbeauté-na joannauténe Cerúra, ta daramaténa jústoec gogótic Jang(**oicoar**)én amóres. 5.<sup>n</sup> péna, gañaráco eméngo trabáju comúnes lándara, izátea perseguituac munduagánic Jesús onarén guisará, ezi *ni perseguitubanaute, zuéc ere perseguituozaitze*, ció Jaun div(**ino**)c, eta S. Pabloc: *Christo*<sup>5</sup> *Jesúsen confórme vicinaidúten guciéc passatuco dúte persecúcio*. (2 Tim. 3.) Icusitúzu jústoen nequepénac?

*Mundus autèm gaudebit. Baña munducóiac gozoso*. Nondic eta nola? Guiciá cóntra eguines: Eztúte pénaic, ajólaic, ta memóriaic apénas, Jang(**oicoar**)én icusterá ellegátzeas, berarén gra(**ci**)as: Ain gúti, Jesúsén pénes: ain guti, berén cúlpe: ain gúti, errepugnátzeas passioneci. Atzendus gueién importadéna, érchis arimarén béguiac, ségui vide zabálas Deabruarén zázpi alabagáien convitac, batzuéc subérvia, codicia bercebátzuec, luxúria gueiéne, gula, ira, invidia, edo peréza guciéc; alá nolanái vicitus suélto gogoarén confórme, favorátus elcárr, ta elcárr laudátus goápo gaichstaquerietán; orrá munducóien gózoa. Baña dió bereíi Jesús ónac, *tristitia vestra vertetur in gaudium, zuén tristura itzulicodá gozotán*; orái penásco azá-roac ecarcodú alegranciásco eraicioa. Bai ta munducóien gózoa ezta itzulico tristuratán? Consig(**uien**)te dá, ta erránic ceuca lenágo, (Luc. 6.) *Ay zuétas, irri itenduziénes orái, ezi inendúcie nigárr*. Cer dióte ontára munducóiec? Ori dá

## 71

guéro, dióte; guerócoa guéro: Orái beñic bein passazágun alegrequí. Guerócoa icústeco dágo. Cer dióte ontára sánduec? Oraicoa oraicoa barimbáda nauzúna, oraico ere obeduzúla, óna izátea. Ónen pénac ta néqueac ez solam(**en**)te arinago, ezi gaichstoen neque penac, baitaré gustóso ta gozosoágo diréla eguiáz, ezi gaichstoen alegra(**n**)ciac: edo óna obéqui dagóla ta alegreágo bére trabájuen ta pénen értean, ezi gaichstoa múnduco gústoen érdian. Aizágun onarén privilegio ce(**m**)bait.

1.<sup>a</sup> Ónac zervitzacendiolaic Jang(**oico**)ai, ta Jang(**oico**)a deláic Nausi óna bereén amazálea, emanenbaitióte lurréco gauzetáic ére convenizaioténa. Gaichstoéi órdea cer emanendióte Deábruac onés?. 2.<sup>n</sup> privilégioa onaréna, goardátzea Jang(**oicoa**)c bere besótan becála amoróso, ez ustecó indezótén gaizquiric, eztaíen gál. Gaichstoa cóntra Jang(**oico**)agánic apárt, ta Jang(**oicoar**)en odioan, beti gálceco

<sup>5</sup> Chro dio.

arrihcscoan, Deábruac naiduéla eramán, beti beira, noiz emanen-  
záion lic(**enci**)a. 3.<sup>n</sup> privil(**egio**)a, Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)a, sú, árgui,  
consolácio, ta árimo óna ematendioténa bereéi án biotz-bárnean,  
eramatéco óngui eméngo ónac eta gaitzac; alá eztíre ondasunéqui  
vanátzen, eztá gaitzéqui ere desganátzen; permititzenbádu izandai-  
tzen perseguituac, bere Magest(**ade**)a mostratenzióte favóre, desa-  
fiáceco mündu gucía, nola S. Pabloc, *Si Deus pro me, quis contra  
me? Jangoicoa*<sup>6</sup> *ene favóre: nor ene cóntra?* Azotatzenbaitu ére bere  
Magest(**ade**)ac escubatéqui, dauzqui bercearéqui bere péchoan be-  
sárca: bere amorearén almivar gozoaréqui dulzatzentióte trabajuric  
erruénac. 4.<sup>n</sup> privil(**egio**)a virtutearéna dá izátea münduan dén on-  
dasunic andiéna, itenduéna ón arima ta persóna, por consig(**uient**)e  
amáble ta cuadráble Jang(**oicoar**)én, ta Cerúco gucién beguía(**n**).  
Bérce ondásun lurrécoec eztúte óna eguiten persóna, baicic abrafs  
bolsa ónac; honrátu famátua hónrac ta fama ónac; óngui idurítua  
idúri ónac; osásun ónac sánoa; indárrec indártsu; dignidáde ta po-  
dóre ónac Jaun ta poderóso; chsaquintásun ónac chsaquintsu, ta alá  
gañarácoec. Virtúteac sollic itédu óna persóna. (Bérce<sup>7</sup> álde emén-  
go solam(**en**)te dire, ta emén guelditzendíre bólsa, hónra, osásun,  
idúri, dignid(**ad**)e, ta bérce ondásun lurrecogóiec: Erchiordúco bé-  
guiac, acabatudá eméngo comedia-iduri-

71at,

gáu: yá gueróstic eztá ez Errégue, ez Obispo, ez Jaun, ez abrafs, ez  
deus, baicic óbren confórme iteunténa eternid(**ade**)an. Baña virtú-  
teac acompañaendú araráño, ta itendú dichóso betícos, Jang(**oico-  
ar**)en maite biotzécoa becála. Orgátic obedá virtuóso ón izátea, ezi  
Errégue poderóso abrafs ta naiden gucía: Obedá alacoricgábe vir-  
tuóso óna, naiz póbre, éri, lacerióso, desechátu, ezi abrafs fortunó-  
so, ándi, ta gucía, ón ezpáda) 5.<sup>n</sup> privil(**egio**)a conciéncia onarén óna  
ta consolagárria, naiz murmúra, naiz perségui, naiz gaizetsidezátén,  
itzulcearéqui bere barnerá, án ez icustearéqui cúlpa andiríc, pensa-  
tzearéqui Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)an dagóla, errategúra bere búruai,  
Jang(**oico**)ac maitebanáu, cer zaida gañarácoes? Eztá au consólu  
obeágo, ezi münduco guciac? Oh! baña norc dáqui, dágon Jang(**oi-  
coar**)en gra(**ci**)an? Eguia dá, *niórc eztáqui, dén digno amorearén edo  
odiorén*. Baña badire señaleac, usmatzéco: (eguitea<sup>8</sup> inála garbitze-

<sup>6</sup> *Jang.*° dio.

<sup>7</sup> Parentesia hau 71at. orrialderaino da ailegatzen.

<sup>8</sup> Parentesia orrialde honetan bertan da bukatzen.

có, examinátus, confessátus, medioac parátus: sentitzea sentimentu amorosobát, Jang(**oico**)a offendituas: vicitzea erresolvituric diligént goarcecó offénsa dén gucitíc: eguinnáia Jang(**oicoar**)en gústoá edocéin gauzatán, naiz cósta: guti iduritzea itenduén ón gucia; ta alá, dire señale ónac, seguráceco ez, confiátzeco bai, ezi badaqui fedes, *amatzenbádu bérac Jangoicoa*<sup>9</sup>, *Jangoicoac*<sup>10</sup> *ere amatzenduéla béra: Ego diligentes me diligo.*) Cóntra berríz, mortálean dagónac badaqui dagóla Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)an; nola daique alégra? Errándut nola, érchis béguiac, zóro zóroa atzéndus: Baña noizbáit inquietaracodú bere conc(**ienci**)ac; eta cer trabájuac guéro! cer beldúrrac, nequepénac, ta erchidúrac! & 6.<sup>n</sup> privil(**egio**)a ónare(**n**)<sup>11</sup> esperanzarén sánoa, Jang(**oicoa**)c maite duéla, salvatucoduéla. Baléqui au Cerúco Errevelácios, cein aisa digerilezáquen edoceintrágo, cióla, badezáquet sopórta emén; Céruan descansatuconáiz. Oráí eztúzu alacoric, etzaiten segurá ta descuida, bai beldurraiqui báteo izán esperánza óna Jang(**oicoar**)en miseric(**ordi**)an, ta Jesúsen merejim(**en**)tuan. Gaichstoec eztúte drechoric ortáco, estádo gaichstoan dauden bitárteo. Badaquite, edo beaute chsaquín, estadogórtan diréla condenátuac. Baña cer aguitzendá? Deábruac bitárteo zoratzentú esperánza fálsus: gueró con-

## 72

vertitunauteláic, betecentú beldúrr sobras, zozóbras, congójas, azquenic aguián desesperácios. 7.<sup>n</sup> privil(**egio**)a onén libertáde óna: Cer libert(**ad**)e? Ez libre lázo eguítécó nolanái edocéin gauza, ez alacoric; bai egotecó libre passioneén ta becátuen prisioneetáic; baitaré alcaizunetic, baitezaquéte átra aurpégua nonnái. Entendatzéco: Subérvo andináí vánoa dágo présó munduarén gorabéres, púntus & cer erraunte, cer erraindute? & Libre dágo humil óna, solam(**ent**)e duéla cuidádo iduritzeas óngui Jang(**oicoar**)en beguiétan. Codiciósoa dágo présó ondasúnen satartéran góseac beti ta egárriac yágo náies: Libre dágo ortáic liberála, contént, ásqui denaréqui pasacecodiña emén, ta ánsia gucia ondásun Cerucoetára. Luxuriósoa dágo présó araguiarén amóres Deabruarén lequedagórtan: Gulósoa triparén; Asárrea odioarén, ta ala gañaráco vicioén viciósoac. Libre

<sup>9</sup> Jang.<sup>a</sup> dio.

<sup>10</sup> *Jang.*<sup>c</sup> dio.

<sup>11</sup> *ónare* eta marratxo bat *-e* gainean dagoela uste dugu; lehenbizi *onén* idatzi zuelarik, gure ustez. *Ik.* 2,7. eta 8. pribilejioak.

dágo jústoá. 8.<sup>n</sup> privil(**egio**)a onéna dá, naiz aldártes indezótén irri ta desprécio múnduac, bearrórduan estimátuac baitíre, ta billátuac; nola icustendúgun sanduetán, cerén ezi éguia dá Jesusec errána, *humillacendéna izanendéla gorátua*. 9.<sup>n</sup> privil(**egio**)a, iltze preciósoa, ta comunquiró suaveagócoa: (S. Teresa Vid. c. 38. n. 4.) assisticendio-téla Jesús ónac, **M(ari)**a Santissimac<sup>12</sup>, Ainguiruac & Gaichstoac cóntra, etzioténac innái casoric Jang(**oicoar**)en deiái vician, us-tenbaititu bere Mag(**estade**)ac bearrórduan bere(**n**) etsáien escuétan. 10.<sup>n</sup> privil(**egio**)a Jaun andiarén co(**m**)municáció amorósoa bereéqui biótz bárnean Orácioan, aditzentuéla, consolátzen, ta erregalátzen miragarriró. Eta cer erraindút comuniónean Jesus onarén besárca divinogártan passatzendénas Jesus ta arima onarén ártean?. Espóso Jesús, arima Espósa! Orréc maite ni, nic berorí! Présó daucat, ta ez-tút utzico. Cer amoréscó súac! Cer consolációac! Cer alegránciac, ánsiac, afféctoa! Cer negárr gozóac! Eztá miric explicadezaqueníc. Orrá nola nión óngui jústoen negárrac gozóágo diréla ezi gaichstoen irriac eta gústoa; edo obéqui passacenduéla ónac bére néque-pénean érdian, ezi gaichstoac mu(**n**)duco gustoétan: ori vician ére: cer izainda ilcerácoan?. Eta cer eternidádean? (Exempl. Mors S. Francisci Xaverii<sup>13</sup> in tugurio comparata cum Henrici 8 in palatio. Item exempl. Divitis et Lazari. Luc. 16.) Eta bada gutibát dá oraico vici gucia, gutibatgóntan ajustagaitzen vide erchitic bárna sanduéqui penit(**enci**)a eguines, gozázeco alegrequí eternidadeco glórian. Amen.

---

<sup>12</sup> *SSmac* dio.

<sup>13</sup> *S. Franc.: Xav.* dio



## Sermo in Dominica Quarta post Pascha

*De Spiritu veritatis, et spiritu erroris.*

Cùm autèm venerit ille spiritus veritatis, docebit vos omnem veritatem. Joan. 16.

Jesus ónac consolatzecó bereác bere despeidan, mintzatuçióte amorósoqui. *Banoáie bialinauéna gana, eta zuétaic niórc eztida galdeguiten<sup>1</sup>, nora doáie? Baña cerén errandizieten au, tristúras betedá zuén biótza. Baña nic erratendiziet éguia; convenizaizie ene joátea, ezi ezpanaiz joatén, etzaizie emánen Espiritu<sup>2</sup> Sandu Consolazálea; baña joatenbanáiz, bialicodiziet nic. Cum autèm venerit & Etorcendeláic eguietafedearén espiritugúra<sup>3</sup>, eracutsicodizie eguietafede guçia. Au dá egúngo Evangel(íoar)en mámia. Óntaic dá aguéri, éguia eztagóla solam(en)te entendam(en)tuán, baitaré borondat(e)an; ez mian solam(en)te, bai vicimoduan ére; ez solam(en)te errátean, baita obrácean ere. Contra guezúrta, engañoa, errórea: De manéra ezi éguia erreála dá zuzén-videa, eguitea óngui arracioarén ta Jesusen doctrinarén cófórme, baicio, *Ni naiz videá, eguia, ta vicitza*. Cónta guezúrr obráscoa dá obrátzea gaizqui macúrr bearreztén videan, cerén alá bátec engañoen ta galcenbaitu bere búrua. (Orgatic ció Davidec, *Filii hominum, usquequò & Guizónen húmeac, noiz árteo biótza nágui? Cergátic zabilzte vanidadeen<sup>4</sup> náies, ta guezurraín átzean?* Guezurr-gáu dá gaizqui dén guçia, cerén baitacárr engañoa, ta perdicioa. Guéro confessatucoutéla gaichsto gálduec beren engañoau, dió Esp(iri)tu Sand(ua)c, (Sap. 5.) ta erraindutéla, *ergò erravimus á viá veritatis*. Berás utsinguidue eguiarén videá. Necátu gaichstaquérien videas, ta ez icási Jang(oicoar)en videá.) Desengañoceco bada, dembóra délaic, dió Jesús ónac bialicoduéla esp(iri)tu sandua, Jang(oi-*

<sup>1</sup> *galdeguite* eta marratxo bat -e gáinean.

<sup>2</sup> *Esptu* eta laburgailua.

<sup>3</sup> *esptugúra* eta laburgailua.

<sup>4</sup> *vanidad.*<sup>en</sup> dio.

**coar**)en esp(**iri**)tua, eracustenduéna éguia gucía Deabruare(**n**) contra, cein baita guezúrreren ta engáñuen Aita: Nola erranbalióte bereéi Jesus onac, nic eracutsidúten gucía itzes ta obras, eracutsicodizie Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuac zeuren biótz bárnean arguítus entendam(**en**)tua, onerá inclinátus borond(**ate**)a; nola Deabruac gaichstoéi inspiratzendioten gaizquia ilúndus entendam(**en**)tua, macúrrtus borond(**ate**)a. Eztáien bada aguítu vicitzea engáñuan, ta óbra fálstuan egúitea, goácen aguérntus egún Jang(**oicoar**)en espi(**iri**)tuac eracustentuen éguia cembáit, ta Deabr(**uar**)en sp(**iri**)tuac<sup>5</sup> inspiratzentuen cembáit falsedáde. Bilazágun argui salutatus M(**ari**)a. Ave M(**ari**)a.

Jang(**oicoar**)én esp(**iri**)tuac datorreláic eracutsicodizie éguia gucía, dió Jesus ónac. Fédea, baita sinestátzea icusigábe, dá ón gucién ta salvacioarén principio,

### 73

zain, ta ciméndu: augábe eztá salvacioríc, ezeta esperanzaric ére: fedearéqui bai obrátus gañaráco manatuduéna Jang(**oicoa**)c ellegatzendá guizóna Cerúra. Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tua dá eracutsituéna Credoan, Evang(**elio**)an, ta Escrit(**ur**)a sagrátuan dauden éguia guciac, sinestáceco proponitzentigúnac Elizac, cein baita Eguiarén colúmna, ta firmam(**en**)tua. Esp(**iri**)tu divinogúra bera dá Jang(**oic**)oas dagonái inspiracendióna biótzea(**n**) sinéstea gogotíc, aisa, ciérto, ta firmeágo, ezi icusbalézqui béguis, icústeneztituen éguiac, cerén affirmatubaititu Jang(**oicoa**)c, ta alá dión Elizac. Asqui dá, erratendú Christio ónac, ásqui dá Jang(**oicoar**)en itza, naiz ezin enténda gucía neure buruchsólac. Cembatenás gutiágo entendaceunten, yago sinestacendút, ció S. Theressac. Cóntra berriz Deábrua dá inspiracentioténa bere guisaco subervo presumituéi heregiac, embústeac, dúdac, ta gorabérac. *Filii hominum, usquequo* & Guizónen húmeac, noiz ártéo póbre ta subérvo? Cergátic nauzie, utziríc Jang(**oicoar**)en videá, ibili pensátzen vanidádeac ta guezúrrac zeure(**n**) buruetán?

Fedearén atzétic datorr esperánza, au dá esperátzea gloria Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)aren medios ta gueure óbra ónen médios; Eta nola gueuren aldétic faltatzenbaitúgu, eta Jang(**oico**)an misericórdia becála baita justicia ére, orgátic juntatubeárda biótzean esperanzaréqui beldurrtasúna. Deábrua engañatzéco, yá incitatzendú desesperaciorá; yá betetzendú esperánza fálstus, edo presúncios, edo paratugábe medioac, edo billatugábe gra(**ci**)a, bere indárr solles, yá

<sup>5</sup> *sptuac* dago, s- daukala hasieran eta ez e-.

descuidarácis ta utzis guerorá, baita temerid(**ad**)e. *Ut quid quaeritis mendacium?* Cergátic nauzie guezúrta?

Carid(**ade**)a, baita onéstea Jang(**oico**)a beragátic ta proximoa Jang(**oico**)agátic, norc baicic Esp(**iri**)tu Sánduac dezáque inspira? Berac ichequitzendú sugáu biótzean: berac inarastentú obra ónac, ta passarásten trabájuac bere amóres: Berac obligatzendú onesterá próximoa ere Jang(**oico**)agátic, etsáia ére; bérac moguitzendú procuratzerá gucién óna corregítus, consejátus, limósna eguines, milla modus. Deabruarén esp(**iri**)tuac paratzendú lenic Jang(**oicoar**)en atzendúra, desamórea, ta desestimácioa, aimbérce nola baita mún-duan, offenditus ajolaicgábe bearcéna amátu: Guero gogortzentú biótzac ez lastimatzecó proximoes, aborrecicecó, gaizqui eguitecó, ta maldicio, murmurácio, ta errán gaichsto erratecó. *Usquequò?* Noiz árteo biótz gogorrac?

Alabér Jang(**oicoar**)en errespétoa, beldúrta, ta alquea, ez eguitecó gaizquiric, parace(**n**)dú Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuac; baitaré anitz inspirácio, pensam(**en**)tu, oroipén, ta deséo, goartzecó; guéro becátuen értean ta ondórean oh cémbat amarrgúra, erremordim(**en**)tu, inci-

73at.

tácio, ta cistácio becála biotzéra, egózteco lén baño lén becátuen venénoa: confessazaité, erratendió án biótz bárnean, ta emendazaité: gaizqui zaude alá: arima ilíc, Jang(**oico**)a asárre: ay zútas, ustenbazaitu ilcera, adió betícos. Ebéc ta alácoac dire Esp(**iri**)tu divin(**oar**)en inspirácioac. Cóntra berriz incitácioac, cumplitzeco passióneac, atrevéncia, lazotasúna, ajolagábea, atzendúra datóz Deabruagánic. Alabér peréza confessacecó, guéro guéro; embarázu-idúriac, errepugnáncia, álque sobra, milla errepáro ta achéquia pintatzentió espíritu gaichstoac, egotecó alá egón egón, ta gueroágo ta gaichstoágo, alba-dezáque ilaráci estadogórtan. *Usquequò?* Noiz arteo? Biárr biárr cras cras, otsorraiarén cántua. Beira ez gueldi arcatic cámpoan.

Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuac ematendú prudéncia, justicia, fortaleza, templánza. Prudéncia, beiráceco alde guciétara, itéco óngui: Justicia, emáteco nori bérea, cumplicecó norc bere obligácioac. Fortaléza, errepugnáceco fuérte contráριο gucién cóntra Jang(**oicoar**)en ta arimarén favóre. Templánza, contenitzeco passióne guciac ta senti-doac leguearén muguen bárnean. Cóntra guciá esp(**iri**)tu gaichstoac: lén léna dú itsútzea arima ez beiráceco Jang(**oico**)ai, ez gendeéi, ez oraicoa, ez guerócoa: guero naiz utzidézan iterá cembáit devócio, ta gauzáfto aguéri, descuidarastendú obligacioetán: passióneac sutzen-

tú, ta desanimatzendú errenditzeco tentácoiei. Oh! cein guti dén se-  
guitzenduténac constánte Jang(**oicoar**)en videas, naiz ténta, naiz  
murmúra, naiz irri eguín, ta perseguidezquíten! Gueiénac doáz quer  
quer quér nóndic bérceac, munduarén beldúrres. *Filli hominum us-  
quequó?* Guizónen húmeac, noiz árteo munducói?

Nola vicio gucíac datózin Deabruarén venenotic, engañatuzué-  
nas-guéros gure lembic(**ic**)o Ama Eva; alá berce virtúteac ere datoz  
Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuagánic. Ebetáic léna ciméndu-guisa dá humil-  
d(**ade**)a, au dá, eguiáz ezaunduríc bátec bere búrua desestimátzea; gu-  
cién estimátzea; niór ez gaizqui tratácea, superioreíi humil obeditzea;  
ta Jang(**oicoar**)en escupéan beti beldúrrac contátzea ta confessátzea  
bere búrua indigno, beiradézan bere Magest(**ade**)ac: Eta aláco humi-  
léi beiracendióte amoróso, ta ematendióte gra(**ci**)a, baña humild(**a-  
de**)a ere bai. Baña subérvia dá Deabruarén lembic(**ic**)o alába, vicioen  
búru, becátu gucie(**n**) principio, Jang(**oicoar**)en irarén motivo, ta bar-  
cacioarén impedim(**en**)tu; ezi chsaquina dá humillátus confessátzera  
penaturic gueuren gaizqui eguinac, barcatzentigúla Jang(**oicoa**)c:  
Baña subérvia<sup>6</sup> erchstentú misericordiarén atári gucíac,

## 74

eztú usten ezauncerá norc bere búrua becatári; ez apaldunái cuzcu-  
rrúta vánoa; ez aguertunái culpánte: alque sobragúra estorvacendió-  
na confessátzea déna dén becála dá humild(**ad**)e-faltas, ta subérvia-  
sobras. (Beira yá nola beardión Jang(**oico**)c barcátu Fariseo aundi-  
naiái, becatári confessatu nái eztenái. Orgátic ció S. Bern(**ard**)oc,  
obedela becatári humila, ezi ez justo subérvoa. Subérvia<sup>6</sup> botatuzué  
Lucifer Cerutic Infernúra, ta cêna Ainguiru edérr inzue Demónio  
itsúsia. Ció arc aundituríc, iganennáiz gora, Cerúco izárren gáñean  
paratucodút neure trónoa, gorenarén semejánte izanennáiz. Junta-  
tucéquo Ainguiruen irur zatitáic bát laguntáco. Atráce S. Miguel  
berce Ainguiru onéqui, goratuzué vandéra Jang(**oicoar**)en gloriatán  
cióla, Nor Jang(**oico**)a becála? Eta alá izanzire botátuac Cerutic Lu-  
cifer ta bere guisácoac; eta dire lembic(**ic**)o condenátuac: Eta dabilza  
lagún billa guizonetáic ére, eta logratzeunte sobra inspirátus ebéi ére  
subérvia. Adam ta Eva zeudeláic paraisoan nai becála, solam(**ent**)e  
obedienciarén progutáco debecaturic arbolabate(**n**) fruita; serpiénte  
madaricátuac engañatuzué Eva sinestarciric guezúrta, jaten bauzie  
arbolagórtaic, izanzaráte<sup>6</sup> Jang(**oico**)ac becála. Janzúte, desobeditu-

<sup>6</sup> izanzaráte dío, eta ez izain edo izanen.

ciôte gure Jaunái, eta galducíre berac, ta berén cásta gucía, baitá guizaguénda: gucía aundináies.) Norc cónta eméndic contino datózin gaizquiac, desobediénciac, futótsac, ernéguac, desprécioac, mendécuac & aundináí vanoagátic? *Ut quid diligitis vanitatem?* Cértaco nauzie vanid(**ade**)a?

Alabér liberaltasúna ta miseric(**ordi**)a eracustendú Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuac, nola baita ain guizónen amánte onguieguinnáia. Cóntra Deabruarén esp(**iri**)tuac nola baitu aimbérce odio ta invidia guizónen contra, inspiracendú codicia, erchstendú berecói dirénen biótz chsimúrr gogórra; yá deseáceco ta quénceco bercerénac; yá abracetéco edocéin manéras; yá ez pagáceco zórrac ta errestitúcioac; yá ez eguitecó limósna aimbérce necessidáde ta obligácioen értean: Alá galcentú póbreac paciéncia-fáltas, ta abrátsac carid(**ad**)efáltas. *Usquequò gravi corde?* Noiz árteo biótza gogórr?

Alabér castid(**ad**)e, ta garbitásun edérra dá Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuagánic. Deabrua ere dá esp(**iri**)tu gorputzicgábe, eztú araguisco passionéric; baña galdunáies gú

74at.

apaltzendá cebarástera persónac araguisco desordenetán. Jang(**oicoa**)c paratutígun beldúrr, álque, ta lotsarén frénoac lazzentú Deábruac; gogoracéntú imaginácio impúroac; gústoen colóres pintacéntú ez ain gaichsto nola diren; ortáco ingeniaturdú milla ingenio, móda, divérsio, ichurapén, cánta, música, dánza, tentácio, ta gauza, ceñen amóres itsuturic arimac arrapace(**n**)tuén nola chóriac léquedan. *Usquequò?* Noiz árteo lóiean biótza?

Gularén mortificácioa, bárua, penit(**enci**)a eracustendú Jang(**oicoa**)c, libracecó becatuetáic; ematecó satisfáccio gaizqui eguínnes; imitatzecó Jesus gurútzean; ez ustecó animaletzerá guizóna, bai itzulcecó esp(**iri**)tuale sándu. Deábruac cóntra incitatzendú tripen cebátzera beárr eztén guisan: Ordic excéssó, gástu, dáñu, desgarái, ta desórden milla. *Usquequò?* Noiz árteo triparén esclávo?

Mansotasúna ta paciéncia norc baicic Jang(**oico**)ac ta Jesus ónac dezáque inspíra? ain sufrítu, mánso, ichsil onégui achsúri div(**ino**)gúra aimbérce trabáju, agrávio, tratam(**en**)tu indignoen érdian! Guc eznái deus sufrítu; bérla mendecatunáiac; iran, odioan, sentim(**en**)úr-ran érrétzen: Sugáu noréna dá, baicic Deabruaréna?

Bada Invidia dú bere alába maítea Deábruac; arren invidiagátic sarrtucé érioa múnduan; ta betí digu invidia esp(**iri**)tu gaichstogárrrec ezin icúsis bera galduríc, ta gú salvacioco videan ta Jang(**oicoa**-

r)en biótzean. Alá tristacendá gure ónas, alegracendá gure gaitzes: Ori eztá miragárrí Deábruan: Baña ori berói guizóne(n) értean, garelaiç Jang(oicoar)en húme, ta elcárren anái arréba, ori baita Deabruquería! Eta oh cembat venenogóntaic estádo guciétan?. Cóntra Jang(oicoar)en alába carid(ad)e noblea.

Azquenic itzbátes acabatzecó; persóna ón izatecós bearrbaita izán gaitzic bateregábe óna gucís, Jang(oicoar)en esp(iri)tua dá ematenduena oposicio edocéin gaizquirá, eta afficióne ta dilig(en)cia ón guciétara. Animátzen ta vizcorrcendú, itéco gogótic, ta sufricecó animóso déna déla; orgátic Jang(oicoar)en amanteéi gucia itzulcenbaizaióte onetán, guciá aiságo amorearén cásos; ta gaichsto denic bátere ezin sopórta. Contra berriz vanid(ad)e ta bearreztirenetára afficióne paracendú Deábruaç; Oneráco peréza, gogáitz, tristúra, ta enfado. Nondic datorr egótea bi irur órdus jócuán ta diversioan aisa; ta ezin egón orduñobátes Elizan, bórchas ezi ta nequétan? Oroát diót eguiteas ónac vanid(ad)es, icustengaituteláic, gogótic; ezcaitutelaic icusten, ganaicgábe. Oroát diót alégre zóro egóteas, for-túna deláic; ta aguituordu-

## 75

co trabáju pichscabát, berla desanimaturic ta enfadaturic. Eztá ori Jang(oicoar)en esp(iri)tuagánic, baicic gaichstoagánic. Ezauncecó diferenciagáu, eztá baicic icustea vicimóduen differéncia; cémbat iteunten batzúec salvacecó, ta cein guti bercebatzúec. Beira cembáit persóna vicidirénac apárt munduco vanidadeetáic laur pareteén értean, penit(enci)a ta orácio continuoan. Beira bercebátzuc mundu zabalgóntan becátuen céboen érdian. Batzúc utzicodiréla iltzerá lenágo ezi admititu becátu mortalebát. Bercebatzúc ain aisa passatzentutéla nola ururrúpac. Beira yago, nola batzúc doázan igánes gora gora Ceruráco escaléran animóso. Cein dá Ceruráco escaléra? Oná gradac: Lembic(ico)a Fede vici ta vizcórra. Bigarr(en)a Esperánza sáno ta séndoa. Irugarr(en)a Deséó ta orácio biotzéscoa. Laurgarr(en)a Óbra ónac obligaciósco, ta devocióscoac. Borzgarr(en)a Trabajátzea gogótic. Seigarr(en)a Padecitzea ánitz ta óngui. Zazpigarr(en)a Costumbrátus ori guciói eguitea perfeccioréqui aisa alegréqui. Zorzigarr(en)a Guciói Jang(oicoar)en amóre puros. Bedratzigarr(en)a Seguránza-iduribát gloriaráco déla. Amargarr(en)a Gloria. & Beira nola bercebatzúc doázan jautsis inférnúco escáleac<sup>7</sup> béra. Cein dire

<sup>7</sup> *escáleac* dio, eta ez *escaleraç*.

gradac? Lembic(**ico**)a Icústea edo aditzea gaizqui. Bigarr(**en**)a Pensam(**en**)tu edo gogorácea. Irugarr(**en**)a Quadrátzea. Laurg(**arren**)a Consenticea deseátus edo placér ártus. Borzg(**arren**)a Eguitea gaizqui. Seigarr(**en**)a Acostumbrátzea. Zazpig(**arren**)a Gogórrtzea. Zorzigarr(**en**)a Sendagállá eguítea gaizquies. Bedratzig(**arren**)a Ezin bérece, edo necesid(**ad**)e-idúria. Amarg(**arren**)a Desesperátzea ta condenátzea. Eztá precisso passátzea, salvatzecós, gradagáiec guciac: Eztá ere precisso ebéc gucióc passátzea, condenacecós: Gutiágo ére asqui dá. Paratutút icusidáien, esp(**iri**)tu div(**ino**)ac ta esp(**iri**)tu gaichstoac guizonetán iteunten efféctoen differéncia, ezcaitzen descuida admititzean Jang(**oicoar**)en inspirácioac, ta despeitzean gaichstoarénac. Cé ciudádean emastequibát céna becatári, dió Evang(**elio**)ac. Cer aguituzé? Medicu div(**ino**)ac, Artzái ónac eguincio fichstúbát biotzéra. Aituzué arc, admitituzué, acorritucé, asice negárres, billatuzué Medicu soberanoa, ta onen oñetan negárr ta negárr confessátus cúlpac logratzuzué absoluciónea; eta orrá eguinic sanda andia Santa Maria Magdal(**en**)a. Cé amábi Apostoluetán bát itencituéna milágroac Jesusen izénean; fichstu eguincio esp(**iri**)tu gaichstoac biotzéra, codicias cutsatuzé; ta guéro guti guti ellegatucé salcerá dirutrúc bere Maestru div(**ino**)a, ta gaurr becála entregátu, biárr becála urcatuzé, lerrtuzé, entrañac atra, ta Deabr(**u**)ac eramán gucia: au dá Judas Incariote &. &.

75at.

## Sermo in Dominica Quinta post Pascha

*De oratione, et circumstantiis.*

Siquid<sup>1</sup> petieritis Patrem in nomine meo, dabit vobis, Joan. 16.

Egún nola Rogácioen Vézperan paratendú Elizac prevencios becála Eva(n)g(eli)ogúra ain esperánza ónes bétea, Jesús ónac erranzuena bere despeidan mundugóntaic: *amen amen dico vobis, ciérto bai ciérto erratendiziet, siquid petieritis & cerbáit escatzenbadióze Aitari ene izénean, emanendizie zuéi.* Alaber Rogacioetán paratendén Evang(elio)an dió, (Luc. 11.) eracutsiric Aita gurearen orácioa, *Nic erratendiziet zuéi, petite et accipietis, escazázie ta emanenzaize; quaerite, eta inveniatis, billazázie, ta aurquitucodúzie; pulsate, eta aperietur vobis, deizázie, ta idiquicozaizie.* Jesús dá dióna au, ta bere itz erreála eztaique falta: lenágo faltacodire Céruac ta lúrra. Ya berás cer faltazaigu gueuróc nor bagára? Ondásun gucién itúrria non dén badaquigu, déla Jang(oico)a, lécu guciétan dagóna presente, emannáiac, convidátzen: guiltza éscuan paratudigu, baita Orácioa, edo escátzea Jesúsén izénean: Nola gaizque descuida? Oh Jauna, dióte, escátu ta lograbalédi! Guc naiz escátu, eztúgu lográtzen. Nola datéque? Jesús ónac eztióla guezúrria, badáquit: zuéc ére ez, ustedút. Berás cerbaitetán dágo. Bidedágo escátze-guisan. Guiltzagónec bidedú bere máña: ezi chsaquina dá, ataríco guiltza, naiz izánic bere p(ro)prioa, inguracénbáda contráco aldéra, eztéla idiquitzen atária. Escuiéco aldéra beárr, ta zuc ezquerrecorá indárr, debálde aizára, eztá idiquíco. Badió gure oracioarén guiltzagóntas S. Tiagoc, c. 4.) *Escátu ta etzáizie emáten, cerén gaizqui escatzenducien.* Berás maña ta habilid(ad)e beárda maneáceco óngui oracioarén guiltzagáu. Icastenbadúgu iten óngui, fiadóre Jesus, etzaigu ucatúco. Ontáco goácen gra(ci)arén billa, estimátus gra(ci)as bétea Maria. Ave Maria.

*Gucióc orácio iterácoan gára Jangoicaren<sup>2</sup> póbreae ésquean bere*

<sup>1</sup> *Siquid* dago, bi hizak loturik, bat egiten dutela.

<sup>2</sup> *Jang.<sup>on</sup>* dio.



*atarietan*<sup>3</sup> *gaudénac dèi ta dèi*, dió S. Agust(ine)c. Aguitz beárrtsuac gára ánitx gauzes; baña gure limosnaguillea dá aguitz poderóso ta piadóso, aberáts ta liberál ezin yágos, ezi eztá pobrétzen, ta ez necátzen emánes: dago beti emannáiac, ofrecitzen emaindigúla, manátzen escazogúla, ta quexátzen eztiogúla ásqui óngui escátzen. *Siquid petieritis & Dió Jesus ónac, Cerbait escatzenbadióze Aitari ene izénean, emanendizie zuéi*. Eta errepara, ezi bere Aita contacendú gure Aita: orgátic manaticúgu erratéco *Aita guréa*. Jang(oic)o andia yá berás gure Aita; Jesus gure anáia, Medianéro, ta fiadóre: guéro Ama M(ari)a Santissima<sup>4</sup>; Mandatári Ain-

## 76

guiruac; lagún sánduac: yá berás eztá fálta, baicic escátzen óngui. Norc pensatubeárzue etzequitéla pobreéc escátzen óngui? Eta badi-re ciérto eztaquiténac; batzúc póbre subérvoac; bercebatzúc desaténtoac; bercebatzúc pacienciagábeac, inutil-útsac, eta indignoac. Bentzáit Jang(oicoar)en atarietáco pobreetán aláco sóbra dá. Orrá cergátic uts atratzengáren. Nauzu Jang(oicoar)en limósna? Esca óngui.

Ortáco irur circunst(anci)a beardire goártu: 1.<sup>a</sup> *Cer escátu*: 2.<sup>a</sup> *Noren médios*: 3.<sup>a</sup> *nóla, edo cer módus*. Lenic diót ofrecituduéla Jau-nac emátea, ez edocéin gauza déna déla, ón báda, gaichsto báda, ez: baicic escatzendéna *berarén izénean*. Cer izén dú? Jesus. Cer naidu errán Jesus? salvazálea. Berás solam(en)te salvacéco ón déna dá bere izénean escatzendéna. Lurréco gauzac, fortuna, hónra, osásun, erai-cio, ta ondásun deitzendirénac ez beti dire ón salvacioráco; ásko áldis áscoc obe dúte ortáco necessid(ade)a, eritasúnac, trabájuac. Eztaquigu beti gueuréc, cer zaigun ón, cer gaichsto; badáqui órdea gure Aita Jang(oicoa)c onestengaituénac obéqui ezi guc gueuren bu-ruóc. Orgátic eztigu emáten beti escatugúra, cerén baitacúsa etzai-gúla convéni: ta ez emáteas itendigu merchéde, ezi gauza gaichstoa baño obé dá gábe óna. Baña ascotán arren pártes ematendígu berce-bát ón déna. Eta alá Orácio óngui eguina béñere eztá alférr. Orái bada goacélaic Jang(oicoar)en atarirá cerbaiten ésque, barimbáda lurréco gauzetáic, éscá tenturéqui, ta condicioréqui, Jauna, conveni-báda, ta placér bádu. Baña Cerúco gauzac, nola grácia, salvácioa, becátuen barcam(en)tua, arguitásun, acértu, contricio, carid(ad)e,

<sup>3</sup> *atarieta* eta marratxo bat -a gainean.

<sup>4</sup> *SSma* eta laburgailua.

humild(**ad**)e, paciència, ta alácoac, oriéc éscá sueltoquí. Orrá eracustiric cer beárden escátu.

Orái bigárren circumst(**anci**)a, *Noren medios. In nomine meo*, dió, Jesus onarén medios: *ezi ezta berce izenic Ceruarén péan, ceintan gaizquen sálva*, S. Pedroc diónes. (act) *Berce niorengánic ezta salvacioric*, ez gauza oníc, ez esperanzaric ére. Jesus borz létra dioténac, *Jesus Est Solus Unica Salus*. Jesus dá sollic ón gucía. Dá Jang(**oic**)o ta Guizon, Jang(**oicoar**)en ta guizónen bitartéco bacárta. Borz llága ditu principalénac, dire borz ágo daudénac ésque guretáco on dirénac. Etzué naiizándu borraréza márca gloriosogáiec, erresucitaturic, ta iganic ere Cerúra. Dauzqui beti paténte, mostrátzeco bere Aitari passatuzuén passioarén memoriac, ta digun amóre fiñarén señaleac. (Jesus, borz létra; bórz prènda Medicu soberanogóne. 1.<sup>a</sup> Sendátzeta gaitz guci guciac. 2.<sup>a</sup> Sendátzeta istántean ossoquí ain, nola séculan éri egón ezpánitz. 3.<sup>a</sup> Alcinátzeta bé-

76at.

ra sendátzeta gure gaitzac gra(**ci**)as, pagatugábe, ta deitugábe ére. 4.<sup>a</sup> Bérac bére cóstus parátzeta ta aplicátzeta erremedioac. 5.<sup>a</sup> Séculan adituezténa, bérac, sáno ta séndo egoníc, ártua medicinac sendátzeco ériac; berac pássioarén trágo amárgoa, sendáceco ni; bérac odolésco sangriagúra, salváceco ni. Non dá aláco Medicuric? Aláco amaneric?) An icustendú gure favóre beti bere Aita Jang(**oicoa**)c, ta dió bėti lén cióna, *Au dá ene seme maitea, ceintan baitut neure complacència*. Eta alá deus ezdezóque úca. Zoazélaic báda, ene fiéla, cerbaiten ésque, eramán beti alcinean Jesus; *Jauna, Jesus onagátic, Jauna, Jesusen amoreagátic, Jesusen merejimentuengátic*<sup>5</sup>. Badaquizu cergátic Elizac ilári, bedecio, conjúrio, procéssio, ta rogácio guciétan daráman alcinean gurútzeta? Gurútzeac mostracendú Jesus gurucificátua: onéqui goáci ta onen atzétic, adiaracináies eztugúla escátzen gueuren merejim(**en**)tus, bai Jesus gure amóres gurúcean ilcenagátic. Orrá *noren medios*.

Irugárren circumst(**anci**)a Oracioaréna, *Nola imbeárden*. Pénsa déla orácio ala nola soñubát Jang(**oicoar**)en adim(**en**)turáco. Sóñu óna itecós, ánitz técla dá organoán, ánitz cuérda citharan, ánitz vóza edocéin musicatán: guciác beardíre conformátu, atracecós soñu gozóa: técla, edo cuérda, edo vozabát barimbadoáie macúrr, ásqi dá gozagaitztecó soñu gucía. Alá orácioa eguítécó Jang(**oico-**

<sup>5</sup> *merejimentuengatic* dago.

**ar**)en gustorá, au dá, *dignoquí, attentoquí, ta devotoquí*, dión becála Elizac, conformatubeardire ánitx circumst(**anci**)a. Lenic personarén aldétic conciéncia *óna ta gárbia*: guéro entendam(**en**)tuarén aldétic *fède ta aténzio* vicia; guero borondatearén aldétic *humiltásun, confíanza, gána óna, devócio, ta amóre*: guero gorputzarén aldétic *erreveréncia*: Ebéqui juntacenbadire negárta, mortificacioa, ta misericordiásco óbrac, errefinacendá oracioarén música. *Constáncia dá coróna*. Oh! erraindidáte, ánitx técla dire oriéc, icásteco guc. Baña eztá ain néque nola dirúdien: ala nola musicará duénac afficióne, lembician cuid(**ad**)o pichscabatéqui baitoáie icásis, guero costumbrearéqui seguitzenbaitu aisa: alá dá emén. Goácen icásis.

Óngui orácioa itéco lén lén dá *conciéncia óna*, au dá, egótea bat Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)an; ezi cláro dá erdechstéco Erreguegánic gra(**ci**)arenbát, gra(**ci**)an erórcea Erreguearí déla obéna; oroát Jang(**oicoar**)en alcinéco izátea quadráble, ta jústoa. Dió

## 77

S. Agust(**ine**)c (s. de Tobia) *Oratio justi clavis est caeli. Justoarén orácioa dá Cerúco guiltza. Otoitza igatendá, ta Jangoicoaren<sup>6</sup> misericordia<sup>7</sup> jaustendá. Naiz lúrra gora, naiz gora dagon Cérúa, aditzendú Jangoicoac<sup>8</sup> guizonarén mia, barimbádu gárbi conciéncia. Elias, dió S. Tiagoc, cé guizonbát gure guisa padecicóia; ta orácio eguinzué, etzézan euri eguín lurréra, ta etzué in euriric irur úrtes, ta sei ilabètes: eta bérriz orácio eguín, ta Cérúac emánzue euri, ta lúrrac bere fruitua. Exémplus daude beteric lecu ta dembóra guiciac. Ezperén, nola naidut ainázan Jang(**oicoa**)c, barimbanágo berarén desgra(**ci**)an? Nola naidut indezádan niri nauténa, ezpadút nic eguinnái berac manatzenduéna? Orgátic obéna litzáque, oraciorá baño lén, arima ciquindua garbitzea confessioco lichsuas, bentzáit contriciósco negárres lenic escátzea becatúen barcam(**en**)tua, escatzecós gañaráco gra(**ci**)ac. Ala nola Erreguerén sémea bátec herituric malam(**en**)te, ez lúque arimoric joáteco escátzera gra(**ci**)arenbát Erreguerí, éscuac odolestaturic; garbilezázque lenic, ta lenic escátu maldadegárren barcácio. Badá becatú *mortále eguíteta déla nola berríro crufificátzea Jangoicoaren<sup>9</sup> sémea*, dió S. Pabloc, (Hebr. 6) *rursum crucifigentes*. Garbí bada lenic becatuetáic, logracecós escátua, ezi etzué errán Jesus*

<sup>6</sup> *Jang.<sup>en</sup> dago.*

<sup>7</sup> *miseric.<sup>o</sup> dago.*

<sup>8</sup> *Jang.<sup>i</sup> dio.*

<sup>9</sup> *Jang.<sup>en</sup> dago.*

ónac, emanendióla edocéñi, bai zuéi, *dabit vobis*, Apostoluéi, onéi ta justoéi.

Órtas lándara *fède ta aténcio*, escátzeco óngui: au dá, sinestátus viciró presénte dagóla Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)a aitzen ta icústen gure biótza ere, egón atténto, cortés, humíl, erreverénte ain nola in-cusbaguindez béguis. Dióte S. Martines, egotencéla témploan erres-pétos beteríc, ta colóre-gaizturíc lotsam(**en**)túras. Arc zué fede vicía. Motivo yágo dúgu guc lotsátzeco Jang(**oicoar**)en preséncian, beira-turíc nor dén bere Mag(**estade**)a ta nola; nor gáren gú ta nola. Imita-tubeardúgu Publicánao, ezpaice tréve gorátzera béguiac Cerúra, baicic bulárrai gólpe emánes baicio, *Jauna, urricaribédi ni becatá-rias*. Jauna, eznaiz digno, baña Jesusen amoreagátic limosnabát. &

Órtas lándara *confiánza* amorosobát eramán, yá cerén Jang(**oi-co**)a dén gure Aita amánte, yá cerén Jesus dén gure lagún, empéñu, ta fiadóre: baña séculan ez confía gueuren merejim(**en**)tuetán. Segui-tzendá egótea *devócio*, ánsia, ta gána ónean, ezi ori dá nola oracioa-rén múña ta mámia. Origábe orácioa contú déla mamiricgábe cas-quilla, chincharén soñu útsa, gorpútza arimaicgábe, figúra ta itzál vánoa; erdi ló, arrau-

77at.

sias, il ila, fadoricgábe, emén gorpútza, gógoa berce gauzétan: cértaco dúzu aláco orácioa? Nola inendió caso Jang(**oicoa**)c, eztuélaic bé-rac? Baña devociogúra dá Jang(**oicoar**)en doáia: ematendueláic, es-tíma: ezueláic emanái<sup>10</sup>, paciéncia; ta humilla confessátus eztuéla meréji egótea ere án; euchi orduán Aita gureái, detenitus ta ausnártus becála petició bacóchean. Alá edocéin itz, edocéin suspiro atradaíena biotzetíc orácio óbea dá ezi ásko errézu carreráca devocioricgábe.

Orái oracioarén ayaldécoac lagunzáleac Dire ebéc; *bat*, biotzéscó negárrac desplacer eguínas Jang(**oico**)ai. Ori dá nola escátzea bé-guies. Ezpádu aitzen gure otóia, icusbéz gure negárra, ta palacatu-codá, ezi diónes S. Agust(**ine**)c *otóiac berachstendú*, *baña nigárrac obligatzendú*. *Bérce* aialdécoa mortificácioa oracioarén aizpa. Onéc añaditzendió indárr, ezi diónes Jesu **Chr(ist)**oc, *eztá lográtzen quén-tzea Demonio-motabat*, *ezpáda orácios ta bárus*. Mortificácioa entén-da ez solam(**ent**)e gorputzarén penalidadeés, baitaré passioneén, ta genioarén garaitzeas, ucátus nailuquéna, sujetatus ira & *Irugarren*<sup>11</sup>

<sup>10</sup> Hola dago *emanái*, -n- batekin bakarrik.

<sup>11</sup> *Irug.* dago.

aialdécoa limósna, ta edocéin obra misericordiásco. Indárr ándia dú orduán orációac, ezi obra óna bera dágo clamátzen Jang(**oicoar**)en alcinean. Ala itenduénac oráció, segúro dú Jang(**oicoar**)en despáchu óna, gauza esp(**iri**)tualeetán bentzáit; gorputzarenetan, convenibáda, goiz edo beránt. Biz gucién gañétic *constáncia*. Berantzenbádu, ez berantétsi, baicic ségui déi ta déi Jang(**oicoar**)en atárian egúnac, ásteac, ilabéteac, úrteac. Oráño ere ezpáda idiquitzen atária, ezpáda éldu limósna, proségui chsaquiníc itenzaiola Jang(**oico**)ai hónra ta gústo oráció eguitean. Ori berói ásqui bearrlitzáque irautecó eguitean oráció; eta aguitzendá constáncia-fáltas ústea yá elducélaic limósna, ta guelditza gábe póbre inconstánte.

Doctrinagáu parátus fórman, escátzeco Jang(**oico**)ai nauzúna, *lenic gárbi* arima: *guero* nonnái góra biótza beragána; témploan itenbáda, paraturíc belaurico, armátu gurutzearén señáleas, eguin contriciósco áctoa, viztu fedea sinétsis presénte dagóla Jaun andia: adorátu biótzas, ta bacarric badágo, gorpútzas ere bai, cúrtus copéta lurreráño. *Guero* escaturic lic(**enci**)a, eguin bere otoiza, aténto, humil, confiaturic, gogotíc. Itz guti, devócio anitz. Aita guréa naitz, egón gozátus peticio bacóchean, naiz pássa orduquartobát bátean, obe dá alá, ezi ánitz pássala pássa. Baña biotzetic atracendén otoia nolanái dúzu & Ez atzén parátzeas empeñutáco Jesus ona, ceñe(**n**) medios & &

## Sermo in Dominica Tertia post Pentecostem

*De pretio animae et gratiae apud Deum.*

Gaudium erit coram Angelis Dei super uno peccatore paenitentiam agente Luc. 15.

Béri ónac egúngo Evang(**elio**)an ematentigu Jesus ónac becatariéi, nola gáren humil salvatunáiac. Dió ellegacenziréla Jesusengána becatáriac aditunáies berarén itza; eta murumuratzenzutéla Fariseoec ta Escrivec ciotelaic, Ónec errecibitzentú becatáriac, ta bazcalcendú ayéqui. Detenigaitzen gutifitobát emén erreparátus bi gauza: lembic(**ico**)a Jesus onarén óna, murmuratzenbaitióte onéguis becatárien álde. Ó Jesus, cein ona dén gaichstoendáco ere! Eztút secular icúsi ain guizón oníc, ta ain gaichstoen onnái... Bigarr(**en**)a Fariseoen gaichstoa murmurátzeas alegratubearcirénas. Etzaióte ón becatárien errecibitza ontzecó? Eztire berac ere becatári? Ah! becatári díre mota gaichstotácoac, becatári presumituac sándu: póbre ta subérvo. Seguízagun Evang(**elio**)a. Errancióte Jesus onac amólsu; Balítu zuétaic bátec egun árdi, ta gáldu aietáic bát, ezlidoáque, utziric lauretan oguéi ta emereciac, galdugárren billa? Eta aurquituric paralezáque soñean, itzulileique alegre bozcariúndes. (Berce comparaciogáu ere errancióte; emastequibátec izánic amárr dráchma edo moneda, galdubálec bat, ezlezáque ichéqui árguia, ártu escóba, chsautu ta billatu eche gucia bárna, auquituarteo? Eta aurquituóndoan contént celebralezáque) *Diót bada*, acabatzendú Evang(**elio**)a itzguebéqui, *diót bada, izanendéla alegrancia Ainguiruéqui céruan, becataribátec itenduélaric penitencia*<sup>1</sup>. *Gaudium erit* & (Claro ásqi dá ardi gálduan adiarastendéla arima becátu mortálean; dráchma gálduan gra(**ci**)a gáldua; erremedioa dago billátzean Artzái ónac, au dá, tirátzean beregána déla oius, déla fichstus, déla maquilas emanes: Oyu itendió arimai Predicárien ágos adiarácis eguietafedeac;

<sup>1</sup> *penit.<sup>o</sup> dio.*

fichstu inspirátus biótz bárnean gogorácio ta affécto ónac: maquilas tiratzendio biális trabáju, eritásun, escarm(en)tu, convertidaíen ónes edo gaitzes onerá. Orái dráchma galduzuénac inzuéna dá imbearduéna galduduénac gra(ci)a. Cer? Ichéqui árrguia, au dá escátu arguitásun ta ezaum(en)tu; guéro ártu escóba, au dá penit(enci)a; chsautu éche gucía, au dá examinátu conciéncia, confessátu &) Céruan itendéla dión alegránciac becataribáten convertituagátic, mostratzendígu, *cein gaitz ándia dén* erórcea mortálean arima; *ta cein ondásun ándia dén* gra(ci)an parátzea, ta mantenitzea. Onen icustecó billazágun árgui, salutátus gra(ci)as bétea M(ari)a. Ave M(ari)a. =

78at.

1. Becátu mortálea deitzendá mortále, cerén ilcenduén itenduenare(n) arima. Iltzegáu dágo gálcean Jang(oicoar)en grácia, au baita arimarén vici obéna. Nola daique alégra estadogórtan desgraciátua, ezauncenbádu bere cáltea?. Galdua dá arima, galduríc Jang(oicoar)en gra(ci)a: Dágo berarén desgra(ci)an ta odioan: bera dú contra: Eta Jang(oic)o ándia barimbáda zure cónta, nor zure favóre ez ceruán ta ez lureán? Despeitudú beregánic órdu gaichstoan Jang(oicoa)c guizóna: Norá edo norengána joanendá desdichátua? Guizóna Jang(oico)agánic apárt; cer gauza tristeágo daique pénsa? Botaturíc berarén echetic, atáriac erchiríc, guelditzendá campotic soil desamparaturíc infernúco otsoendáco. Beiradézan gora, beira bera, beira alde guciétara, eztú norc amparátu: eztió niórc beiratunái, niorc ez atária idiquiná. Pobrebáti erchstenbazáio ataribát, idiquitzendióte berebát: Baña niórc ezpálio idiquiná ez egúnas, ez gáuas, cer litzáque pobregártas? Pobre bai pobre gucis dá becatária, ceñi erchiríc Jang(oicoa)c bere atáriac, ezpaita niór tréve Cerucoetáic lécu ematerá! Déi sanduen atárian: eztúc lecuríc emén iretáco, dióte. Déi Ainguiruen atárian: eztá lecuríc. Déi Ama Virg(inar)en atárian: eztá lecuríc. Niórc eztú ná. Ala nola botaceuntélaic Erreguerén palaciótic Nirabebát traidore progátua, loturíc préso verdugoarén escuétan, itzulcenbaitúte arregánic aurréguia bérece aldéra indignaturíc Erréguec, Erreguínac, Córté errealéco guciéc; alá Ceru guciagánic dá desechátua becatári indignoa, beirátu ére ná eztióla niórc; eta guelditzendá Satanásen éscuan. Galcéco betícos eztá berceeric fálta, baicic usdézan iltzéra, ezdezo(n) manténi vicia Jaun offendituac bérac. Eta cémbat mom(en)tu mantenitzendión, dire berce aimbérece milágro Jang(oicoar)en pacienciarén: eta usbaléz instantebátes, istánte bérea(n) aurquileique, béguiaic idiquiric, infernuco Ministroen escuétan, daramátela péna eternoetára erremedioricgábe. Bitárteo

dágo arrichsco lotsagárrian aborrecituric Ja(n)g(oicoar)én ta ón gu-ciengánic, itsusturic, ilíc, urrinduric arima icusteunténen alcinéco, galduric Esp(iri)tu Sand(uar)en dónoac, virtúteac, ta lén inicáco óbra ón gucién merejim(en)tuac; yá deus meréji ezdezaquéla cerurá-co gra(ci)a-fáltas; galduric derécho zuéna lén gloriaráco; marcaturic inférnúco márcas; soségu ta consólu eguiascoricgábe; ta yá bere in-dárres itzulieztaiquela gra(ci)ará, ezpadu gorátzen gracias Jang(oicoa)c berac. Oh cein itsu gauden, ezpaitúgu icústén, ta ez pensátzen galm(en)degáu ain eguiáz aguitzendéna, cúlpa mortalebát itendé-nean! Icúsi ta peng-

## 79

sabaguindez óngui, cuidádo guciá paraguindezáque, ez descuidácco accióne, edo itz, edo affécto gaichstorenbátean; eta descuidatuas-guéros bein, médio guciác paraguindezázque lén baño lén admitigaitzan berriró Jang(oicoa)c bere gra(ci)an.

2. Icuságun orái ondasungónen óna, ceñén cásos itenden ale-gra(n)cia ta fêsta Céruan. Cer dá bada grácia? Mintzátus llanoquí, itzac diónes, gra(ci)a dá agrádoa Jang(oicoar)én beguiétan. Dá quadráble izátea Jang(oico)ai arima, ala nola Erreguerén onétsias erratendén, gra(ci)an erorizáio, maite dú. Eta ori deitzeunte fortuna, ta fortunóso aláco persóna. Cémbat yágo fortuna dú, cémbat fortunosoágo dá dén pobreenarén arima, lúrrean vicideláic, aurquitubádu gra(ci)a gloriaco Erreguerén beguiétan? Cer yágo daique deséa? *Invenisti gratiam apud Deum*, erráncio S. Gabriel Ainguiruac M(ari)a Santissimái<sup>2</sup>, *eztú cer beldurric izán, M(ari)a, cerén aurquitubaitu gra(ci)a Jang(oicoar)en beguiétan*. Cerén belbúrr izandaique duéna bere adisquide ta favóre Jaun gucis poderósoa? Cein dá gauza indezo-quéna gaitzic dagónai gra(ci)an? ez trabajuec, ez münduco gáitz deit-zendirénec, ez eritasúnec, ez eriótzeac, ez mündu guciác, ezta inférnu guciác ére, ezpádu gálcen gra(ci)a. Alá S. Pabloc desafiátus becála ció, (Rom. 8) *Espirituac*<sup>3</sup> *bérac ematendú testimonio*<sup>4</sup> *gure espirtuái*<sup>5</sup> *garéla Jangoicoaren*<sup>6</sup> *húme: húme bagára, heredéro ere bai; Jangoi-coaren*<sup>7</sup> *heredéro Christorén*<sup>8</sup> *compañian...* *Eta badaquígu, Jangoicoa*<sup>9</sup>

<sup>2</sup> SSmái eta laburgailua.

<sup>3</sup> Esptuac eta laburgailua.

<sup>4</sup> testim.<sup>o</sup> dio.

<sup>5</sup> esptuái eta laburgailua.

<sup>6</sup> Jang.<sup>en</sup> dio.

<sup>7</sup> Jang.<sup>en</sup> berriz ere.

<sup>8</sup> Chrorén eta laburgailua.

<sup>9</sup> Jang.<sup>a</sup> dio.



maite dutenêi guciá zaiótela oneráco: . cerén ezi predestinatutuénac beretáco, ebêc deitueretú, deitutuénac gracion<sup>10</sup> artutú, gracion<sup>11</sup> artutuénac gloriastatutú. Cer erraindúgu ontára? Jangoicoa<sup>12</sup> báda gúre favóre, nor gúre contra<sup>13</sup>? Jangoicoac<sup>14</sup> paratzenduéna gracion<sup>15</sup>, norc dezáque condéna? &. Negarrésco Vallegóntan guciá dá contátzea misériac ándic eta eméndic: báña bitárteo Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)an barimbazaude, bazaizque consóla. Aizágun erratendióna Jang(**oico**)ai Davidec, (pas. 22) *Etsi ambulavero in medio umbrae mortis & Banindégo ere eriotzearén ilumbearen*<sup>16</sup> érdian, eznúque gaitzen beldurric, cerén beróri dagon neréqui. Berórren varac ta berórren páloac consolatzennaute. Nolas báda? Cerén vára ta palogorréqui aisa botacotuén contrário guciac. Vara ta palogáu dá Christioendáco gurútea, ceñéqui Jesu Chr(**ist**)oc garaitucituen ta garaicentuen gure etsái guciac. Baña eztá beárr aimbérce, gutiágo ere ásqui dá. Considerátzean Jesus onarén pássioan nola bérce gaichstaquerien értean Judioec tratatuzúten ta adorátu-idúri escárnios, Erréque fálsu guezurréscoa becála, paraturic éscuan canabát Cétro ichuratáco, erratendiót nic, ô Jesus, ez guezúrres, bai eguiáz Erréque ándia dá beróri; naiagonúque orrén páge onétsia izán yágo ezi múnduco

79at.

Erréque; naiagonúque ene favóre canagói dágon éscuan, ezi Erregue gucien cétroac ta burrumbac. Goápo naiz, maitebanáu orren Magest(**ade**)ac.

Eriotzetic aratágo ellegacendá gure Jaunarén amórea ta favórea bere onétsien álde, nora eztaiquen elléga bérce nioréna. Erreguebáti óngui zervitzatución soldadobát ain gra(**ci**)an eroricéquio, ezi heritucélaic soldádoa, joancéquio Erréque bere persónan visitátzera, ta offrecitzaera bere podóre guciá arren onetán. Arc escatució irur gauetáic bat: lemb(**ícico**)a, eznádien il óntatic: Bigarr(**en**)a ez dezáten sénti eriótzeco amarg(**ur**)ac: Irug(**arren**)a despeidaienéco arima, osátatu onbát án. Oh! erránzue Erréquec & Soldádoac, berás utsindút

<sup>10</sup> *graan* eta laburgailua.

<sup>11</sup> *graan* eta laburgailua berriz ere.

<sup>12</sup> *Jang.*º dio.

<sup>13</sup> *cotra* eta marratxo bat -o- gainean.

<sup>14</sup> *Jang.*º dago.

<sup>15</sup> *graan* eta laburgailua.

<sup>16</sup> *ilumbeare* eta marratxo bat -e gainean.

nic ez zervitzátuas sollic Jang(**oico**)a, ceñéc sollic dezáquen vália beti, ta beárrenbearrênean. Eta Jang(**oicoa**)c niór eztú errehusátzen póbres, itsúsís, éris, maldérres, nola onéc dión amóre bere Magest(**a-de**)ai. Amätzenbadút, amätzénnau ciérto: eta amätzenbanáu, cer yago dezáquet deséa? Barimbanágo berarén grácian, cer yago naidut? Icuságun oráño gra(**ci**)arén óna ta válio.

*Venerunt mihi omnia bona pariter cum illâ*, Onéqui báteo datózi ón guciac. Graciagáu dá margarita preciosogúra, tesóro alchátua valioduéna infinito, ceñen billa guretáco etorric Mercatári div(**i-no**)ac erosizuén bere vici ta odolarén cóstus. Gra(**ci**)agáu dá arimárén vicitza, osasúna, ederrtasúna, ta gála Jang(**oicoa**)c erregalátua. Graciagáu dá p(**ro**)prioqui Jang(**oicoar**)en dónoa, bere arguiarén erráña, ón gucién principio ta coróna. Dá gloriaco prénda, araráco passapóрте erreála, ángo atárien guiltza, onéqui doaiéna baita án errecibitua. Dá Errégue andienarén jóia bacárta, bere amorearén señálea, salvacioarén baiméndea, gloriaco ázi preciúsoa, ta glória lórean becála. Grácia dá zóri onécoen márca, nola zori gaichstocoén baita cúlpa mortála. Mortálean dagónac daráma escrituric copétan, *au dá Satanasén*: gra(**ci**)an dagónac daráma letrerogáu, *Au dá Jangoicoarén*. Aláco arima Jang(**oicoa**)c dauca bere maitea becála bere biótzean: M(**ari**)a Santissimac<sup>17</sup> contacendú nola bere húme onétsia: Ainguiruec cuidátzen ta festejatzeunte nola Esp(**iri**)tu Sanduarén Espósa: Sánduec nola berén anái edo arréba iganbearduéna erreinátzera ayén compañian. Oh! noráño daiquen igán lúrrean vici-cén pobréftoa! Orrá cergátic diren Artzái onarén dilig(**en**)ciac. Orrá cergátic berarén ta bere Ainguiruen alegránciac! Baña cónta berriz pénsa cer desgra(**ci**)a ta tristúra galcendeláic eróris culpa mort(**ale**)an. &. Exempl. S. Carpi flos SS. v. S. Dyonis Areopagitae 9 Octobris. n. 5.

---

<sup>17</sup> *SSac* eta laburgailua.

## Sermo alter in eadem Dominica Tertia post Pentecostem

*De zelo Jesu in peccatores, et nostra cooperatione.*

Erant appropinquantes ad Jesum publicani, et peccatores. Luc. 15.

Egúngo Evang(elio)a dá gúcis consolagárria ni becalacoendáco. Dió ala: Zoézi urbildus Jesusengána publicanoac & (narra Evangelium, ut jacet.) Onaráño dá Evang(elio)a. Explicáceco, ta atráceco beárden fruitua, salutazagu(n) M(ari)a. Ave M(ari)a.

1. *Erant appropinquantes & Len lenic dá adverticeco becatari-gáien urbiltzegúra Jesusengána aditunáies. Señále óna, sendatucodiréla: Adim(en)tutic astendá arimen curáciao, fides ex auditu: ala nola señaleric gaichstoéna baita sorreria esp(iri)tuála, au dá ez nái adítu Jang(oicoar)en itza. Nola sendátu aláco sorr adim(en)tu gaichstotacoac? Judioéi sorr gaichstoficátuei Jesúsec oiuitencióte, Jangoicoarén dénac aditzentú Jangoicoaren<sup>1</sup> itzac: Orgátic zuéc eztú-zie aditzen, ezpaizaráte Jangoicoarén. Orgátic Jesus bérac sorrbatéqui inzuen guisa(n), baice sárcea bére ériac arren bearrietán, itendú sacerd(ote)ac bataiácera doaienái sartuordúco témploan, uquítus bere lichstu ta eriequi bi beárriac, dióla, *Epheta*, naibaitu errán, *idiquizaitte, adimentua*<sup>2</sup>. Naiduénac berás izán sálvo, prestabéz adim(en)tua, dióla Samueléqui, (1 Reg. 3) *loquere, Domine & Mintzabédi, ó ene Jauna, ezi aditunáiac dágo bere siervogáu.**

*Et murmurabant Farisaei & Bigárren* notáceco déna Fariseoen ta Escriven murmuratzegúra Jesus ónas, cerén admíticentuén becatá-riac. Beira cer tácha! Obé zuendáco, erranennióte nic, ta guciendáco ere bai, ezi gucióc gára becatári. Baña ayéc sándu berén ústes, berén antústes etzire confessatunái becatári. Medicua prest, erremédoia prést; confessabéz ériac bere gaitza, ta bérla dágo erremediaturic:

<sup>1</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dio.

<sup>2</sup> *adimtua* eta laburgailua.

Eztút gaitzíc, dio ériac, eztút becauríc, eztút in alacoric. Cer aguitzendá? Ichsildus galcendá, ceiquéna libra confessátus: cerén ezi confessatzen ezténa becatári eztú sendátzen Jang(**oicoa**)c bérac ére. Orrá cer lana iteunten presumítuec berén cónta, érchi misericórdiarén atária. (Joancire bí guizón templorá & narra è Luc. 18. faris. et p) Baña ô Jesusen ón onégua becatárien álde, murmurazenbaitióte órtas! Eztút nic murmuratucó, bai maitátu ta estimátu, deitzendén becála, baita Jesus salvazálea salvatzentuéna salvatunaidiren guciac; ta condenácen ez baicic naidirénac condenátu. Eztut icúsi ain Jaun oníc, ta ain gaichstoen amánte onceagátic. Niórc eztú yágo aborre-citzen becátua, ta yago amátzen becatária Jesúsec baño: ala nola Ama ónac húme éri dagóna amatenbaitu, ta arren eritasúna abo-rricitzen. Baña au eztá miragárrí, cerén ezi

*80at.*

humearén gaitza eztá, cerén emanduén Amaren cónta; baña gure arimen gaitzac dire gueuren cúlpa, emánes gure Jaunarén cónta: eta alaére Jaun ónac amátzea gú ondunáies, ori baita miragárrí. Bai ta fariseogáien murmuracioagátic utzizue násqui bere téma Jesus ónac? ez, baicic seguitu óngui eguiten. Gauza claroqui ónac ta bearrdirénac eztá cer útzi mundúcoen erranengátic: escándalo ar-cembaute, dá berén malicia-útses: óri deitzendá escándalo farisai-coa. Baña bai goartubeargára, ez emáteco galvideríc ta erratecoríc gauza sospecháscoes, dudáscoes, ta ez ónes ére guti importaduténes; ori proximoen onagátic.

*Quis ex vobis homo & Irug(arr)en notagárría Eva(n)g(elio)an dá egún ardigáien parabola. Contatuzuén guisan eguinzue Jesús ónac, baita Artzái óna. Laureta(n)ogueti ta emeréci árdiac, Ainguiruac; árdi gáldua, guizóna: onén billa jautsice amoróso, misericórdióso, poderóso, ta piadóso gure Artzái div(ino)a. Badú zamarráic? Bai; ori dá gure naturaléza edo guizontasúna artuzuéna gure amóres. Badu maquiláic? Bai; ori dá gurútzea. Badáqui eguítenu oi ta fichstu ardiéi? Baita tirátzen ére maquilas, bearrdeláic. Fichstuac dire ins-piráció ónac: óiuac meáchu itentuénac: maquilas tirátzea biáltzea trabájuac, eritasúnac & guciá gure amóres ta onnáiés. Alá beardire errecibitu ta eramán óngui aláco escuétaic becála, ezi ezpález in meáchus ta maquilas cembáit áldis, nola itzularáci árdi errebelac zuzenviderá? Negarréscu vóllea trabájus, ta misérias amárgo dá mundugáu: ta alaére apegatzengaizquico sóbra: Cer litzáque, góchso bálitz trabajuricgábe? Atzenguindeizque Jang(**oico**)as, arimas, vici-tza seculácoas, ón guciás. Precisso dá tirátzea páloas noicean noiz*

gure Jaunac bereganatzeçós. Badú ardiendáco susténtu óna, au dá bére doctrina, oráçioac, mandam(en)tuac, sacram(en)tuac. Gátza non dú? Gatz erregalátu gustósoa dá aldaréco máian ematenduéna comecátzean, Eucaristia grácia óna. Erreméðio gaitzendáco penitenciaco saram(en)tuan. Ardi galduarén billa ibiltzea cer dá baicic ogeitamirur úrtés vicitua óngui eguiten, trabajátzen, eracústén bere persónan, ta oráño ere bere Ministroen médios. Aurquitzea árdi gál-dua dá acordurátzea. Sónéan artuguindúza erama(n)zuélaic gurú-tzea gure becátuen pizuaréqui. Convertitzeas gú dén alegra(n)cia Céruan dá, cerén contatzenbaitúte aldióro lagunbát yágo. Inzógun gústo gure Artzái ónai, ta Ainguiruéi, onerátus gueuren prochután.

## 81

2. Bererá eldudá berce parab(ol)a. Emastequigárc significacendú Jang(oicoar)en miseric(ordi)a: Amárr drachmagáiec Ainguiruen bedrátzi córoac, ta amarrgarréna guizaguénde. Au galduric billatzeçó, ichequizué candéla. Candelagáu dá Jesus, dió S. Viz(ent)e Ferr(er)c (Dom. 3 post Trin. s. 2) ezi nola candélan baitire irur gauza, arguizária, mécha, ta árguia: Jesusenbaitan ere bai, gorpútza, arima, ta divinid(ade)a edo Jang(oic)otasúna. Garbitzea échea, billa ibiltzea dá predicátus, inspirátus, arguitus, ecárceco onerá, penit(enci)a eguiterá. Au dá aurquitzea. Óntas dió bi áldis itendéla Céruan fêsta. Berás gauza ándia bidedá penitência.

Bai ta cer dá penit(enc)ia? Itz berac diónes, penit(enci)a dá penátzea, pena izátea biótzes, Jang(oico)a offendituas. Irur párté ditu penit(encia)c: lemb(ico)ic)a contricio biotzéscoa: big(arren)a agóscó confêssioa: irug(arren)a obrásco satisfáçcioa. Iruretáic principal(en)a dá Contricioa; edo déla perfêctoa amoréscoa, deicend(en)a proprioquí Contricio; edo déla imperfêcto beldurréscoa, deitzendéna Atricio. Bata edo bércea dá ain precisso, ezi origábe naiz confêssa, naiz eguin milla penit(enci)a, eztá barcacióric séculan: baña confes-satugábe ta penit(enci)a cumplitugábe aguidaique barcátzea atricio sollaréqui ta sacerdot(ear)en absolucioaréqui confesáçceco intencioaréqui, noiz ezin daiquen confêssa: baitaré absolucioicgábe Contricioaréqui ta confesátzeçó intencioaréqui. Eta alá ezeláic confes-soreic absolvitzeçó, orduán dá precisso izátea contricio, au dá péna amorosobát offendituas Jang(oico)a, bera nor denagátic, intencioré-qui confesáçceco ta emendáçceco. Baña beti guelditzénda obligáçcioa cumplicéco intênciao, au dá confesátzea noiz daiquen. Explicátus comparáçios. Contricioa contú déla árma edo lancéta, idiquiceco ta ustuceçó gráno venenátua: Confêssioa co(n)tú déla atrátzea vené-

noa: Satisfáccioa contu emplástro edo unguéndua gañean parátzea sendatzecó. Medicua becála dá sacerdotéa Jang(**oicoar**)en potestádes, JesuChr(**ist**)orén virtútes absolvitzenúena. Laur lagún berás bearrdire obrátzeco becátuen barcam(**en**)tua: bida icustendirénac, bida icusteneztirénac: Icustendiren biac; *Peniténtea* duéna dolóre, ta confessacen bere gaizquia, ta cumplituduélá emandáquion penit(**enc**)ia. Bércea *Sacerdotea*<sup>3</sup> gultza esp(**iri**)tualeéqui, baitire bi potestáde, ordenarén potest(**ade**)a, ta jurisdiccionearen potest(**ade**)a intencioréqui absolvitzeó. Bi icusteneztirénac, *Jesu Christo*<sup>4</sup> applicátus bere merejim(**en**)tuen bálsamo precíosoa, ezi beraren virtútes obracendúte Sacram(**en**)tuec: *Eta Jangoicoa*<sup>5</sup> gañetic aprobátus sacerdot(**ear**)en senténcia, ezi aprobátzen ezpádu, deus aiezgára: eta ori aguidaique, sacerdot(**ear**)en faltas gutitán, bai penitent(**ear**)en fáltas ascotán.

### 81at.

Aguitzendá gueienic dolóre-faltas, au dá, ez izánes bearr-adiña pena ta urriqui becátues: cerén ezi becátu mortaleén gaizquia gaitz andia dá, venéno fuértea dá, máncha ta márca infernála. Deseguitécó eztá ásqui conféssio-iduribat ceremonias achsál achsála, precisso dá biótzeco péna amárgo sina ta sobrenaturála. Garbitzeco oyál aguitz manchátua, eztá ásqui passátzea ureán arín arína, beárda lichsua óna, autses, ur béros, chsabónas igórcis óngui. Alá itenbáda esp(**iri**)tuálqui, Jesusen odolarén virtútes borrazzendá infernuco márca; eria sendátzen; itsúsia edértzen; gáldua salvacendá. Obispo sandubáti emancióte cóntu, bi emastéqui nola viciren gaizqui. (Parra) Zué sandugárc Jang(**oicoar**)en dónoa, ezauncécó arimac, ón edo gaichsto ciren, aurréguián, comecadúra emátean. Echidenzué bada orduráño; ta ellegaturic comecacerá bigáieac, sánduac ustezueláic icuscozituéla ain itsúsi nola Deabruac, icusizitue ain ederr nola Ainguiruac. Admiratuzé, guezúrr contatubideciotéla aien cónta. Baña chsaquintzue errevelácios, éguia céla contatucioténa, baña confessatzearéqui óngui penaturic, sacram(**en**)tuarén virtútes paratuciréla gra(**ci**)an. Cónta berriz S(**an**)ta Ynes de Monte Policiano deituarén vician contatzendá, Cavalléro Jaun bátec itenzuéla anitz limósna arren Conventurá; sandac pagatzenció orácio eguines arren favóre. Bein

<sup>3</sup> *Sacerd.* dio.

<sup>4</sup> *Chro* eta laburgailua.

<sup>5</sup> *Jang.* dago.

sandarí Jang(**oicoa**)c icusiaracició esp(**iri**)tuan inférnua, ta án zeudé-la Deábruac prevenitzen becála toquibát, anitz sú, ta gárfio, tenáza, ta torm(**en**)táceco instrum(**en**)tu lotsagárri. Naizue chsaquin noren-dáco otézen lecugúra, ta aimbérce prevénzio. Errancéquio ezi Jaun-gárrendáco, nombrátus bere izénas. Affligituzé sánda, ta erraténzio negárres Jang(**oico**)ai Jauna, dá possible utzibearduén aláco penetán erórcera gure onguieguillegúra? Cergátic aláco justicia? Errespon-datució, Cergátic ogueitamárr urteguebetán béñere ezpaita parátu gra(**ci**)an, naiz confessatzendén maiz ásqui, cerén ezpaita béñere confessátu óngui. Yá plázoa urbilduzáio, joáteco prevenituric dagó-quion lecurá, ezpáda emendátzen. Sandac berealá deituzué guizon-gúra, contatució aguitua aláco itz, negárr, ta demostracioéqui, ezi sinestaraciríc eguinzue árc Confessiobát generála contricio andiaré-qui, lenágo ez becála, ta andic guti iltze; ta sandac iza(**n**)zue errevelá-cio confessiogárren médios libratucéla infernuco penetáic, ta cególa salvac(**i**)o vide(**n**). *Ergò nisi paenitentiam egeritis, omnes peribi-tis.* = *Aut paenitendum, aut ardentum.* = S. Thom(**as**) Villanov(**a**).

## Sermo in Dominica Quarta post Pentecostem

*De arte, quâ labores nostri fructificent.*

Per totam noctem laborantes nihil cepimis, in verbo & Luc. 5.

Dúgu egúngo Evang(elio)an Jesus predicátzen S. Pedrorén barcatíc. Predicuasguéros manatzendió Apostoluái, botáceco sáreac. Errespondacendió, *Jauna, gáu gucián ibiligára trabajátzen, ta eztúgu deus arrapátu: baña berórren manurá botacodút sárea*. Botazué, ta atrazué arraiquetabát aimbercécoa, ezi arrituric milágroas S. Pedro urtiquicéquio humil oñetará, *Jauna, apárta enegánic, bainaiz guizón becatária*. Etzaitela lótsa, erráncio Jesus ónac, ezi eméndic alcina zure arránzua izanénda irabáztea arimac. Orrá Evang(elio)a: Oraí significáçioa. Nornáiec dáqui S. Pedrorén bárcoac significatzendué-la Eliza, edo Christio-guéndea; (ta ónen búru déla S. Pedro, ta S. Pedrorén ondorécoa Aíta Sandu Erromácoa, Chr(ist)orén Vicáριοa lurreán, ceñi gucióc gauden obligaturic obeditzéra. *Zú zára Christo Jangoico<sup>1</sup> viciarén sémea*, erráncio S. Pedroc Chr(ist)ori: eta Chr(is-t)oc S. Pedrori, *Zu zara Pedro*, baita oroát nola arri firmea, *eta arri-gónen gáñean fundatucodút nere Eliza, ta infernuco atáriec eztúte indarric onen garaiceco diña. Eta zuri emanentizut ceruétaco erreinuarén guiltzac: eta zúc lotzendúzun gucía lurrean, lótua izanendá ceruetán, ta zuc lazatzenduzúna emén, lazátua án*. Guéro berái erra(n)cio erresucitatuasguéros cegolaic yá igateco cerúra, galdeguinic irur áldis maitezuén bere Magest(ade)a berceéc baño yago, ta errespondaturic irur áldis baiétz, erráncio bérece irur áldis, *cuida ene achsúriac, ta ardiac*. Onéqui eguinzue Christioen sáldo guciarén Artzái búru, emánic ortáco bere guiltzac, baitire potestáde dagozquionac. Claro dén becála, fundatuzuéla Chr(ist)oc Eliza, ez solam(ent)e S. Pedrorén demboráco, baicic betico múndua múndu dén bitárteo, ain claro dá officio ta guiltzagáiec doacila seguitus S. Pedrorén sucessóre

<sup>1</sup> *Jang.*º dio.



arren lécuan sártus doacinetán. Ain Elizaren Artzaibúru dá berás orái dén Aita Sándu Erromácoa, nola S. Pedro béra bere dembóran: Officio béra dú, dignid(**ad**)e béra, guiltza bérac, potest(**ad**)e berac.) S. Pedrorén barcoan gaude berás Christio garénac, Chr(**ist**)orén sáldoan, Eliza Catolicoan, salvaciósco árcan, nondic solam(**en**)te baita pausu ta vide Cerúra, berze nióndic ez. Atária nondic sartuguindúzen arcagóntan, dá fedearén sacram(**en**)tua, batáio sándua. Fedea sollíc obra onicgábe eztéla ásqui, ellegatuasguéros adinerá, nornáiec dáqui. Goácen bada tratátus botáceas sáreac, obra ónen arránzu ona loGracecó, ta icúsis cértan dágon, ez deus arrapátzea lén, ta aimbérce arrapátzea guero, icastecó nola imbeardúgun lana. Ortáco ta gucietáco estimazágun leníc gure Ama Santissima<sup>2</sup>. Ave Maria.

1. *Gau gucian trabajátu, ta eztúgu deus arrapátu*, ció S. Pedro bere

82at.

arrántzu materialas: arrántzu esp(**iri**)tuálas obéqui dezaquéte errán áscoc ori berói: lenic vicidiréneac gaizqui, ezi gáuac significatzendú vicimódu gaichstoa, *eta gaizqui-eguilleac diréla arguiarén etsái*, dió Chr(**ist**)oc, (Joan. 3) *eztaitzengátic aguértu berén gaizqui-eguínac*. Ilumbetán beti, cerén entendam(**en**)tua itsuturic passioneés dabil-tzan perdicioráco videas. Alácoec, dió Esp(**iri**)tu S(**andu**)ac (Sap. 5) erraindutéla bérce múnduan desengañaturic; *berás utsinguindue eguiarén videá, ta etzé arguitu guretáco justiciaren árrguia*. *Necatugá-ra gaichstaqueriarén videan*. *Cer provéchu atradúgu?* Baiqui eméngo eméngo solam(**en**)te vicítu: eméngo bucatu: deus oníc ez biáli emendic, ta án deusgábe aurquitu. Vánoac dabilza múnduco laudá-rio ta burrumbarén átzean necaturic bere itsutasunarén gáu gucian: eta gueró? *nihil cepimus*, eztúgu deus átra. Codiciosoac dabilz ingúr ingúr eméngo ondasúnen eician atzenduric Jang(**oico**)as, ala nola armirmaúac fabricátzen telagáiec, úli arrapacecó; eta gueró? *Nihil cepimus*. Escuac utsíc. Emén guelditu árcac, ta bólsac, éche ta onda-súnac berceendáco, ta berac án utsic penetán. Luxuriósoac dabilza gorpútzen passioneén cebatunáies, ilunduric fédea ta arráccioa, pen-sam(**en**)tu guciac ártan, artáco edatzentúte sáreac, gálac, módac, cántac, dánzac, ta berce milla: ta gueró? *nihil cepimus*. *Gorpúta arréc ján, ta arima Deábruac eramán*. Dabilza golosoac triparén esclávo, nondic antzatucouten yágo ta yágo. Ciéрто pagatu beardiógu

<sup>2</sup> *SSma* eta laburgailua.

pécha triparí ta soñarí guciéc precisso déna viciarén pénan; baña double pechéro dire lissiátuac viciogórtan, especiálqui árdoan, baita lastimabát. Cer atratzeunte arrantzugóntaic? Crédita gáldu, ta govérnua, ta ondasúnac, ta búrua, ta osasúna ascotán: carraiátu misériac. Eta gueró? *nihil cepimus*. Dabiltza irarén ta invidiarén presidáριοac itsuturic passionearén suaréquí nondic mendecátu, humóre gaichstoan, púntus beteric, guérran becála continuo tiro tirátzen, óbras ezpáda, mias, mias ezpáda, biótzas. Cer iragazteunte? ala nola granáda pólvoras bétea, sú ematearéquí, bera beti zaticatzenbaita beñic bein, heritzenbaitu ezpaitu béreceac, alá emén. Eta guéro? *nihil cepimus*. Dabiltza perezóso nágui lanarén etsáiac beti aisanáies, múnduco divérsioen, gústoen, vanidadeén, ta jostaquéten eician, ján, edán, ló eguin, divérti, dembora pássa, ta devalde vici: Eta guéro? *nihil cepimus*. Dabiltza, diót itzbátes, gaichsto guciác Jang(**oicoar**)en desgogorá berén passioneén átzean aperreaturic; alá vici, alá il: eta gueró? *nihil cepimus*. Gáu gucián necátu, ta eztúgu deus arrapátu, baicic perd(**icio**)a.

2. Bigárren arrántzu-guisa debálde ilumbétan gáuas dá ite(**n**)tutengáien, gaizquiac eziót, bai devócio, ta aláco gauza ónac, baña daudélaic becátu

## 83

mortalaren estádoan Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)an: *nihil cepimus*, deus eztúte atrátzen ceruráco, cerén ón guciác estadogórtan eztiren valióso irabázteco glória, falta delaric gra(**ci**)a merejim(**en**)tuarén principio, zain, ta ziméndu déna. Berás estadogórtan oroát bidedá eguin nola ez eguin gauza oníc? Ez por ciérto, eztá oroát: ezi óngui eguina beti dá ón: Orren atencios moguidaique Jang(**oico**)a emátera auxilio, ezaum(**en**)tu, ta incitácio, atrátzeco estadogórtaic. Baña mortálean dágon bitártean eziót ezdezála in gauza onic, eziót bátere prochál eztiréla: Dióténa dá, eziótela emáten drechoric gloriaráco, diréla obra ilac, fruita árchoac utsálac gra(**ci**)a-faltas. Dióténa dá len lenic imbeardéla inála itzulcecó gra(**ci**)ará. Dióténa dá, bota bález mundugóntaic estadogórtan, joaindéla infernurá bere devócio ta aláco guciéquí, ta errainduéla án, *nihil cepimus*, necátu ta deus ez arrapátu.

3. Irugárren arranzu-guisa próchu guti, edo bateréz dacarrána dá, noiz itendiren gauza ónac bai, baña ez óngui, cerén ezi eztágo gure irabácia eguitean ánitz errézu, ánitz conféssio, comúnio, ta gauza, baicic eguitean óngui, errezátzean óngui, confessa comecátzean óngui & ezi eguitenbadíre ganaric ta fadoricgábe, dire alférr

lán, ta casquill ta azál mamiricgábe: itenbadire ichurapénés ta vanid(ad)es, dire iláun, aiceac daráma; itenbadire fin gaichstos, venéno dire. Ta alá ezpáda beirátzen Jang(oico)agána itentugunéta(n), daique aguitu errátea, *nihil cepimus*, anitz necátu, guti arrapátu &

1. Arrántzu esp(iri)tuále óna logracecó, beira Jesus ónac S. Pedroi errána, *egún árguis*, bóta sáreac; eta S. Pedroc errespondatua<sup>3</sup>, *Jauna*, orrén manurá, orren<sup>4</sup> izénean botacotút. Orrá irur medio. Lembic(ico)a, *egún árguis*, naidu errán, graciásco estádoan, conc(ienci)a onaréqui. Gra(ci)an bazaude, quadrable zára Jang(oico)ai, ta quadráble itendúzun ón gucia: pagatucodízu batendáco egún; irabacicouzu edérqui. Ezpazaude gra(ci)an, valiacecós lánac, confésa lenic, edo eguín contriciósco actorenbát confessáceco intencioréqui. Bigarr(en)a, *in verbo tuo*, bota sáreac Jaunarén manurá, au dá, cúmpli bere manam(en)duac, norc bere obligácioac, ta atzétic devócioac. Irug(arren)a, *in verbo tuo*, bóta sáreac maña, edo cebo onbatéqui, au dá unguéndu preciosobát sárean. Cer unguéndu? Jang(oicoar)en amórea. Naut errán, itendúgun óna inzagúla Jang(oicoar)en amóres, Jang(oicoar)en izénean. Jaten edo edatenbadút, biz Jang(oicoar)en izénean. Meza, orácio, devócio, edocéin gauza esp(iri)tuale indezátén, biz Jangoicoaren amóres. Oroát bérece lánac: oroát sufritzéco dirénac, Jauna, orren izénean déla. Ortáco aguitz dá ón bere óbra egunécoac offrátzea goizóro; ta obeágo, asterácoan. Orrá *gracian*<sup>5</sup>, *Jangoicoaren*<sup>6</sup> *mánua*, ta *Jangoicoaren*<sup>7</sup> *amores* itemb(ait)a. &

83at.

2. Arimain alde ongui dió, erraindidáte aguián, baña gorputzarén alde arrántzu óbea atraceunte gaichstoéc botatzentuténac sáreac concienciaicgábe malicias, trámpas, usúras, pobreén izérdia ta odóla chupátus... Goácen tenturéqui emén, ezi dá pausubát au irrístabéra, ceintan cási irrístatucén David sa(n)dua: *mei autem penè moti sunt pedes* & (Vide ps. 72.) Cergátic emén ónac nequetán aguián; ta gaichstoac aisa fortunóso abásto? cergátic óna joán goicic; ta gaichstoa gueldi emén? provechúsko céna héri edo il: deustaco ezténa, edo solo gaizqui itéco vici sano ta sendo &. Diót, au beñic bein déla Jang(oicoar)en juicio jústo secrétoen barnabát ezin daiquéna

<sup>3</sup> *errespond.* dio.

<sup>4</sup> *orre* eta marratxo bat -e gainetik.

<sup>5</sup> *graan* eta laburgailua.

<sup>6</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dio.

<sup>7</sup> *Jang.*<sup>en</sup> berriz ere.

escudríña, *donèc intrem in sanctuarium Dei*, joanartáño desengaña-  
 cerá Jang(**oicoar**)en árguian, cein óngui doáien gucía Jang(**oicoar**)en  
 aldétic. Diót, eztéla emén lécuá, emáteco prémio edo castigo principá-  
 la; ori eldúda guéro: eméngoa dá bidanábar: Diót, ondásun p(**ro**)-  
 prioac diréla solam(**en**)te gra(**ci**)a, virtúteac & itenduténac óna persó-  
 na: gañaráco haciénda, diru, ondásun deituac eztiréla p(**ro**)prioqui  
 ondásun, oyéqui gaichsto izandaiquelaic persóna: oroát eritásun, po-  
 bréza, ta ebéc eztiréla gaizqui p(**ro**)prioqui, daiqueláic óna izán obé-  
 qui: Gaiz p(**ro**)prioac dire vicioac, becátuac & Diót, común diréla  
 ónen eta gaichstoén, ondasúnac oroát, gaitzac oroát. Diót, Jang(**oi-**  
**coa**)c bialce(**n**)tuéla guciác ónes ta onnáies: éguia dá ezi comunquiró  
 trabájuac emén yago passacentutéla ónec errefináceco, yago gloria  
 irabázteco, imitáceco Jesus & ala nola soldádo obenéi fiacénbaitióte  
 Erréguec itericóric ta nequeríc andiénac. Orái eztaique dúda, Jang(**oi-**  
**co**)c bereéi emaindiotéla eméngo ondasunetáic ére, convenibazaióte.  
 Gaichstoéi emátea daique izán; yá cebogorréqui tirátzeco beregána,  
 ta convidátzeco emendátzera; yá indezatengátic limósna, ta alá pur-  
 gátu becátuac, ta lográtu miseric(**ordi**)a, ezi limósna dá guciétáco ón,  
 ta onéqui daique erósi cérúa ére, ta ala salvátu abrátsac limósna egui-  
 nes, póbreac paciéncia izánes: yá azquénean condenatubearbadire,  
 pagátzeco emén intústén ónqui pichscac ondasun idurigoiéqui. Baña  
 norc izaindu invidia aláco ondasúnas? Obé pobre izán, éri, ta maldérr  
 emén, salvatubearbada: eta fíngórtas dauzqui áscó emén pobre Jau-  
 nac berén culpaicgábe, ta alácoec iduquibezáte conformid(**ad**)e ta  
 paciéncia esperánza onaréqui tesóro ándia bilduric dagoquiotéla eter-  
 nid(**ade**)an. Ezpadúte logrártzen emén arránzu óna gorputzarén álde,  
 deus eztá galduríc, orren pártes izaindúte án egún doble ta yago ira-  
 bácia. Baña aguidaique ere áscó izátea póbre berén cúlpa: 1.<sup>a</sup> Izáteas  
 floxo aplicacioric ta governuricgábe. 2.<sup>a</sup> Emáteas tripái ta soñái pécha  
 sobranian. 3.<sup>a</sup> Zórren beldúrr ez izáteas, ezi pagazále gaichstoa eztá  
 milágro beártsu izátea, norc emán eztuéla. 4.<sup>a</sup> Ascotán gaizqui irabá-  
 ciac gáldus gañarácoa, nola fruta ustélaic sánoa. 5.<sup>a</sup> Caridade-faltas;  
 eztúzie emannái, ta etzaize emáten orgátic. *Emázie, ta emanenzaizie,*  
 dio Chr(**ist**)oc. 6.<sup>a</sup> Sisátzeas amarrén ta primiciac & &.

## Sermo alter in eâdem Dominica Quarta

*De piscatione spirituali.*

Per totam noctem & In verbo autem tuo laxabo rete. Luc. 5.

Egúngo Evang(elio)a dá au, S. Lucasec contacenduen guisan, (narrasis) Gendeac & Ezin daique dúda, aguitucéla arrantzugúra, contátu becála, baña ciërto ere dá milagrogártan badéla mystério. Entendáceco escazágun gra(ci)a. Ave Maria.

Len lenic admiragárrí dá ordúco gendegáien afficíoena aditzerá Jang(oicoar)en itza: Orgátic ain ónac cire Christiand(adear)en primiciagáiec, ezpaicára gú aien áldean digno deitzeco ére Christio: Ain epél, ain munducóil!. *Quomodò obscuratum est aurum!* Nola ilundudén Christiotasunarén lustregúra! Fede bera, Doctrina bera, léguea sacram(en)tuac, gauza guciác oroát; eta ain differénte vicimódua!.

Bigárren admiráceco déna igategúra Jesus S. Pedrorén bárcoan, ta andic emátea guciéi bere doctrina cerúcoa. S. Pedrorén bárcoan enténda Eliza, ceñen buru Jesus bera beti delaric, eguinzue bere Vicario S. Pedro, ta arren ondorécoac. *Zu zára Pedro, errancio, ta arrigónen gáñean fundatucodut nere Eliza; ta infernuco atáriez eztút<sup>1</sup> indarric onen urratzeco diña.* Elizagáu da barcogúra, ceintan dágon asséntus contíno Jesus bera guréqui, ofrecitu becála, munduare(n) acabanzaráño, ez solam(en)te sacram(en)tuan duén preséncia erreálas, baitaré bere assisténcia, provid(en)cia, ta lagúntza amoréscas. Au dá barcogúra, nón sarcen eztén arráia, au dá, nón vici eztén persóna, eztaique sártru cérúa(n), déna déla. Au dá barcogúra, nón sollic aurquitzendén virtúte ta santid(ad)je eguiáscoa, nón sollic ceruráco videa, Jang(oico)ai quadrátzea, obra onac, ta milágroac diren, ta bérce nión ez. Au dá barcogúra, salvaciósco árca dilúvio universal(ea)n & Au dá barcogúra, ceñen ondatunáies dabiltzan Deabru

<sup>1</sup> *eztút* dio, espero den *eztúte* ipini beharrea.

infern(**ucoa**)c, Heregeac, Judioac, Gentilac & baña lenágo urralezá-  
quete Cerugáien fábrica. &

Irugarr(**en**)a, *duc in altum*, erratendió S. Pedroi, tira itsas barnerá,  
ta bota sáreac arrantzucó. Cer dá ori? Edátzea múndua bárna predi-  
cátus Jesu Chr(**ist**)orén doctrina, irabaztecó arimac. Laurg(**arren**)a  
dá gracióso dióna S. Pedroc, *Jauna, gáu gucián ibiligára necaturic,*  
*ta eztúgu deus arrapátu.* Cer dá au? Predicári pobreén lástima; errán  
ta errán, trabajátu, ta necátu; ta arimabát ez irabáci! Baña, dio San-  
duac, *orren manurá botacodút sárea.* Botazué, ta ará non atratzen-  
duén arraiquetabát milagróscóa. Cer dá au? Adiarástea Jesusen be-  
deicioaréqui eztéla faltáco arima ón ta sandu nón edo nón. Atradíre  
barcotíc áscó lén ta guéro vicioen átzean suélto náies, utziric Jan-  
g(**oicoar**)en videá. *Vultis et vos abire?* dió Jesus amorósoac, Nauzie  
joán zuéc ere? Errespónða S. Pedroréqui, *Domine, ad quem ibimus?*  
Jauna, norengána joaingára?

84at.

Ezcaude intenciogórtan. Guardagaitza beréqui. Bitárteo, ene Chris-  
tio onac, zaráte beldúrr faltadáien Christiand(**ade**)a? Ez ez pénsa  
alacoric: Botacodá sárea nón, noiz, ta nola duén placér gure Jaunac,  
ta inendá arra(**n**)zu óna S. Pedr(**or**)en barcorá.

1. Alabér barcogáu daique enténda persóna bacócha, ezi mún-  
du chipibát dá guizóna; Arráiac virtúteac, óbra ónac, merejim(**en**)tuac  
ceruráco. Itzgáiec, *gau gucian necátu, ta eztúgu deus arrapátu,* S. Vi-  
z(**en**)te Ferr(**ere**)c paratzentú becatárien ágoan ilasguéros, idiqui-  
tzendírelaic arimarén béguíac: (S. 4. dominica 5 post Trin.) ezi S.  
Greg(**ori**)oc diónes, *béguíac erchstentuénac culpac, idiquitzentú pé-  
nac.* Orduán báda erranendúte, *gau gucian necátu, ta eztúgu deus*  
*arrapátu:* cerén *vicitudiren ilunbetán,* ori léna: *gaizqui ta nequetán;*  
ori bigarr(**en**)a: *Vánoan ta berén caltetan;* ori irugarr(**en**)a. Arimarén  
gáu ta iluntasúna dá eguietafedéscó gauzen atzendúra, ignoráncia,  
ta acordugábea. Eztá iluntasúna, múnduas aimberce caso eguitea,  
ta ain guti Jang(**oico**)as? Ilumbetán aisa tropezátzen, ta sarcená  
lóiean, ta eztá icústen: alá arima Jang(**oico**)as atzendua aisa erocen-  
dá edocein becatután, especiálqui secrétoan, orái ezcaitueláic níorc  
icústen, dió. Eztá gáu ilúna vicitzea mortálean arima, ta ain seréno,  
jan, edán, irri, ló eguin, ta gañarácoac? Ezpáda au iluntas(**un**)a, eztá  
gauiluníc. S(**an**)to Thomas Doctore Ainguiruac Teologiarén irúz-  
quiác ció, etzequiéla nola daiquen alégra séculan arima daquiéna  
dagóla becátu mortalarén estádoan. (flos SS. ej. vit. ad fin.) Arracio-  
réqui deitzeunte becatáric gau ilúna berén vici passátua itsuquiró.

2. *Laborantes*, diôte yágo vicitudiréla gaizqui ta nequetán. Bai, ezi nola daizque pássa óngui duténac Jang(oico)a cóntra? S. Pabloc ció, *Jangoicoa*<sup>2</sup> bada gure favóre, nor gure cóntra? Becatáric erranbeaute, *Jangoicoa*<sup>3</sup> bada gure cóntra, nor gure favóre? Vici ón aisa gustóscóa damatéla, ustedúte bóboec beirátus achsaletic; baña pagarastendiôte berén escótea aldártes Deábruac. Cémbat peligro, beldúrr, álque, ira, deshónre &. Icustentúgu, diózu, cántus, irris & Guezúrres ta fálसान dire, ala nola serpienteñtó deituac Tarántula heritzenduélaic bát, venenoaréqui ematenomendió irriarén passiónea, ta ala ilcenemendá irris. Alácoa dá gaichstoen alegra(n)cia, bárnean becatuarén venénoa, ta ilic arima, naiz eztúten pensátzen. Eta cer, baldín arguitzenbadiôte arimarén vista, icustecó? Eta cer, ilcerácoan? Cer guero juicioan? *Vicitugára*, diôte, *ilumbetán*, *gaizqui ta nequetán*.

3. Irug(arren)a orái, *Vánoan ta gueuren caltetán, nihil cepimus*. Obra ónes prochuric ez; gaichstoos berriz cálte; eztúte cerí euchi. Balthasar Erreguerí, noiz cegon alegranciaric andiénean, aparecituric

## 85

escubát aurcaséco parétean, escritucitio irur itz: batean ció, *pizátua dá balánzan, ta arin atradá*. Gau bérean galduzue erreinua, ta vicia, eméngo ta seculácoa. Cer ganáncia atrazuén? Ariogortára da viciódirénes solam(en)te eméngo eméngo, ajolaicgábe guerócoas: cióna Henrico VIII.<sup>e</sup> *Omnia perdidimus*; gucia galdudúgu. *Vicitugára Vánoan ta gueuren caltetán*.

1. Alabér itzgaiec, *gau gucian trabajátu, ta deus eztúgu arrapátu*, daizque aplica obra onac itentustenéi ere, baldin itenbaituste gaizqui, edo násis becatuéqui, edo gána gaichstoan, edo vanid(ad)es, edo fin gaichstos. Erránzue S. Pabloc, *si linguis hominum* & Obraric andiéneac eztutéla deus válio, ezpadúgu caridaderic. Baña beti ere galcendá onetic yago edo gutiágo finezarén faltarén ariorá. Sagarrbát daique izán sano; daique izán árcho: daique izán ustél barnetic. Sanoac dú valio; árchoac ez aimbérce; ustélaic bateréz, naiz ón-colóre. Oroát monedabát daique izán urre fiña ta pizúcoa; ta passatzen-dá: faltadaquióque cembáit gráno; ta galcendú preciotic ariorá: baña urre falsua bada, eztaique pássa. Oroát obra onetán: itenbadi-

<sup>2</sup> *Jang.*<sup>e</sup> dio.

<sup>3</sup> *Jang.*<sup>e</sup> berriz ere.

re Jang(**oicoar**)en amóre púros, dire sagárr sáno, urre fiñ: baña itenbadire gana gaichstoan, vanid(**ad**)es, fin gaichstos, ta alá, pizatuco-dire Jang(**oicoar**)en balánzan, examinátu juicio div(**ino**)an. Cerbáit imperfécio naiz aurquituric, grano faltadú, eztá gucia gáltzen, bai arintzen ta gutitzen estimácioa. Baña fin gaichstos solam(**ent**)e, ta vanid(**ad**)e útses imbadire, bateréz Jang(**oico**)agatic, fuéra fuéra, ustélac dire, úrre fálsu, ón colóre... Eta cer, itzulcenbadire pócio? Goácen juiciorá; icuságun. Cer dacárzu orr? Jauna, aimbérce méza, errosário, estácio, predicu, baru, & Para balánzan. Olá, oní faltazáio aimbérce gráno; bercegoni aimbérce & Eta alá emén contacentugúnac egúnca ta berregúnca, án aguián eztúte valióco érdia ere, aguián deus ez. Cer dacárzu orr zuc? Jauna, aimbérce conféssio ta comúnio. Pára balánzan. Óngui eguinac badire, viva, validizúte barcaceco & Imbadire ajolaicgábe, iduripénes solam(**en**)te, dolóre ta propos(**it**)o finagábe, edo alchátus cúlpa mortálac; venéno dire, fuéra fuéra hypocrita &. Zuc cer dacárzu? Jauna, aimbérce lan, néque, izérdi neure officioan. Para balánzan. Norendáco aitudá? beretáco sollíc, oroitugábe badén Jang(**oic**)oric. Eztá pasátzen monedagói. Jauna, cumplitus neure obligácioa: baña Jang(**oico**)as memória guti. Valiódú cerbáit, arincará órdea, ta ez valiobearzúten adiña. Cer erremedio?

2. *In verbo autem tuo laxabo rete*, S. Pedroc errán ta eguinzuéna, Jauna, orren manurá, orren izénean, orren amóres botacotút sáreac, inentut dilig(**en**)ciac. Erremedio-guisagáu bearrdúgu, especiálqui guc ezcarénoc eguitéco zervitzu ándiac. Bi mañatán dágo, lembic(**ico**)a goártzean beti guciétan ez admiticéco offensaric Jaunarén contra: bigarr(**en**)a itentúgun ónqui pichscac eguite-

85at.

an dezaquégun moduric obénean. Beñic bein ez nási gueure(**n**) lánac ta gauzac becatuéqui, ceñéqui guciá gálcera botacenbaita, mortaleéqui bentzait: ceren ezi mortálea sarcearéqui mortificátuac dire yá len inicáco óbra ónac, ilcen becála baitíre arren casos Jang(**oicoar**)en alcinéco; bitárteo itendíren ónac berriz dire obra ilac; eta solam(**ent**)e dire obra viciac itendírenac gra(**ci**)an. Orái bada eguitea óbra ónac nastecátus becatuéqui dá ala nola Erreguerén bazcária guisátzea pocioréqui. Ya berás eguitecó edocéin lán edo gauza, pára letreroabát copétan: Explicatuconáiz. Antiguásco sacerd(**ot**)e súmoeac beárzue eramán copétan loturic pláncha edo cintabát, ta óntan escrituric letreroagáu, *Sanctum Domino*, Consagrátua Jang(**oico**)ai. Alá zuc eramán escrituric copétan, nauterrán, frincaturic biótzean ta me-



mórian itzgáu, *Jangoicoa*<sup>4</sup> lén. Zoáz lánerá? Jang(**oico**)a lén. Zoáz jaterá, edaterá? Jang(**oico**)a lén. Zoáz divertitzerá, &? Jang(**oico**)a lén; ta ez atzén.

3. Au suponituríc, eguín lán edo itécoa daiquen obequieníc finéza ta perféccio guciaréqui. S. Ygn(**aci**)oc icusizue bein bere menecobát cególa eguiten lanbát alá nágui náguia floxézas: galdeguincio, norengátic iteunzu langói? Arc, Jang(**oico**)agátic. Orduán Sánduac, Tori bada, berriz itenbauzu Jang(**oico**)agátic guisaórtan, penitência onbát emaindizut; cerén ezi guizonengátic itenbálit, passagárri dá eguitea ala; baña itendélaic ain Jaun andiagátic, imbeárda gogotíc eta perfeccioréqui. Guisoric obéna dá Jang(**oicoar**)en amóres eguitea: onéqui guciá urrestátzen becála, ta estimagárri dá: pichscac ére amóre fiñaréqui dire precióso: ala nola erratenduén póbreac, Jauna, emén erregálo guti emanendiógu, baña borondáte óna. Eta edocéñec naiagodú arrautzebát borondáte onaréqui, ezi ez ánitz platér origábe. Cémbat yago Jaun gucién Jaunac eztuénac deusen bearríc, ta solam(**en**)te naibaitu gure biótza ta amóre fiña? Yá berás edocéin lán edo gauza iterácoan, errán biótz bárnean, Jauna, biz orren ize-neán, orren amoretán. Zoáz lanerá? Jauna, biz langáu orren ize-neán. Zoáz jatera & Jauna, biz orren amóres. Divérsioan ére, Jauna, orren izénean biz. Oroát, Dúzu burucomín, gaitz, trabáju? Jauna, orren amóres déla. Indizúte aggrávio, edo alacoríc? Itzúli Jang(**oico**)agána, ta ofrátu amentñogói, Jauna, orren izénean, orren amoretán déla. Amóreac suplicendú gure pobreza; nola baicio S. Theressac, *Jauna, nic baño zervitzu andiagócoac inentio nornáiec; baña amátu yago nic baño, eztút sufritu beárr*. Bota sáreac Jang(**oicoar**)en amores, ta atracouzu arraiquéta, nola S. Pedroc, in verbo autèm tuo &.

---

<sup>4</sup> *Jang.*<sup>a</sup> orain ere.

## Sermo in Dominica Quinta post Pentecostem

*De internâ justitiâ, et injustitiâ.*

Nisi abundaverit justitia vestra plusquàm scrivarum<sup>1</sup> & Math. 5.

Egúngo Evang(**elio**)an erratendigu bere Christioeí Jesu Chr(**is-t**)oc, ezpáda zuén justícia, edo ontasúna yago ezi Escriva, ta Fariseoéna, etzaráte sarrtucó Ceruetaco erreinua(**n**). Aitudúcie diotéla, ez iltzeco niór: ta iltzenduénac merejíduéla péna: Baña nic diót, ezi duénac biótzean ira bere anaiarén cóntra, duéla meréji pena, ta gaizqui erratendiónac, yágo péna. Orréqui adiarastendú, iltzea déla gaichstoágo bai; baña eztéla beárr aimbérce condenaceco bat; ásqui déla mias heritzea, ta biotz solles ére. (Dió yágo ére; ofratzerácoan aldárean, oroitzenbazára duéla zure anáiac cerbait zure cóntra, utzirik an ofrénda zoáz, ta baquezaite lenic zure anaiaréqui, ta guero joán ta ofrazázu. Anáia dió Christio-lagúna, delaric gucién Aita bát, ceni erratendiógun Aita guréa. Ontáic paratucé, ta guelditudá Elizan costúmbrea besarcatzecó Sacerd(**ote**)a ta Diaconac, ta emátea guciéi pácea comunione-alcinean.) Seguitzendú beitiágo berce becatu-generoetán adiarácis Escriva ta Fariseo hypocritagáien contra, baicire contént ez eguitearéqui aguérrian gaizqui andiric, macúrr entendátus Jang(**oicoar**)en léguea, seguitzendú, diót, adiarácis ta desengañatus, ezténa goártzen itz gaichstoetaic ere, ta bárneco affécto gaichstoetaic ére, eztéla ceruráco, ezpáda emendátzen. Onen clarátzea dá orai gure itécoa. Eguinzógun bere diosalea Maria Santissimai<sup>2</sup>. Ave Maria.

Ezpáda yagócoa zuén ontasúna Escriven ta Fariseoéna baño, etzaráte salvatúco, dió Jesus salvazáleac, ta arracioréqui, ceren ezi gañéco azálas ta agueridénas caso eguin, ta ezpadá eguiten mamias ta barnécoas, eztá ori on izátea sinés ta eguiáz Jang(**oicoar**)en alciné-

<sup>1</sup> *scrivarum* idazten du, -v- erabiltzen duela.

<sup>2</sup> *SSmai* eta laburgailua.

co, baicic on iduritzea gendeén beguiétan. Obra cimenduricgábe fál-suan, edo usgúne duéla parétean, urratu ta eroricodá. Piláre séndoa izambeárrean, barimbadá uts mamiricgábe bárnean, eztá gauza jásteco pizu ándia. Aláco óbrac fál-suan, aláco piláre canáscoac dire hypocritac, on colóre gañetic, ta barnetic uts, edo ustél. Ajola bai, guizónec icustenduténas, ta ajolaic ez Jang(**oicoar**)en béguias dá fál-suan vicitzea ta engáñuan. Principála dá biótza edo borond(**ate**)a. Au naidu Jang(**oico**)ac len lenic, guero gañarácoa. Edocéñec ere eztú anitz estimátzen emána, ezpada emátén biotzes gogotic: cémbat gutiágo Jang(**oicoa**)c deusen bearric eztuénac? *Biotza dá*, dio S. Agustíne, *eta borondatea*<sup>3</sup>, *ceñéqui gaizquia itendén*, *eta onquia*. *Voluntas est quâ peccatur, et quâ rectè vivitur*. Mogueim(**en**)tu ta gauza gaichstoac borondat(**ear**)en contra naieztuéla borcha eztire becatu formá-le, cerén ezpaita consetim(**en**)turic: Oroát obra onac borond(**at**)e onicgábe eztire sinés onac. Ya berás icúsia dágo ón eta gaichstoén má-

86at.

mia becála déla biótza edo borond(**ate**)a; Onéc iténtu ón edo gaichsto gañarácoac. Escribe ta Fariseogáiec murmuratzenzúte Jesusen Discipuloes; cergátic? cergátic etzusten garbitzen éscuac, óguia jate-có. Ó *hypocritac*, errancióte Jesus ónac serio, *ongui erránzue Isaiasen agos Jangoicoac*<sup>4</sup> *zuétas*, (Math. 15) *Gendegónec ezpañes honratzen-náu*, *baña biótza apárt enegánic*. *Vanoan honracennaute eracútsis gendeén gustorá*, *ta ez yago*. Erránzue berla gendeèi, *ainazázie ta enténda*. *Eztú manchátzen guizóna agotic sarcendénac*, *baicic agotic atracendénac*. *Alácoac eldudire biotzetic*, *nola blasfemiac*, *testimonio*<sup>5</sup> *fál-suac*, *ladronqueriac*, *deshonestidadeac*<sup>6</sup> & ebéc dire ciquintzenduténac guizóna. Contaturic guero, nola sentituzúten errangúra, añadituzué; *uzquizie: itsuac dire*, *ta itsuen quidári*; *eta itsuac itsua quidatzenbadú*, *bióc eroricodire lézean*. Nola eztá itsutásun, falsed(**ad**)e, ta engáñu, cumplitunáia Jang(**oico**)aréqui on colóres ta idúris, admititzentuelaic gaizquiac biotz bárnean? Cer hypocresia eztá, contént egótea ez niór ilcearéqui, luxuriásco becatuic, ta berce alacoric ez itearéqui aguérrian, admititzenbaitu irac, odioac, affécto, ta gozande liquitsac secrétoan ta biotz bárnean? Ori dá gorénas cum-

<sup>3</sup> *borond.*<sup>a</sup> dio.

<sup>4</sup> *Jang.*<sup>e</sup> dio.

<sup>5</sup> *testim.*<sup>o</sup> dago.

<sup>6</sup> *deshonestid.*<sup>ac</sup> dago.

plim(en)tu idúri munduaréqui, ez Jangoicoaréqui, cein delaric esp(i-ri)tu puro, ez solam(en)te gorputzai, baita esp(iri)tuai ere dágo beira. Hipocrita cóntra, dago beira gendeéi ez iduritzeco gaizqui; eztú beirátzen Jang(oico)ai iduritzeco ongui. Orgátic Ješusen erreprehénsio ta desengañuric fuerteénac cire Fariseo ta hypocritagaien cóntra. Ayetas ció, *Goarzaiste fariseoen oranzatic*, au dá, exemplu ta doctrinatic. *Goarzaiste Profeta falsuetáic, eldubaitire elles vestituric ardi iduri gañetic, eta bárnean ótso gosétiac*. Eta berei errancióte, *ay zuetas Escribe ta fariseo hypocritac, amarrentzenduziénac ménda, ta cómia; eta ajolaic ez leguearén manamendu<sup>7</sup> andiagócoes, justicias, misericordias<sup>8</sup>, fedead: ebéc cumpli, ta ayéc ez utzi. Quidari itsuac, elchobáten passáceco maunca billa, ta bitárteo irésten camélloac. Ay zuetas, gañetic vasoa ta platera garbitzen, eta zeuróc barnean beteric malicias ta immundicias. Ay zuetas, baizaráte nola obia churituac gañetic, bárnean béteac liquitsquérias*, Math. 23. Bai, ezi aisa dá anitz ta anitz becátu eguitea biótzean, nón eztuén nióren estorvuric, belduric<sup>9</sup>, alqueric, ezpáda sollic Jang(oico)as: bérce alde néque dá erremediátzea yá apprehénsio-fáltas, yá ezaundu-faltas. Ezauncecó, ta eztáien niór equivocá,

Goácen declarátus noiz itendén becátu biótzean, noiz ez. Aurpéguiac bezáin diferente dire arimac; batzúc ain lazo ajolacábe, ezi naiduéna sártu, naiduéna átra, nola ostátu publicoan, ta bátere eztúte contátzen becátu, ezpáda mostráce(n) camporá; bercebatzúc berriz ain beldúrri érchi, ezi gogoratuordúco gaizquia, batere naiezpaute ére, ustedúte becátu. Orái bada oná errégla: Borond(ate)a dá, errán

## 87

becála, itentuéna becátuac advertenciaréqui báteo: nai ezpáda, ezpáda conse(n)titzen, eztéla becuric. Consentitzea, edo naiizátea aguidáique irur modus, lemb(icico)a deseátus gaizquia: bigarr(en)a naiz deseátu ez, egótea gozátzen, edo placer arcen gaizquian: irug(arren)a sentituric desordenácio edo effecto gaichstoa berebaitan, egótea errepugnatugábe permititzen. Claratzendá comparaciogonéqui: bateg icusiric dañura urbil bere haciénda, naiizátea sarrdáien da consentitzea deséos: bigarr(en)a alegrátzea sarrdáien: irug(arren)a ústea dañuan gueldi gueldia atraracigábe. Parazágun exémpu iran: Go-

<sup>7</sup> *manamdu* eta laburgailua.

<sup>8</sup> *miseri*<sup>ca</sup> dio.

<sup>9</sup> *belduric* dago, eta ez *beldurric*.

goraturic bati aggrávio in idurizaióna egótea biótzean mendecatu-  
náies, deseátzen berceain contra cerbáit, cláro dá consentim(en)tua,  
naiz eztión gaizquiric eguín ta ez procurátu: bigarr(en)a egótea errétzen  
becála berceain cóntra án berebaitan, naiz ez deseátu: irug(arren)a  
colerain súa sentituric, egótea ajolaicgábe deus eguingábe garaiceco  
tentácioa. Parazágun exémpu castid(ade)an. Gogoraturic cerbáit  
cóntra, deseacenbadú, yá indu becátu biótzes: Deseatuadiña ez,  
baña gozátzen, plazér árcen egotenbáda gaizqui gogorátuan, ori ere  
dá consentim(en)tu, ta becátu: naiz ez egón claroqui cebátzen, baña  
sentituric suarén ta moguim(en)tu gaichstoen desordenácioa, egótea  
ajolaicgábe permititzen ingábe erresistenciaric, ta diligenciaric báte-  
re garaicecó tentácioa, dá consentim(en)tu-guisabát ori ére. Cónta  
berriz naiz Deábruac edo passióneac incitadézan, ta emandézon sú,  
naieztuéla bórcha, baldin aborrecitzen, errepugnátzen, inála egui-  
tenbádu garaicecó, naiz iraundézan ásko dembóras tentácioac, eztá  
becátu, baicic merejim(en)tu, ta martyrio-guisabát. Eztuénac nai en-  
gañátu bere búrua, badezáque enténda consentitzearen ta ez consen-  
titzearen diferéncia. Eguia dá ezi ásko aldis, ain pegacórr izánes  
gaitzgói, eztéla segurátzen persóna, induén edo eztuén ásqui garaice-  
có; ta dá dudásco gauza.

Cer eguinbeárdu bada lancegoiétan? Beñic bein aborrecitu, erre-  
pugnátu, despeitu gogorácio gaichstoa: ortáco dá on itzúltzea gógoa  
Jang(oico)agana, Jesus, M(ari)a Santissima<sup>10</sup>, edo Ainguiru goar-  
diácoagána, goardabenáza, otoi: eztút nai nic orréc naieztuenic &.  
Dá ere ón paratzéa pensátzen Jesuse(n) pássioan, edo infernuco sú  
ta penetán, eriótzean & Dá ere ón, bacarric dagólaic, santiguátzea,  
golphátzea bulárta, belaurico edo auspésca parátzea, edocéin penali-  
dáde emátea bere buruai, aldátzea lécuá, postúras, lan & Obéna dá  
istántean erchitzea arimarén atári guciác, au dá, atzéntzea gucis ár-  
tas, parátus gógoa bérece gauzetán. Eztá ón sobra beldúrr izátea,  
chsaquiníc ezdezaquegula niórc inaráci becuric, naiezpadúgu, ta  
au gueren éscuan dagó-

87at.

la; aborrecitu sin sinés aláco gauzac erioa bezain, eta orrégui<sup>11</sup> libre  
naiz. Ortáco lendanic imbeardéna dá ez acostumbrátzea ocásio ta  
ceboetára, apartátzea ez solam(en)te afféctoa, baita memória ere ge-  
nerogórtaic; goardátzea sentidoac; afficionátu gauza onetára; eguin

<sup>10</sup> SSma eta laburgailua.

<sup>11</sup> orrégui dio, eta ez orrégui.

erresolúcio goardatzecó becatuetáic libre algucia Jang(**oico**)aréqui báteo; berritu maiz erresoluciogói dióla, obe dút il, ezi offenditu ene Jauna neure caltetán. Alá preveniruric vicidéna ta humil, eztú garai-tucó berla bérla etsáiac.

Orái itzúlís aichstecorá, izambeardúgu onágo ezi ez escriba ta fariseo hypocritagáiec, onac aguérrian, ta ónac secrétoan, ónac gañé-co aldétic, ta ónac barnetic, ónac miac, ónac accióneac, ónac biótzac, ta biótzeco gucíac. Cer aigára, naiz ez eguin gaizquiric itzes edo acciónes, gaichsto bagára biótzes? Ori litzáque ofrátzea Deabruai biótza, Jang(**oico**)ai mia, ta azála. Eztunái Jang(**oicoa**)c biotzagábe bátere, ta alá gucíá guelditzendá Deabruarén. Cíerto enfadagárria dá gendemotagau; naute in cumplim(**en**)tu ichurapénes, ichaurr-futfútes<sup>12</sup>, azáles, eta casquillles mamiricgábe. Ón iteunten pichsca ére corrompitzente beren hypocresias, ta munduari ongui iduritunáias. Cer aguitzendá? Gaizquies gáldu, ta ónquies ez irabáci. Cer aguitzendá? Díona JesuChr(**ist**)oc, *repperunt mercedem suam*, múnduco vanidadeen<sup>13</sup> aicea naizúte, beude orréqui; eztúte cer esperátu enegánic, eztutelaic eguin enegátic. Alá hypocrita vánoec engañatzeunte cíerto berén burua, aguián múndua ere bai aldártes, baña Jang(**oico**)a ez niolatére, itembaitu escudriña biótzes ta entráñes, *scrutans corda et renes Deus. Erranzadázu, hypocrita*, dió S. Juan Chrysos(**tomoc**) h. 45 in cert.) *Ón barimbáda ón izátea, cergátic eztúzu náizán nauzúna iduritu? Eta gaichsto barimbada gaichsto izátea, cergatic naidúzu izán eztuzúna iduritunái? Iduritzea gaichsto, barimbáda itsúsi, izátea gaichsto dá edérr? Eta edérr barimbada iduritzea ón, ón izátea eztá ederrágo? Judas Apostolu traidórea dá hypocriten avanderátu ta escarm(**en**)tu. Nic nori ematendióten apa, ura izainda, ura beaucie preso eguín, erratencióte Judioéi salduzeláic Jesus: eta ayen lénean joánce bera bere habitu Apostolicoaréqui, ta ellegaturic Jesusengána, emáncio apa, agúrr Maestru Jauna. Jesus onac erra(**n**)cio, adisquidea, cértara etorrizára? Apatatéqui traiciacennauzu? Jesus inzute preso; baña Judas biramónean urcaturic bere búrua arbolebatetic dilindacá érceac lurreráño zapartaturic án icusizé hypocriten escarmentu, &. &. &.*

---

<sup>12</sup> *futfútes* uste dugu dagoela idatzirik, *-t-* grafema erabiltzen dela. *Ik.* 124at., 1. paragrafoan *icháurr futfútac*.

<sup>13</sup> *vanid.<sup>en</sup>* dago.

## Sermo alter in eâdem Dominica Quinta post Pentecostem

*De justitia coram Deo et hominibus.*

Nisi abundaverit justitia vestra & Math. 5.

Zuén justicia, edo justotasúna ezpadá yágo ezi Escriben ta Faiseoéna, etzaráte sarrtúco Ceruetaco Erreinuan, dió Jeus ónac egúngo evang(elio)an. Au dió etorricénac eracustéra Ceruráco videá, desengañáceco múndua engañacenzuténa hypocritagáiec, anitz ajóla zuténeac agueridéna mundúcoen beguietará, ta ajolaic ez biótz barnécoes Jang(oicoa)c sollic icustentuénes, baita falsuqueriabát indignoa Jang(oicoar)en despreciotán, ta arimen perdiciotán. Eztió Jaun div(ino)ac ezaitzela<sup>1</sup> izán jústo gendeén alcinean, baicic ezcaitzela conténta orréqui sollic, ta añadizágula izátea jústo Jang(oicoar)en beguiéta(n) ére, au dá biotz bárnean ére; ez idúris solam(en)te, bai sinés, ta eguiáz ere; ez aguérrian solam(en)te, bai secrétoan ére: Ezperén condenatucogaituéla Jang(oicoa)c: Eta condenatzenbagaitu Jang(oicoa)c, libratucogaitúte guizóneac? Justo izam beardúgu gendeén alcinean, emáteco exémpu óna, ta ez galveric: jústo ere bai Jang(oicoar)en preséncian, ez gálceco gueuróc. Paratzendú exémpu iran ta luxúrian, ezcaitzen conténta ez eguitearéquí itz ta accioneic cónta, goárceco affécto gaichstoetaic ere biótzean. Ezperén izanendéla bat hypocritagáien guisa, mundúcoen beguiétan ón, Jang(oicoar)en beguiétan gaichsto; gañéco aldétic edérr, bárneco aldetic itsusi: Sodomaco sagárr, colóre ta azála sáno, bárnean áuts eta erráuts: vivora legún idúri gaña, baña entráñac pócio ta venéno: vestitúric ardi elles hypócritac, ta bárnétic ótso gosétiac. Eguia dá gaichstoágo déla comúnqui gaichsto izátea bárnétic eta campotíc, ezi solam(en)te bárnétic; baña aguián dañu yago itendúte ón idúriec, cerén fiatzendíre ardiac ustés árdi diren edo artzái; ta ótso disimulá-

<sup>1</sup> ezaitzela dio hemen, eta 6 hitz geroago ezcaitzela.

tuec galcentúte. Baña aimbérce gaitz ez izánic ere, ásqi gaitz dá condenacé, gaichsto izátea ón colóres. Orgátic ón izáteco alde gucietaic, assibeardúgu biotzetíc, guéro gañarácoan. Assigaitzen salutátus **M(ari)a**. Ave **M(ari)a**.

Cein differénte diren Jang(**oicoar**)en juicioac, ta guizonénac, ezi ascotán guc ustedugúna ón, gaichstotáco dauca Jang(**oicoa**)c; ta guc gaichsto ustedugúna, berac ón. Nolas ala? Eztá gure entendam(**en**)-tua Jang(**oicoar**)en arguiarén errañubát becála? bai. Bada nola entendatzendúgu ain differénte? Cerén gure arguigáu labúrrítoa baita, ta ez ellegátzen icusterá bercerén entráñac. Jang(**oicoa**)c icustendú biotza, guizónac solo agueridéna campóra, ta agueridenetic itendúgu juicio barrendéguias; eta orrá cergátic uts itendúgun juicioetán, Jang(**oicoa**)c ez becála. Idurític izaterá dá ánitz differéncia, ta ezin adrenduric ártu. Ba-

88at.

tzuéc idúria edérr, ta arima dúte itsúsi. Bercebatzuéc idúria itsúsi, ta arima edérr. Bercebatzuéc edérr idúria ta edérr arima. Bercebatzuéc idúria itsúsi, ta arima itsúsi. Jang(**oicoa**)c caso guti itendú idúrias, bai arimas anitz. Zuzén joatecós guc oroát imbearguindúque: baña contraco aldéra dabilta hypocritac, cáso ánitz idúrias, ajolaic ez arimas edo biótzas. Eta nainúque chsaquín cer próchu dúten ón idúrias, gaichstoa barimbadúte biótza? Choriñanzale-motabátes contatzendá, chori arrapatuduenái solam(**en**)te jatendióla búrua, edo biótza, gañarácoa ústen. (Olaó magn. ap. Parra) Infernúco mirua dabíla ingúr ingúr beira nóndic arrapátu, cer? guizonarén biótza, edo arima, baita oroát, gañarácoas ajola guti dú. Cergátic? Baitáqui biótza arrapatuasguéros, gañarácoa ere guciá beretáco dela. Nolas bada? Cerén Jang(**oicoa**)c ere lén léna gure biótza naidu, *praebe, fili mi, cor tuum mihi*, idázu, dió, ene húmea, zeure biótza niri. Eztió emannái hypocritac, baicic mia, ta gañeco idúria ón colóre cembáit errezu, devócio, ta alácoes; principála biótza Deabruarén zervitzután; ola, dió, eztiát nai ire emána: Deabruarí mámia, ta niri casquillac? Daramánac principála daramála gañarácoa. Eztiát nai bátere. Goáie órdu gaichstoan. Aláchse guelditzendá guciá Deabruarén. Icuságun exemplus. Errégue Magoac joancirelaic adorátzera Jesus jaiobérria, Herodésec errancióte, zoáste, ta galdeguinzázie aurras diligentequí, ta aurquitzenduzieláic gastigazadázie niri, nic ere joán ta adoradezáten. Mia eztú gaichsto mostrácen, baña biótza dú Deabruarén, ilaracizueláic aimbérce aurr innocénte, ilnáies Jesus óna. Judas traidóreac besárca emátean Jaun div(**ino**)ai



erra(n)cio, agúrr Maestru Jauna: acciónea, ta mia óna dirúdi, baña biótza Deabruarén. Alá berce milla hypocrita Deabruac eramantué-nac biótz gaichstoagátic. Alchatzendíre guizonéi emén, aguercendíre guciéi án. Oh cémbat emén mediáno edo ontáco passátuac icuscodire án abominácios béteac barrendéguián, ezpaitúte borrátzen emén confessio humil dolorósoas! Ongui confessátuac aguerrtucootedíren, batzuec dióte ezétz, dionagátic Jang(oicoa)c (Ezechiel. 18) itendue-nas penit(en)ci)a, *eznáiz oroítuco intuen gaichstaquéries*: bercebatzuec diote baietz, baña alcaizunic eta caltericgábe, cerén inzúten penit(en-ci)a. Baña peniténte fálsu hypócrites cer izainda? Oná au idurizuéna sándu & Oná bercegáu & Norc pensa? &

## 89

Baña utziric hypocrita galdugóiec, jarducágun iteunténes vanid(ad)e berén ónes, dabilzánés nondic óngui iduritu munduarí, ez Jang(oic)oari, nola ción Jesus ónac Escribe ta Fariseoes, (Math. 23) *Iteunten guciá iteunte, icusdezquitengátic guizónec. Errecibitudúte berren pága*. Emén beárda explicátu óngui, eztáien enténda gaizqui. Bi manam(en)du túgu óntan contra iduriduténac, baña componcendirénac elcarréqui. Bein erratendigu, Math. 6. *Atténdi, beira, ez eguin zeuren óna gendeén alcinean, icusizaiztengátic, ezi eztúzie premioric izánen Ceruetán dagon Aitagánic*. Exémpu paratzendú limósnan; *iteunzuláic limósna, ezdezála chsaquin zure ezquerréco éscuac, cer itenduén escuíécoac, izandáien zure limósna secrétoan; orréqui zeure Aita Jangoicoac<sup>2</sup> icustenduénac secrétoan ere pagatucodizu...* Bércé bein erratendígu, (ib. c. 5.) *Aláco manerán zuén arrguiac arrguibéz gendeén alcinean, ezi icusdezquiten zuén óbra ónac, ta laudadezáten zuén Aita Jangoicoa<sup>3</sup> Ceruetan dagóna*. Nola compondu bi manam(en)duguébec? Explicatzentú edérrqui S. Greg(ori)o andiac, (h. 11 in evang.) *Itendúgun<sup>4</sup> ónquias ez billacecó gendeén laudáριοac. Óngui eguina aguérrian naiz bai; inténciao beti alchácean: aldebat ematecó proximoei exemplu<sup>5</sup> óna, ta bércé álde Jangoicoai<sup>6</sup> sollic quadratzeó intencioaréqui, deseáceco secrétoa*. Yá berás entendaturic dágo, béñere eztugúla imbeárr deus icusi ta laudagaizatengátic; bearrgaitutéla icusi, ez gaizqui eguiten béñere, bai óngui eguiten exémpu

<sup>2</sup> *Jang.*<sup>c</sup> dio.

<sup>3</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

<sup>4</sup> *Itendúgu* eta marratxo bat -u gainetik.

<sup>5</sup> *exemplu* eta marratxo bat -e- gainetik.

<sup>6</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

onagátic ásko aldís; gañarácós beti procuratubeardugúla secrétoa contentátus icusigaitzan Jang(**oicoar**)en béguiac. Baña ô cémbat dén flaquezagártan eróriac! gendeéc icustentutêlaic, orduán procéssio, fêsta, cánta, predica gogótic: etzeláic norc icúsi, orduán gancaric ez. Cémbat daráman aiceac! arroitu anitz, ta ichaurr gúti: arrautze charrbát, ta anitz caráca.

Juicio ta virtúte óna duénac ásqui dú Jang(**oico**)a testigotáco: eztú niori quadratunái, ezpáda Jang(**oico**)ai ta Jang(**oico**)agátic. Alá yago, ta gogoticágo iténtu ónquiac secrétoan, ezi ez aguérrian: eta eguitenduengúra itendú Jang(**oicoar**)en atencios eta amóres: eta alá onen pichscabátec yago valiodú ezi vánoen puscabátec. Jesus óna bein témploan cégo beira limósnac ematenciren lécuán: bátec cillárr, bérceac urre ematenbidézue: Jauna ichsil: Ellegatuzê emastéqui alargún pobretóbát, ta

89at.

emánzue laurcórro. Jaun ónac orduán erránzue, *Onéc emánda yago ezi guciéc*. Nola dá ori? Cerén laurcórro humild(**ad**)e ta carid(**ad**)e biotzescoarêqui yago da Jang(**oicoar**)en estimácioan, ezi ez búlto ta burrúmba ánitz origábe. Alá persónac ere munduarén estimácionaiac, berén búrués presumitu aundináiac eztíre estimagárrí Jang(**oicoar**)en beguétan: arrácioa dá, cerén ayêc ere eztúten estimátzen Jang(**oico**)a sollic, nola beárrden: Cóntra berriz humil chipiñoac presunciogábeac anitz estimacentú bere Magest(**ade**)ac: arrácioa dá, ceren diréna diren eguiáz séndo vanidad(**ear**)en aicericgábe, ta Jang(**oico**)as sollic itendúten cáso. Eta yago déna, cer noáie erraterá? múnduac bérac ére azquenéco yago estimatzentú ón humilac, ezi ez presumitu váno-útsac; ezi humild(**ade**)a éguia dá, ta señále dá persóna déla juicióso búru onécoa; vanid(**ade**)a berriz dá guezúrres, falsedádes, engáñus, ta señále faltazaióla cerbait gráno persónai, ala nola itsúsiac baitabiltza móda ta ichurapén billa suplitunáies faltazaióten ederrtasúna, baña eztíre orgátic eguiten ederrágo, bai aguércen váno: ederra dénac sinés eztú alaco bearríc, ta llanoágo ta ederrágo. Alá arimac humilágo ta obeágo Jang(**oicoar**)en ta munduarén estimácioan.

Icuságun S. Juan Baut(**ist**)an. Au cé guizonbát munduagánic apárt igués zebilána desértuan predicátzen vanid(**adear**)en cóntra; Judatárrec alaére zeucáte erreputácio ándian, pensatzenzúte otézen Chr(**ist**)o bera; eta seguratumáies bializitióte berén mandatáriac. Cer dió ontára S. Juanec? Eznaizela ni Chr(**ist**)o, ezeta ere digno lazátze-co berarén oñetácoac. Eta Chr(**ist**)oc cer erratendióte S. Juanes Ju-

dioéi? Cer icusterá atrazaráte deserturá? aguián canaverabát aiceac dabilána? Canavéra nor dá? calavéra vano-utsa. Cer dá erabilcea aiceac? Gendeén opinioneés moguitzea, beti beira, cer errandúte? cer erranéndute?<sup>7</sup> Laudatzenbaute, goápo, búrua góra. Uztenbaute, bérla tristaturic. Favoratzenbaute, alégre zóro: cóntra badire, bérla mutúrr ilún. Orrá canavéra aiceac dabilána góra bera. Cémbat obeágo litzáque beira egótea Jang(**oico**)ai gusto eguitéco al gucian, descontent bere búruas, onágo ez izáteas; Jang(**oicoar**)en beldúrr solam(**en**)te, berce nióren ez. Alá cé S. Juan, ceintas ción Jaun div(**i-noa**)c, emastequietáic eztá jaio andiagoric Juan Baut(**ist**)a baño. Errepára emén nola mundúco opiníone óna darráion atzétic igués itenduenái, nola itzálac guibetlic seguitzendizu, eta barimbazoáz arren átzean, ura alcína aratágo. Baña ciérto déna dá Jang(**oicoa**)c desechátzen vano andináiac, ta estimátzentuéla humilftoac.

## 90

Exemplu dugu bere Apostolu ta Discipuloetan: exémpu sandu guciétan. Exemplu David. Ontan icuságun. Saul errégue goraturic vanatuzé: ta Jang(**oicoa**)c desechatuzué. Erratendió Profeta Samueli, joanbeazuz Beléngo Isaii, edo Jeseengána<sup>8</sup>, ezi arren humeetáic dá nic escogitududána Erreguetáco. (1. Reg. 16.) Joánce, ta icusiric arren seme lembic(**ico**)a Eliab, Samuelec consultatuzué Jang(**oico**)a biotz-bárnean, au otedá berórren escogitua? Errespondatució, etzázula in casoric ichúras ta goratasúnas; nic biótza beiratzendút, ez agueridéna. Eztút ori nái. Icusiric bigarréna Aminadab: eztá ori ére, erráncio Jang(**oicoa**)c. Irugarr(**en**)a, eztá ori ére. Zázpi séme presentaturic, eztá ebetáic niór escogitua. Erráncio Samuelec, eztúzu berce semeric? Aitagarc errespondatució, Chiquiéna faltadá, ardiéqui dágo Archaico. Betórr ura, erránzue Samuelec, ezi eztút amenic pasatucó icusiárteo. Ecarraraciric muticoa paratucenéco alcinean, errevelatucéquio Samueli, orichsedá, consagrazázu Errégue. Orrá nola ándiac útzi, ta chipiftoa naiduén Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)ac nióren bearric eztuénac. (narra quoque sis pugnam cum Goliath ib. c. 17.) Baña cértaco exémpu obeagoric dugúna baño Maria Santissiman<sup>9</sup>? Disponituzué gucién Errégue, Jaun, ta Jabeac biáltzea Cerútic mundurá embaxadabát séculan aguitudén andiéna; escogitu-

<sup>7</sup> Lehenbizi *errandúte* idatzi du, eta gero *erranéndute* egin du.

<sup>8</sup> Donostian honela egin dute: «joan beazu Belengo Isaii *adolesengana* edo *gazteagana*» (o. 252, l. 12).

<sup>9</sup> *SSman* eta laburgailua.

zué ortáco Ainguiruetáic bát principála: Itécoa cé billátzea mún-  
 duan doncellabát digna izatecó Ama Príncipe Jaun Jangoicoarén,  
 naibaizue vestitu gure naturalezarén zamárras: Ortáco dá claro  
 bearcéla izán Princéssa múnduan izanzeiquen obéna alde guciétaic.  
 Jaustendá Embaxadóre escogitua: Doáie zuzénean, nora? ez Errégue  
 edo Emperadoreén palacioetára, bai Nazaréthgo éche pobrebatéra,  
 non bere zocóftoan cégon erretiraturíc, ta atzenduríc munduagánic  
 Maria humil póbre gutic ezauncen, gutic estimatzenzuténa, baña  
 Jang(**oicoa**)c eta Céruac maite zuéna yago ezi mundu gucía, nola be-  
 rac ere bai etzuén casoric múndu gucias Jang(**oicoar**)en áldean.  
 Aituric embaxáda, ofrecituric bere persóna Jaunarén esclavatáco  
 guelditzendá eguiníc Jang(**oicoar**)en Ama, ta gucién Erreguina. Cer-  
 gátic aimbérce estimátu ta honrátu emastequibát? Bere santid(**ad**)e  
 guciagátic, claro dá: baña cein virtúte edo prénda izánze yágo mo-  
 guituzuéna ortára? Cergátic principálqui? Erratendígu berac, *quia  
 respexit humilit(ate)m ancillae suae*, cergátic beiratudión bere Escla-  
 vagónen humiltasúnai. Orrá cein estimátua dén humiltasúna! Cerú-  
 co Errégue dá izánden guizonic humiléna Jesus; Erreguina izánden  
 emastequiric humiléna; ango Jaundiac pobre humil izánac, andic  
 botacire(**n**) subérvoen lécuán. Qui se humiliat, exalt(abitu)r & Quis  
 sicut D(omi)nus Deus... et humilia resp(ici)t, & &.

90at.

## Sermo in Dominica Sexta post Pentecostem

*De Viatico Jesu in Viâ ad aeternitatem.*

Misereor super turbam, quia ecce jam triduo & Marc. 8.

Egún contatzendigu Evang(elio)ac milagrogúra, nola Jesus ónac zázpi oguis ta arrái pichscabátzues asechituen laúr milla guizón, ta sobratuciren zázpi espórta-ógui. Baña niri errobatzendidána biótza dá, ez solam(en)te favóre eguína, bai ta yago Jesúsen biótz noblegárren amóre urricariosogúra; *Lástimadút*, ció, *lastima dút géndéas, yá irur egungóntan baitabilta ene átzean, eta bialcenbaitut baruríc, angabetucodire videan*. Misereor & Videgáu esp(iri)tualqui dá eméngo vicitza, baita viagebát eternidaderát: azquén pausua joáteco eméndic dá iltzea. Óngui joátean dágo beticós óngui izátea. Dichagói lográteza bere indárres sollic guizónac, dá impossible. Cer erremedio? Jesusen átzean ibili irur egúnes; lástima izanendígu, sustentacecó, atragaitzen salvo. Eztigu faltatúco semearéqui báteo Amac gra(ci)as béteac. Ónen beárr gára orái ta beti. Escazógun. Ave M(ari)a.

*Misereor super turbam*, dió Jesus ónac, lástima, compassióne, miserc(ordi)a dút géndéas. Eta nic diót Davidéqui, *sperent in te, qui noverunt nomen tuum*, Jauna, esperánza óna orrenbaitan izanbezáte daquiténec orren izéna, ezpaitu desamparátzen nior dabilána berórren billa. Gure Jaunabaitan izéna ta izána dá bát. Cein dú izéna? Jesus. Jesus cer naidu errán? Salvazálea. Eta cer dá salvazálea? Gaitz gucién sendazálea, ta ón gucién inzálea; gucién gañetic becátuen quenzálea, ta gra(ci)arén ta gloriarén ema(n)zálea. Condenátzen ere bidedú cembáit? Precisso, delaric Juéz, ta imbearduelaric justicia. Baña ez orgátic daique errán condenazálea oroát nola salvazálea, cerén ezi condenátzea itendú ezin bérceas naiezluquéla bórcha, baña salvátzea itendú bere génios ta officios. Condenátu niór ezlúque ná; salvátu bai nailúzque guciac: Condenátzen eztú bat berére meréji ez-tuenic; salvátzen bai ásko etzuténac meréji: De man(er)a ezi delaric

misericordioso becála jústo ére, alaére obraetán yágo mostrace(n)dú misericórdia: *bérce obra gucién gañetic dire bere misericordiac*<sup>1</sup> mira-

## 91

*gárrri: miserationes eius super omnia opera eius.* Berórren izéna dá olio ichsúria becála, ció Esposa Sandac, (Cant. 1) *Oleum effusum.* Ala nola olioa beti licóre gucién gañeracenbaita: botadezázun ur edo árdo, bóta guéro olio; au guelditzenda gañean. Bota oroát lenic ólio, ta gañetic ur edo árdo; olioa icuscouzu gañera igáten. Alá Jesu-sen miseric(ordi)a. Au dá miserien ta miserableendáco. Ebéc nor dire? Gú Evaren húme desterrátuoc negarréscó vallegóntan viáges eternidaderát. Eta cer miséria dire tugúnac? Aimbérce cúlpa ta péna, ta aimbérce contráριο videan. Cer erremédio? Billátzea Jesus, berarén atzetic ibiltzea berarén seguim(en)tuan. *Lastima dút*, erraindu, ta miseric(ordi)a inendu, ezgaitzen angabétu ta gáldu videan.

Icuságun billátzean noiz, non eta nola. Billátzea dá berainganá-co deseoa ta ánsia, bera amátu, estimátu, ta imitatunáia. Noiz? Irur egúnes, au dá irur adinetán, gastezútuan, adín erdicoan, ta zarrzútuan. Duénai constáncia ibilcecó Jesúsen átzean irur egungoiétan ez-tió faltáco bearduéna videcó, naiz dela milágrós. Eztú utzico baruric. Eta non billatu beardúgu Jesus? Dagon lecuétán. Non dágo Jesus? Badaquigu déla Jang(oic)o ta guizón; Jangoicotasúnes dago ez solam(en)te Céruan, baitaére lecu guciétan. Berás nonnái zauden, in memoria, biáli zeure goraintziac, afféctoac, oráçioac beragána, ô Jesus, maite dút: Urricári nitas, biz enetáco Jesus & Guizontasúnes dágo, ez lecu guciétán, baicic Céruan erreálqui, ta ain erreálqui sacram(en)tu aldarécoan; Céruan egotemódu naturáles, sacram(en)tuan egotemódu sobrenaturál milagrósos ta amorósos. Berás zoáz tem-plorá Jesu-sen billa, biz án zure errefúgioa, ta ón gucién guela edo téguia: yá visitátus, yá comecátus mintza, ádi, áma estima aláco amazálea. Imaginetán eztágo Jesus; solam(en)te dire imáginac memoriátáco: ezin icustearéqui maitudugúna, memoriain conservaceó valiatzengára imáginac, eta ezin dezaqueguláic ápa, besárca, ta adorátu bera, berarén encios adoracentúgu imáginac, mostrátus adora-guindezaquela bera obéqui, albaguindezáque. Heregeéc irri itendi-gúte adoratzentugúla imágina zur, metále, ta zenzugábeac Gentilen guisa. Gentile(n) guisa adoratzentugula dá guezúrta, cerén Gentilec adoracenzúste imáginac beréz

<sup>1</sup> *miseri.c.<sup>ac</sup>* dio.

91at.

virtuterenbát zutéla ustés: guc chsaquinic emáginan eztéla virtuteric, baicic errepresentátzea persóna, ceñen imágina dén, adoratzendúgu ez beréz, bai errerepresentatzenduenarén amóres, de man(er)a ezi adoratzendú imágina adoratunáies Jesus bera; imáginan paratzendut ágoa, baña Jesus beran biótza. Inzázu alá maiz: eta orrá non billátu Jesus, nonnáí memórias ta amóreas, sacram(en)tuan visitatus ta comunicátus erralidadean<sup>2</sup>, eta imáginan beirátus ta adorátus biótzes.

Orái nola billátu, nola ibili Jesusen atzétic. Irur guisatán, *Afféctoan*, *Effectoan*, *Perfectoan*. Banáca beréchsis: *Afféctoan* dá, amátus, laudátus, gra(ci)ac emánes, deseátus, escátus & Ortáco beárda ichéqui amorearén súa; au ichequitzendá meditácoan pensátus gure amóres eguín ta passatuzuéna Jesus ónac: beira batzután aurr Beleen & bercebatzútan adin andiágoan guciéi ongui eguiten & Azqueñean pássioan yá présó, yá maltrataturic milla manéras, azotaturic, arancees coronaturic, gurutzearéqui sóñean, eroriric gurutzearén péan, ta artan gurucificaturic; beira espácios emén yá beguíequi imáginan, ya pensam(en)tuarequi imaginácoan oñetáic bururáño gucia dolóres, llágas, odoles; alá bere onetsiaréqui bégo arima irur itzeéqui: irur itzeac dire irur c, Carid(ade)a, Compassiónea, Contricióna. Orrá nola dén billátzea Jesus afféctoan. *Effectoan* dá obrátus, ta cumplitus berarén manam(en)duac eta consejuac; offensaric ez admititus bátere, bai eguines cerbáit devociósco especiále berarén amóres, ala nola contrarioéi merchederenbát, ta aláco & Ori dá effectoan. *Perfectoan* dá sufritus trabajuac ta azóteac Jesusen compañian: Irur escus azóteac beartúzu, lembic(ico)a zeure éscus trabajátus penit(enci)as, mortificátus inclinációac & Jang(oicoar)en éscus eritásun, plaga, malhúrr & Proximoen éscus persecúcioac, accióne chárrac, mi gaichstoac & Ori dá seguitzea Jesus perféctoan. Itembauzu alá, etzaitu utzico baruric, emanendizú bai susténtu, eguitecó ongui zeure viágea Ceruráño.

Susténtua ez solam(en)te dá gorputzarén, baitaré ta bearrágo arimarén. Tentatuzuélaic Jesus Deábruac baru-ondórean, erratencióla, manabéz arrigóiec itzulidaitzen ógui, errespondatució Jaun div(ino)ac, *Eztá solamente*<sup>3</sup> *oguis sustentátzen guizóna, baita ere Jangoicoaren*<sup>4</sup> *agoco itzes*. Sustentu óna dá Jesusen doctrina Cerúcoa, noticia ematentigúnac Jang(oico)as, Jesus beras, Elizas, gra(ci)as, vi-

<sup>2</sup> erralidadean dio, eta ez errealidadean.

<sup>3</sup> solam.: dio.

<sup>4</sup> Jang.<sup>en</sup> dio.

citza seculácoas, eriótzeas, juicioas, inférnuas, glórias. Susténtu óna bere legue, Evangélio, orácio, ta gauza eracutsitigúnac. Susténtu óna ematentigun ins-

## 92

pirácio, arrguitásun, consolácio, indárr, sú, ta arimo, passacecó ón-gui videa. Susténtu óna utzitígún sacram(en)tuac, nola gra(ci)arén berce aimbérce cañu, edo instrum(en)tu; batáioa, jaioarastecó vici oberá, ta marcatzecó bere hume-guisa: Confirmácioa, indárr ematecó arimái: Conféssioa, sendatzecó eritásun esp(iri)tualac: Communiónea, erregalacecó amorosoqui arima miragarriró: Olio Sandua, quencecó becátuen ondorecoac, seguracecó viciarén póstrea, suave-zecó pausugúra, consolatzecó arima bearrén bearrénean. *Misereor super turbam*, lástima izándu bere pobreés, susténtu onac utzitigu Ceruráco videan.

Gucién gañetic nolaco miseric(ordi)a, amoréscó excéssó, ta aláco Jaunac sollic ingeniaturúquen erregálo erregalátua, ta susténtu ezin obea cerúcoa miragarria ematendigu aldaréco maigártan Jesus on onéguiac, on-utses uztenbaita játera ni becaláco pobregánic! Guti balitz becála aimbérce torm(en)tu, dolóre, ta pena passátua, beira despedidan nolaco amorearén señálea utzidigun! Gauza gucién Jabe becála utzizigúque lúrrean ta Céruan dén gauzaric obéna: baña gucia utziric ere, guti iduricéquio beragábe: bera bada bera, bere pare-ric eztuéna emanzequigu, ez aguérrian, lotsaezquindeitzen, ez berce edocein guisas, baicic susténtu-guisa jan ta edanzágún gustorá. Cein Aitac, cein Amac alá sustentatzen, ta erregalatzentú bere hume mai-teénac? Noiz naiduén pobréñoac, betorr, dio emén naucázu. Eta ez-taiquelaic joán Elizará, eri egónes, utzicodú desamparaturic? *Misereor*, dió, lástima dút pobréñoas lancegártan, noiz dabiltzan ingúr ingúr ótso inférnúcoac galdunáies. Ala doáie bere sacram(en)tuan edocéin eche, echóla, ta lucuetára<sup>5</sup>, sarcenzaigu atáriac bárna, ta pé-choac bárna, nola erráten, báquea zuéqui, oná ni, ez lótsa. Cer inde-záque obeagoric Christioac viciare(n) postrean, baicic errecibitu Jesus amore guciaréqui, ta utzi dena gucia berarén escuétan? Norc salva-tucozaitu, ene anima<sup>6</sup>, ezpada salvazáleac? Eta nola etzaitu salvatúco salvazáleac? Orgátic eriótzeco láncean eztaielá nior descuida erreci-bitzecó Jesus salvazálea comuniónean, cein orduán deicénda Viatico,

<sup>5</sup> *lucuetára* dio, eta ez *lecuetára*.

<sup>6</sup> *anima* dago, eta ez *arima*.



baita nola vidéco susténtu, ceingábe triste dá passacecó pausugúra. Orgátic berén cóntro iteunte egotendirénec egón egón errecibitugábe sacram(en)tuac guerorá guerorá, passátus ala nequetanágo trabájuac, parátus arrichscoan salvácioa, eta aguián dañátus osasúna, cein aguián sendátu edo aliviatucocén sacram(en)tuéqui. Ô fede gutía! Sanduec berriz lén baño lén naizúste errecibitu seguráceco viciarén bucatéroa: Ezin errecibitzeas zute pena. Exempl. S. Juliana Falconeri in Breviario.

## Sermo alter in eadem Dominica Sexta post Pentecostem

*De septem panibus in viâ.*

Si dimisero eos jejunos, deficient in viâ. Marc. 8.

Egúngo evang(elio)a<sup>1</sup> contatzendú S. Marcosec alá: Cególaric anitz gende Jesus onaréqui, ta etzutelaric cer ján & (narra sis ad litteram) Entendátzeco gueuren prochután, billazágun gra(ri)a salutátus M(ari)a. Ave M(ari)a.

Admíra lenic ordúco gendegáien ánsia gure Jaunarén átzean seguitus deserturáño, atzenduric gorputzarén sustentuas, ezin desapegátus beragánic irurgárren egúnean ére. Admíra alabér Jesusen onégui berách amorósoa gucién favóre: niórc eztió ezcátzen<sup>2</sup> jaterá; Discipuloec ez aipátzen ére; eta bera nola Aita óna moguitzendá compassiónes. Eracustenzaigu Christioei, izatecós Chr(ist)orénac, berách beardugúla biótza beartsuéqui. *Si dimisero eos jejunos & bialcenbaitut baruric echerát, angabetucodire videan*, cíó Jesus ónac. Eta alá zázpi óguis bere bedeicioaréqui assecitue guciac sobrátu árteo. Zázpi oguiguébec esp(iri)tualqui dire zázpi alim(en)tu-guisa, ceñéqui sustentacenduén Christioguéndeá salvacioco videan. 1.<sup>a</sup> Ogui corporála. 2.<sup>a</sup> Ogui naturála. 3.<sup>a</sup> Ogui esp(iri)tuála. 4.<sup>a</sup> Ogui sobrenaturála. 5.<sup>a</sup> Ogui divinála. 6.<sup>a</sup> Ogui sacram(en)tala. 7.<sup>a</sup> Ogui finála. (S. Vinc. ferr.)

Oguián entendacendá sustentutáco dén gucia. Lembic(ico)a materiála edo gorputzar(en)a norc ematendigu, ezpáda gure Aita Cerúcoac, ceñi erratendiógun, emanzagúzu gure egunoróco óguia? Bérac gure onnáies mantenitzendú aimbérce egáste, arrái, ta animále-género. Bérac atrátzen, ta acitzendú aimbérce lurréco fruitu gure sustentutáco. Milagro-guisabát dá ezténa erreparátzen, continuo izánes,

---

<sup>1</sup> Hola dago *evangelioa* eta ez *evangelioan*.

<sup>2</sup> Hola dago *ezcátzen*, eta ez *escátzen*.

ta ez estimátzen emanzálea bearr adiña. Portatzengaréla dio fr. Luis Granadac hacienda béltzen guisará, cein egotendiren arbolain péan játen Altsaiac gañetic botacendióten janária, goratugábe búruac beiracéco berén onguiegullea. Alá Jang(**oicoar**)en escutic eldudelaic játen edáten vestitzendugúna, memoriaic apénas dúgun emanzáleas! Contént, ezpaguindez offéndi berac emanicácoes. Escás emátea ascotán dá, cerén gure culpac igatendíren gora escátzera justicia; ezi emanáiac dágo, ezpaguindézo lotu éscua esquérr gaichstos. Ama bada ta estima gure Aita amorósoa, amóres ematentigúna azóteac ere; ta acostubrátu bedecáccera maia ta emátera gra(**ci**)ac otronceeta(**n**).

### 93

Bigárren óguia dá naturála, au dá conservátzea viciric criatugai-tuénac, ezi bere escutic utzibález bat istantebátes, litzáque ila istánte bérean. Gure gorputzarén erlojugáu ain delicátua solo Jang(**oicoa**)c dezáque mantenitu ordenaturic. Errepára nola púlsoa pendolain guisa dágon pulsátzen contíno: Nola gauden contíno aspirátzen, ta errespirátzen átsa barnerá ta camporá. Gueldibalédi orduñtobates, ta gutiágos ere, adió gure erlójua. Norc seguiráci, naiz empenátu ortáco mundúco podóre ta habilid(**ad**)e gucía? Nor dá bada viciarastengaituéna? Nor guardatzengaituéna lóan? Nor ematenduéna aicea ats arceco?. Nor paratuduéna an goiti ta ibiliarásten iruzquia-rén irringóla ederrgúra arguitzéco & Choil itsuac gára, ezpadiógu anitz amóre ta beldúrr Jaun soberanogárri, ceñen ménean gauden yago ezi Amarén ménean aurra sabel bárnean dagóna. Itsuágo dá oraño, baldin offenditzenbadúgu. Eztá milágro-guisabát manteni-tzea Jaun andiac arr desdichátua esquerr gaichstos pagatzendióna? Ó Jang(**oicoar**)en paciéncia! Ó amore digúna milla aldis yágo ezi gueuréc gueuren buruêi! Biz bedecátua &

Irug(**arre**)n óguia esp(**iri**)tuála, edo arimaréna, au dá Jang(**oicoar**)en itza, diónes Jesus berac, *non in solo pane* & Itzgáu enténda Elizac daucan doctrina. Ezquindéque lurrécoec nola quadrátu Jang(**oi-co**)ai, nola mantenitu viciric arima, nola lográtu vicitza seculácoa: Eracutsidígu bere Magest(**ade**)ac mintzátus lén bere Ainguiru ta Proféten médios, guéro bere seme div(**inoar**)en ágos, ta orái ta beti escrit(**ur**)a sagrátu ta Ministroen medios. Yá badaquigu cer sinestá-tu, cer escátu, cer obrátu, cer errecibitu. Badaquigu nola guardátu iltzetic arima, nola lográtu barcácoa, nola & Esquérr Jesusen doc-trinarí: ógui óna dá au. Orgátic ció, Joan. 6. *Ene itzac dire spiritu*<sup>3</sup>

<sup>3</sup> *esptu* eta laburgailua.

ta vicitza. Eta S. Pedroc, *Norengána joaingára? Orréc ditu vicitza eternoaren*<sup>4</sup> itzac. Itzguében virtútes ásko libratudire eriótze eterno-tic, ásko indíre sálvo, sáno, séndo, ta sándu.

Laurg(**arre**)n óguia divinála, au dá Jang(**oicoar**)en inspirácao biotz-bárnean. Eguia fedéscoac, Jang(**oicoar**)en itz guardacendirénac Elizan, ayéc sarcendire edo adim(**en**)tutic aitus, edo beguetáic leitus; baña inspirácao divinoenguébec<sup>5</sup> dire nola Jang(**oicoar**)en mintzatzebát arimai secrétoan, nola fichstu amóroso, biotzarén dei ta uquim(**en**)tu, nola sú ta árgui ematebát gure esp(**iri**)tuai oneráco. Itendú langáu, yá desengañátus entendam(**en**)tua; yá incitátus borond(**ate**)a; yá sártus infernuarén beldurrtasúna; yá parátus becátuen álque ta péna, ta negarrágle; yá emánes consolácao, afficíoene, arimo, ta ánsia oneráco; ta alá berce asco manéras. S. Magdal(**en**)a zo-

93at.

ro zóroa zoéie infernurát vide zabálas: tiratzendió Artzai div(**ino**)ac biotzerá saéta suscogaietáic bát; ta icusázu istántean barátzen urturíc negarretán. Saulo zoéie iras beteríc Christioen cóntra, nola otso-bát: oiuitendió Jesus onac, Saulo, Saulo, cergátic zoáz ene cóntra? ta icusázu istántean nola achsúri mánsóa díola, Jauna, cer naidu indezáten? Ilic quáртоan Jairogárren alába: Ots jaiqui, erratendio Jesus onac; ta icusázu vizturic istántean. Lazaro il ortziric yá laur egúnes; oiuitendio Jesus ónac, Lazaro, atóz campóra: ta icusázu istántean ila vici ta vizcórr bere mortáchsa ta guciéqui. S. Agustin bere letraéqui zoéie galcerá, senticendú Jang(**oicoar**)en inspirácao, ta díó, *cer dá au? letraric eztuténc arrapatzeunte Cérúa, eta gu gueurén letraéqui oná non gauden fundituric lóiean*. Ala Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tuac acorriarastendú gure esp(**iri**)tua: Onic barimbadúgu, dá berarén inspirácao: beira eztén au susténtu óna.

Borzg(**arre**)n óguia dá sobrenaturála, au dá gra(**ci**)a santificán-tea, arimarén vicitza propia, ón gucien zána, vicitza seculacoarén prénda: glória dúzu seguro, barimbadúzu gra(**ci**)a; augábe il urrinduric becála dágo arima becátu mortálean, ezi orgátic deitzendá mortále, cerén iltze(**n**)baitu itenduenarén arima. Ilgáu norc viztu? Bera eztaique beréz: sollic Jang(**oico**)ac offenditua dénac dezáque viztu gra(**ci**)as. Bada conservátzea órtan, goardátzea erorcetic mortálean Jang(**oico**)ac sollic indezáque; ez obligaciao, ezi eztió niori

<sup>4</sup> *etern.*<sup>m</sup> dago.

<sup>5</sup> Hola dio *divinoen*.

zorr deus, bai bere borond(at)es itendú, eta orgátic ere deitzénda gra(ci)a. Au ezpález emán, gálduac guinázque. Beira eztén au ere susténtu ón erregal(atu)a.

Seig(arre)n óguia sacram(en)tála, au dá sacram(en)tuen óna ta virtútea gure santificacecó, principalqui sacram(en)tu aldarécoan ematendén ogui vicia, Cerúco óguia, Ainguiruen óguia, Jang(oicoar)en erregálo erregalátua, duéna beréqui gústo ón gucia, Jesus salva-zálea bera, ógui div(ino)a ta humánoa oratucéna Ama Virg(inar)en entrañetán Esp(iri)tu Sand(uare)n obras, acizéna esne virginálas, errezéna gurúce ta passioarén lábean, orái án goiti gozatzenduténa Ainguiruec ta Sanduec glórian aspertugábe gustoarén útses, emanzaigu vidéco otámen guisa guri bere amóres: án órdea guisaturic ángo guisa aguérian, emén eméngo guisa alchaturic; án gloriaco gústos betetzentuéla, emén gure disposicioarén ariorá. Ogui gucién gañetic dá oguigáu. Comparáci-

## 94

os: Ógui corporála ta naturála contú déla irin comúnas eguina: ogui esp(iri)tuála, divinála, ta sobrenaturála irin-flores: baña sacram(en)-tategáu Jang(oicoar)en amorésco éztis eta ésnes. Ô Jesus onégua! Ô convita sagr(atu)a, non errecibicendúgun Jesus bera, berritzendén bere passioarén memória, arima betétzen gra(ci)as, ta ematenzaigun gloriaráco prénda.

Zazpig(arre)n ta azquen óguia ógui finála, au dá fin onarén, iltze onarén grácia, perseveráncia finála, Jang(oicoar)en dono andía dóno gucién coróna, guizónac beréz ezin izán, ezin merejidezaquéna. *Chutiric bere ustés dagóna beira eztádien eróri*, dio S. Pabloc. Bada istanteóro barimbagaizque eróri, ezpagaizque manténi chutiric istantebátes ere gueuren indárres, nola ma(n)tenitu beti azquén punturáño? Eta puntugártaic egóqui pendiente eternid(ade)a. Guregánic dá inconstáncia, ta gueuren fáltas: persever(anci)a Jang(oico)agánic eta grácias. Comunquiró atracendá eguiatán S. Agustine) errána, *qualis vita, finis ita*, vicia nola, fina ala. Jang(oico)an confia; gueuren baitan ezin fia. Judas Apostolu izána Jesúsén sáldo chipigártaic eramánzue ótso infernúcoac: santidadearén dórré gora gorátuac icusidire urraturic erórcen infernúra. Cer izanenda, jaiqui eróri dabilánas? Ô Jesús, urricári gútas; ustenbagaite baruric, ezcaizque elléga mugará; ezcaizque egón oñen gáñean; eroricogára istántean. Emanbezágu susténtu zazpi oguis, azquenic finálas. Perseguitzenzue Jezabel Erreinac Elias & narra, prout habes 3 Reg. 19.

Inzágun gueuren aldétic mantenicécó favóre gure Jaun óna; ezcaitu utzico galcéra, ezpadúgu bera guc ustén. S. Policárpo zárr Venerab**(le)**a naizue tiranoac apartaráci Jesus onagánic, uca ta blasfemazézala. Sanduac errespondació animóso edérrqui; laurogueitasei urte dú nagóla berarén zervitzuan, eta beñere eztída eguin gaizquiric, óngui baicic; nola naidu uzdezáten orái nic ain Jaun óna? S. Ant**(oni)**o Abadea emezórzi urteetáic alcina beti vicitucé Monge penitência ta santid**(ad)**e ándian. Ya cególaic lauretán ogueitamárr urtetán gogoratucéquio otézen Mongeric aimbérce dembóras zervitzatuzuenic Jang**(oico)**ai. Bacéla bát, errevelatucéquio, ta bearzuéla joán arren billa. Joánce, ta aurquituzué bere cubilan S. Paulo. Salutatúric elcárr, berce gauzen értean galdetució S. Antonioc, nola izáncen arren etórcea ta vicitzea & Flos SS. 15. Jan.

## Sermo in Dominica Septima post Pentecostem

*De christianitate verâ, vivâ, sanâ &*

Attendite â falsis Profetis, qui veniunt ad vos & Math. 7.

Egúngo evang(**elio**)an contatzentú S. Matheoc Jesús onarén itz p(ro)prioac errancituénac bere Magest(**adea**)c bere ágo sánduas, desengañáceco múndu gucia, naibádu izán sálvo. Lenchágo erranic, zabala déla atária, ta lázoa videa daramána perdiciorá, ta anitz diré-la doacinac ordic: Cein meárr dén atária, ta érchia videa daramána vicitzará; ta guti diréla astatzeunténac, dió orái, *Goarzaiste Profeta falsuengánic eldubaitire zuengána ardi-elles jaintsiric, edo ardi-idúri gañetic, baña barnetic dire ótso arrapáriac. Berén fruituetáic ezaunducotúzie. Aguián aranceetáic datóz mátsac, edo larretic bicuac? Alá árbole onac dacárzqui fruitu ónac, ta árbola gaichstoac fruitu gaichstoac... Fruitu onic emáten eztuen árbola ebáqui ta botacodá sura... Eztire sarrtucó Ceruétaco erreinuan guciác niri erratendidá-tenac Jauna, Jauna, baicic ene Aita Ceruetan dagonarén borondate<sup>1</sup> itenduténac, ebéc sarsarrtucodire<sup>2</sup> Ceruetaco erreinuan. Seguitzendú Jaun div(**inoa**)c segurátus ezi naiz milágroac eguín áscoc, despeituac izaindiréla beragánic, eztituéla ezaundunái béreac becála gaizqui-eguilleac. Ó cein cláro eracustendigun vide erreála ceruráco! Onguí icastecó, goácen gra(**ci**)arén billa salutátus M(**ari**)a Santissima<sup>3</sup>. Ave M(**ari**)a.*

Erreguerén Corterá naiduénac joán galdeguitendú, nóndic da videa Madrila? Viáges gara vicigóntan: noratá? Errégue gucien Erreguerén Corterá, goién Cerurá. Nondic dén videa, galdeguinbez infielac; ezi Christio fiélac iduquibeárdú chsaquinic eracústeco ére, cerén

<sup>1</sup> *borond.* dio.

<sup>2</sup> *sarsarrtucodire* dio; baina lehenbiziko *sar-* lerro baten bukaeran dago eta beste guzia hurrengo lerroan.

<sup>3</sup> *SS.* dago.

claro eracutsidígu Jesus ónac, Profeta eguiáscoac, ezin engañoaiz-  
 quénac, ta ezin daiquénac engaña, etorricénac ándic ta arará joancé-  
 nac, eracutsidígu, diót, exémpluas ta itzas, bera lénean joánes, ta  
 mostrátus guri escuaréqui becála, diólaic, *Eguiteunténac ene aita  
 Cerucoarén borondateá<sup>4</sup>, ayéc sarrtucodire Ceruétaco erreinuan*. Yá  
 berás eguitea edo cumplitzea Jang(**oicoar**)en borond(**ate**)a dá Ceru-  
 ráco vide erreála ta bacárta. Eztaique duda. Cer daquigu órdea  
 lurrécoec cein dén Cerúco Jaunarén borond(**ate**)a, edo cer naiduen in-  
 dezágun? Declaraturic dauca berac paratuduen léguean, au dá, bere  
 mandam(**en**)tuetán. Galdeguincio Jesus onari bátec, Jauna, cer imbear-  
 dút, lográceco vicitza seculácoa? Errespondatució, nola leitzendúzu?  
 Leguean cer dago escrituric? Naibadúzu sartu vicitza seculácoan,  
 goarda mandam(**en**)tuac. Itzgáu erratendió Jang(**oicoar**)en Minis-  
 troac ere eldudénai izátera bataiátua, eliza-atárian, galdeturic le-

## 95

nic, cer escatzendió Elizai, errespondat(**uri**)c ezi fedea; eta fedea  
 cer emanendion, ezi vicitza seculácoa; erratendió Jang(**oicoar**)en or-  
 des sacerd(**ote**)ac, naibauzu sártu vicitza seculácoan, goárda manda-  
 m(**en**)tuac. Onétsi Jang(**oico**)a zeure biotz gucias, arima ta entráña  
 gucias, eta proximoa zeure burua becála. Orrá Ceruráco vide: Es-  
 caléra ere deidaique, tuéna amárr mandam(**en**)tu, ala nola amárr  
 grada fundátuac bi aldetáco pilareetán, baitire Jang(**oicoar**)en ta  
 proximoen amórea, edo amátzea Jang(**oico**)a beragátic, ta proximoa  
 Jang(**oico**)agátic.

Oráño claro-ásqui doáie: eztá ain cláro motivoa, cergátic escále,  
 edo viagegáu deicenduén meárr érchia: Eta dirúdi aláco Erreguerén  
 Corteráco videa ain precisso déna salvacecós, convenicéla izátea  
 vide zabála; baña eztió ori, baicic infernurácoa zabál, ta Cerurácoa  
 érchi meárr. Nola dén au, nainúque entendátu, ta entenderáci. Norc  
 emaindigu árgui emén? Elizáco Doctórac, ceñen doctrina Cerúco  
 doctrina deitzenbaitu Elizac; diót, Santa Teressac bere viciarén  
 ogueitamaborzg(**arre**)n cap(**itulo**)an dió amorosturic Jang(**oico**)as:  
*Ó ene Jauna, nola agueridén poderoso déla<sup>5</sup>!* Eztá arracioric billatu-  
 beárr berórrec naidueneráco, ezi guc entenda ála baño possibleágo,  
 ta aiságo itzultzentú gauzac, adiarastendigúla cláro, eztéla berceric  
 beárr, baicic onétsi berórren Magest(**ade**)a sínés, aisátzeco gucia...

<sup>4</sup> *borond.*: dió.

<sup>5</sup> *poderoso déla* ez dago azpimarraturik eskuidatzian.



Eztáquit nola dén érchi meárr videa daramána berorregána. Vide erreála dacúsat déla, ez videchsénda; videbát, ceintas doaiéna gogótic doáie segúro. Urrúti daude pausu gaichstoac erorcecó, cerén oca-sioetaic dauden apárt. Vide-chsenda deicendút nic, ta cámio chárra ta érchia contráco videa, aldebatétic léce barna barnabát, nõra eróri, berce alde burusbérra irriscacórr; descuidadaicenéco erórcen ta galcenbaitire. Nor ere baita onestenduéna beróri, ô ene ondásun gucia, ura segúro doáie, vide zabál *erreálas doáie*. Gucióc dire sandarén itzac; ebétaic dá aguéri, zabál edérr aisa ta gustóso iduricequióla Jang(**oicoar**)en videa sandari, contra berriz munducoéna érchi neque ta irriscátu.

Jesus ónac bérac emaindigu árgui yágo. *Zatóste*, dió, (Math. 11.) *zatóste enegána nequetán zaustenóc gucióc, eta nic vizcorrtucozaistet. Arzázie nere bustárria zeurén gãñean, ta aurquitucodúcie descánsu ta aisúra zeurén arimen, ezi ene bustárria dá suave, ta ene cárga arin.* Cláro dá, dióna bustárria ta cárga déla bere léguea; claro ere dá leguegau déla ceruráco videa: baña eztá ain claro nola ción aichstean érchi ta meárr, orain berriz suá-

95at.

ve arin aisa. Nola entenda? alá: Jang(**oicoar**)en amazaleendáco suáve aisa arin, ta gustóso ére: munduarén amazále apasionatuendáco latz érchi pizu ta necóso. *Asqui dá amátzea Jangoicoa*<sup>6</sup>, dió S. Tere-sac, *aisátzeco gucia bere Magestadeac*<sup>7</sup>. *Zatóste enegána*, dió Jesus onac, *eta nic vizcorrtucozaistet*. Onen confórme yá Ceruráco videa, ez érchi necóso, bai zabál aisa dá Jang(**oicoar**)en amazaleendáco, cerén Jesus ónac laguntzendióten. Aurbát dágo ezin chsásis cárga: la-gunbézo gigantebátec: arin aisa daráma yá. Orrá lembic(**ic**)o arrá-cioa. Bigarr(**en**)a dá dióten amórea Jang(**oico**)ai ta Ja(**n**)g(**oicoa**)c beréi, ezi amóreac guciá suavetzendú. Carrobát doáie gogórr ezin joánes arroituquetan: únta ólios; legúndu ta zaloitucodá. Olio dá amórea: amazázu, ta aisa tiratucouzu bere leguearén cárroa. Cer diót aisa? Voládan airean doáz Jang(**oicoar**)en amazáleac, cerén ari-marén egálac dauzquiten arin libre lurréco passionetatic. Eta orrá irug(**arre**)n arrá-cioa. Milágro dá videa zabál aiéi iduritzea doazilaric airean góra? Arimarén egálac dire entendam(**en**)tua ta borond(**ate**)a. Contra dá munducoiendáco, necóso, cerén virtúte-faltas indárr guti

<sup>6</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

<sup>7</sup> *Mag.*<sup>ac</sup> dio.

dúten, ta ez mereji lagundezóten Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)ac: látz, ceren eztúte(**n**) amore div(**inoar**)en olioric: érchi, cerén nauten Cerúra joán cumplitus berén passióneac ta vicioac, eta alá ezin pássa. Orrá cer-gátic guti diren astatzeunténac Jang(**oicoar**)en videa. Baña eztá berce videric Ceruráco, naiduénac naiduéna errán.

*Attendite à falsis Profetis & Attendi*, beira, goártu Profeta falsuengánic, dió. Proféta falsuac, leguearén cónta eracusteunténac. Ardi éllés jaintsiric, Christio-idúri Christioen nómbreas deituric: Bárnean ótso, biótzean gaichsto. Otso-mota gaichstoficátua dá ori. Otsoarén gósea, inténciaoa, indárrac, órtzac: Otso errealidádean, ta árdi ichúran! Jang(**oico**)ac goárda alacoetáic. Balire ótso ichúran ere, ezlitzáque ain gaichsto: oiú itearéqui artzáieac, aunca tzacúrrec, escapaleizque aguián árdiac: baña orái ellegácen, ta fiatzendire árdiac, ustés diren ardi-lagúnac; eta gueró?. Entendagaitzen elcárr. Evang(**elio**)an deitzendire árdiac Christio ónac. Ótsoac clároan Herege ta infielac: Otso ardiguisan Christio falsuac, adisquide idúri on-colóres. Goarzaiste, dió bere ardiéi Artzái ónac. Eldubazaizu norbáit; suelto beardéla, ez loturic beti obendienciari aurren guisa, ta bércé aláco & Goarzaite, ótsoa dá adisquide idúrian. Eldubazaizu, dióla gozatubeardéla múndua, alégre, árró nolanái, ezperén simplea zaréla, beldúrri & Goarzaite: Ótsoa dá ta otsorrái, araguiarén átzean dabila. Eldubazaizu proximoarén contra gaizqui erránes, in-citátus mendecurá & Goarzaite:

## 96

ótsoa dá, mia dú ortz, mias osca itendú. Eldubazaizu tentatzerá edoccein viciotára: ótsoa dá, Deabruarén officio itendú Christioarén cápas: goarzaite. Eldubadire nola gure dembóra tristegóntan aimbérce clamátzen libertáde libertáde: Goártu, beira cer libert(**ad**)e dióten; barimbáda Jang(**oicoar**)en humeén libertáde, au dá libre egótea passioneén ta vicioen presidiotic, ori ón dá ta guápo, cerén ezi gende apassionátu viciorá emánac preso daude ta prisionéro Deabruarén. Présó dágo vánoa ta subérvoa bere aundináies: présó condiciósoa biótz chsimúrra diruen amóres Deabruarén satartéran: présó luxuriósoa ta gulósoa gorpútz miserablearén gústoen léquedan: preso asárrea & Prisionegoietáic librátuas alegre contacenzué Davidec, *dipuristi, Domine, vincula mea, Jauna, urratutú ene prisioneac*: ya libre nago. Baña libert(**ade**)a barimbáda vicitzea sujecioricgábe legueái, Jang(**oico**)ai, superioreí; ori dioténac ótso dire galgárriac: Goarzaite.

Nola ordea ezaundu, eldubadire ón colores? *Ex fructibus eorum*, dió, berén fruituetáic. Ez fía lóre ta ósto solletán: egón beira fruituái.

Lóreac dire móstra ónac; óstoac itz ónac ta errézuac: fruituac dire óbra ónac, ta virtúteac, humild(ade)a, castid(ade)a, carid(ade)a, obediência, penit(enci)a, pacie(n)cia & Alacoricgábe náiz indezáten anitz devócio-idúri, méza, procéssio, estácio, errosário & Eztá ásqui, dió Jesus ónac, *ez niri erratendidáten guciác Jauna Jauna sartucodire Ceruétaco erreinuan, baicic itendutenac*<sup>8</sup> *Jangoicoaren*<sup>9</sup> *borondatea*<sup>10</sup> *Naiz indezáten milágroac ere, eztá ásqui*, dió, baldin ezpaute virtute ta óbra onic. *Videbam Satanam* & Luc. 10. Etorriric bein bere Discipuloac gózos beteric ciótela, Jauna, berórren izenerá Demónioac ere sujetace(n)zaizquigu; errespondatuzué, beira nindégo nola Satanás erorcencén ala nola centellabát Cerutic: Ez alégra sobra, cerén dúzien potest(ad)e andia, bai cerén dauden zuén izénac escrituric Céruan. Cuida emáteas fruitu ónac, izáteas humil obediénte, goardátzeas castid(ade)a, mortificátzeas génioa ta gorpútza, ez nióri gaizquiric eguiteas ez acciónes, ez mias, ez gógoas, eguin óngui, limósna, ta favóre proximoei, ta irabáci arimac al gucian & Ebéc ta alácoac dire fruitu ónac; alá ite(n)da Ja(n)g(oicoar)en borond(ate)a: alá sarcendá Céruan. Baña ay Profeta falsues engañacentuténes ónac gaichstacecó! Alacobáti aparecituréciquio S. Pedro asárre librubatéqui escuan erratencióla, tó, leitzác. Leituzitue itzguébec, *noiz atracotút arimac condenaracituguénac*. (Señer. Cura instr. c. 12) Claus p. 4. cat. c. 35)

<sup>8</sup> Honela: *itendut.*<sup>ac</sup>.

<sup>9</sup> *Jang.*<sup>ca</sup> dio.

<sup>10</sup> *borond.*<sup>a</sup> dago.

## Sermo in Dominica Octava post Pentecostem

*De ratione reddendâ, et praeveniendâ.*

Redde rationem vilicationis tuae. Luc. 16.

Egúngo Evang(elio)an<sup>1</sup> contatzendú, nola Jaunbatec aituríc berri gaichstoac bere Administrazalearen desgovêrnuas, deituric beregána erra(n)cion, cer dá zutas errandidatengáu? Emázu cóntu zeure administrácioas. Arc ció berebaitan, ni eznáiz gauza necazalgocó, alquétzen naiz ibilceas ésquean, cer inéndut despeitzennaueleáic? Eguinzuéna izánce Nausiaren zorraleéi contátzea gutichságo zorrzuténa, inzezóten lecu guero ayéc beren echeetán berái. Eta Nausi ónac laudatuze arren habiltasúna bere álda. Emén oiueguitendú Jesus ónac dióla, Nic erratendiziét, inzquizie adisqueideac zeurendáco emengo ondásun chárren medios, orréqui errecibizaisten palácio eternogaietán, iltzenzarateláic. Orrá Evang(elio)a. Onen cónforme tratazágun cóntu emanbeardugúnas, eta zorren pagacecó edo guticocé moduas. Salutazágun M(ari)a. Ave M(ari)a.

Gure Nausi Jauna Jesu Chr(ist)o etorribearduéna onen ta gaichstoen juzgátzera. Administrazále persóna bacócha, Christioa especialqui. Administráceco emánac túgu arimarén, ta gorputzarén ondasúnac, baitaré fede, doctrina, sacram(en)tu, ta berce auxilio tugúnac Elizan. Niore contatugábe, badáqui bere Magest(adea)c nor nola portatzendén ebéqui. Administra, governa ongui nere haciéndá, dió, ez galdu, bai irabáci, contuetará deituárteo. Cémbat úrtes edo dembóras? Eztút declarátzen plázoa noiz betecodén, eztáien niór descuida. Gutién usteduzieláic izanendá: *quâ horâ non putatis*. aguián gastezútuan, aguián guerochságo, aguián lenchágo. Beira ez descuida bátean ére, ezi ain presénte egoindre lén eguinac nola azquenécoac. Cúmpli nórc bere obligácioac, ta súpli fáltac. Ya berás ó nola beárden icarátu bat pensátzeas ere itzgártan! *redde rationem*, emázu cóntu zeure administrácioas! Ay! cer izanenda nitas?

---

<sup>1</sup> *Evang.<sup>ae</sup>* dio, eta ez *Evang.<sup>ae</sup>*.

Job sánduac Jang(**oic**)o berarén ágos laudátuac ció icár icár, Cer ine(**n**)dút, eldudelaic contu arcerá Jang(**oico**)a? Galdeguitendialaic, cer errespondatucodiót? Naibadut disculpátu neure burua, galduco-naiz neure ágos. Norc dezóque errespónða millaendáco bát? &. David sánduac ció, *eztaíela pa-*

97

*rátu juicio ta justician bere siervogonéqui, Jauna, ceren vicidenic niór ezta atráco justo berórren preséncian, ezpáda gracias<sup>2</sup>. (ps. 142) S. Pabloc ció, deustas eznáu acusátzen concienciá<sup>3</sup>, baña eznáiz orgátic seguro, ceren juzgatubearnauéna dá Jangoicoa<sup>4</sup> (1. Cor. 4) S. Pedroc díó, justoa doi doia salvatucobarimbada, non baratucodire impioa ta becatária? (1. c. 4) S. Hilarion ilcerácoan cegóquio erráten bere arimai, atrazáite, ene arima, certan zara beldúrr? Iruogueitamárr úrtes zervitzatudiozu Jesu Christi<sup>5</sup>, ta zara beldúrr eriótzeas? S. Geron(**imo**)c colore-gaizturic penitencies eta beldurras ció, nágon játen, nágon edáten, nágon edocéin gauza eguiten, idurizaida beti dagoquidala soñátzen bearrirá trompetagúra, zatóste juiciorá. S. Juan Chrysost(**omo**)c díó, ay nitas egún lotsagarrigártan! ezi oroitzennaizen aldió-ro, icaratzennáiz, ta negarres suspirocá astennáiz. (h. 77 in Math.) S. Agust(**ine**)c díó, ain lotsagárria izanendéla egungúra, ezi Ainguiruec ere izaindutéla beldúrr. (s. 1. parasev) S. Greg(**orio**)c díó, justoac iteunten gucian direla beldúrr, chsaquinic nolaco Juezaren alcinean beardiren presentatu. (l. 8. mon. c. 13) Cer imbeaute canavéra flá-coec, alá icaraten badire columna firmeac? Cer beldúrta nic eta zuc, diolaric Jang(**oicoa**)c, Onát contuetará? *redde rationem.**

Vicia labúrr, eriótzea segúr, plázoa erchiasguéros ez ordubatéco ere luzavideric, ta Jaunaren haciénda ez óngui administratu, cer inendut lancegóntan? Óngui eguinac guti, ta dirénac egóqui pagaturic; gaizquiac sobra bai sobra, ta desquitaceco moduric ez: atária erchiric, ya ezin itzúli guibéla: eguína eguín, ta yá ezin erremédia. Cóntuac artubeárr, sent(**enci**)a emanbeárr; norc órdea, ta nori? Jang(**oico**)ac guizón becatariari. Sent(**enci**)a emána emán beticos apelacioricgábe; gloria barimbáda, pena barimbáda, eternidáde guicicó. Ay! cer izanenda nitas? Oh! nola orduan naiguindúquen vicitua sanduquí! Oh! nola naiguindúquen útzi emén becátuen co(**n**)travándoa!

<sup>2</sup> *graas* eta laburgailua.

<sup>3</sup> *conc.<sup>ac</sup>* díó.

<sup>4</sup> *Jang.<sup>a</sup>* díó.

<sup>5</sup> *Chrori* eta laburgailua.

Baña guréqui joaindíre gueuren onac eta gaichstoac, naibadúgu ez-padúgu. *Unusquisque onus suum portabit, bacóchac eramacodú bere cargueria, ta azaroain ariorá izanendú eraicioa.* Emén guelditucodire gorpúta, múndua, vanid(**ad**)e, ondásun lurrécoac ta gauzac: baña obra, itz, affêcto, pensam(**en**)tu, omissioneén fardoa guréqui bearda presentátu án. Gueldizaiste órr, dió doaiénac; *baña ayéc, dió S. Bern(ardo)c, erraindióte manerabátean, zuc eguinac gára, zuréqui joan-beardúgu, etzaitúgu ut-*

97at.

*zico.* Gauzagúra ta bercegúra nai alchátu, ta ezin álcha! Jauna, erraindióte Ministroec Juezái, oná personagáu, ta bere gauzac. Bat bateán aguerrtucodá Jang(**oicoar**)en arguirá gure viciarén tela gucía desplegatúric ain claro, nola salabát, leioac idiquiríc, sarcearéqui irúzquia. Ô cer becatariain co(**n**)fusiónea! Ô cein érchi egoinden án, emén lazo nolanái vicitucéna! Goiti Juéza sevéro; beiti echidéten inférnua idiquiric; aldebatetic becátuac acusátzen; berce aldétic Deábruac prest eramatéco; barnetic bere conciénciac, campotic co(**n**)vencitzen eguiac berac: ezin úca, ezin álcha, ezin escápa. Oh! balitz órduan lecuríc, cer propósitoac! Cer proméssac! Baña án ez-dezáque naidueláic, cerén naieztuén orái dezaqueláic. *Quid faciam?* dió, Cer inendút ez galcéco.

Maiordomogárc ció, nic lurra ezin lándu, ta ésquean ibilceas al-quétzen. Ésquean entendatzendú S. Viz(**ent**)e Ferr(**ere**)c oráció, lurrain láncean gorputzare(**n**) mortificáicioa ta penit(**enci**)a. Ezin au, ezin ura, cembat achéquia dacárren ascoc: bitárteo gucióc becátu itecó entrégu. Nola inendúgu bada contuain desquitacéco, edo guticéco berére? Bizpiru vide oná nón túzun. 1.<sup>a</sup> Gure zórrac Jang(**oi-co**)ai dirélaic becátuac, ebén confessátzea ongui penaturíc dá obéna, ezi bere Mag(**estade**)ac itz emána dauca bere Ministroéi, *quorum remiseritis peccata* & Noren becatuac barcatzentúzien, barcátuac dire. Ez condenatunáies bere justiciaco tribunalegártan, paratudú emén graciásco tribunálea, nor ere presentace(**n**)dén confessátus bere cúl-pac, borratzecó ebéc contuen librutic ain nola in ezpalire. Bada *praeoccupemus faciem eius in confessione*, alcinagaitzen beragána confessátus humilqui. Neque idurizaizu? Orgátic barcatzentizu Jang(**oicoa**)c zorr andiac ére: eta nórc, bérac ezi, barcatzentú bere arr-tzécoac, solam(**ent**)e confessatuagátic zordúnac zorr duéla? Neque idurizaizu? Nequeságo izainda contuetán erdéchstea, condenátzea, ta pagarástea infernuco pena eternoetán. Neque idurizaizu? Bada ezin daique libra confessatetic emén edo án: emén secrétoan, guel-

ditzéco salvo, edo án aguérrian, condenaciotáco. (Exempl. pecc. del. S. Ant. Pad.) 2.<sup>n</sup> mediao guticeco zorrac erreálqui emendátzea, gutitzea becátuac, eguitea penit(**enci**)ac, orációac, obra ónac, eta principalqui limónnac, au dá díóna Jesus berac, *facite vobis amicos de mammonâ iniquitatis*, eguin adisquide Ceruan ondásun charrgoiéqui: eta Escrituras firmaturic dauca bere Mag(**estade**)ac, pobreái ongui eguína contatucoduéla bere Magest(**ade**)ai berái eguína, *Quod uni ex his fecistis, mihi fecistis*; eta au irabáci andiaréqui, bat emán, ta conta-

## 98

tu egún, *centuplum accipietis*. Usura óna dá au, irabáci andia, ta ligito ez ezi obligacióscoa, ta Jang(**oicoar**)en gustóscoa. Biótz chsimúrr gogórrac eztú entendatunái, orgatic gaizqui joainzáio azquénean, dió Esp(**iri**)tu Sand(**ua**)c (Eccli 3) Ala nola eztuénac eraiquitzen, ezin bil. Eraiquiric áleac aguidaique galcea izótze, árris, plágas. Limosnarén eraicioa eztaique gal séculan. *Dichósoac misericordia-eguilleac*<sup>6</sup>, *ceren ezi erdechicodúte misericordia*<sup>7</sup>, dio Jesu Chr(**ist**)oc. Math. 5. Cóntra berriz *justicia misericordiaricgábe eztuenái eguiten misericordia*<sup>8</sup>. (Jacob. 2) *Nolaco neurrias neurritzenduzien neurritucozaize*, dió Jesu Christoc<sup>9</sup> Luc. 6. (Exempl. S. Joan. Eleemosynarius = Avarus projiciens panem pauperi reperit in bilance. Flos SS. es. v.)

3.<sup>n</sup> mediao dá juntátzea gueuren pischcac Jesus onarén merejim(**en**)tu infinitoéqui. Jesus salvazálea atráce gure fiadore ta pagadóre, pagatuzue ederrqui infin(**it**)o. Ya bada cóstua inic dágo, depositaturic tesóroa; eztá falta baicic valiátzea ártas bacócha. Nola? Eguinála eguiníc, ezaundu ta confessaturic guti déla, zorrdugunarén áldé, ofrecitu Jesus onarén passio, eriótze, odol eta merejim(**en**)tuac, suplicécó gure faltac. Contuen ártzean pizaturic gure on eta gaichs-toac balánzan, garaitucodú, beldúrr naiz, gaizquien aldérdiac ónquien balánza: au arinágo atracodá beréz: Cer inendúgu? Parátu onen aldérdian Jesus onarén odol tantabát; au asquicodá itzulceco balánza gure favóre, ezi salvazále dá, ta berarén cóstus sálvo izanbeargára, ezi S. Pedroc errán becála, *eztá berce niorenbaitan salvacioric*; baña *esperabezáte orrenbaitan, Jauna, daquiténec berórren*

<sup>6</sup> *miseric.º-eguilleac* dio.

<sup>7</sup> *miseric.º* dago.

<sup>8</sup> *miseric.º* berriz ere.

<sup>9</sup> Beharbada *Jesusec* dago hobeto, honela bait dio: *Jes.* eta besterik ez.

*izéna, baita Jesus salvazalea*<sup>10</sup>, Ezpaitu desamparátzen dabiltzánac berórren átzean: eztaique atzén bere izénas, eztáre salvátzeas. S. Bern(ar)do esp(iri)tuán bein presentaturíc Jang(oicoar)en tribunálean acusatzenzúte Demonioec galdunáies, etzéla beárr admitutu sanduen glórian, etzuéla meréji. Sanduac errespondatuzué, éguia dá nic eztutéla meréji, baña ene Jaun Jesus onac merejidú bi titulos, edo dréchos; bat dá, cerén baita Jang(oic)o ta gloriaco Errégue naturalézas; bércea dá, cerén irabacibaitu guizontasúnean bere pássio, eriótze, ta merejim(en)tu infinitoéqui. Bera contentacendá lembic(ic)o drechoaréqui; bigarr(en)as itendida donáció niri. Onen aténcios escatzendút gra(ci)a ta gloria. Erranzuenéco istántean joancire igués confúso etsáiac. Guc bada contuetán ongui atratzecó, ezaunduríc gueuren culpac conféssa; eguín inála penit(enci)a, óbra ón, limósna; guciengañetic aléga Jang(oicoar)en miseric(ordi)a, ta Jesusen merejim(en)tuac; quia apud Dominum misericordia, et copiosa apud eum redemptio.

---

<sup>10</sup> *salvaz.*° dio.



## Sermo in Dominica Nona post Pentecostem

*De lacrimis, et causis earum.*

Videns civitatem flevit super illam. Luc. 19.

Contatzendú S. Lucasec egúngo Evang(elio)an, Jesus Jerusaléna urbil zoeielaríc, beirátus Ciudadegúra nigárr eguinzuéla arren casos cióla, ezaunbacindez zuc ere egungóntan zure oneráco déna; baña orái alchaturic dágo zure beguietáic: ceren ezi ellegatucodire egúnac, noiz inguratucozaitúten zure etsáiec, ta erchitúco alde gucietaic, ta urratúco lurreraño, ta ez utzico arriric elcárren gañean, ceren eztúzun ezaundu elduzaizun visitarén escaida ongáu. Guero ellegaturic templorá asize botátzen andic zeudénac salcen ta erósten, cióla, Escrituran dago, nere echea déla oracioarén échea, baña zuéc itzuliduzie ladronen cubila. Orrá Evang(elio)a. Eta dióte au aguitucéla noiz errecibituzúten acompañam(en)tu, viva, acclamacio, ta laudario andiéqui Jerusalénen. Certáco bada, edo cergátic otedá Jaun div(ino)ac negárr eguitea ocasiogártan? Usmátus goácen, nola dezaquégun, baña lenic estimátus Jesus onarén Ama ona M(ari)a Santissima<sup>1</sup>. Ave M(ari)a.

Eztá leitzen Jesus onac irriric eguinzuéla béñere bere vician, diónes S. Basilioc. (ap. Luis Puente med. 11. p. 3.) Eta daquígu, negárr bai eguinzuéla anitz aldís, aurrzútuan, sorr-mutugárren sendátzean, Lazaroin erresucitátzean, gurutzean ilcerácoen, eta S. Pabloc dión becála, bere vici mortalaren egunetán orácio iténzue asco áldís negárrer: (Hebr. 5.) Eta passio-alcinean Getsemanico baratzegártan orácio eguitean congojain útses izerrdituze odóles, baice ala nola odolésco negárr eguitea gorpútz gucitic. Baña egún bere triúmfo ta acclamácoen egúnean negárr eguitea dá miragárri beréchs. Claro dá etzequióla apegátzen biótza múnduco laudariogaiéi, festagaiengátic eztéla vanoqui alegrátzen, ematendioláic negárrai. Exemplu

---

<sup>1</sup> *SSma* eta laburgailua.

dúgu egotecó acorduréqui chsoratugábe alegráncias. Irri eguitecó baño, negárr eguitecó obea dá mundugáu, deicend(en)a negarréscó vallea, ongui beiraturíc nola Jesus onac Jerusalengúra. Cer dá beirá-tzea Jesus div(in)o amablegúra negárra darióla bere begui ederrgaie-táic? Motivoac cein otedire?

99

Lembic(ico)a lástima icústas Jerusalénen itsutasúna berén calte-tán; ezaunbacindez, dió, zure oneráco elduzaizúna, ta ezaunceneztuzú-na! Ezaum(en)tu-faltagáu etzé argui-faltas Jaunarén aldétic, bai berén aldetic érchis béguiac, ta ez idiquináies. Borondatéscó itsutasúna itsutasun culpáble galgárria dá, bát ignoráncia becátuec causátua, bercea passíones, bercea malicia-utses. Irur goibél ilunguebéqui itsu-turíc etzúte icústen ongui cetorrquioténa. *Hoc est autè̃m iudicium & ció Jesus onac, (Joan. 3.) Ontan dago juicioa ta condenáncia, ceren árguia etorriric mundurá, naiagobaitúte ilúna, ezi ez árguia, ceren gaichstoac diren beren obrac, ezi gaizqui itenduénac eztunái arguiric, eztaitzen aguerrtu bere gaizqui-eguínac.* (Item. c. 1. erat lux vera &) Beira yá cer culpa duén gure Jaunac ayen itsutasúnas: Berac nai arguitu, ta berec eznái errecibitu! Bera ayén onnáies, ta berac berén cóntra. Orrá cergátic itenduén nigárr. Ô ezaunbacindez zuc ére! dió: naidu errán, nigárr incindezáque zuc ére, dió S. Greg(ori)oc (h. in dominicam) lográceco salváncia.

Jerusalenen daique enténda Christio-guéndea, baitaré Christio bacócha: Jang(oico)a etorrizáio icustéra: bere échean, au dá, Elizan opatudú fortunaric andiéna, bere salvazálea Jesus. Ô ezaunbacindez zuc ere! dió. Baña cembatéc eztúte ezauncen itsutasúnas! naiagodu-téla galtzentuéna, ezi salvatzentuéna! Eztá itsutasúna, gálcea bere burua, daiqueláic sálva? Eztá itsutas(un)a, berechsióndoan beretáco Jang(oicoa)c, marcatuóndoan bere árdien marcaréqui, suplituóndoan beárden gucias gloriaráco berac bere burua condenátzea infer-nurá lurréco miserien amóres? Badire grádoac itsuqueriagontan. Lenic ain guti ezauncea ta estimátzea gure Jaunaren óna dá vista labúrr izátea; guero admititzea biotzean affectoric berarén contra dá itsu-tásun gaichstoa; gaichstoágo berriz eguitea gaizquia: gaichstoágo acostubrátzea: gaichstoágo ajolacabétzea, ta gogórtzea: gaichs-toágo gaichstaquérias sendagállá eguitea: gaichstoágo desesperátzea, ta ezin bécea becála. Oh! noraño daiquen elléga! Lastima dú Jesus ónac ta ón guciéc aláco itsues, berec ez beren búrues; alá eztúte aituerenái naitusténac zucéndu perdicioarén videtic; despreciátzen, beguiétan artzentúte, nola cóntra balire, ala nola dagónac lostordi-

242

turic árgui ecarrenciónai erratenbaitio, quén ordic, quén quén, apárta. Alá gaichstoac eztú icusinái árgui emanaidióna. Orrá motivo andia eguitéco nigárr.

99at.

Ezaunbacindez zuc ere, zuc ere incindezáque nigárr Jesus onaréqui; Jesus onac compassiónes, zuc contriciónes. Ortáco beira nola záren, ta nola cinázquen. Cinázque sanduetáic bāt; ta zára galduetáic bat. Cinázque Jang(**oicoar**)en, Jesus onarén, Ama Virg(**inar**)én, ta ceru guciarén maite: ta zara guciengánic desechátua. Zinázque garbi edérr libre dichóso nióren alquericgábe: ta zára ciquindua itsústua Deabruaren márcas señalátua zeure culpas. Zinázque vici conciéncia ónean alégre sosegaturic esperánza onaréqui gloriaráco: eta zára becatúen presidário triste inquíeto condecaceco arrichscoan. Eztuénac ezauntzen bere dembóran, negárr inéndo eternidade gucian Erremediácóbe. Ezauntzenduénac dembóran inendu nigarr erremediácó: ezi becatuendáco dire negárrac prochál, ez berce-táco. Negarréqui garbitzendá arima, ta arguitzen vista de man(**er**)a, ezi cembatenás yago negarr itendúzun, obéqui ezaunducodúzu, ta cembatenás obéqui ezauncendúzun, yago nigárr inendúzu, ala nola súan cembatenás yago erretzenduén, yago arguitzendú, ta cembatenás yago arguitzen, yago errétzen. Orgátic sanduec itenzúte aimbérce nigarr becatu passátues eta barcátues ere, ceren argui onaréqui ezauncenbaizúte ongui. S. Pedroc icituric beldúrrac ucatuzué mias bere Jauna passio-gáuean: beiratució bere Mag(**estade**)ac: beiratze-gonéqui arguitcéquio arimarén vista; ezaunduzué; negárres asicé amarrgoqui; eta naiz barcatución lastérr, vici gucian eguinzue nigárr. Itsuturic cego S. M(**ari**)a Magdal(**en**)a: beiratució piadoso Artzái div(**ino**)ac; arc ezaunduzué bere perdicioa: urtiqicé Jaunarén oñetán negárr ta negárr: eta naiz aituric barcátua céla, seguituzué negárres dembora andian. David Errégue itsutucé beirátus gaizqui; beiratució Jang(**oicoa**)c ongui: ezaunduric arc bere gaizqui egúina garbituzué negárres gau ta egún: *fuertunt mihi lacrimae panis die ac & Norc cónta salvatudirénac negárren cóstus? Negarr amorosoguebec dire señale edérrac Jang(**oicoar**)en amorearén ta gra(**ci**)arén. *Beati qui lugent, & Zori onécoac, dió, nigarr iteunténac motivogoién casos, ezi ebéc izane(**n**)díre consolátuac, dio Jesus onac. (Math. 5.) Ez solam(**en**)te glórian, baita ere vizigóntan, emánes biotzerá Jaun div(**inoa**)c señaleac, barcatutiotéla, admititutuéla bere gra(**ci**)an, es-pera(**n**)za onaréqui admititucotuéla glorian.**

## Sermo in Dominica Decima post Pentecostem

*De Farisaeo et Publicano in Confessione.*

Omnis qui se exaltat, humiliabitur, et qui se humiliat & Luc. 18.

Egúngo Evang(elio)an dúgu Jesus ónac presumitzenzutenéi ón ciréla contatucióten parabola. Bi guizón igancire templorá, bat Fariseoa, bércea Publicanoa. Fariseoac chutiric ció, Jang(oico)a, ematentiót esquérrac, ezpainaiz ni berceac becála, injustoac, ladrónac, deshonestoac, nola Publicanogói ere bai. Nic itentút báruac, amarrenac & Baña Publicanoa urrundanic etzéla tréve gorátzera ere bégujac, baicic golpátus bulárta ció, Jauna, urricári nitas, baináiz becatári. Erratendiziet bada eguiáz, au joancéla barcaturic gra(ci)an bere echéra, ura ez becála, cere(n) ezi goratzendén gucía izanendá humillátua, ta humillatzend(en)a gorátua. Orrá Evang(elio)a: Ontáic dá aguéri cémbat placér duén Jang(oicoa)c gú icústeas humil confessátzen culpac, nola désplacér gure presuncioas, especialqui confessioan: Subvervoéi erresistitzen, humiléi gra(ci)a ematendiotéla, S. Pedro ta S. Tiago testigo. (1. c. 3. = c. 4) Orgátic baicio Jesus onac, *Icasázie enegánic, bainaiz mánsoa ta humila biótzes*. Eta cer dió Maria Santissimac<sup>1</sup>? Duén-gucía duéla, *quia respexit humilitatem ancillae suae*, cerén Jang(oicoa)c beiratuición bere esclavarén humiltasunari. Eta cer diógu becatáric? Merejiguinduélaic condenátzea inférnúra, ta andic libracecó eztuguláic berce erremedioric baicic confessátzea penaturic humilqui, bearcodugúla icási humiltásun precíósoa. Ortáco estimazágu(n) M(ari)a. Ave M(ari)a.

Ah cer conféssioa Fariseoaréna! Errepára laur borz gaizqui eguinac: bát, 1. egotegúra tiésoo tzút tzúta: bercebát, 2. confessátu ez culpac, baicic contátu bere on-idúriac laudátus bere búrua gra(ci)ac ematéco achéquan: bercebát, 3. abultátzea bere pichscattogáiec, sandu ustés nior ez becála: bercebát, 4. murmurátzea proximoes.

<sup>1</sup>SSmac eta laburgailua.

Cer idurizaize confessiogóntas? Publicanoan contra errepara, lembic(ico)a egotegúra zocoan beguiac apál apála: bigarr(en)a confessa-tzegúra becatári: irug(arren)a escátzea barcácio dolóre finarén most-raequi: laurg(arren)a itzgúra, urricári nitas, ni becatárias, nola bera sollic balitz becatári, edo gucién gaichstoéna. Goácen comparátus bat banáca. Lenic tzut tzuta egoteac mostracendú gogoarén presúncio, antúste<sup>2</sup>, ta subervia: Luciferen becátua; onéc botazué Cerutic infer-núra: Gora naidúc? Bada goáie bera. Gaizquiágo dirúdi guizoneta(n)

100at.

goranaigóne. Certas daique gora guizona, déna autsa ta errautsa? Dió S. Agust(ine)c, (s. 21 de v. D.) *Deábruas bearda alquétu guizon goranaia, ceren ezi Deabrua naiz goraná, eztá bentzait autsa ta errautsa*. Viciogói dá gaichstoágo ezi itsutasúna, cerén ezi itsuac eztú icusten bátere; baña presumituac icustendú contra, berebaitan imáginatus gaichstoa ez ain gaichsto, ón ezténa badelá, ta dena dén baño yago, gaichstoa ere ón, itsúsia edérr. Alá pintátus gauzac fantasiac, dá egótea vano búrua góra, aundi aundía, baña aices, ez sustáncias. Garietán burua gora tiesso cerc itendú? gráno guti edo bate-réz izáteac. Arboletán arráma utsa tiesso góra; frutas bétea beítirát. Personetán vánoa eztá prochál ez Jang(oicoar)én ez munduarén. Jang(oicoa)c guardagaizála guizón altivoagánic, emastéqui subervagánic: arroitu, quiméra, puntu, ta aláco fránc. Gaichstoéna, ezpai-túte casi erremedioríc: ezin errán itzic, eztizúte artúco ongui. Erranzózun baquedaiela? Eztágo ortáco. Erranzózun barcadezóla etsaiái? Yago sú ta subervia. Erranzózun escadezála barcácio, deserrandezála erranzuéna gaizqui? futósca; ni ortará apáldu? De man(er)a ezi oguéi becatári humilac aiságo oneratucotúzu, ezi ez subervobát. Bada confessatzecó óngui ô cembat estórvu dacárran suberviac! Ezaundubeárr bere gaichstoa, humillatubeárr, acusatubeárr bere búrua, sufritubeárr & Etzégo ortáco Fariseoarén cuzcurrúta. Bai ór-dea Publicano humila bere zócoan búrua curturic, au dá, juicio onarén pizararéqui, presuncioarén aireicgábe; apálduric beguiac, au dá, ezaunduric bere autsa ta errautsa; etzéla tréve gorácerá Cerúra, au dá, sinetsiric etzuéla mereji Cerua, baicic inférnua; prest dago confessátzera bere gaizqui eguina bere cónta; ala nola errancioláic Deabruac zoeienbáti eguitera conféssio generalebát, nora zoáz, Al-

<sup>2</sup> Uste dugu *antusta* daitekeela irakurri. Baina ik. *antuste* 2, 2, 12; 7, 1, 3; eta *antustea* 115at., 2, 11.

heide? Errespondatubaicio, Noáie confunditzera ni, ta confunditz(e-r)a i. (Parr. p. 3. p. 22

Bigárren inzuéna Fariseoac contátu bere ón idúriac, becuric ez. Sobra estimátus bere búrua eztú bere faltac icusinái, gutiágo confessatunái. *Berцерén bêguian icustendú iláun pichsca ére, bereán ez solivoa ere*, dión becála Jesus ónac. (Math. 7.) Eta naiz icusiric eztunái aguértu, eztunái itsústu bere buruá; eta au izáqui confessioarén gala. Nóndic eldudá defendátzea bere búrua, ta ezin acertátzea ematerá bere contra? Eta au izáqui confessioarén gra(**ci**)a. Nondic aché-quiác, inguramin-

## 101

gúrac, gutitzea, nastecátzea ez eta báies, ez aguertunáies déna dén becála? Nondic pensatzegúra, cer erraindu nitas? Suberviarén zañetic. Alque deitzendengúra obligatzenúena alchátzera culpa mortá-lac ere dá humild(**ad**)e-fáltas, ta presúncio-sóbras. Eztá, déna déla, araguiscoa, concebitua ta jáioa immundician, ortará inclinátua beréz, ta eztaiquena libra erorcetic, ezpáda Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as? Bai, baña ez iduritunái, baicic sandu, ta Ainguiru Cerúco. Cein obé-qui Publicanoac berladánic emánes bere buruain contra confessa-tzendú becatári gaichsto indigno: ciquintzendú bere burua garbitzeco ala. Alá cillarrguilleac ciquindus loies garbitzendú cillarra. *Confessionem et decorem induisti &* (ps. 103.) Confessioa dá vesticécó ederrtasúnes, ariman, ingurátus árguias ala nola galas. Munduco justician confessacenduéna delictoa dá condenátu edo deshonorátua; baña Jang(**oicoar**)en misericordiasco tribunalegártan alchatzendué-na dá condenátua, ta libre honrátua confessacenduéna. Claro ásqi dacúsa ori duénac fede. Arimarén ederrtasúna, honra, ta on guciá dá gracia: Au galduzúé sartzearéqui becátua: Cer erremedio, arren itzulcecó? Atrátzea becátua. Nondic átra? Agotic confessátus.

Irug(**arre**)n inzuéna Fariseoac abultátu bere ón idúri pichscañ-gáiec andináies. Dá ori ingénio onbát, guciá gálcera botacecó. Alá obra gaichstoés galdu, ta obra ones ez irabáci. Gaichstoac gaichsto, onac ez ón vanagloriain casos. Fruita árchoac erórcen aisa, eta gal-цен ere dire. Biótzean barimbauzu presuncioarén arñtoa, edo galdua zára, edo galducozára. Presumitzea bátec bere búruas óna déla, señále clároa eztéla óna. Oroát diót chsaquintasúnas. Cergátic ton-toarí idurizaio badaquiéla asqui? Cergatic bere tonterias ezpaitacúsa cembat faltazáion. Cergátic agudoac ustedú guti daquiéla? Cergátic ezauncenbaitu aunitz ta aunitz yago faltazaióla icastécó. Alá Cerúco theologian, baita ón izátea, humil descontent dagóna bere ónas, ori

da onágo: bere búruas presumitu pagátuac deus eztú válio. Dá olloarén guisa; arrautze charrbát, ta anitz caráca. Ichaurr guti ta arroitu anitz: árca utsac yago soñu béteac baño. Ala dire gende paratarétoac, guciá casquill, mamiric ez. Guciá eguiten vanid(ad)es, ta págua dúte aices: *reperunt mercedem suam*. Oroitzennaiz contu simplebátes. Omencégo bát

101at.

ostatubáten atárian, játen ez, bai gozátzen janári ángoan achóna. Galdeguincio Ostatáriac, Cer aizara emén? Arc, emén nago gusto árcen achóngau orr barnetic eldudéna. Errancio Ostatáriac, ola, bada pagazázu gustoa. Arc átra bólsa, ta ilarrósis inzue diru-arroitu: Orrá non duén págua. Nic janárien urrina sollic, orréc diruarén soñua. Vanoac ala dire, solam(ent)e dúte on-urrin, ala págua ére: nola eztuénac berceric alórrean, baicic olabiórr ta ilindia. Gaichstoéna dá, ezpaitúte erremedioric: pobre errealid(ade)an dire, eztire póbre antústean: Eri ariman, sáno berén opiniónean: norc erremédia alácoac? Ala nola Fariseogarrec sandu contátus beré búrua, nola beárzue lográtu barcácio bearrzuéna? Cóntra berriz Publicanoac golpe emánes bularretán, deitzen becála zué Jang(oicoar)en atarietán, ponderátus bere beárta, logratuzué graciaren limosna.

Laurg(arre)n inzuéna Fariseoac murmurátzea proximoes, ciréla au ta ura; ni ez ala. Presumitu guciéc dúte condiciogói, berén buruac edérr, berceénac itsúsi, bercerén lichstuas ere ocátzen, ta berén abominációes ere ajolaic ez. Jesus beras, becatáries ez ezi, Jesus béras murmuracenzúte, jatenzuéla becatariéqui, nola berac ezpalire becatári. Conféssioan bérean guciá dá disculpátzea bere búruac, ta botátzea berceéi culpac. Bercerén culpac confessátu, béreac dorátu. Guciá macúrr presuncioarén casos. Escrit(ur)a sagrátuan solam(ent)e bi confessio-modu leitzendire: bata norc bere becatuen confessatzea, *si confiteamur peccata nostra*: béreca Jang(oicoar)en ona ta miseric(ordi)a confessátzea, *confitemini Domino, quoniam bonus* & Guciá contraco aldéra iténdu subérvoac, dioláic eztuéla becuric, ite(n)du guezúrri Jang(oico)a, ta engañátzen bere búrua: (Joan. ep. 1. c. 1.) ta dañaten proximoa. Obéqui eguitenzué Publicanoac, bere búrua sollic contacenzué becatári ciólaric, Jauna, urricári nitas, ni becatárias, bateo confessatzenué Jang(oicoar)en ona ta miseric(ordi)a. Bi conféssio-guisaguébec imbeartúgu confessatzenáren aldióro, baitatózi S. Agust(ine)c escatzenzituen bi ezaum(en)tugaietáic, *Noverim te, Domine, et noverim me*, Jauna, ezaundezáten nic berórren Mag(estade)a, ta ezaundezáten neure búrua. Seguitzendire bi confessio-

-guisac, *Confitebor tibi in citharâ, Deus & Confessatucodiôt* citharan, Jang(**oic**)o Jauna; Cer confessatucodiôt? Confessatucodiôt berórren óna, ta confessatucodiôt nere gaichstoa: berórren miseric(**ordi**)ac, ta nere miseriac: berórren prestutas(**un**)a, ta nere chartas(**un**)a: berórren amórea, ta nere desamórea: beror(**re**)n onguiegui-nac, ta nere gaiz(**quie**)g(**uinac**)<sup>3</sup> &

---

<sup>3</sup> *gaizg & dio.*



## Sermo in Dominica Undecima post Pentecostem

*De surdis et mutis spiritualibus.*

Adducunt ei surdum et mutum. Marc. 7.

Contatzendú S. Marcoc egúngo Evang(**elio**)an, ecarriozotéla Jesus onarí bát sórr ta mútu cegóna, parazézon bere éscua. Eta gendetic apartaturic paratucitue bere eriac arren bearrietán, ta lichstus uquitució mia Jaun div(**ino**)a)c, eta goraturic cerurát béguiac, ta emánic suspirobát, erránzue, *Ephpheta*, naibaitu errán, *idiquizaite*. Istántean idiquicéquo adim(**en**)tua; ta lazátu mia, ta mintzatzénce óngui. Eta naiz manátu bere Mag(**estade**)ac ez nióri erratecó, ayéc yago publicatzenzúte, ta admirátzen; guciá, cióte, guciá eguindu óngui: sorréi emandióte adim(**en**)tu, ta mutuéi mintzo. Orrá Evang(**elio**)a. Orái próchu atracecó, salutazágun M(**ari**)a Santísima<sup>1</sup>. Ave M(**ari**)a.

Sorr eta mutu erreálqui cela guizongúra dá claro, baña Jesus onarén suspiro ta dilig(**en**)ciagáiec claro ásqui mostratzendúte adiaracinaidigúla berce sorrería, ta mututásun gaichstoagocobát, baita arimaréna. Arimarén sorreria cein dá? Ez aditunái eguietafedeac, Jang(**oicoar**)en itzac, ta inspiracioac. Mututasúna? Ez ágoa idiquináia confessatzecó ta oracio eguitecó. Sorr barimbáda, mutu ere izainda: eta alá déna niórc ezdezáque salva, ezpáda Jang(**oic**)o dén guizónac. Sorrguébec órdea eztire sorr gaitzeráco; adim(**en**)tua chincho dúte aditzecó serpiente infernuoarén chistuac, itz eta inspiráció venenátuac. Mutuguébec eztire mutu gaitzeráco: suelto daucáte mia sobra ere mintzatzecó gaizquí, ta bearretirénac. Adim(**en**)tuan ta mian daramáte Deábrua debecatzendiotena aditzea, eta mintzátzea bearr becála, ta adi ta mintzarásten bearr ez becála.

Sorr ta mutugúra etzé joán beréz Jesus onagána, berceec eramanzúte: Sorr ta mutu espi(**iri**)tualac ezleizque séculan erremédia,

<sup>1</sup> *SSma* eta laburgailua.

ezpalézqui eramán Jang(**oicoa**)c tiracá beregána bere éscus, edo be-reenen éscus. Baña lástima dena dá, delaric anitz éscu apartarastecó Jang(**oico**)aganic perdiciorát, guti baita itzularastecó perdiciotíc Jang(**oico**)agana. Eta aiságo delaic gaichstátzea gaichstobátec amárr ón, ezi amárr ónec óncea gaichstobát, gaichstarascó izaintúzu amárr, baña oneratzecó apénas

102at.

bát. Ardi ta achsúri deitzentú Jesusec Evang(**elio**)an onac: otsobát ásqi galceco anitz achsuri ta ardi; cer izainda bates anitz otsoen érdian?.

Adim(**en**)tu ona izátea dá avantálla, ezi arimen erremedioa sar-cenda adim(**en**)tutic barna. *Ene ardiec aditzeunte ene voza*, dió Jesus Artzái ónac; eta berriz Judioéi, *Jangoicoarén<sup>2</sup> denac aditzentú Jangoicoaren<sup>3</sup> itzac: orgátic zuéc eztúzie aditzén, ezpaizaráte Jangoicoarén<sup>4</sup>*. Sórr gaichstoac cire ayéc: Deabruare(**n**) marcaréqui marcátuac infernuráco: ala nola Jang(**oicoar**)en márca Ceruráco baita adim(**en**)tu óna, diónes guezurric erranezdezaquenác; Eta ásqi dá berac errátea: baña arrácioac ere ematendú ta experiénciac. Errepára: icusteuncie cémbat gáitz-género gorputzarén dúgun negarréscó vallegóntan? Bada eztire gutiágo arimarénac, yágo ezpadire. Orái bada emágun dagóla arimabát éri edo suberviarén burucomín ta zoratásunas, edo codiciarén ethicas, edo luxuriarén lépras, edo gularén hidropesias, edo irarén tumóre ta inflammácioas, edo invidiarén tiricias, edo perezarén perlesias, edo bérce gaitzenbátes. Emágun ez bates solam(**en**)te, bai yágos ére, ta gucies ere dagola éri: Galdeiténdút: Eta dá sorr? Baña nola cegóque ain eri, sorr ezpálitz? Sorreriatic darráio gaitz gucía. Baña curatzendá sorreriatic? Astenda aditzen eguietafedeac, Jang(**oicoar**)en inspirácioac, ta itzac? Bai; bada sendatucodá gucis. Aditzetic etorrcozáio sinestátzea biótzean; ontáic lazátzea mia confessátzeco óngui; ontáic emendátzea, sendátzea, salvátzea. Cóntra berriz naiz eztuén aimberce gaitz género, dá sorr? Eztú aditunái? Adim(**en**)tu gaichstotácoa dá, ta eztá curátzen ortaic? Bada desauciadaique; inic dauca tratu Eriotzearéqui, ta pácto infernuaréqui. (Contace(**n**)du Jacobo de Vitriacoc Necazaribátes, alaco oposicioa zuéla aditzera Jang(**oicoar**)en itza, ezi nióre etzúque joanaráci templorá, celaric predícu & Parra p. 3. pl. 7.).

<sup>2</sup> *Jang.<sup>en</sup> dio.*

<sup>3</sup> *Jang.<sup>en</sup> dio orain.*

<sup>4</sup> *Jang.<sup>en</sup> dago hemen.*

Gaizgónen curátzea eztéla aisa, mostratzendúte dilig(en)cia inci-  
tuéneç Jaun div(ino)ac sorr mutugarrégui, zuquélaic sendátu istán-  
tean itz sollarégui. Lenic artuzué gendeagánic apárt, adiarastecó  
beardéla apartátu ocasio, peligro, ta ceboetáic arima eria sendatze-  
cós. Guero suspirobát ema(n)zue, mostracecó gaitzgónen gaichstoa,  
ta beardéla penátu sinés biotzetic, ta suspirátu Jang(oico)agana erre-  
medio-naies. Guero bearrietán eriac parátzean mostratué beardi-  
réla biotz barnera Esp(iri)tu Sanduarén inspiracio,

### 103

auxilio, ta uquim(en)tuac, arguitus ezaum(en)tua, moguitus biótza.  
Guero lichstus uquitzean mia comunicátzea chsaquintásun ta gra(ci)a  
confessátzeco Jang(oicoar)en misericórdiac, ta gueuren misériac. Az-  
quenic manatzegúra Jaun Soberan(oa)c Ephpheta idiquizaita adi-  
m(en)tua, adizeco, ta ágoa confessacecó. Gauza importácio anditácoa  
bidéda adim(en)tuarén idiquitzegáu! Berealá sorrac adim(en)tua co-  
bratzearéqui seguituzé mintzátzea mútua, ta mintzátzea óngui zucén.

Baña eztáien niór equivóca, errepára ez solam(en)te tugúla beá-  
rri materialac búruan, aditzeco itz materialac agotic datocinác, bai-  
taére biótz bárnean adim(en)tu esp(iri)tuála, aditzeco Jang(oico-  
ar)en itz divinoac, baitire inspirácio, ta gogorácio ónac, ceñéqui bere  
Mag(estade)ac bacóchai predicatzendión biotz barnéra ichsíl ta soil-  
tasúnean milla modus ta manéras. Alabér bi aditze-guisa dire: bata  
solam(en)te entendátus erránac; bércea obeditus: Eta au dá naidué-  
na Jesus ónac, ezi aditzea obeditugábe dá nola ez aditzea. Alá adi-  
tzen, ta entendatzenzúte Judioéc ere, baña alaére erratenzióte, *orgá-  
tic zuéc eztúzie aditzen, ezpaizaráte Jangoicoarén*<sup>5</sup>, au dá, eztúzie  
aditzen obeditus. Obeditzea dá aditzea óngui. Ontas ció Jaun div(i-  
noa)c, noiz ta predicatzerácoan bere Mag(estadea)c goratuzuélaic  
voza emastequibátec erratenzióla, *Zori onécoa sabéla eramanzuéna*<sup>6</sup>  
*beróri, ta bulárrac azizuténac, Errespondatubaizue, antes bien zorio-  
nécoac aditzeunténac Jangoicoaren*<sup>7</sup> itza, ta goardatzen. Ala beardú-  
gu deseátu aditzea Jang(oicoar)en itza, errandaquígun bearrirá edo  
biotzerá, déla Jang(oicoar)en inspirácios, déla guizónen medios. Alá  
ció Samuelec, (1 Reg. 2) *loquere, Domine & Erranbez, Jauna, ezi adi-  
tzen dago bere siervogáu*. Alá ció Davidec (ps. 118) *Os meum aperui,*

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>en</sup> berriz ere.

<sup>6</sup> *eramazuéna* eta marratxo bat bigarren —a— gainean.

<sup>7</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dío.

*et attraxi spiritum & Nindégo agoa zabalduric, ta atsa gueldituric orren manamenduen*<sup>8</sup> náies. Aditzeguiságau da salvacioarén señale, nola apetitu óna osasunarén. Au dá vide, ta medio usatzenduena comunqui Jang(oicoa)c salvacecó bere escogituac, adiarácis berac naiduéna. *Fides ex auditu*; Aditus sinestacendá; sinestátus confessa-cendá; confessátus emendácen, ta vicicendá ongui, ta ala salvácen. Exemplu onac S. Pablo, S. M(ari)a Magdal(en)a, S. Agustin, S. Juan de Dios, S. Fran(cis)co de Borja, ta berce infiniciobát sandu eguinac aditzetic Jang(oicoar)en itza. Biz aláco adim(en)tua.

*Et loquebatur rectè*, dió Evang(elio)an. Sorr ta mutugúra guéro mintzatzencéla óngui zuzén. Ori dá bigarr(en)a, ta habilidade óna, ongui mintzátzea. Jang(oico)aréqui ta pro-

### 103at

ximoéqui: Proximoéqui mias, Jang(oico)aréqui biótzas ta mias. Noiz Jangoicoaréqui? Conféssioan ta Orációan. Nola biótzas? Sinestátus, esperátus, amátus, laudátus, gra(ci)ac emánes, dén gucia ofrecítus, gaizqui eguinas penátus, barcácio escátus, ta edocéin gra(ci)a, proponitus, deséatus & Mias ori berói daique naibádu, ta errezátus. Confessioan ere mintzazengára Jang(oico)aréqui confessátus gueu-ren culpac óngui. Mintzaéragónen gra(ci)a ta gala dágo acusatzean norc bere búrua, bere cóntra emátean. Alá céque mintzátzen Davidec ciólaic, *Confitebor adversum me injustitiam meam Domino*, Confessatucodiót neure cóntra nere gaizqui eguina Jang(oico)ai. Daquiénac mintzátzen óngui confessioan, irabacicodú pleitua, lo-gratucodú sent(enci)a favor(abl)e.

Proximoéqui mintzatzendá mias; Habilid(ade)a dago óngui zu-zén mintzátzean, de man(er)a ezi S. Tiagoc ció, *Siquis in verbo non offendit & Barimbada norbáit eztuenic utsitén itzenbátean, ori guizón perféctoa dá. Mia miembro chipia*, dió, dá, baña gauza ándiac itentú onean ta gaichstoan. Mi óna gauza andía, mi gaichstoa gaitz andía. Mi-guisagáu mutu obe dá. Mintzátzea daique águi auséncian ta pre-séncian. Auséncian egón attentó, ez erratecó itzic niorén cóntra, ezpáda manaturic edo obligácios informatzecó bearrórduan. Pre-séncian guárda modu ta circumst(anci)a guciac, ez calteric ematecó, baicic provéchu. *Jauna*, erratécio Davidec Jang(oico)ai, *parabézo guardia ene agoái, ta ataribát circunstáncias ene ezpañéi*; au dá, min-tzacecó cer, ta cémbat, noiz, ta nola beárrden. (ps. 140.) Errepará-

<sup>8</sup> *manamduen* eta laburgailua.

tzeco óntan, ematendígu vide naturalézac berac, paratubaitu mia ain guardaturíc preso becála nola bi pareteén er-tean goititic eta be-ititic; alcinetic berriz ala nola bi murálla, órtzac eta ezpañac. Alaére sollic Jang(oico)a dá dezaq(uen)a minzaráci ongui.

Sorr-mutugúra ecarrizuténe-c, icusizutélaic aditzen ta mintzátzen ain ongui Jesus onarén gra(ci)as, admirátzen, pregonátzen, lauda-tze(n)zúte bere Mag(estade)a, ciótela bozcariúndes, guciá óngui eguindú, sórrac adiaráci, ta mútuac mintzaracitú. Emén gogora-tzenzaida confessóre guizagaizoen consolá-cioa ta alegráncía noi-zean noiz pacienciáscó alquigártan, noiz ta dacusáten cirénac sorr ta mútu yá Jang(oicoar)en gra(ci)as convertituric mintzatzendiréla ongui confessátus. Ô cer conténtua! Cer gra(ci)ac Jang(oico)ai! & &.

## Sermo in Dominica Duodecima post Pentecostem

*De amore Dei, et zelo animarum.*

Curam illius habe &. Luc. 10.

Egúngo Evang(**elio**)an erránic Jesus ónac, nola ciren zori oné-coac logracenzuténac berarén icústea ta aditzea, jaiquize jaquintsu-bát galdeguiterá, cer imbeárzuen salvatzéco. Jaun div(**ino**)c errán-cio, yá nola dión leguean? Arc, amazágula gure Jang(**oico**)a biótz gucías, arima, indárr, ta inténcio gucías: eta gueuren proximoa gueuren buruoc becála. Jesus onac orduán, ongui errespondatudú-zu: Eguizu ori ta salvatucozára. Arc emén, eta nor dá nere proximoa? Jaun div(**ino**)c ontará contatució, Nola guizonbát eldúzen Jerusale(**n**)dic Jericorá, ta videan ladrónec errobátu, golphátu, ta erdi ilic utzizúten. Passatuzé guero andic sacerdotebát, baña icúsi ta alcína, casoric ingábe. Passatuzé guero Levitabát; onec oroát icúsi ta alcína. Guero ellegaturic Samaritanobát, icúsi ta urricarituté pó-breas, ólios ta árdos eguín ta lotuóndoan zauriac, paratuzé bere abrean, ta eramánic ostaturá, ta diru emán Ostatariái, ta erráncio, *tori cuida pobregóntas, curazázu, ta suplidezázun gucía nic pagatucodizut*. Irurguebetáic cein idurizaizu portatucéla proximo-guisa guizon-garréqui? Jaquintsuac errespondat(**uci**)ó, ustedút ezi misericórdia eguinzióna pobreái. Orduán Jesus ónac, zoáz bada, ta eguizu guisabérean. Au dá Evang(**elio**)a. Eracustendigúna icastecó obrátzen, estimazágun misericordiarén Ama Maria. Ave Maria.

Salvátzeco guizóna Jang(**oico**)ai placér eguines, eztú precisso icástea letra anitz, nola dáquien óngui caridad(**ear**)en Theologia. S. Buenav(**entur**)a Theologo bezáin sándu cénai joancéquio bein fr. Gil legoño sencilloa, ta erráncio, ô fr Buenav(**entur**)a, fortunósoac zaráte Theologo chsaquintsuóc, baitaquizie nola zervitzátu, ta eguín placér Jang(**oico**)ai. Ger inendúgu, edo indezaquigu ni becaláco ignoranteéc? Errespondatució, ah fr. Gil, barimbadaquizu amátzen Jang(**oico**)a, ori dá theologiaic obéna. Fr Gilec ontára, baña letragábeac badezáque aimbérce amátu Jang(**oico**)a? fr Buenav(**entura**)c orduán,

amiña dén simpletfoénac dezáque amátu aimberce, nola Theologo andiēnac. Atráce fr Gil bozcariúndes beteric camporá, ta Cerurát béguiac ta éscuac gora-

104at.

turic asice oyus, amiña simpléftoa, amazázu Jang(**oico**)a, ta chsaquinnendúzu aimberce Theologia, nola fr Buenav(**entur**)ac. S. Agustín zebilaláic ingúr ingúr vanid(**ad**)es vanid(**ad**)e, zoraturic Christiaturibañolén, aituric S. Antón ta bérce Mongeén santidádea, itzuliric bere adisquidebatengána erráncio admirácios, Cer dá au, Alipio? Goratzendire letraricgabécoac, ta arrapatzendúte Cerua: eta oná gú emén gueuren letraéqui lóiean inguráca! Aguián cerén alcinatuzaiquigun, alquétzen gára segúitzeas? Eta ezcára obéqui alquetúco bentzáit ez segúitzeas? Seguituzué bai sinés edérrqui, eramáteco bérce anitz Cerúco videas.

Cerúco videa bada dágo amátzean ta estimátzean Jang(**oico**)a, biótz, arima, indárr, ta inténcio gucías. Baña bérta emén galdeturic amatzeuntén alá, erraindúte gueiénece do guciéc baiétz baiétz: Baña gueienetán itz sóllac dire, ta proguric ez. Cein dire proguac amóre finarén? Oroitzea beti, ta ezin atzéntzea bere Magest(**ade**)as, beragána affécto, afficióne, ánsia, góse ta egárrri becála izátea, lastimátzea berarén offēnses, alegrátzea berarén ónes, cumplítzea berarén ma(**n**)dam(en)tuac, trabajátzea ta padecítzea berari placér innáies, eta alá: Baña prógu seguroéna dá amátzea proximoa gueuren búrua becála Jang(**oico**)agátic, ezi amoregáu elduda zain beretic, edo dá Jang(**oicoar**)en amorea bera: bentzáit bata berceagábe eztaique izán. Alá dió S. Juanec Caridad(**ear**)en Maestru andiac, Jesus onarén bularretán icasizuénac, (1. c. 4) *Norbaitec erratenbádu amatzenduēla Jangoicoa*<sup>1</sup>, *ezpádu amácen proximoa, dá guezúrri: ceren ezi ezpádu amátzen bere anáia icustenduēna, Jangoicoa*<sup>2</sup> *eztuēna icústen, nola dezáque áma? Eta mandamentugáu*<sup>3</sup> *dúgu Jangoicoagánic*<sup>4</sup>, *ezi amatzenduēnac Jangoicoa*<sup>5</sup> *amadezála bere anáia ére. Christio lagúna dá anáia, baicára gucióc Jang(**oicoar**)en hume, ceñi erratendiógun Aita guréa Ceruetan & Jesusen manamendus. Baña Infiélac ére beartúgu amátu Jang(**oico**)agatic, ceren Jang(**oicoa**)c criatucituen bere imági-*

<sup>1</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

<sup>2</sup> *Jang.*<sup>a</sup> berriz ere.

<sup>3</sup> *mandamtu* dio eta laburgailua.

<sup>4</sup> *Jang.*<sup>a</sup> gánic dio.

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

na ta semejanzará, eta Jesu Chr(ist)oc emánzuen bere vicia ta odóla guciengátic, eta ceren daizquen elléga izátera Christio ta salvo, eta ortáco beardúgu amátu vicidén gucía, mundu gucía. *Aimbérce*, díó S. Juanec. (3) *aimbérce amatuzué Jangoicoac*<sup>6</sup> *mundua*, ezi emánzue bere seme bacárta, *salvaceagátic*. Nola bada dezáquet áma Jang(**oi-co**)a, ezpáduť amátzen proximoa aimbérce amatzenduéna bere Magest(**ade**)ac? Nola amatzendúť Jang(**oico**)a, ezpadúť berarén amoreguisa? Ezpadióť innái bere gustogói? Orgátic Jesus óna galdeguinic bein, *cein dén mandamentu*<sup>7</sup> *andia leguean: Errespondatuzué*, ezi amatzea *Jangoicoa*<sup>8</sup> *bióťz gucias &*

## 105

*Au dá mandamentu*<sup>9</sup> *lembicicoa*<sup>10</sup> *ta andiéna; ta onen guisácoa dá bigarrena*<sup>11</sup>, *amazázu zeure proximoa zeure burua becála*. Eztióte galdeguiten lembic(**ico**)as baicic, cergátic errespondatzendú galdeguiten eztioténas, bigarr(**en**)as? Mostracecó cembat naiduen amadezágun proximoa, eta amatzenduénac Jang(**oico**)a amatuoduéla proximoa. Math. 22...

*Bére búrua becála*, naidu errán, indezála proximoaréqui nola nailúquen indezáten beraréqui guisa bereco láncean, edo nola naitbearlúquen. Anitz dire gorputzen aldetic beárrac, arimen aldetic anitz; baña guti erremediazále: por consig(**uient**)e guti Jang(**oico-ar**)en amazále, naiz errán baiéťz gueiéneć. Agueridá egungo exémpluan: baña enténda arimen álde, ceintan favoratzecó, ezpaitúzu beárr bolsaric, ondasun lurréco ta gauzaric, baicic carid(**ad**)e ta zelo bióťzcan, ta mia ágoan. Guizón eroricénac ladrónen escuétan Jerusaléngo videan significatzendú vicidéna munduan eternidaderáco vidégóntan arimen etsáien értean. Erórcea ebén escuétan dá consentitza edocéin tentaciotán. Ondásun errobatuac dire gra(**ci**)a, dónoac, virtúteac, ta obra on galtzendirénac. Golpátzea dá heritza arimaren potenciác; ilúntzea entendam(**en**)tua, ezauncecó; flacátzea borond(**ate**)a, erresistecó. Cembat becátu, aimbérce gólpe: Anitz duéna eztá milagro guelditza estropeaturic esp(**iri**)tualqui, ta ezinduric videan. Passagéro passatzendirénac casoric ingábe erórias dire

<sup>6</sup> *Jang*.<sup>o</sup> dío.

<sup>7</sup> *mandamtu* eta laburgailua.

<sup>8</sup> *Jang*.<sup>o</sup> dago.

<sup>9</sup> *mandamtu* dío, eta laburgailua.

<sup>10</sup> *lembic*.<sup>o</sup> dago.

<sup>11</sup> *bigarr*.<sup>o</sup> dío.



munducói ajolaic eztuténac erremediátzeas. Samaritano misericordiosogúra dá Jesus óna. (Greg. h. 18. evan) Etórri, jautsi, ta urbilduzé becatariagána incelaic guizón: bere llága ta odolarén cóstus curazentú gure arimen llágac. Olioan amorésco inspirációac ta favóreac daizque enténda, árdoan castigo bialcentigúnac, onnáies guciac. Bere abregañean parátzea heritua dá bere gurútzean eramátea gure becátuen carguéria. Ostátua Eliza, Ostatária Eliza-guizóna, ta Christio-lagúna. *Curam illius habe*, erratendígu bacóchai, contu iducázu, cuida nere pobregórtas, ezi nic pagatucodizut óngui. Eta erreparatzeco dá, Samaritano piadosogárrec ofrecituas lándara pagatucocióla guero, berladanic emancióla porcionebát, ceren ez solam**(ent)**e vicitza secularáoan, bai ta oraico vician ere gure Jaun onac óngui pagatzendigu itendúgun onquia bearrtsuen favoretán berarén amóres, batendáco egún emén ere, ta án ezin pensa ala baño yago. Beréchsqui Elizaguizonac Jesus óna-

*105at.*

rén cóstus vicigára; berarén échean gozatzendúgu lurréco susténtua, estimacio, ta gauzac. Nausi óna izátea cer dén! Nausiagátic ezi, cer litzáque ni becalacoes? Orái bada amatzenbadúgu Jesús, erreparatucodúgu trabajátzean becatariengátic, ceñen amóres passatzuen bere Magest**(ade)**ac aláco passio ta eriótzea? *Curam illius habe*, dió, cuida nere heritues. Ceréqui, edo nola curatubearrtúgu? Ortáco utzidu Elizan botíca generalebát: emén bere sacrame**(n)**tuac obratzen-duténac bere odolarén virtútes: emén bere Evang**(elio)**a, Escrit**(ur)**a Sagr**(atu)**ac, ta doctrina salvacióscoa. *Curam illius habe*, cuida, eguin inála medio ta erremedio gucies, eztáien gál arima nic nere vi-ciárén costus erredim**(itu)**a.

Erremediatzeco béreceac, sacram**(en)**tu ta Evang**(elio)**es lándara, espíritu ta vicimodu ónas lándara, mia dá instrum**(en)**tu principal**(e-n)**a. Onéqui beárda eracútsi, consejátu, exortátu, corregítu, consolá-tu, animátu, ta erreprehe**(n)**ditu ére bearrdeláic, Jesúsén ta arimen amóres, naiz izán cer sufri ásko manéras. Ezi Déabruac eztúnai arimen curátzea; orgátic perseguitze**(n)**dú curazálea. Eriac berac ascotán naidu bere eritasúna, eztunái sendátu, ezpaitu ezauncen bere ona ta gaitza: ta ematendú curazaleain cóntro: baña Jesus óna dago oiús, *curam illius habe*, cuida eztáien gal. Cer imbeárdu curazáleac, baicic éguia errán, naiz eztén guciéi góchso ta prochál berla berla? *Onétsis eria, gaizetsis eritasuna*<sup>12</sup>, dió S. Agust**(ine)**c (s. 15 de v. D.)

<sup>12</sup> *eritas.*° dio.

Naiz etsái idúri, adisquide dá díona eguia sendatzeagátic arima. Cer gauza ain piadóso, nola curazálea, naiz dacárran lancéta? Nigárr itendú ebaquibeardénac, ta ebaquitzendá: Nigárr itendu errebeardénac, ta erretzendá. Eztá ori crueltas(**un**)a. Cruelágo litzáque ústea galcerá erremedioicgábe. Cruel dirúdi llagarén contra, sendatunáies persóna, ezi gueldi ustenbada llaga, iltzenda persóna. Cembat obeágo dá erreprehenditu ta óndu, ezi ez *ichsilic útzi ta gáldu*? Sándu berac dió, (ib. 16) *Ascotán* frenesi dutenac itzultzendire Medicuain cóntra, baña eztú orgatic Medicuac usten curátzea, baitáqui eztaquitéla miserableéc cer aidiren. Orái dúte desplacer, guero acordurá datoziláic *izaindúte placer*. Sandu berac dió, (1. de past. 9) *Cer naidu guréqui?* díóte galcendiréne. Naizaitut aurrquitu ta salvátu, ceren galcenzáren. Alá naibadut galdú, orri zer zaio? Alá naibauzu ere gáldu, alá gaizqui; obéqui nic eztút nai galzaizen. Uzbenáza,

## 106

dió eri gaichstoac, ezperén emaindut orren cóntra. Eztaitut utzico, dió Medicu ónac; zu nere contra, ni zure gaitzarén cóntra, ta *zure arimarén favore*. Alá Jaun div(**inoar**)en Ministro ónac eguines zelo ta prud(**en**)ciaréqui Nausiarén manamendua yá confessonáioan, yá predicáioan, ya corrécioan, beaute passátu bere Magest(**ade**)ac pasatuzuén caliza edo trago amarrgotic cembáit urrupáito; bâtec díola invidia, berceac oposicio, bérceac murmurátzen, bérceac perseguitze(**n**); eta guciá izanenda passagárri, ta gochso ére, baldin arren medios salvacen bada arimarenbát azqueneco; solam(**en**)te, berceac ezpálitz ere, solam(**en**)te emateagátic Jaunái gustogói. Eta orrá motivo andibát, cergátic guciéc bearguindúquen egón diligént ondunáies proximorenbát nolapáit: *Ezi bacóchai manatudió Jangoicoac*<sup>13</sup> *bere proximoarén óna*, dió Esp(**iri**)tu S(**anduac**) *Unicuique mandavit Deus de proximo suo*. (Eccli 17) Eta Jesus onac, *curam illius habe*. Cuida &.

Orai bada gueiéne edo guciéc amatzendutéla Jang(**oico**)a, eztióte naico in gusto duén andiéna? Eztióte naico ofrecitu erregálo ta gauza quadratzenzaióna gucien gañetic? Eta ascotán daiquéna lógra, odolic ta izerdiric ichsurigábe, neque andiricgábe, diru ta alacorricgábe? Cein dá gusto, erregálo, ta gauzagói? Badió S. Greg(**orio**)c (in ps. paenit. 4. in Ezech. 1. c. 12) *Nullum quippe tam gratum Deo est sacrificium, quàm zelus animarum*. *Eztá sacrificio*<sup>14</sup> *bacochic ére*

<sup>13</sup> *Jang.*° dio.

<sup>14</sup> *sacrif.*° dio.

ain quadrable gustosoric Jangoicoai<sup>15</sup>, nola arimen salvátzeco zéloa. Oroát S. Juan Crys(ostomo)c (s. de B. Filog.) Naiduénac quadratu Jesu Christori<sup>16</sup>, cuida berarén árdies, ezi eztá officioric au baño yago estimatzenduenic Jangoicoac<sup>17</sup>. Au beráu M(ari)a Santissimac<sup>18</sup> encargacenció Maria de Agreda Venerab(le)ai anitz aldís, ta anitz modus. Bein erratendió; p. 2 n. 259) *Bi puntután bearda izán zure potencia ta cuidado*<sup>19</sup> gucién itécoa; bat dá egótea zeurói Jangoicoaren<sup>20</sup> amistánzan, ta *gracian*<sup>21</sup>: *bércea procurátzea ori beroi berce arimendáco. Eztút náí, onen lojracecò bearrbaliz, erreparadezázun trabáju ta diligencia*<sup>22</sup> edoceintan, ofrecitus padecitzerá ta iltzerá orgátic. Barimbazára ene alába, ta ene seme Jaunaren Esposa, Considerázazu gure echeco hacienda diréla arimac & Berce bein. (ib. n. 618). *Beñere ez errepúgna passatzecó trabaju, dificultade*<sup>23</sup>, amargura, ta *dolóreac, albadezaquezu oien cóstus irabáci Jangoicoaindáco arimarenbát, edo lagúndu atradáien becatutic. Berce bein: n. 647.) Etzaitela admira joanguindeizen ene semea ta ni Egiptora aimberce arima irabazteagátic, ezi batengátic ibiliguindezáque mundua, bearrbalitz.*

106at

Berriz erratendió, yago *dolore ta pena zuéla, viciceláic, condenaceas arimac, ezi passatuzuden martirioac Martirec*<sup>24</sup>. n. 1295. = p. 3. n. 115 & = *eta ilencéla edocéin tormenturéqui*<sup>25</sup> *gogotic, libratzeagatic* & n. 147. n. 177 & Amoreguisagáu icúsi ta icasizue bere seme div(i-no)an. Iturri beretic edanzúte sandu guciec. Exémpluac dire ezin contaála. Cémbat obra ón, cembat dilig(en)cia, cembat peligro, trabáju, ta gauza passatudúte Jang(oicoar)en guizonec, Apostoluec, ta ondorecoec, solam(ent)e bercerén arimac salvaceagátic? Cerc erama(n)zue S. Fr(ancisc)co Xavier Indietara & Cerc S. Viz(ent)e Ferr(er)i trabajaracicio & Eta etzirénac predicaccó, nola sandac, oh cembat penit(enci)a, oracio, nigárr itenzúten gaichstoen conversioa-

<sup>15</sup> *Jang.*<sup>ai</sup> dio.

<sup>16</sup> *Chrori* eta laburgailua.

<sup>17</sup> *Jang.*<sup>c</sup> dio.

<sup>18</sup> *SSmac* eta laburgailua.

<sup>19</sup> *cuid.*<sup>o</sup> dago.

<sup>20</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dago.

<sup>21</sup> *graan* eta laburgailua.

<sup>22</sup> *diligcia* eta laburgailua.

<sup>23</sup> *dificult.*<sup>c</sup> dago.

<sup>24</sup> *Mart.*<sup>c</sup> dio.

<sup>25</sup> *tormenturéqui* eta ez dago laburgailurik.

gátic! Arimabát libraceagátic ció S. Teresac passatucocituéla gogotic milla eriótze. S. Madal(en)a Pazzisec paratuocéla infernuco atárian, albalezáque ala estórva sárرتzea án arimac. Alá cire vista ona zuténac icustecó, *cein gaitz andia dén Jangoicoaren*<sup>26</sup> *offenditza ta arimen galtzea. Ontas solamente*<sup>27</sup> *imbeardéla nigarr*, dió M(ari)a Santissimac<sup>28</sup>. Bitárرتeo errepára cein ajola guti dúten gueiénece, ez bercerén arimes solam(ent)e, bai bereénes ere! Eta cer diógu emateunténes galvide? Jang(oicoar)en contrárrio, Jesu Chr(ist)orén etsái, ta Deabruarén adisquide, zervitzari, ta officiócoac diréla. Baña ain guti izátea cuidatzeunténac erremediátzeas proximoa, ta ain Jang(oicoar)en amore, ta zélo guti? Cer inendúgu, Jauna, inála inasguéros, ezpadezaquégu erremedia? Icusteco dágo norc itenduen inála. Inasguéros, ezpáda prochuric, itzúli Jang(oico)agána, encomendátu gogotic péna amorsobatéqui cerén malogratzendén Jesus onarén odóla, ta galtzen arima, ala nola unidebátéc Erreguerén sémea acitzendagónac icusbález daramála ugáldeac, ta ezin erremedia, nigarr ederric imbailezáque. Baña eztúgu ezaundúco óngui, joanárteo berce mundúra, cer cálte dén arimen gáltzea, ta ebén irabáztea cer provéchu, cein gustoso Jang(oico)ai ta Jesu Chr(ist)ori. Jaunonéc Cerura igan baño lenchágo bere Christioen amóres naiizánzue utzi bere Vicario S. Pedro, ta encargátu aien cuidádoa. Ortáco galdeguincio amóltsu, Pedro, amatzennauzu ni? Errespond(atuci)o sanduac, bai Jauna, berórrec daqui amatzendudála. Jaunac orduan, cuida nere achsuriac. Errate(n)dió berriz, Pedro, maite nauzu ni? Sanduac, bai Jauna, berorrec dáqui maite dudála. Irugarren aldian galdeguincio, Pedro, amatzennauzu ni? Tristatucé sandua galdeguiteas irúr aldís, ta erresp(ondatuci)o, Jauna, berórrec gucia daqui & Joan. ult(imo).

<sup>26</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dió.

<sup>27</sup> *solam.*<sup>e</sup> dió.

<sup>28</sup> *SSmac* eta laburgailua.

## Sermo in Dominica Tertia Decima post Pentecostem

*De curatione leprae spiritualis*

Occurrerunt ei decem viri leprosi. Luc. 17.

Egúngo Evang(elio)an contatzendá, nola amarr lepróso joanic Jesus onarén billa, urrundanic barátu, ta oius escatzencióten, Jesus Maestru Jauna, urricaribédi gutas. Jesus ónac, zoáste, aguerrzaiste sacerdoteí. Joaterácoan aguitucé garbitzea lepratic guciác. Orrá gure Jesus onarén amóre, ta podorearén miragárribát. Emén bear-dúgu arimarén alde icási nola dén lepra esp(iri)tuála, ta nola cura-tzendén. Ortáco estimazágun gra(ci)arén ta misericordiarén Ama amánteá, amorósa, amáblea M(ari)a. Ave M(ari)a.

Lepra esp(iri)tuála edo arimaréna dá S Agustinen ustés doctrina falsua, ala heregeéc, nola Christio bortec eracustenduténa, passio-neén gustorá mintzátus, ceintas ción S. Pabloc; (2 Tim. 4) ellegatu-codéla dembóra, noiz eztúten naico doctrina sánoa, bai beren deseoen cumplitzecó izán montónca eracustúnac, *prurientes auribus*, azgále emaindioténac; eguietafedea eznái aditu, ta falsedádeac báí. Arguitic igués, ta guezúrren estalcumeén billa. Lepra itsúsia dá ori, gaitz cutsúscoa, itsustenduéna Christiotasunarén lústre ederra. Evangelioo leprosogáien guisa irur gauza imbeártu naiduénac egón libre gárbi: lemb(ico)á urrundanic apárta eracustún gaichstoetáic: bigarr(en)á cláma oracioan bióztas Jesus onari árgui ta garbigaitzan Jang(oicoar)en videan: Irug(arren)á joátea sacerdotengána desen-gañuen arguiarén billa.

Lepra esp(iri)tuála dá ere generálqui edocein malicia, vicio, ta becatúrén gaitza, baña especiálqui luxuriaréna, cein baita gaitz ape-gatzendéna jaiótzes Adanen humeéi becatu originalaréqui. Libre izancire solam(ent)e Jesus ta Maria; Jesus dréchos, Jang(ioc)o izánes ta guizón eguinic Esp(iri)tu Sand(uar)en obras: Maria privilegios, escogitua izánes Jang(oicoar)en Amatóco. Becátu orig(inal)á garbi-tzendá Jesusen odolarén virtútes bataioco sacram(en)tuan, baña gueldice(n)dá bataiátuan concupiscéncia deitzendéna, becatúraco

inclináicia, ta sucáia, ceñi beardúgun errepugnátu contino vicigáren bitártean. Orgátic ció Job sánduac, guerra ta peleabát dá guizonarén vicitza lurrigáñean. (c. 7.) eta S. Pabloc bein, *eztá coronátua izá-nen, baicic peleatzenduéna lega*—

107at.

*rauquiró*: (2 Tim. 2) Berriz; *araguaia espirituaren contra, espiritua<sup>1</sup> araguiarén contra peléan*. (Galat. 5) eta berriz deitzendu becatuarén léguea inclinaciogúra errepugnatzendióna arimarén legueái; ta dió azquénean, *ô guizón disdichátua ni! Norc libratuconáu eriózco gorputzgontaic<sup>2</sup>? Jangoicoaren<sup>3</sup> gracia<sup>4</sup> Jesu Christoren<sup>5</sup> medios*. (Rom. 7.) S. Agust(ine)c dió, (s. 59 de temp.) *Christioen peléa gucién értean gaichstoénac dire castidadearénac, ceintan direlaic egunoro peléac, argál dire victóriac*. Mundu gucia dezáque desengaña experiénciac, naibádu erreparátu, eztéla vicioric, passióne ta inclinacioric ain común pegacórr peligrósoric, nola gorputzengói.

Naiz bai, alaére Jang(oico)ac paratudigu bere légues, *Luxuriásco becuric inetzágula*: eta niórc ezin dispénsa. Beregánic ain viciátua persóna izáqui: guero Deabruaren esp(iri)tu gaichstoa inspirácio gaichstos contino incitatze(n) egóqui: guero mündua lepróso esp(i-ri)tualeés beteric, nonnái tentavideac, peligroac, ocasioac, ceboac: Beira yá eztén precisso dilig(en)cia, ta tétu ándia: ta eztén aisa cutsátzea lépragóntas! Cer medio dá goarcecó, cer erremedio garbitzécó? Irur gauza inzusténac Evangelioco leprosojáiec: lemb(icico)a urrún apárt génde, ta ocasio peligróscoetáic: bigarr(en)a escátzea orácios sinés: irugarr(en)a aguértzea sacerdoteéi confessátus. Goácen bat banáca. Lembic(ic)o errecéta igués eguitea sucái, ta peligróe-táic. Dió Jang(oicoa)c; (Prov. 1.) *ene húmea, esnestátzen, ta lochsenchátzen badizúte becatáric, ez obeditu. Erratenbadizúte, atóz guréqui; ez ségui, apárta zure óñac ayén videetáic*. Dió JesuChr(ist)oc; (Math. 18) *Ematenbadizu galvide zúre éscuac, edo óñac, edo béguiac, átra, ebáqui, bota zeuregánic; obeduzu oriecgábe sártu Ceruan, ezi oiéqui infernuan*. Dá errátea, ain precisso ta onetsia balitz ere, nola escua ta bégua, ematendizúna galvide, apárta apárta. Doctrinagáu entén-da principalquiró quizónqui ta emastéquién comunicáicia. Errecé-

<sup>1</sup> *esptua* eta laburgailua.

<sup>2</sup> *gotaic* eta marratxo bat —o— gainean.

<sup>3</sup> *Jang.<sup>m</sup>* dío.

<sup>4</sup> *graac* eta laburgailua.

<sup>5</sup> *Chroren* eta laburgailua.

ta bera dió S. Pabloc, *fugite fornicationem*. (1. Cor. 6.) Igués eguin. Oroát S. Agust(ine)c, *apprehende fugam, si vis obtinere victoriam, Castidadearen<sup>6</sup> contraco tentácioan escápa, naibázu erdêchi victoria*. Guérta itendénean ármás, goápo dá aurquez<sup>7</sup> aurque joán ta garraitzenduéna: baña gusto-idúri, ta amorésco engañueta(n) goápo dá escapatzendéna, onéc cantatucodú victória: Ezperén, galdu.

## 108

Baña eztá ásqui ori sollic, cerén ezi eztaique ere apárta beregánic: beárda clamátu biótzean, Jesusengána ésque ta ésque leproso-gáien guisa, ô Jesus, urricári nitas: edo berce leprosoac erratencióna, *Domine, si vis, potes me mundare, Jauna, naibádu, innazáque gárbi*. (Math. 8.) Eta Jesus onac errespondatubaicio, naidut bada, gueldizaité gárbi. Errán ta eguin ista(n)tean. Eta *eztaiquela berce guisais izán garbi, ezpáda Jangoicoac<sup>8</sup> emánes*, erránzue jaquintsuac. (sap. 8) Eta Job sanduac ere bai, (14) *Norc dezáque gárbi eguin azi liquitsethic formátua, ezpáda berórrec sollic Jauna?* Escátze edo oraciogáu imbeárda beréchsqui tentacioarén peligroan, Jauna, misericórdia nitas: Jauna, goardabenáza; Jauna, eznazala útzi tent(acio)an & Baña lendanic ere imbeárda gogotic pensátus Novissimoetán, Eriótzean, Juicioan, Infernuan, Glorian, baitaré Jesusen pássio doloréscoan, ezi beiraturic óngui passatuzuéna bere gorpútz virginálean achsúri div(ino)ac zure ta nere becatue(n)gátic, goardatucogára gorputzen amóres offenditzeas &

Irug(arre)n errecéta manatucioténa Jesus onac leprosogaiéi, joán ta presentazaiste sacerdoteí. Óntan adiarastenzaigu confessioarén erremédioa. Joaterácoan ayéc aurquitucire garbituric milágnos; bazéquie ori eguinzuénac, ta bazúsque garbitu bialigábe; alaére manatucióte cu(m)plitzea legue zárrean manaturic cegóna. Edérrqui mostratzenzaigu legue bérrian dugúna. Contricioarén virtútes confessátzeco intencioaréqui barcatzendire ascotán becátuac joaterácoan, ta joangábe ere, baña beti gueldítzendá obligácioa presentáceco, eta confessáceco. Sacram(en)tugáu paratuzué Jesus berac, ala nola bigárren bataio-guisabát, batáio neque-penáscoa, garbitzeco arimarén lepra genero gucietáic. Neque-pena dá, alque dá aguértzea gueuren ágos gueuren misériac: baña libratzeagátic dá passagárrí.

<sup>6</sup> *Castidad.*<sup>en</sup> dago.

<sup>7</sup> *aurquez* dago, —z duela bukaeran, eta ez —s.

<sup>8</sup> *Jang.*: dio.

Dió S. Pedro Chrysol(og)oc (s. 30) *Aguergaitzen becatári gueuren ágos, atratzeagátic libre Jaunarén barcácius. Becátuac eguitea baño gaisñóágo dá ucátzea eguinaguéros, dió S. Juan Chrysol(og)oc (h. 20 in Genes.) Eta (de paenitentia t. 5.) Aguián cerén eztúzun confessátzen, eztaude ariman becátuac? Eztitu icústen Jangoicoac<sup>9</sup>? Cer prochu duzu ez confessátzeas? Aguián alchazaizque Jangoicoai<sup>10</sup>? Ezpaitúzu ere aguértzen confessioan<sup>11</sup>, icustentú, presénte dauzqui: baña confessa—*

108at.

*tzenbaitúzu, borrazentú, nola inezpalíre. S. Agust(ine)c dió (s. 3 dom. 1. quadr(agesim)ae) Nor ere acusatzendén eguintuen becátues, ori eztú cértas acusátu Deábruac juicioan, baldin ongui penaturic emendacembáda. Berriz dió, (in ps. 50) Indúzu culpa; cer aizára disculpátus? Eguinda; ez defénda. Cégo prést Jangoicoa<sup>12</sup> barcatzerá; zeurórrec defendátus erchidiózu atária. Berriz: (in ps. 65) Medicuagána etorrizára; sano contatzenzára: yá eztá erremedioric zuretáco: beticós eri guelditzenzára. Condenatucozára ichsildus, zindeizquéna libra confessátus. (in ps. 66) Desgra(ci)agáu pintacendú edérrqui itzgueben explicacioan, (ps. 68) Non absorveat me profundum & Jauna, ció Davidec, eznadiela eróri butzu barnean, ta eztadiela erchi butzuarén agoa ene gañean. Sanduac ontará dió; bútzu bárna dá guizonarén gaichstaquéria. Artan erorcendéna bárna erorcendá. Baña alaére confessatzenbaitu bere gaizquiac, eztá erchi butzuarén agoa gañetic. Baña ezpádu ajolaic confessátzeas, erchidú bútzuac ágoa. Nola erchidu ágoa? Galdudú conféssioa. Gáldua dá bera ére. Jesu Chr(ist)oc errána dá sacerdoteei Noren becátuac barcatzentuzien, izaindire barcátuac, norénac ez, ez.*

Azquénean au dá erremedio universála Jesus onac parátua ta beraren odolarén virtútes obratzenduéna ofrecituzuén barcácioa. Berce erremedioec valiodúte onéqui báteo; augábe ez bátec ére. Orái bada inenbaguindue ori ta yago ere, gorputzéco lépra ta gaitzetáic libre ta gárbi edérr guelditzeagátic, inzógun merchéde gueuren arimái, estimátzeas au aimbérce berére, nola onci lurréscoc ciquingói. Erremediogúra usatudúte beti sandu ta sánda guciéc; eta Jang(oico)c mostratudú milágnos ere arren valioa ta obligácioa, manátus

<sup>9</sup> Jang.<sup>ac</sup> dio.

<sup>10</sup> Jang.<sup>ai</sup> dago.

<sup>11</sup> confess.<sup>am</sup> dago.

<sup>12</sup> Jang.<sup>a</sup> dio.



Ainguiruen ta M(ari)a Santissimaren<sup>13</sup> medios anitzéi, ta ilac ere erresucitátus confessacecó ez condenacecós. Sacerd(ot)e sanduen emplégu princip(al)a izánda confessioac aditzea. S. Felipe Neri ór-tan igatuzé, ta iltzen egúnean ere confessatucitue cembáit. Ezauncencitue aurpeguían ta achón onetic honéstoac; itsustasun ta usaie-tic deshonestoac: Eta nola aldatzenciren óngui confessatzearequí. Miragárri anitz aláco dire contatzendirénac sand(uar)en vician. Es-quérr mila gure Jaunái, cerén baitu placér admititzeas gra(ci)an & &.

---

<sup>13</sup> *SSmaren* eta laburgailua.

## Sermo in Dominica Quarta Decima post Pentecostem

*De serviendo uni Domino Deo. Motiva.*

Nemo potest duobus Diminis servire. Math. 6.

Egungo Evang(**elio**)an dió Jesus onac, *Niorc ere ezdezáque zevitzátu<sup>1</sup> bi Nausiéi. Bi* Nausi tiónac cein diren dió berla, ezdezaquéze Jang(**oico**)ai zervitza ta Mamonari. Mamona deitzen-omendá Hebreoen erlean ondásun lurrécoa, ta ganáncia. Oní zervitzátzea dá affanaturic vicitzea ónen átzéan. Alá denac ezdezáque zervitza Jang(**oico**)ai. Affanaciogói quencecó parace(**n**)tígu campoco lore, ta aireco egasteén comparácioac, nola acitzen, ta mantenitzendiren Jang(**oicoar**)en provid(**en**)cias; eztuéla gutiágo, baicic yágo estimátzen guizóna bere Magest(**ade**)ac, ezcaitzen beti egón cavilátzen gorputzaindáco bearrdirenetán. Acabatzendú itzguebéqui: *Quaerite primum regnum Dei & Len leníc cuida Jangoicoaren<sup>2</sup> erreinuas ta zuzen-videas, eta izainduzie bearden<sup>3</sup> gucía.* Enténda ongui: eztú debecátzen trabajátzea, ta cuidátzea bere neurrian, atráztzeco vicia decentequí, ceren ezi guizóna jáiodá trabajuráco, eta Jang(**oicoa**)c lembic(**ic**)o guizónai, Adani, emáncio sent(**enc**)jagáu: *In sudore vultus tui vesceris pane tuo.* Zeure copetaco izerdis atrabeauzu zeure oguia: Debecatzenúena dá sobra affanátzea, excésoa, cuidado yago parátzea gorputzarén, ezi arimarén. Applíca, trabája, cuida, gorputzaindáco bearradiña; beti órdea Jang(**oico**)a lén, ta arima. *Dei Jangoicoari, ta euchi cabicoari,* dá errána. Entendaturic alá, seguitzeco goácen salutátus Ama Santissima<sup>4</sup>. Ave M(**ari**)a.

Supponitzendá Evang(**elio**)an zervitzatzearen trabájua eztaiquela excúsa, déla batái, déla berceái, déla Jang(**oico**)ai, déla contrarioái.

<sup>1</sup> zevitzátu dió, ez zervitzátu, zer- silaban —r— falta dela.

<sup>2</sup> Jang.<sup>ca</sup> dió.

<sup>3</sup> beardé eta marratxo bat -e gainean.

<sup>4</sup> SSma eta laburgailua.

Biéi báteo ezín zervitza: dió Jesus onac: eztaique bateo Jang(**oico**)ai ta mamónai. Ain gúti munduai, Demonioái, araguiái, vicioái, ta becatuái: itzbátes, Jang(**oicoar**)en cóntra dénai. Edo despéi Jang(**oico**)a, edo despéi contrárhoa. Eta orrá desengáñu andibát dabilztanéi erdicál, ta áldian becála, yá Jang(**oicoar**)én, yá contrarioarén. Oiu iténzue Eliasec: (3 Reg. 18) *Noiz arteo ibilibeauzie macurra bi aldetára? Jangoicoa<sup>5</sup> barimbada Jauna, segui au: berceic barimbada<sup>6</sup>, segui ura.* Desengáña ere pericónac ta pericac palo guciétara iteunténac, yá Jang(**oicoar**)en gauzetán, yá contracoétan, ya devocio-idúri, ya lazo nolanái, eztaiquela biotzbátean aurqui ta compón Jang(**oico**)a ta contra déna, ezi dacusaláic Jang(**oicoa**)c itenzaióla án lecu etsaiái, despeitzendá béra, ta guciá etsaiarén guelditzendá. Desengáña alabér, Jang(**oico**)ai zervitzátzea eztéla solam(**ent**)e

109at.

cembait errézu ta aláco gauzáñto leve eguitea arin arina, baicic amátus bere Mag(**estade**)a biótzes eguitea berarén borond(**ate**)a, berarén gustorá izátea, ta vicitzea: ala nola Deabruarén tentácioan consentitza baita Deabruari zervitzátzea, araguiaren ta munduarén gustoac eguitea araguiari ta mu(**n**)duari zervitzátzea. Suponituric au, orái cembait motivo naitut errán direnetáic, zervitzátzera Jang(**oico**)ai erresolvitzecó beingoas betícos.

1.<sup>a</sup> *Bera nor denagátic Jangoicoa<sup>7</sup>* Jaun goicóa goiéna, gucién Jaun ta Jabe, nori zervitzatzendióten Serafinec, Ainguiruec, Ceruec, irúzquiac, izárrec, gauza guci guciéc, ta Demónioec ere, naibaute ezpaute: Jaunbát ain admiráblea ta amáblea, ezpaita miric dezaquenic explíca. Dichósoa zervitzacendióna borond(**at**)e ónes, Nausi onari zervitzatzendió, berái zervitzátzea dá erreinatzea: berabaitan duzu naidúzun guciá. Naidúzu Magest(**ad**)e ta grandeza? Errégue ain andia dá, ezi guciác berarén aldean contú chinúrriac diréla; ta berarén páge onétsiac dire yago, ezi Emperadoreic andiénac. Nauzu podóre? Ain poderóso dá, ezi Ceruetaco ta beítico fabricaguebec eguintu moguitugábe, naiizatearequi solam(**ent**)e; ta naibadu, indezáque milla ta milla yágo, ta oroát desequin, naibádu; eta yago déna, beraren podóres guizonfño pobrebátec dezáque garaitu infernu guciá, ta eguin naiduen guciá. Nauzu ontasúna? Ain óna dá ta nóblea, ezi ez-

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

<sup>6</sup> *barimb.*<sup>a</sup> dago.

<sup>7</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

taqui, ta ezdezáque gaizquiric eguin, ongui ezi faltaricgábe. Quadratzenzaizu benignidádea ta miseríc(ordi)a? Ain misericordioso benigno dá, ezi anitz urtetáco becátuac barcatzentú ordubatecó negárren cásos; ta ain adisquide honrátu estimátua dauca, nola ezpálio eguin agravioric. Quadratzenzaizu ondásun ta liberalid(ad)e? Ain aberáts emannáia dá, ezi ón déna gucía izánic berac emána, yago ta yago nailúque emán, ta manatzendú escadezógula, ta quejatzendá gure escatzefaltas. Ederrtasúna quadratzenzaizu? Ain ederra dá, ezi bere aurpéguia icústea dá gloria; ta beira egónes eztire aspertzen sanduac eternid(ade)an, ta bere ederrtasunarén errañubatéqui itzulicozaitu ederrágo, ezi irúzquia. Nauzu erregálo ta gusto? Alá dáqui erregalátzen bereác, ezi an goiti betetzentú gustos pensaála baño yago ta yágo, ta emén beiti chastaraciric tantabát zoratzentú contentus múnduco trabáju erruénen érdian, diotela yago yago trabaju. Nau-

## 110

zu amóre ta amistánza? Ain amante amoroso préstua dá, ezi tratacentú béreac cariño guciaréqui, bere biótzean dauzqui ez ustecó séculan, ezpaute berec usten bera lenic: eztú punturic, ez mendecuric, naiz utzidúzun milla aldis, utzulcenbazára<sup>8</sup>, berla gra(aci)an admititzenzaitu, atzenduric passátuas. Ó amóre div(ino)a bere pareric ez tuéna! Oroát pobreai, oroát chipiai & Nauzu... baño noiz acába? Nai ta pensadezaquézun baño onágo ta amableágo aurquitucouzu Nausigáu. Tonto ezpazára ta gaichsto, naicodiózu gogotic zervitzátu.

2.<sup>n</sup> Motivoa, *Criacioa*; ceren criatutuén Jang(oicoa)c Cerua, lurra, gauza guciac, ta gú garéna. Berac emána dugu arima ta gorpútza, ta gurebaitan dén ón gucía barnetic eta campotic. Necazariac bere alórrean plantatuduenaren fruitára dú drecho: cembat obéqui Jang(oicoa)c guizonarén accione, itz, affecto ta moguim(en)tu guciétara dú drecho? ta guc oblig(aci)o zervitzaceco guciés? Ezperén la-dronqueria itenzáio.

3.<sup>a</sup> *Conservacioa*, ceren conservatzengaituen criatugaituénac berac; berabaitan vicigára, moguitzengára, ta gaude: beragánic dugu vicitza, atsa, arguia, sustentua, indárr, ta gañarácoac; bera dago mantenitzen gú contino: faltabalezágu mom(en)tubates, artan ilac guinázque. Eta orrá mom(en)tu adiña merchede, atsaldi bezámbat favóre, pulsaldi adiña oblig(aci)o gure aldétic: eta orrá gure esquerr gaichsto ero desatinatua offenditzeas aláco Jauna, ceñen menean

<sup>8</sup> utzulcen dio, eta ez itzulcen.

gauden yago ezi Amare(n) ménean aurra sabelean daramána. Norc conta infiniciobát gaitz dirénac, ceñetáic libratugaituen? Offenditzea yá dá traiciobát traidórea gucis; berac emantigun armac itzúltzea beraren contra: Berac mantenitu gú, ta guc berarén ta gueurén contrarioái zervitz(at)u.

4.<sup>a</sup> *Preservácioa*, ceren guardatugaituen asco becatu inenguinduzanetáic, ta aguián condenaciotic, ezi offénsa mortalebátes merejitzendá condenácioa; Mereji izanduéna mantenitzea bere besota(n) Jaun onac bere offendizále esquerr-gaitza eztá milagro-guisabát? Eta aimberce milágro, cembat istánte vicitudén estadogórtan. Utzibálu erorcera infernuan, ta guero andic átra, estimatzecó litzáque, ustedút. Bada aimberce dá ez ustea erorcerà merejizuéna, nola eroriasgueros atrátzea. Bada alácoac, andic atrea<sup>9</sup> baliz becála, dió oblig(aci)o Jang(oico)ai zervitzatzéco.

110at.

5.<sup>a</sup> *Redempcioa*, ceren erredimituguindúzan Jang(oicoa)c gú gálduac guinálaic. Cer dá erredimitzea? Dá errescatátzea bere gauza bere costus. Jang(oicoar)en gauza guizóna: Au Jang(oico)ai desobeditus, Deabruái obeditus galduzé bere culpas. Cer aguitucé guero? Agraviátua cénac bérac, diót, Jang(oico)ac alá onetsizue mündua, ezi bializue bere seme bacárria. Au izánic Jang(oic)obat Aitaréqui, ta gloriaco Errégue, jautsi bere tronotic ta vestitucé gure araguiaren zamárras, eta gañetic becatariain semejánzas. Aguertucenecó guizón berrigáu, onen gañean cargatucé Ja(n)g(oicoar)en justicia, Deabruen ta guizónen malicia. Ofrecitucé achsuri div(ino)a izátera sacrificátua gure onagátic ichsil amoroso humíl humíla. Beira preso eguinic, golpaturic, maltrataturic, azotaturic, itzbates, acabaturic torm(en)tus gurútzean. An borratuzué gure condenacioare(n) senténcia frincátus gurutzearén contra. Ô gure culpa fortunósoa, aurquituzuéna aláco Redemptorea! Ô gure Jaunarén amore ezin daiquéna ásqui estíma, errégue offenditua bera entregátu eriotzerá erredimitzeagátic offendizále traidórea! Yá eziógun oblig(aci)o?

6.<sup>a</sup> *Vocácioa*, ceren deitugaituen, beréchsi, ecárri, ta parátu bere eche, familiar, ta sáldoan, au dá Elizan, arca salvaciosogóntan, marcatuic bere ardi bere marcaréqui, ceñetáic solam(en)te igandaizquen Cerúra Jang(oico)as daudénac, berce niondic ez picorric ere. Pensa Christioac favóre especialegáu, ta ontáic dúgun escaida,

---

<sup>9</sup> Hola dago *atrea*.

medioac, ta erremedioac, Jang(**oicoar**)en erreligionea, eguietafedeac, léguea, doctrina, sacram(**en**)tuac, salvaccó: por consig(**uient**)e gure obligac(**ioa**)c.

7.<sup>a</sup> *Justificácioa*, cerén barcátus gure becátuac admititzengaituen bere gra(**ci**)an: norc eta nor? Gloriaco Errégue andiac aggraviátua denac lurréco animaléttoa bi oñetácoa aggraviatuduéna. Cembat aldis, ta cer medios? Naidúgun guciétan óngui penaturic confessátu gure gaizqui eguina gueuren cóntra. Naiizambázue ez utzi erremedioric, baicic itenduénac pága, bazúque, ta ezquindúque itzic átra. Baña ez alacoric, baicic aisa edérr, ta maiz ásqui admititzengaitu gra(**ci**)an. Ó Nausi ona ta onéguia gaichstoendáco ere!

8.<sup>a</sup> *Comunicacioa*, cerén comunicatzendén guizonaréqui Jaun andia ásko manéras, oracioan especiálqui, baña erreálqui amoroso miragarriró Co-

## 111

munióne Sagrátuan, ustendeláic játera onain útses amen bátean, sarturic gure echolagóntan berac bere gorputz ta odol preciosoéqui erregalatzengaituéla. Gauza miragarria dá au, ta ezin leiquéna sinésta, ezpález errán bere Magest(**ade**)ac. Baña miragarria ere dá digun amore; miragárriac progu len emánac. Munduco Erregue ta Nausiric obénac itenduen gueiéna jarraraci bere maiean nirábea, ta bere escus bere janári p(**ro**)prietotic partitzea. Non dá Artzái, Aita, edo Ama ain amanteric azitzenduenic bere gorputz ta odolaréqui bere maiténa? Sollic dá ori Jesus ona. Ó res mirabilis & Gauza admirabléa! Jatendú Jaun ona esclavo humil ta pobreac!

9.<sup>a</sup> *Predestinacioa*, cerén predestinatugaituen bere gloriaráco. Au cierto, eztaique chsaquin, vicigáren bitárteo, baña daique espéra señaleén cófórme, itendigúnac aimberce favóre, inendigúla gucién coróna, baita gloriarátzea. Emandigúna yá, bere odóla pássioan, bere vicia gurútzean, bera dén gucía sacram(**en**)tuan, dá prenda ederrbát emannaidigun gloriarén. Naibaguindúza gáldu, bazúque ascotán: orái gauzqui viciric ta favoreés inguraturic; señale dá, naitugaituéla salvátu. Certo dena dá zervitzatzendiónac óngui eztuéla galducó bere prémioa.

10.<sup>a</sup> *Glorificacioa*, cerén glorias betetzentuén bere escogituac án bere palácioan, coronatzentuéla Erregue ta Erreguina grandéza, honra, ondasun, gusto, ta nauten guciaréqui eternid(**ad**)e gucian. Cein alégre cantatucotúgun an gure Jaunarén misericórdiac, atzenduric eméngo trabáju pichscas!

Baña eztáquion gogorátu noribaiti Jang(**oicoar**)en zervitzúcoec

solam(**ent**)e vicitza seculácoan tustéla beren ondásun ta gustoac, emén ordea solam(**ent**)e zervitzuare(**n**) trabájuac, ezin goza araguia-rén ta munduarén gustoric, ezin cumpli passióneac, beti egonbe-beárr contra errepugnátzen: vici tristea pintatzeunte ori mu(**n**)du-cóiec. Ô ene Nausi Jauna, berórren ondásun ta gustoac emén ere ezotedire obeágo ezi munduarén farrasqueriac? Naitut bada contátu emén, ez guciac, bai cembáit avantálla dirénac Jang(**oicoar**)en zervi-tzuan oraico vician ere.

1.<sup>a</sup> *Virtutearén óna* itenbaitu ona persóna, Jang(**oicoar**)en onétsi biotzécoa, Ama Virginarén maite, Ainguiru ta sandu Cerúcoen adis-quide arára joanbearrdéna. Eztá ori obe, ezi izátea Errégue, ta nai-daiquen guciá?.

2.<sup>a</sup> *Providencia*<sup>10</sup> *amorósoa* duéna Jang(**oicoa**)c bere zervitzu-coes, ezpaizaiote quenduco bilobát ere gaitzes. Ón convenidirénac emanentióte; gaitz permititzentuénac, izaindire ónes ta oneráco. Gaitzac ere ón! Cer yago daique deséa?.

*111at.*

3.<sup>a</sup> *Aurquitzea gracia*<sup>11</sup> ta agrádo Jang(**oicoar**)en beguietán. Zuc maite Jang(**oico**)a, ta Jang(**oico**)ac maite zú, cer yago, cer obeágo de-seadezaquezú? *Ne timeas, Maria &*

4.<sup>a</sup> *Arguitásun* Cerúcoa ematendioténa, eztabiltzan itsuturic ilumbetán munducoien guisará, ezaunceco ongui Jang(**oicoar**)en vi-dea, eguiac, eta gauzac &.

5.<sup>a</sup> *Consolácio* ta alegranciac, ceñéqui bañatzentióten biotzac barnetic trabájuen ertean, eriotzeain erdian ére. Ô cembat aláco ne-záquen cónta!

6.<sup>a</sup> *Conciéncia onarén* óna confianzaréqui maite tuéla bere Ma-g(**estade**)ac. An bárnean beiraturic, ez aurquitzearequi culpa andiric dióte, *Si Deus pro me, quis contra me?*

7.<sup>a</sup> *Esperanzarén sánoa* salvatucotuéla berén Nausi ónac, ceñec sentiarastendióte ala nola Cerúco achón iduribát arára baño lén. *In te, Domine, speravi, &*

8.<sup>a</sup> *Justoen libertáde eguiáscoa*, au dá vicitzea libre múnduco pasi-sióne ta leguéen sujeciotic. Báti beira beti; ura contént badauca, cer záio gañarácoes? Cantatzeunte S. Teressaréqui: Deusec etzaitela turba; Deuses etzaitela lótsa: Guciá passatzendá: Jang(**oico**)a aldá-

<sup>10</sup> *Providcia* dío eta laburgailua.

<sup>11</sup> *graa* eta laburgailua.

tzen eztá: Jaing(**oico**)a duenari deus etzáio fálda; Jang(**oico**)a sollic asqui dá: Pacienciaréqui guciá logratzendá.

9.<sup>a</sup> *Justoen oráçioac aditzea* bere Mag(**estade**)ac, nola Aita onac hume maiteénac noiz ta nola zaióten convéni. Libratzentú gaitzetáic bearrdeláic; ezpaitu librátzen, alá dá obe, ta guciá amóre ta favóre. Jauna, eztagola ori ene cóntra, ta &

10.<sup>a</sup> *Iltzearen óna*, dauzquielaic bere éscuan Jang(**oicoa**)c, *Iustorum animae in manu Dei*. Eztióte gaizquiric eguinen eriótzeac ere, *et non tanget illos tormentum mortis*. Batzúc alegratzendire lancegártan ere, usmatzeuntéla Ceru-achónbát, ta ya badoaquietela idiquitzera atária, *laetatus sum in his quae dicta &* Bercebatzúc dire beldúrr berén aldétic, baña confiánza amorosobát Jang(**oicoar**)en aldetic: Baña guciác iltzendire confórme soségu ta báque ónean; orgatic sanduen iltzea dá locárrtzea Jaunaren besótan. *Obdormivit in Domino*. Guciá contra munduarén, Demonioarén, ta araguiarén zervitzuan: Vician gaizqui, ilcean gaizquiágo; ta ondórean ezin gaizquiágo. = Diót bada berriz ére, zervitzatzendiónc Jang(**oico**)ai, Nausi onai zervitzatzendióla. Adisquide ona dá; amatzentú bere amazáleac, naiz trabájuen érdian; atracotú bearrorduan: Eztitu galzera utzíco. Zoáste beirátus generácios generáció, Noe diluvio universálean, Josef Egipton, Moyses desértuan, Tobias cautiverioan, David desterruan, Jonás balearen sabel barnea(**n**), Job estravillean, Daniel leonen cubilan, Susanna arricatzera doacinean, S. Pedro prisioneétan & Jang(**oico**)ac eguingaitzala bere zervitzúco. amen.



## Sermo in Dominica Quinta Decima post Pentecostem

*De modo moriendi et resurgendi spiritualitér.*

Egungo Evang(**elio**)a dá au: Zoeie Jesus Naim deitzenden Erribatéra bere Discip(**ul**)o ta gendétze andiarén compañian, ta ellegátzean portalerá, ará nón zeramáten ilbát Amarén seme bacarra orcítzerá, eta Ama zoéie negárres acompaňam(**en**)tu andiarequi. Jesus onac icusiric ta urricarituric joán ta erráncio, ezdezála nigarric eguin. Eta ellegatuzé, ta uquituzué atáuta: guelditucire zeramáténac. Orduan errancio ilarí, Mutila, zuri erratendizut, jaiquizaite. Eta jarricé ila céna, ta asize mintzátzen: eta entregatució viciric bere Amari. Guciác lotsarritucire, ta laudatzenzúte Jang(**oico**)a, ciótela, Profeta andibát aguertudá gutártean, Jang(**oico**)a etorrída visitátzera bere gendea. Orrá Evang(**elio**)a. Prochu atrátzeco, goácen gra(**ci**)aren billa escátus M(**ari**)a Santissimari<sup>1</sup>. Ave Maria.

Asco il yago erresucitatucituéla Jesus ónac, dio S. Agust(**ine**)c, baña irur contatzendire solam(**ent**)e: bát Sinagogaco Principebatén alaba amabi urtetácoa mortachsaturic cególaic bere quáртоan oraño; bercebát egúngo mutilgáu zerameteláic carrican orcítzera yá: bércea Lazaro laur eguntáco ila, ta ortziasgueros yá urrintzen asicéna. Esp(**iri**)tualqui entendátus, arimarén eriótzea dá becátu mortála, ontan dagóna ila dá Jang(**oicoar**)en beguiétan. Viztea dá gra(**ci**)ara itzúltzea. Baña iletic ilerá dá diferéncia, ilgáiec adiarastendigúte. Lembic(**ico**)ac mortachsaturic quáртоan mostratzendú eroridéna culpa mortálean biótzes solam(**ent**)e, edo secrétoan: Bigarren ilac carrican adiarastendú becatu eguitenduéna aguérrian: Irug(**arre**)n il órtziac significatzendú costumbres gaichsto déna. Icusteco dá, nola assi, ta joatendiren gaichstátus gueroágo ta yágo; eta nola gure Jau-nac ontzentuén naituénac.

<sup>1</sup> *SSmari* eta laburgailua.

Bataioa celebratzendá alegráncias arracioréqui, ceren gra(**ci**)ara jaioberritzendén aurra sacram(**en**)tugártan: ilcendélaic estadogártan, alabér festa-guisa celebratzendú Elizac, cerén jaiotzenbaita gloriará Jesusen merejim(**en**)tus. S. Fran(**cis**)co Xavierec Indietará joanic etzue principioan berla lográtu anitz convertitzea, bai anitz aurriltzencirénac bataiatzea; ta contént ortas ció, ongui empleatutáco ematencituéla bere viaje, trabáju, ta peligro passatu guciac, solam(**en**)te irabaciagátic aurftogoaien arimac, eta aiéi encomendacencé, logratzecó beren burátso ta aideen convertitzea. Baña guelditzendirénes emengo viciráco, balequi batec cer izanénden, ascotán ilzeas

*112at.*

baño pena yago lúque guelditzeas, joanenbaitire gaichstátus mundu gaichstogóntan. Guciec án iteunte errenúncia solémnea Satanasen pompa ta gauza gucietaic: *abrenuntias Satanae? abrenuntio*. Eta cembatéc cumplitzeunte itz emána? Guciei ematenzaióte pañolo chúria, ta candéla ichequiric gra(**ci**)aren señale, encargátus goardadézatela manchatugábe: eta cembatéc goardatzeunte?

Nola aguitzendén desgraciátzea, icuságun. Cembáit bacóch zori onecoés lándara, gañaráco gueiénac lenic inclináció naturále gaichstoagátic; guero juicioa zoritugábe izánes; guero guti lagúndus burátsoec; ajola guti, ta gutiágo maña izánes oneratzéco, ala nola D.<sup>a</sup> Blanca S. Luis Franciaco Erreguerén Amac Semeái escutic arturic erratención maiz, ene humea, naiagonúque icúsi zú ilic, ezi culpa graverenbátean eroriric. Baña non dire aláco burátsoac? Contráριο bai fránco Jang(**oicoar**)en videan: lembic(**ico**)ac bere quideac alcina-tuágoac malician quidátus vide zabálas, emánes exemplu gaichstoac, laudátus vanid(**ade**)ac, pintátus gaichstaquériac on-colóres, irri ta escárnio eguines virtutéscoes, deitus izén goitiéqui simple santurrón, ta alá: en fin elcárr laudátus vánoac alegre goapo-idúri: astendá gastettoa invidia-guisabatéqui goápo náies. Cerengátic presuncio-guisagói izatendá comunquiró principio macúrtzen astecó gásteac, principálqui emastéquiac. Bearrluquéte beirátu sollic Jang(**oico**)ai iduritzeco óngui berarén beguiétan, ártus erresolúcio, cuid(**ad**)o, ta estudio gucia, izatecó sendoqui ónac, ta goarcecó on eztiren gucietaic, ajola guti dutéla múnduas; baña contra itendá, Jang(**oicoar**)en beguias précio guti, ta munduarén béguies sobra: Aláco persónac dire canabérac aicearén ariorá dabilzánac gora bera; iteunten ón idúria ére óngui iduritunáies; ta vici gucian dire ala áscó simpléfto beti beira nondic iduritu. Aláco géndea gucia dá casquilla mamirigábe, guciá luma sustanciaicgábe: Aláco ón izátea ere dá obra

cimenduricgábe; bátere eznáiz fio: bárnean daique descuida, nola ezpaitute icusten gendeén beguiéc, ta cuidatu solo azál gañecoas: berce—

## 113

alde eztá iraupétsu ére, ezi icustembádu orái edo guerochságo, emén edo án virtutea oinperaturic, ta vicioa eta gaichstaquéria damátela triumfánte arrúllo, aisa utzicodú bere ón idúria, ta seguitucodú berceén procéssioa, ezi gueiénac múnduan dire mono ta mona, imitátus bérceac, ines iteunténa, ta ez bearrdéna. Eta orrá cergátic dén ain gutí sandu ta sanda, cerén eztúten beirátzen sollic Jang(oico)ai vicécó berarén gustóra.

Presuncioaréqui bada astendire alquétzen ónas ére, obediéncias, humiltasúnas, erretiroas: guero garaitzen gutibána Jang(oicoa)c paratuduén alque ona ta beldúrta ón eztiren gauzetaráco: guéro aitus ta icúsis bearretirénac, lecu emáten gógoan, guerochságo quadrátzen, guerochságo admititzen borond(ate)as, guerochságo eguiten eré gaizquiac, secrétoan lenic, guéro aguerrian ére, guero costumbres ere, ausarqui ere ta ajóla gutiréqui. Lenic astendire aldátzen confessoreac, ez onágo naies; guéro argáldus conféssioac; guero confessátus ceremónias, guti penátus bere gaitzas, ta aguián alchátus cúlpac; azquenéco itsútus arrás. Noráraño daiquen elléga desgraciátua! Bitárteo nióres eztaique desespéra, joan artaño infernúra, naiz dagon ilic Jang(oicoar)en beguiétan: ala nola niór eztaique confia achequiaréqui eztéla gaichsto escandolóso ta costúmbres, asqui delaric condenátzeco bat becátu mortalebát, naiz déla secretoan, ezi orréqui sollic ere ila dá arima, ezpádu vizten gucis poderósoac.

Icuságun orái arimen vizteco modua, egúngo ilarén co(m)parácios. Beñic bein arima Jang(oicoar)en desgra(ci)an dagóna gra(ci)ara itzúltzea ezdezáque guizónac beréz yago ezi dezáquen viztu ilac bere burua: Langói eztá guizonarén habilidádes, baicic Jang(oicoar)en piedádes. Ezdezáque ere meréji guizónac; itecós imbeárdu Jang(oico)ac<sup>2</sup> gra(ci)as. Ezpáze ellegátu Jesus ona, cer izanénze egúngo ilas? Ila il, ta ortzi, ta urrindu, ta ustelducozé erremedioricgábe. Esquérr Jaun onái, inbaicio favóre, berac ezin merejigábe. Oroát dá ilden arimas edocéin<sup>3</sup> mortaleréqui. Galdua litzáque beticos, ezpálio eguinnái favóre carid(ad)es, limósnas, gra(ci)as. Jauna, ofrecituo-

<sup>2</sup> Hola dio *Jangoicoac* eta ez *Jangoicoaren*.

<sup>3</sup> *edocéin* eta *mortaleréqui* hitzen artean *becatu* falta dela, uste dugu.

mendú órdea gra(**ci**)an admiticea, noiznái convertidáien ongui becatária. Eguia dá, baña ori ere dá gra(**ci**)a, ezi ezpázue naiizandu ofrecitu bere borondátes, norc emanaracicoció itza?

*113at.*

Emándu itza, noiznái convertidáien óngui: baña eztú ofrecitu biárr-co egúna; eztú ofrecitú gra(**ci**)a, convertitzeco óngui, ta becatária bera eztaique beréz convertí, ezipadu convertitzen Jang(**oicoa**)c, ala nola ilac etzezáque billa Jesús, ezpázue Jesusec billátu ila. Orduán icusizué ila atáutean, Ama negárres, ta moguituzé miseric(**ordi**)as. Beiratzendú orái ére iletáic naiduéna, beiratzendú negárres Ama, au dá, Eliza, ceñen aténcios ásko hume il viztendú. Viztecó ilgúra Jaun div(**ino**)ac uquituzué éscuas atáuta, ta guelditucire zematénac: Orái ascotán viztecó arima, uquitzendú atauta, au dá gorpúza, aguián eritasún, malhúrr, ta escarm(**en**)tuequi, biótza beti bere escuaréqui, ta detenitzendire passióneac zemátenac orcitzera infernuan. Orduán errancio ilai, jaiquizaite. Orái arima ilái ematentio inspirációac, goarzaite, emendazaite. Ilgúra jarrize, ta asice mintzátzen. Alá arima Jang(**oicoar**)en uquim(**en**)tu ta deiaréqui jarcendá assentus pensátzen bere g aizqui eguinac, ta mintzátzen, au dá, confessátzen. Orduán alegratucé Ama: Orái alegratzendá Eliza Ama Sa(**n**)da. Orduán guciác arritucire, ta laudatzenzúte Jang(**oico**)a. Orái admiragaitzen Jaunarén piedadeas, amóreas, podóreas salvatzean arima gálduac; Laudazagu(**n**) &

Exémplus beteric dago mundua, baña egúngo Ama Semeén guisará esp(**iri**)tualqui aguitucé S. Monica S. Agustinen Amari. Semea christiatubañolén zebila galduric erróres erróre, vicios vicio: Ama gucia cé consejátzea, erreprehendítzea, negárr eguitea arren onnáies. Romará lenic escapatucéquio, guéro Milána: Seguitució Ama onac itsásos arát, zuzendunáies. Milanen asize S. Agustin aditzen S. Ambrosioren predicuac: Ori icusiric Ama óna joancéquio Obispo sanduái errogatzerá co(**n**)vertizézon semea onerá: sanduac eguitenzue bere eguin álas predicus, conversácios, arrácios, orácios: sandac segui otói ta otói, negárr ta negárr. Alacobátes erráncio S. Ambrosioc, Andrea, bego Jang(**oico**)arequi, ezi eztá possible gáltzea aláco negarren humea. Cer aguitucé? Ya cebila Augustino confuso alqueturic bere buruas: Cer dá au? erratzenzúe, ignoranteéc arrapatzeunte Ceu-rua, ta gu gueuren letraéqui emén loiean! Cavilacioguebéqui dagó-láic ta librubatequi barátzean aitzendú vozabát, arzázu ta leizázu. Leituric Jang(**oicoar**)en itzac convertitucé, ta bataiátu &. &. &.

## Sermo alter in Dominica Quinta Decima post Pentecostem

*De vitâ hominis super terram.*  
Ecce defunctus efferebatur. Luc. 7.

Contatzendá egúngo Evang(**elio**)an nola zoeielaic Jesus & (ut in praecedenti) Ô il fortunósoa, opátuas videan aláco Medicu div(**i-no**)a! Ilac carrican significatzendú becatári déna aguérrian: Obiaráco videac oraico vicitza: Atáutac gorpútza, non dagon ilic arima: Eramanzáleac bere passióneac, lagún gaichstoac, eta Deabruac. Ama Eliza: Alargún, cerén ildióten Jesus bere Esposo div(**ino**)a. Christioac hume: Guciác maite tú, ta nigárr itendú iltzen edo gal-tzenzaiónas. Onen fortúna dago atradáquion vidéra Jesus: ezperén, seculaco gáldua dá, ezi bereganic niór eztaique parátu gra(**ci**)an, edo viztu, yago ezi ila. Miseric(**ordi**)as ellegatzendá Jesus naidueláic: Atauta uquitzea dá uquitzea biótza contriciosco dolores, baitaré gorpútza aguián gaitzes, oñacees, escarm(**en**)tues, ezi aláco anitz dotoz Jang(**oicoar**)en escutic becátuen casos, arima salvatunáies. Jai-quizaite ila, errátea, dá emátea convertitzeco gra(**ci**)a. Jartzea ura dá parátzea acorduan: mintzátzea confessátzea. Orra nola milagrogárrren guisa itenduén Jang(**oico**)ac viztean arima. Onen viagea, peli-groac, iltze ta vizte-modua goácen pintátus. Bigu gra(**ci**)a, Ama Santíssima<sup>1</sup>. Ave M(**ari**)a.

Certaco jaiodá Guizona? Certara etorrigará mundura? Jaio ta etorrigára ezauncecó, amatzeco, ta zervitzatzeco Jang(**oico**)a vici-góntan, ta gozatzeco vicitza seculácoan. Gure azquen fina dá Jang(**oico**)a icústea ta gozátzea bere glorian: Ortáco medioac ezauntzea, amátzea, zervitzátzea múnduan. Berás ezgaude emén egótes: au dá viagebát; múga dá eternid(**ade**)a. An Errégue glorióso izambeargá-ra, óngui izatecós; ezperén, erre beticós. Emen eguinarén ariorá iza-

<sup>1</sup> SSma eta laburgailua.

nendá ángo. Berás zori onean jaioa dá sollic ura, norc ere ezauncen, amátzen, ta zervitzácenduén Jang(**oico**)a emén, gozátzeco án. Fedeas ezauncen, carid(**ade**)as amátzen, vicimodu onas zervitzatzendá. Icuságun orái passatzendéna videgóntan.

Jaio ta fite astenda negárres aurra, calamid(**ad**)e esperatzendio-ténen Profeta becála, dió sandubatec. Gorputzarén aldétic trabáju, neque, eritasun, laceria, naigabeen tropadabát, ta postrean eriótzea: Arimaren aldetic peligro, galvide, cebo, ta tentácioen berce tropadabát, eta gañetic arrichscoa seculaco salvacioarén edo condenacioarén. Guerra dá guizonarén vicitza lúrrean, dió Job sanduac. Bi vanda edo vandra pintatzentú S. Ygn(**aci**)oc. Batean dá Generál Jesus; aldácan doáie M(**ari**)a Santissima<sup>2</sup>; atzétic sanduac ta sandac, guizaguendearén florea.

*114at.*

Berce vandéran Generala da Lucifer, atzétic Deabruen ta gaichstoen tropa. Batarén ta bercearén vandéran baratubeárda jaió dena mundúra. Convidatzendú Jesus onac eguiaz prometitus án gloria immensobát, manátus emén bere mandam(**en**)tuen cumplitzea, trabaju puscatobát<sup>3</sup>, garaitzeco passióneac, baña berarén laguntza ta consolacioéqui. Ama Virg(**ina**)c deitzendú amorósa; Ainguiruec eta sánduec ere bai, atóz atóz guréqui, beticos izainzára óngui. Utzi utzi gaichstoen farrasqueriac. Luciferec berce aldetic convidatzendú guezúrres: guerócoa ichsíl álcha, ez aipátzen ere; oraicoa bai, cúmpli passióneac, dió, vici árró lázo nola náí, vici goápoa. Ceintará emanotedá persona? Maite duéna Jang(**oico**)a; eztiót aimbérce: Maite duéna bere burúa, Jesusen vandéran lichstatucodá S. Pedroréqui dióla, *orréqui, Jauna, prest nago joáterá cárcel, ta eriotzerá. Bearbada ere ilnádien orren compañian<sup>4</sup>, eztutucatúco.* Baña fede guti duéna, ta Jang(**oicoar**)en amóre guti beldurrdaique utzidáien galtzerá engañaturic etsaiarén convítas. Vici aisa gustósoa, dió, orrá ezti-idúria, baña venéno daráma: cúmpli passióneac; ceboa orrá, baña alchatzendú há-mua. Guero icusiric aimbérce génde nola doáien videgontáic, ô cein aisadén joátea vide beras, atzenduric Jang(**oico**)as, guerochoas, &

Balétorr ilasguéros vizturic norbáit berce mundutic, icasiric ángo berri, arc báí seguilezáque Jesusen vandéna constantequí, uste dút.

<sup>2</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>3</sup> *puscatobát* ipintzen du, —t— bat bakarrik erabiltzen duela eta marratxoric ez duela kokatzen gainean.

<sup>4</sup> *compañia* eta marratxo bat -a gainean.

Eguia dá, gure Generála Cerútíc jautsicéna eztéla descuidátzen, desengañatzecó gucióc, adiarácís eguietafedeac errevelatutuénac Elizai, parátus bere Ministroac, doctrina, sacram(en)tuac, ta bearrden gucia. *Et quare moriemini, domus Israel?* Eta cergátíc utzibearzaráte iltzera, ta galtzerá, Jang(oicoar)en echécoac? Eguia dá, Deabuac<sup>5</sup> ere paraturic dauzquiela nonnái láquioac, eta sáreac, baitire vanid(ad)e, divérsio, ocasio, ta céboac. Baña contra ere dá éguia, dauzquiéla Jesus onac disponituric oneráco ceboac, predicuac, Elizaco funcióneac, Errosarioac, sacram(en)tuac & ta gucién gañetic bere Magest(ade)a erreálqui presente aldarécoan gure erregalatzecó, consolatzecó, amorostecó, ontzecó & *et quare moriemini?* Eta cergátíc utzibearzaráte galtzerá? Eguia dá Deábruac bereéi pintatzen-

## 115

tiotéla anitz alegria, gústo, ta gauza, baña falsuqui. Eguiáz Jesus ónac ez pintátzen, bai ematentú gusto ta alegria sanoac. Cer gustoa conciéncia onaréna! Cer alegria gozo gozóa esperanzaréna, maite-nauéla ni Jang(oicoa)c, eta nic Jang(oico)a! ellegatuconauéla icustérá bere aurpeguia, M(ari)a Santissima<sup>6</sup> & *Et quare moriemini?* Gure Jaunac partitzentú estadoac, ta vocacioac, nori cer záion convéni, au Matrimoniocó, au Erreligioso, au Sacerd(ot)e & yá cer achéquia daique átra? *Et quare moriemini?* Jauna, órdea anitz inclináció gaichstaqueriará, bulcazále anitz, ta erórceco ez anitz beárr, asqui deláic consentitzea pensam(en)tubátean. Bai, baña niorc ezin oblíga, naiezpadúgu, Jang(oico)a lagúntzen; cergatic eztuzie innái indárr pichscabát, ez galceagátíc? Cergátíc nauzie il arima? *Et quare moriemini?*

Icuságun nola ilcendén. Astendá chipizututíc medianoquí: guero aitus ta icúsís astendá lazátzen, presumitzen, ausártzen: guero admitticen gogoan gaizquiac, eta secrétoan. Ilda arima bere gámbaran. Guero chsorátus ta itsútus passioneéqui, ta exemplu gaichstoéqui astendá ajolagutitzen, gaizqui errateco edo eguitecó aguérrian ere. Orrá gure ila carrícan, yá damáte. Nora? Orcitzerá costúmbre gaichstoarén óbian. Óntan gogortzenbáda, yá ila orciric ta urrintzen asiric dágo: infernu-urritin dú. Norc curátu ilgáu? Niore ez munducoetáic, bai Medicu div(ino)c Cerutic etórriac, Jesus salvazáleac. Nola? Uquitus atáuta, au dá, edo heritus gorpútza, edo biótza las-

<sup>5</sup> Honela dio *Deabuac*, eta ez *Deabruac*.

<sup>6</sup> SS.<sup>a</sup> ipintzen du.

timátus. Gueldiarácis ermanzáleac<sup>7</sup>, au dá, sujetátus passióneac: oiubát eguines, au dá acorriarácis ila. Jarcendá guero examinátzen ta pizátzen bere gaizquia, *et coepit loqui*, berla mintzatzendá confes-sátus óngui. Alegracendá Ama Eliza: guciéc gure Jaunái esquérr milla, ta laudárió milla duén piedadeas ta potestádeas, salvatzecó becatáriac. Contatzendá ladron famatubátes deitzencénas David, (Parra p. 3. pl. 15 paenit.) biotza uqituríc Jang(**oicoar**)en escuas joancéla Conv(**en**)tubatéra, ta eguincela Monge, ta gucién exémpu penit(**enci**)an & Dembóra puscabáten burúan aparecituric Aingui-rubátec erra(**n**)cio, David, zure becátuac dire barcátuac; señaletán emendic alcína inentúzu milágroac Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as. Arc errespond(**atuci**)o, ezdezáquet sinésta, aimbérce becátu ain dembora gutis barcatutidála. Aing(**uiru**)ac, bada fedefaltagórren penatán guelditucozára mútu. Arc & Solam(**ent**)e laudatzecó Jang(**oico**)a mintzo, gañar(**aco**)an mutu &. &.

---

<sup>7</sup> *ermanzáleac* dio, eta ez *eramanzáleac*.



## Sermo in Dominica Sexta Decima post Pentecostem

*De spirituali hydropisi.*

Ecce homo quidam hydropicus erat ante illum. Luc. 14.

Egungo Evang(**elio**)an dió, sartucéla Jesus Fariseobáten échean, ta hydropicobát cególa alcínean, ta Fariseoac beira cer inenzuén. Larumbáta cé, Judíoen jaiegúna. Jesus ónac galdeguincióte, zillégui dá curácea larumbátean? Ayec ichsil. Baña Jaun div(**ino**)c istánte sendaturic bializué. Eta erra(**n**)cióte ayéi, ceñec zuétaic, eroralé-quo ástoa edo idia butzubátean, utzilezáque atragábe larumbátean? Éta etzióquete errespónnda ontará. Alabér convit zirenéi aditzera emánes, nola zebiltzan goragoco lécuá náies, eracutsicióte, ez lembic(**ic**)o baicic azquén lécuán bearrdela jarri, ezdézan Nausiac jau-tsiaráci beiti, baicic íganaráci goiti: Eta bucatzendú bere itz andiguebéqui, Goratzendéna izanendá humillátua, ta humillatzend(**en**)a gorátua. Orrá Evang(**elio**)a. Goácen átras doctrina gueuren prochu-táco. Lenic salutátus M(**ari**)a. Ave M(**ari**)a. =

Jesus onabaitan barrónde beira zeude aurquitunáies tacharenbát, ta aurquitu zuténa cé jaiegúnean sendatzentuéla ériac; Beira cer tácha! Guizongáu, cióte, eztá Jang(**oicoar**)én aldétic, ezpaititu goardátzen jaiac. Au cióte berén becátu ándies ajolaic etzuténec Fariséo presumituec, sandu fálsuec, hypocrita fiñec. Baña Jesus ónac dió, zillégui dá óngui eguitea jaiegúnean ere: ta ala sendatuzué hydropicogúra istánte, ta naizue sendátu ayen arimen hydropesia, ta ezin logratuzué cembaitetán, berén faltas. Gaitz gaichstoa aguitz dá arimarén hydropesiagáu: *sorcendá virtutegábe, ta ezaumentu-faltatic<sup>1</sup>; galcendú ón déna ére; eta estorvatzendú<sup>2</sup> erremedioa ére*. Cer dá bada arimarén hydropesia? Hypocresia, subérvia, presúnciao, an-tústea, aundináia. Hydropesia bát dá ures betetzendeláic larruain

<sup>1</sup> ezaumtu eta laburgailua.

<sup>2</sup> estorvatzedú eta marratxo bat -e- gainean.

betean, bércea aices deicenduténa timpanica, ceren tambóreain guisa itenbaitu soñua lárruac uquitzearéqui. Onen guisará dá arimarén hydropesia subérvo vano presumituéna. Guizón andiac ustedúte diréla: bai dire aundi audituac baña aices, tambóre edo atabalarén guisa, gucia asóts, susta(n)ciaric gabe, guciá utsgúne beteric flatos; virtuteric ez, juicioric ez. Beira.

## 116

Beñic bein fede, virtúte, ta juicio ona duénac ezaundu ta confesatuodú eztuéla cértas presumítu ta antustétu deus ere, bai ánitz, cértas humillátu. Ezperén errespónða argum(en)tugóni: Dúzu edo eztúzu prénda ta gauza oníc? Ezparimbauzu, eroquería dá presumitzea eztuzúnas: Barimbauzu, dá Jang(oicoa)c emánic, berceréna dá, zorr dá: berás eztaique gloriátu órtas ere, ezi nor gloriadaique bercerén gauzes ta bere zórres, simple ezpáda? Jang(oico)ai esquérrac emán, Jang(oico)ai gloria; ezperén, itendiózu ladronquería. Dió Jang(oicoa)c, *nere gloria eztiót níori emánen*. Cer dió vánoac; *ezpadida emáten ere, nic artucodút neretáco*. Dá sandubátec errána vánoen contra. S. Bern(ardo), s. 3 nat. D. Eta eztá ori ladronquería? Eta cer irabaciodú? aicea, ilceco hydropico.

Subérvia comparatendá aicearéqui, dió S. Buenav(entura)c (diet. sal. tit. 1. c. 3) irur motivos; lembic(ico)a, cerén aiceac itzalcenduén árguia; ala subérviac ezaum(en)tua: bigarr(en)a, cerén aiceac secatzenduén intza; alá suberviac gra(ci)a: irug(arren)a, cerén aiceac goratzenduén autsa ta errautsa; alá suberviac guizóna, ezpaita berkeric, baicic autsa ta errautsa. Laurg(arren)a diót nic, cerén aiceac arroitu yago itenduén gámbara útsean; alá subérviac yago dominatzendú calabéra uts zenzugábean. Eztaique izán váno ta subérvo ezténa zenzugábe fátuó, dió S. Juan Chrys(ostomo)c (h. 39 ad pop.) Bada ain guti daique izán virtuóso ona déna subervo vanoa. Dió S. Agust(ine)c, (s. 53. de v. D.) *Naibazára aurquitu óna, beira arima-barnerá. Orr icustenbauzu flato edo andidúra, au dén lécuán utsgúne dá; utsgúne nón aurquitzenduén Deabruac, bere cáfia án itendú*. Alabér dá precisso váno déna ez izátea guizón provechúscoa ta gauza anditáco (Chrysost(omo) h. 29. ep. 2. Corinth) baicic guti edo deustáco. Comparatendú S. Buenav(entura)c (ib) quearéqui, cembatenás gorágo igaten, yago deseguiten ta deustaratenbaita: Oroát vanoa: Ta agótz ta ilaunaréqui, baitámáte urac ta aiceac noraná: vanoa oroát munduarén opinióneac: Comparátzen ere dú espuma edo cascarabil urean itendirenéqui, berla eguin, bérta deseguin: oroát vanoa, laudatzenbaute, huéco, despreciatzenbaute, muquérr.

Alabér armirmauaréqui, baitabila ingúr ingúr uffanataric eguiten sáreac arrapátzeco úliac, ta elchoac. Alabér S. Greg(**ori**)oc bichi lo-reéqui earrturic lastérr, istúpa-chindiaréqui, laña ta alacoéqui. (1. 17 mor. c. 5.) Orrá nola dén vanid(**ade**)a...

*116at.*

Orái cer iténduen. Corrompítzen edo galtzendú ón déna ére. Miserien miseria dá eguitea gauzac ta necátzea vanidádes; aicearen eician ibiltzea vici gucian, ta póstrean éscuac utsic. Pizatudúte balanzan, erra(**n**)cio Danielec Baltasar Erregueai, ta aurquitudá arín úts. Baiqui, ezin iragáz<sup>3</sup> gaizquíequi; onquíequi beárr irabáci<sup>4</sup>; ta ebéc vanid(**adear**)en aiceac eramán: ceri euchicodá? Erranenzáio, Eztúzu in Jang(**oico**)agatic, baicic vanid(**ad**)es; tira zeure alocairua, aicea. Goácen pizátus: aimbérce procéssio, fésta, errosário, cánta & baña mamiricgábe; mámia dá Jang(**oicoar**)en amórea: casquilla dá gañetic aguéri déna iduriasteagátic eguina: cerc chsandióte susta(**n**)cia, edo mámia? Vanidad(**ear**)en árrac. Ola, casquill útses nauzu cumplitu Jang(**oico**)aréqui? Cerén beárr dá Jang(**oico**)a? Cértaco beártu gure errézu ta gauzac? Baña gure borondat(**ear**)en finéza naidu; itendugúna indezágun berarén amóres. Itenbauzu munduarén amóres, zoáz ordic, erraindizu Jang(**oicoa**)c, pagadezázula mu(**n**)duac.

Noiz arteo lurean sarturic biotzóc? Oiuitendígu Davidec, (ps. 4) Cergátic amatzendúzie vanid(**ade**)a, ta billátzen guezúrra? Guezúrra dago iduritzean gañetic ón, ta barnetic gaizqui: accióne, pausu, errézu, ta alácoac ón idúri, baña inténcoia macúrr, biótza váno: Oncolóre, barnetic ustél. Baña guezúrra naidu, guezúrras inenzáio págu. Oná claro. Vanoac eztú eguin Jang(**oico**)agátic: eztú beras arcecoric Jang(**oico**)agánic. Eguindu munduarén honragátic: pagadezóla múnduac. Berlachsé pagatzendió. Nola? guezúrres; Icusiric dabilála honranáies, itendio irri ta desprécio: laudario náí, ta escárnio itzúli: ceren ezi hónra ta laudáριοa seguitzenzáio atzetíc, naieztenái, igues doaienai; contra escapace(**n**)záio arren átzean dabilanáí. Orrá cer irabácia atrazenduén itenduénac vanid(**ad**)es: gáldu lána ta galdu gauza, olloarén guisa. Cer dú ollogonec aimbérce carácas? Icuságun, dió emastéqui. Cer da? arrautze charrbát: déna déla, ermatendú, ta gabe guelditzendá olloa bere caracaéqui: Eta aguían sentitu ach-

<sup>3</sup> *iragáz* dio hemen, eta ez *irabáz*.

<sup>4</sup> Orain *irabáci* dago.

sáriac, ta eramatendú béra ére. Alá vánoac guciá iteunténac vanid(ad)es, dén ón púchsca gáldu, alférr necátu, ta aguián infernuco achsáriac azquenéco arrapátu, ezi subérvoen General becála aiéc naitu.

## 117

Gaichstoén duéna dá estorvátzea erremedioéi. Vánoac beñic bein eztú ezauntzen bere búrua. Ona ustedú yago duén baño: éri dagoláic, contacendá sáno: eri contacenbáda ere, beti gutiágo dén baño. Norc curátu alácoa? Eztú sufritunái, errandézon itzic niórc; eta niór eztá tréve corregitzerá. Jang(oicoa)c ere escaseatzentió bere auxilioac ta gra(ci)ac, ezi subervoeidióte oposicio, *Deus superbis resistit*. Alá eztá milagro erórcea miserablequi vanoa, buruco bahidoa ematendiónai becála. Especialqui luxuriarén desónrean erórcea déla presumituen desgra(ci)a comunquiró, dió S. Greg(orio)c (ap. Claus p. 2. cath. c. 13) Eta cierto castidadearén guárdia dá humild(ade)a, ta humiléi *Jangoicoac*<sup>5</sup> ematendióte<sup>6</sup> *gracia*<sup>7</sup> (1 Petr. 5) Gaitz gucién erremedioa dúgu confessioco sacram(en)tuan, humillátus acusátzera gueuren buruoc gueuren ágos. Ortáco cémbat estórvu paratzendú subérviac? Dio ederrqui S. Agust(ine)c comparácios, (s. 54 de verb. D.) *Suberviarén hydropesias aundituric ezin pássa atári mearretic. Clamatzendú Jesus onac, sarzaiste atári mearretic. Nai sartu, ta ezin sartu: estorvatzendió andidúrac. Eta cembatenás aundiágo, gutiágo passadaique. Berás chipitubearrco aundidúra, ártus humildadearén edári amárgoa. Bércé comparaciobátes ere dió au beraú. (ap. cl. p. 3. cat. c. 98 = 99.) Paraisoco atária dá apál: naibadu sártu, apál búrua: ezperén búrua tiéssó, golpatucodá ta erórico guibelego aldéra, ta sártu ez. Biz ásqui errána Jesu Chr(ist)oc: Goratzendéna izanenda humillátua, ta humillatzendéna gorátua. Apaldutú, dió M(ari)a Santíssimac<sup>8</sup>, apaldutú poderósoac beren assentutic, ta goratutú humilac. Versogáu naiomenzue borraráci Joviniano Emperadoreac: baña Jang(oico)ac emendatuzué burla piadosobatéqui. Sartucé bein Emperad(ore)a bañubatean bañatzerá, utziric bere trésená erreálac, eta Guardiá ac atáris campotíc. Bitárteo Ainguirubát arturic arren idúria ta trésenac atráce, ta acompañaturic Guárdies joánce palaciorá, gu-*

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>ac</sup> dago.

<sup>6</sup> *ematediote* eta marratxo bat -e- gainean.

<sup>7</sup> *graa* eta laburgailua.

<sup>8</sup> *SS.*<sup>ac</sup> dago.

ciéc zeucátela Emperadoretáco. Emperadore p(ro)prioa atraceláic, ez aurquituríc bere tresenaic, ta ez niór, arrituríc aurquituzé etzequiéla cer eguín. Jaintsiric trésena pobrebatzuc joáncé palaciorát, erránes nor cén. Baña irris jocatuzúte simpletáco. Aliquetá óngui escarm(en)tatuóndoan itzulición árteo bere imperioa, manaturic goarceiela suberviatic & (ap. Claus p. 3 cath. c. 80)

## Sermo alter in eâdem Dominica Sexta Decima post Pentecostem

*De charitate, invidia, ebrietate, superbia.*  
Ecce homo quidam hydropicus & Luc. 14.

Contatzendu Egungo Evang(**elio**)ac ut in praecedenti usque ad Ave Maria. Evangeliogóntan icusgárrri dá lenic Jesus onarén ón onéguia, joátean bere etsái hypocriten echeétara ere, tratátzean ain mánsó, humil, affáble amólsu: erreprehénsioac ére ain amánte báteo ta gráve sínésco: sendatunáies arímac, erránes éguíac, ez lisongeátus falsedadean. Eracustenzaigu nola beargáren izán elcarréqui. Niór ez gaizétsi: guciác onétsi: Niori ez agravioríc, ez gaizquiríc eguin, ta dezaquégun guciéi eguín ongui cértan dezaquégun. Bitárteo adisquide beréchs guti edo bateréz, diót, gucis fiátzeco diña. Gaizquiac aborre-citu adisquideétan ére, ez losénchus guritu: baña gaichstoac berac amátu, lastimátus, ta emendátus gure aleguiñas. Bi itzes: Onétsi guciác Jang(**oico**)agátic, ta Jangoicoaindáco<sup>1</sup>. Munducóiec iteunte cónta. Amistánza batzúc Jang(**oicoar**)en offensatán, ta berén calte-tán, venenátuac díre: ebétas eztiót deus orái: Bercebátzuc, Jangoi-coagátic ez, eztáre Jangoicoandáco<sup>2</sup>, baicic irabaciagátic, edo bere motivo, ta fin lurrécoes, eztá cer fiátu, ain fite etsái, ain fite adisquide, aldátus nola aiceac, ez estíma laurcórró, ezpaitúte deus válío. Gaitzetsitsea<sup>3</sup> Deabruarén confórme; onetsitzea ez Jang(**oicoar**)en aténcios: ártas gáldu, óntan ez irabáci: cértaco túzu aláco amistán-zac? Biz Jang(**oico**)a erdian beti, orréc dú valío.

Icusgárrri ere dá Fariseogáien biotz chárta, ta becaitza Jaun ama-bleare(**n**) cónta. Invidiac itentú béguíac gaichsto; alá nola vidro azularen medios beirátus, guciá dirúdien azul, vérdeas vérde, beltzas

<sup>1</sup> *Jangoicoaindáco* dio hemen. *Ik.* hurrengo oharpena.

<sup>2</sup> Orain *Jangoicoandaco* dio. *Ik.* aurrekoa.

<sup>3</sup> Hola dago *Gaitzetsitsea*; baina *ik.* hiru hitz geroago *onetsitzea*.

beltz, alá apassionatuei gaizqui idurizaióte bercearén óna ere berén passionearén cáso. Óngui errána dá; gure tzacúrrac mutúrta lúce, bera becála berceac úste. Goárt, ez imíta Fariseoac, bai Jesus ona; beraréqui consolátus, dígutelaic oposicio malam(en)te, eta pagátus ta garaitus onaréqui gaitza.

Icusgárrri ere dá eri paratucioténa alcinean; cé hydropico. Hydropesiagártan daique enténda gularen vicioa, edo triposquería, especialqui edátean, baita gaitz ta miséria miserableenetáic bat. Ardoa criatuzué Jang(oicoa)c, ematecó indárr gorpútzai, alaitásun ta alegría biótzai. Contra ite(n)-

## 118

dú vicioac sobra edanarácis, ona gaitz itzulcendú, erbáldus, ta zarrbaildus gorpútzai; turbátus búrua; gutitus edo quéndus guizónac duen obéna, baita arrácioa edo ezaum(en)tua; por consig(uent)e animalétus ta inutildus guizóna: guero atzétic dañátus ondasúnac, osasúna, hónra, ta gucía. Errateunte ongui berás guizón ordias, galduric dágo. Alá paradaiquéla bere éscus guizonbát? Ó ardo madaricátua! diote emastéqui irátuec. Gaizqui errána; ezi ori ongui beiraturic dá emátea Jang(oicoar)en contra, ceren ezi Jang(oico)a dá criatuduéna árdoa, ta eguindu ongui criátzean gure onetán; baña viciodúnac itendu gaizqui, usátzean gaizqui bere caltetán: *Bolsarén caltetán*, cerén guciéc tripari pagatubeardioguláic pecha bearradiña vicicéco, tripósoa itendá doble pecheró bere culpas, pecha doble pagatzendú naidueláic, eta betetzécós tripa gaichstoa, ústus doáie bolsa. Echeco *governuaren caltetán*, ceren ezi nola échea govérna eztaquienac governátzen bere burua? Hónra ta *creditaren*<sup>4</sup> *caltétán*, ceren ezi norc estíma, nor fia ardorá emánas? Murmurátu bai ta irri eguin arren cóstus. Gustoarén ta *osasarén caltetán*, ceren ezi gusto-iduri duén gura, chinchurritic passátzean, pagacendú asco desgústo, burucomín, tripacomín, ta ondorecoen cóstus. *Indarren, ta colore onaren caltetán*, ceren ezi ubél ilúntzendire, ta languiátzen, baitaré alfértzen útzi utziá orr compón ajolaicgábe deustas. *Viciaren caltetán* ere, cerén ezi laburcendá; ta árriac ere auchstendirélaic emánes emánes, gorpuzarén órma lurréscóa cémbat obequi joainda urrátus? Azquénea(n) *arimarén caltetán*, cerén ezi lissiátuac árdoan cer ajóla dú conciéncias? Noiz eta nola confessatzendá? Comunquiró Christio faldérrac itendire. Gaichstoéna dá nequez baitaique erremedia gaitz-

---

<sup>4</sup> Hola dago *creditaren*, eta ez *creditoaren* edo holakoren bat.

gáu, ta milágras becála; yagotán aguitzendá gueroágo ta gaichstoágo. Ay goarcen eztenas mugónez! Jang(oico)ac, eta Jesu Chr(ist)oc libragaitzala hydropesiaguisagóntaic.

Jauna, nic políqui edatendút, alegratuchseárteo, baña ez búrua galceco diña. Alá deláic eguiáz, eztá mortále beréz. Baña errepára ezi estadogórtan icúsia edo chsaquina barimbáda gueienetán itzulcendéla colerico, ausárt, oiulári, emancári, ta alá, déla yá mortále. Oroát itenbáda alquegábe desordenátu mintzátzean, accióne, ta indecenciaetán. Oroát orren cásos, aguitzenbadire desobediencia, desgarái, desórden, ta aláco bearreztén.

*118at.*

Oh! Anitz aldetára bearda beirátu óntan; baña gordegabeéc ez beirátzen. Ardoac itentu milagro-guisabatzuc: Cer milágro? Humílac itentu subérvo, alquetiac alquegábe, atténtoac desaténto, ichsilac platicári, oiulári & Eztút leitu sanduétan aláco milagroríc. Eta us-tedút, cembáit bacóchsfto lirázquela ónac ta sánduac becála, ezpalíre cebátzen árdogan. Baña cebatuasgúeros, eztaique nióres fia bátean ere, cerén ezi, eztáquit nola, itzultzendirélaic deustaco becála, onean diót, gaitzeráco dire ásqui ta sobra. Cein officiotáco dá gauza persóna órdia? Ez Governarítáco, ez Apeztáco, ez plumaindáco, ez officiále, ez Necazári, ez ezcóndu, ez nirábe, ez errezu, ez devócio, ez lán, ez deustáco; bai órdea asco gaichstaqueriatáco, ezpálitz ere ber-ceric, baicic dañu, quiméra, ta maldicio seguitze(n)dirénac. Milla escarm(en)tuetáic bat aizágun: Contatzendú Claus Predic(ari)ac<sup>5</sup> (p. 3 cath. c. 90) Cela guizonbát áste gucíco lánac gastatzencituéna jai egúnean árho ta jócuán; bitárteo egunóro báru ándre póbrea échean. Consejacenció onéc amolsuquí arrácio ta módu ónes, baña etzé prochuric. Azquénean erráncio, enegátic ezpáda ere, sabelean damáten humegonengátic acorrizaite, ta erretirátu échera. Maldiciocá asicé ura, ta jaiquiric cégon lecutic emancio anitz bofetáda ta ostíco pobreái; eta postrean botazué órdu gaichstoan, goáie madaricatuói barnean daráman Deabrugorréqui. Andre miserablea joánce negarres échera: ematendióte somiñec; erditzendá; ematendu arguirá, cer? Ez aurrbát, baicic monstruo lotsagarribát, figura infernucobát. Cer lotsam(en)tura cén echegártan, cer lam(en)tuac, eta arroitua carrícan, norc explica? Bitarteo ellegatucé senárta; aituric agúitua, berla maldiciocá Andreain co(n)tra, arc zuéla cúlpa; ta bazoéie gol-

<sup>5</sup> *Predicári* irakurtzen da 155at. orrialdean, paragrafo 2, lerro 19h.



patzerá berriró. Baña saltatucéquio burura mostroogúra, ta serpien-  
tearen buztánas inguraturic lepoa, órtzes ta atzapárres án erchitu,  
sofocátu, ta acabatuzué, odóla cerióla márroas. Andic lastérr iltze  
Andrea ere pesadu(**m**)bres, ta lotsam(**en**)turas: berla mostroogúra  
ere báí. Jangoicoac goardagaitzála vicio gucietáic, baña especialqui  
ordiqueriatic. Amen. = Item exemplum de eo, qui è tribus Homicidio,  
Adulterio, ebrietate hanc elegit, et omnia patravit. Ib. c. 87 = 88.

## Sermo in Dominica Septima Decima post Pentecostem

*Diligere Deum quomodo maximum et primum mandatum.*

Hoc est Maximum et primum mandatum. Math. 22.

Fariseoac ellegatucíre Jesusengána, dá Evang(elio)a, eta aietáic Doctorebátec, galdeguincio tentátus, Maestru Jauna, cein dá mandam(en)tu andía léguean? Errespondatuzué Jesus ónac: Amazázu zeure Jang(oic)o Jauna zeure biótz gucias, arima gucias, ta gogo gucias. Au dá mandam(en)tu andiéna ta lembic(ico)a. Baña onen guisa berécoa dá bigarr(en)a. Amazázu zeure proximoa zeure burua becála. Bi mandam(en)tuebetará<sup>1</sup> erreducitzendá légueac ta Profetec dióten gucia. Eta bilduric zeuden Fariseoéi galdeguincióte Jesus ónac, Cer idurizaize Christos? Noren Seme dá? Ayéc, Daviden Seme. Jaun div(ino)a orduán, Nola bada Davidec deicendu bere Jaun? *Dixit Dominus Domino meo*. Bere Jaun barimbada, nola dá bere Seme? Ezin errespondatuzúte ontára ayéc. Baña Jang(oico)a Elizái, ta Elizac guri eracutsidigu, déla Jesuchr(ist)o Daviden Jaun ta Seme; Jang(oic)o ta guizón; Jang(oico)aganic Ja(n)goico, ta Davidengánic edo generaciotic guizón concebitu ta jaiocéna M(ari)a Virginagánic; ta ilasguéros erresucitatu ta iganic Ceruétara dagóna jarriric Aita etern(oar)en escuieco áldean. Orái cergatic oté Jesus onac galdeguinic lembic(ic)o mandam(en)tuas solam(en)te, errespondatzendú ártas, ta arri dachicónas, bigarrénas? Mostratzecó, ezpáda amátzen proximoa, eztaiquela áma Jang(oico)a. Bat dá carid(ade)a, baña bi mandam(en)tu ditu, bat Jang(oicoar)en alde, bercea proximoen alde. Amorebát dá bi egál, edo bi besoéqui; batéqui besarcatzendú Jang(oico)a, bercearéqui proximoac. Dá nola plantabát bi arramaéqui, baña biac zainbatetic, au dá Jang(oico)a: Jang(oico)a amatzendú beragátic, proximoa Jang(oico)agátic: Jang(oico)a lén,

<sup>1</sup> *ebetará* dio, eta ez *gubetará*.

proximoa urbilén: Jang(**oico**)a gucien gañetíc, proximoa Jang(**oico-ar**)en petíc: Jang(**oico**)a gucién princ(**ipi**)o ta fin becála, proximoa gure quide ta anáia becála: Jang(**oico**)a gueuren buruóc baño yago, ta algucía ezin yagos, proximoa gueuren buruen guisará, ez yago: Jang(**oicoar**)en amátzean ezta neurric parátubeárr, baicic biotz, arima, intención, entraña, ta indarr guciés inála: proximoen amórean neurria gueuren ganic, nola naidugun indezaten guréqui, alá guc eguin ayéqui. Baña izatecós carid(**ad**)e, beárda amátu Jang(**oico**)agá-

119at.

tic, ezperén ezta carid(**ad**)e. Berás urgónen iturr-ama dá Jang(**oico-ar**)en amácea. Icuságun nola dén au mandam(**en**)tu andiéna ta lembic(**ico**)a. Amore ederrarén Ama ederra M(**ari**)a, amore-billa eldugárra, ta gra(**ci**)a. Ave M(**ari**)a.

Amazázu zeure Jang(**oico**)a biótz, arima, gógo, entraña, ta indárr guciés, dá mandam(**en**)tu lembic(**ico**)a ta andiéna *dignidádean, obligácioan, valioan edo próchuan, grácian, felicitádean, suavidadéan, indárртеan*<sup>2</sup>, *aisúra, ta perfeccio gucian*. Goácen icúsis bat banáca. Dá 1.<sup>o</sup> ta andiéna dignidádean, ceren ezi carid(**ade**)a dá virtúteric andiéna dignid(**ad**)es. *Nunc manent fides & Orái*, dió S. Pabloc, *guel-ditzendire fedea, esperanza*<sup>3</sup>, *caridadea*<sup>4</sup>, *major autem horum est charitas, baña eben Nagúsi dá caridadea*<sup>5</sup>: ala nola metaleetan úrrea, perlaetan diamánteá, loreetan arrósa, elem(**en**)tuetán súa, Ceruetán Emyreoa, Ainguiruetán Serafinac, Sanduetán M(**ari**)a Santissima<sup>6</sup> Erreguina. Carid(**ade**)a dá Ceruráco vide erreála, ceintará datózin berce mandam(**en**)tuen vide aldamenécoac. Au dá Jacoben escale-goragúra<sup>7</sup>, ceñen goieneán dágon Jang(**oico**)a, gradac érdian; emendic Jang(**oico**)a jautsice Jang(**oico**)a guizonengána, ta guizónec igan-beaute Jang(**oico**)agana. Amoreicgábe ezin igán, urrátua dá escaléra<sup>8</sup>. Audá virtúte noble div(**ino**)gúra, unitzenduéna guizonaréqui Jang(**oico**)a, ta Jang(**oico**)aréqui guizóna, itenduéna au Jang(**oico-ar**)en adisquide, aide, ta húme maitea. Au dá escogituen márca be-rechstentuéna achsúriac anchumeetáic, onac gaichstoetáic. Fedea

<sup>2</sup> *indárртеa* eta marratxo bat -a gainean.

<sup>3</sup> *esper.*<sup>o</sup> dio.

<sup>4</sup> *carid.*<sup>o</sup> dio.

<sup>5</sup> *carid.*<sup>o</sup> berriz ere.

<sup>6</sup> *SS.*<sup>o</sup> dago.

<sup>7</sup> *escale* dio. *Ik.* bi-hiru lerro geroago *escaléra*.

<sup>8</sup> *escaléra* hemen.

sollic eztá asqui: esperanza sollic ain guti: gañaráco virtúteac, obra ónac, ta milágroac ere baleude caridadeicgábe, eztíre ásqui: sello erreála dá carid(**ade**)a; onéqui doaiéna salvo dá, passa &

2.<sup>a</sup> Dá lemb(**icic**)o ta andiéna obligácioan, ceren ezi biotz dugunasguéros amacéco, nor beardúgu amátu, ezpáda Jang(**oico**)a? Amáble izátea ta amánte guretáco dá cateabát arrapatenduéna bi aldetáic preso biótza, ta tiratze(**n**)duéna beregána: Joan bada beirátus Cerua ta lurra bárna, goiti beiti ta alde guciétara, otedén baco chic ere ain edérr, ón, perfécto, deseagárri ta amableric aldebat, berce álde ainberce amatzengaituenic, nola Jaungáu? Beira nola dezoquégun pága? Eta esquerrgáitz traidóre chárrac gára, ezpadúgu amátzen siquiéra, ta amatze(**n**)badúgu berceric béra ezi, ta ezpáda beraren amóres. Ah! nola eztúgun amátzen yago.

## 120

3.<sup>a</sup> Dá ere lemb(**icic**)o ta andiéna valioan edo provéchuan guretáco, ezpaitu valio deus guciác amoregoigábe, ta orréqui bai edocéin gauzac. Ori dá pobreén abrásteco maña: ala nola cer emán eztuénac erratenbaitu, emén eztú izánen berce erregaloric, baicic borond(**at**)e ona, alá Jang(**oico**)ai zervitzátzen eztiogú nec anitz, imbeardugúna dá amátu anitz. Obres pobre gara, izangaicen abráts amóres. Urre dá au, ceñéqui urrestatzendiren gañaráco obrac valiacecó. Amóre andiaréqui gutiác ere valiodu anitz; gutiréqui guti; ta gabe bateréz ándiac ere, ila baita, bulto-iduri arimaicgábe: Onarén arima dá amórea. Amóre anitz duéna eztá pobre Jang(**oicoar**)en alcinéco. Urres beteric árca dá arima amóres bétea. Jang(**oico**)a dago arréqui, ezi *Jangoicoa*<sup>9</sup> dá *caridade*<sup>10</sup>, dió S. Juanec, *ta dagóna caridadean*<sup>11</sup>, *dago Jangoicoan*<sup>12</sup>, *ta Jangoicoa*<sup>13</sup> *arrenbaitan*. Amóreac suplicendú faltazaigúna, ta ori dá len lenic billatzenduéna Jang(**oicoac**)c gugánic.

4. Dá ere lemb(**icic**)o ta andiéna gra(**ci**)an edo agrádoan Jang(**oicoar**)en beguiétan, ceren ezi carid(**ade**)a edo dá gra(**ci**)a bera, edo gra(**ci**)aréqui ain unitua, ezi dagóna carid(**ade**)an, gra(**ci**)an dago segurqui. Nauzu chsaquín otezauden gra(**ci**)an? Beira biotz bárnean: aurquitzenbauzu orr badiózula amóre, sinésta Jang(**oico**)ai

<sup>9</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

<sup>10</sup> *carid.*<sup>e</sup> dio.

<sup>11</sup> *cardi.*<sup>am</sup> dago.

<sup>12</sup> *Jang.*<sup>am</sup> dio.

<sup>13</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

zaréla quadráble, ezi berac errána dá, *ego diligentes me diligo*, nic maite tút maite nauténac ni. Amoregói dá señale etorridéla Jang(**oicoar**)en esp(**iri**)tua guregána, ezperén ezquindezaque ama.

5. Dá ere lemb(**icic**)o ta andiéna felicidad(**ade**)an ta dichan, ceren ezi múnduan batec cer yago dezáque deséa? Jang(**oicoa**)c maite ni, nic maite Jang(**oico**)a; cer naidut yago? Cer hónra, cer gózo, cer confiánza vicián, iltzeán, ilondoreán? Alá nola caridadegói eztuéna ezin daiquen salva, alá ori duéna ezin daique condéna. Pensa diongúra Jang(**oicoa**)c, ezi noiznái convertidáien becatária beragána, admititucoduéla gra(**ci**)an barcátus becátuac. (Ezech. 33) Cer dicha ta felicidad(**ade**)a dacárran amátzeac Jang(**oico**)a! Infernutic atrátzea becála Ceruráco.

6. Dá ere lemb(**icico**)a ta andiéna suavidad(**ade**)an edo gustoan, ceren ezi pensátzeac solam(**ent**)e usmátzeac solam(**ent**)e, amátzen otediren elcárr Jang(**oico**)a ta arima, bañatzenbádu gozos biotza, cer izanénda errealqui amátzea elcárr, ta amorearén móstrac emátea? Solam(**en**)te negárr amoréscoac gozoágo dire ezi munduco alegranciaric andiénac. Bada norc explica, norc cónta, norc enténda Jang(**oicoar**)en amoróss<sup>14</sup> dén arimain bárnean passatzendiren erregálo, ta gauza miragárriac? Ó! Jang(**oico**)a suave dá ta gustoso eguiáz! *gustate et videte* & Jang(**oicoar**)en amórea dá al-

120at.

mivar preciósoa dultzatzentioténa bereéi trabáju, penit(**enci**)a, ta martirio andiénac. Dá cordialebát vizcörtzentuéna eriotzeén érdian, saltarásten, cantarásten alegráncias, ta inarásten eroquéria sa(**n**)du milla. Dá unguendu div(**in**)obát sendatzentioténa biótzeco llágac ta tristúrac. Dá árdó generosobát orditzentiuéna zori ónean, ez ajolaic ta memoriaic iteco deustas, ezpáda berén amóre amátuas. Amore dá Jang(**oico**)a Deus charitas.

7. Dá ere lemb(**icic**)o ta andiéna indárrtean, au dá, emáteco arimo, paciencia ta coráge trabajatzecó ta sufritzecó anitz. Cerc inaracióte aimbérce lán miragárrri sanduéli? Amóreac. Cerc utziaráci gogotic emén estimatzendiren ondásun, hónra, gústó, ta gauzac? Amoreac. Cerc joanarací torm(**en**)tuen ta eriotzeén billa? Amóreac. Cergátic guc deus guti eguiten, gutiágo padecitzendúgu Jang(**oico**)agatic, ta dén pichsca ansiaicgábe, alqueturic ta beldurruric eta alá? Amore-faltas, ezi amabaguindez sinqui, sugónec aisa deseguinlezázque agozñogóiec, eta andichsagócoac ere.

---

<sup>14</sup> Hola dago *amoróss*, -ss bikoitza bukaeran.

8. Dá ere lemb(**icic**)o ta andiéna aisúran, ezi aisa edérr dá amátzea Jang(**oico**)a naibadúgu. Badaique izán achéquia, ez barutzéco, ez passacéco anitz penit(**enci**)a, trabáju, ta aláco itendirenac gorpúztas: baña biótza asqui délaic amatzéco, naiz éri, naiz loturic ta ocupaturic gorpútza, naibadúzu amátu, cer achequia daique aléga ez eguitéco? Lanac berac ta nequeac aisatzendire amorearén suaréqui. Éguia dá sugáu eztéla ichequico, ezpadu beretic ematen Jang(**oicoa**)c. Baña eguia ere dá eztióla ucátzen doaquionái ésque.

9. Dá ere lemb(**icic**)o ta andiena perfeccioan, ceren ezi amoregontára erreducitzendá perféccio guzía: quentzentú vicioac, azitzentú virtúteac, sanducendú arima. Cergatic da bat humil? ceren maite duen Jang(**oico**)a, ta innaidion placér. Gárbi ta cásto cergatic? Ceren gorpútza baño yago amatze(**n**)due(**n**) Jang(**oico**)a, ta eztuén agraviatunái. Cergatic du paciéncia, ta miseric(**ordi**)a, onesten contráριοac, eguiten limosnac &? Ceren onestenduén Jang(**oico**)a. En fin carid(**a-d**)egónen ariorá doáie azis santid(**ade**)a: Norc duén yago, ura da sanduágo.

10. Azquenean dá lemb(**icic**)o ta andiéna importáncian, ceren guizonarén azquén fina dá amátzea Jang(**oico**)a. Au dá ón gucién cim(**en**)dua ta coróna. Dá oraico gra(**ci**)arén, ta gueróco gloriarén prénda: ceñen bi egaléqui egacendén Cerúra, ta emén assi ta Ceruan continuatze(**n**)dá amátzen eternid(**ade**)an.. Ama, et fac quod vis. (Aug. tr. 17. = 1 Joan. 4.) Diliges Dominum Deum tuum ex toto &

## Sermo alter in Dominica Septima Decima post Pentecostem

*Motiva et modus diligendi Deum, et proximum.*

Hoc est primum mandatum, secundum autem simile. Math. 22.

Egúngo Evang(elio)an chsaquintsubatec galdeturíc Jesus onái, cein dén mandam(en)tu ándia léguean, errespondatuzué bere Mag(estadea)c, *Onétsi zeure Jangoicoa<sup>1</sup> biotz gucias, arima gucias, intêncio ta sintásun gucias*: Au dá mandam(en)tu lenbic(ico)a ta andiéna. Bigarr(en)a da oni dachicóna ta iduritua, *Onétsi zeure proximoa zeure burua becála*. Bi mandam(en)tuguebetan dago legue ta Profeta gucia. Baña notagarri dá cergátic errespondatuzuén bies, galdeguinic bátes solam(en)te? Mostracecó eztaiquela onétsi Jang(oico)a onetsigábe proximoa. Eta bada Jesus ónac bi mandam(en)tuoc juntatucítue, guc ere inzágun guisa berea(n), eracútsis motivoac ta modua onestecó Jang(oico)a ta proximoa. Gra(ci)a, M(ari)a. Ave M(ari)a.

Motivoa onestecó Jang(oico)a da Jang(oico)a bera, ta nola Jang(oico)an perfeccioac baitire infinito ezin contaála, infin(it)o ere ta ezin contaála dire motivoac onestecó bere Magest(ade)a. Baña bi iturrietára daizque labúrtu, edo bildu: 1.<sup>a</sup> Ain on amáblea izátea Jang(oico)a berebaitan; 2.<sup>a</sup> Ain óna guretáco, ain amánte onguieguille izátea. Gú merejietzugunóc onésten bere Magest(ade)ac, eta guc eztúgu onetsico bere Mag(estade)a aimberce merejiduéna? Eztúgu icústén béguis, baña túgu escrit(ur)a sagr(atu)ac, ta eguia fedescoac emateco noticia bere Mag(estade)as. Eta céruac ta lúrra ta gauza guciac dire nola libru edo estámpa andibat adiarastendig(uten)a bere podórea, ederrtásun, ontásun, chsaquintásun, nobléza, liberalid(ad)e, miseric(ordi)a & Alabér gueuróc garen gucia, gurebaitan barnetic eta campotic, goiti beiti ta aldeguicietáic icustendéna, ta ez-téna dago clamátzen nola onestengaituen. Beira cein testigo edérra

<sup>1</sup> *Jang.<sup>o</sup> dio.*

iruzquigúra egunóro ain tinél dabilána guri arguitzeco, alegraceco, bero, ta prochu anitzáco. Beira lurréco fruitu ta gauza aimbérce acitzentuénac gure amóres. Eta guciaú deus eztá mostraticún amorearén áldean biáltzeas Jesus bere seme div(ino)a gure guizontasúnean. Au dá testigoric obéna Jang(oicoar)en amorearén gure gána. Beira Jesus aimbérce figuratán, yá aurr chipiño Belenen, yá preso Jerusalénean, yá maltrataturic moldegaizqui errán gaichstos, gólpes, lichstus, yá azotees urraturic, aranceés coronaturic, gurucificaturic, ilíc aláco manéran. Beira oráño ere alchaturic amoróso presente erreal miragarriró sacramentuártan<sup>2</sup>.

*121at.*

Beira báteo Ceruan icusgárrri mostrátzen bere llágac continuo gure onnáies. GuCIAú ezpáda ásqui biótz charrendáco, beira cein berarén beárr gáren. Yá eztén motivo ezin yagos onesteco guizónac Jang(oico)a?

Goácen orái: Eta cer motivo dá onesteco proximoa? Motivoa oráco ere dá Jang(oico)a bera, ezi etzaigu manátzen onéstea proximoac berén ontásun, ongui eguin, ta merejim(en)tuengátic, bai Jang(oico)agátic, Jang(oicoar)en aténcios, Jang(oicoar)en amóres. Eta orrá deseguinic gucién achéquia guciac, au indigúla, ta bercegau, ala déla, ola dela, cerengátic ezi Jang(oico)a beti dá ona guciá merejíduéna, ontará beiratubeárda, ta onengátic onetsibeárda dena déla. Asqui dá nor dén manatzenduéna, ta cerén alá duén placér.

Orái módua, nola beárden onétsi Jang(oico)a, ta nola proximoa. Lembic(ico)a díó, Onétsi zeure Jang(oic)o Jauna zeure biotz gucias, zeure arima gucias, ta zeure inténcio ta sintásun gucias. Biótz, arima, ta sintasunetic atrabeartúgu amorearén próguac, ezaunceco amatzendúgun edo eztúgun. Léna dá gueuren bárnean amátus ta estimátus bere Magest(ade)a yago ezi gauza guciac, yago ezi gústoac, ta ondasúnac, ta hónrac, ta descánsua, ta vicia & oroitus, ta pensátus, ta errétzen egónes amoréscó affectoetán, principálqui dolóre amoroso, ta amóre dolorósoan offendituas Jaunbát ain ona deséoréqui ez offendiceco, baicic onesteco ta gusto eguitéco. Bigarr(en)a vicitus ta empleátus berarén zervitzután, eguines naiduéna bere Mag(estade)ac, ta goártus naieztuen guciétaic, cerén ezi obrac dire amóre, ta ez itz onen colóre. Ezperén onetsi ongui, ta eguin, errán, nai, edo ibili gaizqui eztá consonánt. Naiduénac berás ezaundu ones-

---

<sup>2</sup> *ártan* díó, eta ez *gártan*.



tenduén Jang(**oico**)a óngui, beira vicimóduan. Irugarr(**en**)a sintásun gucias, ez solam(**en**)te aisa gustorá gaudelaic , baitaré trabáju ta nai-gabeetan ere padecitus ta sufritus Jang(**oicoar**)en amoreagátic: bear-báda desprécio, persecúcio, gólpe, plága, eritásun ta eriótzea bera, alegrequi ezpadaique, pacienciaréqui berére. Oñaráño beárda elle-gátu amórea coronatzécós. Ori dá onestea gauza gucien gañetic, gal-dunáia guciac lenágo ezi offenditu bere Mag(**estade**)a. Albaleique Jang(**oicoar**)en amoreaiqui báteo mantenitu vicia, hónra, ondásun, descánsu, ta aláco eztirénac becátu, passagárrí dá; baña bietaic bat galtzecós, au dá, edo Jang(**oico**)a edo descansua, Jang(**oico**)a edo ondas(**una**)c & Ez galdu Jang(**oico**)a, naiz galdu gucia.

## 122

Goácen orái: Eta cein dá módua, nola onétsi proximoa? *Zeure burua becála*, dio bere Magest(**ade**)ac. Eztú errannái ezi aimbérce ta bardin zeuroi bezámbat, naiz dén zillégui ori ere, baicic zeuroí ones-tenzáren guisará: ala nola naicozinduen zuc eri, triste, pena neque-tán, edo beárrean zaudelaic, visitatu, assistitu, socorrizindezázun dezaquenac, ala indezázun bercearéqui zuc bearrdeneán. Bi itzes , ez eguin berceái naieztuzúna indezázun arc zuri, eta naiduzúna inde-zázun, eguin zuc ere. Berce itzes ori berói: Gaizquiric batere ez eguin nióri, ta al gucia óngui eguin guciéi. Ori dió carid(**ade**)ac obligácios. Eta eztú beréchsten etsáia, ta gaizqui indizúna, baicic expressoqui dió eben gain, onetsizquize etsáiac, eguizie óngui gaizqui indizienéi, éscá zeuren co(**n**)trarioe(**n**) favóre, garaitus ónes gaitza Jang(**oicoar**)en amoreagátic. Eta orrá carid(**adear**)en ordáña ederra. Orrá Jang(**oi-coar**)en gustoco amenbát precíósoa, yágo ezi itendéna adisquideai, baitaique ez izán Jang(**oicoar**)en amóre puros; baña on itendéna contráριοai dá Jang(**oicoar**)en amore puros. Orai bada fórman parátus doctrinagau: Lenic úsa maiz eguitea carid(**adear**)en actoac: Jauna, onestendút beróri gucién gañetic, ta berorregátic oneste(**n**)tút ene proximo guciac, baita ene contrarioac ere &. Bigarr(**eni**)c su-tzenzaituelaic Deabruarén esp(**iri**)tuac norbaiten cóntra, itúli<sup>3</sup> Jang(**oico**)agana, Jauna, goardabenáza, eztut nai gaizquiric nióri, onétsi bai berórren atécios, imbézo óngui arri ere, ta niri ere bai. Irugar-r(**en**)ic Artu propos(**it**)o ez mendecacecó, baicic itecó cerbáit ón-qui<sup>4</sup>, delaric escaida, ta erreálqui eguin biótzes eta acciónes.

<sup>3</sup> *itúli* dio, eta ez *itzúli*.

<sup>4</sup> Honela *ónqui*, —*q*— grafema erabiltzen duela, ez —*g*—.

Jang(**oicoar**)en amórea forman. Lenic acostúmbra maiz eguitera actoac sinqui, alá edo berce guisas: Jauna, nic amatzendút beróri nere biótz guciaréqui, nere arima guciarequi, ta nere intencio, sintásun, indárr, ta entraña guciéqui. Amatzendút yago ezi gusto guciac, yago ezi ondasun &. Amatzendut, ta nainúque amátu nola sanduec, nola serafíneac, nola **M(ari)**a Santissimac<sup>5</sup>. Amatzendút, eta alegra-cennáiz amadezáten arima ón guciec: Eta penadút ez amátzeas guciec, ta ez amátuas neurónec ere sobra aldís & **Bigarr(en)**ic ingénia cer eguin Jang(**oicoar**)en zervitzután, eta edocéin gauza iterácoan gora biótz dióla, *Jauna, biz langáu orren izénean, orren amoretán*. Irugarr(**en**)ic trabajuetán especiálqui, ta persecúcio, ta naigabeén értean pára biótz Jang(**oico**)an, eramáteco animosoquí trágo amargogúra, *offratzendiót, Jauna, pichscañogáu; berórrec yago passatu-zué: orrenéqui báteo biz au ére. Eztágola ori ene contra<sup>6</sup>, eta datorré-na datorréla*. Amate(**n**)dút biotz gucias, arima ta entraña guc(**ie**)s amen.

---

<sup>5</sup> *SSmac* eta laburgailua.

<sup>6</sup> *cotra* eta marratxo bat —o— gainean.

122at.

## Sermo in Dominica Duodevicesima post Pentecostem

*De diligentia pro animâ, et econtrâ.*

Ecce offerebant ei paralyticum jacentem in lecto. Math. 9.

Contatzendú Evang(**elio**)ac, presentatuciótela Jesus onari perlesiatubát etzinic bere goácean. (Eta S. Marcoc añaditzendú tellátua urrátu ta andic sarrtuzutéla, ezin sártus ataritic gendetzearén útses) Eta Jaun div(**ino**a)c icusiric ayen fédea, erráncio perlesiatuai, Confia, ene húmea, barcatzenzaizquizu becátuac. An zeuden Escriva cembáit asicire marr marr beren baitan, onéc blasfemia dió. Eta Jesus ónac icusiric ayen gógoac errancióte, Cergátic zauste pensátzen gaizqui zeuren biotzetán? Cein dá aiságo? edo errátea, barcatzenzaizquizu becátuac, edo errátea, jaiquizaite ta zoáz? Bada chsaquindezázien duéla Virgin(**ar**)en sémeac potest(**ad**)e barcatzecó becátuac, erratendio perlesiatuari, jaiquizaite, arzazu zeure goatzeói, eta zoáz zeure echéra. Eta eguinze gucía errán becála. Icustécoa cé, goátzean etzánic ecarrizuténa itzúltzea bere oñes goatzearéqui soñean. Medicu onaréqui fortunatuzé. Icusteco anitzdugu ta icastecó garénece éri ariman. Baña lenic escazágu(**n**) gra(**ci**)a. Ave M(**ari**)a.

Len lena icusteco da ta icastecó arimaren alde erigárren ánsia, ta lagunzaleén carid(**ade**)a, presentacecó Jesus onarén presencian, naiz íganic tellátua, idiqui portillo, andic sártu. Icási arima eriec dilig(**en**)cia, prese(**n**)tatzeco Jesus onac berac paratuduén penitenciaco sacram(**en**)tuan, sendatzeco eritasun esp(**iri**)tualac, naiz costadaquióten cerbáit trabáju. Errancioquete norbaitec ayéi, Cer aizaráte orr tellátuan? Nora damázie eri gaizogói guisaórtan? Obe luque bere quártuan egón guéldi gueldía. Baña alá ezin senda, errespondalezáque; gaitza duénac ona ná: emén dago Medicu bacárra. Oh! cémbat, diót nic emén, cémbat itendén, gorputz eria sendatunáies; ta cein guti arima eriarén amóres? Edocéin becátus eritzendá arima, mortáleas iltzen ere dá Jang(**oicoar**)en beguietán, gueldítus berarén desgra(**ci**)an, ta condenácio-estadoan: Alaére ain prissa guti! ain

ajola guti! Aimbérce errepáro, joatecó Jesus onaren billa confessio-  
co sacram(en)tuan? Ô fede ilara, ta ezaumentu-falta!.

Sacram(en)turáco ansia beti dá convéni, báña especialqui eri-  
—dembóran. Len lena oroitzea Jang(oico)as, ta arimas: desahogá-  
tzea conciéncia:

## 123

alá dá aiságo curátzea gorpútza ere, convenibada: gure Jauna bera  
curazále paratzendá: Baña óntas atzenduric, cuid(ad)o ta confianza  
gucia paratzenbadá lurréco Medicu ta medioetán, orr compón, erran-  
dezáque gure Jaunac: eta norc sendátu, berac uztenbadu? Maite bau-  
zu zeure burua ene fiela, inbeauzúna eri zareláic, lenic trata garbitzeas  
arima; errecibi garái onean Elizaco ordenam(en)tu deitzendirénac,  
confessioaren purga, comunionearen bálsamo div(ino)a; ta libratu-  
ric itéco andienetic, obéqui eldudire gorputzarén erremedioac. Berce  
gauzabát; ez nolanái tenturic gabe in bellac edo proméssac; itecós, biz  
ongui pensaturic. Obéna litzaque eguin anitz propos(it)o, vicitzecó  
óngui, apartatzeco galvide ta ceboetáic: Alá obéqui naidezáque Jan-  
g(oicoa)c luzátu vicia icusiric óngui empleatunaiduzúla.

Berce icusteco dena ta icastéco dá, becatuac diréla anitz aldís  
causa ez sendátzeco, bai eritzeco gorpútza ére. Confía, ene humea,  
errate(n)dio Jesus onac perlesiatuái, barcatzenzaizquizu becatuac.  
Jauna, perlesia quendézon naiguindúque. Bai dió, báña lenic dá  
quentzea causa, quentzeco effectoa. Quenduric becátuac quenducodi-  
zut eritas(un)a. Ez quencecós becátuac, obedúzu eri egón. Oh cem-  
bat aldís eritas(un)a dá obe, vicitzeco sano arima! Eri nagoláic, obé-  
qui nago, ció S. Teressac. Eta berce sandubátec eritasun ta oñáce  
gorputzarénac deitzencitue Jang(oicoar)en misericórdiac. Eta guciéc  
eri-dembóra contatzenzúte nola feriaic obéna, irabázteco trátuan  
Ceruráco. Bai ezi eztá Jang(oico)a lurréco Nausi miserableen guisa,  
bearrbaitúste beren zervitzucoac sano ta sendo: Jang(oico)a deusen  
berr ezténa becála oroát zervitzatzendá ericorr ta erias ere, nola  
sano ta sendoas; eta aguián obéqui eri dénas, dagoláic bere zervitzua  
eguitean bere borond(ate)a, eta au indezáque eriac costosoágo beca-  
la valiosoágo conformátus óngui. Eta orrá nola gure Jaunac asco  
aldís bialcentuen eritasunac ez becátuen cásos, baicic errefináceco ta  
progratzecó bere onétsiac. Eznágo deustáco, dio eri maldérrac; nai-  
núque osasúna, zervitzáceco Jang(oico)a, predicáceco, errezáceco,  
confessa comec(acec)o & Gucióc dire amóre p(ro)priaren achéqui-  
ac comunquiró: bere borond(ate)a nai cumplitu, ez solam(en)te Jan-  
g(oico)arána. Ezi Jang(oicoar)en borond(ate)a orduán dá eri dágon;

- cumplibéz: bego pacienciaréqui, ta zervitzatucodió ain ongui nola Elizan. Eliza contú dela bere quártua eriaindáco: goátzea contú al-dáre; ofrátu án bere trabájuen sacrificioa, ta eztú aláco errezuríc. Purgatorio-guisa da eritasuna: gorputzaren costus purgacendá arima, mediánoa óntzen, óna obecendá. Guciaréqui eztá

*123at.*

debecátzen escátzea osasúna, convenibada, utziric Jang(**oicoar**)en escuan.

Berce icustecó dena ta icastéco dá Jesus onarén mánsu humil berách onéguia guiciéqui ere, baña principálqui pobre beártsu eri ta malderréqui; ene humea, erratendio amoróso. Contatzendá errán comúnu Judatárren értean, zeudeláic afflicciorenbátean, errátea, goácen Mariaren Semeagána, consolagaitzen ta alégra. (Revel. Birgitt. in gratias gratiae pag. 389) Eracustenzaigu tratátzea ongui guciac, ta obéqui pobre humilac, eguines ongui dezaqueguláic, ta ezdezaqueguláic in óbras, móstra borond(**at**)e, itz, ta modu ona. Eriéqui beárda izán carid(**ad**)e ta favóre al gucia. Errecetagáu Jesus onac berac Cerutic emáncio S. Theresari, (post. vit.<sup>m</sup> in monit. n. 11) manatus izandezate-la especialqui contu eriés, eztusténac cuidacen ongui ta erregalátzen diréla Job Sand(**uar**)en adisquideen guisará, Jang(**oicoa**)c emanic azotea arimen oneráco, ayéc paratzendutéla venturan paciéncia.

Berce icustéco ta icastecobát, ain humano báteo ta ain sendoqui dese(**n**)gañátzea murmurazentioténac barcátzeas becátuac, ta ez ústea bere videa ayen erránen beldúrres. Cíerto eztúgu emanbeárr errateco videric gauza gaichstos ta gaichsto-idúris ére ez: Gauza ónac ere zillégui dirénac utzibeartúgu eztireláic precisso, ematenbáliz eguines escándalo, aliqueta desengañatuárteo erranzáleac: Baña gauza claroqui ónac, ala nola confessa comecátzea, ta alácoac eztúgu utzibeárr mi gaichstoen beldúrres. Segui bére videas arimain onetán, naiz Fariseoec in márr márr.

Azquen icustécoa, ain lastérr aisa ta perfectoqui sendatzegúra, eramanaarácis soñean goátzea, ceintan egóncen asco dembóras. Aichsteán ezin moguitus, orái azcárr joáten bere oñes: Solam(**en**)te erratearéqui Jaun div(**ino**a)c, jaiquizaite ta zoáz. Mostratzenzaigu ariman itenden mudánza cembáit aldís, nola ción Davidec, *haec mutatio dexterae excelsi*, Gorenarén escuiarén mudánza dá au: noiz ta inutil edo gaichsto céna itenduén ona ta provechúscoa bere Magest(**ade**)ac. ásko aldís eritasúnen medios, beti sacram(**en**)tuen virtúrtes. Acudizágun fede ta ansia onaréqui logratzéco sendátzea, ta ibiltzea vizcórr Jang(**oicoar**)en videas, ellegacéco gloriará. amen.

## Sermo alter in Dominica Duodevicesima post Pentecostem

*De Paralyssi spirituali.*

Paralyticum jacentem in lecto. Math. 9.

Perlesiatubát bere goátzean etzánic mógui etzeiquéna ecarricióte Jesus Jaunari, eta bere Magest(ade)ac manatzearequi jaiquice istán-tea(n), artu goátzea soñean, ta itzulice sano ta sendo bere echéra. Perlesia espirituala nola dén, ta nola curatzendén icasibeardúgu on-táic. Estimazágun gure Medicu divin(oar)en Ama, misericord(iar)en Ama, escátus gra(ci)a. Ave M(ari)a.

Arimarén perlesia peréza déla, dio S. Buenav(entura)c (diet. sal. t. 1. c. 7.) Pereza, au dá oneráco naguitasúna, gana gaichstoa, edo desgána, floxéza, ajolagábea, enfádoa, epeltasúna & ezi gucióc bate-rá eldudire. Goátzea, non dagon etzanic aláco arima, dá costúmbre gaichstoa, bururdicoa becála conciencia fál-sua. Gorputzarén perle-siac quentzendú indár-ra ta moguim(en)tua; arimarénac paratzendú ezinduric becála, ez itéco gauza onic gogotic, ta itenbádu, itéco epel-qui fadoricgábe. Astendá descuidátus ta floxátus ónean: seguitzendá eguines achsál achsála ceremónias ichurapénes nolanái: Doáie aum(en)tatus gaitza útzis útzis óna, au egún, biárr ura, cer dá import? dióla, simplézac dire, escrupuloac, ta Predicárien ponderá-cioac. Guero quendus oneráco afficiónea ta gústoa, sártus gaitzerá-co inclinácoa ezurretaraño, acostumbrátus, ajolagabétus, engañá-tus bere búrua errézu ta oniduri pichscabatzuéqui, etzaióla deus ásko gauza gaichstoes, beréchsqui biotzécoes, orrá conc(ienci)a fál-sua goátze eriózcoa: orrá perlesia esp(iri)tuala: Gaitz gaichstoa, ta nequez daiquéna cura, zartzenbáda.

Entendatzecó ta goartzecó, aizágun gure Jaunac bati bialicion ma(n)dátua S. Juanen medios: (Apoc. 3.) *Badaquizquit zure óbrac nola dirén: etzaréla ez ótz ta ez béro: ojalá barimbacina ótz edo béro: baña cerén baizára epél, egotzicozaitut ene agotic. Diózu zaréla aberáts abásto nióren beárr ez: eta eztaquizu zaréla errumés, miserable, pobre, itsu, ta deusgábe. Consejatzendizut billátzea eneganic urre fin fina, aberastecó, ta jaínsitzea tresena garbiéqui estalceco, ta untátzea*

*beguioc colyrios icustecó.* Au dá mandátua: Errepára itz bacochean. Lembic(**ico**)a egozgále becála ematendióla christio epélaç, on idúri, ta gaichsto ízán: hypocrita enfad(**agarri**)a.

124at.

Eztá enfadagárri, bere gústoco gauzaítoác gogotic eguitea, ta Jang(**oicoar**)en gustocoac gana gaichstoan? Mamia Deabruarén, ta azála Jangoicoarén? Abráts ustes zara pobre miseráble errumés, dió, ceren arren on idúriac diren arín sustanciaicgábe, icháurr futfútac, lásto útsac granoicgábe. Ematendéna amoreicgábe; aláco emána bezain nailúque bateréz. Dió yago, zaréla itsu ta biluchsiric; cerén dagon graciagábe irétsis cembáit mortále ajolacábes eztituénac icústen itsutasúnes. Dudáscoac dió diréla ón, gráveac léve, léveac bateréz: beira yá eztén itsu. Argál confessátzen, ta confessatzecoric apénas aurquitzén: beira eztén itsu. Gú ocasioetáic apárt doi dóia librátzen, arc ocásio ta céboen erdian bateréz consentitzen, eztaére sentitzen. Beira eztén itsu. Milagrogóiec dire contatzendirénac gure demboragóntan, ez canonizatzeço, bai condenac(**ec**)o.

Eztá itsutasúna, fielac, dagoláic ere estádo gaichstoan ta eri peligrusco, ez prissaric ez memoriaric ere izátea confessa-comecátzeas? Betoz oficiáleac, biáli boticará, in erremediogáu, ta ura, ta bércea: Eta bitárteo ajolaic ez arimas, ez Jang(**oico**)as, ez cóntu emanbearrdénas, ez inférnuas ére, nola ezpalitz, bitárteo ez oroitzen prevenitzeas eternidaderáco, bearbáda ere; ez aipátzen ere Jesus onarén erremedioac baitire sacram(**en**)tuac. Fuertésco ignoráncia, edo fatued(**ade**)a, edo itsutasúna, edo nola deitu eztaquit, dá aguitzendéna comunquiró. Gucíec ilbearr bein; eritzendá bat, déla sacerd(**ot**)e, déla seculárra, déla letradún, déla gabe, déla guizón, déla emastéqui, niór apénas alcinatzendá escatzera sacram(**en**)tuac eritasúnean, erraterá, náut confessátu lenic porsí acáso. Fuertésco trabájua Apezaitabaténa, erranbeárra casi gucíei, confessazaité & Ezpadu erráten, ta il ingábe, utzídu iltzéra sacram(**en**)tuicgábe; erratenbadu ta ilcembálitiz, ilaracidu pesadúmbres. Diót berriz ere, fuertésco tonteria déla egón egón escatugabe sacram(**en**)tuen erremedioac, nola ezpalequióte impórta beréi. Eta nori importazáio, beréi ezpáda? Cergátic útzi guerorá guerorá? Ceren beldúrr dire? Dire beldúrr indezóten gaitz confessa-comecátzeac? Cer gaitz indezáquete ain gauza ónec? Batas garbitzendá anima<sup>1</sup>, desahogatzendá: bércean eldu-

---

<sup>1</sup> *anima* dio, eta ez *arima*.

zaigu Medicu div(ino)a: Da ori gaitz itéco? Deabruarén sugéstios beldúrr dire il sacram(en)tuéqui; eta gabe iltzendire; ta aguián orgá-tic ilcendire ilen etzirénac, artubazúste.

125

Comparatzendú S. Buenav(entura)c arima epél nágui floxo perlesiátua, zocoratuic dágon burriñaréqui errdoitzen, deslucitzen, ta galcenbaita: lurr soroaréqui, betetzenbaita cárdus, ta belarr gaichstos: úr gueldiaréqui corrompitzzenbaita: trésera zócoan utziaréqui, ustelcenbaita ta jaten sitsas: estudiante floxoaréqui, ezpaitu icásten baicic gaichstaquéria. Oroát dúzu arima nágui floxoas. Onen cálteac pobréza ta vileza: *Arricatucoute perezósoa loiésco árris ta idi-boñigas*, dió Esp(iri)tu S(andua)c (Eccli 22) mostracéco eroricodéla im-mundiciásco becatuetán, ezi alferra egotendá cebátzen deseotán. Seguitzendá berce vicioen acitzea descuidoarén utses, ezi dá Esp(iri)tu S(anduar)en errána; (Prov. 24) *Passatunáiz perezosoarén alórna bárna, eta gucia dago beteric asuñes*. Merejidú desonradezátan emén eta án persóna floxo utzia deustaco ezténa becála ángo ta eméngo, de-balde jáioa, debálde vicidéna: escaida delaric eraiquitzéco, dembóra guti, ta erremédia ezin guero, descuidátzea bere dembóran, choil gaichsto dá. Perlesia sp(iri)tuala<sup>2</sup> dú alácoac, ta uztenbádu zarrtzerá, gueroágo ta nequeságo curátzea.

Cer erremedio? Acuditu Jesusengána fede viciaréqui confessátus bere cúlpac, cein barcaturic Jaun onac egungoái becála errandézon, *Surge et ambula*, jaiqui óts ta ibili: au dá, animátu gógoa, ta indárr eguin, ellegatzecó sanduen videas sanduen compañiará. Nor bere aldétic ere beárda lagúndu, ta ala nola sú emán moguitzecó Cerurat S. Agustinen guisará: *Cer dá au?* ció christiatu baño len, *Cer dá au?* *Letragabecoec arrapatzendúte Cerua*: Eta gu gueuren letraéqui oná non gauden eroric miserablequi. Cértan gaude? Cer aigára? Vicia labúrr, eriócea segúr, Cóntuac erchi, senténcia segui: Guéro glória edo péna beti. Nola itendúgun azároa emén, izaindugu eraicioa an.

Bercebatzuetán Jang(oicoar)en amorésco suchindies, Ô nola nindeique(n) egon, ta nola nagon! Jang(oicoar)en maite nindeique izán, eta cer naiz? Oh! assi ta ta<sup>3</sup> seguitubánue principiotic amátzen sendoquí, cein goápo nitzan orái? Ô ederrtásun ain antiguáscoa, ta ain

<sup>2</sup> *sptuala* eta laburgailua. Hola hasten da, *s-* grafemarekin.

<sup>3</sup> *ta ta* dago, errepikaturik.



bérria, cein beránt ezaundudúten? Ô ontasun infin(ito)a Ô ene Jau-  
narèn amóre, ta fa-

125at.

vóre gueieguia enegána, cein gaizqui corresponditudúdan! Ô gusto  
ta ondásun gucia, cer naidut, ori ezpáda? Noiz árteo ala egón, egón?  
Alá utzicodút passatzera vicia? Jauna, tirabenáza fuerte &

Baña su amorescogoi ichequitzezo eztut nic aurquitzen gauza  
obeagoric, nola Jesus béra beirátzea gurútzean, zabalduric besoac,  
inclinaturic burua, idiquiric bulárta, beteric guciá llágas ene amóres,  
figúra guciac errespiratzenuéla amóre. Ezpáda emén moguitzen  
arima, perlesia mortála dú. S. Gertrudisi errevelatució Jesus onac,  
beti ta noiz beiradézan bere imágina gurútzean batec, beiratzendiola  
berai ere bere Mag(estate)ac misericordiosoquí amoréso afféctos.  
(Blos in mon.) Eta nola eztú moguitucó amatzerá mostrátus aimbér-  
ce amóre? Monge Noviciobát zoéie igués conv(en)tutic: aparecitu-  
cequío Jesus videan, eracutsicítio bere llágac, beira, cémbat passatu-  
nuén nic zuregatic: Gogórr ta beltz idurizaizun óguia bustizázu ene  
odólean: icusicouzu cein gochso dén. Onéqui guelditucé ura contént,  
ta lén sopórta etzúquen trabájua, yá guéro iduricéquío aisa. (Disc)  
S. Pedro M(artir) bein trabáju andibatean bere culparicgábe assiric  
tristátzen joánce Jesus gurucificatuagána negárres cióla, Jauna,  
icustendú nola naucáten culparicgábe. & Errespondatució amóltsu,  
eta nic, Pedro, cer culpa nué paráceco gurucegontan? Asqui izanzue  
ori passaceco alegre animóso yago ta yago. S. Pedro Apost(olu)a  
bein preso cegolaic Jerusalenen libratuzué bere Magest(ade)ac mila-  
grosuquí. Guero berriz Roman inzúte preso fedegátic: Sandua  
prest cego emátea vicia ére. Baña ingeniaturúte Christioec atrarástea  
ichsilquias berén Artzáia ain bearrzuténa demboragártan: bazoéie  
sandua libre camporá: Aparecituceguío<sup>4</sup> videan Jesus gurucearéqui  
soñean: Nora doáie, Jauna, erra(n)cio sanduac. Eta Jaun div(ino)a c,  
Noáie Romará berriz gurucific(atu)a izátera zuregátic. Entendátu  
bai entend(at)u S. Pedroc: itzulice bere carcelará, ta utzice gurucifi-  
catera Jesusen amóres. Orrá bada non sendadaique(n) perlesia es-  
p(iri)tuala, jaiqui ta ibilcecó vizcórr Jang(oicoar)en gra(ci)arequi  
gloriaráño. amen.

---

<sup>4</sup> *Aparecituceguío, eta ez Aparecitucequío.*

## Sermo in Dominica Undevicesima post Pentecostem

*De nuptiis, convivio, vocatione, &*

Fecit nuptias filio uso, et misit servos suos. Math. 22.

Egungo Evang(elio)an dio Jesus ónac, aguitzendéla Ceruetaco Erreínuan, edo Elizan, nola Erreguebáti, celebratubaizitue bere semearén bodac, eta biáli bere Mutilac deitzera convidátuac; ta etzúte nai etórri. Bializitue berriz bercebátzuc erraterá, nola dagon prevenituric bazcária, guciá prest; datocilá: Baña ayéc etzúte ajolaic, eta joancire batzúc beren itéco ta tratuetara, bercebatzuc itzúli ta deshoorátu ta ilzúste arren Mutilac. Erréguec ori aituric, iras beteric biáli bere tropac ta galducitue gaichstogáiec, ta ayen erriai su emáncio. Guero erranzióte bereéi, prestaturic bodac bai, baña etzire digno convít cirénac: Zoáste videgoiec bárna, ta aurquitzentucien guciác convidazquicie. Ayec inzúte errán becála, ta betéze maia géndes. Sartucé Errégue icusterá maiécoac, ta icusizue án guizo(n)bát ez jaintsirc bodetaco tresenaréqui; ta erráncio, adisquidea, nola sartuzára emén alá indecénate? Urá ichsil: Erreguec ordúan bere Ministroéi, au lotu escu oñetaic, ta botazázie ilúmbean; án izanénda negárta, ta ortze(n) carratscótsa, ezi anitz dire deituac, baña guti escogituac. Orrá Evang(elio)a. Claro dá déla parabola, edo comparácio-guisabát adiarastecó aguitzendéna Jaing(oicar)en ta guizónen ártean. Entendacecó escazágun gra(ci)a. Ave M(ari)a.

Evang(elio)an<sup>1</sup> dión Erreguea dá Errégue gucien Errégue Jang(oico)a. Bere seme Jauna Jesu Chr(ist)o: Boda tiónac dire comunicácio tuénac guizonéqui bere Mag(estade)ac, ezi ona beti dá berceéi comunicatunáia bere onetíc, eta Jang(oico)a on guciarén itúrria comunicanaida guizonéi al guciá, ta comunicátu ere dá ásko maneras. Lembic(ico)a criatucitueláic guizónac bere imágina ta semejanará:

<sup>1</sup> *Evangelioan* dio, eta ez *Evangelioac*.

Bigarr(en)a eguincelaic bera guizón bigarren persónan unitus Jang(oic)otasúna ta guizontasúna errealqui. Onen cásos inguindua bere aide becála guizon gucióc, honrátus ta favorátus guizaguéndeá yágo ezi Ainguiruguéndeá. Irugarren desposório-guisa edo comunicáioa dá Jang(oic)o guizónac Jesus onac celebratuduéna bere Esposa Elizaréqui edo Christio-guendearéqui, alá eguinbaita gorputzbát becála guréqui, bera gure búru, gú berarén miémbro, bera ayen eguiásco, gú zarm(en)du. Au eguitendá fedes bataioco sacram(en)-tuan despo-

126at.

sátus becála arima bacócha, ta unitus Jesu Chr(ist)oréqui, *sponsabo te mihi in fide*. (Oseae 2) Andic deitzendá Christio, ta daráma bere marca esp(iri)tuala caracter deitzendéna, ta secular borratueztaique-na ez Ceruan ere, ez infernuan ére. Berce desposorio-guisabát eguitendá noiz ta arima becátuen cásos apartatucéna berriro admititenduén bere gra(ci)an bere odol preciosoarén virtútes, ta contricioarén virtutes penitenciaco sacram(en)tuan. Berce desposorio-guisabát, ta comunicáio miragárrri amorósoa celebratzendá Comunioneo sacram(en)tuan, ezi dió comecatzendénas, *in me manet, et ego in illo*, enéqui unituric mantenitzenda, eta ni beraréqui. Berce desposorio, ta comunicaciobát aguitzendá Jang(oicoar)en ta arima onarén ártan oráicioan amóres unitus esp(iri)tua esp(iri)tuaréqui, favorátus Jang(oicoa)c arima, consolátus, erregalátus, chastarácis bere suavidd(ade)a, ta gloria-guisabát múnduan modu miragárris, becatáric eztaquigúnes, ez meréjis. Azquén desposório perf(ect)o zori onéco deseagárrria dá glorian, non unituric beticos arima Jang(oico)aréqui gozatenbaitu ezin explicadaiquen móduan. Ontará ellegacecó prevencio ta vézpera becála dá celebrátzea emén Chr(ist)orén desposorioa arimaréqui fedes eta carid(ad)es, edo gra(ci)as. Eta órtas dardúca Evang(elio)an.

Convita ándia prestatudú Elizan ere Cerúra baño lén, bere doctrina, légue, ta itz sandua: bere sacram(en)tuac, especiálqui aldaré-coa: ta bere inspiráio, ta gra(ci)ac arimarén barnerá: guciá baita erregalacecó gu ta acitzecó Erregue-guisa gloriaráco. Len ta guero bialitu mu(n)dus mundu bere Mutilac, baitire Jang(oicoar)en guizónac, ta Predicariac, deitzerá eztirénac Christio fede Christiorá, ta Christioac gra(ci)ará. Baña eztúte ascoc ajolaric convitas; dóaz beren lurréco vanid(ad)e ta itecoen átzean: Asco berriz itzulcendire Predicárien cónta, nola ezpalire mintzo ayen onnáies. Errégue ándiac castigatzentú anitz manéras. Bodac, dió, prestatuic daude,

baña convidátuac eztire digno. Zoáste campogóiec barna, ta dei aurquitzentucien guciac: Alá betecé máia. Óntan adiaraste(n)da ezi naiz an eménca faltaturic fedean edo virtútean, eztéla faltáco mu(n)duan Jang(oicoar)en echéco gēnde, izaindiréla Christioac beti, eta ónac, emén edo án. Ezpadúzu nai zuc, eta bérceac, eta bérceac, naicodúte Jang(oicoar)en escogituec Jang(oico)as daudenec. Eta nóri cer záio? Eta galduas norc izaindu culpa?

## 127

Jarriasgueros máian sartúce Errégue icusterá, dió, ta icusizue bat bodetaco tresenagábe, ta sarraracizué calabózoan. Óntan adiarastendá, eztéla ásqui egótea nolanái Christio Jang(oicoar)en echean: naiz jarri berarén maian, naiz participante berarén doctrinas, sacram(en)tues, eta gauzes, galdua izaindéla, ezpadaráma bodetaco trése-na, edo gála. Cein dá bodetaco gala? Conciéncia óna, grácian egótea. Fede Christioas lándara beárda vicimodu Christioa: ezperén botacodúte infernuco ilúmbean. *An izaindire*, dió, *negárrac*, *ta órtzen carrascótsac*, dió. Eriótze perpetua deitzendú Elizac ángo vici miseráblea: milla eriotzetáco baño yago pena ta agonia contino, ta ezin acába; nai il, ta ezin il; iltzen becála beti, bēñere ez acabátzen iles. Ó cer ánsiac ilnáies, ta ezin logra! Dión becála S. Agust(ine)c; mundugóntan vicitza esquindu, ta naieztuténec admititu, infernuan naicodúte Eriótzea, eta ezin aurquitu. Araráco dire ez solam(en)te infiel ezaundunaieztuténac Jang(oico)a, baitaré ezauntzendutéla diotenac mias, eta ucátzen vicimóduas, dió S. Pabloc (Tit. 1) Christio contrácoac, ceñen casos deshonoratzendén Chr(ist)orén izéna gendeén ártean. (Rom. 2.)

Acabatzendú Evang(elio)a itzguebéqui, *multi sunt vocati* & Anitz dire deituac, baña guti escogituac. Joan orái pensátus bacóchac, ceñetáic otenáiz ni? Beira cein vandéra seguitzendúzun, edo gurutzearéna, edo vanid(ad)e munducoarena? Beira cein vides zoázin, edo érchias edo zabálas? Beira mantenitzenduzu(n) bodetaco trése-na, conciéncia óna. Beira estimatzendúzun Jang(oicoar)en gra(ci)a yago ezi múnduco gusto, gauza, ta ondásun guciac. Beira zauden ongui erresolvituric seguitzera constante Jang(oicoar)en convita, ez admititzerá deus contra, naiz vicibearrbálitz neque penatán arrastaca vici gucian. Exémpu ederrbat leitudút Napolesco doncellabaténa, ónac animátu, gaichstoac alquetubearrtuéna (Parra p. 1. pl. 17.) Aita zué cavallero, baña jocári: onéc acabatucitue lastérr ondasúnac, ta guerochságo vicia ere bai. Guelditucire Ama alabac miserien heredéra: estádo arceco adinean au, baña doteric ez, ezetá cer emán

agora ére. Baña Jang(**oicoar**)en amóres, eta virtútes cégo óngui suplituríc. Ainguirubát idurian cé, Serafinbát ariman. Pensa emèn ain pobre, ain edérr, ta bacárta celaríc, cémbat peligro ta tentavide armatubidecion inférnuac. Baña goseac naiagodút il, erraténzue, lenágo ezi átra vicia Jang(**oico**)a offenditus.

127at.

Amac etzué aimbérce juicio ta virt(**ut**)e nola alábac, Cer inendúzu bada? errate(**n**)ció, bearrdúzu consentitu norbaitéqui, ez iltzecotán bióc. Alábac errespondatézencio generosa, confiazágun Jang(**oico**)an, bagaizque erremédia bere Mag(**estade**)ac; emaindígu conveníbada, ezperén il offensariégábe. Salbeites diren pichscac. Salducire, precioa gastatucé; ta necessid(**ade**)a lén bezáin bérri. Amac ségui léngo porfian. Alába constánte virtútean; salzágun goátzea, dió. Salducé, ta guero trésenac ere, gueldituric solam(**ent**)e precissoa estalcéco diña. Acabaturic gucia yá, erraténdio Amac, orái icusázu cer imbeazun. Icuscodú, erraténdio alába préstuac, eta purechsabatéqui ebaquizue bere buruco bilo edérra. Arbez, ta salbez, albadezáque cerbáit átra: eta berce erremedioric ezpáda, búrua ere ebaquitzeta utzicodút lenágo ezi desplacer eguin ene Jang(**oico**)ai. Onéqui atráce Ama carricará, ta alába gueldituzé Jesus gurucificatuaren oñetan ofrecitzen bere búrua, ta escátzen erremedio, ezperén const(**n**)cia. Fortunatucé Amac opátzea Conchaco Principe ta Princesa: icusizúte bilo zeramána, erosinaicióte, solam(**en**)te zute errepáro il cembaitena<sup>2</sup> otecén? Amac orduan negárres, ojalá, Jaunac, onen Jabea ila balitz, ez icustecó aimberce desdicha. Eztá ila, baña iltzecó eztú falta baicic ematendidátena onendáco. Aguitu gucia contatucióte itzes baño yago negárres: ta azquénean errancióte, betoz, Jaunac, naibaute icúsi, ezi eztágo urruti. Lastimaturic Jaungáiec joancire arréqui, ta aurquituzute doncella generósa besarcaturic Chr(**ist**)orén oñéqui, erdibiluchsiric pobrea. Icústeas ichuragár-<sup>3</sup> lastimaturic yago, ta berealá paraturic medianoqui decénte sartuzute berén cóchean, eramanzúte berén palaciorá, ta an ongui estimatua iduquiric dembora zatibátes, guero bere virtutearén atencios eta ayec ema(**n**)cióten dote onbatéqui paratuzúte estadoan honratuqui óngui vici gucico. Nor eztá confiatucó gure Jaunarén misericordian, eztuéla

<sup>2</sup> Hola dago: *il cembaitena*.

<sup>3</sup> Hola dago *ichuragár*—, eta ez espero den *ichuragártan*. *ichuragar*- lerroaren bukaeran dago.

desamparatucó berea séculan? Mundugontáco ere badezáque favorátu, naibadu, ta convenibáda, naicodú: bentzait nior bereetaic beticos galcera utzico eztú. Cóntra berriz munduarén amóres munduarén convitac seguitus milla ta milla galdu, gálcen, ta galducodire. Alaére ezcaizquela acordurátu? *Multi sunt vocati, pauci verò electi.* Jang(**oico**)ac eguingaizala bere. amen.

## Sermo alter in eadem Dominica Undevicesima post Pentecostem

*De nuptiis animae in Communione Sacramentali.*

Fecit nuptias filio suo. Math. 22.

Egun pintatzendá Erreguebáten Semearén desposórioa, ta convita. Nola convidátuec etzúten nái estimátu: nola gaizqui tratatuzusten mandatáriac; nola berac izancíren castigátuac; nola bercebátzues beteric sala, ta Erreguec icusiric an bat indecénte cególa sarraracizue(n) ilúmbean, penatán. Azquenic sent(ene)jagáu: Anitz dire deituac, baña guti escogituac. Parábola edo comparaciogónecer adiaracinaidigun, goácen usmátus. Acertatzéco, estimazágun Ama Santissima<sup>1</sup>. Ave M(ari)a.

Cer Errégue otedá aipatudéna Evang(elio)an? Cer seme? Cer boda? Cer convita? Erréguea dá Jang(oico)a. Bere seme bacárta Jesu Chr(ist)o Jang(oic)o-guizóna. Boda tiónac dire esp(iri)tual ta sobrenaturálac. Orái naiac daude chsaquin, nor otedén Esposa duéna dicha desposátzeas aláco Principe Jaunaréqui? Orichse dá Eliza, edo Christioguendea, baitaré Christio bacocharén arima. Noiz celebratucén desposoriogáu, izánze noiz ta guizón eguinic, ta fundaturic bere Eliza, christiatuzuén gutáic bacócha, unitus beréqui, ta bere gorpútz misticoaren miembro bataioco sacram(en)tuan. Ori lenic; baña berce desposorio-guisabát excelénte miragárria celebre(n)dá convita precíoso andiaréqui báteo comunioneo sacram(en)tuan, non admititzen, besarcátzen, ta bateratzenbaitu beréqui Jaun div(i-no)ac arima pobrea modu admiráblean. *In me manet*, dio, *et ego in eo*: Enebaitan guelditzendá, ta ni berabaitan. Cer idurizaigu desposoriogóntas, fiélac? Nolaco Espósoa, ta nolaco Espósa! Gloriaco Principe Jaun ederra ene arima pobre itsusiarén Esposo! Cer gora bera au! Cémbat goratzendén arimabát lurrécoa! Cembat apaltzendén Errégue Cerúcoa! Inic dago apaltzerá gure amóres: yá Virgin

<sup>1</sup> SSma eta laburgailua.

Amarén entrañetara, inzeláic guizon, yá jaioric aurr chipiño erreclinatzerá gambélan, ya guero sufritzera prisíone, golpe, lichstu, azóte, aránce, guruceco eriotzea & Eta orái janari-guisa apalcendá gueuren entrañetára, comecacengarélaic. Cer dióte ontára

128at.

Serafinéc? Cein arrituric bidedauden aldáre-ingúruan icústeas berén Jaunarén amorésco excessogáu guregána! Eta cer aigára gú, ezpagára deseguiten amóres? Ó fede vicia, non zara? ezi sinestálédí<sup>2</sup> viciró, zoraguindeizque bozcariúndes, ta affécto ón gucíes. Ain andía ta ain chipí Jesus ori enegatic, Badacusat cergatic, Amorosteagatic ní. Barimbadut biotzic, Jesus, naidut ilaritano<sup>3</sup>, ori yago guciac baño, ori naidut bacarríc.

Baña cer dá aguitzendéna? Biáli bere Mandatáric, eta batzuéc eznái etórri convitará, *et nolebant venire*: bercebatzúc gaizqui etorri, *quomodo huc intrasti*? Cergatic ayéc eztúte náí? gústó gaichstoa izánes: naiago túste Egiptoco tipúlac, elceac, eta farrasqueriac, ezi manná Cerúcoa, ogui vicia, Ainguiruen erregáloa gústó ón guciac dituéna berebaita(n). Balequite ongui ceric dén, ta gustoa sano izán, paloca emáten egonbearcoguindue sacerdotéec apartaracinaies ta ezin apartarácis gèndea maigártaic gogosearén<sup>4</sup> útses, dio Ven(erabl)je Juan de Avilac. Orái convita erreála prestatúric, convidátuac ganaric ez; Jesus salvazálea emáten, ondasun gucién iturria, gloriaco prenda, guciá amóre: Eta guciénec onen apeturic ez; cer señale da? Oposicio duténes cer diógu? Infernu urrín.

Baña bagoáci noizean noiz: baña nola? Sarcendá Erregue icusterá: Icustendú án bat, ta aguián bat baño yago bodetaco tresenagabe. Nola, dió, nola etorrizaráte galagábe? bota ebéc ilumbean. Cein otedá bodetáco gala? Heregeec dióte, ezi fedea, sinestátzea ásqui déla. Fedea dá lembic(ic)ó pausua sárceco Jang(oicoar)en echean, origabe eztaique sarrtu: baña sollic ori eztá asqui, dá claro. Evangeliocogura sartucé; bazué berás fede: baña etzué bodetaco gala: Eztá au berás fedea, dá fedearen gañetic berce cerbáit. Gala diogúna bada conciencia óna dá libre mortaletáic berére Jang(oicoar)en gra(ci)an ta carid(ade)an. Gra(ci)a ta carid(ade)a edo bióc dire bat, edo elcarri dachicónac. Gra(ci)a da Jang(oicoar)en donobát itenduéna quadrable Jang(oicoar)en beguieta(n) arima. Carid(ade)a da amatzea Jang(oico)a: Eta amatenbauzu, amatua zara, ta bere gra(ci)an

<sup>2</sup> Hola dio, *sinestálédí*, erdian —t— duela.

<sup>3</sup> *ilartáno* dio, *ilartáno* esan beharrean.

<sup>4</sup> *gogosearén* dago, *gosearén* esan beharrean.



zaude. Orgatic izanas gueros carid(**ad**)e, gra(**ci**)a ere badá. Biguebétas itenda arimaren bodetaco gala, nola tapizeria tisuuscoa, ta urres bordátua. Precisso precisso da gra(**ci**)an joatea, ta sentibalez culpa morta-

## 129

leric, confessátzea joan baño lén. Ezperén sacrilegio itenda, eta nola Judas traidorearén ariman sartucén Satanas amengarren atzetic, *et post bucellam intravit in eum Satanas*, alá indigno comecatzend(**en**)a itendá Jesusen gorpútz ta odolarén reo edo culpánte, ta irestendú bere condenaciotáco: botazázie au ilúmbean, dio Erreguec, *mittite eum in tenebras*.

Baña arima noble agradecituac ez solam(**en**)te naicodu eramán gorputza baruric ta arima garbiric, precisso den doi doia, baitaére añaditu berce virtuteen flore cembáit, edo affécto. Itzĩtogóntan tiót laur, *fuca*, fedea, humild(**ade**)a, contricioa, amórea. Sinésta viciró: humilla biótzes: penátu sinés gaizquies, eta amátu ezin yagos. Ori da fuca: alá ichequitzendá súa: Erréza guti; érre anitz. Alá gozatzendá erregalo divinogárren provéchua ta gústo. Alá itentú effecto anitz ta andiac; bat, arimarén unióne amorósoa Jesus onaréqui: bercebát, gra(**ci**)arén ta virtuteén aum(**en**)tua: bercebát, indárr ta vizcorrtásun sobrenat(**ural**)a: bercebát, amoréscu sù dúlcea: bercebát, consolácio, ta negarr gozóac: bercebát, passioneén flacátzea: bercebát, venialeén barcácioa: bercebát, preservátzea erorcetic mortáleétan: bercebát, pena zorrtuénen satisfáccio: bercebát, itzáltzea edo templátzea sucái becuráco: bercebátzuc biotzarén zabáltzea, aurpeguiarén serenátzea, colorean viztea, moguim(**en**)tu gucién modéstia, baitaré berce anitz gra(**ci**)a, gloriaráco prenda, ta esperánza sano consolagárria. Baña cer aináiz ni contatu náies comun(**ion**)e sagrat(**uar**)en effectoac, dirélaic ezin contaála? Cer on denic ez dezáque eguin, ta eztú naico eguin, ta eztú eguinen etorric gloriaco Jau-nac Esposo guisa gure arima pobrearí gure pechoarén echolagóntan? Baldín arima agradecitua barimbáda, ta itembadió errecibim(**en**)tu óna? Exémpu biz S. Theresa, bein ez solam(**en**)te favorátu dono esp(**iri**)tualeéqui, baita ere artubaizue miragarriró bere Esposatáco, ematencióla éscua, ta itzebát señaletán, ta erratencióla, yá emendic alcina, Esposa eguiáscoa becála, zelatucodúzu nere honra & Eta comecatzcén aldióro betecencé glorias & Eta sandu guciéc ordugúra zúte berén descánsu ta gustocoa múnduan, nola gloria-guisabát. *Ô sacrum convivium* & *Ô* convita sagr(**atu**)a, nón Chr(**ist**)o errecibitzenbaita, bere passioaren mem(**ori**)a eguiten, arima gra(**ci**)as betétzen, ta gueróco gloriaren prenda emáten. amen.

## Sermo in Dominica Vicesima post Pentecostem

*De Fide integrâ et requisitis ad gratiam.*

Horâ septimâ reliquit eum febris. Joann. 4.

Erregue-guisa cen Jaunbatec omenzeuca héri sêmea, dió Evang(elio)an, eta Jesus onagána joánic escatzenció, zetorréla ta sendazézóla bere sêmea, ezi il-urrán cego yá. Jaun div(ino)ac erráncio, ezpaitúzie icústen señáleac eta prodigioac, eztúzie sinésten. Arc ségui bere tema, Jauna, betórr, ilbañolén ene sêmea. Jesus ónac orduan, Zoáz, vicidá zure sêmea. Bazoéie onéqui guizonói, ta ará non aurquitzen tuén videan Mutilac elduzaizquióla ematera berri óna, vicicéla arren sêmea. Galdetuzué órduas, noiz ema(n)zuen oberá. Ayéc, Jauna, atzó zazpietácoan utzizué sucárrac. Ezaunduzué Aitac, céla ordugúra bera, ceintan Jesus ónac erra(n)cion, vicicéla arre(n) sêmea. Eta sinestatuzué berac, ta bere éche guciac. Orrá Evang(elio)a. Imbeardúgu orái, baratzezái edo Necazári onarén guisa, naidueláic ecarraráci fruitu, moguitzen ta moldatzenbaitu lenic lúrra: Lurr óna ta fruitu emállea dá Evang(elio)co historia, moguitzen ta moldatzendá explicátus án dióna. Ortáco ta guciétáco digúla gure Echocándre div(ino)ac, gra(ci)aren otaména. A(ve) M(aria).

Fédea edo sinéstea déla ón gucien principio ta ciméndu, mostracendú Jesus onac, ta declaratzendú Elizac. Ezpaitúcie icústen señáleac ta prodigioac, eztúcie sinésten, erratendió egúngo Jaunará, baita erreprehénsio-guisabát fede-faltas. Dirúdi bada bazuéla fede, elduzeláic escatzerá sendazézon sêmea, ezi etzió escatúco, ezpázue sinétsi céla salvazále edo sendazále. Baña fedearén gutia dá aguéri errátean zetorréla, ezi sinestaturic Jang(oic)o céla bazúque chsaquín etzúela joanbearric sendatzéco. Centuriónac yago fede zué, ezi Jaun div(i-no)ac erránic, joanennáiz neuráu, ta sendatucodút zure muticoa, errespondatubaicio arc, Jauna, eznáiz digno datórren beróri ene echéra, baicic solam(en)te itzes errambez, ta nere muticoa izanendá sano ta salvo. Egungoarén fede-falta dá aguéri, señale ta prodigio icusináian sinestatzéco. Fedea dá sinestátzea icusigabe Jang(oico-

**ar**)en itzagátic. Sinestegói eztatórr biotzerá ez beguietáic, ez bérce sentidoetáic, bai adim(**en**)tutic. Adituasgueros Jang(**oicoar**)en itza, eztá icusibearric. Berce álde icústean baleizque beguiac engá—

### 130

ña; ez alá adim(**en**)tua Jang(**oicoar**)en itzas. Alaére arc icusinaizitue señaíleac.

Guciaréqui Jesus ónac arren semea eritasunetic, bera ta bere familia libratzentú infielitasunetic. Oh Jaunarén liberála! Cer órdus emánzuen obéra, galdeiténdu Aitac. Zazpietácoan izancéla, erratenzáio. Ain chústo zazpietácoa(**n**), ta ez bérce ordubátean oguéi ta lauretáic? Badú mystério; móstra emancígu, ezi arima sendatzecós perfectóqui, beardiréla zázpi obra penitenciásco, ala nola zázpi órdu. *Hora septimâ*: Dá S. Viz(**ent**)e Ferrerrec<sup>1</sup> inzuen errepároa au.

Goácen icúsic. Lembic(**ic**)o órdua, edo oronbáta becála dá ezauncea, edo examinátzea conc(**ien**ci)a: ezi becatári miseráblea ezaum(**en**)turicgábe contú dagóla gauásco ilúmbean: Lembic(**ic**)o astendénean acordurátzen, contú déla arguiástea arrendáco: Nic cer eguindút? dió. Nola vicináiz? Cémbat becátu, cémbat miséria! Cer izanénce nitas, auchibalida viciarén ária Jang(**oico**)ac? Oh! nolaco arrichscoan egonnaizen ló serpienteén érdian! Auchse dá lemb(**icic**)o órdua, ceintas ción S. Pabloc, (rom. 13) *ene anáiac, idatzarcecó ló gaichstotic, ezi urbilágo dá orái gure sendátzea*. Passatudá gáua, ellegátu egúna: goácen despeitus iluneco lanac ta *gauzac*. Becátuan egótea deitzendu lóa. Lo dagóna eztá valiátzen sentidoes: erdi-ilic dago: becátuan dagóna baitágo erdi ilic, viciric gorpútza, ilic arima; eta alá egón egón ásko egúnes, ta ilabétes aguián, ta aguián urtes ére. Oh cémbat nola eztaquitéla idatzarrencendiren infernua(**n**)! Bercebatzúc ala nola idatzarcentuén Nausiac bere Nirábeac, ots ordu dá, goácen chsaiquis, alá idatzarcentú naituénac Jang(**oicoa**)c letargo mortaletic ere.

Bigárren órdua dá contricio biotzéscoa Jang(**oicoar**)en errespéto, déla amoreagátic, dela beldurragátic, ezi penátzea solam(**en**)te galduagátic hónra, ondásun, ta gauza lurecoetáic dá dolóre naturála, eztá prochál, sendatzecó becatuetáic: beárda izan urriquia edo pena offendituas Jang(**oicoar**)en Magest(**ade**)a bentzáit galduagátic gra(**ci**)a ta gloria merejitus infèrnua, ori deitze(**n**)baita Atricio sobrenat(**ural**)a, ta confessioaréqui bateo asqui déna doi doia, ta gabe ez:

<sup>1</sup> Ferrerrec dio, ez Ferrerrec; ez dago laburturik.

edo penátzea offēdituas Jang(**oico**)a, ceren ain óna dén ta amáblea, intencioréqui confessáceco ta emendáceco, ori deitzenbaita Contri-  
cio, ta orren casos barcatzendire becátuac confessatu bañolén, naiz  
guelditzendén obligácoia confessáceco. *Dixi, confitebor & ps. 31.)*  
*Erránnue, confessatucodút*

*130at.*

*neure gaizqui eguina neure contra Jaunari; ta berórrec barcatudida.*  
Eztió, confessatucodút, ta barcatudida, baicic confessatucodút, ta bar-  
catudida confessatu baño lén ere, contricio amorescoarén medios,  
baña alaére ezdezáquet utzi confessatuzéco, confessatucodút.

Irug(**arre**)n órdua dá agósco Conféssioa: ceréqui daique compá-  
ra? Sangriarequi, ceñéqui atratzenbaita odól gaichstoa curacecó: edo  
goragarriarequi, ceñequi egoztenbaita agotíc becátuen pocioa. *Ore*  
*autèm confessio fit ad salutem*, dió S. Pabloc, Agoas itenda confessioa  
se(**n**)datzéco ta salvatzéco. Eztá ásqui ezauntzea gaitza; eztá ásqui bil-  
tzea memorian; ezta ásqui penátzea ére; ustubeárda confessátus; ala  
la<sup>2</sup> nola quárttoa daucána beteríc immundicias, eztá ásqui biltzea zo-  
cobatéra, ezpada botatzen campóra. Ala botabeárda agoarén ataritic  
conc(**ien**ci)an bildudéna. Alá céna lén esp(**iri**)tu gaichstoen cubila,  
itenda esp(**iri**)tu sanduaren témplo. Alá cegóna eri mortál becátuen po-  
cioarén casos, ustutzearéqui sendatzénda; ustugábe eztaique sendátu.

Laurg(**arre**)n ordua emendátzea, edo emendatzecó propos(**it**)o  
firmea. Gaizquia ezaundu, penátu, confessátu; ta gueró? Emendátu.  
Ontará elduda gucía, ala nola pulsátzea, lancétas picátzea, sangará-  
tzea elduden se(**n**)datzerá: ezpada au lográtzen, guciá dá alférr lán.  
Gaizqui indúzu becatuéqui Jang(**oicoar**)en cóntra ta zeure cóntra:  
zindoézi eriotzerá, eriotzetic infernurá: pára yá: ez passa alcina: artu  
berce videríc, aldátu vicimodus.

Borzg(**arre**)n órdua penitenciarén cumplitzea, emánes Jang(**oi-  
coa**)ren justiciái satisfáccio bere gaizqui eguinas. Llága idiquidá con-  
tricioarén lancétas, confessioas atradá barneco dáñua, bearda oráño  
gañetic penitenc(**iar**)en emplástroa edo pegádoa, sendatzecó gucís.  
Ezpliczágun claro. Bi gaitz dire becatu guciétan, cúlpa ta pena:  
Culpa barcatzendá beti confessátus beárden dolore, propos(**it**)o, ta  
penitenc(**iar**)en cumplaceco intencioaréqui: baña comúnqui gueldi-  
tzendá yago edo gutiágo pena pagatzecó penitenciasco obraéqui,  
báru, orácio, limósna, indulgencia ta alacoéqui.

---

<sup>2</sup> *ala la* dago, baina *ala* lerro baten bukaeran eta *la* hurrengo lerroaren hasieran.

Seigarren órdua confessioái darraizquion obligácioen cumplítzea,

### 131

ala nola injúrien barcátzea, barcácio escátzea bearrduenái, baquétzea, dañu eguinen errestitúcioa, baitaré ocaseo proximoetáic goártzea, ta alá: Eben cumplítzeco propósito zuelaco ustés absolutuzue aguián confessóreac, baña cumplítzen ezpáda, edo llága curátua berrirendá, edo falsuan joánce curácioa, ala nola guelditubalitz llagarén bárnean zur edo burriña puscarenbát. Atra atrabeárda sendatze-cós óngui. Errencórea biótzean dá burriña llaga-bárnean: Bercerén gauza itzulibeárta contú agótza beguian, edo zur izpita aráguian. *Non dimittitur peccatum, nisi restituatur ablatum*. Eztá becatua barcátzen, ezpáda obligácioa pagátzen.

Zazpig(**arre**)n orduan sendatucé perfectoqui egúngo heria. Zazpigárren órdua ustedú S. Viz(**ent**)ec comunione sagr(**atu**)a, nó n aurquítzendén Medicu div(**ino**)a sendatuzuéna ura. Óntas erráncio Aitari, zoáz, vici ta vizcór dágo zúre sémea. Eta ásqui izánze errátea, vizcortzecó órdu bérean. Cémbat yago dá etórcea bere Magest(**ade**)a béra presénte nére barnéra? Ez solam(**en**)te gra(**ci**)a ematendú, baita ére gra(**ci**)a gucien iturria plantatzendú nere bárnean. Jesus salvazálea gueuréqui, nola eztá obratucó salvácio gucía? Oh! Baguindéqui dúgun óna Comuniónean! Baguindéqui errecibitzen, ta lográtzen escaida!

Azquénean dió Evang(**elio**)ac, convertitucéla guizongúra, ta bere éche gucía. Cer itenduén exemplu ónac, eta Cargudunarén dilig(**en**)ciac gure Jaunaréqui báteo? Imbez inála, ta gañetic encoménda Jang(**oico**)ai. S. Andres Corsino burátsoec logratuzúte Jang(**oico**)agánic orácioen cóstus. Amac sabélean ceucálaic encomendatzenzue especiálqui Ama Virg(**inar**)en medios. Baña libratubearzen Vézperan inzue améts zeramála bárnean otsobát, cein guero joanic templorá itzulcencen achsúri. Jaióce aurra, azizúte ongui, baña lagun gaichstoéqui cutsatucé gaichstaquérian. Aitac aldebatétic, Amac berce al-détic errán ta eguin oneratzéco, baña prochuric ez. Egunbátes al-quegábe subervoquí mintzaturic bere Amái, erráncio oné negárres, ciérto zu zaía otsogúra nic amets innuéna neramála sabélean: baña Jang(**oico**)an esperánza dút oráño inenzarela achsúri. Acorritucé sémea, ta yá humil galdeguincio, cer améts, cer ótso, cer achsúri cén cióna. Contaturic Amac, ta nola ceucan ofrecituric Jang(**oico**)ai Ama Virg(**inar**)en echéco, arc belaurico escatució barcácio, sartucé Carmesen Errelig(**ios**)o, eta inze achsúri ta sándu. Eguingaizala gú ere bere Mag(**estade**)ac. Amen Amen.

## Sermo alter in eâdem Dominica Vicesima post Pentecostem

*De viâ hominis in adolescentia.*  
Filius infirmabatur & Joan. 4.

Dúgu evang(**elio**)an semebát heri iletsiríc, Aita diligént arren on-  
náies, eta Jesus óna guciá erremediátzen. Aitac éscá ta éscá, Jaun  
div(**ino**)c itendio gra(**ci**)a, zoáz, ezi vici ta vizcór dâgo zúre sémea.  
Guizonarén vicitza nola dén, beréchsqui gaztezútuán consideratzeco  
dúgu escaida, ta procuratzeco erremedioa. Ortáco lenic estimazágun  
Ama Santissima<sup>1</sup>. Ave M(**ari**)a.

Asténce ilcen semegúra goiz-edérr, astencelaic vicitzen. Óngui  
dió S. Basilioc, mundugáu déla iltzen daudénen lécuá; eta S. Greg(**o-  
ri**)oc, ezi lurreco sustancia, edo ondásun guciá comparaturic an goi-  
tico felicitadearéqui pizu ta nequebát déla, ez lagúnde: vicitza dem-  
boragontácoa vicitza eternoarén áldean ério deitu beardéla obéqui  
ezi vicitza, ezi gorpútz galquidacorruguében egunóro deseguines joa-  
tegáu cer dá baicic iltzebát continócoa? Ceren ezi jaiogasguéros vici-  
garéla dioguláic beti goáza iles iles, egunetic egunerá istántes istánte  
urbildus eriotzearén mugará, etzi baño urbilágo atzó, atzó baño ur-  
bilágo egún, eta alá seguidan, eta azquen instántean acabatzengára  
iles. Plazoa dâgo gucién ta bacochaindáco assentaturic, nondic eztén  
pausuric alcina. Cein egúnes dén bucá, alchaturic dagoquigu, ezcai-  
tzen bátean ere descuida. (exempl. Baltasar, dives in evangelio &)

Humillagaitzen Jang(**oicoar**)en escu poderosoarén péan, ceñetaic  
dagon dilindacá guizóna ala nola liza birubátes, ezi dén vici viz-  
corréna gorénas dá liza birubát auchsteco ta ebaquitzechoil  
errátz déna, especialqui vicibagára Jang(**oicoar**)en cónta. Ô tonte-  
ria! Eta ô Jang(**oicoar**)en paciencia! Milagroguisabát dá aguantátzea  
cembait aimbérce dembóras. Norc cónta berce alde gure lurréscó  
echolagónen itachsúrr, ta malderreriác? Cémbat gaitz género alde

---

<sup>1</sup> SSma eta laburgailua.

gucietatic, barnetic eta campotic? Cembat áldis viciaren sustentatzeco direnéqui laburtzendá vicia? Ján edán, diversio ta gustoen amóres heritzendá osasúna, ta golpátzen edo bulcátzen becála dá lurrésco ormagáu, dagóna ez eróri bai eróri macurrturic? Languébec itendire espeCIALQUI gastezútuán. Baña gorputzarén gaitzac eta peligróac anitz ba-

## 132

dire, eztire gutiágo arimarénac. Norc cónta?

Egúngo gastegúra cégo héri calentúras, edo sucárras. Sucárr arimaréna dá inclináció, afficióne, ta amóre desordenátua múnduco placér, vanidáde, ta gauzaetára, baitágo sarrruric zañetán bárna jaiótzés, ta ichequitzen, ta aum(en)tatzendá lagún gaichstoén fueleéqui. Nor libratucodá, ezpáda Jang(oicoar)en maite, ta amánte déna? Fortunósoa gástea goarcendéna bere dembóran, ez ustecó errenditzéra munduarén engañuúi, naiz cósta, naiz doázan tropadan gañaráoac. Aguitzendéla idurizaida gastezútuán aguitucén guisará Nabucodonosor subervoaréqui. Manatuzué arc, inaraciric estatua urrésco aundibát, joatecó guciác arren adorátzera: Bazoézi guciác alde gucietaic, ta adoratzenzúte bultogúra. Solam(en)te irur mutico gaste escogituec etzúte naiizándu seguitu. Cóntu emaníc, deitzentú Erréguec, eta paraturic alcinean erratendióte serio, eguiáz eztúcie nai adorátu ene Jang(oico)ac ta státua urréscoa? Orái bada edocéin órdus emandáien señalea, parazaiste belaurico auspésca lúrrean, eta adóra ene státua: ezperén, botaracicozaistet sugarretán egoinden labebatean: Eta nor dá Jang(oico)a libratucozaisténa nere escuetaic? Errespondatuzúte sereno, Eztagoquigu guri errespondátzea libratzearén gáin. Gure Jang(oico)ac gaizque libra orren labe, ta escuetáic, naibadú; baña naiezpádu ére librátu, bego chsaquinic orren Magest(ade)a guc eztugúla adorátuco orren státua. Indignácios berteric Erreguec berealá berealá<sup>2</sup> manatuzué ichéqui labea su andiaréqui, ta botacezquitéla irúrac loturic escu oñetáic. Botazúste, ta botazáleac sugarres istánte errecire, baña irur muticoac zebiltza suarén érdian suelto passéatzen, uquitugabe bilobátean ére, cántus bedecatzen Jang(oic)o Jauna, *Benedicite omnia opera Domini Domino* & (Dan. 3.) Goácen applicátus: Nabucodonosor dá mundu Jauna: Estátua urréscoa Vanidadeén Vanid(ade)a. Dá urrésco, cerén valioduen anitz vanoén estimácioan: Dá státua, edo tállua, cerén gusto-idúri, hónra, ondasun, goápo-iduri baita gucia sustanciaricgábe, *mundugontáco figúra doaiéna passátus*, dió S. Pabloc. (1 Cor. 7) Se-

<sup>2</sup> *berealá* bi aldiz dago.

gui alaére gueiéneç: Ez alacoric arima ederréneç berechsituéneç Jang(oico)ac beretáco, ta prevenitu bere gra(ci)as, arima ónas, ta arimo constánteas, ezi librátzea gucis gastezútuán sucárr cutsuscogortaic dá Jang(oicoar)en milagro-guisabát, nola irur muticogáien librátzea Babiloniaco sulábe andigártaic.

132at.

Ortáco dá ere avantálla fortunátzea óna Aita, óna Ama. Eztute guciéc fotunagói. Gorputzái dagoquiónas bidedúte ajóla gueiéneç: ortas ére cuidatzenetzuténac bidedá cembáit ajolacábe, jan, edán, ló eguin, divérti, datorréna datorla orr compón, gaichstoágo ezi animáleac, ezi ardiec ere, chacúrrec, ártzec, choriéc, guciéc dúte cuid(ad)o humeén susténtuas: baña ori eztú ásqui Aita eta Ama Christioac, ezpádu cuidátzen humearén arimas. Ezperén, cuidátzea gorputzarénas, ta arimarénas ez, dá izátea zaiaren bilzále, ta irinaren barrazále: bióc beárr, baña záia ón, írína óbe. Doctrina óna emán, consejátu óngui, corregítu, zelátu & Len léna beti joán alcinean exémpu onaréqui. Virtúte anitz, dilig(en)cia, ta maña bearda, izatecó Aita óna ta Ama óna. Gucién alcinetic eta gañetic encomendátu gure Jaunái, Ama Virg(in)ai &

Berce fortúna onbat lúque aurquibalez lagún edo adisquide onbát, ceñequi daiquen fia ta comunica. Sanduaréqui izanenzára sandu, dió psalmo 17. ta gaichstoarequi gaichsto, *cum sancto sanctus eris* & Alabér Proverb. 13: *chsaquintsu ta juicioscoèqui dabilána izanendá juiciósco, ta zóroen adisquidea aien guisará eguinénda*, ceren ezi elcárr apegatzendire condicioac, especiálqui gaichstoac, aiságo ezi sarna ta edocéin gaitz cutsúsco. Eztaquize oránz gutibátec alteratzenduéla orea gucia? dio S. Pabloc. (1 Cor. 5) Adisquide obéna dá Jesus Salvazálea aurquituzuéna egún Aitagárrec. Non aurquitucodúgu? diózu. Confessioan eta Comuniónean; Confessioan barcátzen, comunio(e)an besarcatzenzaituéla; comun(ione)an bera presénte erreálqui, confessioan bere Ministroaren medios. Naiz confessóre guciéc izánic potest(ad)e absolvicecó ongui disponituric doaiéna, ta ór-tan bardin izánic, eztire bardin guciác disponitzéco, ta governatzéco. Billabéz bacóchac aldezáquen chsaquintsu ta sanduéna, ezi gorputzaindáco baguindu autará, naicobaguindezáque Medicuric obéna, cémbat yago arimaindáco? Aurquitasgueros fortunagói, segui batéqui, ezi Medicu daquiéneç gure complexiónea obéqui gaizque cura: Ez ibili aldaquétan necessidadericgábe. Bada cer diót comecátzeas? Eztaique errán ásqui beñere. Usabaguindez ongui, sendaguindeizque eritasunetaic, manteniguindeizque sano ta sendo gra(ci)an & &.



## Sermo in Dominica Vicesima Prima post Pentecostem

*De misericordia divinâ et humanâ.*

Nonne ergò oportuit et te misereri conservi tui, & Math. 18.

Egungo evang(elio)a elduda S. Pedrori Jesus onac erranarén gañetic: S. Pedroc, ceñi emancition bere Mag(estade)ac Ceruetaco erreinuaren guiltzac, au dá, potestad(e)ac lazatzecó ta lotzecó, barcatzecó ta ez barcatzecó, galdeguincio bere Mag(estade)ai, combat áldis bearcion barcátu bere anaiái? ya zázpi alditaraño? Errespond(atuci)o, ez solam(ent)e zazpi aldis, baita ere iruoguetamazázpi<sup>1</sup> zázpis. Seguidan bada egúngo Evang(elio)an mostratzecó cein generoso liberalágo dén bere Mag(estade)a guréqui, gu garen baño gueuren anáia Christio lagunéqui, dió aguitzendéla Ceruetaco erreinuan, au dá, Elizan, ala nola Erreguebatéqui, ceñec arturic contuac bere zervitzucoei, aurquituzué bāt zióla zorr amarr milla talento, nondic paga etzuelaric, manatuzuéla salceco bera, bere consórte, ta zuén gucia. Siervoac paraturic belaurico escatució, arcezála paciencia, ta joaincéla pagátus. Urricarituric Jaunac utzizue libre barcaturic zorr gucia. Andic atraric siervoac aurquituzué bere lagunbát zorrzióna berai egun maravidi: eta eucharic tiesso apretatzenzue erratencióla, pagazác zorrduquéna. Onec belaurico escatucio, arzadázu paciéncia, ta pagatucodizut. Arc etzue nai, baicic joán ta sarraracizue carcelean pagatuartaño. Aituric Nausiac deituzue beregana, ta erra(n)cio, siervo chárra, nic urricarituric barcatunia iri zorr gucia: Etezé arracio i ere urricaritzea eure lagúnas? Asarraturic bada castigaracizue orgátic. Acabatzendú Evang(elio)a itzguebéqui: Alá inendizie ene Aita Cerucoac zuei ere, ezpadioze barcatzen norc bere anaiari biótzes.

<sup>1</sup> Lehenbizi *iruetaamazápi* idatzi dute, gero lerro tartean *guei* erantsi, eta aldatu erdiko *-eta-*, honen lehenengo hizkia *o-* bilakaturik. Aldaketa hauek Donostian eginak direla uste dugu. Lizarragak berak «*iruoguita-mazazpi*» ipini du 134. or., 1. paragrafoan.

Onen gañean goátzen aipátus Jang(**oicoar**)en miseric(ordiar)en andia icastéco izáten misericordiósó gu ere. Ó miseric(**ordiar**)en Ama. Ave M(**ari**)a.

*Benedic, anima mea, Domino & díó Davidec* (ps. 102) Ene anima, bedeica Jang(**oico**)ai ta nere entraña guciec bere ízen sanduái. Bedeica, ta ez atzén beraren emánac emanen gañetic, beti emán ta emán baitágo. *Qui propitiatur & Duéna pied(ad)e* zure gaizqui gucies, sendatzenúena gaitz guciac. *Qui redimit & Atratzenduéna* eriotzetic zure vicitza, coronatzenzaituéna miseric(**ordi**)as ta favoreés. *Qui replet & Asetzenduéna* zure deseoa ondasúnes. *Miserator, et & Misericordiósó*a, ona, ta onguieguillea gure Jauna, paciencia ta miseric(**ordi**)a anditácoa. *Non in perpetuum irascitur & Eztá* beticos asarrátzen, ta eztá castigatunáia eternogui<sup>2</sup>. *Non secundum peccata nostra & Eztú* eguin guréqui gure becátuen ariorá, ta eztígu pagátu gure gaichstaquéric meréji becála. *Quo-*

133at.

*modò miseretur Pater*<sup>3</sup> & Nola Aita ona urricaritudá humees, baitaqui gure fragilid(**ade**)a. *Recordatus est & Oroitudá* garéla auts; guizóna lurréco lore ta belárrain guisa deslorátzen ta eártzen fite. *Misericorida autem Domini & baña* Jaunaren miseric(ordi)a eternidadic eternidaderá beldúrr diotenendáco. Gucióc díre Profeta errealarén itzac erránac Esp(**iri**)tu Sand(**uar**)en inspirácios, ta eguietafedeac. Bai sínés óna, onguieguille barcatunáia dúgu Jang(**oico**)a, eztaique duda. Eztá numeroic, ez neurri, ez mugaric beraren misericordiai. Eztá cer errán, onaraño bai, aratágo ez. Gutiágo daique errán Cáinec erranzuéna, *andiágo dá ene gaichstaquéria, ezi Jangoicoaren*<sup>4</sup> *barcatunáia*: cerén ezi guizónac itendú becátu guizon becála, baña Jang(**oico**)ac barcatzendú Jang(**oic**)o becála. Testigos beteric dago Cerua joandirenes arara Jang(**oicoar**)en miseric(**ordi**)agátic, ezperén joanenbaicire infenuetara. Testigos beteric Purgatorioa: testigos beteric múndua, ta dembóra guciac salvacioco videan paratutuénes piedádes ez condenatunaies. Inférnuan ere eztitu castigátzen mereji adiña, ta an direnetáic eztá joán niór Jaunarén fáltas, baicic beren culpas. Eta cémbat eta cémbat bidedaude viciric aspáldian joanbeárrac, ezpalitu detenitu Jaunarén piedádeac. Óngui beiraturic áscoc dezaquégú errán eguiáz cíona S. Agust(**ine**)c *Eripuisti me de*

<sup>2</sup> *eternogui* díó, eta ez *eternoqui*.

<sup>3</sup> Ez du azpimarratu *modo miseretur Pater*.

<sup>4</sup> *Jang.*<sup>on</sup> díó.

*inferno* & Atranáu, Jauna, edo libratunáu infernutic bein, bi, irur áldis, egun áldis, milla áldis. Justoqui milla áldis condenatunindúque, *naiizambázue*. Ezpagaude án, nori esquérrac? ez guri ez, bai Jaun onarí, naiizanbaitu goardátu bere offendizálea gra(**ci**)as. Orái berean barcatunaiezpalez, bere borond(**at**)e ónes, norc dezáque obliga justicias? Baña alcinatuágo dago eguitera gra(**ci**)a, ezi ez gu eguitera oblig(**aci**)o dugúna. Norc ongui penaturíc escatudió barcácio, ezpaitio barcátu?

Óntan ere dá claro aguéri gure Jaunarén óna, ta barcatunáia, emanbaitu bere itz erreála, barcatucodióla becatariái edocein órdus convertidáien. Prontoágo daucázu barcatzerá, ezi zeuroi escacerá. Eztúgu leitzen Escrit(**ur**)a sagr(**atu**)an, utziduéla barcatugábe niór escatudioníc, ta leitzendúgu anitz billátu, deitu, convidatutuénac gra(**ci**)ara, oroitzen etzirelaic berac. Cer yago errandaique errátera noaiena baño. Judio madaricátuec milla gaizqui eguin ta gurucificatuondoan Jesus ona, lástimas arriac zaticatzencirélaic, ayéc urriquitu, ta barcácio escatubeárrean, escarnio itencióte gurúcean ilcerácoan ere. Eta cer itendú Jaun ónac? Lemb(**icic**)o itza

## 134

aien favóre itendu, *Aita, barcabezóte, ezi eztaquite cer aidiren*: alá mostrátus yago pena zuéla ayen gálceas, ezi bere iltzeas. Eta erreálqui convertitubacire, barcátuac izanencíre, nola izanbaize Longinos lanzada emancióna, baitauca adisquide onétsia glórian. Amarr milla taléntu barcacentú, solam(**en**)te escatzeagátic barcácio: Anitz urtetáco maldádeac ordu batecó negarragátic. Ó Jang(**oicor**)en misericoridiáscó milágroac! Obra ándiac eguintú bere Mag(**estade**)ac; baña *miserationes eius super omnia opera eius*: Bere obra gucién gañetic bere miseric(**ordi**)a eguínac. Maldáde anitz andiac temenárioac<sup>5</sup> barcacentú, noiznai escadáquion sinés penaturic. Eta ori bein solamente aguián? edo aguián zázpi áldis solame(**n**)te? ción guisan S. Pedro. Baita ere iruoguetamazázpi zázpis. S. Pedro naiz guizón sandua, cé guizón, ta alá neurria zué labúrr; Jesus naiz izánic guizón, dá Jang(**oic**)o báteo, neurri andia dú barcatzecó guizónei. *Alá ta aimbércé onétsi dú Jangoicoac*<sup>6</sup> *mundua*, dío S. Juanec, (c. 3) *ezi emándu bere seme bacárra, eztaingátic gáldu niór ere sinestenduenic berabaitan, baicic logradézan vicitza etérnoa.*

<sup>5</sup> *temenárioac* dío, eta ez *temerárioac*.

<sup>6</sup> *Jang*:<sup>c</sup> dago.

Agrávio ándia itenzáio bere Magest(**ade**)ai desconfiátzeas bere misericord(**i**)an. Cer maldade andiágo daique pensa inzuéna baño Judas Apostolu traidóreac? Jesusen cóstus izán susténtu, dignid(**a-d**)e, hónra, ta zuén gucia, Jesus onac eguin aimberce favore, eta ala ére arc Jaun div(**ino**)a sáldu Judioéi ta ain mérque! Eztá ori maldáde temenáríoa<sup>7</sup>? Bai ta alaére dio S. Geron(**imo**)c (ap. Cl. p. 1. c. 27) *Yago agraviatuzuéla Judasec gure Jauna urcátzean desesperaturic bere búrua, ezi ez sáltzean bere Magestadea*<sup>8</sup>: Eta S. Agust(**in**)ec, ezi Judas traidórea galduzuéla arrás ez bere maldáde eguinac aimbérece, nola desconfiátzeac barcácioas. (hom. 27.) Eta bazúque esperátu? Icusgárri izanénze, barcatubácio arri ere! Ain segúro icuscocindúte barcaturic Judas traidórea, convertitubáze óngui, nola S. Pedro, nola S. Pablo & Eztéla eztéla bacochoic ere condenátzen Jaunare(**n**) miseric(**ordi**)a-faltas, baicic berén faltas. Gracióso dá cembáit penitenteén galdeguitegúra, barcatucootedida gure Jaunac? Artuotenáu bere gra(**ci**)an? Atranezázque nic dudagórtaic aisa, ni atrabanindezáte berce dudabatétic. Seguratzanbanaute berén contricio ta confessorén ónas, nic Jang(**oicoar**)en partetic segurazentitúte barcácioas. Juram(**en**)tu eguindu bere Magest(**ade**)ac Ezech. 33) *vivo ego & vicináz ni, edo nere viciagatic diót, ezutéla nái gaichstoarén eriótzea, baicic convérti, vici, ta salvadáien. Bere gloria ta*

134at.

sendagállá dá garaitzea gure gaizquiac bere ónquies, triumfácea gure gaichstotasunagánic bere ontásun ta miseric(**ordi**)as. Orái idurizaidá entendatzendudála Ainguiruen cantico gloria in excelsis mezacoa(**n**) dión gauzabát, neure alde bentzáit; Dió án, *Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam, Graciac edo esquerrac ematentiógu, Jauna, bere gloria andiagatic*. Nió nic lén, bere gloria andiagátic enhorabuénac ta laudárióac emátea dirúdi consonánt; gra(**ci**)ac berriz ta esquérrac intigun favoreengátic. Baña edérrqui dió Elizac, *esquérr milla ta gracia*<sup>9</sup> *bere glori-andiagatic*<sup>10</sup>: ceren ezi favóre eguitea, ta barcátzea dá gure Jaunarén gloria ta sendagállá duén andiéna, eta ori ongui dá guretáco: berás cantazógun alegrequi, *gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam, esquerr milla milla ta gra(**ci**)a ematendiógu, Jauna, bere gloria duenagátic barcátzean becatáriei.*

<sup>7</sup> Berriz ere *temenáríoa*.

<sup>8</sup> *Magest.* dago.

<sup>9</sup> *graa* eta laburgailua.

<sup>10</sup> *glori* dio, eta ez *gloria*.

*Misericordias Domini in aeternum cantabo.* Berórren miseric(**ordi**)ac cantatucotút eternoqui eternid(**ade**)an. Esperanzagonéqui vicináiz.

Jang(**oicoar**)en miseric(**ordiar**)en andiarí beira chsoraturic casi atzendugára gueure(**n**) miseric(**ordi**)a itéco manatzendigúnas. Pichscac dire guc barcadezazquégun injúria deitzentugúnac berarén offensaen aldean. Cer dire egún maravidi amárr milla talentoen aldean? Eztire aimbérce ére guri eguinac, Jang(**oico**)ai guc eguinen aldean. Orái bada erratendigu bacóchai, nic zuri barcátu amárr milla talénte, eta eztá arrácio barcátzea zuc zeure lagúnai egún maravidi? Elcarréqui ta elcarrengánic deus izangábe obe litzáque vicitzea, baña Ceruan izaindúzu dichagoi, munduan, ceren faltaricgábe niór eztá beittigóntan, Jang(**oico**)a ezi: eta alá naibauzu vici sufritezoric bateregábe, zoáz Cerúra. Baña etzára joánen, ezpadúzu emen sufrinunái batere. Beren buruen contra guti baitire emateunténac, baicic indidáte au, errandúte bercegau, ta alá contraco aldéra, quejatubeárrrean bacócha bere co(**n**)tra. Eta zuc eztúzu bearreztenic eguin edo errán? Quexazaite órtas. Jauna, obligaturic eguin ta errandut nic ere. Bada quifto: elcárr pagatuzaráte, biec galdu, ta bien partes Deábruac ganáncia tira. Biden asárrea da ala nola Deabruarén gustoco música edo solfa, batac errán gaichstobát, berceac bercebát, batac cólera, berceac ira, Deabruac irri. Batac cánta, bérceac

## 135

canta, ta Deabruac dánza, ta cantáric pága.

Baña cóleran, ta odol béroan bein edo bein assarrátzea dá guizonaréna, iran irautea da Deabruaréna, barcátzea injúriac dá Jang(**oico**)aréna. Au dá manatzendigúna Evang(**elio**)an. Bearrdúgu onétsi biótzes injuriazálea, naiz zillégui dén escátzea norc bere dréchoa justicias ére: baña odios ta mendécus eguitea eztá zillégui séculan. Orái bada in inála ez izáteco asarreic nióréqui: baña izanasguéros, ez egón mendecáceco intencioan, ez eguín mendecuric séculan, barcátu déna, barcadezongátic Jang(**oicoa**)c berarí. Sentidelaric ira passatuarén erresumina, itzúli Jang(**oico**)agana biotz bárnean, ta errán, *Jauna, orrén atencios, orrén amores naidut onétsi ene contrarioa ere; barcatzendiót, barcadezádan orréc niri: ongui imbezo arri ta niri ere bai.* Ezpadúgu barcatunái, eztáquit nola naidugun barcadezágu(**n**) Jang(**oico**)ac guri, ta nola deitzengáren Christio, edo Christorénac. Orái naiduénac devócios in yágo, Jang(**oico**)ai emán gústo especiála, ta gueréi provéchu andia, litzáque eguitea nióri baño gogoticágo favóre ta mercheche contra indigunái: litzáque ori nola ofrátzea urre fin fiña Jang(**oico**)ai, delaic claro itendéla berarén amóre puros. Ó

cer premioa! cer corona! S(an)ta Catal(in)a Senacoac zervitzacenció carid(ad)e puros emastequi heri pobrebáti cancella zuenái pechoan, ta usaíagátic guciéc utzi ta desamparaturic cegonái. Sandac assistizenció sanda becála ezin yagos. Alaere emastequi desagradecituac estimatubeárrean pagatzenció esquérr gaichstos, eta Deabruac inspiraturic goratució testim(oni)o falsu indignobát. Sandac segui alaére ongui eguitean garaitus ones gaizquiac. Quadraturic Jesus ona carid(ad)e alácoas aparecitucéqui amoroso, bi coróna cecarzquióla autará, bat urre ta diamantes, bercea arancescoa, ya cein naizuen. Sandac erránzue, Jauna, mundugóntan naidut conformátu berórren trabáju, passio, ta eriotzearéqui, naibadida goardátu berce munducó berce coróna. Eta alá arturic arancescoa frincatuzué fuertequi bere buruan. Jaun div(ino)ac laudatució eguitenzuena, manatució seguizezála, ofrecitució prémio andia. Eta berladanic ezaunaracizue munduai falsed(ad)e gorátua, ta sandarén santid(ade)a. Eta bada guciéc naidúgu Jang(oicoar)en pied(ade)a ta barcácia, garaizquigun gueuren genio gaichstoac, inzágu(n) ongui gaizqui indigutenéi, indezágun Jang(oicoa)c guri ere gra(ci)a &.

135at.

## Sermo alter in eadem Dominica Vicesima Prima post Pentecostem

*De Ratione debitorum nostrorum.*

Debebat decem millia talenta. Math. 18.

Egungo evang(**elio**)an dugu pintaturic Erreguebát contuac eguiten bere zervitzucoéqui, eta ebetáic bat amarr milla taléntoen zórreran atraric, ta ezin pága, humillátus eta escátus logratzenduéla barcam(**en**)tua; baña bere lagunbáti ez deusbát zorrciónai erchstúra sobra eguines déla castigátua, diolaic azquénean Jaun div(**ino**a)c ez-tigúla barcatúco, ezpadúgu barcácen. Utziric bada eguietafedegáu sponituric, barcatzeco guri Jang(**oico**a)c zorrdiogúna, déla precisso gueurec humil confessátzea zorr tiogúnac, barcácio escátzea, eta gueuren proximoei barcátzea edocéin agrávio indiguténa, goácen errepassátus gure cóntuac gure Jaunaréqui, delaic dembóra, guelditzecó barcaturic, edo zorr andiricgábe, plázoa érchi baño lén. Ortáco, ta gucietáco empeñazágun miseric(**ordiar**)en Ama Maria Santissima<sup>1</sup>. Ave M(**ari**)a.

Evang(**elio**)an dión Errégue dá gure Jang(**oic**)o Jauna: Bere zervitzucoac gucióc, Christioóc principálqui: Cóntuac dire juicioa eguitea emandigúnas, ta corresponditu diogúnas: zorrtiogúnac dire oblig(**aci**)o ez cumplituac, ta obligac(io)en co(**n**)tra eguinac. Goácen bada contuétara parátus cárgua ta descárgua; berarén favóreac cárguan, gure zervitzuac descárguan aldizcá. 1.º Cargua Criacioa, au dá indigun favórea criátuas gú guizón bere imag(**in**)a ta semejanzára arima racionalaréqui, mem(**ori**)a, entendam(**en**)tu, borond(**at**)e, ta gorpútz dugunaréqui, ta ebén facultáde, habilitad(**a-d**)e, ta on dén guciaréqui gueure(**n**) barnetic eta campotic. Ô cer cargua aldegóntaic! Eta nola empleatudire? 2.ª Conservácioa, au

---

<sup>1</sup> SSma eta laburgailua.

dá, contino itendigun favórea conserváceas viciric, emánes árguia, susténtua, átsa, ta lagúntza bere escu poderósoas, cein faltabalequi-gu mom(en)tubátes, ilac guinázque berártan. 3.<sup>a</sup> Providencia, au dá itendigun favórea disponitzeas medio ta erremedio bearrtugúnac, alá arimarén, nola gorputzarén. Beira Céruac, airea, lúrta, itsásoac, aimbérce arrái, animále, fruitu, ta gauza guizónen amóres! Izárr, ilárrgui, ta iruzquiarén gobernua, gau ta egún, uda ta negu, bero ta otz, ta gañaráco aice ta dembóren aldaquéta. 4.<sup>a</sup> Ainguéru goardiá-coen favórea, biáltzea bere Magest(ade)ac bere gloriaco Principe andi-ederr-

## 136

gaíec lurréco guizón pobre miserableén ayaldéco ta lagún goarda-gaitzáten, nola itenbaitúte contino amante, naiz eztúgun icusten begui araguiscoes. 5.<sup>a</sup> Bere Elizarén plantácoia múnduan, eta ártan bere legue, doctrina, sacram(en)tu, medio ta erremedio, salvaceó arimac.

6.<sup>a</sup> Preservácoia, au dá, guardátzea erorcetic anitz yago culpapatán<sup>2</sup>, eta culpatán eróriac ez utzias erórcera infernúco penetan, nola baizúque útzi asco aldís. Berás mortálean vicitudén istante adiña dire favóreac, eta aguitz andiac. 7.<sup>a</sup> Vocácoia, au dá indigun favórea beréchsteas gu bere echéco, edo Christiátzeas, infiniobát ez becála vicidirénac ignoranciarén ta erroreén ilumbean, infernuráco videan. 8.<sup>a</sup> Inspirácoien favórea, au dá arimain barnerá gure Jau-nac ematentue(n) chistu-guisabátzuc oneráco, gogoráco, arrguitá-sun, uquim(en)tu, edo moguim(en)tu onbátzuc, inclináceco bere-gána, vicitzecó berarén gustorá. Gracia deitzenda ori, ceren gra(ci)as itenduén. 9.<sup>a</sup> Justificacioa, au dá favóre itendigúna barcá-tzeas offendiatusguéros, admititzeas bre<sup>3</sup> gra(ci)an ta amistán-zan, guinduzquélaric utzi erremedioricgábe: eta ori cembat aldís, ta cein costu gutis, solam(ent)e confessacearéquí ongui urriquituric gueuren gaizqui eguinac. 10.<sup>a</sup> Comecátzea, au dá favóre andi iten-digúna comunicátzeas gurequi Jesus onac, ta guc beraréquí sacra-m(en)tuan errealqui, baña modu miragárrian. Cargu andia inen-zaigun ontas, nola favorea ere baita andia. 11.<sup>a</sup> Predestinácoia, au dá itendigun favórea destinátzeas bere gloriaráco, jaiobañólén

<sup>2</sup> *culpapatán* dago, baina *culpa*— lerro baten bukaeran, eta —*patan* hurrengoaren hasieran.

<sup>3</sup> Hola dago *bre*, eta ez *here*.



eternidadetic: eta ez izánic ere niore noticiariac ta seguranzaric dicha dichosoena dén góntas, dezaquégú izán esperánza Jang(oicoar)en gra(ci)as ta Jesu Chr(ist)orén medios: eta cierto irautenbadúgu bere gra(ci)an, eztigu faltatúco bere gloria. 12.<sup>a</sup> contatugábe anitz favóre especiále bacóchai intiónac, ta cargu yago inenbaizaio bere ariorá orgátic, amabigarréna berárias utzidudána azquenéco, gucien andiéna becála, ta gucién principio, causa, ta corona da Redempcio-nea, au dá favóre gueieguigura incigúna guizonéi egáiteas guizón Jang(oico)a gu salvatzeagátic. Au dá Jesu Chr(ist)o, nondic datorr-quiun ondásun gucia. Jautsice bere

136at.

gloriaco tronotic, obligaturic bere carid(ad)e p(ro)prioqui gueié-guiac, *propter nimiam charitatem suam*: aguertucé gutártean gutáic bat becála, gure lagún, gure adisquide, aide, ta anaia becála. Vestitucé<sup>4</sup> gure guizontásun pobrearen zamárta, eta gañetic paratuzué becatarien zatárta, au dá becatariarén semajánza, *in similitudine carnis peccati*. Achsúria Jang(oico)aréna da au quentzutuéna mun-duco becátuac, cio S. Juan Baut(ista)c. Baña norc paratudió achsuri-góni anchúme-larrua? Amóreac, eta onen cásos óngui erorcenzáio. Anchumearen nombreas señalatzendá gaichstoa: gaichstoetáic bat becala tratatuzúte, *inter sceleratos reputatus est*: gaichstoen gaichs-toéna balitz becála, inzúte présco, golpátu, azotátu, gurucificátuzúte: guciá penas, oñáces, llagas, odoles acabaracizúte. Berarén odól tantabátec validóu infin(it)o: Cer cargua inenzaigun aimberceco pas-sioas &

Descárgua cembat dá? Cembat obra on, trabáju, izerdi passatu-dugu Jang(oicoar)en amóres? Cembat llága ta odól dezaquégú mos-tra? Oh! zervitzu imbeárrean, intiógu offénsac, ta zórrac añaditu. Orái bada zervitzátzea beti obligáicio; obligaciogáu beti beárr cum-plitu, bércce alde léngo fáltac beárr suplitu, ta zorrtiogúnac desquitá-tu; eztúgu cer descuidátu. Eta cer? pizatzendirélaic gure ón pichscac? Batzúc indiréla nágui, bercebatzúc vanidádes, bercebatzúc berce fin edo modu macúrres: Cembat gueldicendá? Azqueníc gure on dei-tzendirénac indire Jang(oicoar)en gra(ci)as, ez gueuren indárres, ció-na S. Agust(in)ec, *Jauna, ón intudánac, ta gaítz ineztudánac guciác contatzentut berórren favóre*. Ezpacida gra(ci)a emán eguítcco, eznitue eguinén; ta eguinbadút cerbáit, dá berarén gra(ci)as: Berás pagatze-

<sup>4</sup> Vestitucé dio, ez Vestituzué.

cós guc, beárda berac emánes, ta ori ere diógu zorr; nola atracendá cóntuetán? Aisa erdechicodigu amárr milla talento. Eztúgu berce erremedioric, baicic humillátu, ta confessatu zorr diogúna, ta ezin pága. *Patientiam habe in me*, Jauna, paciencia iduquibéz neréqui, ta barcátu. Eta obligatzecó obéqui bere miseric(**ordi**)a, onetsi ta ongui eguin gaizqui indigutenéi, erratecó eguiáz, barcadazquiguzu guri gueuren zórrac, ala nola guc barcacenbaitiogúte gu zorrgaitusteneri. Guciei barcadezágula Jang(**oicoa**)c. Amen.

## Sermo in Dominica Vicesima Secunda post Pentecostem

*De Conversatione nostra erga Deum, et homines.*

Reddite, quae sunt Caesaris, Caesari, et quae sunt Dei, Deo. Math. 22.

Egungo evang(**elio**)an contatzendá, nola eguinic Fariseoec batzárre albazezaquete arrapátu Jesus itzenbátean, galdeguincióten alá, Maestru Jauna, badaquígu eguerrállea déla, ta eracustenduéla Jang(**oicoar**)en videa eguiáz, erparatugábe persónen gorabéran; erranbezágu bada, cer idurizaio? Zillegui dá emátea Emperadoreái trebútua, edo ez? Jesus ónac ezaunduric aye(**n**) malicia, errancióte, Cergatic tentatzenauzie, hypocritac? Eracutsadázie trebutuco monedabát. Eracutsiric au, erránzue, noréna dá imágina ta letreogáu? Ayéc, Emperadorearéna. Jesusec orduán, bada emperadoreái bérea, eta Jang(**oico**)ai bérea. Guelditucíre arrituric etzutéla nondic euchi. Icastecó eracustendígúna bearrdúgu gra(**ci**)a. Ave M(**ari**)a.

Ô Jesus, cein ona! Ezpaitézóquete aurrqui faltaric etsái invidiósoec ere; ez itzbátean ere, naiz ingeniaturic malicias. Ô malicia hypocritagaiéna; laudatzeunte idúris mintzarastecó Emperadoreain contra! Baña etzaióte valiátzen: Emózie nóri bérea, dió, Emperadoreai berea, ta Jang(**oico**)ai berea. Eracustendigu daiquéla cumpli Jang(**oicoar**)équi, ta báteo munduaréqui. Múnduan badá guciétaic, on eta gaichsto, oneráco dirénac, ta dirénac gaitzeráco; baitaré ez ón ta ez gaichsto dirénac beréz. Beñicbein gaichsto denic eztaique eguin mundu guciagátic ére, ezi ori litzáque ez emátea, bai quentzea Jang(**oico**)ai berea, baita amóre, estimáció, ta obediencia zorrzaióna gucien gañetic. Eta alá múnduan vicidenac beardu lén léna frincátu ta assentátu biótz bárnean erresoluciogáu, baita ez admititzea Jang(**oicoar**)en contra denic, ilen bada ere orgátic. *Ez Jangoicoa<sup>1</sup> offendi; lenágo múndua ondabedi*, dio S. Teressac. *In capite libri scriptum est de me*, cio Davidec, Libruarén búruan, lembic(**ic**)o ojan daucat es-

<sup>1</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dago.

crivituric. Cer? Aizágun chsaquintásun ta Theologiaric obéna, guciéc icasidezaqueténa ta beautééna. Cein dá? *Ut facerem voluntatem tuam, Deus, Eguitea berorre(n) borond(ate)a, ô Jang(oico)a. Sic volui, et legem tuam in medio cordis mei.* Alá naidút, eta berorren lèguea ené biotzarén erdian. Onen cóntra ez Emperad(or)e, ez Erré-gue, ez gauzaric eztá obligagaizqueníc. Jang(oico)a beti lén.

Badire berce gauzabátzuc, becátu ez beti claro, bai becaturáco dirénac gure passioneén cásos, nola ásko cébo, divérsio, ján edán áldi,

137at.

Guizónqui ta emastéquién comunicáco, gala, vanid(ad)e, tratu, ta aláco milla. Biótza apegátzea, ta ústea eramátera afficiónes alacoetára, eztá munduái bérea emátea, baicic berceréna, quéndus bérea Jang(oico)ai. Alá Jang(oico)a guti estimátus, atzéndus, amatzenduéna peligróa galducodá artan, diónes Esp(iri)tu S(anda)u)c, *Qui amat periculum & Badire bércé gauzabátzuc ez ón ta ez gaichsto beréz, nola errecreáco, divérsio, ta dembórapassa deitzendirénac: Alacoetán daique nori bérea emán, goardátus bi condicio, baitire intencióna, ta moderáciao, au dá divertitus fin ónes eta bere neurrian. Baña daique aisa macúrriu fáltas edo sobras. Badire berce gauzabátzuc lurrécoac ta gorpútzaí dagozquiónc, ta obligacióscoac, nola trabajátzea nor bere officioan, cuidátzea, dilig(en)ciac eguitea viciain atrátzeco, ezi trabajuráco jaiodá guizóna, ta lembic(ic)o guizónai, Adani, eráncio<sup>2</sup> Jang(oico)c, *zeure copetaco izerdiarén cóstus janendúzu zeure oguía, (Genes. 3.) eta S. Pabloc dió, si quis non vult operari, non manducet (2 tessal. 3.) Eztuénac innái lán, ez ján.* Eta óntas, trabajátzeas diót, daique enténda, emózie gorpútzaí bérea: baña irabátzeco anitz, dá consagrátzea ta ofrátzea Jang(oico)ai bere lánac; alá itzulendá lurra úrre. Baña itenbadire ez Jang(oico)agátic, baicic codiciagátic, ta edocein fin gaichstos, eztá ori emátea Jang(oico)ai bérea, baicic quéntzea. Ori ez ezi, devociósco gauza esp(iri)tuálac ere, nola errezátzea, meza, predicu, procéssio, ta alácoac itenbadire vanid(ad)es edo berce fin gaichstos, dá Jang(oico)ai bérea quéntzea, ez emátea.*

Orái yá propioqui emátea Jang(oico)ai bérea dá emátea biótza, ta biotzéco amórea gucietan ta gucien gañetic. Beréchsis, béreac dire gure arima, gorpútza, poténca, sentido, indárr, vicitza, ta dén gucia:

<sup>2</sup> eráncio dio, ez erráncio.

gucía beárda Jang(**oicoar**)en gustorá. Emózie Jang(**oico**)ai berea, memória, oroitus ta ez atze(**n**)dus Jang(**oico**)as: entendam(**en**)tua, pensátus Jang(**oico**)an; borond(**ate**)a naiizánes naiduéna bere Mag(**estade**)ac, ta naieztuéna guc ere ez. Béguíac ta adim(**en**)tua, icúsis eta aitus solam(**en**)te nola duén placér bere Mag(**estade**)ac: Mia, mintzátus ongui, ta ichsildus ongui. Éscuac, oñac, ta miembro guciac, goardátus bere offensaetaic, obrátus bere zervitzután. Osasuna ta vicia empleátus beraren amoretán ilartáño, eta il edo vici, conformátus bere borondatearéqui.

## 138

Baña parátus au gucíau memoriain amóres irur itztan copla-guisan, baitezáque nornáiec eramán eri chingárrean, nola errecéta segu-robát vicicecó ta iltzecó ongui, ebéc dire *Affecto*, *effecto*, *Perfecto*. Afféctos emátea Jang(**oico**)ai berea dá amátzea gogotic, oroitus maiz, ta mintzátus bere Magest(**ade**)ai affectoéqui, ala nola Erréguebati nailioquenac in asco erregálo, ta ez izán, bialibailezózque maiz goraintziac ausencian, eta mostrátu borond(**ate**)a ta cariñoa prese(**n**)cian. Emate-guisagáu indaique aisa ta maiz nonnái biotz bárnean barimbáda amóre; naiz éscuac eta sentidoac ocupaturíc lanean, biótza libre dago. Norc dezóque estórva oroitzea bere Jaun ónas, ta errátea ichsil ichsila an berebaitan? bein, ô Jauna, nic amatzendút biotz guciaréqui & ta nainúque amátu & berce bein, o nor litzáquen ain dichóso logralézan gra(**ci**)a orren beguítan! Berce bein, ô norc ezlúquen offenditu secular & Berce bein gra(**ci**)ac, peticioac &

Ori dá affectos: *effectoa* dágo obra onetán, au dá, ez gaizquiric eguitea(**n**), ta eguitean ongui al gucía Jang(**oicoar**)en gustorá, garaitus passióneac, tentácioac, galvideac, ta cónta dén gucia: Cerén ezi cumplitu gure passioneén gustoa ta Jang(**oicoar**)en gustoa, eztá posible. Quén odio ta sentim(**en**)turac, eguin limósnac eta favóreac, guárda castid(**ad**)e gorpútz ta gógoan, mortificátu bere búrua, sufrítu trabájuac & guciói Jang(**oicoar**)en amóres, orichse dá Jang(**oico**)ai berea emátea effectoan: ezperén dá ucátzea Jang(**oico**)ai gusto iteagátic passioneái. Irug(**arren**)a dá *perfecto*, au dá paciéncian eramátea, ta alegrequi, albadaique, datózin nequepénac Jang(**oicoar**)en ta proximoen éscus, nola injúriac desarrac(**io**)ac<sup>3</sup> & baitaré eritasúnac, desgra(**ci**)ac & Emózie Jang(**oico**)ai bérea perféctoan, au dá

<sup>3</sup> Hori izan daitekeela uste dugu. *desarrac.*<sup>ac</sup> ipintzen du. *Ik. desarrácioac*: 5. or.

co(n)formid(ad)e óssoan bere borondatearéqui azquen punturáño, pacienciarén próguan, baitarráio coróna. *Beatus vir qui suffert & accipiet coronam.* Errán maiz, Juana, cumplibedi orren borond(ate)a: Jaunac manatzendú; berea nau ni, imbez nitas béreas becála. Tobias guizón sandugúra permitituzué Jang(oicoa)c gueldicéien itsu; eta S. Rafelec erráncio guero, cerén cinan quadráble Jang(oico)ai, cé precisso progátzea tentacioas. Job sandua laudatuzuéna Jang(oico)ac berac permitituzué gueldicéien lenic póbre, guéro beteric llágas, árres, eta miserias Satanasen medios, bitárteo ció, Jang(oicoa)c emán, Jang(oicoa)c edéqui; nola duén placér, eguindá: biz bedeic(a-tu)a & Alá itenda Jang(oico)ai sacrificio obéna. Emógun bada berea Jang(oico)ai afféctoa, effectoa, perf(ecto)a, logracecó coróna glórian. Amen.

138at.

## Sermo alter in eadem Dominica Vicesima Secunda post Pentecostem

*De dolosis et &*

Concilium<sup>1</sup> inierunt, ut caperent Jesum in sermone. Math. 22.

Egungo Evang(elio)a dá au: Fariseoéc batzárre inzute arrapatze-co Jesus descuidorenbatean mintzátzean & ut in praecedenti. Ave M(ari)a.

Ezin aurquitus faltaric Jesus onarén vicimoduan Fariseoec, cer iteunte? Icuságun, dióte, albadezoquégu arrapátu itzbát Emperador(ear)en desgutután, acusatzecó ta galcecó. Ah cer intención! Ó arima charr malignoac! Guciáu cé izanes gaichsto-útsac, ta ez náies emendátu. Ce(m)bat obeágo cé ezauntzea berén gaitza, ta Medicuarén óna? ta errán, éguia dió, arrácio dauca, gure onetán dabila, emendagaitzen. Alacoric ez: betico exémpu dúgu Jesusenbaitan bere Ministroec, vicitzecó óngui, eta eracustecó ona sueltoquí: eta ondórean sufritzecó persecucióneac animosoquí. Eztá Discipuloa yago Maéstrua baño, erra(n)zue, (Math. 10) eta ez Nausia baño yago Nirábea. *Ni perseguitubanaute*, (Joan. 15) *zuéc ere perseguitucozaiste*. Medicu esp(iri)tuálac eracutsibeárdu eguietafearén errecéta, naiz contra itzulidaquizquion cembáit áldis éri cordegábeac. Beréc eznái sendátu, ta billa bai ibili cer tachátu Medicuan: eta aurquitzenbadióte cerbait gaitz idúri bearreztén, contént orduán erratecó, berac ere indu au ta ura ta bercea: Delaric éguia ezi naiz gaizqui eguinic Predicariac, eztuéla orgátic disculparic adizáleac, dagolaric claro Jang(oicoar)en videa, ceintaic juzgatubargaituen<sup>2</sup> gucióc Jang(oicoa)c. Orduán elduda ongui cióna Jesus onac, *inzázie errateunténa, baña ez ayén obraen ariorá*. Orduán erranbeárdu bacóchac berebaitan, ni ongui viciniáiéla, ta án compondaiéla bera. Nic ártu

<sup>1</sup> *Concilium* dio, *Consilium* esan beharrean. Pasarte hori San Mateoren ebanjelioan dago: 22.15.

<sup>2</sup> —bar— dio, —bear— esan beharrean.

doctrina óna ematendidána neure prochután, eta arc itenbadu gaizqui, eztá nere, baicic bere caltetán. Baña cóntra dá gueiénean, gaitza náí, eta Medicua ez icusinái, eta culpac ez sendatunái, ta Medicuan faltac átra bai. Baña Jesus onabaitan etzeique átra faltaric eguiáz.

Icusgárrí dá ordea gaichstogáien biotz falsu doblátua: Ellegatzendire arrésti lochsenhátu idúri, *badaquigu delá Eguierrállea & nondic atraraciodióten itzbát Emperad(orear)en contra*. Cer guero? Guero acusátu, condenátu, ta gáldu. Origabe ere inzúte. Bi aurpeguitaco guizónac dire alá-

*138bis.*

coac, alcinetic adisquide idúri, atzétic etsái erreálqui. Bi mi, ta bi biotzetácoac ere deidaizque, *in corde et corde locuti sunt*: biotz doble malicias béteac. *Ore suo benedicebant, et corde suo maledicebant.* (ps. 61) Agos bedecíátu, ta gogos madaricátu. Itzac legún, baña venéoa lagún: Mias lamícatu, baña biótzes ozcátu. Laudátu idúri, ta aborrecitu erreálqui. Abomináció, ta abomináblea guizón falsiquin, biótz macúrr dóblea déla Jang(oicoar)en alcinéco, dió Esp(iri)tu S(andua)c. (Prov. 3 et 11) eta S. Bern(ardo)c (s. ad Cler) *niórc eztuéla yago ira mereji, nola etsáiac fingitzendénac adisquide*. Nor dá gaichstoágo? Edo gaissto iduridéna, edo gaichsto izán ta on fingitzendéna? eztá au gaichstoágo, doblatzen dueláic gaichstotasúna, añaditus guezúrta? Ótso ardiétan gaichsto dá ótso idúrian ere, baña gaichstoágo litzáque ardi-idurian. Jang(oico)ac guárda.

Icuságun Fariseogaietán: dióte mias, badaquigu déla eguierrállea, ta eracustenduéla Jang(oicoar)en videá eguiáz, eztuéla beirátzen persónen ichuratán: dá errátea, nióren passioneic eta beldurricgábe guciá eracustendú déna dén becála. Óntan cióte éguia, ta aipatzentúte prenda cituénac Juan div(ino)ac, ta Predicári onac izanbearluzquénac, baitire *santidadea, chsaquintasúna, eguietáfedeá, libertáde ta zelo prudénteá passioneicgábe*. Icusidúgu ayén mia ichúras ón: Icuságun orái biótzean alchaturic damáten pócioa. Beárrda emán Emperadoreái trebútua, edo ez? Ustezúte aguián erranenzuéla ezétz Judioen atencios, ezpaizezaquete sopórta pagatzegúra; eta ori naizúte erranzézan, joateco orréqui ta acusatzecó, zéla errebel Emperadoreain cóntra. Baña norc engaña Jang(oico)a guciá daquiéna? Ó hypócritac, erreprehenditzentú sevéro, cergátic zabilzáte nere tentátzen? Au bérau dá oraico herége ta becatári errefinátuen intencioa, desacreditátzea Predicári óna, ta beréc naieztuteláic obeditu, eta arc ezdezaquelaic utzi eguia erratéco, taparástea ágoa infamátus déla mintzo gobernuarén ta gendearén contra. Guezúrr andi andia! Ce-



ren ezi Jang(**oicoar**)en videa, eta Chr(**ist**)oren léguea governu ta gende gucien favóre dá, ta ez cóntra. Oh! goardabalédi ongui ura, cein ongui lidoáquen govérnuas eta géndeas? Baña gaichstoac nola ez-paitire conformátzen erreglagonéqui, berac macúrr izánes, ta erregla zuzén, eznái errán berac doacéla macúrr, ta ezin errán déla macúrr erregla, emágun, díote, pregonárien contra:

*138bis at.*

eta ón colóres, govérnu ta gendeén favóre-idúris mutuaráci ta galduzquígun. Eta lástima déna dá sinestarastenbaitióte anitzéi guezúrra eguía iduriarácis; eta adiarásten guezúrr déla, déna eguía clároa, ceren ezi cer gauza claroágo au baño? Christio ón izátea eztéla nióren cóntra, ta ez nióren caltetán. Oh cer cálteac berriz hypocritec on colóres? Cein Jang(**oicoar**)en cóntra diren, ta Jesu Chr(**ist**)orén cóntra!

Bi exémpu atratzentút Evangeliotic; bat Herodes, ceñec aituric elduciréla Magoac adorátzera errégue jáio berribát, zoáste ta aurquitu ondoan gastigazadázie niri, joáteco ni ere, ta adoráceco bera! Itzac ón, biótza gaichsto: Aguertucé guero ilarástean aimbérce aurr innoc(**ent**)e, ilnaies aurr div(**ino**)a. Bérce exémplua Judas Apostulu traidórea, ellegatucéquio Jesus onái présó inarastecó, emáncio besárca, baice señalea mostracécó nori bearciren euchi, ta erráncio, Agúrr Maestru Jauna. Mostrac ónac eta itzac ónac, baña bera ezin gaichstoágo. Exempluguebéqui escarménta ez izatecó biotz falsu doblátua, ezi Jang(**oico**)a eztaique engaña icustenduéna gucia.

Aizágun yá doctrina ederra emancigúna Jesus ónac, errespondácean ayéi. Escaturic monedabát, ta icusiric ártan Emperador(**ear**)en imagina ta letreroa, errancióte, Noréna dá imag(**in**)a ta letrerogáu? Ayec ezi Emperadorearéna. Jesus onac orduan, *reddite ergo & Emán bada Emperadoreai*<sup>3</sup> berea, ta *Jangoicoai*<sup>4</sup> bérea. Esp(**iri**)tualqui daique ártan enténda cumplitzea lurréco gauza precisso direnéqui mantentizeco vicitza, vicimodu, ta tratu bearrdéna gendeén ártean: emátean Jang(**oico**)ai bérea daique enténda generalqui gucia, ezi eztá gauzaric zorretzioguníc; baña beréchsis, bérea dá ón guciari darráion gloria eta hónra: eta alá, emózie Jang(**oico**)ai berea dá errátea, etzaziela izán vanagloriaric deustas, etzoziela ebátsi Jang(**oico**)ai zorzáion gloria, ezaundu ta confessazázie zeurenganic eztuciela gau-

<sup>3</sup> *Emperad.<sup>o</sup>* dago.

<sup>4</sup> *Jang.<sup>o</sup>* dago.

za onic & Alabér egunetáic berechsitú jaiac; eta alá, emózie Jang(**oi-co**)ai bérea dá errátea, jáiac empléa óngui Jang(**oicoar**)en gustotán, ez sisátu & Alabér proméssa ta vella ofrecituac ditu bereac beréchs; bada emózie berea dá errátea, cumpli ofrecituac. Alabér lurréco fruituetáic berechsitú amárren ta primiciac; berás emózie Jang(**oi-co**)ai berea dá errátea, eguin gustoréqui ta ongui amarren ta primiciac, ezperén dá ebástea Jang(**oico**)ai bere trebú—

### 139

tua, eta iragacinaies galcendá, ezi ásko manéras dezáque bere Mag(**estade**)ac castiga guizonarén mezquintasúna, ta churrqueria berarén álde, yá manátus lañuéi, irúzquiái, Ceruái, lurrái causáceco plágac, malhúrrac, eritasúnac, yá berce milla manéras eguines ezdezátén izán bearrzutenaren amarrgárren zátia, ción guisan Ageo Profetarén ágos, (c. 1) *Seminastis multum, et intulistis parum & Anitz eráiqui, ta guti bildu, jan eta ez ásse, edán ta ez indárntu, estáli ta ez berótu, eta alá contú irabácia botaduziela zacu zulátuan. Yago náies gutiágo itzúli: échean sártu, ta andic aicerátu. Contra ofrecientú be-deicioac ongui itent(**un**)ai (Malach. 3.)*

Baña S. Viz(**ent**)e ferrerec diónes, emózie *Emperadoreai*<sup>5</sup> berea, ta *Jangoicoai*<sup>6</sup> berea, dá errátea, emózie Emperad(**ore**)ai bere dirua, ta Jang(**oico**)ai zeuren burua, ezi Jang(**oicoar**)en dirua edo monéda dá guizóna. Icuságu(**n**) monedagau. Monedac, legit(**im**)o ta ona izatecós, beártu cembáit gauza; oroát guizónac, izatecós sálvo. Bat dá eramátea Erreguerén edo gobernuarén imágina: Guizónac Chr(**is-t**)orén imagina, fedea, ta izéna, itendeláic batáioan Christio, edo Chr(**ist**)oren guizon. Bigar(**re**)n duéna monédac dá letréroa: letréro Christioaréna dá character, edo márca esp(**iri**)tuála imprimitzendéna ariman, ta ezténa borrarzen eternid(**ad**)e gucian. Irug(**arre**)n bearrduéna monédac dá métale óna, déla urre, déla cillárr. Jang(**oicoar**)en monédan, baita guizóna, eztá asqui Christioarén insignia ta fédea, beárdu ere izan urre, au dá Carid(**ade**)a, alá Jang(**oicoar**)en, nola proximoen alde; origábe moneda fálsua dá, eztá passátzen Jang(**oicoar**)en erreinuan. Laurg(**arre**)n bearduéna monedac bere bulto, fórma, edo figura asquidéna, oguei ochinécoac yago, amarrecoac ez aimberce, ta alá: Jang(**oicoar**)en moneda Christioan cein dá fórma ta neurri chusto precisso déna valiatzecós? Ori dá mandam(**en**)tuen

<sup>5</sup> *Emperad.*<sup>av</sup> berriz ere.

<sup>6</sup> *Jang.*<sup>av</sup> berriz ere.

observância. Ori adiaracicióte Eliza-atarian bataiátzera joaterá-coan, *Quid petis ab Ecclesia? & Si vis & Monédac* alabér, urréscoac bentzáit, beárdu bere pizua, ezperén faltatuén gránoen ariorá galcendú preciotic, eta aimbérce daquióque falta, ezi eztáien pássa. Moneda Christioan cein otedá pizua? Humild(**ade**)a ta inténio óna: Onéqui dúte valio gure obra onec; origábe guti edo bateréz. Azquén bearrdéná monédan ósso izátea ingúruan. Au dá Christioan perseverância ónean ilartáño: Ezperén, eztá passátzen gloriará. Judas as-sice óngui, baña bucátu gaizqui. Cer validió Apostolu izána Judasi ta milagr(**oa**)c eguina? Emózie bada Jang(**oico**)ai berea bearr becála vician ta iltzean, gozatzeco glorian.

## Sermo in Dominica Vicesima Tertia post Pentecostem

*De ratione sanandi animam.*

Veni, impone manum tuam. Math. 9.

Egungo evang(**elio**)an tugu bi milágro Jesusec eguinac: batá, Príncipe Jaunbátec adoratzenué erratencióla, Jauna, oraietan il-tzaida nere alába: baña betorr, eta bere escuas uquitzearequi ila vitzucodá. Bazoéie Jaun ona bere Discipulo, ta anitz gendeéqui. Joaterácoan videan icusiric Andre pobrebátec, amábi úrtes ezin sendatucénac odól jariotic, naiz guciá gastatu Medicuéqui, ció berebaitan, uquibánez Jesusen vestim(**en**)ta solam(**ent**)e, sendanindeique. Alá izánce. Atzéco aldétic ellegátu nolapáit, eta uquituordúco tré-sena, queldituzé<sup>1</sup> sana. (narrasis caetera) Inic milagrogáu bidanábarr, ellegatucé Jaungarren echerà, ta icusiric án asco gende ilarén casos, erratencióte, apárta, ezi eztágo ilic nescagói, baicic ló. Burlatzenzúte ayéc chsaquinic ila cególa: baña sarturic quartoan artuzué ila escutic, ta erráncio, jaiquizaite. Istántean jaiquice vici ta vizcór. Aitutúgo milágroac: goácen erreparátus circumst(**anci**)ac arimen prochutáco. Baña ori graciaicgábe ezin lógra: empeñazágun gra(**ci**)arén Ama M(**ari**)a. Ave M(**ari**)a.

Príncipe Jaungúra humillatucé Jesusen oñétara: Cerc inzué? Icósteac eritasúna ta eriótzea bere eche-barnean. Bai, ezi asco aldís gorpúten gaitzac dire arimarén ón. Alá S. Teressac bearretzuénac alacoric, on izatecó, erratenzué, gaizqui nagoláic nago obéqui: cerén comunquiró etorriasguéros eritasúnac, urbilduasgueros eriótzea, joatendá becatu itéco gána. Jang(**oicoar**)en mandatári ta missionári fuérteac dire erioa ta eritasúnac. Ebéc convertitzentúte Jang(**oico**)a-gana áscó naietzirénac convertítu berce guisas. Beude soldádoac divertitzen enredátzen chostaquetan gaichstaquetarian; niorc ezin gueldiaráci: soñabéz erretrétac: Icuscotúzu berla erretirátzen ichsil.

---

<sup>1</sup> Hola irakurtzen dugu *queldituzé*, eta ez *gueldituzé*.

Dabiltza munducóiac zoraturic vanid(**ad**)es vanid(**ad**)e itsu itsua: eztúte ajoláic Predicárien oiues, nióren consejues, Jang(**oicoar**)en inspirácoies: Cer erremedio? Soña erretreá. Cer dá soñátzea erretr(**et**)a? Bialcea erioac bere alcindári, eritásun, oñáce, ta alácoac, meachátzea eméngo viciarén acaba(**n**)za. Ya icuscotúzu beárriac apalduric humil tratácen salvácoias. Oh! eriotzeco orduan gueienéc ustedút nailuquetéla vicitubalire ongui. Eriotzearén

## 140

memoria erremedio vizcórta dá; cembat yago urbiltzea? Iducázu presente eriótzea, ta etzára eritu ta ilén ariman.

Principe Jaungárrec erratencio Jaun div(**ino**)ai, *Jauna, ene alába oraietán ildá*: Eta amabi urtetácoa céla, dió evang(**elio**)ac. Baiqui oroát sarcendá erioa Principeen palacioetán, licenciaic escatugábe, nola pobreen echolaetán. Oroát iguitatzentú plánta sendoac, nola lóre edérrac: Eztú ajolaric ez dignidadeés, ez ondasúnes, ez itécoes, ez adinas, ez provechu, ta esperánza ónes. Guciá lurréra golpebátes. Cein goizic ilunduzuén señoritagárren vicia! Lorean oráño, ta earturic istántean bera, ta bere idéa, ta esperánza guciac! Eriotzearén cafiá dá gorpútza lurréscoa. *Quis me liberabic de corpore mortis huius?* ció S. Pabloc. Norc libratuconáu eriotzearén gorputzgontáic? Eriotzearéna dió déla gorpútza, ontan arc baitu drecho Jang(**oicoar**)en sent(**enci**)as. Atárian dauca escrituric sent(**enci**)a, *Morieris enim tu*, ilenzara zú: eta beti dago barrónde beira, noiz inendión queñu bere Magest(**ade**)ac, atrarastecó bere echegóntaic arima, ta gueldiceco bacarric bera possessioan, juicioco eguneraño. Eta oh! cembat aldís ustedugúlaic urrúti dagóla, dago aldácan! *Usteeztúzien órduan etorricodá*, dió Jesu Chr(**ist**)oc, ezcaitzengátic descuida ordubátean ere, baicic egón prést beti bein solam(**ent**)e imbeárden saltoráco eternidaderá; bein utsitenbadá, ezin baitaique erremédia séculan.

Prevençioric obéna dá billátzea Jesus, ta gra(**ci**)a berarén beguieitán, cein delaric viciarén ta eriotzearén Jaun ta Jabe, disponitucodú noiz ta nola dén obe bere onétsien favóre. *Ni naiz, erra(**n**)cio S. Martari, erresurréccio ta vicitza, sinestenduéna enebaitan, naiz ildáien, viciodá; ta vici ta sinestenduéna enebaitan eztá ilen betícos*. Adiaras-tenzaigu iltzea ongui déla jaiótzea vici oberáco. Alá sanduen iltze-egúna deitzendá jaiotegúna: Eta ilen Nocturnoaren principioan cantacendá, *Regem, cui omnia vivunt, adoremus. Zatóste, adorazágun Erregue, ceñendáco guciác diren vici*, ilac ere. Yá ontáic agueri dá, eztagóla gure dicha edo desdicha iltzean goiz edo beránt; baicic ongui edo gaizqui iltzean, noizná dela. Beira zaude, *noiz*; beira yago,

nola. Goiz iltzea dá Jang(**oicoar**)en merchéde ascotán; claro dá aurretán, baitaré gaste onétan: *Atradú*, dio Esp(**iri**)tu S(**andua**)c (Sap. 4) *justoa goizic, etzéien cutsátu maliciarén pesteas arimagúra. Quadrable cé Jangoicoai*<sup>2</sup>, *orgátic prissa emánda atratzerá gaichstaquerien lecugóntaic*. Berce ascotán luzátzea dá merchede, izandézan dembóra, eguitéco penit(**enci**)a. Ascotán berriz vicimódu gaichsto—

140at.

arén casos auchstendá goichstárr viciarén aria, ezi eguietafedea dá, becátua déla eriotzearén acúlloa, *stimulus mortis peccatum est*.

Beldúrr izátea iltzeas dá natural; baña ascotán beldurrgói garaitzendú Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)ac: eta beti neurriratzendú bentzáit, ez-táien ez sobra ta ez gutiégui beldúrr. Beárda, naiz gure aldétic beldúrr, gure Juanare(**n**) aldétic izán esperánza. Orgátic ilaren atarietán cantatzendá, *Si iniquitates observaveris & Jauna, erreparatzenbádu gaichstaquerietán, norc soporta?* nor daique libra? *Speravit anima mea in Domino & Ene animac dú esperanza*<sup>3</sup> *ene Jaunabaitan, quia apud Dominum misericordia & Cerén baitu misericordia*<sup>4</sup>, *ta erredemciónea abásto*. Alá bada beldúrr ta esperánza nássi, ta eguin conformid(**adear**)en unguéndua, suavetzecó eriotzearén amarrgúra. Ingénio aurquitudúten obéna ortáco sánduen exémpulu ta consejuetán dá ez apegátzea munduarí, bai apegátzea Jesus onarí, ta sarturic bere llaguetán, erchiric béguiaic egón fiaturic bere pied(**ad**)e ta merejim(**en**)tuetán. Ain beldúrr sobra dute cembaitec iltzeas, ezi aipátzeas ere, oroitzeas ere dúte péna. S. Catal(**in**)a Senácoac zué Amabat deitua Lappa, óna bai, baña ain beldúrrtia iltzeas, ezi etzué nai ortas aipazézon bere Alaba Sándac. Onéc consejätzen, baña prochuric etzué atrátrzen, desapegacecó eméngo viciarén amoretic. Acudituzué Medicu cerucoagána erremedio-billa: Jesus ónac errespond(**atuci**)o, zaude, zure Amarí etorricozáio dembóra, deseadézan joátea mundutic. Alá izánce: ilcéquio alába sánda, ta bera eroricé aimbérce trabajután, ezi escatzenció gure Jaunái eramanzézan. Trabajuéc curatuzúte úra ere.

Emén orái bidanabárr naidut eracútsi nola daiquen deséa, ta escátu iltzea. Eztaique séculan errábias, tristúras, desesperácios, ori ez: baña badaique l.<sup>a</sup> ellegatzeagátic icustéra Jang(**oicoar**)en aurpégua

<sup>2</sup> *Jang.*<sup>a</sup> dio.

<sup>3</sup> *esper.*<sup>a</sup> dago.

<sup>4</sup> *miseric.*<sup>a</sup> dago.

len baño lén: 2.<sup>a</sup> ez icustegátic múnduan aimbérce Jang(**oicoar**)en offénša nola dèn: 3.<sup>a</sup> libratzeagátic offenditzeco peligrøetáic: 4.<sup>a</sup> emannáies vicia Jaunarén gløriatán, baitaré bere becátuen satisfaciotán. Azquenic daique ere deséa iltzea, naibadú Jang(**oicoa**)c, libratzeagátic eméngo trabáju ta lacerietáic, baña passatugábe conformid(**adear**)en neurritíc, baicic solam(**ent**)e naibádu Jang(**oico**)ac; eta condiciogorrèqui daquióque escátu ére. Eta berce guisas vicia ere, ta osasúna ere eztaique deséa, ezpadá condiciogorrèqui, naibadu Jang(**oicoa**)c, edo convenibáda. Seguízágun Evang(**elio**)a.

## 141

*Betorr, Jauna, ciò arc, ta éscuas uquibéz ila, ta viztucodá. Bazué fede, baña ez aimbérce nola Centurionac baicio, eznaiz digno datórrer beróri nere echéra, baicic solamente<sup>5</sup> erranbez itzes, ta nere semea guelditucodá sano.* Emén errán, ta inendá án. Gucietara eldúda Jesus óna, doáie humáno Jaungárren atzétic, eta ellegaturic echerà, ló dagóla dió ila, cerén ain aisa dú viztea ila, nola idatzártzea ló dagóna. Uquitzearéqui éscua jaiquiarastendú vici ta vizcòrr, ta manatzendú emáteco jaterá. Aláco Medicua dá gure Jesus óna, poderóso ta amoróso ezin yagos. Confía berabaitan guciéc eriotzeraño, ta eriotzetic aratágo ere eternidaderáño.

Icuságun orái, bidanabarr inzuen milágroa. Emastequi pobregúra amábi úrtes curan ibiliric, zuén gucia gastaturic Medicuéqui debálde, fortunatucé opátzeas Medicu etórria Cerutíc videan, baña ezin elléga gendetzearen útses. Oh! *Ellegabanindédi uquitzerá bere vestimenta<sup>6</sup> sollic, sendanindeique.* Cein mérque ustezuén lográtu osasúna! diruicgábe, empenüicgábe, mintzatugábe, ta aguertüeregábe. Alá izánze. Nolapáit ellegátu atzétic caparén uquitzerá, ta gueldituzé gucis sána: niórc etzequiéla Jaunas lándara. Jaunac bai confesaració án bere miséria, ta Jaunarén miseric(**ordi**)a. Bedeica guciéc Jesus óna baitezáque ta naibaitu salvátu ain aisa ain mérque. Pobregárrec, eguia dá, bere aldétic bazuéla cerbáit motivo; lembicicoa fede ta confiánza firmea: bigarr(**en**)a deséo ta dilig(**en**)cia, ellegatze-có uquitzera vestim(**en**)ta: Irug(**arren**)a humiltasúna, ellegátzean atzétic, ta guero confessátzean cénna cén becála. Orái gure aldétic icuságun. Jesus bera dá orái nola lén, ain salvazále arimen, nola gorpútzten: nola bada aimbérce éri, ta aimbérce dembóras? Noren fáltas

<sup>5</sup> *solamte* eta laburgailua.

<sup>6</sup> *vestimta* eta laburgailua.

dá? Gueuren fáltas. Eztúgu bearrdén fede ta confiánza, eztaré deséo ta dilig(en)cía humiltasunaréqui, ellegátzeco berarén vestim(en)taetára. Vestim(en)taguébec daizque enténda sacram(en)tuac, Jesusengánic duténac virtúte, sendátzeco arimac, obráceco gra(ci)a, gra(ci)arén señale diren becála: Principálqui sacram(en)tu aldarécoa, non bera baitágo erreálqui, naiz alchaturíc oguiarén accidentees, nola vestim(en)ta guisabátzues. An agueridengúra, uquitzen, ta gustatzendengúra dá sollic sacrem(en)tua, señálea, vestim(en)ta; baña alchaturíc dagóna dá Jesus bera betico salvazálea; arimarén fedeas sinestendá; ta arimarén gustoas gozátzen; ta provéchuas sentitzen-da. Elléga elléga uquitzera Jesus onarén vestim(en)tac, au dá, errecibitzera sacram(en)tuac bearrbecála: Emanendigu emén gra(ci)a, ta an gloria.



141at.

## Sermo alter in eâdem Dominica Vicesima Tertia post Pentecostem

*De Medico Divino.*

Egúngo Evang(**elio**)a dá au: Principe Jaunbátec ellegaturic adocracenzué Jesus erratencióla, Jauna, nere alába lenchágo ilda & ut in Math. 9. Orrá bi milágro, báta baño bércea andiágo, adiarastecó guri cein Medicu óna dúgun Jesus, sendatzenbaititu éri zárrtuac ere, eta ilac ére: Proprioiqui Jesus, naibaitu errán salvazálea. Salutazágu(**n**) bere Ama. Ave M(**ari**)a.

Jesus onarén milágroac ez solam(**en**)te cire, óngui eguitecó ayéi, baita ére eracustecó guciéi: eta alá dire, milágro bezain, mistério. Goácen átras significatzen duténa, eta lenic lembic(**ico**)a. Emastéqui pobregárren misériac ezin curátuac amábi úrtes, zuén gucía gastaturic Medicuetán, logratuárteo Medicu div(**ino**)a, significatzen dú arima becatári oitua, niorc ezpaitezáque erremédia, baicic Jesus ónac. Malogratzentú poténzia, sentido, ta vicico egúnac, curatunáies ez, bai cebatunáies bere gaitza. Eta óntan dágo difer(**enci**)a gorputzarén ta arimarén gaitzetán, ezi gorputzarénac baitatózque naieztuguláic, arimarénac beti dire borondátes: gorputzarénac eztire beti sendátzen, naiizanic ere; arimarénac bai, naidúgun gucián, óngui naibadúgu: baño au dá lástima, ezi gorputzarénac comúnqui beti naitúgu sendátu, naiz beti ezin sendátu: arimarénac eztúgu beti nai sendátu, cerén óngui aurquituric gauden gaitzaréqui. Ó itsutasúna! Jesus órdea prést dágo beti sendatunáiac, bentzáit arimarénac.

Emastequigártan dezazquégu icási cembáit virtúte; bat, fede ta confiánza segúroa sendatucozéla uquitzearequi solam(**ent**)e Jesusen vestim(**en**)ta; bercebát, deséo ta dilig(**en**)cia, ellegatze có bere Medicu div(**ino**)agána: bercebát, humiltasúna ellegátzean atzétic, ta confesátzean guéro cén cén becála. Icaságun ellegátzen al gucía fede, confiánza, deséo, dilig(**en**)cia, ta humiltasunaréqui sacram(**en**)tueta-  
ra, baitire nola Jesusen vestim(**en**)tac, señále, ta instrum(**en**)tu paratutuénac, salvaceco arimac; Comunionera especiálqui, non señále-

gárren péan dágon alchaturic bere Magest(ade)a presénte erreálqui, ez uquitzecó vestim(en)ta solam(ent)e, bai errecibitzecó gueuren bárnean bere Mag(estade)a. Eta alaére gucióc ez sendátzen? edo ez gucis? Churtuzáio aguian podórea, edo amórea, eguitecó óngui? Ez, baicic guri faltazaigu beárden disposicioa, fede, conf(ianz)a, deseo, dilig(enci)a, ta humilt(asun)a.

## 142

Añaditzendú S. Lucasec galdetuzuéla gure Jaunac, norc uquitunáú? Errespondatucióla S. Pedroc, Jauna, géndeac erchitzendú gueieguiarén utses, ta norc uquituduén galdeitendú? Bai, dió Jesus ónac, badáquit norbaitec uquitunauéla, ezi ene virtúteac indio ón. Orduán pobregárrec confessatuzué humil gucía nola izáncen. Emén dúgu icastecó diferéncia ellegatzeac ellegatzerá Jesusengána: Ayéc erchitzen; ta contú eztutéla uquitzen; baña arc solam(en)te éscus uquitu cápa, ta logracendú gra(ci)a. Alá sacram(en)tuac obratzendú ariman disposicioarén ariorá. Dúgu ere icastecó arren guisa confesátzea gueuren misériac, ta gure Jaunarén misericórdiac, naiz álque, naiz beldúrr izán, guciaréqui eztaique dispénsa conféssioa Jang(oi-coar)en honratán, ta gueuren provechután. Gure Jaunac despeituzué benigno itzguebéqui, Confía, ene humea zeure fedea valiatiudizu. Emén dúgu icastecó, nola fédea dén ón gucién principio ta ciméndo: eta naiz ez ásqui izanic bera bacarric, baña beragábe eztá deus oníc. Sinestabalédi viciró éguia déna, ezquindeizque co(n)déna:

Goácen yá icusterá bigárren milágroa, ilarén viztea bere quártan. Cé Principe Jaunbáten alába, ta onétsia, ta óngui cuidátua, ta erregalátua: Guciaréqui etzió guardátu atencioric eriótzeac; iltzué bere adinarén flórean amábi urtetán; niórc ezin estórva, ta deteniárci; desengañagaitzen eztéla cer fiátu ez adinean, ez indárr, ez deustan. Arren fortúna izánce aurquitzea Medicu div(ino)a, baitaré izátea Aita cuidadósa joatecó billa; ezi beréz ilac deus etzezáque eguín viztecó. Arimarén eriótzea dá, yágo péna ematecó, naiz eztúten sentitzen aimbérce ez beréc ta ez berén burátsoec. Ilasguéros arima becátu mortalaréqui, yá beréz edo beregánic ezin daique viztu; il bai, viztu ez: eróri bai, jaiqui ez, baldín ezpádio emáten éscua, au dá gra(ci)a Jaun soberánoac. Baña escabézo miserábleac, etzió faltatúco Jaun misericordiáscoac. Gu escácerá baño, bera emátera prestágo dágo. Aguéri dá Jesus onabaitan.

Escatuordúco istántean doáie Jaun óna humil benigno amoróso. Eztagóla ilic, dió, sartuordúco échean, baicic ló, cerén Jesus dagon lécuán ain aisa viztendá ila, nola idatzártzen ló dagóna. Escutic ártu

ta erráncio ilái, jaiquizaite. Obeditució erioac bere Jaunái; jaiquice  
ila, ta asice ibilcen eta játen Jaunarén manam(en)dus. Nor dá Medi-  
cu-

142at.

gáu, ain lastérr sendátzen ta vizcorrtzentuéna ilac ére? Au dá Jesus  
salvazálea, gure gorpútsen, ta obéqui arimen Medicu Cerútic etó-  
rria. Ô Jesus, eztá norc sendadezáquen gure arima, beróri ezpáda:  
baña ô! visitabález ene arima! Ô! erranbalézo, jaiquizaite; istánte  
jaiquileique, naiz ilic balégo ére.

Jesús, borz létra izénean; borz llága oin éscu ta bulárrea(n); bortz  
prénda berebaitan Medicu div(in)ogóne: lemb(icico)a sendátzea  
eritásun ta eriótze desauciatuénac: bigarr(en)a sendátzea istánte  
perfectoqui, ain nola deus izanezpalúte séculan: Irug(arren)a visitá-  
tzea ériac gra(ci)as paguriegábe, ascotán deitueregábe, alcinátus  
bera: Laurg(arren)a Bérac pagátzea, parátzea, applicátzea erremé-  
dioac bére cóstus ta bere éscus: Borzg(arren)a séculan aditu ezténa,  
bérac sáno ta séndo egónic árcea erremédioa, sendáceco éria; bérac  
passioarén trágo ta púrqa amárgoa passátzea, salváceco ni; bérac  
sufritzea sangriagúra ain sobrania, eznaiengátic ni condéna. Norc  
icusidú aláco Medicuric? Ain chsaquintsu, ain poderóso, ain miseri-  
cordióso, ain amoróso, ta ain graciosoric? Ô Jesus, berórren cóstus  
vicigára becatárioc! Eta ciérto dén becála gueurengátic gálduac gui-  
nála, ezpálitz etórri beróri Medicu, alá dá ciérto berórren médios  
gaizquéla sálva: eta no!a baita arrácio, egótea desconfiaturic gueu-  
re(n) búrués, alá dá arrácio baño yágo, egótea confiaturic ta segura-  
turic berórren ónas: ezi lenágo atzenducodá duén izénas, ezi salva-  
tzeas. *Multi dicunt animae meae & ps. 3 Etsáiec dióte ene arimái, eztú  
salvacióric bere Jangoicoan*<sup>1</sup>. Nic diót berórri, *tu autem, Domine &  
Beróri nere ampároa, nere glória, ta nere salvazálea*: eta salvacióric  
ez? Eztút úste alacoric. (flos SS. in V. S. Rosae Limanae)<sup>2</sup> S. Rosa  
Limacoa<sup>3</sup> cego co(n)denacióarén beldúrres icár icár: Jesus ónac  
aguerturic, erra(n)cio, zaude arimo onaréqui, ene humea, ezi nic ez-  
tút niór co(n)denátzen, ezpáda bera nai co(n)denátu. (Item S. Teres.  
pap. post vit. n. 6) Jesus bada áma ta clama, ó Jesus, biz enetáco  
Jesus, ellegátzeco cantátzera orren misericórdiac glorian. amen.

<sup>1</sup> *Jang.*<sup>an</sup> dio.

<sup>2</sup> *S. Rosae Lim.*<sup>ac</sup> dago.

<sup>3</sup> *S. Rosa Lim.*<sup>a</sup> dio.

## Sermo in Dominica Vicesima Quarta post Pentecostem

*De fine mundi.*

Cum videritis abominationem desolationis stantem & Math. 24.

Egúngo evang(**elio**)an Jesus ónac aipatzendú Jerusaléne<sup>1</sup> acabánza, ta guero mundu guciaréna. Señáleac batarén ta bercearén adiarastentú: Jerusalenarén<sup>2</sup> azquéna dió au, *icustenduzielaric galmendearén abominacioa lecu sánduan*, orduán eguinbéz igués dezaquénac descuidoricgábe. Cer otedén abominaciogói lécu sanduan, disputacendúte Eracustúne<sup>3</sup>: baña déna déla gauza, dudaricgábe dá gáldus temploari zorzáion erre(**erenci**)a ta errespétoa, sentitzenbaitu bere Magest(**ade**)ac aguitz; eta orgátic asarraturic botacitue templo-  
tic sal-erostúnac azotucaldicá; cer inenzué, icusibazitue indecencia andiagócoac? Munduco lecu guciétan itendire becátuac; guciá dago ciquin urrinduric becátus gure Jaunarén desgustután: berechsidú beretáco; emén berére bearrguinázque goártu, ta garbitu intugunetáic: baña garbitu ez, ta aum(**en**)tatzenbaitúgu emén ére, ya ori dá galmendear(**n**) abominacioa. Galducé, urratucé, acabatucé Jerusalém<sup>3</sup> guérras, góses, sús, eriotzeés, pestes lastimosoqui Jang(**oicoar**)en permissios: Galdu ta erraustucire Pentapolisco ciudádeac azufrésco sú-erauntsis: Galdu ta ondatucé mu(**n**)dua dilúvio universálas, zorci persónes lándara: Galdu ta acabatucodá sús azquénean Jang(**oicoar**)en justicias. Onen noticia cerbáit emátea Evang(**eli**)o ta escrit(**ur**)a sagrat(**uar**)en confórme dá egungo itécoa. Estima lenic M(**ari**)a Santissima<sup>4</sup>. Ave M(**ari**)a.

Paratudú Jang(**oicoa**)c guizaguéndeac munduan, ez beticos, ez egótes, baicic bidanabárr, ta ostátus becála viágean eternidaderát:

<sup>1</sup> *Jerusaléne* dio hemen.

<sup>2</sup> *Jerusalenarén* dio orain.

<sup>3</sup> *Jerusalém* dago, bukaeran —*m* duela.

<sup>4</sup> *SS.* dago.

eta alá gucióc goáza joánes, ta bucátus eméngo aldia nor bere plázoan: Ya sei zázpi milla urtegóntan doáie seguitus ordengáu, jáio ta il, orái bátzuc, orái bercebátzuc, ta ala querro querro gucióc elcárren atzétic, eta niór ezta guelditzen emén beticos, ezetá dembóra anitzáco ere. Acabátzea gu, baicára lurr araguiscoac, ezta miragárrri, acabatzendireláic palácio, dórre, ta murálla arriscoac, baitaré brónceac eta burriñac, baitaré árbola ta animále indártsu azcárrac: Guciá doáie acabátus, ta mundugáu acabatucodá azquenéco. Gloria solam(en)te ta inférnuu dire etérno materialeta(n); Jang(oico)a, Ainguiruac, ta gure arimac ere bai; ta alá iles becála gorpútzac, doáz bildus arimac edo glorian edo inférnuan, escogituac glorian, galdu-

143at.

ac inférnuan, lenic arimac sollic, guero juicio azquenéco araguia-re(n) Erresurreccioas gueros gorpútzac ere bai. Yá berás eméngo itecogáu ezta baicic prevenciobát, ta viagebát, bietáic bátean baratzéco. Yá berás importadéna sollic dá vicitzea aláco manéran, ezi atragaitzen lecu onéra: Yá berás gure óngui eguinac ta gaizqui eguinac co(n)tatzendire betirocoarén; gañaráco estádo, abráts, pobre, andi chipi emengoe(n) diferenciagói passacendá ala nola comedia-guisabát: *praeterit figura huius mundi*.

Noiz ta nola izanendén bacocharén acabánza, eztaquigu; ezta ere munduaréna beréchsqui; alá dió Jesu Chr(ist)oc, *egungura ta ordugura niórc eztaqui*. Baña lendanic señáleac badire batarén ta bercearén ascotán, ascotán señaleicgábe acabacendá guizóna, baña mundua ez, emangábe señáleac. Badire cembait señále yá eztagóla apárt onen acabánza, diotenes S. Viz(ent)e Ferr(ere)c, S. Greg(orio)c & Yá daique errán munduas nola eri andias, charric dago, zarrtudá, ilcen dá, ezdezáque anitz iráun. Señalebát dió Chr(ist)oc, eta S. Pabloc, *gorátzea anitz Profeta falsu*, (Math. 24. = Tim. 3) *vicios beteac ta engañazáleac*. Noiz yago orái baño? Aimbérce herége, aimbérce Chr(ist)io falsu, aimbérce eracustún contráco! Bérce señalebát, *abundátzea, ta gaingátzea gaichstaquéria, ta oztea caridadea*<sup>5</sup>. Bercebát, *galmdearén*<sup>6</sup> *abominacioa temploan*. Noiz aimbérce nola gure dembóran? Guti balitz becála gálcea errever(enci)a temploéi, aimbérce errobátzea témploac, vaso sagr(atu)ac, sacram(en)tua bera! Bérce señalebát, guérrac, gendeén gorátzea elcárren cónta,

<sup>5</sup> *carid.*° dio.

<sup>6</sup> *galmdearén* eta laburgailua.

pesteac, goseac & Baña *ebéc gucióc dire solamente*<sup>7</sup> *principio doloreén*, dió Chr(ist)oc (ib.) Guerorát izanendire atribuláció andiagócoac, *ta azquenean icusi eztén becalácoa, eta ezpaleitez labúrriu egungáiec, ezleique niór salva: baña laburrucodire escogituen amóres*, dió bere Magest(ade)ac.

Etorricodire Christio falsuac inentusténac milágro-idúri, ta prodigio, engañatzecó escogituac ere, possible balitz. Gucien gañetic goratucodá AntiChr(ist)o deitua, edo Chr(istor)én contráριοa, gaizqui jaioa gucia beteá malicias, ta árte gaichstos, ellegatucodéna izátera Erregue sujetatucotuéna erregueac ere, perseguitucodú Christiand(ade)a torm(en)tus, eriotzees, promessa, premio, ta prodigio falsus de man(er)a ezi aurquitu-

## 144

codá orduan Christio-guendea beñere baño erchidúra erruagócoan. Baña irur urteterdis solam(en)te erreinatuodú. Bitárteo bialicotú Jang(oicoa)c Enoch, eta Elias paraisotic, non baitauzqui erreservaturic ilgábe orduartáño. Ayéc desengañatucodúte géndeá Jang(oicoar)en itz ta milagro p(ro)prioequi: animatucodire Chr(ist)io onac irauterá constánte, Judíoac convertitucodire: ta bi sandugáiec azquénean ilaracicotú AntiChristoac Jerusalenen, baña Jang(oicoa)c erresucitatu ta iganéntu Cerúra; eta AntiChristoa ilendú Chr(ist)oc ta botacodú infernúra. Ondórean irauendú oráño múnduac bazuén ustés cembáit úrte, bercebátzuen ustés cembáit egúnes solam(en)te. (Barrad. t. 3. 1. 9. c. 7.)

Urbilduric azquen egúna, irúzquia paratucodá ilún, ilarrguia odoletán, izárrac erericodire Cerútic, Ceruetaco virtúteac icaratuco-dire: lúrrean berriz izanendá aguitz angústia, itsásoan nastecácio ta arroitú lotsagárria, géndeac arrituric confuso beldúrrac aguitucodé-nas. Ondórean assicodá súa barrátzen, errétzen, ta errausten gauza guciac. Guciá erraustuóndoan, bialicotú Jang(oicoa)c cerutic Ainguiruac, ta adiaracicodúte munduarén laur cantonetán bere trompetagárren soñu lotsagárria dióla, *surgite & Jaiquizaiste ilac, ta atóste juiciorá*. Istántean Cerútic, purgatoriotic, infernutic arimac, inendá araguiarén erresurréccioa Jang(oicoar)en virtútes juntátus berén gorputzéqui, gozatzecó edo penatzecó beticos gorputz ta arima(n) bacóchac merejiduenarén ariorá. Vizturic gucióc bilducogára Josafatco celáiean, ónac airean, gaichstoac lúrrean. Idiquicodire ce-

<sup>7</sup> *solam.* dago.

ruac, aguertucodá len lénean Chr(ist)oren gurútzea; goratucodá laméntua gendeéna, ta icuscodúte nola gurucificatuzuténa bera eldúden Magest(ad)e ta gloria andiaréqui, Ainguiru gucies acompañaturic, eta jarricodá bere trónoan góra, eta berai errenditucodá Céruan, lúrrean, infernuan dén gucia.

Berechsicotú onac escuiéco alderá, gaichstoac ezquerrecorá. An aguertucodire conciencien libruac, au dá, Jang(oicoa)c bere arguiaréqui icusiaracodigu guciéi gucién ta bacocharén vicimodu, accióne, itz, affécto, pensam(en)tu, ta secreto cén gucia. Aguertucodá Jang(oicoar)en providenciarén óna, favóre intuénac, gure correspond(enci)a & Claro manifestaturic gucia erreplicaeztaiquen guisan, emanendú azquen sent(enci)a: Justoéi, *Venite* & gaichstoei, *ite maledicti* & Onéqui lúrra idiquiric, jautsicodire condenátuac Deabruéqui & Guero iganendire jústoac Ainguiruéqui trumfánte<sup>8</sup> & Au dá gure oraico vicigone(n) erresulta, edo aguitz gaizqui beticos infern(u)an, edo aguitz óngui beticos glorian.

---

<sup>8</sup> *trumfánte* dio, eta ez *triumfánte*.

## Sermo alter in eadem Dominica Vicesima Quarta post Pentecostem

*De tentationibus.*

Cum videritis abominationem & Math. 24.

Egungo Evang(elio)ac<sup>1</sup> Jesu Chr(ist)oc adiarastentú trabáju ándiac guerorát, baña dió, *qui legit, intelligat*, leitzenduénac entendabéz: mostracécó eztéla erráz ente(n)dátzea noiz ta nola. *Cum videritis* & (usque ad, etiám electi.) Itzguebéqui ta berce ascoréqui ematendú aditzerá, etorcodiréla dembórac, noiz churturic virtútea, gainduric malicia, galduric errever(enci)a Jang(oicoar)en Magest(a-de)ai, gauza ta lecu sanduéli, triumfánte gaichstoac ta gaichstaquériac, herége ta heregiac milla maldade, falsed(ad)e, ta milágro-iduriéqui engañátu ta galaracináies ónac ere. Baña gure Jaunac eztitu utzico bereác. Emén orái galdeguitenbadu norbaitéc, cergátic bere Mag(estade)ac permititzenduén goradaitzen gaichstoac, ta heregeac munduán Chr(ist)io ónen cónta, errespuésta dá soñac uzcúrtzea, ta buruac apáltzea, echaquínes entendátzen Jang(oicoar)en juicio se-créto, baña justoen provid(en)cia, dagóna guretáco alchaturic guiltzapéan, eta ezin escudriña guc. Guri dagoquigúna dá prevenitzea irautecó firme ta constánte fedean ta leguean azquen atseráño. Era-custecó nola, billazágun gra(ci)a. Ave M(ari)a.

Gucióc gara obligátuac Jang(oico)ai, cein baita gucién princ(i-pi)o ta fin. Gubaitan dire bi gauza principalénac, entendam(en)tu ta borond(ate)a, berce potencien ta sentidoen gobernári becála: Biguébec lenic beaute egón gucis sujéto ta obediénte Jang(oico)ai; entenda-m(en)tua, sinestátus Jang(oicoar)en éguia fedescoác: borond(ate)a, cumplitus berarén mandam(en)tuac. Berás gure itéco lemb(icico)a dágo fédean, eta léguean, au dá, izátean fede óna, ta vicimodu óna; sinéstean dacána<sup>2</sup> Jang(oicoa)c errevelaturic, ta obrátzean nola

<sup>1</sup> *Evangelioac* dio, *Evangelioan* esan beharrean.

<sup>2</sup> *dacána* dio, *daucána* esan beharrean. *Ik. daucan* sei hitz geroago.



daucan manaturíc. Biguében cumplitzea beti dá possible ta precisso guciéi: níori ta nioiz eztá impossible Jang(oicoar)en gra(ci)aréqui: cembáit arima onéi dá erráz comunquiró; cembait gaichsto gaizqui usatuéi néque dá ta látz. Baña nola guizonarén vician anitz egún be-cála, anitz áldi ta aldárte, lance, ta escaida baitaique aguitu, cembaitetán edoceñi záio neque ta latz cu(m)plitzea, naiz beti dén possible. Bearrduguláic amátu Jang(oico)a gauza gucién gañetic, galdunáies guciác lenágo ezi offenditu bere Mag(estade)a, iduri-

145.

zaizu aisa déla passátzea trabáju, deshónre, eriótze, torm(en)tu, ta aláco lotsagárriac pacienciaréqui, ez offenditzeagátic Jang(oico)a? Eta bearrcó, ellegaturic láncea, ezin daiquéna excúsa. Eguia dá be-catu andiágo, ta co(n)denácio yagotáco déla offenditzea solam(en)te passiónes ta vicios aláco peligro ta erchiduraicgábe: baña offendit-zea ére trabájuen, torm(en)tuen, edo eriotzearen(n) beldúrres, edo viciarén amóres, asqui becátu dá condenátzeco. Daiquéna libra bie-taic, au dá, offenditzetic Jang(oico)a ta padecitzetic trab(aju)a, libra-bédi ordu onean; baña bat edo berce izatecós, libra arima, naiz il gorpútza.

Orgátic igués eguitea peligroetaic, ta ez peligroan aurquitzeagátic, zillégui dá: eta convéni, eta oblig(aci)o ere igués eguitegói, ezte-láic sénti arimo ta indárr ascoréqui, sufritzeco trabáju datorrquióna, ez faltatunáies fedean edo léguean: Eta lancegoiétan igués eguitea eztá culpa, ta ez deshónre, baicic ortan mostratzendá déla Chr(ist)io ona, ta izannaiduéla. Gaichstoágo litzáque goápo izátea ágos emainduéla vicia ere, ta gueró bearrórduan lotsátzea ta faltátzea. Goácen parátus cembáit exe(m)plu, entendátzeco doctrinagáu: Me-dianoqui óna dén bát bere bacantasunean, aguitzendá aurquitzea gaichstoen compañian: incitatzendúte gaichstaqueriará, lochsén-chus ta meáchus: cer imbeárdu emén? Albadaique escápa, escápa: ezpadaique, ez consénti gaizquian, lenágo beárda utzi iltzerá ere. Berce exe(m)plubát: Infielec edo heregêec, ta edocein arima gaichs-toec tentatzeunte edo ucatzera fedesco eguiarenbát, edo auchsterá Jang(oicoar)en mandam(en)ture(n)bát, escapa escápa, albadaique: baña ezpadaique, ta ezpáda berce erremedioric, lenágo utzibeárda iltzerá, ta errétzera viciric, ezi faltátu fedeái, mi sollas baicic ezpáda ére, edo eguin leguearén cónta. Latz dá, baña beárr dá. Utzileique ori alá ilcera edo erretzerá? diózu. Diót, eztaiquela fia nitas, baña diot imbearnuéna, ta guciéc imbearrdugúna. (Berce exemplubát. Arrapatzeunte emastequibát, ta guizónquias oroát diót, eta naidióte

passaráci deshonestidadebát. Albadaique escápa, escápa; ezperén, errepugna sínés, déla oius, déla berce módus, edocéin guisas ez admíti, ez consénti. Guciác eztió válio, diózu, ilendúte, ezpáda errenditzen. Utzibéarda iltzerá, lenágo ezi manchatzerá becátu mortálas.) Aisa dió orréc, diózu. Diót obligáció déna arimarén pénan, aisa edo ez aisa. Berce exemplubát: sospechatzendá eri dagóla bat sorrguinderías edo árte gaichstos: na-

145at.

iz bai, eztaique utzi sendatzerá arte gaichstos séculan, cerén ezi ortan ho(n)ratzendá Demonioa, ta offend(itz)en Jang(oico)a. Cer imbeárdu bada, ezpadaique senda berce guisas? Valia erremedio naturalees. Indu asco, baña debalde. Valia Elizaco errem(edio)es, oraciones, conjurioes & Indu ori ere, baña ezta prochuric. Eta gaitza duénac ona nái; bearrcodú valiátu arte gaichstoas. Eztaique, eztaique; lenágo il. Alá dá berce ásko gauza obligacengaitutenes &.

Ó combat lirázquen ón eta salvo, ezpalire izán tentátuac fuerteégui? Ó combat lemb(íctic)o Chr(ist)io gaitéaic, gu baño obeac cirénac, galdubaicire torm(en)tuen beldúrres, salvatucocire baque-dembóran? Onen ertean on izátea ezta milágro: gaichstoen érdian irautea ón, ori bai. Ó combat condenatzendiren, aurquituas lánce fuértean, ezperén salvatucocirénac? Oroát pénsa urréngoas, salvatucogára aguián, ezpadúgu tentáció érru andiric; eta cer izanendá, aurquituric erchidúran galcecó ánitx gauza, ta vicia bera, salvatzecós arima? Ó Jang(oico)ac guarda.

Cer erremedio izaindugu? Irur: lemb(íctico)a desconfiaturic gueure(n) buruas goártzea, ezcaitzen aurqui aláco erchiduretán: Bigarr(en)a escátzea humilqui gure Jaunái, ezdezan permiti aguidaquigun aláco tentáció fuerteric; Irug(arren)a permititzenbadu, iduquigaitzan, ta lagundu bere escu poderosoaréqui, ezcaitzen errenditu. Ontáco dá peticiogúra, *et ne nos inducas in tentationem*, Ezcaitzala utzi tentación erorcera: bi guisatará daique enténda, bat, ezcaitzala parátu tentac(io)an; bercea, ezcaitzála útzi garagaitzan<sup>3</sup> tentációac. Cerén ezi ezta go cáltea sentitzean tentaciónac, bai consentitzean. Aguián ezta convéni vicitzea tentaciónicgabe: Aguián tentación andiagócoac tuste sanduagócoec, nola S. Pabloc, ceñéc escaturic gure Jaunái, quenezóla tent(aci)obat, errespond(atuci)o, asqui duzu nere grac(ia), ezi virtutea progatzendá eritas(une)an. Aguián contra, ezta

<sup>3</sup> garagaitzan dio, garagaitzan esan beharrean.

co(n)veni tentácioa, ezpáda virtuteríc, ezi erorileique persóna: ceren ezi tentácioa dá nola súa. Súan erreñinatzendá urrea, alá tent(a-cio)an arima séndoa. Suan istante erraustendá lástoa ta abárr eárra; alá tent(acio)an arima lázo éria. S. Lidvvina<sup>4</sup> 33 urtes eri gorpú-tzean: S. Teresa casi vici gucian; berce asco guisa berean; eta tentaciogioiequi yago sandutucire. (exempl Tobi. Job &) Bercebatzúc galducoíre paciéncia-faltas. Eguia dá gaichstoénac diréla dirénac araguiarén confórme. Alácoes otoitz eguin ezdezála permiti sentidezágun, bentzáit ez consentidezágun: eta igués eguin daiquen gucian, ta eztelaic berce erremedioric, il lenago ezi admititu. Exempl. Susanna. Daniel 13.

---

<sup>4</sup> Hola dio *Lidvvina*, -vv- bikoitza erabiltzen duela.



## Sermo in Dominica infra Octavam Corporis Christi

*De sacramento, sacrificio, convivio.*

Homo quidam fecit caenam magnam. Luc. 14.  
Memoriam fecit mirabilium suorum. ps. 110.

Convidatzengaitu David sánduac gucióc dióla (ps. 45) *venite et videte & Zatóste, ta icusquizie Jangoicoaren<sup>1</sup> obrac, eguintuen prodigioac lurrigãnean*. Eztió beiratzecó án gora Ceruetán eguintuénac, nola irúzqui, ilárrgui, izárr, ta gañaráco miragárriac, baicic lúrrean eguintuénac. Cergátic ote? Cerén ezi *lúrra dágon heteric Jaunarén misericordias<sup>2</sup>*, (ps. 118) eta bere Magest(**ade**)a dén becála ándi miragárri, dirélaic andi miragárri bere óbra guciac, baña gucién gañetic dire bere gureganáco miseric(**ordi**)a, amóre, ta favoréscoac. (ps. 144) *miserationes eius super omnia & Alá clamatzendú ascotán, confitemini Domino, quoniam bonus & Confessazózie Jaunari, ceren baita óna, ceren eternidaderaño baita bere misericordia<sup>3</sup>*. Bérce ascotán echaquínes nola explica dió, *confiteantur Domino misericordiae eius, et mirabilia eius filiis hominum*. (ib. ps. 106.) *Confessabezóte Jaunari bere misericórdieac, eta bere miragárri eguintuénec guizónen humeéqui*. Ceruen Cérúa beretáco Jaun andiac erreservatuzué, baña lúrre emancióte guizónen humeéi vicitzéco disponitzen gloriaráco: Bitárteo lurréco pobre-guèben gãnean dauzqui paraturic bére bégui misericordiáscoac, bere biótza, bere amórea. Onen cásos ánitiz óbra ón intígu ta itentígu beti; principalénac dire bere comunicáco amoréscoac, ta desposorioguisa-bátzuc guizaguendearéqui. Goácen beréchsis cembáit.

<sup>1</sup> *Jang.*<sup>en</sup> dió.

<sup>2</sup> *miseric.*<sup>as</sup> dago.

<sup>3</sup> *miseric.*<sup>a</sup> dió.

Lembic(ico)a, *bere caridade*<sup>4</sup> *sobrania edo gueieguiagátic, ceñequi onestengaituen Jangoicoac*<sup>5</sup>, *bialízué bere sêmea*, (Efes. 2) *viztecó ta salvacecó gú ilac ta gálduac guinánoc ezperén*. Eguince Jang(oico)a guizón, eguitemecó guizonóc Jang(oic)o becála, bere aide, bere arágui ta odól berécoac. Bigarr(en)a bataioco sacram(en)tuan unitugaitu beréqui Jang(oic)oguizongónec erchiágo ere, nola zarrm(en)duac ayenaréqui, nola gorputzeco miembroac buruaréqui. Irug(arren)a confessioco sacram(en)tuan berriró arcengaitu beregána gra(ci)as, eta besarcátzen, itzulcengarélaic penaturic confessátus gueuren gaizqui eguinac apartatuguinánoc beragánic gueuren cúlpa. Laurg(a-rre)n des-

146at.

posório-guisa principál própria da comunioneo sacram(en)tuan arimaéqui celebratzenúen unióne erreál amoróso miragárria convitapreciosoaréqui. Au dá propioqui gure Jaunarén óbra ándia, bere óngui eguinen ta miragárrien memória, bilgúra, súma, ta coróna. *Memoriam fecit mirabilium suorum & Bere guizón eguina, jaiótzea, vicitzea, padecitzea ta iltzea guregátic berritzen, ta celebratzenú egunóro sacram(en)tugóntan*. Au dá dióna Evang(elio)an afári andibát eguinzuéla guizonbátec, *homo quídam fecit caenam & guizón bérri bacárr Jang(oic)o dénac*. Eztá miric explicadezaqueníc dén adiña milágroen milagrogáu: Contentatucogára erránes lláno ta cláro doctrina Christioa ónen gáñean, entendacecó nolapáit, eta sinestatzecó firmequi ta viciró gra(ci)a ongáu, ezi ori dá Euchar(isti)a. Eta báda ógui vici div(in)ogáu oratuzé Ama Virg(inar)en entráña sanduetán Esp(iri)tu sanduarén virtútes, eta acizé berarén ésne virginálas, bérac ema(n)dezágula gra(ci)a ezauncecó ta gozatzecó óngui. Ave Maria.

Jesús onarén milagroric andiéna, bere amóre ta favoreén memória, convitazquéna celebratzenúgu aldaréco mystérioan. Deitzen dá *mystério*, naibaitu errán secréto gaindadi bárna góra. Deitzen dá *sacramentu*<sup>6</sup>, au dá señále sagrátu aguéri significatzenúena gauza ta gra(ci)a aguéri ezténa. Deitzen dá *Eucaristia*<sup>7</sup>, naibaitu errán gra(ci)a óna, esquérr óna. Bérece izénac utziric, goácen izána icusterá: lenic lemb(icic)o fundációa. Jang(oic)o guizón eguinac, Jesus ta Jesu

<sup>4</sup> *carid.*: dio.

<sup>5</sup> *Jang.*<sup>o</sup> dago.

<sup>6</sup> *sacramtu* eta laburgailua.

<sup>7</sup> *Eucar.*<sup>o</sup> dago, eta ez dago *-ch-* grafemekin idatzia.

Chr(ist)o deitzendénac, gure salvazále amánte apassionátuac, jáio Virg(in)a Mariagánic ta vicitucénac ogueitamirur úrtes, eracutsiríc Ceruráco videa, plantaturíc bere Eliza, doctrina, ta bearrdirénac salvacéco, ellegatuceláic bere eriotzearén vézpera azquén arrátsa, cequiélaic pasatubearruén pássio doloréscóa gaugártan ta biramónean, *onetsicuelaic béreac munducoác, azquenerát onetsicitue*, dió S. Juanec; baña eztió cémbat eta nóla, impossible izánes errátea. Icusi-ric ilóndoan iganbearzuéla Cerúra berac, baña bere onétsiac guelditubearciréla mu(n)dua(n),

## 147

naiizánzue despeidan becála eguin bere amorearén azquén fineza, útzi bere favoreén, bére pássio ta eriotzearén memória, ta señalebát beticos. Arturic báda bére éscu divinoetán óguia, goraturic béguiaic Cerúra, ta gra(ci)ac emaníc bere Aita eternoarí, bedeicátu, partitu, ta emancióte bere Discipuloéi erratenciotéla, *arzázie ta janzázie ontaic guciéc, ezi au dá nere gorpútza*. Guéro alabér cáliza ardoaréqui arturic erránzue, *arzázie ta edanzázie, ezi au dá nere odóla*. Eta nola gure Jaunarén errátea baita obrátzea, istántean ógui ardoarén sustáncia aldatucé milagrosoqui bere gorpútza ta odól precísoen sustáncian.

Alabér nola ezpaizue ordúco solam(ent)e fundátzen sacram(en)-tua, ordenatucitue Apostoluac sacerd(ot)e, emánic potest(ad)e ordenátzeco, ta passacéco potest(ade)a batetic berceetára, ta eguitecó langúra juicioco eguneráño, erratenzuélaic, *Au eguitendúzien aldió-ro, eguinzázie ene memoriatán*. Alá bere itz errealarén cásos edocéin sacerd(ot)e óngui ordenátuac berarén no(m)brea erratentuélaic itz sandugáiec oguiarén ta ardoarén gáñean beárden intencioaréqui, obratzendá milágro béra Jesus berarén virtútes eta potestádes. Or-gátic ellegátzean sagrará edo consagráciorá sacerd(ote)a, yá ezta mintzo bere nómbre p(ro)prioan, baicic Jesus berarén nómbrean; eta alá *ezta guizonarén virtútes edo habilidádes eguiten an eguitendé-na, baicic Jangoico<sup>8</sup> denarén potestádes*; dió S. Juan Chrysost(omo)c, (in lectionibus Breviarii) *Jerusalénen azquén afarigártan inzuénac berac itendú emén ére. Gú ezcára baicic berarén Mutil, Ministro, edo page, baña consagrátzen, ta aldatzentuéna ogui árhoac dá bere Magestadea<sup>9</sup>. Berás Jesu Christorén<sup>10</sup> itza, dio S. Ambr(osi)oc, dá iten*

<sup>8</sup> *Jang.*º dio.

<sup>9</sup> *Magest.*º dio.

<sup>10</sup> *Chrorén* eta laburgailua.

*duéna sacramentugáu*<sup>11</sup>. *Cer itz? Itz poderosogúra, ceñéqui incituen gauza guciac etzireláic. Etzé lén Ceruric, etzé munduric, baña aizázu dióna, bérac errán ta eguincire, bérac manátu ta criatucire, ipse dixit & Bada oroát emén, consagratubañolén óguia cê ógui, eta ez Christorén*<sup>12</sup> *gorpútz; baña consagratuasguéros yá eztá ógui, baicic Christorén*<sup>13</sup> *gorpútz; berac errán ta eguinda, bérac manátu ta obratudá milágroa.* (oct. Corp. Ch.)

Onen confórme, Cer dá aldaréco sacram(en)tua? Dá hóstia consagr(atu)a, edo cáliza consagratua oroát. Cer naidu errán sacram(en)tu? Señale sagrátu secréto agueridenbát significatzenduéna berce gauzabát agueriezténa. Cer dá ague-

147at.

ridéna án? Béguis icustendéna, éscus uquitzen, gústias gustátzen, sentitzendéna dire oguiarén colórea, quantidádea, zapórea & deitzendirénac oguiarén accidénteac, idúriac, edo móstrac: Baña eztá án yá oguiric susta(n)cian; eta alá idúri ogui, ta eztá ógui; órtán dágo izátea sacram(en)tu secr(et)o sagr(at)u. Cer dá bada an dagóna, ta aguéri ezténa? Dá Jesu Chr(ist)orén preséncia erreála, ain ciérto, nola baitágo Céruan. Berás Jesu Chr(ist)o dágo an goiti céruan erreálqui, ta emén beiti lurrean bere sacram(en)tuan ain erreálqui? Dá eguietafédea. Cer módus dágo án, ta cer módus emén? An céruan dágo egotemódu naturál icusgárrian: emén sacram(en)tuan egotemódu sobrenaturál milagrósoan, icusieztaiquen guisan. Céruan dago jarriric edo chutiric, nola duén plácer; sacram(en)tuan egotemódu sobrenaturál milagrósoan, icusieztaiquen guisan. Céruan dago jarriric edo chutiric, nola duén plácer; sacram(en)tuan dágo milágnos nola naiduen ta dezáquen bérac, baña nic ezín explíca, ta ezín enténda ére óngui, bainaiz animaléfto lurrécoa, bai órdea sinésta firmequí aisa, cerén erranduéna, ta itenduéna baita Jang(oic)o gucis poderóso. Dágo alchaturic gure beguietaráco; hóstia chipian oroát nola andian, ta báteo milla ta milla lecután. Eta noraná doáien sacram(en)tua, doáie Jesu Chr(ist)orén preséncia, ezín falta. Baña faltaturic sacram(en)tua consumitus, edo bérece guisas, faltacendá berarén preséncia ére: Baña sacram(en)tua auchi, párti, ére edo bustiagátic, eztá orgátic auchsten, partitzen, ére, edo bustitzen Jesu Chr(ist)o sacram(en)tatua. Badacusáze yá, eztéla oroát sacra-

<sup>11</sup> *sacramtugáu* dio, eta laburgailua.

<sup>12</sup> *Chrorén* eta laburgailua.

<sup>13</sup> *Chrorén* eta laburgailua berriz ere.

m(en)tua, nola Jesus sacram(en)tátua. Sacram(en)tua dá señále, Jesús dá señalátua. Sacram(entu)a aguéri ta senti dá: Jesús eztá aguéri ta ez sénti, diót, gorputzarén sentidoendáco: Ezi arimarén vistas, au dá, fede vicias icustendá manerabátean; eta arima onarí sentiarastendá provéchu, gústo, amóre, ta effécto miragarriétan. Asco áldis beguietará ere mostratudá milagrosoqui bearrorduétan. Eta certáco dágo alá alchaturic? Gúre onnáies disimulaturic velogoiéqui bere Mag(estade)a tratáble, humil, humano, ezcaitzengátic sobra lótsa, ta apárta; *ezi icusbaguindez, nola leique atrévi ellegátzera ni becaláco-bát?* Dió S. Theresac. (cam. de perfeccion)<sup>14</sup> Baña dió sánda bérac, *eztágo ain alchaturic, ezi convenidelaic mostracendá asco manéras.* (ib. c. 34) Irúzquia naiz estáli, badáqui arguicen ta berótzen: Naiz alchat(ur)ic aurpéguia, badaqui erice(n) biótza

## 148

Orai certáco dágon, norc explica, norc cónta fin tuénac, ondásun, ta próchu ematentuénac? Artáco dágo, certáco etorricén mundúra, certáco jáio, vici, ta iltzen, ta eguin ta passatuzuén aimbérce trabáju. Naiz igánic Cerúra, guelditucé guréqui múnduan módu miragarrian gure ón guciétaco. Irur estádo-guisatán beirazágun; *yá sacramentuan*<sup>15</sup> presénte gau ta egún contino gutártean: *yá mezaco sacrificioan* ofracendéla egunóro maigárta(n); *yá comuniónean* ematendéla gure arimen erregálo naidugun guciétan. Lenic egotegói contino ain humil amoróso gure compañian desterrugóntan, gure lecuquide ta lagún edocéin érri chipitán ére, báda ezpáda norc in cáso. Alá erránzue igaterácoan Cerúra, ta alá dió orái ére; *et ecce ego vobiscum &* (Math. último) *Eta oná ni zuéqui nágo egún guciétan, múndua mundu*<sup>16</sup> *dén bitárteo.* Dichósoac tratatuzuténac, Jaunau vicicélaic, diózu. Eta berbéra erreálqui dúzu pausu gutiren bárnean. Icústea solam(ent)e zaizu fálda. Baña óri berói dá zure provechútan, gozátzeco aiságo ta obéqui. Fede vicia ecárgu, ta etzaizu deus fálda. Ordúco podórea ta amórea dú orái ere: Ordúco officioac iténtu orái ere, Maestru, Artzái, Medicu, consolazále, onguieguille, salvazále, ta cer nauzun ta beaunzun. Orduán becála orái ere dágo clamátzen ichsil ichsila, *venite ad me omnes & Atóste enegána trabajután zarátent gucióc, eta nic favoratucozaistet.* Eguia dá au, edo guezúrta dá?

<sup>14</sup> *perf.* dio.

<sup>15</sup> *sacramtuan* eta laburgailua.

<sup>16</sup> *modu* eta laburgailua.



Ain Eguia dá nola Evang(**elio**)a. Báda nóra goáz gueuren beárr, péna, ta tristuratán? Nola úsoac Noen arcará, nola chitac olloarén egalpéra, nola húmeac Amagána, dú Christio ónac errefúgio ezin óbea sacram(**en**)tuan, bera nor báda.

Bigarr(**en**)ic beira mezaco sacrific(**io**)an, nola, ez yá padecitzen ta iltzen, baicic berritzenbaitu pássio ta eriotzearén memoria, ta ofrácen bere gorpútz, odól, llága, péna ta merejim(**en**)tuac gure amóres egunóro. Cer dá beirátzea achsuriñto div(**in**)e amablegúra ain mánso, humil, amoróso sacerd(**ot**)e indignobáten alcinean ta escuétan? Ó fede vicia, cer eguinzára? Nola eznáu amoróste(**n**) ni, ta ni becalácoac? Amorostendú bere Aita etérnoa, baitio consagracendén aldióro, *ecce filius meus dilectus. Oná ene sème onétsia, ceintan baitut neure complacéncia*. Amorostentú bere Ama Virg(**in**)a, ta Serafinac, ta Ainguiruac, ta Sanduac. Eta cer litzáque múnduas, ezpaquindu múnduan achsuriñtogáu? Irúzquia faltabalédi, cein triste ilún gucía! Irúzqui ederrágo ta bearrágo dúgu al-

148at.

daréco achsúri div(**ino**)a. Ofratzendá Jesús óna Jang(**oico**)ai emáteco glória, placér, ta esquérrac gure pártes: Ama Virg(**in**)ái ta Cerucoéi gózo bérria; purgatoriocoéi alivio ta libránza: munducoéi ón gucía; justoéi gra(**ci**)arén aum(**en**)tu; becatariéi piedáde; barcatuéi satisf(**acci**)o; ta guciéi cer zaigun convéni gorputzarén ta arimarén, orai-co ta gueróco &

Irug(**arren**)ic beira comuniónean. Emén ezin casoric gorputzarén sentidoes, gústoas, ta gañarácoes, ezpaita gauzagáu gorputz-as-toaindáco; emén ondatzendá guizonarén entendam(**en**)tua ére, ezin daique elléga: Nori gogorátu, norc zúque pénsa passatzendéna erreálqui emén? ain óna izátea gure Jesús óna, ezi emandáien játera guizónai bera dén gucía? Eta ain ciérto dá óri, ta ciertoágo, ezi irúzquia déla árgui, cerén bérac errándu, *arzázie ta janzázie; au dá ene gorpútzta. Ni naiz ógui vicia Cerutic jautsinitzána & Dichóso ciréla tratatuzuténac Jaunau vician: Errecibituzuténac berén echeán: nola eztire dichóso, tratátzen, errecibitzen, comunicatzenduténac, éz echeán solam(**ent**)e, bai berén péchoen bárnea(**n**)? Cerén ezi comuniónea cer dá, baicic bién uniónea ta comunicácoia? ta comecátzea comunicátzea Jesus arimaréqui, ta arima Jesus onaréqui? Cer da comecátzea? Dá erregalátzea gloriaco Jaunac arima lurrécoa glorian dén erregalo obenaréqui, baita béra. Cer dá comecátzea? Dá biac ala nola desposátzea, ta baterátzea miragarriró, dión guisan Jesus becac, *in me manet, et ego in eo, enéqui unituric mantenitzendá, ta**

*ni beraréqui.* Errégue gloriaco ta ene arimarén Espóso; cer yago errandaique? Cer idurizaigu Espóso ta Esposagóntas? Cerc moguituzué Jaun div(ino)a bereganatzerá ene arima becálácoa? Bére ontásun, carid(ad)e, ta miseric(ordi)a p(ro)prioac. Cer doáie irabazterá bere Mag(estade)a? Eztú irabacibearric; eztoáie orrén billa, baicic emannáies pobreái. Ónen aldetic cerc mogitudú? Ónen misériac. Dótea ónec duéna dire alabér miseriac; baña guciá suplitze(n)dú bére misericórdiac. Desposorio-guisagáu, éguia erratéco, eztá cumplitzen ossoquí edo consumátzen oraico vicigóntan, baicic gloriaco vicitza seculácoan, nón gozatzenbaita ossóqui bere Mag(estade)a; baña emén ematendá gueróco gloriarén prénda; eta emén gozazteunte sanduec gloria-guisabát, lúrrean daiquen díña.

## 149

Orái cémbat provéchu, ondásun, ta gústo atrazteunte(n) comuniónetic, bérec dezáquete sénti, baña ezin explica bérec ére. Comuniónean santificatzendire, ta erráteco ala, Jangoicostátzen. Comuniónean túste berén consolácio, alegráncia, ta azorácio soberánoac gustoare(n) útses. Cer gústo dú bada? Eztáquit nic becatári póbreac, baicic úsmas; badáquit solam(en)te eztuéla arágui ta munduarén gustoric, baicic Cerúco gústo sobrenatural div(ino)a. Cer gústo? Castid(adear)en gústo, baita Ainguiruen óguia. Cer gústo? Humild(ad)e ta pacienciarén gústo, ezi oguigáu passioarén lábean érrea dá, ta vizcorcendú biótza sufricecó trabaj(ua)c. Cer gústo? Amorearén gústo, ezi súac sú becála, amóreac amóre ichequitzendú: eta cer arima dá ezténa amorósten aláco amazáleas, ta ain amábleas? Cer gústo? Contricioarén gústo, ezi atrarastentú negárr amorósoac, ez estimátuas bere Mag(estade)a beárr becála. Cer gústo? on guciarén ta salvacioarén gústo, ezi Jesús dá, ta bere gústo salvátzea. Cer gústo? Esperánza gozoarén gústo, glória-urrín, ezi ángo guiltzac bere éscuan dauzqui; ta ostátu óna ematendionái emén, idiquicodió atária án, ezi bere amazaleén amazále dá; eta nic amatzenbadút bere Mag(estade)a, badáquit amatzenauéla bere Magest(ade)ac ni; eta amatzenbanáu, sálvo náiz. Oh! cein salvatunáia dén! Ceruan dagólaic óngui, naibaitu egón emén ére guréqui, ta sufritu áscó desaténzio, ta sártu gure biotzétan bárna, eta joán edocéin éche ta echoletárra Viaticoguisa, favoráceco gú ilceco peligroa(n). Biz esquérr milla milla, ta laudário, ta amóre, ta glória, ta bedecio aláco amazaleari, ematendígúnai ondásun gücien itúrria. amen.

Orái comecátzeco disposicioas cembáit itz. Irur disposicio-guisa dacúsat, ala nola irur génde-móta: bátzuc gaichstoac, bercebátzuc

ónac, bercebátzuc mediánoac erdicál. Emén dá erreparacecò, nola ón izatecòs, beárden guciá ón izán, falta andiric bateregábe; eta gaichsto izatecò, asquidén fálda gravebát sollic edocèin generotán. *Duténac bada* vicio edo becátu mortalerenbát, garbitugábe penitenciaco sacram(en)tuan, dúte disposicio gaichsto indignoa. *Comecatzedirénac*<sup>17</sup> alá, *dire Jesu Christorén*<sup>18</sup> gorpútza ta odolarén oben-dún, edo rèo cul-

149at.

*padún; eta jatendúte juicioa edo condenácioa beren cóntra; dió S. Pablo:* (1 Cor. 11) nola traicia ta entregabalezáte Jesus óna Judas traidorearén guisará, edo ilbalezáte Judíoen guisará. Mortálean dago(n) ariman Nausi dá Deábrua; sárcea Jesús aláco ariman dá entregátzea Deabruái. Eztút náí mintzátu indignogoiétas. *Cóntra disposicio ón conveniéntea*, ezténa oblig(aci)o precissos, dá bi guisatán; bát urrundanic, vicidélaic aspaldían diligént ez manchacecò arima, duelaríc humild(ad)e, castid(ad)e, mortificácio, ta gucién gañétic carid(ad)e Jang(oicoar)en ta proximoen álde: bércea dá urbilécoa, ez solam(en)tje confessátus, baitáre alcinétic eguines cembait obra misericordiásco, penit(enci)a, ta gauza ón prevencios; baitaré prestátus biótza egún bérean meditátus óngui, ta ichéquis devocioare(n) súa *fúca*; FUCA naut errán, exercitátus affécto mostraceuntenetán itzgónen létrec; lemb(íci)oa F. fédea vitzus edo sinestátus viciró: bigarr(en)a U: humiltasúna, humillátus aguitz Jaunarén presencian: irug(arren)a C: contricioa, egónes errétzen péna amorósoan offendituas bere Mag(estade)a: laurg(arren)a A; amórea, egónes errétzen berarén amóre, ánsia, ta deséu onetán: Aláco disposicioai darraizquiu effécto, provéchu, ondásun, ta gústo errantudánac, ta andiagócoac; *Bérce disposio*<sup>19</sup> ón *precisso* bearrdèna ta ásqui dói dóia dá guciéc daquitèna, gorpuzarén aldétic báru, arimare(n) aldétic gra(ci)an joátea; edo gorpútza baruríc, ta arima garbiríc, mortaleetáic berére, garbitus precisso ebetáic confessioco lichsuas. Aláco disposicioái darráio gra(ci)arén aum(en)tu ta provéchu yágo edo gutiágo; ta gusto ére aguián devocioarén ariorá. Estíma, naiduénac icúsi Jang(oicoar)en aurréguia Céruan, estíma, diót, bere Magest(ade)a alchaturíc sacram(en)tuan; eztiónac casoric eguinnái emén, eztú cer esperátu

<sup>17</sup> *Comecatzedirénac* eta laburgailua.

<sup>18</sup> *Chrorén* eta laburgailua.

<sup>19</sup> *disposio*, espero den *disposicio* esan beharrean. Ez dago laburgailurik.

án: Estíma começátus óngui, enzúnes mézac, eguines visita templo-  
rá, ta celebrátus sacram(en)tuarén féstac finqui. Festagáu paratuzué  
Urbano IV 1264 úrtea(n): Procéssioa Concilio Viennácoac 1311 úr-  
tean; Cerútic lendanic ce(m)báit avisu, ta lúrrean cembáit milágro  
izánic ortáco. Guc becatári pobreéc imitazágun Cananéa, (narra ex  
Math. 15) lográceco orái gra(ci)a, ta guéro glória.

**Pange lingua euscarás<sup>1</sup> aldareco  
samentuaren<sup>2</sup> festan**

Cánta, mia, glorióso  
Jesúsen oneguiá,  
Gorpútz odól precióso  
Emandigun guciá,  
Eguinic bera amoróso  
Erregálo berriá.

Guri emanda, guregátic  
Jangoicoaren semeá  
Amarén entrañetátic  
Jaiodá, ta gureá  
Vici ta ilda bai orgátic  
Mostrátus amoreá.

Eracústén ta manátzen  
Salvatzeco bearrdená  
Beti egonda, ta parátzen  
Bere Elizan ordená,  
Favoréac beti obratzen,  
Ta azquenean obená.

Azquen arrats ta afarían  
Jarriric bereequí

Cumplituric yá gucián  
Lengo leguearequí,  
Bera emanda janarían,  
Bera bere escuequí.

Ogui ta ardo len cirénac  
Gorpútz odol bereác  
Itzulitu dezaquénac  
Jesusen podoreác:  
Gozatzentu emén dirénac  
Fedéac ta amoreác.

Sacramentugáu goréna  
Gucis venerazagún,  
Ontan gure amantéena  
Jesus ona amazagún,  
Sentidos ezin daiquéna  
Fedes suplidezagún.

Trintate Jaun andiari  
Goitian ta beitián  
Jaun gucién buruari  
Milla canta gucián,  
Ta esquerr milla biz berari  
Emén eta glorián. Amen.

<sup>1</sup> Juan Apecechea-k argitaraua, berak paratutako i. iru honetan: Joakin LIZARRA-GA, Elkanokoa. *Koplak* (Ik. 187. orrialdea).

<sup>2</sup> *sacram.<sup>m</sup>* dio.

V. Emandigu Cerutic oguía  
R. Duéna berequi gusto gucía.

### **Oracioa**

Ô gure Jaun Jang(**oico**)a sacra-

m(**en**)tu miragárrian utzidigú-  
na bere passioare(**n**) memoria,  
emanbezágu otoi alá estima-  
tzea berórren gorpútz ta odóla-  
re(**n**) misterio sagr(**atu**)ac, ezi  
gurebaitan sentidezágun Re-  
dencioare(**n**) fruitua contino &

150at.

## Sacris solemnii euscarás<sup>1</sup>

Jai berri-andías biz alegrancía,  
Ta biotz gucías cantáceco an-  
sía,  
Despéi yá lengoac; gucía berría,  
Óbrac, vózac, ta gogoac.

Celebratzen dúgu azquén afa-  
ría.  
Non Jesus baitúgu jaten achsu-  
ría  
Apostoluéqui, baicen iduría  
Indenaréna beréqui.

Arren ondoréan achsúri berría  
Inic amoréan Jesus oneguía  
Sustentu amabiei emanda gucía  
Bacóchai eta guciei.

Emanda pobreíi gorpútza ja-  
nari,  
Emanda tristeíi odolá - edari,  
Naiz idurituric ogui ta ardóari  
Jesus bera da alchaturic.  
Jesus dena emanic guciac arzá-  
ze,

Berac ala erranic, jan eta edan-  
záze,  
Itenduzenetan, betíro eguinzá-  
ze  
Au ene memoriétan.

Ta sacrificiíoa - ala fundaturic,  
Onen officiíoa dago manaturic  
Sacerdotéeri, ta berec arturic  
Emateco gucieri.

Ogui cerucóa dúzu yá, guizo-  
na,  
Zure munducóa donóen coro-  
na;  
Gauza admirabléac! Jaténgu  
Jaun ona  
Esclávo humil ta pobréac.

Jangoico Jauna zú Jesus onare-  
qui  
Laudatzenzaitugu biotz gucie-  
qui  
Oraico vícian, seguizágun beti  
Eternidade gucian. Amen.

<sup>1</sup> Ik. Apecechea-ren liburua, 190. eta hurr. orrialdeetan. Lerroak banatzean, eskuidat-  
zian dauden bezala egiten dugu.

## Alchaturic iruzquía<sup>1</sup>

Alchaturic iruzquía  
Velogórren atzeán,  
Bai ta ene biotzeán  
Ichequitzen su vicia.

Jesus onac amatzen  
Lurreco arima pobréa!  
Nola arimac amoréa  
Jesus onai ucatzen?

Biótz chárria, cergatic  
Amaneric obenái  
Eztiózu onetsinái?  
Charr izánes, orgatic.

Bera dá gucis nobléa,  
Gucis abráts liberála,  
Gucis edérr, nai becála,  
Gucis ona ta amabléa.

Amaneric andiéna<sup>2</sup>  
gure arimen dá Jesús;  
Nola amoregónen sús  
Eztá errétzen vicidéna?

Gure billa Cerutíc  
Etorricen<sup>3</sup>, ta gucia  
In gugátic, ta vicia  
Emanzuen<sup>4</sup> gogotic.

Infernura botaríc  
Guina gaizqui gu guizónac;  
Atragaitu Jesus ónac  
Infinito costaríc.

### 151

Ta gucien ondoréan  
Nola dago alchaturíc?  
Dago preso loturíc  
Bere amóres aldaréan.

Lenic préso portaléan,  
Présu guéro baratzéan,  
Guéro présu pilaréan,  
Présu guéro gurutzéan.

Portaléan pachsaéqui,

<sup>1</sup> Izenburua gurea da: Lizarragak ez du ezer ipintzen. *Ik.* Apecechearen liburuan, 181. eta hurr. orrialdeetan.

<sup>2</sup> Azentua *-i-* bokalaren gainean ipintzen du, beraz *andiena* dio.

<sup>3</sup> *Etorricen* esaten du, aditz laguntzailearen bukaerako *-n* ez duela kentzen.

<sup>4</sup> *Emanzuen* dio orain, laguntzaileak *-n* gordetzen duela.



Baratzéan cateéqui,  
 Pilaréan socaéqui,  
 Gurutzéan itzeéqui.

Norc ordéa lótu dú?  
 Etzén<sup>5</sup> ásqui pachsaríc,  
 Itze, cate, socaríc:  
 Amoréac eguindú.

Norc zezáque garaitú  
 Gucis poderoso déna?  
 Baña niórc etzuquéna,  
 Amoréac eguindú.

Nondic nora apaldudú  
 Norc ta nola Jangoicóa?  
 Icasázu. Milagróa  
 Amoréac eguindú.

Aurr leníc Ama Marian,  
 Guero gurutzéan galdu,  
 Orái berriz alá apaldu  
 Oguiarén idurían!

Ain andía ta ain chipí  
 Jesus ori enegatic;  
 Badacúsat cergatic,  
 Amorosteagatic ní.

Jesus onac maite ní<sup>6</sup>.  
 Nic ere maite Jesus:  
 Ô amoregonen sús  
 Erre ta ilbanindedí! amen.  
 amen

Barimbádat biotzíc<sup>7</sup>,  
 Jesus, naidut ilartáño  
 Yágo ori gucíac báño,  
 Ori naidut bacarric.

Nola beárdut amatú  
 Ain amánte ta amabléa?  
 Ain onégui ta nobléa  
 Nola beardut pagatú?

Enegatic jaioric,  
 Vici ta ilce enegatic,  
 Emén daucat orañic:  
 Norc indida alacoric?

Salduzúen<sup>8</sup> traidoréac  
 An dirútan itsusquí:  
 Emén gracias ederrquí  
 Dút, emanic amoréac.

An utzicen<sup>9</sup> atratzéra  
 Bere odóla dolorés;  
 Emén berriz amorés  
 Ematendit edatéra.

An Judúec zaticátzen  
 Gucía llagaturíc;  
 Emén bera alchaturíc  
 Bere llágac presentátzen.

An ilzúten<sup>10</sup> gurutzéan,  
 Nola balitz becatári:  
 Emén daucat yá janári  
 Bere onéguis aldaréan.

<sup>5</sup> *Etzén* dio, -n eta guzti.

<sup>6</sup> Bertso hau tinta apalago batez dago idatzia, eta orrialdean behetik gora kokatua.

<sup>7</sup> Aurreko bertsoaren ondotik «amen, amen» duelarik, pentsa daiteke hori poemaren bukaera dela. Hala ere, kontuan harturik gaia, bertso lerroen neurria, etabar, poema bat balitz bezala ematen dugu dena. Apececheac ere hori bera egiten du.

<sup>8</sup> *Salduzúen*, -n eta guzti.

<sup>9</sup> *utzicen*, -n eta guzti.

<sup>10</sup> *ilzúten*, -n eta guzti.

Ene arimarén Espóso,  
Ta erregálo barnerá  
Elduzaida ematerá  
Ezin yagos amoróso.

151at.

Cer naidu, ene Jesus ona,  
Enebaitan sarturíc?  
Besárca naidu arturíc  
Salvátu bere guizóna.

Bere onetic apegátu  
Jesus, naidida nirí,  
Ezdezaten orrequí  
Berce gauzaric amatu.

Nitzáque ni traidoréa  
Amabáñez berceríc;  
Merejidu bacarríc  
Bai gucíen amoréa.

Eztá aláco gustoric  
Ón gucíes beteric,  
Eztá aláco amanteríc,  
Ori becalacoric.

Orren mái péan egón  
Ala nola chacurrĩtoá  
Echidéten apurrĩtoá  
Obe dút ezi nión.

Orren maieco apurrĩtoác  
Orren grácian ta amoréan  
Naitut yago ezi batéan  
Mundu gucico gustóac.

Uznezázque bai sinés

Gucíac berladanic,  
Naies berorrenanic  
Beiratzebat amorés.

Ô Jesus, cein ona dén!  
Ô noraño apalcendá!  
Ezi desposatzendá  
Bai arimaréqui emén!

Jesus Jauna, bere Espósa  
Ene arima itenbadú,  
Errégue dá, ta inendú  
Erreguina bai dichósa.

Esperánzagonetán  
Naidut vici, ta ez eróri;  
Fiadóre dut beróri,  
Guelditudá prendatán.

Amengonéqui vidéan  
Indárr ta consolu dút,  
Onéqui sinestendút  
Atra salvo bearrenéan.

An goiti guero glorián  
Gozátu berorrequí,  
Cantatus alegreguí<sup>11</sup>  
Ainguirúen compañian.

Jesus ene Salvadóre  
Beti izán, ta izanendá,  
Salvatzéa segúr dá,  
Baitu amóre ta podóre.

Orái emén curturíc  
Orren oñetan Jesús  
Diót amoresco sús  
Negarretan urturíc:

<sup>11</sup> *alegreguí* dio, -g- idazten duela, eta ez espero den -q-; beraz ez dio *alegreguí*.

Barcátu, Jauna, barcátu  
Niri bere onagatic,  
Otoi otoi orgatic,  
Eznazála condenátu.

Grácia, Jauna, gra(**ci**)a imbéz  
Gaichstogonéqui, cerén  
Ori gucis ona dén,  
Orren onac suplibéz. amen.

## Sermo de Animabus Purgatorii, poenis, suffragiis, fructu & Anno. 1790. Huart<sup>1</sup>

Manus Domini tetigit me. Job. 19.

Berri ustegabecobát naidut contátu leníc. Gure Erréguec justiciarén amóres preso inomentú bere hume p(ro)prioac, cerén intúten cembáit zorr, ta pagátu ez, erresolucioréqui ez uztecó atrátzera carceletic, pagatuárteo azque(n) maravidiráño. Ain jústoá dá! Orgátic maite tú bere humegáiec, ta adiaraztendú bere erreinu gucian, estimatucoduéla indezóten carid(ad)e nautenéc preso errealegáiei biá-lis nola dezaquéten, acabatzecó pagátus lénbaño lén, orréqui andic atraric izandaitzen admitituac Erreguerén palácioan: eta alá Erréguec, nola ayéc iduquicotutéla presénte onguieguilleac. Orrá nic emanic mézua. Aitudúcie? ta admiratuzaráte? eta entendátu?. *Haec autém est parabola*. Goácen entendátus. Erreguegáu dá Jang(oico)a. Bere humeac purgatorioan daudénac, bere escogitu onétsiac, beraréqui erreinatubeautenác goiz edo beránt: Bitárteo órdea dauzqui preso carcel lotsagarrigártan, cembáit zorr emén in, ta pagatueztute-nengátic. Zorrguébec dire becátu barcátuen penac gueldituac pagatzecó; baitaré culpa veniáleac ez barcátuac. Cierto dá, becátu guciétan diréla bi gaitz, *Culpa ta pena*. Cúlpa dá Jang(oico)ai inicáco agráviao; oni darráio becatariarén pena, edo satisfácio<sup>2</sup> emanbear-dióna Jang(oico)ai. Naiz barcaturic confessioarén edo contricioarén medios culpa, guelditzendá comunquiró yago edo gutiágo pena pagatzecó emén edo purgatórioan, choil ezpáda ain érrua contricioa, ezi onen amargúra admitidézon Jang(oico)ac satisfaciótán, barca-zecó cúlpa ta pena.

<sup>1</sup> Iruñerriko *Uharte*-n predikatua, 1790. urtean.

<sup>2</sup> Hola hemen: *satisfácio*, -c- bakunarekin eta berdin geroxeago: *satisfaciótan*; baina -cc- bikoitzarekin *satisfáccioas* 154at. orrialdean, paragrafo 2, lerro 13. Bestalde, -cc- bikoitzarekin idazten da hitz hau *Lizarragaren Ongui iltzen laguntzeco itzagaiac* liburuan.

Goáza iles gucióc, cumplitus becála norc bere viciarén plazoa: iltzea eztá baicic beréchstea gorputzetic arima joatecó Jang(**oicoar**)en juiciorá aitzera sent(**enci**)a. Gorpútzac guelditzendire lurreán lurr becála, azquen juicioco eguneraño, noiz erresucitaturic asicodiren acompañaizen arimac premioan edo penan. Arimac doáz irur estadoetáic bátean (contatugábe aurrenác) batzúc becátu mortálean Jang(**oicoar**)en desgra(**ci**)an, ebéc infernuco sú eternora erremedio-ricgábe betícos, *in ignem aeternum*. Bercebatzúc Ja(**n**)g(**oicoar**)en gra(**ci**)an ta gucis gárbi sándu; ebéc gloriará zuzén betícos, *in vitam aeternam*. Bercebatzúc alabér gra(**ci**)an mortalericgábe, baña ez ain gucis gárbi sandu, baitúte ce(**m**)báit culpa leve, edo pena zórr, satisf(**acci**)o<sup>3</sup> ósoa emangábe: ebéc purgatoriorá: Beude orr, dio Jang(**oi-co**)ac, eztúte atrabeárr, pagatuárteo gucia azquén maravidiraño, *donèc reddas novissimum quadrantem*. Munduan, nola baita merejitze-co lecu ta de(**m**)bóra, gutiagoréqui daique paga yágo ta aiságo; baña purgatóriogan, nola ezpaita irabázteco dembóra, pagatzendúte sola-m(**en**)te pena passátus. Arrációac ere ematendú; ezi yágo estimatzen-dá satisf(**acci**)o ematendéna bére escus bere dembóra(**n**), ezi ez uzten-déna sartuartaño carcelean pagatzecó án penátus ezin bérceas. Mun-

152at.

duan bada pagadaique yago ta merqueágo eguines ongui ta penátus; an aguitz n(**e**)ques<sup>4</sup> ta cário: emén ellesco azótes, án su vicis. Alaére ain ajola guti eguiteas peni(tencia)<sup>4</sup> emén! (Eta, Jauna, anitz otedire doacinac purgatoriorá? Eztaquit: Daquiténa dá, eztaiquela sarr Ceruan duenic máncha dén chipiéna ere, purgatugábe arrás: alá dió fedead. Daquiténa dá, ásko sanduc passatudutéla purgat(**ori**): alá dióte S. Severinos, S. Annos<sup>5</sup>, S. Udalricos, ta bercebátzues historia eguiáscoec; eta cembaites dióte S. Greg(**ori**)oc S. Pedro Damianoc, ta berce Autoreéc. Emén bego advertituric, eztéla beárr sinestátu edoceñei arimen aparicio diotenetán, cerén naiz daiquen águi bat edo bat eguiásco Jang(**oicoar**)en permissios, ascotán izatendire burúto flacoen imaginációac; baitaré hypocriten engañuac; baitaré Deabruarén astúciac, yá sinestarastecó simpleei diréla sanduac, yá lazarastecó, edo confiarastecó vicimodu lázoan. Sinesta Jesu Chr(**is-t**)ori, ceñec etorric Cerútíc eracutsidigun Ceruráco videa bere

<sup>3</sup> Guk *satisfaccio* idazten dugu orain eta paragrafo honetan bertan ere, zebait lerro beherago.

<sup>4</sup> Parentesi artean ipintzen duguna ezin da irakurri, papera hautsirik dagoelako.

<sup>5</sup> Uste dugunez, *Annon* saindua da, *Koloniako* Artzapezpikua izan zena (1056-1075).

Evang(**elio**)an. Ez ez sinésta Deabruari, baicic joán vide erchi Chr(**ist**)oc diónas, obrátus norc bere salvácioa beldúrr eta lotsaré-qui, dión becála S. Pabloc, *cum metu et tremore vestram salutem operamini*, ezi *justoa doi doia salvatucobarimbáda*, diónes S. Pedroc, *cerizanenda becatárias? Si justus vix salvabitur* & Advérta alabér, eztaie-la bat conténta naiizáteas ellegátzea purgatoriorá doi doia, ta gorá-go ez. Oh! Arára banindédi, contént nitzáque, diózu. Bai ta ni ére; baña deseoc apúnta gorágo, guelditzecó ártan berére: ezperén aguidaique erórcea apalágo. Arrácioa dá, ceren gure naturále eriarén casos gure obrac comúnqui eztire ellegátzen deseoen diña. Besoan indárr guti, jomúga gora; ellegatzecó árria, cer itendá? Apuntátu gorágo, gueldidáien chústuan berére. Alá deseoc, Cerúra náies, ellegatzecó purgatoriorá berére.)

Eta nolaco faltengátic detenitzenduéla án Jang(**oico**)ac arima, us-tedúgu? Ah! emén aisa passatzentugunengátic erreparoicgábe; án ez-paitire alá passátzen; báia erchiágo baita. Quarto dágon bátean erdi árgui, eztire icústén ásko autsmota: Emanbézo irúzquiac, icuscodá be-teric ayétas. Alá Jang(**oicoar**)en presencia(n) arima. Eta cembat dem-bóras dauzqui purgátzen án? Sollic Jang(**oicoa**)c dáqui pizátzen culpen ta penen neurria, penitencien ta suffrágioen valioa. Leitzendá cembáit Autoreetán, ez egúnac solam(**en**)te ta ilabeteac, baita úrteac ere, ta urte anitz egondiréla ásko. (Videsis Señeri s. 9. quadragesimae. Item Palafox luz de Vivos) Eztá ori chsaquitecó gucis emén; baña beldúrr dai-que dirauten penec, nola culpac ere diren yago, ustedén baño. Eta valiobadu arrácioac, nornaieac sent(**enci**)a emanbéz. Becátu iteco goápo, penit(**enci**)a iteco flaco gueienóc; anitz zorr, guti pagátzen, ta egunóro zorr berriac egúiten: átra cóntua. Especialqui ezpaute eméndic anitz suffragio, ezi presogáiec, errán becála, eztúte án iragazvideric<sup>6</sup>, baicic penátus beárcó pagátu. Ain pobre dire, ain necessid(**ad**)e extremoan daude, ezi beréc ezin irabáci<sup>7</sup>, ta guri ezin adiaráci berén beárta, be-

## 153

(ren)<sup>4</sup> penac, lástimac, ta lam(**en**)tácioac, ezi aibaguindezqui, nor ez leique urricári? Baña (—)<sup>4</sup> aditzearéqui, yá solam(**en**)te dezóquete valia Chr(**ist**)io-lagunen fédeac ta carid(**ade**)ac. Aguitz (o)ngui<sup>4</sup> Hermandáde Sandugónec itendu ayen favóre, gañarácoes lándara paraturic predicua egún, moguitzecó guciac guitera miseric(**ordi**)a

<sup>6</sup> Lizarragak *iragazvide* dio hemen, -g- erabiltzen duela. *Ik.* hurrengo.

<sup>7</sup> Orain *irabáci* dago, -b- ipintzen duela.

pobregaiei.) Ayén mandatári becála eldunáiz ni egún, eta beira nagóla idurizaida, nola dagozquidan otói ta otói, mintzonádien aien pártes aien favóre, adiarácis aien beárra. Baña ontaráño dire pobre, izáteas mandatária ain epél inútila. Yá cer inendá, arima pobreñtoac? Compassiónea etzaida fálda: gañarácoa izatecós, án goratic etorribeárda. Zuéi dagoquizie lográtzea. Nic ineunténa dá errátea cláro ta lláno, entendanazáten guciéc. Billazágun gra(**ci**)a. Ó gloriaco limosnéra, Maria Santissima<sup>8</sup>, Jang(**oicoar**)én ta becatárien Ama, poderósa bezain piadósa, Jang(**oicoar**)én izénean limosnabát; eta ez-tiót, albadezáque, cerén badezáque segurqui, naibádu: naibez bada, otói, eta eguinbez gra(**ci**)a. Ave M(**ari**)a = =:

*Manus Domini tetigit me. Job. 19.*

*Andia dá Jangoicoaren*<sup>9</sup> *miseriordia*<sup>10</sup>, cantatzendigúte maiz ásqi mundúcoec: justicia ichsil, ez aipátzen ere. Ónac beti beldúrrac, *cum metu et tremore*; gaichstoac consolaturic berén cantagorréqui, andia déla Jang(**oicoar**)en miseric(**ordi**)a. Aitudúgu, ta placér dúgu: Baña aizágun berce eguietafedegáu ere, andia déla Jang(**oicoar**)en justicia: Jústoá bera, jústoá bere juicioa; ta lotsagárri dá erórcea Jang(**oic**)o viciarén escuétan. Naidu ta itendu miseric(**ordi**)a; baña ezdezáque útzi eguitecó justicia. Badáqui castigátzen gaichstoac, nola premiátzen ónac: Eta yago déna, pagarásten zorduténa ónec azquen maravidiraño. Orgátic inférnuan bezáin óngui edo obéqui purgatórioan dá aguéri bere justiciarén andia, ceréngátic án castigatzentú bere etsái aborrecituac, emén bere hume onétsiac. Infernuco atárian legóque ongui letragáu, *digitus Dei est hic*, Jang(**oicoar**)en eria dabila emén. Purgatoriocoan bercegáu, *manus Domini*, Jang(**oicoar**)en éscua emén; ez cerén eri edo escuric dén Jang(**oico**)an, ez, baicic mostratzecó bere justiciaren rigórea arima sandagaiéqui; baitaude, naiz paciéncia ándian, clamátzen, *manus Domini tetigit me*, Jaunarén éscuac uquitunáu ni: Chr(**ist**)io-lagúnac urricári nitas.

1. Dá eguía fedéscoa, Tridentinoac declarátua, *badéla purgatório*; ta *án dauden ariméi valiatzendiotéla fièlen suffrágioec*. Orrá bi puntu. Assis lenetic: Purgator(**i**)o deitzendá, cerén purgátzen edo purificatzentuén arimac, cerura bañolén. Noláco penaéqui? Eztá miric explicadezaquenic gucis: aipátzea inéndut nolapáit. Bi pena-gé-

<sup>8</sup> *SSma* eta laburgailua.

<sup>9</sup> *Jang*:<sup>en</sup> dio.

<sup>10</sup> *miseri.*<sup>a</sup> dago.

nero túste, deitzendirénac dañuarén pena, ta sentidoarén pena. Dañuaréna dá egótea berén faltas privaturic icustetic Jang(**oicoar**)en aurpégua bitártean: penaguisagáu eztúgu entendatucó emén lurrean ongui, egotearéqui arima gorputzgónen loiaréqui pizútu ta itsuturic; baña án libre loigóntaic yago ánsia ta inclináció dú bere Jaunagána, ezi súac duén gorarát, arriac bera, ta ezúrr átreac bere

153at.

toquirá, ezauncen ere baitu emén ez becála. Oh! aguitz amáblea ta deseagarria (da)<sup>4</sup> bere Magest(**ade**)a! Emén ére cembáit arima ón vicibarimbacire penátzen ezin sosseg(a)<sup>4</sup> Jang(**oicoar**)en icusmiñes, cer izanendá án? *Inguindúza beretáco, Jauna, erratención S. Agus(tinec)<sup>4</sup> ta ezin daique gure biótza soséga, ezpada orrenbaitan. Fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum & Cer erranendút S. Theresas? Cémbat áldis ilénce ansiaren útses? Eta beti ére cégo iltzen ilnáies joateagátic bere Jaunagána: ta alá cantatzenzué amorósa. Vicinaiz ta ez enebaitan, ta aláco viciain beira nago, ezi ez iltzeas iltzen nágo. Ariogóntára contanezáque milla. Cémbat obéqui arimagáiec daudénac gorputzetáic libre joátecó bere centrorá, detenituric videan, ansiaturic logratunáies, nái ta ezin elléga? Ó cer pena au? Nic ere pena dútz ezin adiarázteas; nái ta ezin explíca. Ya goácen comparácios. Contu inzágun, Errégue andibátec autatuduéla bere Esposatáco doncélla pobretát: yá bialituéla bere Jaundiác onen ésque: yá doaiéla videan: echidéten Errégue ta grandéza gucia, preventuric féstac, burrumbac, gauza andíac: Bitárteo yá yá porturá ellegátzean, bere descuidos arrapátu Moroec, ta daramatéla cautiva, ta paratzendutéla calabózo ilún, penáscoan. Cer desgra(**ci**)a! Pénsa orái, alá dacusaláic bere burua, non ta nola dagon, non ta nola egonbearzuén, cer arren tristúra? Cer arren congójac, ayótsac, eta negárrac? Baña au eztá deus purgatoriocobáten penarén áldean icústas ceruráco escogituric Jang(**oicoar**)en gra(**ci**)as Esposa ta erreguina, bere culpas detenituric Jang(**oicoar**)en manam(**en**)dus penásco lecegártan. *Heu mihi, quia incolatus meus & Ay nitas, dió, cein luzaró diráuen nere presidiogónecc? Quando veniam, et apparebo &**

(Ez presidioan, bai Jerusaléngo Córtean cégo Absalón, gra(**ci**)a incioliác bere Aita Davidec, *badatórque, baña ez aguertu ene preséncian*. Penagáu sollic zue arc, ez yago, ta alaére erregaloen érdian clamatzenzué contíno, *Emanbequída licencia*<sup>11</sup> joatecó icusterá ene

<sup>11</sup> *licencia* eta laburgailua.



*Aitare* aurpégua, *ezperén*, *quenbezáda vicia*. Motivo yago dú clámátzeco dagónac purgatórioan Jang(**oicoar**)en icusináies. Badú conformid(**ad**)e, baña péna ére andia dú, cerén ondásun faltazióina ongui ezauncendú, ta amatzendú, ta amorearén ariorá dá dolórea. S. Catal(**in**)a de Genova, munduan cegoláic oraño, icustenzituen ilá-ri guciétan, urtzenoménce pénas eta negárres, ez aien joánas, bai bararén guelditzeas, invidia-guisabátes ilnáiac ta joannáiac icusterá Jang(**oicoar**)en aurpégua. Sancha Carrillo Venerab(**lea**)c, errevelá-cio izánic ilencéla urtebáten buruan, berantetsiric continuo contátus egúnac suspiratzenzue, ô carcela au! Ô prisíoneac! Ô Martyrio lucea! Cer martyrio eztú arimac purgatórioa(**n**)? Cein luzaró nequés passatzenzaizquion órduac eta egúnac?) Baña berdin<sup>12</sup> lurréco satitsuec ezin comprehénde pena-guisagáu, utzágun; icuságun bércea.

Au dá sentidoarén péna sentitzenduéna arimac sú vicigártan, non dágon garbitzen ta errefinátzen nola urrea sulábean, Purgabit... et colabit eos quasi aurum.

## 154

(A)rdorearén<sup>4</sup> esp(**iri**)tuan, *in spiritu ardoris*, dió Isaiasec, au dá suaren vici viciénean. Ton(ter)ia<sup>4</sup> litzáque billátzea comparacioric ango suarí emengo suetán. Dio S. Agust(**in**)ec, *Erranendú aguián norbaittec, niri deus guti zaida egóteas luzaró purgatorioan*<sup>13</sup>, *nola noaien cerúra azquenéco. Ez errán alacoric*, dió sánduac, *ezi ángo penac erruágo dire, ezi emén icúsi, sénti, ta pensadaiquen gucia*. Figurabedi personabát beteric lacerias, oñaces, martyrios, ta affligigárrí gucies báteo: Lastimagárrí dá, baña ez aimbérce nola arima purgatoriócoa. Mostratáco contatzendú Alberto M(**agn**)oc (Andr. Itin. gr. 32. § 9) eri aguitz nequetán cegonbáti, Jang(**oicoar**)en ordes Ainguiruac autará emaníc, edo urtebát yago egótea guisagártan, edo irur egún purgat(**orio**)an, au autaturic aiságos, órdu guti passaturic án, yá iduriomencéquio urtebát, ta guezúrr incióla Ainguiruac; Desengañatuzué onéc; eta arren gorpútza cególa oraño bere quártan, naibázue itzúli. Itzúli bai itzúli botzic, naiagozuelá anitz oñacé anitz urtes emén, ezi ordubát án. Contatzen ere dá Mongebátes ilcela bere Abadearén bedecioagábe; lic(**enci**)a emaníc, itzulicéla escatzerá penit(**en**)cia: Abadeac erranciólá, biz bada zure penit(**enci**)a egótea purgatórioan orciárteo zure gorpútza. Emanzuéla arc oiubát aditu-

<sup>12</sup> *berdin* ipintzen du, ez *bardin*.

<sup>13</sup> *purgat.<sup>on</sup>* dago.

céna conv(en)tu gucian, Ô penit(enci)a miseric(ordi)agabecoa! Ô penit(enci)a & de manera ezi arrituric guciác, ta urricaturic prisacá joancire orcitzerá len baño lén. Orrá cer dióten ángo penas progatuduténc. Cierito vicidénac ezin lezáque sopórta ilgábe erruaren útses. Aita Estanislao Colcocha Dominicoari aparecituric purgatoriocobát, arren peticios emanzézon cerbáit mostra bere penarén, emancio escurá negárr chortaĩobát, ceñec istántean passatución alderén alde arágui ta ezúrr escúcoa, gueldituric guizonói desmaiaturic. (Claus p. 2. Conc. c. 151) Beda venerab(lea)c contatzendú, nola Tritelmoc Jang(oicoar)en provid(en)cias icusiric purgatoria yá gueróstic itencituen penit(enci)a icaragárriac, eta erratenzuén, gogorragocoac icusitút, beroagocoác, erruagocoác & (Claus p. 2. Cath. c. 36) Alaére dúte co(n)formid(ad)e ándia, yá cerén seguro dauden Ceruráco diréla, yá cerén uquitzentuénac berac asistitzendioten; baitaré aldártes M(ari)a Santissimac<sup>14</sup>, ta Ainguiruec ematendióten cerbáit alivio ta consólu: munduco devotoec ere bai.

2. Tratazágun óntas yá, diót, suffragio indezozquegúnes. Lem-b(icic)o ta obéna déla Meza Sandua, eztaique duda. oh! aguitz valiodú án ofratzandén achsurifogárrrec: guciétáco dá ón Jesus óna. Fortunósoac sacerd(ote)ac, nor badire, dabilátenac aimbérce ondásun escuétan. Nindoéie errátera dauzquitela berén escuetan purgatorioco guiltzac. Valiadaizque gañarácoac ere, edo offrecitus mezac, edo enzúnes. Alabér ciérto dá orácio ta officio itentuénc Elizac, ta onen nómbrean bere Ministroec, diréla valiosoágo, ezi ite(n)tuénac bacóchac beréchs. Baña valiodióte gure orácio guciéc yago edo gu-tiágo de-

*154at.*

